

Subjektibitatea nobelagintzan. Stephen Crane-ren "The Red Badge of Courage"

Egilea: LAURA MINTEGI LAKARRA
Urtea: 1999
Zuzendaria: NIKOLÁS XAMARDO GONZALEZ
Unibertsitatea: UPV/EHU
ISBN: 978-84-8438-149-5

Hitzaurrea

Tesi honen gaia Stephen Crane-ren nobela baten azterketa da funtsean, “*The Red Badge of Courage*” nobelaren azterketa hain zuzen. Nobela hori, subjektibitatearen ikuspuntutik begiratuta funtsezkoa da, bertan agertzen baita ezohiko egoera batean egonik, indibiduoak jasaten dituen presioekiko erantzuna; beraren egitura subjektiboaren (imajinarioaren) apurketa eta desintegrazioa; errealaren bidez (egoera apurtzailearen bidez) imajinario berri baten berrosaketa, eta, azkenik, subjektibazioaren prozeduraren osaketa, azalezinezko une batean subjektu berria sortuz.

Helburua, beste modu batera esanda, prozesu subjektiboaren une horren azalpena egitea da, edo hobeto esanda, azaltzeko saioa egitea. Kanpotiko arazoak direla medio (gertaera pertsonala, ezbeharrak, gerra...) subjektua desegin egiten denean, hau da, desubjektibazio-prozesu bat ezagutzen duenean, konfigurazio berria sortarazi behar du berriz ere, eta bere arlo imajinarioa berrosatu. Tesi honen nahia prozesu osoaren azalpena egitea da, angustiatik kuraiaraino doan bidea agerian jartzea, literaturak eskaintzen digun adibide praktiko baten bidez: Stephen Crane-ren nobelan argiro azaltzen baita subjektibazio-prozesu osoa. Helburua lortzeko, lagungarri ditugu filosofia eta psikoanalisiak. Zientzia biek agerian ipini dute zein diren subjektibazio-prozesu horretan parte hartzen duten barne-mekanismoak, neurgarriak diren elementuak eta neurtezinak direnak ere, kontroletik kanpoko prozesuak baitaude subjektibazioan, logikatik at daudenak, aurreikustezinak direnak, ezusteko prozesuak alegia.

Helburua, finean, subjektuaren deskonposaketaren ostean berriz osatu arteko zer hori bilatzea da. Filosofiak eta psikoanalisiak sekuentzia eskaini izan digute, baina ez-osotua. Badakigu zer egin duen subjektuak berrosaketa burutu ahal izateko (angustia zegoen lekuan kuraiak agertarazi), baina ez dakigu nola edo zergatik egin duen, ez dakigu zein den erresortea, eragingailua. Seguruen, prozesuaren une hori esaezinezkoa delako, azalezinezkoa. Hala ere, tesiaren helburua une horretara ahalik eta gehien hurbiltzea da, testu literarioen laguntza erabiliz. Zehatz-mehatz esaterik ez badago ere, gure helburua ahalik eta gehien betetzea da, osatzea, angustiatik kuraiaraino doan bidea *ikustea*.

Tesiaren funtsean dagoen beste arazoa ondokoa dugu, berrosaketaren prozesuan agertzen den *egia* azaltzea, eta sortarazten duen fideltasuna agerian jartzea, denboran iraungarria den fideltasuna, alegia. Fideltasuna honek dakarkigu, hain zuzen, une hura *une betierekoa* bihurtzea.

Subjektibitatea Nobelagintzan

Stephen Crane-ren *The Red Badge of Courage*

Doktore-tesia

Egilea: Laura MINTEGI LAKARRA

Zuzendaria: Nikolas XAMARDO GONZALEZ

**Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea
1998eko Urria**

*Pankarta baten atzetik
subjektibitatea zer den
irakatsi didatenei
Eskerrik onitz*

Eskerrak emanez

Justiziazkoa da Jose Luis Herrero-ri eskerrak ematea. Berak luzaturiko laguntzarik gabe ezin izango nuen tesi hau burutu.

Nikolas Xamardo zuzendari ona izateaz gain, adiskide, aholkulari eta bultzatzailea izan da une oro. Eskerrik asko.

Antton Azkargorta-k eskaini didan laguntza neurtezina da, zentzu guztietan. Berari zor diot, gainera, azken zuzenketaren lan eskergaitza.

Linda White-k hasieratik eskaini zidan laguntza pertsonala eta teknikoa, eta zinez eskertu nahi diot hainbat informazio lortzeko adierazi zuen interesa.

University of Nevada-ko Basque Studies Program-eko kideei esker, guztiz probetxagarria izan zen dokumentazio bila Iparramerikan emandako denboraldia.

Natacha Michel eta Alain Badiou-rekin Paris-en izandako solasaldi anitzak guztiz eskergarriak izan ziren tesiaren hastapenetan, gaia bideratzeko unean alegia.

Carlos Castaño eta Josetxu Madariaga lankide onak eta adiskide hobeak izan dira doktoregaitzaren prozesuan zehar.

Jose Ramon Etxebarria-ri alde linguistikoa zuzentzeko luzatu didan laguntza paregabea eskertu nahi diot.

Iñaki Zabaleta-ren adiskidetasunak eta laguntasun informatikoak berebiziko garrantzia izan dute tesia burutzean.

Guztiei, mila esker, bihotzez.

Aurkibide Orokorra

ESKERRAK EMANEZ	3
Aurkibide Orokorra	5
SARRERA	7
Atalaren Aurkibidea	9
Atalean aipaturiko Bibliografia	25
STEPHEN CRANE	27
Atalaren Aurkibidea	29
Atalean aipaturiko Bibliografia	136
SUBJEKTIBITATEAREN TEORILARIAK	143
Atalaren Aurkibidea	145
Atalean aipaturiko Bibliografia	227
“THE RED BADGE OF COURAGE”REN AZTERKETA	231
Atalaren Aurkibidea	233
Atalean aipaturiko Bibliografia	320
ONDORIOAK	322
Atalaren Aurkibidea	325
Atalean aipaturiko Bibliografia	340
BIBLIOGRAFIA OROKORRA	341
DOKUMENTAZIOA	366
Atalaren Aurkibidea	369

Sarrera

Atalaren Aurkibidea

IKERKETAREN HELBURUA.....	11
GAIAREKIKO EGOERA	12
IKERKETAREN ATALAK.....	13
TESIAREN JUSTIFIKAZIOA:	14
Freud, Lacan eta Badiou	16
Conrad	20
“The Red Badge of Courage”	21

Ikerketaren helburua

Tesi honen gaia Stephen Crane-ren nobela baten azterketa da funtsean, “*The Red Badge of Courage*” nobelaren azterketa hain zuzen. Nobela hori, subjektibitatearen ikuspuntutik begiratuta funtsezkoa da, bertan agertzen baita ezohiko egoera batean egonik, indibiduoak jasaten dituen presioekiko erantzuna; beraren egitura subjektiboaren (imajinarioaren) apurketa eta desintegrazioa; errealaren bidez (egoera apurtzailearen bidez) imajinario berri baten berrosaketa, eta, azkenik, subjektibazioaren prozeduraren osaketa, azalezinezko une batean subjektu berria sortuz.

Helburua, beste modu batera esanda, prozesu subjektiboaren une horren azalpena egitea da, edo hobeto esanda, azaltzeko saioa egitea. Kanpotiko arazoak direla medio (gertaera pertsonala, ezbeharrak, gerra...) subjektua desegin egiten denean, hau da, desubjektibazio-prozesu bat ezagutzen duenean, konfigurazio berria sortarazi behar du berriz ere, eta bere arlo imajinarioa berrosatu. Tesi honen nahia prozesu osoaren azalpena egitea da, angustiatik kuraiaraino doan bidea agerian jartzea, literaturak eskaintzen digun adibide praktiko baten bidez: Stephen Crane-ren nobelan argiro azaltzen baita subjektibazio-prozesu osoa. Helburua lortzeko, lagungarri ditugu filosofia eta psikoanalisiak. Zientzia biek agerian ipini dute zein diren subjektibazio-prozesu horretan parte hartzen duten barne-mekanismoak, neurgarriak diren elementuak eta neurtezinak direnak ere, kontrolatik kanpoko prozesuak baitaude subjektibazioan, logikatik at daudenak, aurreikustezinak direnak, ezusteko prozesuak alegia.

Helburua, finean, subjektuaren deskonposaketaren ostean berriz osatu arteko *zer* hori bilatzea da. Filosofiak eta psikoanalisiak sekuentzia eskaini izan digute, baina ez osotua. Badakigu zer egin duen subjektuak berrosaketa burutu ahal izateko (angustia zegoen lekuan kuria agertarazi), baina ez dakigu nola edo zergatik egin duen, ez dakigu zein den erresortea, eragingailua. Seguruen, prozesuaren une hori esaezinezkoa delako, azalezinezkoa. Hala ere, tesiaren helburua une horretara ahalik eta gehien hurbiltzea da, testu literarioen laguntza erabiliz. Zehatz-mehatz esaterik ez badago ere,

gure helburua ahalik eta gehien betetzea da, osatzea, angustiatik kuraiaraino doan bidea *ikustea*.

Tesiaren funtsean dagoen beste arazoa ondokoa dugu, berrosaketaren prozesuan agertzen den *egia* azaltzea, eta sortarazten duen fideltasuna agerian jartzea, denboran iraungarria den fideltasuna, alegia. Fideltasuna honek dakarkigu, hain zuzen, une hura *une betierekoa* bihurtzea.

Gaiarekiko egoera

Lehenago eta behin, **Stephen Crane**-ri eta beronen nobelari lotuko gatazkie. Egilearen biografia azalduko dugu, eta honekin batera, kritika amerikarrak “*The Red Badge of Courage*” nobelari buruz esandakoa. **Kritika amerikarrak**, ordea, irakurketa konbentzionala egin du Crane-ren nobelaz, ez-nahikoa den irakurketa, eta Crane-ren mezua azaltzeke utzi du. Kritika konbentzionalak ez ditu ikusi nobela honetan agertzen diren desubjektibazio-prozesua lehenik, eta bersubjektibazio-prozesua ondoren. Rol sozialetik abiatuta baino gehiago (amerikarren joera), emozioetatik aztertu beharra dago nobela hau, psikoanalisiak egindako ekarpenak abiapuntu modura hartuz¹.

Honela bada, **Freud** eta **Lacan**-en eskutik abiatu gara psikoanalisian, eta bi egile hauek **Badiou**-ren “*Théorie du sujet*”eraino eramán gaituzte, subjektibitatearen arloan zeharo interesgarria den filosofoa Alain Badiou egile frantsesa baita.

Badiou-k berak hitz egin digu Joseph **Conrad**-i buruz (hau Crane-ren lagun mina zen, ez da kasualitatea) eta egile honek subjektibitatearen ikerketarako duen garrantziaz. Conrad-en eskutik berriz ere murgildu gara literaturgintzan, nobelaren azterketan.

¹ Psikoanaliaren aurretik emozioen sailkapen interesgarria egin zuen Spinoza-k “*Etika*” liburuan (SPINOZA 1996). Lan honetan oinarritzen dira emozioei buruz geroago idatzi diren lan gehienak,

Conrad-ek marrazten dituen giza ereduak, ordea, literatura klasikoan ere agertzen ziren jada². Subjektua ez da berria. Berria da subjektibitateari buruzko teorizazioa, hots, subjektua begiratzeko ikusmoldea. Ikusmolde berriaz irakurri dugu, azkenik, Stephen Crane-ren nobela. Hauxe izan da, beraz, *“The Red Badge of Courage”* aztertzeke unea, subjektibitate-prozesuaren pauso guztiak bertan aurkitu baititugu, literalki aurkitu ere. Ondoren **ondorioak** atera ditugu, eta hasierako susmoa (kritika amerikarrak asmatu ez dueneko) baieztatu dugu.

Ikerketaren atalak

1. STEPHEN CRANE

Crane-ren biografia eta idazgintza.

“The Red Badge of Courage” nobelaz kritikak esandakoa.

2. SUBJEKTIBITATEAREN TEORILARIAK

Freud-en Topikak.

Lacan-en ekarpenak.

Badiou-ren *“Théorie du sujet”*.

Conrad-en subjektibitatea.

3. TESIAREN CORPUSA

“The Red Badge of Courage” ren azterketa.

4. ONDORIOAK

(KIERKEGAARD 1967), (MARTIN 1974), (SARTRE 1983), (ROJAS), (BODEI 1995) eta (MARINA 1996), esaterako.

² Eskilo eta Sofocles-en lanetan ere ikus ditzakegu subjektu conradiarrak, lehenaren *“Prometeo”* eta *“Orestes”* lanetan eta bigarrenaren *“Antigona”* lanean. Eskilo-ren ekarpena da antolatzea superniaren eremuan garatzen den hausdura eratzaila. Beraren lanetan inoiz ez da egoten ordenurako itzulbiderik, ordenu ezberdin baten ezarpena baizik. Eskilo-k baztertu egin zuen jatorrizko batasunaren auresuposizioa. Angustiak jota egon arren (eta angustiak jota egotearren), Orestes-ek ez zuen baitaratu odolaren lege zaharra, baina ez zuen ezta ere, amorraren itsukeriaz, beraren aurka jo.

5. BIBLIOGRAFIA

6. DOKUMENTAZIOA

“*The Red Badge of Courage*” testua.

Argazkiak

Tesiaren justifikazioa:

Dena hasi zen lagun baten gomendioaz. Stephen Crane-ren nobela bat irakurtzeko esan zidan, ia-ia eskatu egin zidan —oso ona zen-eta— eta eskuetan utzi zidan. Irakurri egin nuen, eta ez zitzaidan gustatu. Hori da egia. Nabariegia iruditu zitzaidan, esplizituegia. Narratzailea pertsonaia nagusiaren barnetik mintzatzen da nobelan, hirugarren pertsonan baina lehenengoa bailitzan, eta pertsonaiari burutik pasatu guztia kontatzen dio irakurleari, norberak zertxobait osatzeko zirrikiturik txikiena utzi gabe. Ezin izan nuen nobela irakurtzen amaitu lehen saio hartan. Lagunak —tematia bera—, behin eta berriz ekiten zuen ordea. Irakurri behar nuela alegia. “Baina ez al zaizu gustatzen? Nola da posible? Ez al duzu ikusten zein maisuki agertzen den subjektuaren apurketa eta ondorengo berrosaketa? Ez al duzu ikusten angustia, etsipena, kuraia?”. Angustia bai, nabariro sentiarazten zidan angustia Stephen Crane-ren pertsonaiak. Hori egia zen, eta egia zen, baita ere, ez dakit nola, angustiari (beldurrari esango zuten Estatu Batuetako kritikari cranetiar askok) aurre egin eta kuraia adierazten zuela une batean, ia amaieran. Baina azken momentuko kuraia hura ikusteaz aparte³, ez nion beste zerik ikusten nobelari, ikuspuntu literariotik behinik behin.

Honela, bada, berriro hasi nintzen irakurtzen Stephen Crane-ren lana, desgustura hasieran —ezetz esaten ez jakitearren—, baina apurka-apurka interes handiagoa hartuz, batez ere Crane-ren bizitza laburraz eta bizitza labor horretan izan zituen gorabeheraz

³ Kuraia horri esker, berriz ikusi zuen argia pertsonaiak bere bizitzan, zulotik ateratzea lortu zuen, iluntasunetik itxaropenera pasatzea.

jakin nuenean. Interesa areagotu egin zen, gainera, Joseph Conrad-en lagun mina izan zela irakurtzean, hain zuzen ere Conrad-en liburuen irakurketan denbora luze-luzea eman bainuen urte batzuk lehenago. Eta ez soilik beraren nobelak irakurriz, baizik eta Conrad-ek hitzurre batzuetan egiten zituen hausnarketa literarioak ere, zeharo interesgarriak zireak nire irudiko⁴.

Honela bada, Crane-ren bizitza ezagutuz, gehiago harrapatu ninduen egileak berak, egile honek asmatuiko pertsonaiak baino. Hogeitazortzi urteko bizitza laburrean uste baino gauza gehiago egin eta, batez ere, proposamen literario uste baino interesgarriagoak azaldu zituelako, ordurartekoekin gonbaratuta. Guztiz nobedosoak. Kritika amerikarrak berari buruz esandakoa irakurri eta gero, asmatu ez zutela deliberatu nuen. Ez zuten asmatu Stephen-en nortasuna azaltzen ahalegindu zirenean⁵, eta ez zuten asmatu beraren nobela aztertzen saiatu zirenean ere. Crane-ren helburua ez baitzen istorioak kontatzea (literaturgintzan anekdota deitzen duguna), ezta gertaera hutsak, abenturak edo akzioa azaltzea ere. Bere helburu argiena pertsonak agertaraztea zen, pertsonen ardurak, barne-istiluak, egonezinak. Azaltzen digun gizateria ez dago lasai, arazoak ditu, eta erabakitzeke tenorean egoten da normalean⁶. Bere pertsonaiek angustia sentitzen dute, beldurra, ihes egiteko gogo, lotsa, etsipena, kemena, adorea, kuria...

Angustia eta kuraiaren atzean zer dagoen jakiteko, hutsean ez ibiltzeko, sentikeriez baino sentimenduen mamiaz aritzeko, alegia, beharrezko ikusi nuen subjektibitatearen teorilariengana jotzea, Freud eta Lacan-engana lehenago, beraiek baitira psikoanalisiaren sortzaileak, eta Badiou-rengana ondoren, subjektuari buruz egin den teoria osoenaren egilea delako.

⁴ Esaten ari garenen adibide hobereana, “*El Negro de ‘Narcissus’*” (CONRAD 1985) nobelan agertzen den hitzaurrea dugu, edozein literatur kritikarientzat perla bitxia dena. “*La flecha de oro*” nobelan ere hitzurre laburra baina oso esanguratsua aurki dezakegu, eta ez da ahaztu behar “*Notes of Life and Letters*” liburu autobiografikoan egiten dituen hausnarketa mamitsuak, (CONRAD 1926).

⁵ Idatzitako biografiek erakusten duten bezala, biografo batetik bestera alde nabariak agertzen dira Crane-ren nortasuna azaltzerakoan.

⁶ Hain zuzen ere Joseph Conrad-ek duen estilo bera, gizakiaren arima hogeitamar liburutan zehar agerian utzi duena.

Freud, Lacan eta Badiou

Lacan eta Badiou-k irakatsi zidaten zein den dessubjektibazio-prozesua, eta prozesu horretan angustiak jokatzen duen papera: zerbaiten sintoma izatea, alegia. Apurketa-prozesua burutu arte gizakia subjektua ez dela ikasi nuen. Gizakia indibidua da (*indibisioa*, zatikaezina), unitatea, osoa, eta subjektua aldiz, definizioz, apurgarria da, zatikagarria, duda-mudazkoa, ezbaian dagoena, zalantza etengabea, egin eta eginahiaren arteko haustura nozitzen duena, izan eta izanahiaren arteko zatiketa. Horixe da, hain zuzen, Conrad-en nobela gehienetan agertzen diren pertsonaien ezaugarria: pertsonaia atsekabetuak dira, eta hil ala biziko egoera pairatzen dute. Arre ala so egiteko tenorean daude. Stephen Crane-ren pertsonaiari ere gauza bera gertatzen zaio: *Henry Fleming* zalantza nortua da, puntu ezkorrenetik baikortasunera berehala pasatzen dena, eta elkarren segidan, unean, pozetik berriz ere etsipenera igaro daitekeena. Hori guztia muturreko egoera batean egonik, jakina, gerran, erasoaldi baten erdian. *Henry Fleming*, angustiaren irudia da.

Lacan, psikoanalista izanik⁷, betidanik arduratu izan zen subjektuaren barne-gatazkaz, beraren bezeroak pertsona paranoiko, eskizofreniko edo (eta) neurotikoak zirelako; nortasun-arazo larriak zituzten gaixoak ziren. Freud-en metodoak nahikoak ez zirela konturatu zen Lacan. Psikoanalisi klasikoaren helburua pertsona gatazkatsuak berriz ere gizartean integratzea baldin bazen ere, gaixo asko integratzen ziren. Errealitatearekiko haria apurturik zuten, hautsirik, eta ez ziren gai errealitatea eta buruan sorturiko fikzioa bereizteko. Ondorioz, porrot-kopuru handia izaten zuten psikoanalistek. Irtenbide bakarra gaixoak baztertzea zen, txokoratzea, zoroetxeetan sartzea, finean.

Lacan-ek ez zuen etsi. Ez zuen nahi izan amore eman. “Zoro” deiturikoek beste terapia bat behar zutela uste izan zuen eta, beraz, haiek gizarte normalduan integratzerik ez bazuen, eremu fiktizioan mantendu behar zirela uste zuen, nolabaiteko zorientasuna

⁷ Lacan ez zettorren bat psikoanalista amerikarrek hartutako praxiaz; desbideraturik zeudela uste zuen eta korrante freudzale berria sortu zuen Frantzian.

eman liezaiekeela, erreala ez bazen ere. Ardura honetatik abiatuta garatu zuen bere teoria, psikoanalisi lacaniarra hain zuzen. Lacan-ek aztertu zuen, grafikoki aztertu ere, gizarte normalduan ezarrita dauden indarguneak (bai eta guneen arteko erlazioa ere), eta indargune baktzari izena eman zion. Honela bada, Lacan-en hitzak erabiliz, **sinbolikoa** boterea da, agintea, hots, politikan estatua (Freud-ek *supernia* deitzen zuena, eta familiaren eremuan aitak bereganatzen duen funtzioa. Lacan-ek *niaren ideala* deitzen du sarritan, hau da, eredu soziala, imitagarria dena); **imajinarioa** da nork bere buruari buruz duen irudia, gure ustez besteek gutaz ikusten dutena (*ni ideala* ere dei genezaioke, eta Freud-en *niarekin* konpara liteke); arlo honetan eraikitzen ditugu gure proiektuak, asmoak, helburuak; honen bidez lortzen dugu sinbolikoarekiko lotura; azkenik, **erreala** dugu, definizioz dena, mugimendu etengabea dagoena, ikuezina, hots, ezin da hitzez gauzatu, ezta eskema batean marraztu ere; sentimenduak dira, pentsamendu desordenatuak, inpulsoak, joerak, euskaldunon *gogoa*, borondatea (Freud-ek antzekoa definitu zuen *zera* izenpean; berak *inkontzientea* ere deitu zuen indar harrapezin hau).

Lacan-ek esan zuen badagoela kontsistentzia sinbolikoa, botere inposatuaren inguruan eratzen den egoera egonkorra, eta indibiduoarengandik kanpoko indarra duela ardatz, baina gaixoentzat ez dela irtenbidea. Beraz, beste kontsistentzia bat eratu behar zela pentsatu zuen, gaixoei oreka emango zien egitura berri eta iraunkorra, baina gizartearen egituretatik kanpo egon behar zuena. Kontsistentzia honek lortuko zuen gaixoaren angustia ekiditea, nolabait bideratzea; eta, beraz, ez zuen eduki behar sinbolikoa oinarri gisa, baizik eta imajinarioa, hau da, erreferentea *supernia* izan ordez, *nia* izango zen bere ardatza: gaixo bakoitzaren inguruan eratuko zen egitura berri bat, beharrian espezifikoei lotua. Horixe izango zen kontsistentzia imajinarioa, nolabaiteko egonkortasuna eduki behar zuena. Gaixoaren angustia gutxitzea edo leuntzea lortuko zuen (ez baitzen egongo honez gero *superniaren* menpean), baina errealean antza izan beharko luke, gaixoak pentsa dezan bizitza normaldua daramala, errealean bailitzan bizi dadin. Arazoa zen hori sortzea, nolabait gauzatzea, ez baitzen artean existitzen. Dema ez zen erraza.

Korapilo borromeoa izan zen Lacan-en lorpena, subjektuari *superniaren*

kanpotiko egonkortasuna eskaintzeko ahaleginean. Ordaindu beharreko lehen bidaisaria angustia zen ordea. Angustiaren bidez azaltzen dira egonezinaren sintomak, aurretiko egitura guztiak kolokan jartzen direnean. Angustia ez da bilatu behar; berez agertzen da kontsistentzia sinbolikoaren egitura⁸ inposatzen denean. Angustiaren zulorik sakonenera jausten da indibidua (*gaixoa*, Lacan-en kasuan; *pertsonaia* gure kasuan), eta sentsazio hori nolabait arindu behar zaio, angustia bideratzen denean bakarrik berrosa dezakeelako indibiduoak bere *ni galdua*. Galdutako kemena berreskuratzeko **desirak** (gogoa) bultzatzen du berriz ere egiaren eremura. Inposatutakoa baztertu ondoren (“*ez dut egingo egiteko esaten didatena*”, “*ez dut egin nahi egin behar nukeena*”, “*ez naiz gai egiteko nigandik espero dena*”...) subjektu bihurtuko da imajinarioaren arloan murgilduz. Imajinario honek angustia gutxitzea lortzen du. Henry Fleming-en jokabidean ondo ikusten da prozesu osoa. Lehenengo une batean, zeharo angustiatuak, bere jokaera sinbolikoaren menpekoea da, ez du ikusten irtenbiderik. Bigarren une batean, aldiz, bere angustia bideratzea lortu duenean, ausartki jokatu du guda-zelaian, nahiz eta oraindik ez duen agertu kuraia. Angustia menperatzea nahikoa izan da, jokabidea aldatzeko. Jokaera lacaniarra adierazi du, argi eta garbi. Arazoa hau da: aurrekoarekin apurtzeko eta berria sortzeko, zerk eman dio indarra? Nola pasatu da angustiatik kuraiara?

Lacan-ek ez zuen jakin erantzuten. Bere teorian hiru garai ezberdin nabari daitezke. Hasierako urteetan sinbolikoaz baino ez zen mintzatzen. Bigarren garaian, ordea, desiraz hasi zen mintzo, eta hirugarrenean, kuraia zuen helburu; kuraiaren inguruan eratu zuen bere teorizazioa. Edonola ere, egitura zaharra eta egitura berria marraztu ondoren, ezin izan zuen esan batetik besterako jauzia nola egiten den. Une hori zegoen faltan. Une erabakiorra, indar azalezina nola agertzen den, ez zuen esaterik.

Une honetan heldu nintzen Badiou-rengana. Badiou ahalegindu egin da pauso bat gehiago ematen, edo Rimbaud-ek zioenez, “*tenir le pas gagné*”, hau da, “*irabazitako pausoari eusten*”⁹. Badiou-ren irudiko, filosofia garaikidearen historia

⁸ Eta honekin batera datozen beste menpekotasun guztiak ezartzen direnean ere.

⁹ “*Une saison en enfer*” poema, in (RIMBAUD 1987) 233 or.

osoa angustiaren agerpena da, Kant-engandik Hegel-engana, eta gauza bera gertatu izan da literaturaren historian: angustia beti izan da nagusi, emankorra da-eta. Gutxi izan dira —gutxiegia, Eskilo salbu, ia inor ez— kuraiaren idazleak, edo beste modu batera esateko, kuraia ardatz hartuta pertsonaiak eratu dituzten idazleak.

Badiou-k kuraiari heldu dio, kuraia teorizatzeari behinik behin, berak idatzi baitu subjektuari buruzko azken teorizazioa. Parametroak marraztu ditu eta pauso bat gehiago eman du. Ez da subjektibitatearen azken pausoa, jakina, subjektibitatea ez baita itxi daitekeen zirkulu bat; baina berak azaldu digu, indibidua subjektu bihurtzeko une erabakiorrak ezinbestekoak direla. Hau da, indibidua galdezkatua izaten denean (bere jokaerari interpelazioa egiten zaionean) orduan planteatzen zaiola zatiketa, zirt ala zart egin beharreko erabaki-uneetan. Lehen sintoma (bera ere ados dago Lacan-ekin) angustia da, zer egin ez jakitea, inposatutakoari segi ala nork bere usteari ekitea. Beste modu batera esanda, ni ideala (gune imajinarioa) auzitan jartzen denean, bi izaten dira gizakiaren jokaerak: niaren idealaren menpe ezartzea (gune sinbolikoa), ala bizipen subjektibo eta beraz azalezinekoei (errealaren eremukoak) eutsiz, kuraia agertu eta subjektua osatzea, indarberriturik, beraren buruaren jabe izan arte.

Badiou-ren ekarpenik handiena, supernia eta angustiarekin batera, justizia eta kuraia planteatzea da, eta lau elementu hauen bidez subjektibazioaren eskema osatzea, nor bere ertzean, elkarrekiko erlazioan.

Prozesu honen guztiaren azalpenak luze joko digu. Lacan-en korapilo borromeoa eta kontsistentzia imajinarioa azaldu beharraz gain, subjektibazioaren lau elementu hauek ere azalduko ditugu tesian, hots, Badiou-ren angustia, kuraia, supernia eta justizia, eta beraien arteko erlazioak. Azkenik, prozesu subjektiboa ager daitekeeneko eremuak ere izango ditugu aztergai: une sortzaileak batetik (funtsean zientzia, artea, politika eta maitasuna dira, lau prozesu hauetan *egia* sor baitaiteke) eta une erabakiorrak bestetik (*errealaren* eremua delako), muturreko egoerak alegia. Honekin guztiarekin margoztuko dugu subjektua, zatikatu ondorengo indibiduo osatua, *Henry Fleming* alegia, mila duda-muda, ardura eta pena izan ondoren, gizon berria (berriztua hobeto esanda) sentitzen denean.

Conrad

Crane-renganako aurrerapen gisa, Conrad-i ekitea erabaki nuen, esan bezala, subjektibitatearen nobelagilea Conrad dela Alain Badiou-ri irakurri niolako batetik, eta bestetik, bere nobeletan supeniaren presioa inork baino hobeto azaldu duelako. Adibidez, desubjektibazio-prozesua begi bistakoa da “*Lord Jim*” nobelan.

Conrad-en nobelagintza psikoazterketa etengabea da. Bizitza osoan egon zen aztertzen bere burua: koldarkeria, arazo nazionala¹⁰, lotsa, traizioa, maitasunagatiko inmolazioa... Pasio ahulak hartu zituen abiapuntu, pasio sakonen alorrera heltzeko asmotan. Ez zen gelditu Sisifo-ren angustia antzuan. Aurrera joan zen eta erantzunak bilatu zituen, Crane-k bezala.

Gainezkadura nabaritzen zaio bere idazlanetan, ohikoa ez den zerbait, etsipenetik haratago doan kemena. Mundua goitik behera jausten denean, ezbehar bategatik edo bizimodua errotik aldatu delako pertsonaiak buruaz beste egiteko puntuan daudenean, orduan apurtu egiten dira eskemak, zatikatu, hautsi. Balore-eskala kuestionatu eta ordurarteko uste guztiak kolokan ipintzen dira. Une honetatik aurrera, ezer ez da berdin. Une honetan pertsonak/pertsonaiek beren buruarekiko duten irudia nola apurtzen den ikusten dute, eta bi irtenbide baino ez zaie gelditzen: hil (fisikoki ala figuratuki hil) ala bizi. Conrad-en pertsonaia batzuk hil egiten dira, bai, baina beste batzuk (guri interesatzen zaizkigun horiek) irudi berria osatzen ahalegintzen dira. Apostua egiten dute, berritasun bila. Baina nola? Nola osatzen da berriz ere, hautsirik dagoen norberaren irudia? Itxaropenaren bidez? Ez. Itxaropenak ez du uzten erantzuna gure esku, erreferentea ez baikara gu, beste nonbait delegatzen baita irtenbidea. Itxaropenean, gainera, alaitasuna eta tristura aldizkako sentimenduak dira, bata zein bestea sentitzen ditugu artean, aldiro. Zerbaiten esperoan egon eta helduko denentz ez jakitea tortura hutsa da. Erabaki beharra dago, behingoz.

¹⁰ Arazo nazionala Conrad-en motoretariko bat izan zen, Gustav Morf-ek ere adierazi zuen bezala: “*behin Conrad-ek poloniar bati esan zion, itsasoratzen zen bakoitzean inoiz ez zela egoten bere aberritik urrun, eta beste batean beste poloniar bati esan zion: “nire bizitzaren oinarriko printzipioa, Polonia-ri laguntzea izan da”*”. (MORF 1976).

Irtenbidea itxaropena ez bada, zein da? Funtsean bi erantzun ditugu, proiektua eta konfidantza. Egitura berri bat osatzeko proiektua edukitzea, norberarena (zuzen edo okerra izan, ez du axola) eta proiektu hori aurrera eraman ahal izateko konfidantza, konfidantza bikoitza: projektuan eta norberarengan. Beste gako-hitzak ere badira izan: motibazioa, desioa, apostua... baina begi bistan denez inkonsistenteak dira, planifikaezinak, ez dira programagarriak. Horrexegatik deitzen ditugu pasio sakonak, pasio ahulekin konparatuta.

Spinoza pasioez mintzatu zitzaigun, baina pasio ahulez bereziki, itxaropena horien artean. Zerutik infernura eta berriz ere zerura eraman gaitzakeen pasioa da itxaropena, guztiz desorekatzailea. Badiou-k proposatzen dizkigun pasioak, indartsuak dira, nork bereganatuta daudenak, norberaren kabuz, erabaki sendo baten bidez barneratuta. Bi dira funtsean pasio indartsuak: justizia eta kuraia.

Conrad-engan angustiarako eta kuraiarako joera¹¹ nabaritzen dugu, eta “*Azar*” nobela dugu inflexio-puntua. Ordurarte, angustiarari buruz jardun zuen Conrad-ek, eta une horretatik aurrera, kuraia hasi zen agertzen bere nobeletan. Crane-k aldiz, beti, bere nobela guztietan, eta batez ere “*The Red Badge of Courage*” nobelan, kuraia agertu izan zuen, azken unean bada ere, azken orrian, tesi honetan aztertuko dugun bezala.

“The Red Badge of Courage”

Azkenean, eta ikusitakoaren argitan, berriz ekin nion “*The Red Badge of Courage*” nobela irakurtzeari, Crane-ren pertsonaia aztertzeke asmotan. Stephen Crane-ren meritu handiena hauxe da, alegia, desubjektibazio- eta ondorengo subjektibazio-prozesuak ehun eta berrogei orri eskasetan kondentsatu zituela. Bera da Conrad osoa distilatua, kontzentratua, pilula batean, deshidrofilatua. Bestalde, Cranek ia infinituraino luza dezake sentimendu bakar baten deskribapena, akziorik gabe, berak deskribatu nahi duena sentimendua delako, eta ez gertaera.

¹¹ Angustia Lacan-ek teorizatu eta Sofokles-ek tratatu zuen bere literaturagintzan, eta kuraia Badiou-k teorizatu eta Eskilo-k hartu zuen idazgaitzat.

Crane-ren nobelan pausoz pauso segi ditzakegu gizakiak pairatzen dituen zatiketa, angustia, zalantza, itxaropena, presioa eta berbiztea. Lehen irakurketa hartan *Berbatsutzat* jo nuen narratzaile barneratuaren bidez *ikusi* egiten dira aipatu bi prozesuak nobelan. Ez da izan, nobelari forma emateko orduan, *merkekeria hutsa* narratzaile orojakile eta zentrala aukeratzea, tonua ere barnetik kanporakoa delako. Pertsonaia dugu mintzakide.

Garai hartan ezohikoa zen pertsonaien deskribapen zehatza, fisiko eta psikikoa ez egitea, kanpo-itxura eta barne-izakera zehatz-mehatz narratuz. Crane, aldiz, muinera doa, harira. Ez dakigu pertsonaien itxurari buruzko gauza handirik, eta askotan izena ere ez digu esaten, guztiz ezohiko kontua garaiko nobeletan. *Soldadu altuaz* edo *gizon zarpailaz* mintzatzen zaigu sarri, funtzio instrumentala betetzen duten txotxongiloak bailiren. Ez da arduratzen istorioa osatzen, xehetasunak azaltzen, paisaiak deskribatzen. Azken finean Crane-k badaki gauzak gizakiari esker existitzen direla, Natura “*indiferentea*” baita, berez. Badiou-k esaten duen modura, “*gertakizun naturalak ez dira existitzen*”. Eta halaxe jokaten du egileak nobela honetan. Kontuan hartzen duen bakarra hauxe da: nola sentitzen den Henry, zer pentsatzen duen, zein den bere ardura, bere beldurra, zein puntutaraino dagoen kanpoko indarren esku, salduta. Ardura bakarra du nobela osoan zehar: angustia azaldu (gizakiak jasaten duen presioaren sintoma gisa), eta berau bideratu ondoren, gizaki berriztua agertzea. Crane-k lortu egin zuen bere nobela laburrean, Lacan eta Badiou-k testu luzeetan garatu duten teoria labur eta grafikoki azaltzea. Bi egile hauek orri eta orritan azaldu nahi izan duten une harrapaezina, Cranek orri bakarrean eman digu aditzera, azken orrian, klask batean. Crane-k ez du azaldu jauzi hori nola egiten den, jakina. Inork ez du azaldu oraindik erabaki-tximista hori zeren arabera sortzen den. Badakigu, jakin, kuraia behar dugula. Desira, borondatea, konfidantza, justizia eta apostuak zeresan handia dute, baina ez dakigu zehatz-mehatz nola gertatzen den. Tesi honek nolabaiteko argitasuna eskaini nahi lezake gai honetan.

Nire asmo apala, finean, subjektibitatean sakontzea da. Subjektibazio-prozesuak aztertu nahi ditut, filosofo eta psikologoaren teoriak hartuz eta idazleen testuetan irakurriz. Literaturaz mintzatuko naiz, eta psikoanalisiak, baina batez ere, eta guztiaren

gainetik SUBJEKTUA izango dut mintzagai, pertsona, gu guztiok, gure barne-izakera. Hitz batean esateko, gure gaia edozein idazleren langaia bera da: GIZAKIA. Gure kasuan, ordea, GIZAKI HAUTSIA dugu tesigaia.

Atalean aipaturiko Bibliografia

BODEI, Remo (1995). *Geometría de las pasiones*. Fondo de Cultura Económica. Itzul.: Isidro Rosas. Mexiko.

CONRAD, Joseph (1926). *Notes of Life and Letters*. Doubleday. New York.

CONRAD, Joseph (1985). *El Negro del "Narcissus"*. Seix Barral. Itzul.: Ricardo Baeza. Bartzelona.

KIERKEGAARD, Sören (1967). *El concepto de la angustia*. Austral, Espasa Calpe. Madril.

MARINA, Jose Antonio (1996). *El laberinto sentimental*. Anagrama. Bartzelona.

MARTIN, Barclay (1974). *Angustia y trastornos neuróticos*. Herder. Itzul.: Josep Olives. Bartzelona.

MORF, Gustav (1976). *The Polish Shades and Ghosts of Joseph Conrad*.

RIMBAUD, Arthur (1987). *Oeuvres Complètes*. Jean-Claude Lattès. Paris.

ROJAS, Enrique (1993). *El laberinto de la afectividad*. Espasa-Calpe. Madril.

SARTRE, Jean-Paul (1983). *Bosquejo de una teoría de las emociones*. Alianza. Itzul.: Mónica Acheroff. Madril.

SPINOZA (1996). *Ética*. Alianza. Itzul.: Vidal Peña. Madril.

Stephen Crane

Atalaren Aurkibidea

STEPHEN CRANE-REN BIOGRAFIA.....	31
Biografoak	31
Familia eta hezkuntza.....	41
Hezkuntza, gutxi eta soltea	45
Idazle-gurakoa eta kazetari	48
Crane idazle.....	51
<i>Maggie</i> , estilo baten aurrekaria	51
“The Red Badge of Courage”ren hastapenak.....	56
Nobelaren gorabeherak	56
Crane maitale	66
Stephen eta emakumeak	66
<i>George’s Mother</i> , arauen hausketa	68
Dora Clark eta injustiziarekiko errebeldia	69
Cora Taylor ezagutu zuenekoak.....	72
Crane erreportari.....	74
Kubara joan nahi eta ezin.....	74
Greziako gerra	76
Crane Ingalaterran	81
Conrad-ekiko adiskidetasuna	83
Amaieraren hasiera	88
Kubarako prestakuntza.....	88
Kubako gerra.....	90
Ingalaterra: azkenaurreko geltokia.....	93
Hilzoriaren agonia	84
Biografia datatan	100
Stephen Crane-ren idazlanak	

THE RED BADGE OF COURAGE NOBELAZ KRITIKAK ESANDAKOA

Sarrera	110
Garaian garaikoa	111
Bertsioen arazoa	114
Aurrekariak	116
Zola	116
Howells eta Garland	117
Ismo-en kontua	119
Errealismoa	119
Psikologismoa	119
Naturalismoa	120
Ironia	122
Natura	126
Lengoaia	127
Interpretazioak	129
Heldutasuna	130
Gerra	132
Kritika taulan	134

Stephen Crane-ren Biografia.

Gutariko gehienok aspaldi gainditu ditugun 28 urteak zituenean, Stephen Crane zendu egin zen Alemaniako eritegi batean, Baden Weiler-en hain zuzen, tuberkulosiak (eta Kuban harrapaturiko malariaren erasoaldiak) jota. Heriotza, ekainaren 5ean heldu zitzaion 1900. urtean, hau da, XX. mendea estrenatzen ari zen unean. Lan mardula utzi zuen atzetik: sei nobela¹, 72 gerra-erreportaia, 136 poema eta 230 kontaketa labur, bere izenaz eta ezizenaz sinatu zituen ehundaka kazetari-artikulu kontuan hartu gabe.

XX. mendearekin batera zendu bazen ere, bere bizimodua ondo sustraiturik egon zen XIX. mendean: familiaren moral biktoriarra eta hezkuntza dezimononikoagatik alde batetik, baina baita erromantizismo abenturazale, gerrarekiko lilura eta izpiritu liberalagatik ere, beste aldetik. Bere garaiko seme petoa izan zen Crane.

Biografoak

Lau izan dira Stephen Craneren biografia zehatz-mehatz jorratu duten ikerlariak. Lehena, eta ezinbesteko erreferentzia dena, Thomas Beer dugu, 1923an², Craneren lehen biografia luze eta osoa³ argitaratu zuena. Ondorengo biografo guztiak Beer-ekiko zordun dira, honekiko zorra aitortu zein ez. Berak lortu izan zituen lehen eskuko testigantzak, gutunak, elkarrizketak eta, batez ere, berak ezarri zituen Craneri buruzko

¹ *Maggie, a Girl of the Streets* (1893; 1896), *The Red Badge of Courage: An Episode of the American Civil War* (1895), *George's Mother* (1896), *The Third Violet* (1897), *Active Service: A Novel* (1899) eta *The O'Ruddy: A Romance* (1903), Robert Barr-ekin batera. Narrazio laburren artean ezagunenak hauexek dira: *The Little Regiment and Others Episodes of the American Civil War* (1896), *The Open Boat and Other tales of Adventure* (1898; 1903), *Blue Hotel* (1899), *The Monster and Other Stories* (1899; 1901), *Whillomville Stories* (1900), *New York Sketches* (1900), *Wounds in the Rain* (1900) eta *Last Words* (1902). Poemei dagokiela, ezagunenak dira *The Black Rides and Other Lines* (1895) eta *War is Kind* (1899).

²(BEER 1923).

³ Beraren aurretik dagoen bakarra, edizio mugatuko argitalpena dugu, (RAYMOND 1923). Thomas L. Raymond-ek "*Stephen Crane*" izeneko lana eman zuen argitara, 250 ale soilik, bi urte lehenago emandako hitzaldiaren lekuko. Data hartan, 1921eko azaroaren 7an, Stephen-en jaiotzaren 50. urteurrena betetzen zenean, Newark-eko Liburutegi Publikoaren aurrean oroitarria ezarri zuten eta Raymond-ek

iritzi topikoak, urteetan zehar naharoki hedatu izan diren sinesmenak, besteak beste *The Red Badge of Courage* lana beldurraren nobela izan zela, adibidez.

Robert Wooster Stallman biografoak Beer-en lana jaso eta gehitu egin zuen⁴. Horrez gain, ezagutu gabeko hainbat gutun eta idazki bereganatu zuen, eta liburuki mardulatan argitaratu⁵.

Crane-ren beste bi biografo ezagunenak John Berryman⁶ eta Schoberlin⁷ ditugu, baina ez dira ahaztu behar Clendenning⁸, Wertheim eta Sorrentino⁹, eta familiartekoez zein bestelakoek idatzi zutena, Helene Crane¹⁰ lobak eta Joseph Conrad¹¹ lagunak beren artean. Hauek guztiak kontsultatzeaz gain, kontatezinak dira Stephen Crane-ren biografiari buruz egin izan diren aipamen xumeak, eta horietariko asko ere kontuan izan dugu (ikus bibliografia) atal honi ekiterakoan.

Guztien artean marraztu diguten gizona, pertsona erakargarria, indartsua, kontraesankorra, probokatzailea eta antsiatsua dugu, gaixobera, emakumezalea, errebeldea, nahi zuena ondo zekiena, eta, nonbait, bizitzeko presa zeukana, bizitza laburra izango zuela jakin izan balu bezala.

Crane-k pasioak sortarazi zituen bere inguruan, eta ez soilik bizirik egon zen artean. Hil ondoren ere pasioak eragin zituen, berataz arduratu ziren biografoen lanetan ageri denez. Lau biografo nagusiei leporatu izan zaie Crane-rekiko jarrera pertsonala agertzea, gehiegizko identifikazioa izatea alegia. Interesgarria izan daiteke kritika hauetariko batzuk ezagutzea, gure egunetaraino heldu den Crane-ren biografia hobeto kokatzearren.

Thomas Beer-en kasuan (1888-1940), esaterako, gehiegizko identifikazioa¹²

hitzaldia eskaini zuen.

⁴ (STALLMAN 1968)

⁵ (STALLMAN eta GILKES 1960)

⁶ (BERRYMAN 1977)

⁷ (SCHÖBERLIN 1949)

⁸ (CLENENNING, et al. 1995)

⁹ (CLENENNING 1995) (WERTHEIM eta SORRENTINO 1988)

¹⁰ (CRANE 1934)

¹¹ ikus (CONRAD 1926) liburuaz gain, Beer-en liburuko hitzaurrea (ikus 2. oharra).

¹² Wilson Follet-ek (hamabi liburukitan "*The Work of Stephen Crane*" 1925-1927 lanaren editorea eta

leporatzeaz aparte, zenbait datu ezkutatzea (Cora Taylor –geroago Mrs. Crane bihurtu zena– klub bateko *jabea* izan zela ezkutatzea, esaterako), faltsukeriak eta istorioak asmatzea leporatu izan zioten egile askok¹³ biografia argitaratu eta urte batzuetara, argitaratzearen lehenengo urteetan arrakasta handia izan arren. Horrez gain, aurkariak ez zuten soilik lan biografikoa kritikatu; Beer-en gaixotasun fisiko eta psikikoak ere azalarazi zituzten berak egindako lana deseuztatu nahian, bai eta beraren jarrera pertsonalak ere: Beer kontserbatzaile amorratua ei zen, homosexuala eta pederasta, nahiz eta heterosexualitatearen aldeko idazki ugari idatzi zuen, idatzi ere.

Wilson Follet haruntzago joan zen Thomas Beer-en deskribapena egiterakoan. Beraren ustez¹⁴, Crane-ren irudia idealizaturik zuen Beer-ek eta irudi horrekin maitemindu zen, bere indarrak eta ziurtasunak. Beer-ek eraiki egin zuen Stephen-en bititza, berak nahi bezala, bere gustura, eta geroago sinesgarri bihurtu zuen. Thomas-ek berak inoiz izango ez zuena maite zuen Stephen-engan. Berari buruz maitasunez eta mirespenez mintzatzen zen beti. Mencken-ek gehitu zuenez¹⁵, Beer-en biografia "*a portrait done con amore*" izan zen.

Ikuspegi honen ondorioak, hutsune franko eta asmakizunak ditugu. Bere defentsan, Beer nobelagilea zela esan liteke, eta ez ikerlaria. Ez zuen datu nahikorik, eta zituenean, bere modura moldatzen zituen; esaterako, Crane-k emakumeekin izan zituen harremanez mintzatzean. Helen Trent-ekin izandako erlazioa¹⁶ (59-65 orr.) asmatuakoa da. Asmatuakoa dira bestalde (Wertheim eta Sorrentinok frogatu dutenez¹⁷), Crane-k poliziaren eskuetan jasan zituen injustizia eta tratu txarrak. Garai hartan hiruzpalau egun baino ez zen egon New York-en, eta, beraz, Beer-ek 109tik 208. orrialdera

Beer-en lankide eta lagun mina zenak) honelakoa idatzi zuen biografia hark Beer-engan zuen efektuaz: "*He could no more help the way his imagination worked than he could help the smoky red soldier in his wonderful eyes. When he came to troublesome lacunae in Crane's life, he lived through them with that same imagination, quite as if he were Crane; and his imagination could document every happening if he were challenged. He was not a liar in any sense that has a jot of meaning; he did not fake the material of scholarship. What he saw with the eye of his imagination was as real to him as anything that registered on his retina*". Follet-ek E.R. Hagemann-i idatziriko gutunaren kopia, 1962eko apirilaren 12a, Stephen Crane Collection, University of Virginia Library. (WERTHEIM eta SORRENTINO 1990) 3. or.

¹³ (DOREN eta MENCKEN 1973) 321-325. orr., eta baita ere (BOYD 1970) 214-216. orr.

¹⁴ Wilson Follet-ek E.R. Hagemann-i esana, 1962eko apirilaren 12eko gutunean. (WERTHEIM eta SORRENTINO 1988).

¹⁵ *Dial* 76 (1924), 73-74. orr.

¹⁶ (BEER 1927).

kontatzen dituenak ez omen dira egiazkoak.

Biografo honen nondik norakoak azaltzen amaitzeko, esan dezagun Beer-ek bere azken urteak zoroetxe batean zokoraturik eman zituela, buru-gaixoaren erruz. Beraren arrebak esaten zuenez, BELDURRA zen bizitzaren azken txanpan sentitzen zuena, giza harremanekiko beldurra. Beldurrak segurtasun-eza sortzen zion, eta Crane-engan proiektatu egin omen zuen beraren akatsa. Beer-en ustez, Stephen zeharo beldurtuta zegoen, ikaratuta, eta izua literatura bihurtzen zuen, sublimatuz. *The Red Badge of Courage*, bere irudiko, beldurraren nobela da. Halakoa ez dela frogatuko dugu aurrerago.

Ukaezinezkoa da, hala ere, Thomas Beer-ek lortu zuela ezagutzera ematea Stephen Crane eta beraren lana, eta ordudanik literatura eta kritikari amerikarrek etengabe ikertu dituztela idazle honen biografia eta idazgintza. Nolabait esatearren, Stephen Crane Beer-en aurkizkuntza izan zen: bere garaikideekin batera amatatuko baitzen haren itzala, Beer-ek argitara eman ezean. Stephen 1900an hil zenetik 1923an Beer-en liburua argitaratu zen arte ez zen ezer idatzi Crane-ri buruz; 1950-1968 urteetan aldiz, 600 artikulua inguru idatzi ziren berari buruz.

John Berryman (1914-1972) dugu, zenbait saioaren ostean, azkenean Stephen Crane-ren biografia gauzatzea lortu zuen bigarren egilea. Beraren aurretik porrot egin zuten Ames Williams, Rees Frescoln, John Bushman, Benedict Wolf eta Melvin Schoberlin-ek¹⁸, material eta data ugari bildu eta gero. Berryman-ek egindako biografia 1950ean argitaratu zen, eta lehenarekin gertatu zen bezala, eztabaida piztarazi zuen.

Berryman-ek, Beer-en biografian izandako akatsez ohartarazi zuen irakurlea, baina segidan berak ere errepikatu zituen Beer-en huts berberak, bere idazlanean interpretazio psikologikoak gehituz. Biografiaren amaieran agertzen den "*The color of the soul*" kapituluan, interpretazio sasi-psikoanalitikoa eskaintzen digu, berak zuen zuen

¹⁷ (WERTHEIM eta SORRENTINO 1994) 359. or.

¹⁸ Bibliografian ikus daitekeenez, Schoberlin-ek egindako saioa behin baino gehiagotan aipatuko dugu, baina urte luzez idazten eta lantzen jardun zuen arren (1936an hasi zen, 1949an eskuizkribua ia amaitutzat eman zuen, eta 1971ean oraindik ere ari zen testua eskurtean), Melvin Schoberlin-ek ez zuen inoiz liburu gisa argitaratu.

ezaugarri psikologiko Crane-ri leporatuz: nortasun gorabeheratsu eta desorekatua, edipo-konplexua eta emakume idealaren irudi zehatza. Egia da, modernismoaren aurretiko modernista izan zela S. C., baina ez zen izan antsietatearen garaikidea; Berryman, aldiz, bai, Clendenning eta Wertheim-en ustean¹⁹.

Badago egon, Berryman eta Crane-ren bizitzak parekatu egin dituenik. Biek galdu zuten aita zortzi-hamar urte zutela (Stallman-ek bezala), biek eraman zuten bizitza desordenatua (Berryman-ek gehiegikeriak burutu zituen, alkoholaz eta sexuaz jota) eta biek zuten amarekiko harreman kontraesankorra: Berrymen-ek desira intzestuosoak zituen eta S. C.ren zaldiekiko obsesioa ere intzestu-gogoia bailitzan interpretatu izan da (!). Berryman-ek bestalde, beste izen bat zuen jaiotakoan, baina aitaren suizidioaren ostean, amak deitura aldatu zion. Crane-k, bere aldetik, patronimikoa ekiditen zuen ahal zuen guztietan: "*the little man*", "*the tall soldier*", "*the correspondent*" eta honen antzekoak erabiliz *The Red* nobelan. *Maggie*-ren lehen bertsioan ere ez zen patronimikorik agertzen.

Beer-ek bezalaxe, Berryman-ek ere S. C. erreskatatzeko interes bizia adierazi zuen, baina psikoanalisiak kutsatu zuen bere azterketa: biografia idazten ari zen garaian, asteen hiruzpalau aldiz jotzen zuen psikiatrarengana, desoreka zuzentzeko ahaleginean. Biografiaren erredakzioak eta terapia psikoanalitikoak bat egin zuten denboran. Areago, Berryman-ek pentsatu izan zuen, Stephen-en bizitzak Freud-en teoria (Edipoaren teoria, hain zuzen) baieztatzen zuela, emakume guztiengan bilatzen baitzuen amaren irudia: nagusiagoa, ezkondua eta sexuan aritua. Irudi hori bat letorke Lily Brandon Munroe, Amy Leslie eta Dora Clark-ekin, eta bete-betean jotzen du Cora Taylor andrearekin – Berryman-ek uste zuen, Cora-rekiko ezkontza borondatearen erabakia baino, patuarena izan zela–. Baina aipatu irudia ez dator bat Stephen-ek maite izan zuen hainbat emakumerekin, Nellie Crouse-rekin esaterako. Crane-ren idazkietan, bestalde, emakumeak ez dira salbatu behar diren andre pekatariak, Berryman-ek aditzera eman nahi izan zigunez²⁰.

¹⁹ (CLEDENNING, et al. 1995) 36. or. eta (WERTHEIM eta SORRENTINO 1990).

²⁰ Clendenning-ek kontatzen digunez, psikiatrarekin izandako saio batean Berryman-ek aitortu zion, bere amak John-en aita hil zuela susmatzen zuela, edo bestela, buruaz beste eginarazi zuela. Kontua da, inoiz

Egun batean, bera eta Crane pertsona berbera zirela ohartu zen Berryman, gogo bera eta patu bera. Egun hartan idatzi zuen "*the most important day of my life*" izan zela egun hura. Eta ondoren, beraren obsesioak, amorrak, errudun-sentsazioak eta abar Crane-ren testuetan aurkitzen ari zela esan eta idatzi zuen.

Edonola dela ere, Berryman ikerlari sakon eta fina izan zen, material ugari bildu eta argitara eman zuen eta Beer-ek ilun utzitako hainbat gertaera argitu zituen ikerketaren bidez. Crane presente egon zen bere bizitza osoan, bai ikerlanetan zein sormen-lanetan ere. Berak idatzi zituen poemetan gehien agertzen zen pertsonaiak *Henry* du izena, Henry Fleming-en oroimenean.

Melvin Harold Schoberlin (1912-1977) dugu S. C.ren hirugarren biografoa, bere lana liburu gisa argitaratu ez bazuen ere²¹. "*Stephen Crane: The Critical Biography of an American Literary Pioneer and His Works*" izeneko lana burutzeko, Guggenheim beka eskatu zuen 1941. urtean, baina orduko hartan esan zuenez, 1936an jada hasia zen lan horretarako materialeak biltzen eta bibliografia prestatzen. Ez zioten beka eman, baina eman izan baliote ere, ezin izango zukeen ikertu, 1942an U.S. Navy-an sartu eta Munduko II Gerra osoa Pazifikoko batailetan eman baitzuen, marinel hasieran eta ofizial gero, gerratea aurrera joan ahala. Zenbait medaila bereganatu zuen eta 1945eko irailaren 2an gerra amaitu zenean, Tokyo-Badian zegoen, urpekuntzi japoniarren komunikazioak aztertzen.

1946an U.S. Navy utzi ondoren, berriz ekin zion Crane-ri buruzko lanari, berau baitzen doktorego-tesiaren gaia. Baltimore-n irakasle ziharduen bitartean, doktoregoa prestatu zuen eta ikerkuntza-lanetan murgildu zen. Baina ez zuen behar adina denborarik ateratzen, eta azkenean doktorego-projektuak alde batera utzita, Phoenix-era joan zen berriro, eta Crane-ri buruzko liburua argitaratzeari ekin zion, Herbert Weinstock editorearen eskariz. Bigarren emazteak, bere ikasle ohia zen Eleanor-ek, lagundu zion projektu berrian²².

ez zela guztiz argitu nola hil zen John Berryman-en aita.

²¹ Ikus 18. oharra.

²² Laster dibortziatu eta hirugarren aldiz ezkondu zen Melvin 1951ean, oraingoan Laura Dias-ekin, baina "*Flagon of Despair*" idazlanaren kopia nagusiak honelako eskaintza darama: "*For E. who knows why—*

Garai hartan egindako lana eskerga izan zen: lehen edizioak bildu, Stephen ezagutu zuen edozeinekin elkarrizketatu, hemeroteka arakatu... 1950. urtea baino lehen ez zegoen inor Schoberlin-ek beste zekienik S. C.ri buruz. 1948ko ekainean hasi zen idazten eta 1949ko abuztuaren amaierarako bazuen 13 kapitulu eginda, biren faltan. Crane-k Nellie Crouse-ri idatzi zion gutun batetik hartuta, "*Flagon of Despair: Stephen Crane*" (Etsipenaren Pitxarra) titulua ipini zion biografiari.

Une hartan hasi ziren arazoak. Schoberlin-en testua luzeegia zen, oraindik amaitu gabe egonda ere, eta, gainera, 64 argazki sartu nahi zituen. Editoreak laburtzeko eta bakarrik hamar bat orri argazki sartzeko eskatu zion. Txarrena ez zen tamaina, hizkera-mota baizik: joskera nahasia, arkaismoz betea, kutsu poetiko zaharkitua... Schoberlin-en biografia irakurtezina zen Weinstock-en ustez, Hervey Allen-ek Poe-ri buruz idatzitako biografia ("*Israfil*") imitatu nahi izatearren. Baliagarriak ziren datuak erreskatatu eta beste forma bat eman orde, Weinstock-ek ultimatum-a jarri zion Schoberlin-i, eta azkenean kontratua bertan behera utzi zuten.

Handik hiru hilabetera Koreako Gerra hasi zen eta Schoberlin-ek berriz ere jo zuen Armadara 1950ean. Bi urte geroago proiektuari berriz ekiteko asmoa adierazi zuen arren, 1967. urtera arte, jubilatutakoan, ez zuen berreskuratu lana. S. C.ren biografia obsesioa zen ordurako: ezin zuen utzi, ezta alboratu ere. 1971ean proiektuari buruz galdetu ziotenean, argitaratzeko itxaropena zegoeneko galdurik zuela erantzun zuen.

Egia esateko, "*Flagon of Despair*" liburuan ez dago asmatu-rik gertakizunik ezta pertsonaiarik ere (Beer-enean ez bezala), baina gehiegikeria erromantikoak agertzen ditu, espekulazioak eta aldi berean oso baliagarria den informazioa, hori guztia idazkera nahasi batez kontatuta. Colvert-ek ohartarazi du²³, Beer eta Berryman-ekin gertatzen den bezalaxe, Schoberlin-ek ere ez zuela dokumentaziorik azaldu, ez zituela iturriak aipatu, eta liburu osoak berrikusketa sakona beharko zukeela.

Schoberlin obsesionaturik zegoen S. C.ren bizitza sexualaz. Biografia honetan agertu zaigun gizona maitale sutua da, indartsua eta emakume askorekin ibilitakoa,

or should". Eleanor-ek egindako lana aintzat hartzen zuen-edo.

²³ (COLVERT 1986) 34. or.

Schoberlin bera izan zen bezalakoxea, hain zuzen.

Amaitzeko esan dezagun, ulergarria dela Schoberlin-en biografia argitaratua ez izatea. Biltzaile ona izan zen, bai, baina hori biografoaren lehen lana da; gero idatzi egin behar da. Beer-ek, agian, ez zuen behar beste datu bildu, baina bazekien idazten. Schoberlin, aitzitik, biltzaile ona izan zen, baina idazle gisa ez zen gai.

Robert Wooster Stallamn-i dagokionez (1911-1982), esan behar dugu ikerlari garaikideen kritika latzak bereganatu zituela, Crane-ren gaineko jabego akademikoa bereganatu nahi izan zuelako hogeitaz hamar urtez, gainontzekoen lanak oztopatuz. Lillian Gilkes, Joseph Katz eta E.R. Hagemann beste askoren artean, bere biktimak izan ziren. Stallman-ek intelektualki akatu zituen, eta gainera, Crane-ri buruz lanik egiten ez uzteaz gain, egitekotan beraren lanak bailiren hartzen zituen, bere izena jarritz. Gilkes-en kasua larriagoa izan zen, paternalismo handiaz tratatu baitzuen, “*neskato fina baina eskolaratu beharrekoa zela*” esanez. Gilkes-ek, azkenean, epaitegietara jo behar izan zuen²⁴.

Bere aurretik egindako biografiak gaitzetsi egin zituen Stallman-ek: Beer homosexuala zen, Berryman mozkortia, eta Schoberlin-i buruz zurrumurru faltsuak hedatu zituen. Stallman hildakoan berorren alarguntsak gogoratzen zuenez, haserrealdi errazeko pertsona zen, arerioak edonon ikusten zituena, eta beste denek inbiria ziotela uste zuen.

The Red Badge of Courage nobelari buruz eman zuen interpretazioa okerra zela egotzi izan zion Hyatt Waggoner-ek "Stephen Crane: An Omnibus" artikuluan, ikuspuntu erlijiosotik baino ez zuela hartu esanez. Stallman-en erantzuna horren iraingarria izan zen, aldizkariaren editoreak erabaki zuela ez argitaratzea, ez aipamena ezta erantzuna ere.

Jende ugari gorrotatzen zuen Stallman: harroa, iruzurtia, paranoikoa, gurahandikoa, narzisista... Clendenning-ek uste zuen ez zuela, egiatan, S. C.ren biografia idatzi, baizik eta biografiaren benetako protagonista Stallman bera izan zela,

²⁴ (GILKES 1969).

eta Crane-ren bizitza bereganatuz eta menperatuz, bere mesedetarako erabili zuela.

Stallman-en arazo familiarak isladaturik dakuskigu Stephen-en beraren familian, bestalde. Urruntasun itxura eman nahi izan bazion ere, eta Stephen-en bizitza data, fitxa eta zenbaki-multzoa baino ez zela agertu nahi bazuen ere, kontua da nolabaiteko identifikazioa antzeman daitekeela Crane eta Stallman-en artean. Funtsean, Crane ez zitzaion gustatzen, buruarina zela uste zuen, gorrotatu egiten zuen²⁵. Crane berarentzat "*albatross around my neck*"²⁶ zela zioen, zama, zigorra, astuna zitzaion, eta beragandik askatzeko beharra zuela esaten zuen.

Ukaezina da, aitzitik, materiale ugari bildu izan zuela urteetan zehar, baina askotan txikikeriatan eta garrantzi gabeko xehetasunetan ematen zituen orrialde eta orrialdeak, eta hori ez da biografia bat egitea, Kaplan, Kazin eta TLS egunkarian idatzi zuen egile anonimoaren ustez²⁷. Stallman-ek idatzitako biografia irakurtzean, aspertzeaz gain, zaila bihurtzen da mamia non dagoen aurkitzea, betegarriz josita baitago.

Kritikekin amaitzeko, Katz-en iritzia dugu. Bere irudiko²⁸, zeharo desagokia zen Stallman-ek erabiltzen zuen "*ziurtasun kutsu deigarria*", zernolako hankasartze larriak izaten zituen ikusirik, behinik behin.

ONDORIOA da lau biografia "ofizialak" irakurri ondoren, zenbait datu biografiko egiaztatu eta interesgarri lor dezakegula, baina oso arriskutsua dela haietan dauden balorazio moral eta psikologikoak aintzat hartzea. Agian deskribapen deigarriena, S. Geist-ek "*Bompiani Egile Hiztegia*"n ematen diguna da, zeharo txunditurik utzi gaituena²⁹. Bestalde, denetariko azalpenak eman izan dira

²⁵ (STALLMAN eta GILKES 1960), (STALLMAN 1968) 264. or. (STALLMAN) 156. or.

²⁶ Marinel Zaharraren aipamen metaforikoa dugu hau, geroago artikulua eta aipamen askotan errepikatu izan dena. (STALLMAN) 169. or.

²⁷ (KAPLAN 1968), (ANONYMOUS 1968), (KAZIN 1968).

²⁸ (KATZ 1969)

²⁹ (GEIST 1987) "*Casi todos los elementos necesarios para la reconstitución de la vida interior de C., "el muchacho maravilloso" de las letras norteamericanas, desaparecieron con él en su prematura muerte. En la esquivéz buscó refugio al peligro de que otros llegaran a conocer un secreto personal respecto del cual deseaba el mayor sigilo, y mediante la impersonalidad (como la que adopta cualquier cronista) logró ocultárselo a sí mismo. "El dueño de la mente de este muchacho fué el temor", escribe su primer biógrafo. En el caso de C., como en el de otros artistas auténticos, la búsqueda dolorosa de la "verdad desnuda" lo llevó no a una certidumbre de algún valor, sino a un arte que, libre y vacío de "literatura", vióse todavía más rigurosamente estilizado por falsos elementos literarios y por la exclusión de vida. La*

literaturgintzarako izan zuen erraztasun eta goiztiartasunaz. Datak eta egintzak azal ditzakegu, baina nekezago azal genitzake arrazoiak.

Bere loba zen Helen R. Crane-k beste ikuspuntu bat eman zigun berari buruz: uzkurra, isila, hitz gutxikoa, gezurrik inoiz esaten ez zuena, eta itxura ez-zaindua eramaten zuena. Dirua ez zitzaion axola, eduki zein eduki ez. Ez zuen inoiz barrezka ikusi, baina irribarre goxoa zuela zioen, eta begien bidez ere bazekiela irribarre azaltzen. Ospeak ez zuen aldatu³⁰. Cora Taylor-ekiko sentitu zuena lehen kolpeko maitasuna izan zen, eta biek sentitu zuten maitasun bera aldi berean. Gaixobera, neumonia³¹, malaria, disenteria³² eta azkenean tuberkulosiak jota hil zen. Helen-en ustez, Greziara joan aurretik bazuen tuberkulosia, hesteetan mina zeukala adierazi baizien etxekoei; gainera, Greziako lehen egunetan ohetik altxatu ezinean egon zen, Cora-ren zaintzapean. Kuban egon zenean ere, Mary Horan irlandarrak zaindu zuen berrogei egunez, bere etxean egon zen bitartean.

Biografiak biografia, Stephen Crane-ren bizitza oraindik osatu gabeko puzzlea dugu, nahiz eta 28 urteko puzzle txikia baino ez izan. Esanak esan, ezin ahantz dezakegu Sigmund Freud-ek biografiei buruz zioena³³, eta artikulu berean Clendenning biografoak ere behin eta berriz azpimarratzen diguna³⁴: biografiak bi bizitza lotzen ditu, aztertuarena eta aztertzailearena. Biografoa lekukoa da, behatzailea eta interpretaria, eta

obra iniciada por nuestro autor quedó completada por Hemingway". (GEIST 1987) 613. or.

³⁰ Cranek ez zuen ondo bereganatu jasotako ospea, berak esandakoari jaramon eginez gero. 1897eko urriaren 29an William bere anaiari idatziriko gutun batean honela esan zion: "*Batzuetan pentsatzen dut zu eta Ted zaharra (beste anaia bat) nitaz arduratzen zaretela, eta arduratu beharra duzue! Nire arrakasta zoro edo ume batek bezala eskuratu dut, baina zaila da arrakasta dotoreziaz bereganatzea 23 urte izanik. hala ere, egunez egun ikasten ari naiz. Apurka-apurka gizontzen ari naiz. Nire asmoa da, azkenean Port Jervis edo Hartwood-era etortzea bizitzera. Orain handikorik hortikora ari naiz ibiltzen, eta gehiago ikusi behar dut, baina –gerorako– P.J. & Hartwood ditut gogoan*".

³¹ (CRANE 1934) 27. or.

³² (BEER 1934) 290. or.

³³ "*Any one who writes a biography is committed to lies, concealments, hypocrisy, flattery and even to hiding his own lack of understanding, for biographical truth does not exist, and if it did we could not use it*". (CLEDENNING 1995) 23. or.

³⁴ "*Biography, like psychoanalysis, entails an intimate, interlaced, and prolonged relationship between two lives. Both disciplines are hermeneutic, interactive, and intersubjective. The biographer is witness, interpreter, and writer; but never wholly an objective observer, always to some extent the mind interpreted the subject of the writing. Like Stallman, biographers may try consciously to detach themselves from their subjects, but this duality is an illusion. Biography is an inter-enveloping process; each life is contained in the other. Stephen Crane was a different person to each of his biographers because in each instance he was chosen unconsciously to serve their unique needs*". (CLEDENNING

psikoanalisian bezalaxe, biografiagintza zientzia hermeneutikoa dugu, interaktiboa eta intersubjektiboa. Azken finean, biografia dela medio, nork bere bizitza kontatzen digu, intereseko guneak aukeratuz.

Freudzalea ez zen Alfred Kazin-ek 1952an nabaritu zuen Stephen Crane-ek bere biografoengan sortzen zuen efektua: "*It is perfectly true that Crane has a curious effect on his biographers*"³⁵. Eta ideia bera izan zuen Harold Nicolson-ek³⁶ esan zuenean: "*always there must be the reflection of one temperament in the mirror of another*".

Efektu horretaz jakitun, eta hala ere ekidin nahiaz, Stephen Crane-ren biografiari ekingo diogu. Bizitzaren gune objektiboen goraiamena baino, beraren lanean, eta batez ere *The Red Badge of Courage* nobelan intzidentzia gehien eduki zezaketen aspektuak azalaraziko ditugarik.

Familia eta hezkuntza

1871eko azaroaren 1ean jaio zen Stephen Newark-eko 14 Mulberry Place-n, New Jersey estatuan, New York-etik oso hurbil. Familia handiko azken semealaba izan zen, hamalagarrena³⁷. Bere aurretik beraren amak lau ume galdu zituen, urtebetea ere bete ez zuten umeak.

Jonathan Townley Crane apaizak 50 urte baino gehiago zuen Stephen jaio zenerako. Beraren egutegian honako hau idatzi zuen asteazken hartan: "*Gaur goizean, 5.30etan gure hamalagarren haurra jaio da. Stephen deituko dugu, Elizabethan Crane-ren arbasoaren izena, zein "Associates" konpainiako horietarikoa izanik,*

1995) 54. or.

³⁵ ibidem 24. or.

³⁶ ibidem 25. or.

³⁷ Stephen-en aita (1819-1878) eta ama (1827-1891) 1848. urtean ezkondu ziren, eta hurrengo urtean heldu zitzairen lehen alaba. Stephen-en anai-arrebak hauexek izan ziren: Mary Helen (1849-1933), George Peck (1850-1903), Jonathan Townley (1852-1909), William Howe (1854-1926), Agnes Elizabeth (1856-1884), Edmund Brian (1857-1922), Wilbur Fiske (1859-1918), Elizabeth Townley (1861-1866), Luther Peck (1863-1886), eta azkenik Stephen (1871-1900). Nahiz eta beraren aurretik 13 ume jaio, bakarrik 9 jaio ziren bizirik. Informazio hau, Newark-eko N.J. Public Library-n kokatuta dagoen "*Newark Chart*"etik hartuta dago, eta zeharo ezberdina da Ellery Bicknell Crane-ren "*Genealogy of the Crane Family*" liburuan agertzen denaz (II. liburukia, 1900, 518-519 orr.). Ellery-ren liburuan, Stephen-en aurreko lau umeen izenak ezberdinak dira.

1665ean E. hirian ezarri zen; baita ere Iraultzako S. Crane garaikoa, abertzaletasunean jardun zuen gizon nabaria, hamabost urtez".

Biharamunean bidali zuen gutunean, honela eman zuen berria: "*Ume berria mutila da, eta Stephen izena ezarri diogu, Deklarazioa sinatu zuen arbasoaren oroimenean*". Puntu honetan argitu beharko genuke Stephen Crane izeneko arbasoak, ez zuela Independentzia Deklarazioa sinatu, Kolonietako Asanbladako lehendakaria bazen ere (eta Ingalaterrarekin arazoak hasi zirenean New Jersey-tik Philadelphiako Kongresu Kontinentalera ordezkari bidali zuten arren), Deklarazioa sinatu baino astebete lehenago itzuli behar izan zuelako etxera, Koloniako Asanbladan hizlari aritzera, New Jersey-ko Toriak arazo franko sortarazten ari zirelako une hartan. Edozein kasutan, umearen aita ez zegoen oker arbasoaren garrantzia goraiatzean, Stephen Crane hark berebiziko zeregina izan baitzuen Estatu Batuetako independentziaren prozesuan.

Jonathan Townley Crane, Stephen-en aitak oraindik jarduten zuen herriz herri apaiz metodista lanetan bera jaio zenean. Umetan, Stephen, Atlantikoko kostaldeko hainbat herri txikitan bizi izan zen, inongoa ez zelako sententzia sortarazteraino, sortu ere (*Whillomville stories* liburuan aditzera eman zuenez).

Herriko gazte batentzako lana topatzeko Newark-era joan zen batean, itzulerako bidaiari hotzak harrapatu eta handik gutxira hil zen Crane apaiza, 1880eko otsailaren 16an, astelehena zela, bihotzekoak jo eta ordubetera. Stephen-ek zortzi urte zuen, eta hogeitau urte beranduago ondo gogoratzen zuen oraindik, nola zeuden apaindurik hilkutxaren zilarrezko euskarriak, eta nolatan beldurtzen zituzten umeak esanez, zeruak zeharkatu egiten zuela hilobi irekia, loreez eta salmoez. "*Ez dut ezertxo ere ahaztu, deusik ez, ezta txintik ere*", esango zuen urte batzuk beranduago.

Nahiz eta aitaren heriotza gertatzean Stephen zortzi urteko umea baino ez izan, idazle batzuek eragin freudiarra ikusi nahi izan zuten Stephen eta bere aitaren arteko harremanetan, bereziki John Berryman³⁸ poeta eta kritikariak. Egile hauen ustetan, Craneren errebeldia eta konformismo-eza aitaren aurkako erreakzio zuzena izan zen, hark defendatzen zuen oro arbuizatzeko ahalegin berezia egiten baitzuen. Gaiari buruz,

orokorrean, oso lan interesgarria idatzi izan du Robert Con Davis-ek³⁹, "*The Discourse of the father*" izeneko liburuan⁴⁰.

Beste zenbait egilek⁴¹, ordea, Stephen gazteegia zela pentsatzen zuten, eta aita ia ezagutu ez zuela egin, diote. Nolanahi ere den, esan dezagun aitak ahoz eta idatziz gaitzetsi egin zituela edari alkoholikoak eta tabakoa⁴², dantza egitea eta nobelak irakurtzea, eta, oro har, moral estu-estuaren aurka joan zitekeen gauza oro, ez-moralak zirelakoan⁴³.

Stephen-ek, aldiz, hamalau urte zituela erre zuen lehenengoz tabakoa, garagardoz mozkortu zen adin berean, bizitza osoan egin zuen dantza, jokoan ere aritu izan zen etengabe, prostituzioa defenditu zuen (putetxe bateko nagusiarekin ezkondu zen gainera, bera baino sei urte nagusiagoa zen emakumearekin) eta nobelak irakurri ezezik, idatzi ere egin zituen, sei nobela eta ehundaka ipuin eta narrazio labur. Aitari aurka egiteagatik edo bestela, kontua da, ez ziola aitak jorratutako bideari ekin.

Esan bezala, garai hartan mozkortu zen lehenengoz. George Wheeler bere lagunak zehatz-mehatz deskribatu zuen gertatutakoa urte batzuk beranduago, "*egindakoa aurpegiratu ziotenean hauxe erantzun zuen Stevie-ek: 'nola jakingo dut nolako gustua duen dastatzen ez badut? Nola jakingo dut gauzei buruz ezertxo ere, aurretik egiten ez baditut'?*".

Honelakoxea zen Stephen-en izakera, aitarenaren aurkakoa. Aitak ez zuen

³⁸ (BERRYMAN 1977).

³⁹ (DAVIS 1981)

⁴⁰ Aipamarratzeko puntua: aitaren presentzia eta presentzia-eza behin eta berriz aipatzen den arren, inon ez dugu ikusi azpimarraturik amaren heriotza. Helen R. Crane iloba da heriotza biak maila berean ipini dituen bakarra. Horrela dakigu Stephen Syracuse University-ko lehen mailan zegoela hil zitzaiola ama, 1891ean, Stephen-ek 19 urte zituenean, (CRANE 1934) 24. or.

⁴¹ Leopoldo Mateo-k bere edizio kritikoan dioenaren arabera, epilogoan, in (CRANE 1981)

⁴² *Arts of Intoxication* (1870) liburuan tabakoa, opioa eta alkohola gaitzetsi zituen. Titulu honen 400 ale saldu ziren eta testu-liburua izan zen *Sons of Temperance* taldekideen artean. Geroago Stephen-en ama ere kide bihurtu zen, *The New Jersey Women's Christian Temperance* elkartearen parte hartuz. Ikus 92. oharra.

⁴³ Azken puntu honetan, irakurtzeari dagokiola hain zuzen, argi-argia zen Jonathan Townley Crane-ren pentsakera, *Popular Amusements* (1869) liburuan argitaratu zuena: nobelak eta biografiak irakurtzearekiko abstinentsia predikatzen zuen, gizon eta emakume onen biografiak salbu, irakurtzeko ohiturak "*pasioen hazkundera dakarrelako... eszitatzeko antsia morbidoa, mozkortiarenean egarri kontrolezinarekin antza duena*".

bizitza osoan alkohol tantarik edan, ezta birao bakarra esan ere. "*Sarritan harritzen naiz ikustean, zenbat amak ez dakiten ezer beren seme-alabez, azken finean*" zioen Stephen-ek. Stallman-en ustez, Stephen-ek bere burua ezduin sentitu zuen bere aitarekiko, haren printzipio moral eta ikuskera izpirituala bete ez zituelako. Kritikari honen ustez, aitaren aurkako jarrera arrunta da seme-alaba guztiengan, baina Stephen-en kasuan beste inorengan baino nabariagoa⁴⁴. Muga eta debeku guztiak hautsi zituen, prostituzioarena barne. New York-eko Bowery hiribarreneko txaboletan bizi izan zen gaztaroaren lehen urteetan, prostituta, txiro eta bizitza bohemioa zeramatenekin konbibentzia izanez⁴⁵. Eta honela izan zen bizi zen artean; bere jakinminak beste lurrak, pertsonak eta egoerak ezagutzera eraman zuen, Kuba eta Greziako gerra-zelaietaraino eraman ere.

Stephen-en ama ere, aita bezalaxe, erlijio metodistan tradizio handia zuen familia baten alaba zen. Mary Helen Peck izena zuen ezkondu aurretik eta beraren aita George Peck izan zen, Wilkes-Barre herriko (Pennsylvania) apaiz metodista. Crane-ren laguna izandako Clarence Loomis Peaslee-k⁴⁶ esan zuenez, aita zein amaren familian ugariak izan ziren bai apaizak eta bai soldaduak ere, eta tradizio bi horien eragina erraz nabari daiteke Stephen-en idazlanetan, estiloa eta intzidente-zentzua ezarritz. Stephen-ek bere aldetik, arbasoekiko harro sentitzen bazen ere, kupidagabe kritikatu zuen metodisten erlijio zigortzailea *Black Rides* poema-liburuan. Berak zioenez, "*amaren familiaren aldetik, kide guztiak ibiltzen ikasi orduko, apaiz metodista bihurtzen ziren, ibiltari, bidezorro eta maitasun-predikatzaile*"⁴⁷.

Haurtzaro osoan zehar Stephen-ek etengabe entzun zuen etxean, ama zein aitaren ahoan, "*sinisten duena ez da kondenatzen; oster, sinisgabea erruduna da,*

⁴⁴ Aita eta semearen arteko harreman hauek satirikoki azaldu zituen "*Dan Emmonds*" idazlan barregarrian.

⁴⁵ Esperientzia honetatik sortu zen bere lehen nobela, "*Maggie, a Girl of the Streets*". Nobela hau 1893an argitaratu zen anaiei eskatutako diruari esker, eta Johnston Smith ezizenaz sinatu zuen. Bertan kontatzen duen istorioak garaiko konbentzionalismoen aurkakoa dugu. Moral garbiko heroina aurkeztearen orde, gainbehera doan familia baten barnean jaiotako neskatoaren istorioa narratzen du, nola seduzitu zuten, abandonatu, prostituitu eta azkenean bere buruaz beste egin zuen.

Nobela honek ez zuen arrakastarik lortu (nahiz eta estetika naturalistaren lehen nobela izan: alkoholaren eragina, bortizkeria estrukturala, gizakien jokaera basatia, miseria material eta izpiritualak dakarten degradazioa, prostituziorako arrazoiak...). Arrakastarik izan ez arren, Stephen-ek ez zuen etsi, eta Hamlin Garland eta William Dean Howells idazleek bultzaturik, idazteari ekin zion. Bi urte beranduago "*The Red Badge of Courage*" argitaratu zen.

⁴⁶ (STALLMAN 1968) 2.. or.

kondenatua, ustela, babesgabea, Jainkoaren haserre-biltzailea, eta infernua du zain, beronen iluntasun eta etsipen betierekoaz". Crane-ren iritziz, beraren ama pentsamendu sinpleko emakumea zen, erlijioan eta erlijiorako soilik bizi zen emakumea.

Stephen gaztearen pasioa, giroz kontra, jakinmina zen, eta arauak zein printzipio moral tinkoak arbuiatu egiten zituen, bere ardura errealitatea ezagutzea baitzen, aitaren erretorika ez zetorrelako bat berak somatzen zuen munduaz. Ez zuen gurasoen erlijioaz sinisten, gorrotatu egiten zuen, baina ez zuen lortu berarengandik aske egoterik. Kritikari ugarik esan dutenez (Leopoldo Mateo-k esaterako⁴⁸), Stephen-en lanetan Bibliaren ezagupen sakona nabaritzeaz gain (parafraseologia erlijioso ere ugaria da), nolabaiteko balore erlijiosoak, ez kristauak soilik, eta, batez ere, determinismoa antzematen zaio, kritikari amerikarren ustean. Crane-ren kasuan determinismoak ez du erlijioak ezartzen, baina bai Naturak. Gizakia arrotza da Natura eta gerraren arteko erlazioan⁴⁹. Murrizta da gizakiari gelditzen zaion erabakitzeke eremua, elementuek bideratu egiten baitute norberaren ibilbidea. Determinismoaz gain, erruaren zentzua ikus daiteke Crane-ren lanetan, *“egiten duenak ordaintzen du, ez dago makularik gabe ateratzerik inposaketaren petik”*. Nolanahi ere, hauxe dugu kritikari amerikarren iritzia. Gure ustez, ezin daiteke determinismoaz mintza, subjektibitateaz baizik.

Hezkuntza, gutxi eta soltea

Etxe-aldaketa etengabeak eta berandura arte leku batean ez ezartzeak eragin zuten oso berantiarra izatea Stephen-en eskolaratzea. Azkenean, 1878an, Drew Methodist Church izeneko eliza eman zioten Crane apaizari, New York-eko mendiguneetako Port Jervis-en bertan, New Jersey eta Pennsylvaniaren mugaren ondoan. Stephen-ek zazpi urte zuen artean, baina oraindik ez zen inoiz joan eskolara.

Bestalde, jaiotzetik osasun txarrekoa zen Stephen, gaixobera. Sarritan harrapatzen zituen katarroak, eta setazko musuzapi gorria erabiltzen ohi zuen sudurra

⁴⁷ Ibidem, 4.. or.

⁴⁸ in (CRANE 1981).

⁴⁹ Idazlan guzti-guztietan nabaritzen den kontua da, *Maggie* liburutik hasita *The Red Badge of Courage*-raino, eta batez ere *The Open Boat* liburuan. Determinismo horri buruz, ikus Lynn Altenbernd eta Leslie L. Lewis-ek egin duten nobela honen azterketa interesgarria (ALTENBERND eta LEWIS 1966).

lehortzeko. Gorria eta urdina izan ziren gerora ere bere kolore kutunenak.

Agnes arrebak zaindu zuen Stephen, eta berak eman zion hezkuntza bere lehen urteetan, Natura, zientzia eta literatura. Erlijosoa eta idazlegurakoa, harro sentitu zen Agnes neba txikiaren idazkiez, eta bere ondoan mantendu zen beti, 28 urte zuela hil zen arte.

Zortzi urterekin hasi zen Stephen eskolan, eta erraz lortu zuen bi maila gainditzea sei astetan. Aitak, harro, berarekin eramaten zuen autoan, predikatzera edo eta hileta batera joan behar izaten zuenean. "*Behin hileta irlandar batera joan ginen Slate Hill izeneko lekutik hurbil zegoen herri batera. Mundu guztia mozkorturik zegoen eta aita eskandalizatu egin zen... horren inozoa eta ona zen bera ezen sarritan pentsatu bainuen ez zekiela gauza handirik gizateriaz*"⁵⁰.

Alargundu ondoren, amak New Jerseyko Roseville herrira aldatzea erabaki zuen, Newark-eko kanpoaldera, etxe-untzi batera. Zorrak itota, behin baino gehiagotan aldatu behar izan zuten, etxebizitza, berriz ere. 1883an Asbury Park-era joan ziren, New Jersey-ko kostaldera. Asbury Park-eko eskolan egon zen bitartean, bere arreba nagusia, Mary Helen Hamilton, Arte-irakaslea izan zen bertan.

Asbury Park herrian zeudela, emakume zuria bere maitale beltzak nola labainkatu zuen ikusten lekuko izan zen Stephen, eta amari ezer esan gabe testigantza eskaini zuen. Amak ere ez zuen jakin, beste batean, nola salbatu zuen itolarrian zegoen laguna. Bi gertaera hauek sakonki eragin zuten gaztearengan, baina etxean ez zituen azaldu.

Garai hartan, zortzi-hamar urte zituenean, hasi zitzaion literaturarekiko xarma, eta lehen istorio laburra idatzi zuen Little Goldie Brighteyes pertsonaiak liluratuta. Geroago, Agnes-ek oparitu zion *Sir Wilfred's Seven Flights* liburuaren pertsonaia libertariaren ibilerak ezagutu, eta honen eragina soma daiteke Stephen-en *The O'Ruddy* liburuaren heroia deskribatzean, bai eta *Whilomville Stories*-en zenbait ipuinetan ere.

⁵⁰ (STALLMAN 1968).

Eskola ostean, eta sei hilabetez soilik, Stephen Pennington Seminary-n egon zen ikasten, aita urte batzuk lehenago zuzendari egondako Seminarioan, hain zuzen. Amaren nahia semeari disziplina ezartzea bazen ere, ez zuten inoiz lortu ohean garaiz egon zedin, ezta jokia, edaria eta tabakoa utz zitzan.

Soldadutxoetara jolastea maite zuen Crane-k. Agian horregatik, edo familiarik zetorkion tradizioagatik bidali zuen bere amak Claverack College & Hudson River Institute-ra, hamasei urte zuela, 1888eko urtarrilaren 4an, hezkuntza erdi-militarra eskaintzen zuena neska-mutilentzat. Urte hauek zoriontsuenak izan ziren Stephen-en bitzta laburrean. Hiru neskez maitemindu zen bi urtetan. Lehen "maitasuna" Harriet Mattison izan zen: pianojole bikaina, aurpegi irlandarra zuen eta oso polita zen. Tamalez, urtebete beranduago hil egin zen.

Maite izan zuen beste neska bat beltzarana izan zen, Sioux City-koa (Iowa). Claverack-en izan zuen beste lagun bat bezalaxe (Earl T. Reeve, Rushville-koa, Indiana, *sioux* ezizenaz deitzen zuena), neska hau ere indiarra zen. Orduan hasi zen "*indio*" deitzen bere lagun guztiak, hasieran xeratsuki baina, urteak aurrera joan ahala, mesprezuz.

"Han ez nuen ezer ikasi. Eskola pribatu amerikarrak ez dira publikoak bezain txarrak, agian, baina ez dago alde handirik... Hala ere, zerua eguzkitsua zen eta ez zen euririk jausten nik baseball-ean jokatzeko nuenean. Oso zoriontsua izan nintzen han".⁵¹

Graduatzea lortu ez bazuen ere, Claverack's *Vidette* aldizkarirako bere lehen artikulu sinatua idatzi zuen, 1890eko otsailean. Artikuluaren gaia Henry M. Staley-ren abenturari buruzkoa izan zen, David Livingstone misiolari ingelesaren bila Afrikan barrena abiatu zenekoa.

Semeari disziplina ezartzeko saioek porrot egin omen zuten, Pennington Seminary eta Claverack College & Hudson River Institute ostean, Lafayette College-n hiruhilabetez bakarrik egon baitzen: 1890eko irailaren 12an sartu zen, eta abendurako esan zieten hurrengo urtean ez itzultzeko.

⁵¹ Ibidem, 24. or.

Azkenik, Syracuse University-ra joan zen 1891eko urtarrilaren lehen astean, baina ikasketak amaitu aurretik, 1891eko maiatzean bota egin zuten bertatik. Irakasle baten hitzak eskaini dizkigu Stallman-ek unibertsitatean izan zuen jarrera ohar gaitzen: "*Crane, zu inoiz ez zara ezer izango. Zergatik ez diozu uzten idazteari eta arreta handiagoa ipintzen kono hauen sekzioan?*"⁵² Algebra, Kimika, Fisika, Oratoria eta Alemana bost axola zitzaizkion. Dekanoak gomendatu egin zion berriz ez itzultzeko jarrera aldatzeko asmorik ez bazuen. Eta ez zen itzuli, baina ez zitzaion axola izan.

"*Ikasle-garaian oso ikasgai gutxi nuen intereseko, eta horrexegatik izan nintzen ikasle kaskarra... baina literatura beti izan nuen gustuko*" esan zuen behin⁵³.

Idazle-gurakoa eta kazetari

Gazte-gaztetandik bazuen asmo aldazina, idazle izatearena, eta Peaslee-k esan zuenez, "*egia ikasteko borondate sakona zuen. Gabaz irakurle asegaitza zen. Literaturaren maisulanak irakurtzen zituen, eta gero, gizakiekiko eta bizitzarekiko zeukan berezko ikusmira papereratzten ahalegintzen zen*"⁵⁴. Nola idatzi ere bazekien hasiera-hasieratik: ahalik eta erraz eta sinpleena, gaizki-ulertzerik gabe, gizon eta emakumeek eurrez irakur eta uler zezaten, "*I endeavored to express myself in the simplest and most concise way*"⁵⁵.

Amak onartu egin zion semeari idazle izateko erabakia, eta froga gisa edo, 1891eko maiatz hartan bertan, Stephen-ek Syracuse University-ko *Herald*-en "*The King's Favor*" argitaratu zuen, hemeretzi urte zuela.

Idatzi, aldiz, aurretik hasi zen idazten. Hamalau urte baino ez zuen lehen ipuina idatzi zuenean, "*Uncle Jake and the Bell-Handle*", hiri handira doan nekazari bati buruz diharduena. Hala ere, eta hizkiekiko lilura sentitzen zuen arren, hamabost urte zuenean kirolari profesionala izan nahi zuen, baseball-jokalaria, eta idazlea ere bai, aldi berean. Gurahandiko hitz deigarriak eta aditzak asmatzea maite zuen, eta gai zen partidu baten

⁵² Ibidem, 30. or.

⁵³ (CRANE 1981) Leopoldo Mateok egindako gibel-solasean, 215. or.

⁵⁴ (STALLMAN 1968), 30. or.

⁵⁵ Ibidem, 33. or.

atsedenaldian saiakerarik landuena idazteko, eta geroago sutsu segitzeko jolasean, dema batean egin zuen bezala.

Jonathan Townley anaiak Newark-eko *Advertiser* albiste-agentzia zuen eta New York-eko *Tribune* egunkariarentzat egiten zuen lan. Albiste-agentzia honetarako idatzi zuten beraren anaiek eta amak ere bai. Wilbur Fiske anaiak Townley-rentzako artikuluak egiten zituen udako oporretan medikuntza ikaslea zen bitartean; Mary Helen amak artikuluak idazten zituen boletin metodistentzat eta gero *Tribune* eta *Philadelphia Press*-era bidaltzen zituen, Townley-ren agentziaren bidez. Diru gutxi zuenez, gutxiago alargundu ondoren, hiru seme eskolaratu ahal izateko, artikuluaren ordainketaz gain, jarauntsitako ikatz-meategiei esker lortutako dirua erabili behar izan zuen.

Wilbur Fiske eta Mary Helen ez ziren izan Townley-rentzat idatzi zuten bakarrak. Stephen ere New York-eko *Tribune* egunkarian 16 urte zuela hasi zen argitaratzen, 1888ko udan, hasiera batean amak zuen zutabean laguntzen soilik, baina geroago artikulu propioak eginez.

Syracuse-n egondako garaian artikulugintzan eta literaturgintzan aritu zen aldi berean, bizitza osoan zehar egin zuen bezalaxe, proiektu batean baino gehiagotan jardunez. Urte hauetan hasi zen *Maggie: A Girl of the Streets* lanaren lehen zirriborroak idazten. Orriak nonahi utzirik, txoko turkiarra bailitzan dekoratu zuen bere gela. Flaubert-en *Madame Bovary* irakurtzen ari zen garai hartan, eta kritikari batzuren ustez, "*Maggie*" nobela honen bertsioa da zenbait aldagai erabiliz: Frantziaren ordez, Bowery hiribarreneko azpimundu ezezagunean kokatu zuen narrazioa, eta emakume burgesaren ordez, Maggie neskato laidotuak protagonizatu zuen istorioa. Prostitutek eta gaizkileen munduak txunditu egiten zuten Stephen. Orduak eta orduak ematen zituen Bowery auzoan, txabolen artean.

Zirriborro haren bertsio ezberdinak idatzi zituen, ikuspuntua eta tonua aldatuz, eta Delta Upsilon House-ko kideei erakutsi zien iritzia eman ziezaioten. Urte batzuk berandago gauza bera egin zuen Art Student's League-ko kideekin, *The Red Badge of Courage* lana emanez, lagunek aldaketa edo iradokizunak egin ziezaizkieten. Idazten ez

zuenean, Stephen-i hondartzan denbora pasatzea gustatzen zitzaion, baloiaz jolastea, tiroketa egitea edo seilu-bilduma osatzea. Tiratzaile ona⁵⁶ eta igerilari hobea izan zen gaztetan.

1891eko uda honetan Helen Trent-ekin maitemindu zen. Helen laster joan zen Suitzara eta beraien arteko harremana gutunen bidezkoa izan zen ordutik aurrera.

Stephen kontraesankorrak ez zuen maite emakumeek zigarroak erretzea edo eta bainujantzi ausartak eramatea, baina gai zen Helen-i zigarroa pizten zion bitartean, iluntzean biluzik bainatzeko proposamena luzatzeko. Helen-ek antzera jokutzen zuen, jokatu ere. Tabakoa erretzen zuen, garairako jarrera zabala erakutsiz, baina Stephen-i txaboletan ibiltzea aurpegiatzen zion, jokaera hori desegokia zelakoan, eta are desegokiagoa txaboletako jendea nobelarako pertsonaia bihurtzea. Trent-ek honelakoa esan zion batean, Stephen-en erantzuna "*Bowery da hiriko leku interesgarri bakarra*" izaten zen, eta ondoren alde egiten zuen, haserre.

Helen izutzea gustatzen zitzaion Crane-ri, gauza harrigarriak esanez, budismorako zaletasuna adieraziz, edo bainuetxeak nazkagarriak zirela esanez, Robert Louis Stevenson-en prosa bezain nazkagarriak. Apurka-apurka Stephen maiteminduz joan zen, baina Helene-entzat jokoa baino ez zen izan, eta laster ezkondu zen Londresko Charles Goodsall doktoarearekin.

Townley-ren bidez lortu zuen Crane-k *Maggie*-ren lehen zirriborroa Johnson kazetariari aurkeztea, baina Townley-k ahalegina egin bazuen ere, azkenean ez zioten argitaratu nobela. Maileguaren bidez lortutako diruari esker argitaratu zen Crane-ren lehen nobela. Berak inoiz ez zuen dirurik izaten. 1893an bere etorkizuna 23 \$-ren truke salduko lukeela esan zuen, "indio gaixoa" baino ez zen-eta. Bizitzan zehar beti estu eta larri egon zen, bere ekonomiari zegokionez. Anaiengandik dirua jasotzea gorrotatzen zuen arren, sarritan beraiengandik bereganatu zituen behar zituen sosa, eta inoiz ez zien itzuli, eskatu ez ziotelako. Kontraesanez beteriko bizitza eraman zuen: beti zorretan egoten zen gizon aberatsa izatera heldu zen; bohemia izan arren,

⁵⁶ Bizitzaren zati gehiena bataila-zelaiak asmatzen edo bizitzen eman bazuen ere, biziarekiko begirune handia adierazten zuen. Ehizaren aurkakoa zen. Ehizatuaren adorea miresten zuen, eta ehiztariaren

Ingalaterrako jauregian ingeles erara janzen zen afalorduan; eta, gainera, ezkondu gabeko senarra zen guztien begietan. Areago, Lily-rekin izaten zituen elkarriketetan behin esan zionez, guztiz gaitzesten zituen emakumeari behin betiko fideltasuna eskatzen zioten gizonak, trukean ezkontzeko proposamenik luzatu gabe. Hala ele, berak ez zion inoiz eskatu bere emazteari berarekin ezkon zedin.

Crane idazle

Kontraesanak bere idazlanetan bertan isladatzen dira. Crane-ren heroiak bere buruarekiko eta munduarekiko irudi positiboa azaltzen du, baina narratzaileak ironikoki tratatzen du etengabe. *Maggie* nobelako heroia, esaterako, ez da neskatoa, baizik eta neskatoaren himena urratu zuen gizona. Hutsaren hurrengoak dira gizakiak nobelan, Naturaren parean. Gizaki hauek, gainera, gainontzekoen ahultasunekiko itsu agertzen dira.

Heroiak bere burua sasi-jainkotzat jotzen duen artean, kontrastean, zalantzakor eta tentsionaturik agertzen zaigu errealitatearekin topo egiten duenean. Aurretiko irudia bertan behera jausten zaio esperientzia larriak bizi ondoren, kontrolatu ezin dituen esperientzia lazgarriak bizi izaten dituenean alegia, patua kanpotik ezarritako elementua baita⁵⁷. Kritikari amerikarren ustearen aurka, ostera, gure ustez, ez da patua pertsonaien jokaera baldintzatzen duena, baizik eta superniaren presioa, subjektibitateari buruzko atalean ikusiko dugunez.

Maggie, estilo baten aurrekaria

Bai *Maggie* eta bai *The Red Badge of Courage* garai berean idatzi zituen, lehena 1891-92 urteetan, eta bigarrenari 1892ko amaieran eman zion hasiera. Beraz, uste izan denaren kontrara, aldi berean (edo ia) ari zen *Maggie* nobelan agertzen diren groteskokeriak eta *The Red* nobelaren estilo metaforikoa idazten, bi estiloak desberdinak izan arren.

koldartasuna errefusatzen.

⁵⁷ Gaia ondo landu du James Colvert-ek (COLVERT 1959).

Bere *Sullivan County* ipuinetan ere agertzen da, gero nobeletan sakonduko zuen estilo inpresionista: izenlagun koloretsuekiko adikzioa adierazten du, pertsonaia eta egoeren intentsitate psikologikorako zaletasuna, eta paradoxa, metafora eta errealismo sinbolikoa agertzeko teknika.

Eragina izan zezakeen 1891eko udan Hamlin Garland ezagutzeak. Honen teoria "veritista" eta Howell-en teoria errealista Stephen Crane, Henry James eta Joseph Conrad idazleei egotzi zaizkie, baina Crane-k haruntzago jo zuen bere errealismoan. Errealismo sinbolikoa zen berea. Ikus dezagun Garland-en hitzaldia entzun ondoren S. C.-k idatzi zuen artikulua. Garland-en ustez, Howell-en errealismoaren definizioa hobetzerik ez dago, "materialaren tratamendu egiatian" baitu oinarria. Stephen-ek honela zioen artikuluan: "*Garland-ek ez du azpimarratu ezein material berezirik, bakar-bakarrik idazleak egiati izan behar duela bere buruarekiko eta ikusi dituen gauzekiko ere bai. Absurdua da fotografikoa dela esatea. Argazkia faltsua da perspektiban, argi-itzalean eta fokoan*".

Errealismoaren gordintasunagatik, eta batez ere, irakurlea izutzeko gaitasunagatik, John Berryman-ek Edgar Allan Poe-rekin konparatu zuen Crane-ren idaztankera. Poe eta Ambrose Bierce-ren zenbait istorioren izua eta inpaktua, Crane-ren istorioetan antzematen ditu Berryman-ek, esaterako "*The Mesmeric Mountain*" istorioan⁵⁸. Bi idazle horiek bezalaxe Crane-k ere beldurra eta izua ditu gai errekkurrenteak. *The Red* idatzi aurretik, beldurraren erretratu psikologikoa eskaini zigun "*Killing His Bear*" narrazioan, geroago Henry Fleming-ek sentitu zuen beldurra deskribatzen baitigu ehiztariaren irudian (*the little man* deitzona, kasu honetan ere).

1892ko udan erabaki zuen zenolako estiloa erabiliko zuen aurrerantzean, eta estilo hori ez zela zuhurtziaren eskolakoa izango. "*Rudyard Kipling-en estilo zuhurra erabiliko banu, bidea laburragoa litzateke, baina ez litzateke izango egiaren bidea. Borrokatzen emandako bi urteak ondo erabilitakoak izan dira. Eta orain ia amaieran*

⁵⁸ Istorio honetan "*the summit was a blaze of red wrath*" esaldia aurrekaritzat jo dezakegu. *The Red Badge of Courage* nobelan esango digu "*the red sun pasted in the sky like a wafer*".

*nago. Negu honek ziurtatzen nau irmoki*⁵⁹.

Stephen-en ama 1891eko urrian gaixotu egin zen eta Paterson ospitalean onartu zuten. Bertan zendu zen abenduaren 7an. Seme-alaba guztietarik bere oheburuan egon zen bakarra Townley izan zen. Aurretik ere zenbait hilabetetan zehar egon zen gaixorik 1886an, eta orduko hartan Asbury Park-eko *Shore News* egunkariak emandako albistea “*behin-behineko buru-desoreka zuela eta egoera kritikoan zegoela*” izan zen, eta gauza bera esan zuen *Journal*-ek, “*bere buru-arazoak laster desagertuko direla desiatuz*”.

Labur baino laburragoa izan da biografo guztien lanetan amaren heriotzaren berriak hartu duen tarte, eta are laburragoa, beraien ustez Stephen-engan izan zezakeen eragina. Aipatu ere ez da egin. Aitarekiko harreman gazi-goza, ordea, ikerketa ugariren gaia izan da. Jasota gera bedi hemen *factum* hori.

Biografo batzuek agerian utzi digutenez, emakumeek eragina izan zuten Stephen-en bizitzan, baina salbuespenak salbu, bere idazkietan isladatzen den mundua gizonezkoen mundua da, eta halaxe da, baita, ustez emakume baten ikuspuntutik mintzatzen denean ere, *George's Mother* eta *The Third Violet* nobeletan esaterako. Crane-ren fikziozko emakumeak bizirik gabeko objektuak dira; eta gizonezkoak, emakumerik gabeko gizonak dira, izan⁶⁰. Kontrastean, berriz ere, Lily-ri idazten zizkion gutunak ditugu. Horietariko batean honelakoak esan zizkion: “*Ez nazazu ahantzi, maitea, inoiz, inoiz, inoiz ez. Zu zara nire bizitzaren emakume bakarra. Bizitza bakartia eta amets hutsezkoa izatera kondenaturik nagoela sumatzen dut. Horrexek hobea egiten nau, horrexek zabaltzen dit jendearekiko eta gainontzekoek jasan litzaketan edozein egoerekiko ulerkortasuna. Horrexegatik, etorkizunarekiko itxaropena izan behar dut. Egia esan, nire bizitzan izan den aldaketa honek probatzen dizkit zenbait balore, baina*

⁵⁹ Honelakoa esan zion Lily Brandon Munroe andreaki 1894ko otsailaren 29an bidalitako gutunean, baina askoz ere lehenagotik bazuen erabakita zenolako estiloa (etika esan behar genuke?) nahi zuen gauzatu bere idatzietan.

⁶⁰ Salbuespen bakarra, Asbury Park izenekoen artean agertzen den “*The Pace of Youth*” ipuina dugu. Ipuin honetan, Lizzie Stimson-ek eta berorren maitaleak ihes egiten dute, maitasunagatik. Stephen eta Lily Munroe ere halako egoera batean egon omen ziren, Stephen-ek ihes egiteko proposamena luzatu zionean emakume ezkonduari.

alajaina, larrutik ordaindu ditut, ordaindu ere"⁶¹.

Edonola ere, Lily-rekin ez zuen izan arrakasta handirik, eta honek bere senar jeloskorrengandik dibortzioa lortu zuenean, Munroe geologoa utziz alegia, aitari jaramon eginez, Smillie andrea izena hartu eta ez zen berriz ere ezkondu, ezta Stephen-en eskaerei erantzun ere.

Maitasuna gora behera, Stephen-ek etengabe ekin zion egunkarietan artikuluak idazteari. Bai eta idazten zuenarekin konprometitu ere. Horrela, *Tribune* egunkaritik kanporatua ez, baina baztertua izan zen, manifestazio bati buruzko artikuluari eman zion tratamenduagatik. Egunkariko nagusia hautagaia zen lehendakariordetzarako hauteskundeetan, eta Crane-k artikuluari eman zion tonua ez zen izan nagusiaren gustukoa. Aberats eta txiroen arteko aldea (kontrastea berriz ere) Stephen-engan grabaturik geratuko zen betiko.

Idazteko unean hartu beharreko jarreraz ez zuen zalantzarik. "*Ahaztu gauza bati buruz zer pentsatzen duzun, esan soilik nola sentitzen duzun*"⁶² esan zion behin kazetari bati. "*Idazten dituzun gauzak sentitu egin behar dituzu, munduan inpaktua lortzerik nahi baldin baduzu, behinik behin*". Ustez sinplea zen estilo hau, Garland idazleari estilo eza iruditzen zitzaion. Howells-i esan zionez, "*Egad (sic), ez du estilorik, guztiz gardena da, liluragarria, zeharo lilugarria da*"⁶³.

Idazle guztiek keriak ei dituzte idazteko unean, eta Stephen-ek ere bazituen bereak. Sarritan oharrak idazten zituen alkondararen mahu-kamuturretan, eta etxean zegoenean, leiho aurreko aulki batean egoten zen jarrita, beste aulki batean tintontzia jartzen zuela. Kerien artean, gaueaz idaztearena dugu, edo eta burua fresko mantentzearena. Horretarako, painu hotza biltzen zuen buruaren inguruan, durbante gisa. "*Painua? Esnarazi egiten nau eta honela ez nau loak hartzen, erne mantentzen nau. Gaupasa egiteko moduan. Painu umelak ondo hozten du makinaria. Eta nik hobeto egiten dut lan gaueaz. Bakarrik nago munduan. Ederra da!*"⁶⁴. Izan ere, bakarrik sentitu

⁶¹ (STALLMAN 1968) 62. or.

⁶² Ibidem, 57. or.

⁶³ Ibidem, 62. or.

⁶⁴ Ibidem, 60. or.

zuen beti bere burua, eta bakartasun honen deskribapen literarioa behin baino gehiagotan egin zuen ipuinetan, Asbury Park eta Sullivan County izeneko ipuinetan esaterako⁶⁵.

Bakarrik sentitu zen arren, gutxitan egoten zen bakarrik. Etxe batetik bestera, ohea eskaintzen zioten lagunen zein senitartekoen etxeetan egoten zen denbora luzez. Berea ez zen etxe batean ere idatzi zuen *Maggie* nobela. Esan bezala, Gilder editoreak ez zion argitaratzea onartu, "krudela" zelakoan edo. Ez zuen lizuntzat jo, baina bai profanotzat, zakartzat. Bestalde, ez zuen egoki ikusi Stephen berean hartzea, haren bizitza pribatuaz entzunak zituen zurrumurruak zirela-eta.

Gilder-ek errefusatu ondoren, hirugarrenez idatzi zuen *Maggie* eta aldizkarietara eskaini zien Stephen-ek, baina alperrik.

Maggie nobelan lehenengoz agertzen da, geroago ere Crane-ren nobelagintzan konstantea izango zena, bere esperientzia pertsonaletik datuak hartzea alegia. Hizkera, egoerak, pertsonaiak eta eskena errealak agertu egiten dira bere idazkietan: entzun duen pertsona anonimo baten hizkera-mota, ikusi duen manifestazioa⁶⁶, edota ezagunen izenak ere, beste era batera moldatuta.

Hasiera batean ez zuen nobela bere benetako izenaz sinatu. Johnston Smith ezizenaz sinatu zuen, anonimorik arruntena. Azkenean, medikuntza-liburuak eta tratatu erlijiosoak argitaratzen zituen argitaletxean atera ahal izan zuen, bere kasa, paper merkean eta azal horixkaz, baina benetako izenaz sinatuta. 1.100 kopiaren truke 869 \$ ordaindu behar izan zuen, eta amaren oinordetza saltzetik falta zitzaiona, anaiari eskatu behar izan zion (baina ez zen izan 1.000 \$ lagatako kopurua, nonbait esan denez, askoz ere gutxiago baizik).

Beste zenbait idazleren eraginak ikusi izan zaizkio *Maggie* nobelari, gehien bat

⁶⁵ Bakardadea kolorearen bidez adierazi zuen Asbury Park-en, "*...as the sun sinks the incoming waves are shot with cooper beams and the sea becomes a green opalescence*", eta berriz ere adierazi zuen Sullivan County-n, "*Suddenly it struck each that he was alone, separated from humanity by impassable gulfs*".

⁶⁶ 1892ko abuztuan desfilea ikusi zuen Newark-en. United American Mechanics-eko kideak ziren, erakunde politikoa, eta ibiltarietako brontzezko tresnak zeramatzaten, lepo makurtuan harturik. Hura ikustean, Crane-k esan zuen "*gizon zakarrak, hautsez beterikoak, letoizko koadrila zela, disonantzia-*

Flaubert eta Zola errealista frantsesenak. Zolaren nobeletan bezala, Crane-ren *Maggie* nobelan ere ingurunearen biktima da gizakia. Maggie ez da emakume gaiztoa sentitzen. Bere mundu itxian murgildurik, ez du ezer hoberik ezagutzen; “emagalduta ona” da bera, eta beraren ama, txaboletako ama arketipikoa da. "*Sentimendu nabaririk gabeko*" nobelatzat hartu zuen Gibert-ek⁶⁷. "*Ez da drama sentimentala, ez dago sentimentalizatuta*"⁶⁸. Ordea, ironiaren bidez azpimarratzen du indar moral eta soziala, eta honexek egiten du desberdin. Honek eragiten du nobela soziologikoa ez izatea. Crane-k zioen bezala, Flaubert imitatuz, "*sentimendua deabrua da*".

Maggie-ren amaren izena Mary da, Stephen-en amarena bezalakoa, Mary Peck. Datu honetan ikusi nahi izan du Stallman-ek Crane-k bere amari egiten zion salaketa, hamalagarren semea abandonatzea leporatuz, bera karitate-etxeetan eta misiolari-landetan aritzen zen bitartean. Izan ere, Maggie-k nahasketa morala erakusten du nobela osoan zehar, ongia eta gaizkia bereizten ez dituela. Hasiera batean borroka bat deskribatuz hasten da kontaketa. Deigarriena, ordea, ez da argumentua, ezta gaia bera ere, baizik eta estilo metaforikoa. Hiriko azpibizitzari modu artistikoan eskaini izan zitzaion lehen nobela da hau, Frank Norris-en *McTeague* nobela agertu baino sei urte lehenago idatzita gainera. Koloretan egindako koadroa da, poeta baten prosa, arte nobela hitz bakar batean.

Esan bezala, Flauberten *Madame Bovary*rekin konparatu dute kritikariek Maggie pertsonaia. Lehena burgesa eta bigarrena hiribazterrekoa izan arren, biei arin pizten zaie larritasunetik itzaropena. Crane-k berak honela definitu zuen behin batean nobela zer zen bere ustean: "*zakarki irudikatutako pinturen segida da, eta irakurlearen aurretik panorama bailitzan igarotzen dira margoak, bere inpresioa uzten diotela*".

“The Red Badge of Courage”ren hastapenak

1893eko uda hartan zehar *The Red* nobela izango zenaren zirriborroan jardun zuen. Bi heren baino ez zuenean, urrian, Sullivan County-ko lur basatiak utzi, eta

haserrea osatzeko".

⁶⁷ Hori izan zen Gilbert editoreak *Century* aldizkarian *Maggie* nobela kondentatzeko erabili izan zuen argudioa.

Frederic Gordon-en etxera joan zen bizitzera, Needham eraikuntzan. Garai hartan *New York Press*-en igandetako editorea zen Edward Marshall-i eta *World*-eko Joseph Pulitzer-i deitu zien eta eskuizkribua erakutsi zien. Marshall (Stephen-en adin berekoa gutxi gorabehera) liluraturik gelditu zen narrazioa irakurrita, eta *Press*-ek zatika argitara zedin ahalegina egin zuen, baina ez zuen lortu. Hala ere ekiteko esan zion, “*egin ditzakezun artikulu berezi guztiak hartuko dizkizut, baina gauza hobeak egiteko eginda zaude. Ez galdu denbora*”⁶⁹.

Kontsolamedua ez bazen ere, promesa hari eutsirik, otsailean hasi zen idazten *New York Press* egunkarirako (bost dolar zutabeko) “*New York City Sketches*” artikuluak, geroago *Truth* eta *Arena* egunkarietan ere agertuko zirenak. Garai berean, Elbert Hubbard idazlea ezagutu zuen ere, eta beronek gomendatu zion Mark Twain-en “*Huckleberry Finn*” liburua irakurtzea. Crane, iraindua izan balitz bezala, erantzun zion Twain ez zela idazle, are gutxiago artista, eta Twain-en liburu bakar bat gustatzen zitzaiola, “*Life on the Mississippi*” nobela hain zuzen.

1893ko abendu hartan hasi zen bere aitaponte literarioekiko harremana, Hamlin Garland eta Howells-ekiko erlazioa. Garai hartakoak izan ziren Lily Brandon-i idatziriko gutunak ere, honen erantzunik eza eta, ondorioz (edo ez), Stephen-ek poema mordoa sortzea, egunero-egunero bospasei poema idatzi baitzuen 1894ko urtarril eta otsailean zehar. Bai poemak eta bai prosa, itxuraz, esfortzu berezirik gabe idazten zituen, inolako zuzenketarik ezta akatsik egin gabe, zuzen-zuzenean. “*They came, and I wrote them, that’s all*”, esan zion harriturik gelditu zitzaion Linson lagunari. Urte batzuk geroago Joseph Conrad-ek ere harridura bera sentitu zuen Ingalaterrako Villa Ravensbrook-en, Crane-k nola idazten zuen ikusi zuenean.

Idazteko erraztasuna ikusita, Garland-ek bere teoria garatu zuen: Stephen izpirituen munduko izaki bizia zen, eta beraren gogoan bizi ziren izpirituak beti zeuden irteteko prest; nahikoa zen, beraz, “iturri poetikoa”ri giltza zabaltzea, poemak txorrotadaka atera zitezten. Esan beharrekoa da, bidenabar, Garland zela *American Psychological Society*-k 1893ko urtarrilean egindako bilerako mahaiburua, eta beranduago,

⁶⁸ (STALLMAN 1968) 75.. or.

medium baten laguntzaz espiritismo-saioak burutu zituela, “ahotsak” eta “gauzen mugimendu kontakturik gabekoa” ikertzeko asmotan.

Edonola dela ere, Garland-en bidez zenbait kontaktu egin zuen *Arena* eta *Century Magazine* argitaralpenekin; baina Stephen Crane-ren poemak ontzat emateko prest bazeuden ere, ez zuten uste *The Red Badge of Courage* nobela *Century*-n argitaratzeko aproposa zenik. Garland-i bai, gustatu egin zitzaion nobela. Lehen esalditik harrapaturik geratu zela aitortu zuen. Orri bakoitzak poema baten irudia ematen zuen. Ez zuen ulertzen nola zen posible esperientzia gabeko gazte batek gerra istorio hura kontatzea⁷⁰. Crane-k aitortu zion gerra-esperientzia bakarra futbol zelaian bereganatutakoa zuela⁷¹ eta ez besterik.

Esperientziarik ez zuen, ezta baliabide ekonomiko handirik ere (1894 urte latzean, behartsuei ogia banatzen zitzaizenean, Crane-k ere gosea ezagutu zuela aipatu zuen Garland-ek, eta hori esanik konbentzitu zuen Flower, Crane-ri espazioa eskaini ziezaion *Arena* aldizkarian), ideiatan aberatsa omen zen Stephen, zeren, lehen lanak idazten hasi zenean zertaz idatzi pentsatu behar izaten bazuen ere, 1894an ingurukoei aitortu zion, bi urtez aritzeko besteko ideia-kopurua bazuela. Gaiek, aldiz, gero eta gehiago jotzen zuten pobrezia eta pertsona marjinauak deskribatzera, “*Men in the Storm*” idazkian egin zuen bezalaxe⁷². Hemeretzigarren mendeko fikzioan inork ez zuen

⁶⁹ Ibidem, 84.. or.

⁷⁰ 1901eko urtarrilean argitaratu zen “*Wouns in the Rain*” narrazioa, idazle jaioreen lana kritikarien ustetan. Bertan azaldu zituen Kubako gerran izandako esperientziak. Crane-k zioen, gauza bat dela imajinatzea nola sentituko litzatekeen norbait gerran sarturik, eta beste gauza bat dela, oso desberdina, esatea nola sentitzen den norbera suaren erasoan. Londres-eko “*Academy*” aldizkarian (1900eko urriaren 16a), aldiz, esan zuten, edozein narrazioa esperientziadunek idatz zezakeela bizi izandakoa, baina Stephen-ek baino ezin zezakeela idatz “*The Red Badge of Courage*”. Nobela hau kronika baino hobea da, eta agerian uzten du gerrara joan beharrik ez dagoela kalitatezko nobela idazteko. Honek guztiak ondokoa adierazten du artikulua egin zuenaren ustean: ala kazetari zihardunean, egileak egindako bataila zuen gogoan, ala bestela, egileak asmatu egin zuen kazetariak ikusiko zukeena, eta geroago baieztatu zuen. Crane fikziogile hobea zen kronikagile baino.

⁷¹ “*It was as if the youth in some mysterious way had secured the cooperation of a spirit, the spirit of an officer in the Civil War. How else could one account for the boy’s knowledge of war? I spoke of this and in his succinct, self-decisive way he candidly confessed that all his knowledge of battle had been gained on the football field... He told us that the coming of that story was just a mysterious as in the case of the verses, and I can believe it. It literally came of its own accord like sap flowing from a tree*”. Ibidem, 93.. or.

⁷² “*They see the world’s progress leaving them behind and they try to perceive why they failed and what they lacked. Waiting for the door of the charity bakery to open*”. Paria sozialen anonimotasuna interesatzen zaio. marjinauak. “*An Experiment in Misery*” lanean, honelako pasartea irakur daiteke: “*I*

ezagutzen New York-eko sasimundutxo hura Crane-k bezain beste. Willis Brooks Hawkons-ek zioenez, Crane-ren hobbierik behinena bizitza bera ezagutzea zen, den modukoa, eta bizitza askeago azaldurik aurkitu zuen gizarteko behe-mailetan, goikoetan baino. Crane-ren adin beraz eta artean editore ospetsu zen Marshall-en iritiz, “*Stephen hiru gauzen konbinaketa zen soilik, gazte garbia, pentsamenduetan eta egintzetan, jakintsua eta fina; eta fina esatean, fisikoki ere ez zela indartsua esan nahi da. Bere keriarik handiena gau osoan lanean aritzea zen. Inoiz ez nuen ikusi guztiz eroso gozpuzkeran. Ez zen oso langile iraunkorra, hain zuzen ere bere gorputza agorturik egoten zelako buru-aktibitate etengabearen ondorioz. Bere burmuinak ez zuen inoiz atsedetik hartzen*”⁷³. Crane-k bazekien, edonola ere, aitaren familian ardi beltz-tzat jotzen zutela, eta iritzi honek tristetzen bazuen ere, onartu egiten zuen nolabait.

Familian onartua izan edo ez, ez zen bera gehien arduratzen zuen arazoa, idatziarekiko izan behar zuen etika baizik. Beraren ustez, “*ez gara zintzoak denbora osoan zernolako portaera izan behar dugun pentsatzen ari bagara. Jarrera intelektuala bereganatzen dugu, saihebidetarako erabili eta honi gizabidezko modua esaten diogu. Zeharo lizuna da: norberaren lanaren aurka doa hori. Zintzoa ez bada, artea izateko ez du baliorik. Egia jakitea eta buruaren inteligentziaren bidez berau saihestea, itxurazalekeria hutsa da. Hobe da zintzoki nahasturik egotea. Arteari dagokiola, ikusten dugunaz soilik gara erantzule*”⁷⁴.

“*The Red Badge of Courage*” argitaratu gabe zen artean, Crane-k W.D. Howells 1894ko urrian elkarrizketatu zuen eta galdetu zion ea nabaritu zuen aldaketarik literaturgintzan azken lau hilabeteetan, eta hauxe gehitu zion “*aurreko neguan ematen zuen errealismoa gauzak harrapatzea zela, baina bolada batetik hona uste dut badatorrela generoa jazartzeko olatua, bestelako uholdea; erreakzio bat, izatez.*

wonder how he feels’, said one, reflectively. ‘I suppose he is homeless, friendless, and has, at the most, only a few cents in his pocket. And if it is so, I wonder how he feels’. The older man spoke with an air of authoritative wisdom: ‘You can tell nothing about it unless you are in that condition yourself. It is idle to speculate about it from this distance’, ‘I suppose so’, said the younger man, and then he added as from an inspiration: ‘I think I’ll try it. Rags and tatters, you know, a couple of dimes, and hungry, too, if possible. Perhaps I could discover his point of view or something near it’. Eta orduan Stallman biografoak hauxe gehitu zuen, “*And so Crane began his own experiment in misery*”. op. cit 96.. or.

⁷³ Ibidem, 107-108. orr.

⁷⁴ Ibidem, 113.. or.

Azalezkoa, behin-behinekoa agian, baina erreakzioa finean”. Howell-en erantzuna honako hau izan zen, “*egia da esan duzuna. Etorri datorrela ikusten dut... baina itxaron egin behar dela suposatzen dut*”⁷⁵. Baina ez zuten askorik itxaron behar izan, “*The Red*” eta “*The Black Riders*” liburuak uholde berrian zetozelako.

Uholde berri baten barnean bazetorren ere, berezko estiloa zuen Crane-ren lanak. W.D. Howells-ek (urtebete lehenago Emily Dickinson-en poesia ezagutarazi zion Crane-ri) ez zuen gehiegi maite Crane-ren estiloa, ulertzen ez zuelako, baina interes handiz segitzen zuen: “*Ez du ematen beste idazleren bati jarraitzen zaionik. Buru sortzaile eta bakanaren emaitza ematen du bere lanak. Antzematen dira, jakina, idazlearen irakurketak eta zaletasunak, baina ez dira imitazioak*”⁷⁶.

1894ko abenduan, uste baino hilabete bat lehenago, Irving Bacheller-Johnson buru zituen sindikatuakserializatu eta banatu egin zuen “*The Red Badge of Courage*”. Abenduaren 3tik 8ra *Philadelphia Press*-en agertu zen, (laburturik, hasierako 55.000 hitzak 18.000ra murriztu egin baitziren), eta geroago, *New York Press*-en edizio bakarrean, abenduaren 9an, bai eta estatuan zehar barreiaturiko beste ehundaka egunkari txiki eta astekaritan ere. Bacheller-ek, 90 \$ ordaindu zuen.

Arrakasta berehalakoa izan zen. *Philadelphia Press*-en fikziozko narrazioak naharoki ari ziren argitaratzen eta eskaera handia zen orduko hartan, batez ere frantseseko narrazioak modan izan ondoren. Aurka zuen, ordea, egilea ezezaguna izatea eta Gerra Zibilaren inguruko gaiak gainbehera egotea dagoeneko. Hala ere, editoreek zein irakurleek narrazio berria gogotik txalotu zuten, eta *Philadelphia Press*-eko erredakzio-gelan egin zioten harrera beroan, mundu guztiak estutu nahi izan zion eskua Stephen Crane-ri, aurkikuntza berria zelakoan.

Epe laburrean kontratua sinatu zuen Appleton etxearekin, eta berehala hasi zen bidaiatzen, Lincoln-era lehenengo (Nebraska) eta Mendebalde eta Mexikora gero. Bisitatzen ari zen lekuetan gero eta ezagunagoa zen arren, bere kanpo-itxura ez zuen batere zaintzen. Bibote luzea (Edgar Allan Poe-rena modukoa), jantzi gris eta zaharrak,

⁷⁵ Ibidem, 125.. or.

⁷⁶ Ibidem, 126. or.

esku luze, fin eta zuri-zuriak (Aubrey Beardsley-ren eskuak modukoak ei zituen). Nebraska State University-n ezagutu zuen ikasle baten irudiko, egile ospetsua baino, eskalea ematen zuen. Ematen zuen irudia gizon presadunarena zen, abiatzeko beti prest dagoenarena. Ikasle honek beronek urte batzuk geroago azaldu zuenez, Stephen-ek behin galdetu zion ea nola ahoskatzen zen hitz bat, segidan esateko “*ez dut astirik ahoskatzen ikasteko*”, bizitzeko denbora gutxi zuela-edo adierazi nahian. Inoiz esaten bazioten hamar urteren buruan orduko arazoez barre egingo zuela, urduri eta eskuak estutuz hauxe erantzuten zuen, “*ezin dut hamar urte itxaron, ez dut astirik*”.

Willa Carther irakaslea ere harriturik gelditu zen Crane-k bere idazteko era azaldu zionean: “*xehetasunak odolaren bidez irazi behar ditut, eta orduan zerbait Naturala bailiren azaltzen dira, eta betiko irauten dute*”.

Mendebaldera joan zenean, liluraturik geratu zen mendebaldekoen izaerarekin. Ekialdekoak baino zintzoagoak, zuzenagoak eta sanoagoak iruditu zitzaizkion. Ekialdekoak, alde horretatik, maltzurragotzat jotzen zituen, zurikeriatan ibiltzen ohi zirenak.

Mendebaldetik Mexikora jo zuen, eta han gorpuztu ziren geroago egunkarietan argitaratuko zituen artikulu ugari, kolorez eta bizitasunez beteriko artikuluak, hain zuzen. Mexiko City-n euskaldunekin izan zuen kontaktua, antza denez. Iturbide Hotelean eman zuen denboraldi luzea, eta *Mexican Athletic Club*-era sartzeko karneta luzatu zion E. Larrange izeneko lagunak. Orduan ezaguturiko lagun eta gertakarien berri “*The Wise Men*” (“Gizon jakintsuak”) narrazio laburrean eman zuen. Cafe Colorado, Hotel Iturbide eta Pop izeneko (euskalduna omen) gizon nagusiaren apostua eta gehiegikeriak ondo azalduz agertzen dira aipatu narrazioan. Hotel honetatik mendialdera abiatu zen eta han bidelapurren berri izan zuen, bere abenturazaletasunak areagotuta.

1895eko maiatzerako, ordea, bazegoen etxerako bidean, “*The Black Riders*” poema liburuak argia ikusi zuen hilabeteetan bertan. Hilearen 19an, aldiz, osasunez makal sentitzen zela esan zion bere editoreari, baina osasun eskasa izatea ez zen gauza berria. Txikitatik eta hil zen arte, bizitza osoan zehar pairatu beharreko gaitza izan baitzen.

Mexikon egin zituen kronikek kritika ona jaso bazuten ere, “*The Black Riders*” poema-bildumak denetariko kritikak jaso zituen, txarrak, oso txarrak (“*benetan uste du Crane jaunak bere bihotzetik idazten ari dela? Hala bada, zergatik ez dute poema hauek bizitasun poetikorik, zergatik ez dute izateko arrazoi argirik? Beren huskeria eta afektazioan, poema hauek irakurle inpartziala golpatzen dute, zaborra bailiren*”⁷⁷) eta onak ere bai (“*aurtengo urtean literaturgintzari eskaini zaion emaitzarik bikainena izan da. Stephen Crane da poesiaren Audrey Beardsley*”⁷⁸). Uda hura Pennsylvanian eman zuen, “*The Red*” nobela liburu gisa inprimategitik ateratzen ari zen bitartean. Garai hartan Nellie Crouse-ri ematen zion bere lanaren berri gutunen bidez. Udan zehar kritika gehiago bereganatu zuen poema-bildumak, eta gehienak kritika onak izan ziren: “*Atlantic*” egunkariko kritikagileak, esaterako, Emily Dickinson-en poesiarekin konparatu zuen, eta “*The Nation*” argitalpenak, aldiz, Walt Whitman poetarekin⁷⁹.

Ospearen lehen zantzua poema-liburuak eman bazion ere⁸⁰, “*The Red Badge of Courage*” nobela argitaratu ondoren jaso zuena, askoz ere entzutzetsuagoa izan zen. 1895eko azaroaren 8an omenezko afaria jaso zuen, eta hara joan ahal izateko, arropa utzi behar izan zioten, maileguz. Afaria ez zen izan berak espero zuena (omendu baino, norbaitek barregarri agertarazi nahi izan zuela eman baitzuen) baina edonola ere, ekitaldi haren bidez argi ikus daiteke bost hilabete lehenago zeharo ezezaguna zen idazle gaztea, gero eta zirkulu literario zabalagoetara heltzen ari zela. Afari hartan entzundakoak entzunda, Stephen apal agertu zen hala ere, eta odol hotzaz bereganatu zuen iraina. Gertaera hura Nellie Crouse-ri kontatu zion gutun baten bidez⁸¹.

Nobelaren gorabeherak

Egileak baino hobeto inork ez daki idazlanak zenbateraino ematen duen. Stephen Cranek ere bazekien nondik etor zitezkeen kritikak, bai eta lana ona ala txarra

⁷⁷ C.K. Linson, “*Sunday Tribune*” egunkarian, 1895eko ekainaren 9a.

⁷⁸ Harry Thurston Peck, “*Bookman*” aldizkarikoa, 1895eko maiatzean.

⁷⁹ “*The Nation*”, 1895eko urriaren 24a.

⁸⁰ Ikus garaiko “*Literary Digest*”, “*Argonaut*”, “*Munsey*”, “*Life*”, “*Academy*”, “*Harper’s Weekly*”, “*Commercial Tribune*”, “*Atlantic Monthly*”, “*Union*”, “*Post Express*” eta beste argitalpen askoren kritikak, esaten diogunaren frogagarri gisa. Ezra Pound-ek ere goretsi zuen Crane-ren lana.

⁸¹ Gutun hartan afarikideek “poeta” hitza iraintzeko asmotan nola erabiltzen zuten esaten zion, baina berak behin ere ez ziola probokazioari erantzun.

zen. Alde horretatik, beti izan zuen argi zer eta nola egin nahi zuen. “*The Third Violet*” nobelari buruz, esaterako, oso nobela txarra zela esan zion Curtis Brown-i, eta “*The Red Badge of Courage*” nobelari zegokionez, beldurra zuen militarrek zer esango zuten, John Phillips-i idatzi zion gutunean ikusten den bezala⁸².

“*Book Buyer*” aldizkarirako 1895eko apirilean esan zuenez, hasierako asmoa egunkarirako narrazio laburra egitea izan zen, eta gerrateak irudimenerako kolorea eta erregistro ezberdinak eskaintzen zituenez, gerra-gertaera deskribatzea erabaki zuen. Narrazioa luzatzen joan zen eta orduan pentsatu zuen lan hura ahalik eta osoen egitea. Geroago Louis Senger-i aitortu zionez, idazki hura egiteko abiapuntua, apostu bat izan zen, Zola-ren “*La Débâcle*”ri buruz Acton Davies-ekin egindako apostua, William Dallgren-en etxean. Crane-k esan zuen, inoiz inolako batailarik ikusi gabe ere, liburu hobia idatz zezakeela Zola-rena baino. Elkarrizketa hura 1892ko uztailan jazo zen, Zola-k Prusiako Gerraz egindako nobelaren iruzkina Crane-k prentsan irakurri ondoren. Projektuaren lehen zirriborroak, 1893ko hasierakoak dira beraz. Aurreko apirilean, “*Century’s Battles and Leaders of the Civil War*” liburua itzuli zion Armstrong andreari eskerrak emanez⁸³. Agian une hartan joan zen lehenengoz Fredericksburg-era, beterano konfederatuekin mintzatzera, baina datu hau ez dago baieztatuta. Edonola ere, berak “*a real story of the Civil War*” idaztea erabaki zuen, eta ez soilik ipuin fantasiosoa.

Idazteko metodologia oso intuitiboa izan zen, hala ere. Pena sentitzen zuen, eta angustia. Behin hasiz gero ordea, amaitzea deliberatu zuen. Aurrera egin ahala, ondorengo mugimendua deskubritzen zuen, inoiz jakin gabe hurrengo pausoa zein izango zen, ezta nola amaituko zen ere; baina aurrera ekiteko asmoa zuen. Geroago Joseph Conrad-ek berak frogatu ahal izan zuenez, une sortzaile luzeak izaten zituenean,

⁸² “*Urregorritzko koroa gutxienez hamabi generalen buru gainean jartzen ez badut, hauek altxatu egingo dira eta esango dute: ‘gazte zoro madarikatu hau ez zen han egon. Ni bai egon nintzen, eta honelaxe gertatu zen’.* Nire nobelan ekidin ahal izan nuen hori, funtsezkoa zelako nik neure bataila egin ahal izatea eta izenik ez izatea, baina zure kasuan ezberdina izan liteke”, esan zion John Phillips-i azken honi, Hitchcock-ek eta Phillips-and-McClure sindikatuak gerrari buruzko istorio gehiago egitea proposatu ziotenean. Nolanahi ere, badirudi 1895ean Crane Fredericksburg eta Chancellorsville-ko gerra-zelaiak ikustera joan zela, leku horiek hartu baitzituen erreferentetzat bi urte lehenago egin zuen nobelarako.

⁸³ Eskertzeko gutunean honelaxe zioen Crane-k: “*Eskerrik asko horrenbeste denboraz uzteagatik. Hamar gau eman dut idazten gerrari buruzko istorioa neure ardurapean, baina ez nago seguru nire egintzak*

kapitulu osoak idatz zitzakeen ia zuzenketarik egin gabe, hitz bat edo beste izan ezik, eskuizkribuetan ikus daitekeen bezalaxe. Orri zuriaren aurrean jarrita, ordu pare batez ekiten zion idazteari, presarik eta etenik gabe, atzera egiteke, maisuki, mirakulua bailitzan. Inguruko askok esan zuten, aurretik idatzirik eta unean begien aurrean izango lukeen zerbait kopiatzen arituko balitz bezala idazten zuen⁸⁴. Agian halaxe zen, Conrad-ek beste gauza batez ohartarazi gintuelako: Crane-k nobela honetan erabili zituen irudi eta esaldiak, aldeztatik pentsatutakoak eta landurik zituen, metaforak erabakita zituen, eta azkenik forma garbia eman zien. Ahots-goran errepika zitzakeen, beraiekin gozatuz. Paperean baino, gogoan zuen nobela lehen-lehenik. Pertsonaiak bizirik zituen irudimenean, bizidunak bailiren. Egia da ez zuela teknika landua eta, bestalde, autokontzientzia izatea ere ez zela egokia arte gisa. Baina dena ez zen inprobisazioa; aurretiko lana bazuen.

Tituluar zigokionez, zalantza bat baino gehiago izan zuen. Hasierakoa “*A Little Warm Badge of Courage*” izan zen, eta geroago aldatu izan zuen, “*A Little Red Badge of Courage*” utziz. Ondoren, “*little*” hitza kendu, eta azpititulu gisa jarri zuen “*Private Fleming. His Various Battles*” eta honen gainean “*The Red Badge of Courage. An Episode of the American Civil War*”⁸⁵.

“*The Red*” nobelaren hasierako planteamendua, Zola-k “*La Débâcle*”n planteatzen duen berbera da (armada aginduen zain dago, batailara joateko errekaren ertzean; hasierako esaldiak ia berdina dira), eta batakin zein besteak asmo bera agertzen dute: gudaldearen esperientziak eta sufrikarioak errealitatean diren moduan erakustea. Kritikariek onartu zioten Crane-ri irudimenaren bidez sor zitzakeela oso biziak ziren

errealak diren eta liburuak esango dit nik jakin nahi dudana, beraz, berriro egin behar dut, nik uste”.

⁸⁴ “*The Third Violet*”, esaterako, asteko hogeitabost orri idatziz burutu zuen, eta gauza bera gertatzen zitzaion egindako beste lan askorekin, sutsu egiten baitzituen. “*Narrazio laburrak, idazteko gauzarik errazena dira*”, zioen berak.

⁸⁵ 1895eko otsailaren 25ean Ripley Hitchcock-ek premiazko postaz bidali zion Stephen Crane-ri *The Red Badge of Courage* eskuizkribua eta Crane-k Hot Springs-era joan aurretik itzuli zion. Texas-ko hoteletik hauxe idatzi zion, martxoaren 9an: “*Ez naiz gai ikusteko zer egin behar dudan honekin, ez bada, agian, Red hitza moztea. Honek laburtuko zuen... zuzenketa txiki ugari egin dut*”.

1896ko martxoaren 23ko gutun batean Hitchcock-ek Crane-ri esan zionez, Horace Greely-ren bidez jakin zuen Hitchcock-ek, “*The Red*” nobela *Archives of the War Department* delakoan artxibatua izan zela, material dokumental gisa.

egoera eta sentrazioak (“*suggestion creates so many sensations*”⁸⁶). Zenbait irudi agertu, eta beste asko aditzera eman. Hori da Crane-ri ikusten zioten estiloa. Alde horretatik, Tolstoi-ren nobela handiaz konparatu izan dute (“*Guda eta Bakea*”), nobela hartan ere Tolstoi-ren tesia delako, gerrak kasualitate hutsez irabaz edo gal daitezkeela, eta jainkoak entzungor agertzen direla gizakien estualdien aurrean. Begi-bistakoa denez, Tolstoi-ren tesia eta gurea ez datoz bat.

Behin liburu gisa argitaratu ondoren, kritikak ugariak –eta gehienak laudagarriak– izan ziren⁸⁷, baina horren guztiaren berri zehatzagoa tesiaren beste atal batean emango dugu, kritika amerikarrak⁸⁸ nobelari egin zion abegia aztertzen den kapituluan, hain zuzen. Gauza bat soilik aipatu nahi nuke orain, berebiziko garrantzia duelako: Crane-ren nobela hau argitaratu zen garaian, inork ez zuen esan gazteentzako nobela zenik. Gaur egun, ordea, Estatu Batuetako *Secondary School*-etan testu-liburua da eta gazte-nobelatzat hartua izan ohi da literatura-eskuliburuetan. Hil eta 22 urte beranduago bere hilobian grabatu zen testuan, gazte-literaturaren egilea bailitzan da gogoratua. Nolanahi dela, Joseph Conrad-en nobelak ere gazte-literatur bailiren hartzen dira, abentura hutsa baino gehiago direla jakin dakigun arren.

Liburu hau argitaratzea nahikoa izango zen Crane idazle ospetsuen artean mantendu ahal izateko (1896ko irailean 9. edizioa plazaratu zen), baina Crane-k 23 urte

⁸⁶ Herbert P. Williams-en hitzak dira, Boston-eko “*Herald*” egunkarian, 1896ko uztailaren 18an.

⁸⁷ Bi hamarkadetan 600 artikulua baino gehiago idatzi ziren Stephen Crane-ren lana aztertuz. Esan bezala, denak ez ziren izan aldeko kritikak, aurkakoak ere jaso baitzituen, A.C. MacClurg generalak “*April Dial*” aldizkarian egin ziona bezalaxe: “*The hero of the book, if such he can be called, was an ignorant and stupid country lad without a spark of patriotic feeling or soldierly ambition. He is throughout an idiot or a maniac and betrays no trace of the reasoning being. No thrill of patriotic devotion to cause or country ever moves his breast, and not even an emotion of manly courage. Even a wound which he finally gets comes from a comrade who strikes him on the head with a musket to get rid of him; and this is the only ‘Red Badge of Courage’ (!) which we discover in the book. It is the work of a young man, and so of course it must be a mere work of ‘diseased imagination’*”. Ikusten denez, ezin da gordinago azaldu nobelaren edukia, ezta krudelago gaitzetsi beraren egilea. Hori zen, hain zuzen, Stephen-ek beldurrez espero zuen kritika-mota.

Edonola ere, beste general batzuk laudoriorz hitz egin zuten Crane-ren lanaz, hala nola Sir Evelyn Wood generalak “*Illustrated Londres News*” egunkarian: “*Crane’s work was quite the finest thing of its kind that had ever been done and that the intentions of the boy who has never seen war are worth far more than the experiences of any writer known to me, even though he may have been in the thick of the fiercest battle*”.

⁸⁸ Une honetan aipatu behar da bere jaioterrian baino, Ingalaterran jaso zuela onarpen sozial zabalagoa, bere lana irakurriz erraz antzematen baita egileak zuen zaldiekiko zaletasuna, ingeles jendeak ongi baloratzen dakien ezaugarria alegia.

zuen bakarrik, eta idazmin handia zuen oraindik.

Crane maitale

1896. urte honetan, zurrumurru bat hedatu zen New York-en, baina oso dokumentaturik ez egoteaz gain, biografo gehienek aipatu ere ez dute egiten. Beste pertsona batzuekin batera leku publiko batean zegoela, emakume batek, Dori Watts izenekoak (geroago Mrs. Bowen izena hartuko zuena) 50 \$ uzteko eskatu eta Stephen-ek eman egin zion; baina esaten zenagatik ez zen lehen aldia emakume honek dirua eskatzen ziona, beste behin ere 150 \$ eman behar izan ziolako, txantaiaren ordainez. Zurrumurruek arabera, diru hura Crane-ren alaba sekretua mantentzeko erabiliko zen baina, esan bezala, baieztapen honen frogarik ez dago.

1896an ere bere hurrengo nobela amaitu zuen, *“The Third Violet”*, New York-eko artista gazteen eta txiroenen inguruaz diharduena. Beraren irudiko, errazegi idazten ari zen, eta ez zegoen seguru nobela hura ona izango zenentz: *“lan erraza da, kapitulu bat egun batean amai dezaket”*.

Tituluari dagokiola, batek baino gehiagok pentsatu du garai hartan lagun zuen emakumearen eraginagatik ipini zuela *“Hirugarren Bioleta”* titulua, Crouse-ren lore kuttunenak bioletak baitziren (baina baita Lily-renak ere; beraz, ez dakigu noren oroimenean ipini zuen titulua). Nellie, Akron-go neska estrainioa, oso erakargarria suertatzen zitzaion Stephen-i, harekin maitemintzeraino, eta gutunak zein poemak idatzi zizkion, bai eta geroago egunkarietara bidaltzen zituen artikuluak eta kronikak ere. Iritzia eskatzen zion, izaera aitortu, asmoak azaldu, esaldi goxo eta erromantikoak bidali eta literaturarekiko zuen ideia zehatz-mehatz azaltzen zion. Gutun horietako batean hauxe esan zion Nellie-ri: *“Nire aldetik, nire hogeita hamargarren urtebetetzean hiltzeko mentalizaturik nago”*. Heldu ere ez zen heldu, ordea, arinago hil baitzen, hogeita zortzi urte zituela.

Stephen eta emakumeak

Nellie-ri esaten ziona ez zion beste inori esaten. Zer ulertzen zuen koldarkeriaz,

zer garaipenaz, zeren bila aritzen zen bizitzan zehar, eta arrakastatsua izateari zein garrantzi txikia ematen zion. Hilzorirako eskatzen zuen bakarra koherentzia zen, bere buruaz bat etortzea. Gauza handirik ez zuen espero bizitzatik (ez zitzaion gustatzen lagunek govestea) eta askorik ere ez zion eskatzen. Baina gauza guztien gainera, bakardadea aitortzen zuen, alegia, bakarrik bizi eta bakarrik hilgo zela (“*no woman has heard it until now*”). Gutun horietariko batean, Crane-k aitortu egin zion Nellie-ri, nolabait, lan bakarreko gizona zela, eta egin behar zuen guztia eginda zeukala.

Une honetatik aurreragorako bere biografia kanpotik ikustean, amaiera horretara ahalik eta arinen heldu nahi izan zuela ematen du. Jakin bazekien, ez zuela bere nobela hoberena gaindituko (Nellie-ri esandakoagatik), eta aurrera egindako ihesaldia antolatu zuen, hemendik eta handik bidaiatzen, gerrateetan arrisku egoerak bilatzen, osasuna bortxatuz⁸⁹, eta inolako aurreikusmen ekonomikorik izan gabe. Nahita marrazturiko biografia ematen du, aurreidiseinatua. Biografia laburra da, baina azken minuturaino denbora xurgatu zuen, bere bizitzaren luzera eskasaz jakitun bailegoen.

1896ko otsailaren 5ean Nellie-ri idatzi zion⁹⁰ Londres-a joatekotan zegoela, baina udazkenerarte ez zen joango, eta tartean berriz ikusi zuen Mrs. Lily Brandon Munroe, aurreko urteko urtariletik ikusten ez zuena, elkarrekin alde egiteko asmoa izan zutenetik alegia. Arazoa Nellie izan ala Lily izan, kontua da oso garai ilunean barneratu zela, eta idazteko ez kemenik ez ahalmenik erakusten ez zuela. Stallman-ek dioenez⁹¹, Crane harroa eta Crane apala tartekatzen ziren bere bizitzaren garai hartan.

Lagunei esan zienaren arabera (Willis Hawkins lagun mina zuen) emakume bat izan zen bere estualdiaren arrazoia (“*It was a woman! Don’t you see? Nothing could so*

⁸⁹ Txikitatik izan zituen osasun-arazoak, baina urteak aurrera joan ahala, areagotu egin zitzaizkion. Malaria eta tuberkulosiaz gain, Lee Clark Mitchell kritikariak drogen efektuak eta sifilisa ere aipatu zituen Crane-ren arazoan artean, (MITCHELL 1986) 1. or. Hala ere, hauxe da Crane drogazalea izan zela dioen autore bakarra (New York-eko polizia aparte, jakina), beste inork ere ez baitu aipatzen ez drogazalea zenik (alderantziz baizik) ezta sifilisa jasan zuenik. Mitchell-en informazio-iturri erabilienean Stallman-ek egindako biografia bada ere, Stallman-ek ez ditu bi kontu hauek aipatzen. Stephen-en izaera ikusita, oso erraza da pentsatzea drogak probatu zituela, baina gure informazioari dagokionez, ez zuen zaletasunik izan.

⁹⁰ Miss Nellie Crouse-rekin (Akron-go) sentimenduren bat izan zuen. Hiru hilabetetan zazpi gutun idatzi zizkion. Baina ez zion idatzi *The Red*-i esker osperean bat bereganatu arte eta maila sozialean igo arte. Willa Crather-ekin gertatu zitzaion bezala, bere bihotz osoa eskaini zion, ondo ezagutzen ez zuen emakume bati.

interfere but a woman”). Stephen gazteak ez zituen emakumeak faltan. Amy Leslie, esaterako, aktorea eta kritikari dramatikoa, zeharo maiteminduta zegoen Stephen-ekiko, nahiz eta hogeitaz urte nagusiagoa izan, eta ez ziren gutxi izan bere bizitzatik igaro ziren emakumeak; baina eragin gehien izan zutenak, batez ere, Helen Trent, Nellie Crouse, Lily Brandon Munroe, Amy Leslie eta, jakina, Cora Taylor (ematzetzat hartu zuena) izan ziren, Dora Clark ahaztu gabe, epaitegietan lekuko gisa beraren aldeko testigantza emateagatik, iritzi publikoaren aurrean agertu behar izan baitzuen.

***George's Mother*, arauen hausketa**

Crane-ren idazlanetara itzuliz, “*George's Mother*” nobela aipatu behar dugu oraingoan, egilearen ustez nobela guztietatik hoberena delako, errealismoaren ikuspuntutik ikusita behinik behin. Nobela honetan bere ama izan zenaren zenbait ezaugarri egotzi zion George-ren amari⁹², hala nola WCTU (*Women's Christian Temperance Union*) taldeko kidea izatea, esaterako. Crane-k aitortu zuenez, gizalegearen arauak hautsi egin zituen nobela hau beste argitalpen bati eman zionean (Edward Arnold-ek plazaratu zion), baina Hitchcock-ekiko harremanak zeharo hozturik zeuden, eta gainera Hitchcock-ek bazuen erabakita ez zuela arrisku gehiagorik hartuko Crane-renik argitaratzen. Beraz, 1898an hurrengo liburua (“*The Open Boat*”) atera zenean, ez zuen Appleton-ek argitaratu, DoubleDay and McClure-k baizik.

Kritikariak bat zetozen Crane-rekin “*George's Mother*” nobela maisulana zela esatean, “*Maggie*” baino helburu apalagoa baitzuen, pertsonaia gutxiago eta testua batuago agertzen baitzen. Amatasuna orokorrean agertu nahi ordez, pertsonaia baten inguruan jardun zuen soilik, eta honek sakontasuna eman zion gaiari, margolariek erretratu onetan egiten duten bezala.

Crane gaztea liberala zen, drogen aurka sutsu mintzatzen zen⁹³ eta gauez

⁹¹ (STALLMAN 1968), 201.. or.

⁹² “*She anticipates the time when her son will become a white and looming king among men, and with the blind devotion of a religious fanatic she dies still believing in her son. She is a hard-working, psalmsinging ild woman*”, “*George's Mother*”.

⁹³ “*Opium's Varied Dreams*” artikuluan (“*New York Sun*”, 1896ko maiatzaren 17a) esan zuen, New York-en bazirela 25.000 opio-erretzaile, gehienak gizon eta emakume zuriak, eta Chinatown-en bertan eskuratzen zituztela pipak eta beharrezko material guztiak.

terrazetan egotearen zalea. Edonola ere, kritikari batzuk ez zioten inoiz heldutasunik onartu Crane-ri, eta zeraman bizitza bohemioa oinarri harturik, “hazi ez zen gaztetzat” jo zuten sarri, Garland-ek egin zuen moduan⁹⁴. Stephen-en ustez, aitzitik, gauzak ez dira horren kontziente egiten. “Nire barnean dagoena idazten dut” esan zion 1893an Howells-i, “gizona mundura jaiotzen da bere begi parearekin, eta bera ez da bere ikusmenaz guztiz erantzule, baizik eta, soilik, beronen ondratasunaren erantzule”.

Nobela hau “*The Red*” baino hobea zela defenditu zuten askok⁹⁵, proportzioa askoz ere hobeto gordetzen duelako eta errealismo soziala sentsiblekeriarik gabe agertzen duelako: oharkabe baten patua azaltzen du, baina inolako juzku moralik egin gabe. Pertsonaien jokaera ez da epaitzen, eta dituzten hutsak (gizartearen presioaren ondorioz) onartzen zaizkie, erruki faltsurik gabe.

Nobela honen kopia bat Theodore Roosevelt-i bidali zion, garai hartan New York-eko polizia-buru zenari alegia, eta beronen erantzuna laudagarria izan zen, aurrekoak baino gehiago atsegin baitzitzaion nobela hura. Gauzak uler daitezen esan behar da, Roosevelt-ek helburu pertsonalatzat zuela Bowery auzoan “garbiketa” egitea eta Crane-ren nobelak, hain zuzen, beti jarduten zuten auzo honetako bizitzaren inguruan, hain zuzen New York-eko auzorik baztertuena eta istilutsuena zena, eta Stephen-en irudiko, maitatuena.

Dora Clark eta injustiziarekiko errebeldia

Laster egin zuten topo Theodore Roosevelt-ek eta Stephen Crane-k. Lehenaren keria eta bigarrenaren zaletasunaren ondorioz, elkarren aurka agertu ziren, Stephen emakume baten ohorearen defentsan azaldu zenean. Paul Revere Reynolds agenteak Dora Clark emakume gaztea emagalduta salaketapean atxilotu zuen eta polizia-buruak agentearen alde jo zuen, burutu zen epaiketan⁹⁶. Roosevelt eta Crane ez ziren inoiz

⁹⁴ 1930eko hitzak dira, Garland-ek “*George’s Mother*” nobela berriz irakurri zuenekoak. Hitzok, bertan idatzi zituen. Edonola ere, Crane-ri buruz “*Chicago Studies*” (argitaratu gabea) eta “*Idols*” argitalpenetan idatzi zuen.

⁹⁵ Howells-en kritika “*World*” egunkarian agertu zen 1896an.

⁹⁶ Istorio hura luze eta gogorra izan zen, eta tarte handia hartu zuen garaiko egunkarietan. Epaiketa egunez egun segitu zen prentsan. Gainera, fiskalak Crane-ren alde ilunak ateratzen ahalegindu zen, defentsaren lekukoa desprestijiatu nahian. Stephen Crane-ren bizitzan oso pasarte hits eta iluna dugu

lagunak ziren. Egia esan, bata eta bestea aurkako jarrera sozialen ordezkari peto-petoak ziren: batek zurruntasun morala zuen eta besteak giza ahultasunetikiko permisibilitatea; batak arauak betearazi behar zituen, eta besteak arau guztiak sistematikoki apurtzen zituen. Bizitzan zehar gehiagotan egin zuten topo, baina erlazioa beti izan zen hotza eta latza. Pentsatzekoa da, Ingalaterrara bizitzera joateko erabakiak bazuela zerikusirik handia Roosevelt-ek New York-en Crane-ri sortarazi zion egoera ezerosoaz. Batez ere, Cora Taylor-ekin bizitzen hasteko ideia izan zuenean.

Kontuan hartu behar da *“The Red”* nobela *“mundu guztiak”* irakurrita zeukala⁹⁷, Crane oso ezaguna zela eta, gainera, bai *“New York Journal”* egunkariarentzat eta bai *“Book News”* argitalpenentzat ere asteroko kronikak idazteko konpromezua hartua zuela, bereziki New York-eko bizitzaz (*“real incidents of New York life”*) aritzeko asmoz. Polizia-buruarekiko elkarren arteko arazoak ekidin ezinezkoak ziren, antza, batez ere behartsuen gorabeherak kontatzen hasi zenean, *“injustiziaren biktimak”* zirelako.

Dora Clark guztiz ezezaguna zen Stephen-ekiko, baina honek emakumearen senartzat pasarazi zuen bere burua polizia batek emagalduta salaketapean atxilotu zuenean, goizaldean kale erdian egoteagatik soilik, ageriko beste arrazoirik gabe⁹⁸. Crane-ren jokaera kixoteskoa izan zen, eta hori ez da nik asmatutako hitza, garaiko kazetariak egintza hura kalifikatzeko erabili zuten adjetibo bera baizik. Galtzekoa bazuela jakin arren, emakumearen alde ekitea erabaki zuen, azken ondorioetaraino ekin ere⁹⁹. Presio izugarria izan zuen testigantza eman ez zezan, anonimoak barne (*“Go*

Dora Clark emakumearena (hogeita bat urteko neska eder ilehoria). Stallman biografoak kapitulu osoa eskaintzen dio (op. cit. XIII kap. 218-236. orr.), xehetasunak azalduz.

⁹⁷ William Randolph Hearst-en hitzak dira, *“Journal”*, 1897ko irailaren 20a.

⁹⁸ Poliziak neskaren *“faboreak”* nahi zituela zebilen guztien ahotan, eta ezezkia jasotzean, behin eta berriz estutu zuela legea erabiliz; baina hori ez zen poliziak publikoki aitortzeko kontua.

⁹⁹ 1897ko irailaren 20ko *“Journal”* argitarapenean, sei orritan, argi eta garbi azaldu zuen Stephen-ek kontu guzti honekiko zuen pentsamendua: *“Atxiloketa hau okerra da. Agian neska hau emagalduta baino ez da. Nik honetaz ez dakit ezer. Ez daukat gaiareko informaziorik, baina egintzari dagokiola, hau da, Broadway-ko Jardinetatik joan zenetik bere atxiloketararte bi gizoni proposamenak egin zituzkionaz, nik badakit hori ez dela egia. Nik badaukat erreputazio txikia, agian ez da idazluma baino argiagoa edo penike batena baino astunagoa, baina daukadana lan gogorra eginda irabazi dut, eta orain dudana egitura txiki hau urtetan zehar eraiki behar izan dut. Orain, emagalduta arrunt honek hutsa egin du. Guztiak arriskuan ipiniko dut? Hau guztiak arriskatuko dut nigan kale ibiltari gisa etorri den neska batengatik? Nik baditut lagunak konbentzionalki bereziak direnak. New York-eko biztanleak, izaera eta erreputazioa duten gizonak, agian halako gauzen lekuko izan direnak noiz, edo noiz, baina beraiek parte*

home; your own participation in the affair doesn't look very respectable. Go home”). Bere editore eta laguna zen Garland-ek ere presioa egin zion, Roosevelt-en eskariz. Azkenean bere kontzientziak eskatzen ziona egin zuen, duintasunez, eta ondorioz guztien ahotan ibili zen garai luzean, andrezale kalapitari gisa batzuen ustez, eta heroia bailitzan beste batzuen ustetan.

Presio eta iritzi guztien gainera gauza bat utzi zuen argi: ez zuela injustizia jasaten, eta are gutxiago ahulei egindako injustizia. Ohorea oinarrizko birtutetzat zuen, eta poliziarekiko mesfidantza sakona sentitzen zuen. Oro har, agintearekiko errebeldia erakutsi zuen prozesu osoan zehar. Garaian bertan jakin zen Dora Clark ez zela ez korista ezta emagaldua ere, baina epaiketa hartan kolokan zegoena ez zen legalitatea, gizartearen antolamendu estu ala zabalagoa baizik, hots, moral biktoriarra ala ideia liberalak. Bi kontzeptu aurkako agertzen ziren elkarren kontra: norik bere askatasuna erabiltzea, ala arauen eta hipokresiaren pean jardungo zuen gizartea mantzentzea. Crane, argi eta publikoki, lehen kontzeptuaren alde agertu zen (emakume bat goizaldean kaletik ibiltzeak ez zuen esan nahi emagaldua zenik), askatasun indibiduala aldarrikatuz, eta arbitrarietatearen inposaketaz sentitzen zuen gorrotoa agerian utziz. Epaiketa izan zen bitartean, jarrera hotza azaldu zuen, geroagoko gudaldietan azalduko zukeena bezalakoa, nahiz eta beraren kontrako mesfidantzak eta irainak¹⁰⁰ entzun behar izan zituen. Hala ere, afera amaitu ondoren, berriz gertatzekotan gauza bera egingo

hartu dute? Ez. Beraiek etxera joan dira eta beren gauzez arduratu dira serio eta zintzo. Erridikulua egingo dut emagaldu baten mesedetan? Edo, etxera joango naiz? Bueno –esan zuen lekukoak gogo txarre– neska hau emagaldua izan ala ez izan, nire babespean dago eta injustizia bat pairatzen ari den bitartean, emagaldu bati egindako okerra, erregina bati egindako okerra bezainbestekoa da.

“Erreputazioa duten hiritarrek parte hartuko ote lukete? Pentsatu –segitzen zuen– ni bulegari bat naizela. Nire nagusiek kontua ezagututakoan hauxe esango lidakete: ‘sentitzen dugu, baina guk ezin dugu eduki gure enpresan enplegaturik, goizaldeko 2.30ak arte koristekin dabilen inor’. Eman ezazu, une batez, nik emaztea eta zazpi seme-alaba ditudala Harlem-en. Egunkaria irakurri bezain fite nire emazteak esango luke: ‘Ah, eta lan-bilera zeneukala esan zenidan, e? Goizaldeko ordubietan laguntza susmagarriarekin!’ Imagina ezazu, une batez, Kalamazoo-ko kontesarekin ezkontzekotan nagoela. Berak entzun izan balu, honela idatziko lidake: ‘Gure artekoa amaitu da’. Beraz, hauek hirurak adibide xumeak dira azaltzeko zergatik ez zuten ezer esango gizonetzko gehienek, hau bezalako egoera baten lekuko suertatuz gero. Nik dudana ez da bulegari batena bezain ikusgarria, edo emaztea eta zazpi semealaba Harlem-en, ezta Kalamazoo-ko kontesa ederrarekiko konpromezua bezalakoa ere. Baina nik baloratzen dudan guztia aldatu egingo da arazo honekin guztiarekin. Arrisku hau hartu behar dut kaleetako neska baten mesedetan?’”. Erantzuna argi eman zuen prozesuan zehar erakutsi zuen jarrera ikusita. Testu hau ez da inoiz aipatu, Stallman-ek egindako biografian agertu arte. MS Barret Crane Collection-etik hartutakoa da.

¹⁰⁰ Ea opioa erretzen zuen, ea zein emakumerekin bizi zen, ea nolakoak ohiturak zituen galdetu eta

zukeela aitortu zuen publikoki, eta irakurleek egia esan zuela sinetsi zioten. Azkenean, prentsa ere bere alde agertu zitzaion, erakutsitako duintasuna ezagutu ziotelarik.

Cora Taylor ezagutu zueneko

1896ko irailean eta urrian zehar burutu zen aipatu epaiketa, eta urte bereko azaroan Crane Kubara joango zela argitaratu zen prentsan, baina bidaiak atzeratu egin zen, eta bitartean Jacksonville-n egon zen zain, azaroaren erdialdetik martxoaren erdialderarte. Han ezagutu zuen Cora Taylor. Cora emakume ezkondua zen (bi aldiz ezkondua), eta Klub bateko nagusia, “*Hotel de Dream*” izeneko. Klub hura putetxea zenik teknikoki ezin esan bazitekeen ere (Cora ez baitzen *madame* bat eta neskak ez ziren bertan bizi), praktikan funtzio bera betetzen zuen, bikoteek erraz jasotzen baitzuten ostatua, eskaileretatik gora joanez¹⁰¹. Jacksonville-ra heldu eta gutxira ezagutu zuten elkar, nahiz eta Crane-k herriko beste hotel batean (dotorenean) hartu zuen ostatu. Literaturaz mintzatuz, Cora laster maitemindu zen “*Maggie*” eta “*The Red Badge of Courage*” nobelen egileaz, eta geroago Stephen bera maitemindu zen, Lilian Gilkes-i¹⁰² jaramonik eginez gero. Azarorako harremana gauzatuta zegoen, emandako liburuen eskaintzetan ikus daitekeenez¹⁰³.

Nahiz eta bertan neskarik egon ez, *nightclub* bat garai biktoriarrean pekatuaren eremua zen, antonomasiar. Cora, gainera, Stephen baino nagusiagoa zen, bospasei urte Stallman-en ustez, eta bederatzi urte nagusiagoa beste kritikari batzuen ustetan. Emakume ilehori, eder eta bizia zen, eta beroni buruz oso luze idatzi izan da, zeharo erakargarria izan baita biografo guztientzat. Iritzi kontrajarriak ere azaldu izan dira beraren inguruan (janzkera dotorea eta zakarra zuela esan ohi da; ilearen kolore naturala eta tintatua zuela; kulturarik ez zeukala, eta edozertaz aritzeko moduko elkarrizketa

aurpegiratu zioten epaiketan, bere ospea zikindu nahian.

¹⁰¹ Miss Gilkes-ek azaldu zuenaren arabera (GILKES 1960).

¹⁰² Ibidem.

¹⁰³ Cora-k urte batzuk geroago liburu haren (Kipling-en “*The Seven Seas*”) azalean haxe idatziko zuen: “*the first thing my mouse even gave me was this book*”, 1896), Stephen-i “*nire sagutxua*” esaten baitzion. Bestalde, Crane-k “*George’s Mother*” nobelaren ale bat ere oparitu zion, eta bertan honako hau irakur daiteke: “*To an unnamed sweetheart. Jacksonville, Fla. Nov. 1896. To C.E.S. (Cora E. Stewart) Brevity is an element that enters importantly into all pleasures of life, and this is what makes pleasure sad; and so there is no pleasure but only sadness*”.

zuela...)¹⁰⁴.

Bi aldiz ezkondu zen (lehen aldia oso gaztea zela) eta bigarrenez dibortziatu gabe, Stephen Crane idazle ezagun eta gaztearekin elkartu zuen bere bizitza, ezkondata zeudelakoan agertuz¹⁰⁵. Cora-k berak mugikorra zela aitortu zuen, jakinminenez betea, eta diruarekiko kontrolik izaten ez zuela, zarrastela zela alegia. Egin zituen gauzei begiratu behar badiegu, emakume ausarta izan zela aitortu behar dugu, edozein erronkari aurre egiten ziona: *nigthclub* bat erosi eta ondoren salduz, Greziako gerrara joanez erreportari gisa edo, azkenik, Ingalaterran jauregi batean ezarriz, zirkulu literario ingelesaren erdigune bihurtzea lortu zuelarik. Edonondik begiratuta ere, ez zen emakume konbentzionala izan.

Cora Boston-en jaio zen, Cora Howarth izenaz. Aita pintorea zen eta arte-galeria bat zuen bertan. Sei urte baino ez zeukala aita hil zitzaion eta ama berriro ezkondu zen handik urtebetera. Oso gazte zela ezkondu zen Cora, New York-en, Thomas Vinton Murphy-rekin, baina hilabete gutxira banandu ziren. Bi urte eta erdira berriz ezkondu zen Londres-en, Donald William Stewart kapitainarekin oraingoan, baroi ingelesaren seme gazteenarekin alegia; baina ezkontza honek ere ez zuen luze iraun. Bigarren senarrak ez zion dibortzioa eman, ordea, eta Stephen-ek eta Cora-k ezin izan zuten ezkondu, nahiz eta hark harro esaten zuen ezkondata zeudela. "*Hotel de Dream*" hotela jaso zuenean, izena aldatzea erabaki zuen Corak, eta Howarth, Murphy edo Stewart deitu orde, Taylor deitura hartu zuen ("*business reasons*"), geroago Cora Crane izan arte. Crane izan zen bere bizitzaren pasio bakarra, Stallman-en ustez. Beragatik dena utzi bazuen ere, Crane-ren aldetik ez zuen arreta bera jaso¹⁰⁶.

¹⁰⁴ Aipatu Stallman biografoaz gain (1968), ikus Lilian Gilkes-en liburua (GILKES 1960) eta Peter Miles-en artikulua, (MILES 1995).

¹⁰⁵ Ingalaterrara joan arte, ez ziren elkarrekin bizi izan. Grezian zeudenean ere, Stephen hotel batean bizi izan zen eta Cora beste batean, banaezina zitzaion Mrs. Mathilde Ruedy-rekin batera. Laguntzaile honek Ingalaterraraino lagundu zion, eta Cora-rekin segitu zuen 1898an Ingalaterran, Stephen Kuban zegoen bitartean.

¹⁰⁶ Crane Kubako Independentzia Gerrara joan eta berau amaitu ostean hilabete luzez geratu zen Kuban, Cora-ri inolako berririk eman gabe. Cora-k mundu guztiari idatzi zion Stephen-en berri jaso nahian, desagertutzat eman baitzuten. Stephen, bitartean, emakume nagusi eta amoltsu baten etxean babesturik zegoen, gaixorik, baina idazteari utzi gabe.

Crane erreportari

1896ko azaroaren 29an Crane-k testamentua egin zuen, Kubara joan aurretik. Bere ondasunen herena bere anaia William-i utziko ziola ezarri zuen, testafarro izendatuz gainera. Beste herena Edmund anaiari eman zion, eta azken herena Townley eta Wilbur anaiei utzi zien¹⁰⁷. William-i idatziriko gutunean esaten zuen, bestalde, sakabanaturik zituen lanak bildurik egotea gustatuko litzaiokeela, ez bailuke nahi galtzerik. Hori izan beharko zen beraren lehen zeregina, Stephen hiltzean. Literaturgintzari zegokiola, Willis Brooks Hawkins, Howells, Hamlin Garland eta Ripley Hitchcock izendatu zituen bere testafarro literarioak. Eta azkenik, testamentuarekin batera beste enkargu bat utzi zion Hawkins-i: Amie Leslie-ri laguntza emango ziola ziurtatzea, horrela errazagoa izango bailitzaio berari alde egitea, emakumea ondo egongo zela jakinda¹⁰⁸.

Kubara joateko zain egon zen bitartean, Crane-k Louise de Ramée-ren *“Under Two Flags”* liburua irakurri zuen, eta beronen kritika argitaratu zuen *“Book Buyer”* aldizkarian. Ouida-ren (Miss Ramée-ren ezizena) heroia-eren kodea ohorea zen, eta horixe izan zen Crane-rena ere: duintasun pertsonala. Liburu honen karira, Crane-k argi utzi zuen zein zen bere filosofia idaztean: *“Ni predikatzailaren semea naiz, baina herentzia honek ez du baztertzeko –nigan– beste materialarekin nahastu gabeko sermoiekiko gustua. Arreta handiz ibilia naiz, nire teoriak edo ideia pertsonalak nire lanaren barnean isur ez zitezten. Literaturan, predikatzea kaltegarria da artearentzat”*.

Kubara joan nahi eta ezin

Garai hartan Kuba Mendebaldeko erdigunea zen. Hirurogeita hamar espedizio antolatuta ziren USAko portuetatik matxinatuei laguntza luzatzeko asmotan. Itsasuntziak

¹⁰⁷ George anaia ez zuen aipatu. *“Peanuts”* lasterketa-zaldiari buruz zehatz-mehatz utzi zuen idatzita ondo tratatua izan zedin. Edmund bere anaiak zama-zaldi gisa erabili zuen, izotza eramateko.

¹⁰⁸ Ami Leslie-k garai txarra jasan zuen, lau urteko semea hil eta bere ezkontza deuseztu zenean. Arazoak izan arren, barne-indarra erakusten zuen, une ilunak alboratu nahian (Stephen-en ustez, emakumeen ezaugarri harrigarria zen hura). Stephen ulerkor agertu zen bere ezbeharrak, ekonomikoki eta afektiboki lagunduz. Garai hartan Stephen gizon diruduna zen (1896ko une horretan 14. edizioa kaleratuta zuen zegoeneko) eta dirua eman ahal izan zion.

soldaduz, kazetariz eta armaz beterik zihoazen, ezkutuan hasieran (neutralitate-legea indarrean zegoen Iparramerikan), eta nabariro Espainiari gerra-deia egin ostean. Horrelako untzi batean itsasoratu zen Stephen Crane, “*Commodore*” izenekoan, legeak eta kostazainak saihestuz aurreko bi bidaietan Kubaraino heltzea lortu zuenekoan. Stephen-en bidaian, ordea, untzia hondoratu egin zen (1897ko urtarrilaren lehenean) eta tripulazioak salbatzea lortu zuen arren¹⁰⁹, Stephen eta beste hiru gizon txalupa txiki batean noraezean ibili ziren hiru egunez itsasoan zehar. Esperientzia haren ondorioz idatzi zuen Crane-k “*The Open Boat*” maisulana, narrazio laburra baina Crane-ren (eta Conrad-en) estiloan bete-bete sartzeko dena. Subjektibitatearen azterketarako materiale ezin hobea eskaintzen digu eta, bidez batez, “*The Red*” nobelan egindakoa txiripa hutsa izan ez zela adierazten digu, “*The Open Boat*” nobelan ezaugarri berberak agertzen baitira subjektuari dagokionez¹¹⁰.

Ez dago argi zergatik hondoratu zen untzia. Ez zen izan bonben erruz, ezta marinelen akatsa ere. Makina-gelan ura sartzen hasi zen eta epe laburrean urez gainezka zegoen, eta ponpatu arren, ez zuten lortu ur-maila jaistea, azkenean hondoratu egin zelarik. Une hartan untzian kartutxoak, errifleak, 300 matxete, botikak eta jantziak zeramatzen, 4.465 \$eko kostuaz denetara.

Garaiko prentsan entzuna izan zen “*Commodore*”ren hondoratzea, beste arrazoien artean Stephen Crane ere tartean zegoelako, marrazoen artean itsasoan galdurik. “*Philistine*” argitaralpenean Crane ito egin zela argitaratu zuen Hubbard-ek, eta salbu agertu zenean, ohar labur batez soilik egin zuen zuzenketa¹¹¹. Lehorrera heldu zirenean, heroi gisa hartuak izan ziren. “*World*” egunkarian honelako titularra argitaratu zen: “*Stephen Crane Safe*”. Cora Taylor-i, ordea, denbora falta izan zitzaion

¹⁰⁹ Marinel bakar batek galdu zuen bizia istripuan, Higgins mekanikariak, besteak salbatu nahian. Lekukoek esan zutenagatik, Crane eta Murphy kapitaina izan ziren txaluparatzeko azkenak. Tripulazio eta bidazti kubatarren artean urduritasun-uneak sortu ziren arren, Crane-k izugarritzko hoztasuna adierazi zuen, kapitainak azaldu zuenez: “*odolgarbiko gizona da, peto-petoa*”.

¹¹⁰ Naturaren indarra, gizakien ahulezia Naturaren aurrean, patua, subjektuaren zalantza, egoera latzetan aurrera egiteko kementa... giza kondizioa hitz batean. Oso interesgarria da Lynn Altenbernd eta Leslie Lewis-en liburua (ALTENBERND eta LEWIS 1966), ia osorik “*The Open Boat*” nobelari eskainita dagoena.

¹¹¹ “*Thank to providence and a hen-coop Steve Crane was not drowned after all. He swam ashore*” izan zen ohar labur eta lakonikoa.

berarekin elkartzeko, zeharo hunkiturik geratu baitzen istripuaren arazoaz¹¹². Elkartu zirenean, luze egon ziren besarkaturik eta musuka Daytona-ko geltokian.

“*The Open Boat*” liburuak kritika laudagarriak bereganatu zituen lehen momentutik. Horietariko batean¹¹³ kritikariak esan zuen: “*Mr. Crane objektiboa denean zinemagilea bezalakoa da, eta subjektiboa denean, bera da subkontzientearen aztertzaile kimikaria, heroismoaren alde ilunaren behatzaile behin-behinekoa*”. Scotsman argitaralpenak hauxe zioen: “*Inteligentzia eta orijinalitatea baino gehiago dago, botere honi jenioa baino ezin zaio deitu, “The Open Boat” liburuan agertzen diren ia orri guztietan. Zati batzuek areagotu egiten dute “The Red” nobelaren egilearen ospea*”, eta ni ere bat nator adierazpen honekin. Ikuspuntu literariotik (ez subjektibotik) ikusita, “*The Open Boat*” hobea da “*The Red*” baino.

Conrad-en ustean nobela honetako deigarriena “epitetoen ausardi inspiratua” zen, “aurkakoen ironia” eta “kontraesanaren efektua”. Gizakiaren aurkezpen simple eta sakona egiten du Crane-k Conrad-en ustez, bizitzaren beraren esentzialena azalduz. Gizonak oro daude txalupa berean; “*The Open*” sinboloa da eta egoera pertsonaletik baino harantzago doa bertan planteatzen den kontakizuna.

Conrad-en keriak eta gaiak ezagututa, guztiz ulertzekoa da Stephen-en liburu honekiko sentitu zuen mirespena. Nobelaren lehen esaldia (“*None of them knew the color of the sky*”) ondo gogorazten zuen Conrad-ek 1899an Crane haren etxera joan zenean, aipatu egin baitzion ustekabeen.

Greziako gerra

Martxoaren 11n planak aldatu eta Kreta eta Greziara joango zela esan zion Crane-k William anaiari, Jacksonville-tik idatzitako gutunean. Stephen-ek hogeita bost urte zuen eta itxura aldatuta agertzen zuen oraingoan, dotoreagoa, *dandiagoa*. Cora-k berak ere Greziara joan behar zuela erabaki zuen –kosta ahala kosta– eta, beraz, hotelaren kontu hartu zuen aurretik, Stephen-ekin batera joateko ahaleginduz. Stephen-

¹¹² Jacksonville-ra joateko tren berezia ordaindu nahi izan zion Crane-ri, ohiko trenaren zain egun pare bat itxaroten egon ez zedin. Etxean nahi zuen.

ek lagun batzuri aitortu zienez¹¹⁴, Cora Taylor bere untzi berean joatekoa zen eta Ingalaterran ezkonduko ziren, baina txutxumutxuak zirela eta, plana aldatu zuten. Stephen bakarrik joango zen (Cora penaz utzita) eta kontua amaitutakoan etxera itzuliko zen. Gerra laburra izango zela susmatzen zuten denek, eta ez zuten uste etxetik kanpo denbora luzea emango zutenik. Hearst-en “*Journal*” egunkarirako kronikak bidaltzea zen Crane-ren zeregina. Robert H. Davis kazetariak esan zuen orduan herri horregatik beragatik ere (Grezia) Lord Byron poeta odola emateko prest egon zela, baina Crane-ren erantzuna erabatekoa izan zen: “*Inork ez luke joan behar gerra-erreportaiak egitera maite duen herrira. Nik Lord Byron-ek baino hobeto egingo dut lan. Greziarrek ez didate axola, ezta turkiarrek ere. Kuba ondoren, han hotza egingo duela susmatzen dut*”. Baina interes-eza adierazi nahi izanagatik, bai berak eta bai beste erreportari iparramerikar guztiek ere greziarrek irabaz zezaten nahi zuten, turkiarrei gailenduz. Honela bada, bidali zituen kronika guztietan, Crane-k greziarren alde jo zuen argi eta garbi, turkiarren aurka kutsu xenofoboa ere antzematen zitzaiozlarik.

Interesa izan ala ez, zalantza guztietatik kanpo dago Stephen-ek interes guztiz erromantikoa zuela gerrarekiko. Erromantikoa zen kausa galduetik, injustiziarrekiko eta pertsona ahulekiko ere bai. Stallman-ek uste du¹¹⁵, emakume behartsuak, txiroak, baztertuak ala arazotsuak zirela Crane gehien erakartzen zutenak, gerrak beste. Stallman ez dator bat Beer biografoaren usteaz (edan eta erretzea, eta emakumeekiko zuen trataera, homosexualitate ezkutuaren ondorioa zirena¹¹⁶) eta uste du, emakume nagusiak, esperientziadunak, sexualki arituak, senarrarengandik banandutakoak eta haurtzaro gabekoak zirela bere interesa pizten zutenak. Helen Trent eta Nellie Crusoe kendurik, Lily Munroe, Amy Leslie eta Cora Taylor bete-betean sartzen dira deskribapen honetan. Ernest McCready-k dio¹¹⁷, Crane-ren inguruan leienda erromantikoa eratu izan zela, eta Beer-en ustez, arrazoi ilunak zirela-eta atsegin zitzaiola Crane-ri jende zenbait. Une honetan komenigarria da aipatzea, Stephen-en ama

¹¹³ “*Academy*” Londres, 1898eko maiatzaren 14a.

¹¹⁴ Emakumeei buruz gutxitan mintzatzen zen, eta sotil agertzen zen, beti ere, besteen aurrean.

¹¹⁵ (STALLMAN 1968) 263. or.

¹¹⁶ 1898eko amaieran Habanan zegoela, prostituzioan dabilen mutil bati buruzko nobela hasi omen zuen Crane-k, “*Flowers in Asphalt*” izena eramango zuena, baina geroago ez da nobela honen berri agertu beste inon.

¹¹⁷ (STALLMAN 1968) 263. or.

baino, bere arreba nagusia arduratu zela umearen hezkuntzaz¹¹⁸. Agnes Elizabeth (1856-1884, bostgarren haurra) Stephen baino 15 urte nagusiagoa zen, eta 28 urte zuela hil zen, Stephen-ek bere heriotza-unean zuen adin berberaz.

Greziara bueltatuz, Cora gerra-erreportari ikusten dugu, baina ez dakigu zeregin hura atsegin zuen, ala Stephen-en ondoan egotearren hartu zuen kazetaritza lanbidetzat. Stephen-i bidalitako gutun guztietan bere maitasuna sutsu eta goxo adierazten zion, eta argi adierazten zuen zein gogorra zitzaion Stephen-engandik urrun egotea.

Port Jervis-tik Ingalaterrainoko bidaia azkenean untzi berean egin zuten¹¹⁹, 1897ko martxoaren 20-27an, eta bi egun beranduago Liverpool-etik Londres-a heldu ziren. Londres-en izandako egunetan, Joseph Conrad-ekin elkartzeko asmoa azaldu zuen arren, bi idazleak ez ziren urte bereko urrirarte bildu lehenengo aldiz. Apirilaren leian Paris-en zeuden¹²⁰, baina hemendik aurrera bide ezberdinetatik joan ziren. Apirilaren 3an joan zen Stephen Marsellatik Kreta-ra “*Guadiana*” untzian, eta Cora eta Mrs. Ruedy, aldiz, Turkia-k Greziari gerrarako deia egin ostean (apirilaren 17an) Vienna-ra joan ziren Orient Express trenean, eta ondoren untziz Constantinopla-ra. Maiatzaren 9an Grezian ziren denak¹²¹, bai eta Davis kazetaria ere, “*Journal*” egunkarirako erreportaria Stephen bezalaxe. Beraien arteko harremana ez zen batere ona izan, eta halaxe antzematen zen biek bidaltzen zituzten kroniketan¹²².

Cora-k kronika batzuk bidali zituen Greziatik egunkarietara, eta “*New York Journal*”-en agertarazi zuten, bera zela gerra-erreportari ziharduen lehen emakumea eta

¹¹⁸ Ikus atal honetako “*Bizitzaren nondik norakoak*” titulupean agertzen diren datuak.

¹¹⁹ Untzi berean, baina gela ezberdinetan. Cora-k Mrs. Ruedy-rekin egin zuen Greziarainoko bidaia. Ikus 105. oharra.

¹²⁰ Londres-ekin gertatu zitzaion bezalaxe, Paris ere ez zitzaion interesatu Stephen-i. Nahiago zituen Mexiko-ko indar eta kolorea.

¹²¹ Ez da erraza segitzea egindako bidaia: Liverpool (III-29), Londres (III-31), Dover-Paris (IV-1), Marsella (3), Kreta (8), Athenas (17), Velestino (maiatzak 5, 2. bataila), Chalkis-Athenas (18) eta maiatzaren 19an armistizioa izan zen. Denek egin zuten alde, baina Stephen Athenas-en geratu zen disenteriak jota. Handik Venice-Paris-Londres ekainean egin zuen, eta uztailean Ravensbrook-en zegoen bizitzen Cora-rekin batera, Ingalaterrako bere lehen etxean.

¹²² Davis-en iritzian, Crane faltsua zen, gerrako lehen lerrora inoiz hurbiltzen ez zena, bohemioa, desordenatua, eta profesionaltasunik adierazten ez zuena. Crane-ren iritziz, ordea, Davis sikua zen, lora disekatua, enbor iharra erreportariz mozorrotua (janzkera perfektu eta akasgabeaz). Esan gabe doa Roosevelt-ek Davis-en alde jokatu zuela aukera izan zuenean, Crane-ren kaltetan.

bakarra¹²³. Imogene Carter ezizenaz sinatu zituen artikuluak, baina badago kritikaririk esaten duenik Cora-k baino Stephen-ek idatzitakoak zirela, batez ere “*War Seen Through a Woman’s Eyes*” izena daraman artikulua¹²⁴. Cora-k, ordea, bere amari esan zion gutun batean¹²⁵, “*berak ez dit hartu egun bateko abantaila baino gehiago... eta gainera ez du ikusi nik ikusi dudan beste*”. Zentzu bikoitza hartuz testuari, Cora-k argi uzten zuen emakume esperientziaduna zela eta zenbait gauzatarako prestatuago zegoela.

Davis-ek eta aurka zituen kritikariek esan arren Stephen-ek ez zuela inoiz guda zelaia ikusi (batean gaixorik zegoela, bestean hagineta minaz, edo emaztea alboan...), kontua da batailan egon izan zela, ausartki egon ere, eta jakin bazekiela zer zen han bilatzen zuena: “*elkarren aurka borrokatzen ari diren bi armaden artean interesgarriena gizonen jarrera mentala da. Greziarrak ikusi eta uler ditzaket, baina turkiarrak irrealak iruditzen zaizkit. Itzalak dira zelaian, beltzean dauden irudi zehazgabeak, indar misteriotsuaren erakusgarri*”.

Velestino-ko batailan ikusi ahal izan zuen “*The Red*”en margoztu zuen egoera bera, eta aktoreak bailiren deskribatu zituen soldaduak, drama batean. Behin batean, bera eta Cora emakume eta umeez beteriko untzi batean joan ziren, gerraren irudi ankerrena behatuz, eta han ere hunkiturik sentitu zen.

Azkenean gerra amaitu eta Crane Athenas-tik iparraldera untziratu zen, zaurituen ebakuazioaz kronika egiteko asmoz. Kronika horren fruitua da “*War’s Horrors and Turkey’s Bold Plan*” artikulua, eta bertan kontatu zuen, nola egin behar izan zuen lo soldadu hil baten bularraren gainean.

Stallman-i jaramonik eginez gero¹²⁶, Crane Greziara joan zen, ea “*The Red*” nobelan esandakoa zuzena zen ala ez ikustera, eta han ikusi zuen baietz, berak susmatu

¹²³ Garai hartan bazegoen beste emakume bat gerra-erreportari, Harriet Boyd izenekoa. Gerra hasi zen unean bera Athenas-ko Smith College-n ziharduen ikasle, eta kronikak bidali zituen Iparramerikako egunkarietara.

¹²⁴ Stallman-ek dio, Cranek bere agentea zen Paul Reynolds-i esan ziola *Imogene Carter* Crane bera zela, eta halaxe kontatzeko Curtis Brown-i, garai hartan *New York Press* egunkariko *Sunday*-ren editoreari alegia. Badirudi Cora-k onartu zuela berak ez zuela idazteko gaitasunik, baina iritzi publikoaren aurrean lehian agertzen zen Crane-ekiko.

¹²⁵ 1897ko apirilaren 28an idatzitako gutuna da.

¹²⁶ (STALLMAN 1968) 288. or.

zuen bezalakoxea zela gerra. Gerra erromantikoa ez zela ikusi zuen (berea da lehen gerra-nobela ez erromantikoa), eta halaxe azaltzen da *“Death and the Child”* istorio laburrean, *“The Red”* nobelaren jarraipentzat har daitekeena¹²⁷. Nobela honekin aldentuta nabaritzen den alde bakarra hauxe da, alegia, Crane-k zegoeneko kazetaritzaren estiloa barneratzen hasia zuela fikzioan eta, bere irakurleez gehiegitxo fidatuko ez balitz bezala, nolabaiteko dirijismoa antzematen zaiola (Victor Hugo-k egiten zuen bezala).

Gerra honen beste ondorio literarioa *“Active Service”* nobela dugu (Tolstoi-ren nobelatik izena hartu zuena¹²⁸). Harold Frederick editoreak nobela berri bat idatz zezala eskatu zion Crane-ri, Greziako gerrako esperientzian oinarrituta; baina idazlan horrek ez zuen izan aurreko liburuen arrakasta. Agian ez da Stephen Crane-k egin zuen lanik txarrena, baina argiro nabaritzen da maldan behera zihoala bere narratibagintzan, eta berak ere onartu zuen hori (*“nahiago nuen nobela hobea izan bazen”*), oraindik amaitu gabe zeukanean. Guri dagokigula, nobela interesgarria da, Crane-ren Greziako bizitzaren zenbait pasarte erakusten digulako, neurri handi batean nobela autobiografikoa baita¹²⁹.

Armistizioa izan ondoren, Cora Taylor eta Mrs. Ruedy zuzenean joan ziren Paris-a, eta han gelditu ziren Crane-ren zain, disenteria gainditu arte ez baitzen Athenas-tik atera. Stephen-ek Ptolemy anaia bizkiak eraman zituen zerbitzari berarekin batera (Adoni bakarrik gelditu zen Ravensbrook-eko etxean), eta Velestino txakurra ere Londres-a eraman zuen, izugarri maite zuen txakurra. Londres-en une hartan argitaratu berria zen *“The Third Violet”* bere nobela. Beraz, heldu bezain laster onespina jaso zuen Ingalaterran. Estiloa oso amerikarra zuela leporatu zioten, eta irakurle askorentzat ulertezina zela bere hizkera, baina hala ere bere maisutasuna ezagutu zioten, bere

¹²⁷ Egia esan, *“The Red”* en jarraipentzat hartzen den testua, *“The Veteran”* narrazioa dugu. Hartwood-en 1896an idatzitako narrazio honetan, Henry Fleming nagusia agertzen zaigu, honez gero helduriko gizona. Sutan dagoen pertsona mozkortua salbatu ondoren, protagonista berriz sartu da sutara *colt* errebolberren bila, eta bertan geratu da harrapatu sugarretan. Narrazio honetan Crane-k esaten du heroizitatea ez dela aurreikusgarria, dohain inpersonala dela baizik, eta batzutan heroizitateak gizon bat aukeratu egiten duela, une ezegokian bada ere.

¹²⁸ *“War and Peace”* nobelan, Zherkof-ek ofizial bati honela erantzun zion: *“active service, gentlemen, active service”*, ofizialak gerrara zergatik joan zen galdetu zionean.

¹²⁹ Nobelan agertzen den emakume erreportariak *New York Daylight* egunkarirako egiten du lan, eta Nora

zorrotasun psikologikoa, intentsitate dramatikoa eta esaldien indarra.

Kritikak kritika, bera ez zegoen pozik nobela horrekin. Pretentsiorik gabeko liburua zela aitortu zuen eta maitasun-istorioa egin nahi izan zuela, baina saio hutsala izan zela. Beste kritikari zenbait ere ados egon zen balorazio honekin. Ematen zioten balore bakarra, “*The Red*” nobelaren egileak berak idatzia zela, besterik ez, ordea.

Crane berriz ari zen errepikatzen ordurarte egindakoa, eta ez zuen ematen aurrekoa gaindi zezakeenik. Luzeago biziz gero zer egingo zukeen ez dago esaterik, jakina, baina Joseph Conrad-ek berak ere ideia bera azaldu zuen Crane hil eta urte batzuetara¹³⁰: eman behar zuena, emana zuen, eta ordutik aurreragokoa maldan behera egindako bidea izan zen, azken urteetan idatzi zuenari begiratuz gero. Salbuespen gisa bi narrazio labur aipa daiteke: “*The Upturned Face*” eta “*An Episode of War*”, kalitatezkoak baitira, baina beste gehienetan dirua eskuratzearren egin zituela nabaritzen da. Zorrez josita zeuden cranetarrak.

Crane Ingalaterran

Ingalaterrara heldu zirenean, 1897eko ekainean, maizter egon ziren hasieran, Limpsfiled Chart-eko Millhouse herrian, eta laster hasi zen zabaltzen Stephen Crane-ren bizitza soziala. Ford Madox Ford idazlea ezagutu eta bien artean adiskidetasun sendoa sortu zen, batez ere honek zion mirespenean oinarrituta. Hasiera batean Ford jeloskor agertu bazen ere, bera ere idazle goiztiarra baitzen (Crane baino bi urte gazteagoa izanik, 1892 urtean 19 urterekin, “*The Shifting of the Fire*” nobela argitaratu zuen), arin aitortu zuen gizon gutxi zirela munduan Crane baino gehiago maitatu edo mirestu zituenik.

Ekainean bertan ezarri ziren Ravensbrook-en. Bertan aurkitu zuten ingurunea liberala zen eta cranetarrak ez ziren baztertuak izan ezkongabeak izanagatik (gainera askok uste zuten senar-emazteak zirena¹³¹). Harold Frederick idazlea ere andrelagunaz

Black du izena. Nobelaren pertsonaia guztiak kartoizkoak modukoak dira, Nora/Cora izan ezik.

¹³⁰ (CONRAD 1926) 77. or.

¹³¹ Joseph Conrad-ek ere halaxe uste zuen, Athenas-en ezkondu zirela, baina ezinezkoa zitzaien

bizi zen, bien arteko seme-alabekin batera (nahiz eta emaztea eduki nonbait), eta jakinaren gainean zeuden inguruko guztiak¹³². Beraien zirkuluan atzerritarrak ziren gehienak (Frederic, Whistler, James eta Conrad) baina gizarte ingelesak ondo hartu zituen.

Ingalaterran ezartzeko arrazoia, nire ustez, Cora-rekin zuen harremana dela-eta ulertu behar da. Beldurra zion eskandaluari, bi arrazoirengatik batez ere: eskandaluak familiari egin ziezaiokeen mina, eta bere ibilbide literarioan eduki zezakeen eragina. Iparramerikan geldituz eskandalua edozein unetan gerta zitekeen (Richard Harding Davis horren atzetik zebilen-eta) eta ezin zuen arrisku hura bereganatu. Argi azaldu zion behin William bere anaiari gutun batean: “*Amerikan badaude zenbait pertsona ni neu hil, lurperatu, ahaztu eta inolako kontsideraziorik gabe, errespetabilitatetik kanpo jaurtiki nahi nautenak, ahal izanez gero*”¹³³, eta berak ez zuen eman nahi izan halakorik gertatzeko erraztasunik.

Paris eta beste hiriekin egin zuen bezala, Londres-go bizitza sozialaz ez zuen inolako interesik adierazi, Cora-k ez bezala. Gehiago interesatzen zitzaizkion makinak eta eraikuntza arkitektonikoak, herrien kulturak baino.

Bizitza alaiara eraman zuten gastuei zegokienez, eta Crane-k asko eta arin idatzi behar izan zuen dirua eskuratzearren, ganora handirik gabe idatzi ere. Hasi gabeko lanak kobratzen hasi zen, eta gero estu eta larri ibiltzen zen agindutakoa burutu nahian¹³⁴. Astero bidaltzen zituzten biek idatzitako kronikak “*New York Press*” egunkarira Imogene Carter ezizenaz, eta artikulu haien “*helburu soila bizimodua mantentzea da, Europan egongo naizen bitartean*”. Agente literarioek (Paul Revere Reynolds Amerikan eta James B. Pinker Ingalaterran) bidalitako diru guztia ez zen

ezkontzea, Cora-k ez baitzuen lortu dibortzioa. Athenas-en Mrs. Stewart izenaz ezagutzen zuten. Stephen-ek 1899ko martxorarte ez zien anaiei “ezkontzaz” ezer esan, eta William-ek Cora-ren berri 1898ko irailean eduki zuen lehenengoz, honek telegrama bidali zionean –etsiturik– Stephen Kuban aurkitzeko laguntza eskatuz.

¹³² Frederic adiskide hurkoa hil zenean, Cora pertsonalki aritu zen lagun eta ezagunen artean dirua biltzen, *alarguntsa* eta seme-alabak aurrera atera zitezten. Harpidetza gisako kanpaina eratu zuen, eta bonoak saldu. Henry James-ek ere umezurtzen aldeko dirua eman zuen.

¹³³ Urriaren 29koa da gutuna, eta bertan ez da Cora-ren izena behin ere azaltzen.

¹³⁴ Methuen-ek 100 dolar aurreratu zion Iraultza Amerikarrari buruzko nobela idatz zezan, baina egitasmoa bertan behera utzi zuen Crane-k.

nahikoa gastuak asetzeko. Zorrak pilatuz joan ziren, eta cranetarren bizitza itzotzeko zorian jarri zuten.

Conrad-ekiko adiskidetasuna

Lehen esan bezala, 1897ko ekainean Crane-k bi pertsonarekin batu nahi zuela esan zion editoreari, eta horietariko bat *“The Nigger of the ‘Narcissus’”*-en egilea zela; baina urrirarte ez ziren elkartu, William Heinemann eta Pawling-ek Stephen-entzat antolatuz zuten bazkarian elkar ezagutu zuten arte. Beranduago Conrad-ek kontatu zuen nolakoa izan zen enkontru hura¹³⁵: *“Elkar ezagutu genuenean, berehala somatu nuen Crane-k ez zuela zorte oneko gizonaren aurpegia. Ziurtasun hau burura etorri zitzaidan gure lehen enkontruan, aurrez aurre jarrita eduki nuenean, Greziari buruzko istorioak kontatzen ziharduela”*. Mahaikideak agurtu ondoren, Crane eta Conrad biak bakarrik ibili ziren kaleetan zehar, Green Park-etik Kensington Gardens-eraino, Crane-ren leku kuttuneraino alegia.

Conrad-ek Greziara joan aurretik gerra bat ere ikusita ez zuela aipatu zionean, Crane-ren erantzuna hauxe izan zen: *“Ez. Baina “The Red Badge” ondo dago”*. Zalantzarik ez zuela ihardetsi zion Conrad-ek, eta segidan esan: *“Zure generala atsegin dut”*. Stephen-ek ez zuen erantzun. Isil-isilik ibili ziren, ukondoaz ukondo, Hyde Park Corner atzean utzi arte. Eta orduan esan zuen Crane-k: *“Zure gizon gaztea atsegin dut (Jim Waite). Ikus dezaket”*.

Ordutik aurrera idazle bien arteko harremana estuagoa izan zen, eta beraien familiak ere behin baino gehiagotan elkartu ziren batzuen ala besteen etxeetan. Aurrerago, Stephen Kuban “galduta” egon zenean eta Cora-k haren bila egundokoak eta bi egin zituenean, Joseph Conrad-ek Estatu Batuetako enbaxadan egin zituen gestioak, Stephen-en berri jakin nahian¹³⁶. Familia bien artean harreman afektiboa gauzatu zen¹³⁷; Joseph eta Stephen-en arteko harremana, berriz, azaltzeko erraza ez den sentimendu sakona izan zen. Egia esan, aurrez aurre ez ziren literaturaz ia mintzatu (gutunez

¹³⁵ (CONRAD 1926).

¹³⁶ Areago, Stephen Kubatik itzuli baldin bazen, neurri handi batean, Joseph-en erreguei esker izan zen.

¹³⁷ Joseph-en lehen semea jaio zenean (Borys), Stephen-ek zalditxo bat oparitu zion.

gehiago), baina hitz bakar batzuk nahikoak ziren elkar ulertzeko, “hizkera bera” hitz egiten baitzuten, literaturaz zein bizitzaz ere¹³⁸.

Ingalaterran egonkortasuna topa zezakeela ematen zuen, batez ere Cora-ren iragana ez zelako izan arazo-iturri bikotearentzat; baina Stephen-ek ez zuen balio geldi egoteko. Berak zioenez: *“Zoriontsuagoa nintzen antzinako garaietan, gauzei buruz denbora osoan amesten negoenean, orain gauzak dauzkadanean baino”*.

Bidaiatzeko bi eskaintza izan zuen, bat Klondike-ra (Alaska) joateko urte hartako urrian, eta bestea Khartoum-era (Sudan, Afrika) abiatzeko, han baitzegoen armada ingelesa; baina horietariko bat ere ez zen gauzatu. India-ra joatea ere bururatu zitzaion, baina ez zuen gogoko ingelesak han jokatzeko ari ziren rola. Azkenik, Ravensbrook-en geldirik, errebolberaz jolasten zuen maiz, Colt markakoaz, mendebaldean (*The West*) *cow-boy*-ei egiten ikusi zien bezala.

Joseph Conrad-ek hasiera-hasieratik mirestu zuen Stephen Crane-ren idazkera. Ford-ek horrenbeste miresten zuen *“The Bride Comes to Yellow Sky”*¹³⁹ albo batera utziz, Conrad-ek askoz ere gehiago goraiatu zuen *“A Man and Some Others”* lana, eta honi buruz honelakoak esan zizkion Stephen-i gutun batean¹⁴⁰: *“Hau da biografia zati harrigarria. Untzia guztiz interesgarria da. Ez dut erabiltzen hitza zentzu arruntan. Interesgarria zait errotik. Zure izaerak berri egiten ditu gauza zaharrak, eta miresgarri egiten ditu gauza berriak. Biraoka hasiko nintzaizuke, bedeinkatuz edo agian tirokatuz, baina finean, zure laguna izatea nahiago dut. Etengabeko ezustea zara edonorentzat. Kolpatzen duzu, eta elkarren segidan satisfakzio artistiko perfektua ematen duzu. Zure metodoa liluragarria da. Impresionista hutsa zara. Bizitzaren ilusioa zure eskuetatik ateratzen da inolako akatsik gabe. Hau ez da bizitza –inork nahi ez duena bestalde–*

¹³⁸ Conrad-i buruzko biografia eta datu ugari dugu eta ez da haxe hari buruz luze mintzatzeko lekua, baina bi ohar txiki aipatu dugu, interesgarriak izan daitezkeelakoan. Behin “duelu” bat burutu nahi izan zuen, aristokrata poloniarraren rolean sarturik, baina arin esan zioten Ingalaterran ez zela duelurik egiten aspaldidanik. Virginia Woolf-en iritziz zeharo erretsebatua zen Joseph Conrad. Arthur Symons-ek zioen, ordea, presaka mintzatzeko zela, eta noizbehinka Verlaine-ren irribarre bera izaten zuela, haginaren artekoa eta konbultsiboa.

¹³⁹ Narrazio honi buruz Ford-ek esan zuen, *“eragin handiagoa sortu du nigan, inoiz irakurri dudana beste edozerk baino”*. Egia esan, gauza bera esan zuen aurrerago *“Five White Mice”* lanaz.

¹⁴⁰ Conrad-Crane-Cora-ren gutunen berri izateko, ikus (STALLMAN eta GILKES 1960) eta (WERTHEIM eta SORRENTINO 1988).

artea baizik; bai miserableek, bai handikiek, jakin gabe ere, gogoko duten artea". Eta aurrerago segitzen zuen: "*Gure izaeren artean antzekotasun handia dago*".

Egia esan, antzekotasuna ez zen izaerara mugatzen. Beraien artegintza, kode estetikoak inpresionismo eta sinbolismoarekiko, eta beraien heroien eta ez-heroien baldintza psikologikoak larrialdietan zein egoera paradoxikoetan, ikuspuntu bikoitz eta ironiko berberetik ikusita daudela ematen du. Crane-ren baieztapen guztiak kontrajarriak izaten dira ondorengo ezeztapenaren bidez, eta Joseph Conrad-engan ere sarri ikusten da alderantzizko umore hau berau, umore bikoitza.

Nortasunez, ordea, zeharo ezberdinak ziren. Crane zuzena eta presatia zen, eta ez zen jokaera zuhurrekoa. Conrad, aldiz, zuhurra zen, arretatsua, eta eslaboen modu eszeptikoak eta ezkutukoak agertzen zituen. Conrad ajeak jota azaltzen zen maiz, eritasunak gorabehera; Cranek, ordea, bizitza osoan ez zuen bere gaixotasunez tutik esan, nahiz eta gaztetandik gaixobera izan, eta garai batzuetan gaixo-itxura handia agertu (disenteria, malaria, tifusa, sukar horia, tuberkulosia, sifilisa agian eta beste zenbait eritasun pairatu zituen bere bizitza laburrean).

Bata zein bestea, aitzitik, bat zetozen batez besteko irakurlearen ergelkeriaz mintzatzeko unean. Irakurleak ergelak eta irudimenik gabekoak zirela uste zuten, eta publikoki adierazi zuten behin baino gehiagotan.

"The Nigger of the 'Narcissus'" liburuaren probak bidali zizkion Joseph Conrad-ek Stephen-i eta beronen erantzuna gartsua izan zen: "*Irakurri ditut zuk bidalitako proba orriak eta liburua bikaina da benetan. Waite-ren heriotzaren tratamendua onegia da, ikaragarriena. Ahaztu nahi izan nuen, baina gogor harrapatu ninduen*". Pertsonaiarekin batera bera ere gaixo sentitu zela esan zion Crane-k, eta heriotza errearen zama senti zezakeela. Conrad-ek iritzia eskatu zion, liburuaren amaieraz batez ere. Benetako interesa adierazten zuten batak bestearekiko. "*Lan hau dela-eta deprimaturik sentitzen naizenean, neure buruari esaten diot, 'Crane-ri gustatu egiten zaio lan madarikatua' eta horrek kontsolatzen nau. Ezin dezaket adierazi zutaz sentitzen dudana. Gure pow-wow (sic) luzetik hona mundua ezberdin ikusten dut. Ondo egon zen. Haren oroimena ona da. Eta orain eta lehen (giza izaera gauza ustela da) neure buruari galdetzen diot ea zuk esan nahi izan zenuen esan zenuenaren erdia*".

Crane-k esan zuen guztia esan nahi zuen. “*The Nigger*” irakurri zuenean benetan liluraturik geratu zen, eta Hamlin Garland-i eskatu zion Irving Bacheller-en aurrean gomendatzeko, Amerikan argitara zedin.

Conrad-en liburua abenduaren 4-5ean argitaratu zen, eta hil bereko 8an lehen kritika jaso zuen *Londres Daily Telegraph* egunkarian, W.L. Courtney-k idatzia. Egile honek ohartu zuen Crane-ren eragina Conrad-engan eta kritika honi segituz, *Speaker* argitaralpenak esan zuen “*The Nigger of the ‘Narcissus’*” lana Crane-ren “*The Red Badge of Courage*” nobelarekiko guztiz menpekoa zela. Conrad mindurik sentitu zen eta hilearen 24an idatzi zion Crane-ri, Courtney astoaren kronika kritikatu: “*Zuk uste duzu ni saiatu nintzela zu imitatuz? Ez jauna! Zorua izan naiteke, baina nik badakit zerbait hoberik egiten, imitaezina dena imitatu nahian ibiltzea baino*”.

“*The Red Badge of Courage*” nobela Heinemann-ek Londres-en argitaratu eta apurtxura irakurria zuen Conrad-ek, eta Crane-ren istorioak eragin ziona, horretan dudarik ez dago. “*Youth*” (1898) narrazioak eta “*The Open Boat*” nobelak ere eragina izan zuten Conrad-engan. Areago, Stallman-ek uste du¹⁴¹, Stephen-ek gerraz eta gudariez egindako gauza bera egitea erabaki zuela Conrad-ek itsasoaz eta marinelez, kontzienteki. Guk badakigu erabaki horiek ez direla hotzean, paper eta lapitzaren laguntza soilaz hartzen, are gutxiago Conrad-ena bezalako ibilbidea ikusi ondoren. Eragina ez dut ukatzen, baina Conrad-ek zeresan handia du (Crane-k bezainbeste) subjektibitateari dagokionez.

Jessie Conrad haurdun zegoenez, conradarrak ez ziren joan Ravensbrook-era, baina azaroaren 29an Stephen joan zitzaien bisitan, eta betidaniko laguna bailitzan izan zen hartua Jessie eta Joseph-en etxean. Crane-ren lanak frantseseraz itzuliak izateko posibilitateaz mintzatu ziren, errusieraz eta alemaneraz itzuliak baitziren zegoeneko. Stephen handizalea zen askotan, baina nagusiagoen aurrean apal azaltzen zen. Edonola ere, aurreikustezina zen beti, nondik aterako zen jakin ez zekitela.

Etxean izandako hitzaspertu luzearen ondoren (gau erdia eman zuten berbetan eta erretzen) honelaxe idatzi zion Conrad-ek Edward Garnett-i Crane-ren bisitaz: “*Bere*

buruari buruz guztiz etsituta dago. Atsegin dut. Bere begirada oso indibiduala da eta bere adierazpideak artistikoki betetzen nau. BERA da inpresionista. Bera da inpresionista bakarra eta inpresionista hutsa baino ez. Zergatik ez du neurrigabeko osperik? Berak duen indarraz, egintzetan duen arintasunaz, daukan ikusmen harrigarriaz, zergatik ez da ospetsuagoa? Urrutira heltzeko moduko bolumena du, kolorea, mugimendua; baina helduko ote da? Batzuetan ezetz uste dut. Ez da iritzia, sentsazioa da. Ezin dut esan zergatik dezepzionatzen nauen. Zergatik zimeltzen den nire entusiasmo liburua itxi bezain laster. Norbera irakurtzen ari den bitartean, jakina, bera ez da jartzen kolokan. Azken lerroraino da irakurlearen jabea; orduan, ageriko arrazoirik gabe, bere manupetik joaten uzten duela ematen du. Irakurleak harrapatzen ditu, eta gero hatzamar koipeztuetatik ihesi doazkio”¹⁴².

Crane hil eta ondorengo hamarkadan, Conrad-ek sarritan aztertu zuen Crane-ren nobelagintza, eta azterketa psikologiko fina burutu zuen sarritan: *“Bere idazkeran ziur oso egoten zen bera idazkeraren efektuez. Ez dut uste inoiz zalantzarik izan zuenik egin zezakeenaz. Hala ere sarritan iruditu izan zait bera ez zela guztiz jakitun bere lorpenen ezaugarri bereziaz. Umea bezalakoa ematen zuen tutoretzarik gabeko jekuaren mugimendu inpulsiboetan. Bere esanahi sinpledun hizkerak inpresionatzen du, sentimendu estrainioen dohain izugarriak, adierazbide zuzenak, zintzotasun finak eta konbikzio indartsu eta, agian, ez oso kontzienteak. Bere arteak ez zuen lortu, somatzen dut, sofistikatorik gabeko inspirazioak merezi zuen entzute guztia”¹⁴³*. Stallaman-ek, ordea, ez zuen uste Stephen-en dohaina sofistikatorik gabekoa zenik. Agian umekeria eman zezakeen baina ez landugabekeria. Elipsizalea zen, hitzen ekonomia ezartzen zuen eta ez zen nekatzen esaten bere xedea zela *“hitz madarikatu bakoitzak seiren lana egin zezala”* lortzea. Crane, Conrad eta Henry James izan ziren, hain zuzen, inpresionismo literarioaren protagonista ingelesak, baina guztietatik inpresionismoaren kanona gehien zaindu zuena, Crane bera izan zen, W.H. Hudson, Robert Cunningham

¹⁴¹ (STALLMAN 1968) op. cit. 601. or.

¹⁴² op. cit. Testu honetan argi ikusten da Crane dela subjektibitatearen idazlea (gertakizunari berari lotua) eta Conrad, aldiz, fidelitasunaren idazlea dela (gertakizunarekiko fidelitasuna mantentzen duena, gertakizuna amaitu ostean).

¹⁴³ New York-eko Public Library-n dagoen Berg Collection-etik hartutako eskuizkribua da. Conrad-en beste liburu batzuetan ere agertzen da, (CONRAD 1912), (CONRAD 1926). Azken liburuan kontraesana nabaritzen da aurretik esandakoaz.

Graham eta Ford ere talde honetan sartzen direlarik: *“Interpretatu behar duzu, ez egin kronikarik. Inoiz ez duzu esan/idatzi behar: ‘Berak ikusi zuen nola apuntatzen zion gizon batek harma batekin’ baizik eta honela idatzi: ‘Berak ikusi zuen burdinezko zirkulua berari zuzendurik’.* Gero lortuko duzu bere inkontzientean ezagutzea *burdinezko zirkulua errebolber baten aho distiratsua zela”* esan zuen Crane-k *“Three White Mice”* narrazio labur eta bikainean¹⁴⁴.

Amaieraren hasiera

Ingalaterran egon zen garaian bi gauza dira aipagarri Crane-ren biografian: Conrad-ekiko adiskidetasuna, ondo hornitua dokumentalki, eta cranetarrek izan zituzten diru-arazoak, dokumentalki hornituagoa. Stephen-ek berak zioenez, *“if I was a business man, I would not need a business man to conduct my affairs for me. I will try to do better, but if I shouldn’t, don’t harangue me”*. Ez zen, ez, negozio gizona, eta zulo ekonomikotik atera nahian *“The Great Battles of the World”* izeneko liburua idazteko konpromezua hartu zuen, nahiz eta inoiz bete ez zuen emandako hitza. Cora-k ere gastaturik zituen harrez gero bere Club-a saltzeagatik eskuraturiko sosak (Greziarako bidaiari gehiena) eta orain estu eta larri ibiltzen ziren. Adiskideekiko eskuzabaltasuna eta luxuzko gastuek ere ez zuten etxeko ekonomian laguntzen. Gaitasun-eza onartzen zuten biek: *“Stephen and I are the same person. We have non sense about money at all”*.

Kubarako prestakuntza

Garai hartan, 1898ko martxoan, sarritan egoten zen presente Kuba lagunaren arteko elkarrizketetan, batez ere *“Maine”*-ren gertaeraren (otsailaren 15a) ostean Estatu Batuak gerran ofizialki sartu zirenean. 1898ko martxoaren 20ko elkarrizketa batean, Crane-k ez zuen, itxuraz, interes handirik adierazi. Itxuraz diogu, zeren laster ekin baitzion Kubara joateko ideiare (*“ingelesez egingo den gerra da; biraoak, gutxienez,*

¹⁴⁴ (FORD 1953).

gaztelaniaz¹⁴⁵ *esan ditzaket, eta erosoagoa izango da*”), nahiz eta oraindik ez zen ausartzen Cora-ri azaltzen bere nahia.

Laster erabaki zuen Kubara joango zela, baina bidaiarako dirua behar zuen eta ez zeukan. Apirilean zehar bulegoz bulego aritu zen Stephen, eta Conrad-ek ere diru-kopuru txikia utzi zion¹⁴⁶. Azkenean, 1898ko apirilaren 21-22an Manhattan-era heldu zen, eta handik gutxira irten zen Estatu Batuetatik Kubarantz; denetara bederatzita hilabete eman zuen kanpoan¹⁴⁷. Tarte honetan guztian Conrad eta Cora kontaktu etengabe egon ziren¹⁴⁸, lehenak laguntza eskainiz eta bigarrena berrien esperoan. Cora-ren etsipena areagotzen zenean (*“I cannot bear it! But we bear things”*) Joseph-ek kontsolatzen zuen maiz (*“Moreover I fancy Stephen’s absence won’t be very prolonged and we may have the felicity of seeing you all here together. I trust you will let me know how the fares whenever you hear from him. He is not very likely to write anyone else –if I know the man”*).

Aztertzekoa da zergatik joan zen Crane berriz ere Kubara. Alde batetik, berak ez zuen uste, kazetari gisa zuen ospeak erreportari joatea eskatzen zionik, eta bestalde, tuberkulosiak jota zegoen harrez gero¹⁴⁹. Biografoek diotenez, Stephen-en nahia US Navy-n sartzea zen, itsasoarekiko zuen obsesioa bete nahian. Osasun-arazoak zirela-eta, ez zuten hartu, baina ordurako bazuen erreportari aritzeko eskaintza; Irlandatik Ameriketarako bidaian zihoala Pulitzer-en *“World”* egunkariaren eskaera heldu zitzaion telegramaz: Kubako gerrari buruzko kronikak bidaltzeko eskatzen zioten.

Crane Kubara joatea kolpe handia izan zen Cora-rentzat. Cora eta etxeko zorrak utzi zituen atzean Armadan sartzearen¹⁵⁰. Frederic familiak beren etxera gonbidatu

¹⁴⁵ Harrigarria da ikustea Conrad eta Crane-ren arteko gutunetan zenbat hitz agertzen zen gaztelaniaz, *“en fin”*, *“quien sabe?”* eta beste hainbat. Mexiko eta Kubak eragina zuten beraiengan.

¹⁴⁶ Dirua uztean, Stephen-en geroa patuaren eskuetan utzi zuela sentitu zuen Joseph-ek; amaieraren hasiera zela sentitu zuen, geroago aitortu zuenez. Baina argi ikusi zuen, ez zegoela ezer Stephen atzera eginaraziko zuenik: itsasoa igeritan zeharkatzeko prest zegoen Crane.

¹⁴⁷ 1898ko azaroaren 17-21an abiatu zen berriz ere Kubatik, eta hilabete luzea Amerikan eman ostean, abenduaren 31n ateratu zen berriz Estatu Batuetatik Ingalaterrantz; 1899ko urtarrilaren 10ean heldu zen Ingalaterrara, azkenean.

¹⁴⁸ Beraien arteko gutunek adierazten dutenez.

¹⁴⁹ Seguruen tuberkulosia 1897koa zen, *“Commodore”* aren naufragioaren aurretikoa.

¹⁵⁰ Helen Crane-k, Stephen-en lobak esan zuen bere liburuan (CRANE 1934) osaba oso erakargarria zela emakumeentzat, baina inoiz ez zuela benetako maitasunik izan bere bizitzan. Halaxe balitz, hobeto

zuten (Cora, Mathilde, Adoni maiordomoa eta hiru txakur kanitxeak ere bai) sasoi batez, baina honek ez zituen konpontzen etxera heltzen ari ziren fakturen pilaketa eta epaitegitik zetozen zitazio ugariak. Zitazioetatik ihes egiteko, Ravensbroo-eko etxebizitza itxi eta Londres-en gela batzuk hartu behar izan zituen garai batez¹⁵¹, Milborne Grove 6 kalean, Stephen-ek ez baitzion inolako diru-iturririk utzi joatean.

Egoera ekonomikoa halakoa izanik ere, beste mantsio bat berrizteko eta alokatzeko gestioak burutzen hasi zen Cora, Brede Manor izeneko mantsioa, Stephen-en itzuleran hara joateko asmotan. Brede Manor jauregitxo bat zen oraindik ere garai hartan. 1370ean hasi zen eraikitzen, Edward III.aren garaian eta Cora-ren ustez *status* sozial egokia emango zien Ingalaterrako gizartean. Nola edo hala lortu behar zuen, eta bereak eta bi egin zituen hura lortzearen.

Kubako gerra

Queenstown-dik (Irlanda) New York-era abiatu zen Crane 1898ko apirilaren 14an, “*Germanic*” itsasuntzi txikian, gerrarako bolondres gisa, eta 21ean heldu zen Manhattan-era. Esan bezala, ez zituen gaintitu *marine* izateko proba fisikoak, baina biharamunean jaso zuen “*World*”-erako gerra-erreportaiak egiteko eskaintza, eta 23an sinatu zuen egunkariarekiko kontratua. New York-etik Washington-era abiatu zen Lily Brandon Munroe maitatua ikusteko asmotan, baina bisita labur-laburra izan zen, Habanan bataila garrantzitsua hasia zelako, eta egunkariak berehala deitu ziolako, hara joan zedin.

Apirilaren 24an Espainiak Estatu Batuei gerra deklaratu zien, baina Estatu Batuak 21etik zeuden gerra-egoeran Espainiarekin. Hilaren 26an jaso zuen egunkariak Crane-ren lehen artikulua, preso harturiko “*Panama*” untzi espainiarrari buruzkoa. Kubako gerran Grezian egondako giro, egoera eta erreportariak aurkitu zituen berriz ere¹⁵², eta Grezian bezalaxe, Crane-ren itxura ganorabakoa zen, jende askok irakurtzen zion arren (10.000 egunkarian eta 50.000 “*The Red*” nobela). Gehien maite zuena,

ulertuko lirateke Cora-ri egindako planteak.

¹⁵¹ Stephen itzuli zenerako, berriz joan zen Ravensbrook-era bizitzera.

¹⁵² Richard Harding Davis-ekin ere egin zuen topo, baina elkarri itzuri egin zioten, ez topatzeko asmotan.

gerra-erreportaria izatea zen, eta eskaintza eduki arren, ez zuen erredazioko kazetaria izan nahi. Aurrekoetan bezala, bere ausardia utzi zuen agerian, eta Davis kazetariak berak (gehiegi maitatu ez arren) ere onartu zuen Crane-ren balentria: *“he is the coolest man, whether army officer or civilian, that I saw under fire at any time during the war”*. Hogeita sei urte zuen, baina hamazortziko baten itxura agertzen zuen, eta gainera imajinazio bizia, kuraia eta kemena zeuzkan. Stephen buru belarri sartu zen gerraren dinamikan, eta behin baino gehiagotan hartu zuen parte ekintza militarretan, umore onez beti ere. Cuzco-n egindakoogatik¹⁵³, esaterako, soldaduen artean heroitzat hartua izan zen *“little Stevey”*. Major Charles McCawley-k berak eskerrak eman zizkion gutun batean.

Garai hartan *“The Clan of No Name”* idatzi zuen, eta bertan gure ikerketarako interesgarriak diren ideiak azaldu zituen. Narrazioan agertzen den Manolo Prat sarjentuak, esaterako, kode bat du, maitasunerako zein gerrarako balio duen kodea: leialtasuna. Leialtasuna maitasunaren legea da, dio Crane-k, eta itxaropena, ordea, gizateriaren sentimendurik hutsalena. Tesi honen beste atal batean luze mintzatuko gara leialtasunaren garrantziaz eta itxaropenaren hutsalderiaz, hain zuzen ere.

Uztailaren 3an su-etenerako negoziaketak hasi ziren¹⁵⁴ eta hilaren 8an Crane *“City of Washington”*en itsasoratu behar izan zuten, malariak jota¹⁵⁵, isolamenduan mantenduz. Ikur horia (tifus edo *kalentura kubatarraren* seinale) untziaren mastan ipinita, uztailaren 13an heldu ziren Old Point-era (Virginia) eta bertan hotel batean kokatu zuten gaixoa. Hiru hilabete zeraman arropa aldatu gabe, eta garagardoa eta whiskiaz aparte ez zuen besterik edan. Azkenean laranja ura edan ahal izan zuen, amestu bezala. Zahartuta, eztulka eta dirurik gabe¹⁵⁶, itxura penagarria zuen. Uztailaren

¹⁵³ Hillard-i behin baino gehiagotan esan zion, bere desiorik sakonena batailan hiltzea zela, bere arbasoek egin zuten moduan, herriaren alde bizia sakrifikatuz. Louis Senger-ek ere urte batzuk beranduago idatzi zion Hamlin Garland-i *“berak batailan hiltzea aukeratuko zuen heriotza geldoa izatea baino, eta nire ustez honen ezagupen profetikoa izan zuen”*.

¹⁵⁴ Su-etena uztailaren 3an, Bakerako Protokoloa abuztuaren 12an, eta Paris-ko Tratatuaren abenduaren 10ean. Bertan ezarri zen Kuba, Puerto Rico, Guam eta Filipinak uzten zizkiela Espainiak Estatu Batuei. Kubako ebakuazioa 1899ko urtarrilaren 1erako ezarri zen.

¹⁵⁵ Abuztuan beste malaria-erasoaldi bat pairatu zuen, zenbait egunez kalentura handiz egonarazi zuena.

¹⁵⁶ Zor ziotena ez omen zioten ordaindu, *kalitatea* ez zuelakoan. Zurrumurru hauetan oinarriturik, Carlos Seitz-ek (*“Pulitzer’s World”*eko kudeatzaileak) Crane-ren ospea kaltetu zuen bi artukulutan (*“Joseph Pulitzer”* 1924an eta *“Bookman”* aldizkarian 1933an) erreportari txarra izan zela esanez. Sinesmen hau

21erako, ordea, berriz joan zen gerrara, oraingo honetan Puerto Rico-ra, eta bertan hiru aste eman zuen, abuztuaren 12an Washington-en Bakearen Protokoloa sinatu zen arte. Habana-ra itzuliz, hilaren 16an Cora-ri telegrama bat bidali zion, hiri hartan zegoen egoera kaotikoa deskribatuz. Hasiera batean Grand Hotel Pasaje dotorean egon zen, baina irailaren 1ean utzi egin behar izan zuen, diru-ezak itota. Handik joan eta gutxira, hilearen 8an, desagertutzat jo zuten¹⁵⁷. Orduan hasi zen Cora-ren kalbarioa, Stephen etxera eraman nahian.

Stephen Crane ez zen desagertu, jakina. Habanaz maitemindurik zegoen eta bertan gelditu nahi izan zuen. Emakume nagusi baten etxean¹⁵⁸ egon zen, maizter, gaixorik egon zen bitartean, honen zainpean. Berak behartzen zuen jaten eta lo egiten, Crane-k idatzi baino nahi ez zuen artean. Etengabe idatzi zuen ostatu hartan, poemak batez ere. Habanan eman zituen hiru hilabete hauek “*bere bizitzako zoriontsuenak izan ziren*”, Stallman-en hitzetan. Egun batean Marburgh izeneko kazetari baten aurrean *American Bar*-en identifikatu zuen bere burua: “*I’m Stephen Crane*”. Baina Crane-k ez zuen etxera itzultzeko asmorik¹⁵⁹; eta hori berori susmatu zuen Joseph Conrad-ek urrunetik. Azaroaren 10erako txartela erosirik zuen “*Paris*” itsasontzirako, baina azken momentuan bertan behera utzi zuen erretserba.

Ingalaterran, bitartean, Cora-ren egoera ekonomikoa jasanezina zen. Altzariak saltzea ez zen zorrak kitatzeko nahikoa, eta Stephen-en presentzia ezinbestekoa zen (*salbazioa* Conrad-en hitzetan) hartzekodunak geratzekotan. Azkenean, Joseph Conrad-ek bidalitako premiazko gutunak mirakulua lortu zuen, eta azaroaren 17an Crane Estatu Batuetarantz untziratu zen, bidaiarako dirua lortuta¹⁶⁰.

lau hamarkadaz luzatu zen, Walter Willis eta W. A. Swanberg historialariek ere gauza bera errepikatu zutelako, iturrietara jo gabe.

¹⁵⁷ Horrelaxe agertu zen Florida-ko egunkari bateko “*Cuban Gossip*” artikuluan, irailaren 10ean. 24an hasi zen Cora agintariei gutunak idazten, Stephen aurkitzen lagun ziezaioten.

¹⁵⁸ Mary Horan’s Lodging House. Mary irlandarra zen, New York-en hazia, eta kapitain espainiar baten alarguna zen artean. Kubatar txiroentzako hotela zuen, ordaintzeko dirurik ez zutenentzat, Stephen kasu.

¹⁵⁹ Crane-k Lily Brandon Munroe zuen buruan, eta ez Cora. “*Intrigue*” poeman argi nabaritzen da beraren *love-conflict* hura.

¹⁶⁰ Heinemann-ek 50 libra bidali zuen, Wade generalaren bitartez. Ez omen ziren ausartu Crane-ri zuzenean dirua bidaltzen. New York-era heldu zenean, zurrumurru gaiztoak hedatu ziren. Crane-k bere buruaz beste egiten ahalegindu zela esan zen, edo bestera esanda, bere biziaz amaituko zuen balaren bila aritu zela. Suizidioaren zurrumurrua ez zitzaion batere atsegin Stephen-i.

Crane-k ez zuen Ingalaterrara itzuli nahi. Azaroaren 28an Mrs. Sonntag-i idatzion egoera azalduz: “*Irrikitan nago Mrs. Crane nirekin edukitzeko herri honetan, eta Mrs. Crane irrikitan dago ni berarekin egoteko Ingalaterran. Duelua mantentzen ari gara distantziaz eta tintaz. Nola konbetzitu inor zerbait egiteko gutunez eta telegramaz?*”. Texas leku egokia zeritzon gelditzeko, baina paperezko “duelu” hartan ari zirela, poliziak arrazoirik gabe atxilotu zuen antzokitik ateratzen ari zela, eta agian gertaera honek lagundu zion Ingalaterrara itzultzeko erabakia hartzen. Bestalde, Lily ikusten saiatu zen berriz ere, baina zereginik ez zuela ikustean, Cora-rengana joatea deliberatu zuen, presarik gabe joan ere, hilabetea eman baitzuen New York-en, eta Gabonak Edmund anaiaren etxean pasatu baitzituen. Edonola ere, sasoi baterako joango zela esaten zuen, eta ez betiko. Azkenean, abenduaren 31an irten zen New York-etik eta 1899ko urtarrilaren 10ean heldu zen Ingalaterrara, “*Manitou*” untzian.

Ingalaterra: azkenurreko geltokia

Ingalaterrara heldu zenean Joseph Conrad-ek amoltsuki hartu zuen. Stephen-en berri jakin nahi zuen, gerran izandako esperientziak entzun, eta halaxe adierazi zion gutun batean. Gutun berean Crane-ren lana goretsi eta bere lana gutxietsi egiten zuen, idazten ari zen guztia ustelduta zegoela esanez. Apaltasunak apaltasun, guk onartu behar dugu (Edwin Pugh-en iritziaren kontra) Conrad-en “*Heart of Darkness*” nobelak kalitate handiagoa duela Crane-ren “*The Price of the Harness*” narrazioak baino, inolako zalantzarik gabe¹⁶¹.

Heldu eta berehala bi izan ziren Crane-ren arazoak Ingalaterran: zorrak eta gaixotasuna. Urtebeteko errenta zor zuen Ravensbrook-en alde batetik, eta malaria-eraso ugari izaten zituen bestetik. Ezin zuen espero zitekeen bezainbeste lan egin. Hala ere Cora-k bere horretan segitzen zuen, eta urtarrilaren 17an Brede Manor ikustera eramane zuen Stephen lehenengoz. Azkenean, otsailaren 12an Ravensbrook utzi eta Brede Manor jauregira joan ziren bizitzera, Stephen-en bizitzaren azken faseari hasiera emanez. Brede Manor gura handiko etxea zen eta ez zituen modernitatearen abantailak,

¹⁶¹ “*Heart of Darkness*” eta “*Lord Jim*” argitaratu eta gero, eta batez ere Crane-ren heriotza eta gero, Conrad-en ibilbide literarioa gorunzkoa izan zen. Crane-ren azken hamalau hilabeteak, aldiz, aldatz

bat ere ez. Handi-handia, hotz-hotza, ur korrante, gas eta elektrizitaterik gabekoa; berogailu-sistematik ez zuenez, zerbitzarien lanaz baliatu behar izaten zuten geletara eramateko ura eta egurra. Deserosoak ziren altzariak eta itxura siniestroak zuela zioten gonbidatuek, baina hala ere Cora-k behin eta berriz esaten zien lagunei, Stephen eta biek hantxe lortu zutela zoriontasuna, eta pozik zeudela bertan. Harriman-ek, ordea, etxe hark Crane hil zuela idatzi zuen “*Critic*” aldizkarian, 1900eko uztailan.

Cranetarrek abegikortasun gehiegizko eta estrainioa burutu zuten Brede Manor honetan. Gonbidatuak noiznahi eta nolannahi izaten zituzten, aldeztatik gonbidatuz, zein gonbidatu gabe. Jatorduak jendetsuak izaten ziren eta gastuak oso handiak, hura guztia mantentzeko behar zen zerbitzari-kopuru itzela ahaztu gabe¹⁶². Cora-k ez zuen ospitalitaterako mugarik¹⁶³. Stephen-en prestijioa handituko zuelakoan-edo, jendez inguratzen zuen bere bizitza. Hotel bihurturik zegoen mantsioa, eta Cora zen hotelaren *jabea*. Baina etxean tentsioa sortzeaz gain¹⁶⁴, etengabeko mugimenduak eragotzi egiten zion Crane-ri lasaitasunez idaztea.

Crane, bitartean, erlojuaren aurka ari zen idazten, egindakoa zuzentzeko astirik gabe, heldutasunik lortzeko denborarik eman gabe. Erraza zitzaiona bakarrik idazten zuen, diru arina eta erraza emango ziona, zorrak itota zegoelako, presiopean. Egunez pasealdi luzeak ematen zituen zaldiz eta gauerako jauregietako estilo ingelesez janzten zen afalorduan¹⁶⁵. Bitxikeriak gorabehera, adiskide guztiek eta auzokoez oso iritzia ona zuten Stephen-i buruz, idazle zein gizon modura. Cora-rekiko iritzia, ordea, ez zen ahobatekoa, eta horren froga da Stephen hildakoan, konpromezuzko hitzez gain, inork ez zuela berarekiko adiskidetasuna mantendu.

beherazkoak izan ziren, “*such sure and quick money*” lortu behar zuelako.

¹⁶² Normalean bi maiordomo, bi sukaldari, txoferra eta beronen emaztea, eta egunez herritik etortzen ziren neskatxak zituzten zerbitzari. Egun pare batez Crane kanpora joan zen batean, maiordomo batek bestea botu, eta honen ordeztatu beste bi kontratatu zituen. Stephen-ek esan zuenez, “*If I went to Russia I should come home and find Parliament in buttons and Marie Corelli in the kitchen*”. Honi guztiari txakur basatien kontua gehitu behar zaio. Inguetako ardiak hiltzen zituztenean, artzainak agertzen ziren konpentsazio-diru eskean, eta ez ordaintzeak arazoak sortzen zizkien etxekoei sarritan.

¹⁶³ Gabon batzutan 40 pertsona gonbidatu zituen bizpahiru egunetarako, eta bost logela egoki zeuden soilik. Cora-k ospitaletik lortu zituen kanpaina-oheak eta gizonezko guztiak gela batean sartu zituen eta emakumeak (emazteak) bestean. Gizonezkoek ez zuten ez urik, ez komunik ezta beste zerbitzurik ere.

¹⁶⁴ Etxe hartan libertinajea ere bazegoela esaten zen Ingalaterra-n.

¹⁶⁵ Askotxok esaten zioten *Baron Crane*, eta Cora-k *The Duke* ziotson.

1899ko abuztuan Cora-k Pinker ajenteari idatzi zion, Crane jaunak oporrak behar zituela esanez, eta horretarako diru-aurrerapena eskatu nahi ziola. Ordutik aurrera eta amaierararte (hil ostean ere bai, Cora-ren premiak estaltzeko) etengabe eskatu zioten dirua Pinker-i, behin eta berriz eskatu ere, egindakoaren edo egin beharrekoaren kontura, mila batzuk libra denetara. Paris-en emandako egonaldia oporrak izan ziren ala ez, hori dago argi, Stephen-ek narrazio bat idatzi behar izan zuelako joandako bidaia ordaintzeko eta beste bat itzulerakoa ordaintzeko, hotela eta gainontzekoa ordaindu nahi baldin bazuten. Egonaldi honetan gainera, malariaren beste erasoaldi bat pairatu zuen.

Transvaal-eko gerra aurrera zihoan eta Crane-k buruan zuen Boer-en gerra hura kronikatzea, Hegoafrikara joanez. Baina Cora-k ez zuen permitituko, eta ezkutuan idatzi zion Pinker ajenteari, Stephen-en osasun makalaren berri emanez eta joaten utz ez ziezaion eskatuz. Stephen ez zen joan, jakina, baina gerrari buruzko artikulua idatzi zituen, hala ere.

Merkatuak ez zuen lehen bezala hartzen narrazio laburren eskaintza, diru-iturria agortzen ari zen eta iturri berriak sortu behar ziren. Hori izan zen, batez ere "*O'Ruddy*" nobelari ekiteko arrazoia, baina nobela hau ez zuen inoiz amaituko; eta hilzorian zegoela, Robert Barr idazleari amaitzeko eskatu behar izan zion, Rudyard Kipling-en ezetza jaso ondoren. 1900eko martxoaren 24a zen, eta harrez gero bazekien, jakin, nobela hura inoiz ez zuela amaituta ikusiko.

Hilzoriaren agonia

Stephen Crane-ren azken sei hilabeteak oso tristeak izan ziren bera eta bere lagunentzat. Apurka-apurka joan zen amatatzen, edo are txarragoa, gaixotasunaren erasoaldien erritmora galtzen zuen bizia. Irailetik amaiera somatzen hasi bazen ere, 1899eko abenduaren 29an izan zen lehen odoljario larria. Birika bat blai zuen, eta bestea osasuntsu, herriko medikuari jaramonik egitekotan¹⁶⁶. Horren osasuntsu ez zen egongo odoljarioak etengabeak izan baitziren ordutik aurrera. Oso tarte gutxitan egon zen osasunez ondo (Londres-eraino joateko moduan) eta beraz, ezin izaten zuen idatzi.

¹⁶⁶ Cora-k ez zuen gastutan erreparatu eta herriko medikuaz gain (Dr. Skinner, Rye-koa), Londres-eko Dr.

Pinker-ek luzaturiko diruari esker bizi izan ziren denbora osoan. Lagunek ez zioten bi urteko bizia baino luzeagoa ematen, baina berak ez zuen Texas-era joateko esperantza galtzen, hango eguraldia osasuntsua zelako, eta bizimodua merkea oso. Gainera han emandako garaian zoriontsu bizi izan zen eta maiteminduta zegoen lekuaz. Otsailaren 1ean itsasoratzeko ahalegina egin zuen berriro, baina argi esan zioten alde eginez gero hartzekodunak atzetik izango zituela, eta baztertu egin zuen ideia.

Apirilaren 2an beste odoljario larria jasan zuen eta Cora-k mediku oso garestia ekarri zuen Londres-dik, herrikoak esandako gauza bera esan ziezaion. Crane kontzientea zen bere amaieraz. Bere osasunez galdetu zioten batean, honelaxe erantzun zuen: *“Mesedez, Crane andrearen aurrean zaudela nire osasuna dela-eta ahoa itxita mantentzeko begikotasuna izan. Berak ezin du ezer egin nirekiko, eta ni nagusiegia naiz titia hartzeko. Nireak egin du, baina ez dut bere izua izango. Emakumeen arrazoi bitxi horiek direla-eta, berari atsegin natzai, hartu kontua”*. Jakin, Cora-k ere bazekien itzulbiderik ez zegoena, baina ez zuen onartu nahi eta, gainera, ez zen ezer egin gabe geratuko. Sarritan esaten zuenez, *ez zuen harririk mugitu gabe utziko* Stephen salbatzeagatik. Aurrera aterako zela sinetsi nahi zuen, eta bere buruari esaten zion hamar egunetan odoljario gehiagorik ez bazuen, gerorako planak egiten has zitezkeela. Baina mundu guztia zegoen jakinaren gainean, prentsa barne.

Stephen-en anaiek prentsaren bidez jasotzen zuten anaiaren osasunaren berri, Cora-ren gutunen ezean, eta egoera ekonomiko larriaren berri izan arren, ez zuten dirurik bidali, gehienek eduki ere ez zeukatelako. Amerikara joateko esan zioten, baina beranduegi zen harrez gero. Apirilaren 2an testamentua egin zuen, Cora-ri dena utziz (lanen *copyright*-a barne), baina geroago ez zuen eskuratzea lortu, Cranetarrek ukatua¹⁶⁷.

Gaixotasunaren azken fase honetan idatzitako *“The Squire’s Madness”*

Maclagen, Badenweiler-eko Dr. Fraenkel eta Feiburg-eko Dr. Bruiler-ek bisitatu zuten gaixoa.

¹⁶⁷Stephen hildakoan epailea zen William anaiak agerian utzi zuen Cora ez zela emazte legala, eta editoreei ezer ez ordaintzeko esan zien. Egile-eskubide guztiak berak maneiatu zituen. Cora-k, dirukopururen bat eskuratu zuen Pinker-engandik hasiera batean, baina geroago ukatu egin zion, William-en aginduz. Edonola ere, 5.000 \$ zuen zorretan eta horixe zen oraindik kobratu gabeko lanengatik jaso behar zuen kopurua.

narrazioan, Stephen ez zen oso goxo agertzen Cora-rekiko: *“ama batek bere ume jaioberria begiratu lukeen bezala begiratzen nau. Zergatik begiratu nau itxaropenik gabeko begirada horrekin bere begietan? –Emazteak egun eta gau behatzen zuen Linton (narrazioaren poeta protagonista) (...) eta Linton-ek ezin izan zuen amaitu maitale pozointsuari buruzko bere poema, emakume baten oinetara hilzorian dagoen maitalearena. Emazteak behin eta berriz dio gizona gaixorik dagoela eta gizonak emaztea deskribatzen du bere poeman, emakume zoroa bailitzan...”*.

Apirilaren 23an behe-solairuko gela batera eraman zuten Crane, eta eguzkitara ateratzen zuten egunero. Hilzorian zegoen baina Cora-k ez zuen hori ikusi nahi, eta Crane-k berak ere oraindik Boer-ak elkarrizketatzera joango zela zioen, ebidentzia ukatuz. Sendategi batera eramatekotan izan ziren South Seas-era¹⁶⁸, baina disziplina zela edo dirua zela, azkenean ez ziren joan, nahiz eta merkeago aterako zitzairen sendategi ordaintzea, etxean zituzten medikua eta bi erizainak mantentzea baino.

Zainketa etengabea behar zuen Crane-k; egunero bi orduz jasaten zuen malariaren sukarra eta gainera hotzak harturik egoten zen. Egoera ikusita, lagunek kontinentean senditegiren bat bilatzea gomendatu zioten, eta Consuelo Iznaga izeneko emakumeak¹⁶⁹ bi sendategi aipatu zizkion, bata Suitzako Alpeetan dagoen Davos herrian eta bestea Dr. Albert Fraenkel-ek Villa Eberhardt-en eskaintzen zuen *“Nordracht treatment”*-a, Alemaniako Baso Beltzean. Oraindik salbabidea zegoela mundu guztiari sinestaraziz, Cora-k bidaiarako dirua lortu zuen hemendik eta handik.

Prozesio ikusgarrian joan ziren Dover-eraino Cora, medikua, bi erizainak, maiordoma, txakurrak eta Stephen bera, elbarritu-gurdi batean. Dover-en ikusi zuten elkar azken aldiz Joseph Conrad-ek eta Stephen Crane-k. Hogei minutuko bisitaren ostean Joseph-ek honela idatzi zion Jessie emazteari: *“Hau amaiera da, Jess. Berak badaki dena alperrikakoa dela. Cora poztearren bakarrik doa hara, baina berak etxean hiltzea nahiago luke”*.

¹⁶⁸ Robert Louis Stevenson bera ere, tuberkulosiak jota, han bizi izan zen hamalau urtez, eta azkenean ez zen hil tuberkulosiaren erruz, bestela baizik.

¹⁶⁹ Euskal jatorria omen zuen emakume hau *American duchess* izenaz zen ezaguna, Kuban jaioa zen eta bi alaba galdu zituen tuberkulosiak jota.

Stephen-ek Brede Manor-en idatzi zuen bere azken gutunean, Conrad-en aldeko mesede bat eskatzeko izan zen, Sanford Bennett-i zuzendua. “*Askotan izaten dut orain Conrad nire gogoan. Garnett-ek ez du uste, bere idazkiak popularrak izango direnik idazle diren gizonen gunetik kanpo. Bera txiroa da, gentleman bat eta urguilutsua. Bere emaztea ez da oso osasuntsua eta ume txikia dute. Garnett-ek eskatuko balizu kableetatik tiratzeko eta Zerrenda Zibilean Conrad-entzat leku bat lortzeko, mesedez, egidazu azken mesede hau... Ziur naiz egingo duzuna*”. Maiatzaren 15etik 24 arte Dover-en egon ziren itsasoa baretu arte.

Villa Eberhardt etxetik Alpeetako ikusmen ederra zegoen, baina Stephen-ek ez zuen ikusi. Azken egunetan burua ez zebilkion ondo, eta burmuinak atsedetik inoiz hartzen ez zuen arren, ametsetan bailegoen mintzatzen zen ahopeka, etengabe. Azkenean, ekainaren 5eko goizaldeko hiruretan hil zen Stephen Crane, txakurra ohe ondoan zuela. Ekainaren 8an berriz gurutzatu zuten itsasoa Dover-eraino, eta hilaren 14an hileta egin zioten Londres-en. 17rako Cora-k Ameriketara eraman zuen Stephen-en gorpua, eta 28an izan zen hileta Metropolitan Temple-n. Bertan familia, eta lagun bakar gutxi batzuk baino ez ziren egon, jende apala eta literaturaren mundutik kanpokoa. Hillside-eko Evergreen Kanposantuan lurperatu zuten, New Jersey-n, beste hiru Stephen Crane¹⁷⁰ lurperatuta zeuden Elizabeth-eko Evergreen Kanposantutik gertu.

Honekin amaitzen da, gazte hil zen idazle handiaren biografia, baina Cora-rena ez¹⁷¹. Cora 1910eko irailaren 4 arte ez zen hil, buruko odoljarioak jota. Bere hilobian

¹⁷⁰ Stephen Crane bat 1780an hil zen 70 urte zuela; bigarrena 1796an hil zen 58 urtez, eta hirugarrena 1846an 64 urte zuela hilunean.

¹⁷¹ Cora alarguntsaren bizitza oso gorabeheratsua izan zen. Laburbilduz, esan dezagun, idaztetik bizitzen ahalegindu zela, baina bere idazkiek ez zutela inolako kalitaterik, eta editoreek behin eta berriz errefusatzen zizkiotela. (Hemen esan behar da, egiari ekiteko, Stephen-en amaitu gabeko narrazio batzuk Cora-k amaitu zituela, “*The Squire’s Madnes*” horien artean). Garai batean idazlearen alargunaren rola bereganatu nahi izan zuen, baina bera ez zen emazte legala, eta ezin izan zuen *status* hori mantendu. Ingalaterran bizitzea erabaki zuen hasieran, baina 1900eko uztailaren 19tik 1901eko apirilaren 28 arte egon zen bakarrik. Ingalaterran ez zuen zer eginik, eta gainera aurreko lagun guztiek Ameriketara joateko bultzatzen zuten. Ezeroso zitzaien Stephen-en *alarguntsaren* presentzia. Amerikan kokatuta, New York-eko izeko baten etxean egon zen lehen asteetan, deprimeturik. 1905eko ekainaren 1ean, ordea, Cora-k 41 urte zuenean (36 zuelakoan) berriz ezkondu zen 25 urteko Hammond McNeil gaztearekin, baina bi urte beranduago, 19 urteko Harry Parker-ekin harremana izan eta senarrak, jeloskor, maitalea hil zuen tiro batez. Erahilketaren ondorioz, senarra aulki elektrikoan akabatu zuten eta Cora-k, bitartean, Ingalaterrarako bidaia egin zuen gauzak baretu artean (1907-X-19tik abendurarte). Azkenean Jacksonville-ra itzultita (Stephen ezagutu zueneko herrira) beste *Klub* bat zabaldu zuen, oraingoan “*The Court*” izenekoa, eta oraindik ere beste maitale bat izan zuen; baina Ernest Christie Budd gizon ezkondua

“*Cora E. Crane 1868-1910*” jartzen zuen; horren arabera, 42 urtekoa izan behar zuen hildakoan, baina benetako jaiotza-data 1865 urtekoa da eta, beraz, 45 urte zuen heriotzaren unean.

zen, eta berriz ezkontzerik ez zeukan. Esan bezala, Cora Jacksonville-n bertan izan zen lurperatua, buruko odoljarioaren ondorioz 1910eko irailaren 4an hil ondoren, gure amama jaio zen urte berean alegia.

Biografia datatan

<u>Urtea</u>	<u>Hila/eguna</u>	<u>Adina</u>	<u>Gertaera</u>
1871	Azaroak 1	-	Newark-en jaio zen.
1880	Otsailak 16	8	Aita hil zitzaion. / Eskolara joan zen lehenengoz.
1883		11	Jaioterria utzi eta Asbury Park-era joan zen familia.
1886		14	Lehen ipuina idatzi zuen: <i>Uncle Jake and the Bell-Handle</i>
1888	Urtarrilak 4	16	Claverack College & Hudson River Institute-ra joan zen, Pennington Seminary-n sei hilabetez egon ondoren.
1888	Uda	16	New York-eko <i>Tribune</i> -n hasi zen argitaratzen.
1890	Otsaila	18	Lehen artikulua sinatua argitaratu zuen, Claverack's <i>Vidette</i> aldizkarian.
1890	Irailak 12	18	Lafayette College-n hiru hilabetez soilik egon zen.
1891	Urtarrila 8 Abenduak 7	19	Syracuse University-ra joan, maiatzean bota zuten arte. Ama hil zen, buru-gaixoa jasan ondoren.
1893		21	<i>Maggie</i> argitaratu zuen.
1895	Urtarrila	23	<i>The Red Badge of Courage</i> argitaratu eta famatu zen.
1895	Apirila	23	Mexikora joan eta maiatzerako bueltan zegoen.
1896		24	<i>George's Mother</i> argitaratu, eta <i>The Third Violet</i> amaitu zuen.
1896	Iraila-Urria	24	Dora Clark-en aurkako epaiketan lekuko izan zen.
1896	Azaroa	24	Cora Taylor ezagutu zuen Jacksonville-n.
1897	Urtarrilak 1	25	Kubarako bidean naufragatu zuen.
1897	Martx- Maiatz	25	Grezia-Turkia gerran erreportari izan zen.
1897	Ekaina	25	Ingalaterran ezarri zuen etxebizitza (Ravensbrook).
1898	apirilak 14- azaroak 21	26	Kuba-Espainia gerran erreportari izan zen.
1898	azar-urtarrila	27	New York-en egon zen, Ingalaterrarako bidean
1899	urtarrila	27	Ingalaterran kokatu zen (Brede Manor).
1899	abenduak 29	28	Lehen odoljariora Ingalaterran
1900	maiatzak 24	28	Alemania-ko Villa Eberhardt sendategira joan zen
1900	ekainak 5	28	Baden Weiler-en hil zen (Alemanian) tuberkulosiak jota.

1900	ekainak 8	-	Alemania-tik Ingalaterrara eraman zuten gorpua
1900	ekaina 14-18	-	Hiletak Londres-en eta New Jersey-n, eta han lurperatua

Crane**Stephen Crane-ren idazlanak**

Stephen Crane-ren idazlanak sakabanaturik daude eta guztiek ikusi dute argia behin baino gehiagotan, ez soilik liburu gisa, baizik eta baita aldizkari desberdinetan ere, kasu askotan aste berean bizpahiru aldiz. Hemen jaso dugun zerrendan ez dira agertzen artikulu guztien edizioak, ezta zein datatan agertu ziren ere. Ipin dugun bakarra hauxe izan da, zein aldizkaritan agertu zen lehenengoz, artikuluen kasuan, eta zein den lehen edizioa, liburuen kasuan. Bestalde, ez dira aipatzen Crane-ren poemen aldizkako argitarapenak, oso ugariak baitira¹⁷².

Urtea	Titulua	Edukia	Aurretik argitaratua
1893 1896	Maggie, a Girl of the Streets	nobela	Printer unknown. NY. ¹⁷³ Appleton & Co. NY.
1895	The Black Riders and Other Lines	poemak	Copeland and Day. Boston
1895	The Red Badge of Courage: an Episode of The American Civil War	nobela	Appleton & Co. New York
1896	George's Mother	nobela	Edward Arnold. New York and Londres
1896	The Little Regiment and Other Episodes of The American Civil War	The Little Regiment Three Miraculous Soldiers A Mystery of Heroism An Indiana Campaign A Grey sleeve The veteran	McClure's Magazine Pionier Press Philadelphia Press Pocket Magazine Philadelphia Press McClure's Magazine
1897	The Third Violet	nobela	Appleton & Co. New York
1898	The Open Boat and Other Stories	The Open Boat A man and some others The bridge comes to Yellow Sky The wise men The five white mice Flanagan and his short filibustering adventure Horses-One Dash Death and the child An experiment in misery The men in the Storm The duel that was not fought	Scribner's Magazine Century Ilus. Monthly Mag. McClure's Magazine The Lanthorn book Westminster Gazette Illustrated Londres News Philadelphia Press Harper's Magazine New York Press Arena New York Press

¹⁷² (STALLMAN 1968).

¹⁷³ 1893 urtean argitaratu zen bertsioa, berriz ere 1979 urtean argitaratu zuen A. Gullason-ek, Norton Critical Edition liburuan. Appleton & Co.-k argitaratutako 1896eko bertsioa, aldiz, oso desberdina izan zen, ezabaketa eta aldaketa nabariak jasan baizituen, Crane-k berak egindakoak.

Crane

		An ominous baby A great mistake An eloquence of grief The auction The pace of youth A detail	Arena Philistine New York Press Pocket Magazine
1899	War is kind...	narrazio laburra	New York: Frederick A. Stokes Company
1899	Active Service	nobela	New York: Frederick A. Stokes Company
1899 1901	The Monster and Other Stories	The Monster Blue hotel His new mittens Twelve o'clock Moonlight in the snow Manacled An illusion in Red and White	Harper's Magazine Collier's Weekly McClure's Magazine Pall Mall Gazette Frank Leslie's Popular Mo. Argosy New York World
1900	Whilloomville Stories	The angel child Lynx-hunting The lover and the tell-tale "Showing off" Making an orator Shame The carriage-lamps The knife The stove The trial, execution and burial of Homer Phelps The fight The city urchin and the chaste villagers A little pilgrimage	Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine Harper's Magazine
1900	Wounds in the Rain; a collection of stories relating to the Spanish-American war of 1898	The price of the harness The lone charge of Williams B. Perkins The Clan of No-Name God rest ye merry gentlemen The revenge of Adolphus The sergeants's private madhouse Virtue in war Marines signalling under fire at Guantánamo This majestic lie War memories The second generation	Cosmopolitan McClure's Magazine Saturday Evening Post Saturday Evening Post Strand Magazine Saturday Evening Post Frank Leslie's Popular Mo. McClure's Magazine New York Herald The Anglo-Saxon Review Saturday Evening Post
1901	Great Battles of the World	The battle of Bunker-Hill The siege of Plevna The storming of Burkersdorf Heights A Swede's campaign in Germany: I. Leipzig II. Lutzen The storming of Badajoz	Lippincott's Magazine Lippincott's Magazine Lippincott's Magazine Lippincott's Magazine

Crane

		The brief campaign against New Orleans The battle of Solferino	Lippincott's Magazine Lippincott's Magazine
1902	Last Words	The reluctant voyagers The Kicking Twelfth The upturned face The shrapnel of their friends And if he wills, we must die The surrender of Forty Fort Ol' Bennet and the indians Londres impressions Great grief's Holiday Dinner The silver pageant A street scene Minetta Lane Roof Gardens In the Broadway Cars Assassins in modern battles An Old Man goes wooing Ballydehob The Royal Irish Constabulary A fishing village Four men in a cave The Mesmeric Mountain The Squire's Madness A desertion How the monkey lifted the hills A man by the name of Mud A Poker game The snake A self-made man A tale of mere chance At Clancy's wake An episode of War The voice of the mountain Why did the young clerk wear? The victory of the moon	Pall Mall Gazette Pall Mall Gazette Ainslee's Magazine Ainslee's Magazine Illustrated London News Cassell's Magazine Cassell's Magazine Saturday Review New York Press New York Press Philadelphia Press Washington Post New York Journal New York Journal Philistine Philistine New York Tribune Crampton's Magazine Harper's Magazine Pocket Magazine Pocket Magazine Cornhill Magazine English Illustrated Ma. Pocket Magazine Truth Pocket Magazine
1903	The O'Ruddy, a Romance	nobela	New York: Frederick A. Stokes Company
1921	Men, women and boats	The end of the battle A dark-brown dog A tent in agony The Scotch express (Eta beste 13 ipuin, aurretik argitaratutakoak)	Cosmopolitan
1932	A lost poem		
1936	A battle in Greece		
1942	Legends		
1954	Fire!!		
1964	The War Dispatches (1897-98)	1. <u>The Greco-Turkish War</u> : Pen Picture of the Powers' Fleet Off	Westminster Gazette

Crane

	<p>Crete</p> <p>The spirit of the greek people</p> <p>Greeks cannot be curbed</p> <p>Gallant greeks would continue war</p> <p>Lew Wallace tells how Greece may win</p> <p>Salonica specting a bombardment</p> <p>Woman correspondent at the front</p> <p>Imogene Carter's pen picture of the flighting at Velestino</p> <p>Crane at Velestino</p> <p>The blue badge of cowardice</p> <p>Yale man arrested</p> <p>War's horror and Turkey's bold plan I</p> <p>War's horror and Turkey's bold plan II</p> <p>How novelist SC acts on the battlefield</p> <p>The dogs of war</p> <p>Greeks waiting at Thermopylae</p> <p>Four parodies of Crane as war correspondent</p> <p>The Eastern question</p> <p>A fragment of Velestino</p> <p>The man in the white hat</p> <p>Death and the child</p> <p><u>2. The Spanish-American War:</u></p> <p>The little stilettos of the modern Navy</p> <p>Sampson inspects harbor at Mariel</p> <p>With the blockade on cuban coast</p> <p>Frank Norris, pen portrait</p> <p>Thrilling adventures of world scout in Cuba</p> <p>SCren pen picture of C.H. Thrall</p> <p>Hayti and San Domingo favor the United States</p> <p>Narrow escape of <i>The Three Friends</i></p> <p>First american newspaper to open headquarters on Cuban Soil is the <i>World</i></p> <p>Crane tells the story of the disembarkment</p> <p>The Red Badge of Courage was his wig-wag flag</p> <p>Marines signalling under fire at Guantánamo</p> <p>SC at the front for the <i>World</i></p> <p>Roosvelt's rough rider's loss due to a Gallant Blunder</p> <p>Hunger has made cubans fatalists</p> <p>Artillery duel was fiercely fought on both sides</p> <p>Chased by a big spanish man-o-war</p>	<p>Columbia Univ. C. Coll.</p> <p>New York Journal</p> <p>N.Y. Journal (by John Bass)</p> <p>New York Journal</p> <p>N.Y. Journal (by Julian Ralph)</p> <p>N.Y. Journal (by Imogene C.)</p> <p>N.Y. Journal (by Imogene Carter)</p> <p>New York Journal</p> <p>New York Journal</p> <p>New York Journal</p> <p>N.Y. Journal (by Julian Ralph)</p> <p>New York Journal (by S. C.)</p> <p>N.Y. Journal (by John Bass)</p> <p>New York Journal</p> <p>New York Journal</p> <p>Columbia Univ. Crane Col.</p> <p>Westminster Gazette</p> <p>Westminster Gazette</p> <p>Harper's Weekly</p> <p>New York Journal</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>McClure's Magazine</p> <p>N.Y. World (by Charles H. Thrall)</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>McClure's Magazine</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p> <p>New York World</p>
--	--	--

Crane

	<p>A night at the millionaire's club An experiment in misery An experiment in luxury Willy Atkins went to Omaha The gratitude of a nation An Ominous Baby Youse wants "Petey", youse do Mr. Bink's Day off Coney Island's failing days Stories told by an artist In an park row restaurant The silver pageant Howells fears realists must wait The men in the storm When every one is panic stricken.Fire! Heard on the street election night When man falls a Crowd Gathers The duel that was not fought Sixth Avenue Louise Gerard, soprano A Christmas Dinner A Lovely Jag The judgment of the sage A grat mistake A dark-brown dog A tale of mere chance Sailing day scenes Opium's varied dreams A prologue New York's bicycle speedway "An appreciation" by W.D. Howells Evening of the Roof Gardens Yellow undersized dog In the Tnederloin: a duel The tenderloin as it really is In the Tenderloin A Tenderloin story, Yen-Nock Bill and his sweetheart Diamonds and diamonds A detail SC in Minetta Lane In the broadway cars A desertion The auction A pocket game A man by the name of mud A self-made man Manacled The man from duluth <u>2. S. C., Dora Clark and the Police</u> Adventures of a novelist A blackguard as a police officer</p>	<p>Truth New York Press New York Press New York Press Columbia Un.Crane Col. Arena New York Herald New York Press New York Press New York Press New York Press <i>Last Words</i> (1902) New York Times Arena /Philistine New York Press New York Press New York Press New York Press Columbia Un.Crane Col. The Musical News The Plumber's Trade Jo. New York Press Bookman Philistine Cosmopolitan English Illus. Magazine Columbia Un.Crane Col. New York Sun Roycroft Quarterly New York Sun New York World Washington Post Denver Republican Town Topics New York Journal New York Journal New York Journal Bull. NY Public Library Pocket Magazine Philadelphia Press <i>Last Words</i> (1902) Harper's Magazine <i>The Open Boat</i> (1898) <i>Last Words</i> (1902) <i>Last Words</i> (1902) Cornhill Magazine Argosy Metropolitan Magazine New York Journal Columbia Un.Crane Col.</p>
--	---	---

Crane

		Notes about prostitutes A desertion An eloquence of grief A girl arrested for stealing 3. <u>On the New Jersey Coast</u> Howells discussed at Avon-by-the-sea Joys of seaside life Summer dwellers at Asbury Park and their doings Guests continue to arrive Selections from the mail The pace of youth Stephen Crane at Asbury Park 4. <u>Excursions</u> In the Depths of a coal mine The Devil's acre	Barret Crane Collection Syracuse Univ. Crane C. <i>The open boat</i> (1898) Barret Crane Collection New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Press Kansas City Star MacClure's Magazine New York World
1968	Sullivan county sketches (1892)		
	On the New Jersey Coast (1889-1892)	Interested in Bible Lessons Crowds at Ocean Grove Gay Batghing Suit and Novel both must go Meetings begun at Ocean Grove Crowding into Asbury Park The Captain On the Boardwalk Along the Shark River On the New Jersey Coast Seaside Assembly's Work at Avon Seaside Hotel Hop	New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune New York Tribune
	Western and Mexican Sketches (1895-1896)	Nebraskans' bitter fight for life Merry throng at Hot Springs Grand Opera in New Orleans Mexican sights and street scenes Free silver down in Mexico Ancient capital of Motezuma Jags of pulque down in Mexico Apaché crossing Mardi Gras Festival Freight Car incident Hats, shirts and spurs in Mexico Galveston, Texas	Philadelphia Press Philadelphia Press Philadelphia Press Philadelphia Press Philadelphia Press Philadelphia Press Philadelphia Press Columbia Univ. Crane Col. Philadelphia Press Brooklyn Daily Eagle Philadelphia Press Westminster Gazette
	The Cuban War (1898)	The Terrible captain of the captured <i>Panama</i> Inaction Deteriorates the Key West Fleet Sayings of the Turret Jacks in our blockading fleets In the first landing 4 of our men are killed Denies mutilation of bodies	New York World New York World New York World New York World Philadelphia Press

Crane

		Pando hurrying to Santiago Why Cuba is by no means a Klondike	New York World New York Journal
	The Boer War (1900)	S. C. says Watson's criticisms of England are not unpatriotic S. C. says the british soldiers are not familiar with the "bussines end" of modern riffles Tha talk of Londres	New York Journal New York Journal New York Journal
	English Notes and Sketches	New Invasion of Britain Concerning the English Academy The Scotch Express At the Pit Door	Omaha Daily Bee Bookman McClure's magazine Philistine
	Spitzbergen tales		
	Wyoming valley tales		
	Irish notes		

Crane

***The Red Badge of Courage* nobelaz kritikak esandakoa**

Sarrera

Bere biografian ikusi dugunez, hamalau urte zituela hasi zen idazten, eta hamalau urte beranduago hil zen Stephen Crane. Tartean, nobelagintza amerikar modernoaren aitzindaritzat jo izan den nobela bat idatzi zuen, oraindik hogeita hiru urtekoa baino ez zela.

Nobela oso arrakastatsua izan zen arren¹⁷⁵, 1900an Crane hil ondoren bere lanekiko interesa amatatu egin zela zirudien¹⁷⁶. Ezagutu zutenen gogoan baino ez zuela iraungo ematen zuen, eta garaikideen heriotzarekin batera betiko hilgo zela beraren oroimena, kritika amerikarrak zeharo ahaztuta baitzuen. 1917an, ordea, berriz argitaratu ziren nobela honen hiru edizio (Lehen Gerra Handiaren eraginez seguruen) eta ia segidan, batetik Beer-ek egindako biografia (1923), eta bestetik Wilson Follet-ek (1925-27) bilduriko Crane-ren idazlan guztiak argitaratu ziren¹⁷⁷, Crane-ekiko interesa berriro piztaraziz kritikarien artean. 1920eko hamarkadan, Crane-ren lanari buruzko kritika ugari eta interesgarriak atera ziren. 1940eko hamarkadan berriro ere ugaritu zen Crane-ri buruzko bibliografia eta, batez ere, lan akademiko asko argitaratzen hasi ziren; lehen doktore-tesia ere urte hauetakoa dugu. 1950eko hamarkadarekin batera,

¹⁷⁵ Nobela argitaratu eta urtebete 14 edizio atera ziren Estatu Batuetan, eta 1896ko otsailerako 6 edizio ikusi zuten argia Britainia Handian.

¹⁷⁶ 1912an Conrad-ek esan zuen bezala, “*Crane gizagaixoa noizbait ‘puztua’ izan zen, baina inoiz ez zen izan benetan apreziatua... literatura bikainak ez du gizon baten gogoa salbatzen... Nekez aurkitzen dut inor, berari buruz zerbait dakienik edo gogoratzen duenik. Idazle bihurtzen ari diren gazteentzat, sinpleki, ez da existitzen*” (STALLMANN 1972), ix. or.

¹⁷⁷ (BEER 1923) eta (FOLLET 1925-27). Follet-en bilduma kolokan ipini izan dute cranezale ia guztiek. Zenbaitetan testua moldatu zuen (egoki iruditu zitzaionean), lan garrantzitsuak bildumatik kanpo utzi zituen; eta beste zenbaiten jabetza baieztatu gabe, Crane-rena zelakoan argitaratu zuen.

Crane

Berryman-ek egindako biografia (1950) eta Robert W. Stallman-en liburua (1952)¹⁷⁸ argitaratu ziren, ondorengoengan berebiziko garrantzia izan zutenak. Ordutik aurrera gero eta ugariagoak izan ziren Stephen Crane-ri buruz idatzitako liburu eta (batez ere) artikulua, zenbait datu aditzera ematen dutenez: 1950etik 1968ra 600 artikulutik gora idatzi ziren beraren gainean.

Ikusten denez, nobela honetaz luze mintzatu izan da, batez ere ingelesez eta Estatu Batuetan, baina badira izan, gutxi diren arren, beste hizkuntzatan egindako kritikak ere¹⁷⁹. Ingelesez idatzi den kritikari atzekiz, berau irakurtzean hartzen den lehen impresioa, honakoa da, kritikari guztien iturria egile bakar batzuen lana izan dela eta, beraz, hauek esandakoa (zuzen ala okerra izan) behin eta berriz ikus daiteke errepikatuta gainontzeko kritikarien lanetan. Zoritxarrez, Joseph Katz-ek artikulua (beldurgarri) batean nabari agertu zuenez¹⁸⁰, kritikari aitzindariak esandako gauza asko ez ziren zuzenak izan (edo interpretazio bereziaz erantsita zeuden) eta ondorengoek datu horiek kopiatu egin dituzte, eta segidan esanahiei buruz espekulatu dute, sarri askotan muinezko teoria sendorik ezarri gabe. Honela bada, gaurdaino luzatu izan da Henry Fleming-en beldurraren leloa, Stephen Crane-ren ironiarena eta bere nobelagintzaren sinbolismoarena, baieztapen eztabaidagarri gutxi batzuk aipatzearen.

Garaian garaikoa

Stephen Crane-ren bizitzak eta bere lan literarioak gaur egun ere ikergai izaten

¹⁷⁸ (BERRYMAN 1950), urte batzuk beranduago berrargitaratua *Stephen Crane: A Critical Biography* izen berriaz (BERRYMAN 1977), eta (STALLMAN 1952).

¹⁷⁹ Guretzat interesgarriena, Alain Badiou-k frantseserazko *La Conquête du courage* itzulpenaz egindako aipamena da, tesi honen jatorria baita, (BADIOU 1982) 311. or. Gaztelaniaz atera diren edizioetatik aipagarriak dira Micaela Misiego-ren "*El rojo emblema del valor*" itzulpenari Leopoldo Mateo-k egin dion gibelsolasa (CRANE 1981), eta *Maggie* nobelaz Pilar Martin-ek egin dituen itzulpena eta aitzinsolasa (CRANE 1992).

¹⁸⁰ (KATZ 1972). Katz-ek Humpty Dumpty-ren esaldia gogorarazten digu, bere kide kritikariak "*complete edition*" esaten dutenean: nork bere esanahia ematen diola "*complete*" hitzari ("*Aliziari gogorarazten dio bera dela, azken finean, signifikatzailearen jabea, nahiz eta ez izan signifikatuarena, non bere izaerak forma hartu duen*", (LACAN 1966). Bere ustez, lehen eskuko materialak eta hasierako biografiez gain (BEER 1923) eta (BERRYMAN 1950), lan aipagarriena, lan akademiko ona egin duten egileena da: (GULLASON 1961) eta (GILKES 1960) esaterako. Guk, jakina, Alain Badiou aipatu behar dugu berriro, (BADIOU 1982), berak ematen baitigu subjektibitatearen ikuspuntutik nobela aztertze gako.

Crane

segitzen dute, batak zein besteak kritikariengan jakinmina sortarazten baitute¹⁸¹. Gibson-ek dioenez¹⁸², *The Red Badge of Courage* berrebalua daiteke, edo beste ikuspuntu batetik azter daiteke, baina kritikak historikoki egin dion harrera ikusita, ez da pentsatzekoa Literatura Amerikarrean duen postua erraz galduko duenik. Honen erakusgarritzat har dezakegu Crane-ren liburu, gutun eta eskuizkribuek bildumazaleen artean hartu duten interesa, ale batzuek salneurri gehiegizkoak lortu baitituzte enkanteetan¹⁸³.

Garai bakoitzak, hala ere, Crane-ren alde ezberdina ikusi izan du, azpimarra aspektu batean zein bestean jarriz. Agian izan daiteke, nobelak ez duelako sailkapen baterako erraztasunik ematen. Bere laguna zen Harold Frederick-ek esan zuenez¹⁸⁴, liburua sailkaezina da.

Lehen uneko kritika batzuk zeharo negatiboak izan ziren, batez ere armadari iraina egiten ziola uste zuten general batzuen aldetik. Parodia bat zela ere esan zitzaion, edo zeharo *zolzalea* zela, *La Débâcle* nobelaren imitazioa alegia¹⁸⁵. Beldurrari buruzko nobela zela ere esan zen, Beer-en teoriari jarraikiz eta, areago, norbaitek esan zuen nobelan finean ezer ez dela gertatzen, dena asmakizunaren fruitua dela. Nobelaren esanahiari buruz egin izan diren interpretazioei buruz luze arituko gara atal honen azken partean. Hasiera honetan, kritikak zenolako harrera eman zion agertu nahi dut, soilik.

1950eko hamarkadan, batez ere bere iturburu literarioez arduratu ziren Crane-ren kritikariak, eta bidez batez, bere sinbolismo erlijiosoaz ere. Testamentuaren

¹⁸¹ Gogoratzekoa da, Stephen Crane-ren bi nobela eta narrazio labur bat zinemaratuak izan direla: *The Blue Hotel* (Chicago, 1974. Zuzendaria, Jan Kadar); *The Red Badge of Courage*, John Huston-en zuzendaritzapean, eta *The Upturned face* (Pyramid Film, 1973). Bestalde, Louis Zola-k nobela bat idatzi zuen Stephen-en bizitzan oinarrituta, (ZARA 1961).

¹⁸² (GIBSON 1988) 16. or.

¹⁸³ Crane-ren lanen artean garestien saldu den dokumentua, *The Red Badge of Courage* nobelaren ale bat izan da. 1933 urtean 11.850 \$etan katalogatu zen, eta azkenean 1950 urtean, C. Waller Barrett-ek 6.000 \$etan erosi zuen, (BRUCCOLI 1972) 161. or.

¹⁸⁴ “*Existituko balitz libururen bat honen moduko denik, hasiko nintzateke esaten hauxe dela bere motako onena. Baina ez du kiderik. Liburu hau sailkapen guztietatik kanpo dago*”. (FREDERICK 1896).

¹⁸⁵ (ZOLA 1940). Zola-ren nobelak eta Crane-renak hasiera bera dute, eta agian ez da hori kasualitate bakarra. Biek azaldu zuten gerra soldaduen subjektibitate ikusita, egintza militarrek erdigunetik alboratuta. Lehenago esan dugunez, apostu baten emaitza izan daiteke *The Red*-en jatorria, Stephen-ek esan baitzuen berak Zola-rena bezalakoa egin zezakeela, are eta hobe, Stallman-ek esandakoari jaramonik eginez gero.

Crane

esaldiak, egoerak eta metaforak ikusten zituzten nobelaren pasarte ugaritan¹⁸⁶, eta Naturarekiko erreferentziak Genesiaren aipamen zuzenak zirela zioten. Areago, “*he was a man*”¹⁸⁷ esaldi enblematikoa, Jainkoak Adam sortu zuen unearekin lotu zuten, “gizakia” munduan lehenengoz sortu zen unearekin hain zuzen.

Hurrengo hamarkadan, 60ko urteetan, garrantzia handiagoa hartu zuen bere balio literarioak. Hamarkadaren amaieran, nobelaren azalpenerako hitz-gakoa ironia zela erabaki zuten, eta iritzi hori gaur arte mantendu izan da; gaur egun, Crane-ren kritikari ia guztiek onartzen dute nobela hau ironiaz beteriko narrazioa dela, ironia-mota ezberdinak dituela bere barnean eta, gainera, amerikar letretako nobelagile ironikoena dela, ironiaren maisua alegia¹⁸⁸. Geroago egingo dudan azterketan, agerian utziko dut nobela honetan ez dagoela ironia-tanta bat ere, baina aurretik patxadaz ikusiko dugu nola argumentatu duten kritikari amerikarrek ironiaren presentzia Crane-ren nobelagintzan.

1970eko hamarkadan kritikak gehiago begiratu zien prosaren estiloari eta fikziorako teknikei. Gai honetaz aritu izan diren ondorengoek ez dute gauza berri handirik esan; amateurismo ugari egon da Crane-ren kritikagintzan, azalezko artikulu ugari idatzi baita¹⁸⁹. Katz-ek dio, gainera, Crane-k kritika okerrak erakarri egiten zituela, baina, jakina, hau ez da Crane-ri egotz dakioken akatsa, ene ustez.

Azken bi hamarkadetan Crane existentzialismoaren kristalean zehar izan da aztertua; naturalismo, errealismo eta inpresionismoaren argitan aztertu izan da; harreraren teoria erabiliz ere azaldu dute eta, azkenik, desegituraketaren edo deskonstruzionismoaren teoria erabilita¹⁹⁰.

¹⁸⁶ Esaten dugunaren adibidetzat har daiteke Jean Cazemajou-ren lana (CAZEMAJOU 1972).

¹⁸⁷ Kap. XXIV/31, 85 orrialdea. Nire ustez, Henry Fleming subjektu bihurtu deneko unea adierazi nahi du.

¹⁸⁸ (WESTBROOK 1972) 86. or., (GIBSON 1988) 38-39. orr., (CRANE 1981) 219. or., (CRANE 1992) 57. or., (ALTENBERND eta LEWIS 1966) 73. or., (WILSON 1995) 69. or., (MITCHELL 1986) 16-17 orr., (COLVERT 1965) aitzinsolasean eta (CRANE 1983) 123. or., bakar batzuk aipatzearen. Crane-ren ironiarena gauza jakintzat jotzen dute.

¹⁸⁹ Crane-ren sinbolo eta metaforei buruz aritu izan dira zenbaitzuk, hogeita bost urte lehenago gauza bera esanda zegoela jakin gabe, (KATZ 1972).

¹⁹⁰ Azken mugimendu honen adibidea dugu Christine Brooke-Rose-k egindako lana (BROOKE-ROSE

Crane

Esan den guztia esan ondoren, kritikariek duten sentrazioa honako hau da, alegia, egile hau oraindik gutxi ezagutzen dela. Sentrazioaren arrazoia izan daiteke, ez dela ulertzeko erraza, *nondik* atera zuen Crane-k bere estilo berezkoa, *nola* idazten zuen pentsatu gabe, *zein* begiradarekin ikusten zuen mundua, *zergatik* bururatu zitzaion subjektiboki idaztea, ekintzak kontatu ordez. Tesi honen helburua, galdera hauen erantzunei hurbiltzea da. Horretarako, lehenik amerikarrek esandakoa ikusiko dut, eta subjektibitatearen teorilarien ekarpenak ikusi ondoren, nobela aztertzeari ekingo diot. Ondorioetan, azkenik, galdera hauetarikoren batek erantzunik daukan ala ez ikusiko dugu.

Kritikak esandakoa azaltzeko, beraz, zenbait atal bereiztuko dut, gai posible guztietatik bakar batzuk aukeratuz.

- Bertsioen arazoa
- Aurrekariak
- Ismo-en kontua
- Ironia
- Natura
- Lengoaia
- Interpretazioak

Bertsioen arazoa

The Red Badge of Courage aztertzeko orduan kritikari gehienek Appleton & Cia-k argitaratu zuen edizioa erabili duten arren, denok aipatzen dute aurreko eskuizkribu orijinala, Appleton-ena baino luzeagoa izateaz gain, zeharo funtsezkoa omen zena, batzuen ustez, Crane-ren helburu literarioak ulertzeko orduan. Areago. Henry Binder eta beste batzuen ustez, erabili ohi den Appleton-en testua ulertezina da ezabaturiko zatiak irakurri ezean¹⁹¹.

Binder-ek apailaturiko edizioan, eskuizkribuan oinarrituriko testu osoa

1986).

¹⁹¹ Appleton-en edizioan ezabatu ziren zatiak zeintzuk izan ziren jakiteko, ikus tesi honetan “*The Red Badge of Courage*. Azterketa” izena daraman atalaren 3. oharra.

Crane

argitaratzeaz gain, “*The Red Badge of Courage Nobody Knows*” izenpean¹⁹², kenduriko materiala aztertu eta nobelaren irakurketa berria egin zuen eta, bere ustez, amaiera *koropilatsuari* argitasuna handiagoa eman zion¹⁹³. Binder-ek uste zuen amaierak ez zuela zentzurik Appleton-en bertsioan agertzen zen bezala, eta bakarrik testu osoaren argitan uler zitekeela Stephen-ek esan nahi zuena. Testuaren bertsioak direla-eta oso eztabaida luze eta latza sortu da kritikarien artean. Bi dira bereiz daitezkeen taldeak, Herschel Parker eta Henry Binder alde batetik (Appleton-en testua gaitzetsi eta irakurketa berria ezinbestekoa dela uste dutenak) eta Donald Pizer eta Joseph Katz bestetik (Appleton-en edizioa ontzat eman eta Crane-k egindako zuzenketetatik hurbilen dagoena dela uste dutenak). Lehenek uste dute, editoreak behartu zuela Crane aldaketak egiten, gogoz kontra, helburu komertzial hutsez. Bigarrenek uste dute, Crane-k sarritan moldatu behar izan zuela bere testua (heren batera laburtuz egunkarietan serializatzeko lehenago, eta gero berriz moldatu liburu gisa ateratzeko), eta zuzenketak zuzenketa, Appleton-ena dela egileak berak egindakoari gehien hurbiltzen zaiona, alde txikiaz.

Binder-ek eta iritzi berekoek uste dute, liburuaren bertsioan Henry Fleming ez dela horren konplexua agertzen, moldagarriagoa dela eta ironia ugari galtzen duela. Bestalde, zati garrantzitsuak kentzean, protagonistaren jokamoldea kolpez aldatzen da, ageriko arrazoirik gabe. Gauzak gehiago nahaspilatzeke, Cady-k uste du, Crane-k berak aldatu zuela iritzia, eta horrexegatik egin zituela zuzenketak; hasierako Henry filosofikoegia eta intelektualki nabariegia zen eta, gainera, zenbait pasarte dikurtsibok nobela “alperrikal” zezaketen. Hain zuzen, horrexegatik ezabatu zuen jatorrizko XII. kapitulu osoa.

¹⁹² (CRANE 1983) 123-175. orrialdeak. Kurioso da ikustea, zenbait urte lehenago Joseph Katz-ek argitaratu zuela “*The Maggie Nobody Knows*” artikulua (KATZ 1966), hain zuzen ere 1893eko (Crane-k berak bere diruaz ateratakoa) eta 1896eko (Appleton-ena) bertsioen artean zeuden aldeak agerian jartzeko.

¹⁹³ Sewall-ek (SEWALL 1945) amaiera honek garaipen morala adierazi nahi duela esan zuen, eta Linskey-k (LINSKEY 1949) merezigabeko saria dela. Bi iritzi kontrajarri hauek izan ziren kritikarien arteko gerra piztu zutenak, (STALLMANN 1972) 365. or. Edonola ere, biek uste zuten amaiera ulertezina zela eta porrot egin zuela. Iritzi berekoak izan ziren Robert Rechnittz (1974) eta Richard Chase-k (CRANE 1960) Crane-k artista gisa porrot egin zuela esan zutenean, azken kapituluan huts egin zuelako. Tonua ambiguo da eta ez dago jakiterik azken parragrafoen esanahia literalki hartu behar den ala tonu ironikoan hartzekoa den. Binder-ek erakutsi nahi izan zuen zein ezberdinak diren bi bertsioak, batez ere amaierari dagokionez.

Crane

Nire ustez ezabaturiko zatiak (dokumentazioaren atalean agertzen dira) ez dira batere funtsezkoak nobelaren esanahiaren azterketari dagokionez. Bestalde, bertsioak bertsio, asko dira hor zehar aurki daitezkeen Crane-ren “balizko eskuizkribu orijinalak” (orri solteak liburutegi batean zein bestean) eta beharrezkoa dugu testu bakar bati atxikitzea. Alde horretatik, Katz-ekin batera, Appleton-ek emandako testua ontzat har daitekeela uste dut, eta gainera, kritikari gehienek egin dituzten azterketak testu horren gainean daude eginda.

Aurrekariak**Zola**

Esan bezala, *The Red* argitaratu bezain fite kritikak antzekotasunak bilatu nahi eta Zola-ren *La Débâcle* nobelarekiko aurkitu zuen antzekotasuna, aurrekari hurbilenean gisa. Egia da, bi nobelen hasieran deskribatzen den paisaia, ia paisaia bera dela, eta egia da bestalde, biek soldaduen barnealdetik ikusita azaldu zutela gerra, ordurarteko erromatizismoa alboratuta. Gatazka militarren alde latz eta gordinena azaldu zuten biek, bai, baina handik aurreragorako berdintasunak balizkoak dira. Esaterako, Colvert-ek uste du, Zola eta Crane-ren arteko ezberdintasunik nabarmena, honetan datzala, hots, lehena “*literal, objektiboa eta inklusiboa den artean...*” Crane-k *itxuren azala zeharkatu egiten duela gauzen muinera heltzeko, eta bere irudi eta erretorikaren distortsioak, erantsitako balio eta kualitateei dagozkiela, ez objektiboki baizik eta subjektiboki bereganatuta*”¹⁹⁴. Pilar Marín iritzi berekoa da¹⁹⁵, uste baitu Crane-ri naturalismoa ez datorkiola inoren imitazioa egitetik¹⁹⁶ baizik eta XIX. mendeko amaieran Iparramerikan bizitzen ari zen egoera sozio-ekonomiko basatia behatze hutsetik, non bakar batzuk izugarri aberastu ziren eta gehienak gero eta gehiago pobretzen ari ziren, miserian jausteraino. Inspiratzeko ez zuen naturalismo frantsesera

¹⁹⁴ Colvert, in (CRANE 1975).

¹⁹⁵ Pilar Marín in (CRANE 1992) 9-75. orrialdeak, eta bereziki 35-40. orr.

¹⁹⁶ Honetaz, gogora dezagun nola erreakzionatu zuen Joseph Conrad-ek Crane-ren imitazioa egitea aurpegiaratu zitzaionean, tesi honetako *Stephen Crane* ataleko *Conrad-ekiko adikidetasuna* epigrafepean azalduta.

Crane

hurbiltzeko beharrik, bertan baitzuen non behatu. Herri txikitik hiri handirako igarotzeak areagotu egin zuen kontrastea, auzune txiroak, ohitura “txarrak” eta hiri handiaren bizitza latza ezagutu zituenen. Beer¹⁹⁷ haruntzago joan zen, Crane-ren “*ausardia beldurretik jaioa*” zela esanez, bizitza berri honi zion beldurretik alegia.

Zola-z gain, Howells, Garland, Twain, Tolstoi eta Hemingway-rekin konparatu izan da Crane. Howells eta Garland-ek, biak Stephen-en garaikideak, berebiziko garrantzia izan zuten azken honen literaturgintzan, ez soilik estiloari dagokiola, baizik eta Stephen idazle bihurtzearekin ere zerikusia izan baitzuten, beraiei esker lortu baitzuen *The Red* argitaratzea (pertsonalki gestioak eginez), *Maggie* liburuak oso harrera hotza izan eta gero.

Howells eta Garland

William Dean Howells-i buruz Garland-ek eman zuen hitzaldian, kazetari gisa egon zen Crane (1891eko abuztuaren 17an), eta hitzaldiaren berri emateaz gain, elkarrizketa ere egin ziezaion eskatu zion egunkariko nagusiak. Orduan ezagutu zituen Howells-en teoria literarioak, Garland-en bidez. Errealismoa “*ez zen inork asmatu-rik gauza, berez sorturikoa baizik*”. Gauzak ikusten zituzten moduan idatzi behar zituzten idazleek. Egia da, egile bakoitzak duen munduarekiko ikuskeraren arabera aldatzen dela errealismoa, baina mundua ikusteko modu zehatz bat baino, Howells-en irudiko, errealismoa “*materiala tratatzea soilik, egiarekin bat*” egitea zen. Behaketan oinarritutako egiantzekotasunari garrantzi handia ematen zion; errepresentagarria garrantzitsuagoa zen ezohikoa baino, eta gizakiaren ikusmira ahalik eta objektiboena egitea zen helburua, ikusmira subjektibo edo idealistaren gainetik, nahiz eta subjektibotasuna ez zuen guztiz ukatzen.

Ildo honi jarraikiz, Garland-ek “beritismoaren” teoria garatu zuen, hau da, “*norberaren inpresioaren benetako adierazpena egitea, egintzen arabera moldatuta*” zen bere beritismoa. Nork bere ikusmirarekiko fidela izatea da garrantzizko, nahiz eta ez guztiz ukatu subjektibitatearen ikuspuntua (ezinezkoa litzatekeena bestalde). Eredua,

¹⁹⁷ (BEER 1923).

Crane

bizitza da; egia, maisua; eta norberaren bihotza, motorea. Errealismo amerikarra, gainera, subjektiboagoa (zabalagoa eta anitzagoa) izan zen gaiak aukeratzean, errealismo europarra (eta beraz frantsesa) baino. *“Bowery auzoan bilatu behar dira Crane-ren errealismoaren erroak, eta ez Zola-rengan edo literatura frantsesean”*¹⁹⁸.

Howells-en¹⁹⁹ eta Garland-en eragina ez da ukatzekoa, baina ez da nahikoa Crane-ren errealismoa (naturalismoa edo nahi den moduan esan, gero arituko gara horretaz) azaltzeko. Gainera, bere aldetik Crane-k bazuen erabakita errealitateari dagokionez zintzotasuna funtsezkoa zela, *“nobelagileak bere buruarekiko leiala izan behar duelako, eta gauzak ikusteko duen moduarekiko ere bai”*. Bestela, Howells-ek Crane-ri lagundu bazion ere, ez zuen guztiz atsegin honen estiloa, gordinegia zelakoan. Crane baino nagusiagoa izanik, ez zuen bizi izan 1870eko hamarkadan jaio zirenen giroa, determinismoak, marxismoak eta progresismoaren teoriaren desilusioak eragindako giro pesimista. Unibertso inbertsonalizatuaren etika sortu zen garai hartan (Crane-k maisuki deskribatu zuena), non gizakia distira herratua baino ez den, alde batetik bestera nolana ere darabilen korronteen menpeko izakia. Unibertsoa ez da onginahia egin nahi duena. Garland-en errealismoa baino gordinagoa den naturalismoa ezarri zen gazte haiekin, bi sinesmenetan oinarrituta: a) gizakia izaki fisikoa da eta unibertso fisikoaren legeei men egiten die, eta b) unibertsoaren indiferentzia zabalean, gizakia puska bat baino ez da, huskeria, inolako garrantzirik ez daukana. Hauxe izan zen, naturalismoari atea zabaldu zion giroa.

Ez Kazin ez Spiller-ek ez zuten ulertu²⁰⁰ (eta nik ere ez) nondik sortu zen Crane-ren naturalismoa, ezta nondik sortu zen bere pentsakera edo munduarekiko ikusmira, beraien ustez ez baitzegoen jaio eta hazi zen ingurunean erantzuna eman diezagukeen ezer. Kazin-en erantzuna hauxe zen, hots, Crane naturalista zela jaiotzaz, eta unibertsoarekiko zuen ikusmira ere ez zela ikasia, jaiotzetik zetorkiola.

¹⁹⁸ Pilar Marín, (CRANE 1992) 15. or.

¹⁹⁹ Howells-ek hiru dozena nobela eta saio ugari idatzi zituen. Berak markatu zuen aurreko idealismo eta geroko naturalismoaren arteko muga. Aurreko erromantze historikoaren kontrara, berak uste zuen, fikzio errealista bere espazioan eta bere garaian kokatu behar zela, eta bai sentimentalismoa bai degredazio naturalista ekidin behar zirela.

²⁰⁰ (KAZIN 1970) 67-68. orr. eta (SPILLER 1963) 1021. or.

Crane

Ismo-en kontua

Errealismoa

Crane-ren lanaren estiloari adjektiboa ipintzeko orduan, badago koinzidentzia bat (zerbait berri da) eta hamaika dibergentzia (errealista bai ala ez, inpresionista ala subjektibista, kontsistentea ala inkontsistentea). Oro har, egile gehienek onartzen dute Crane-ren lanean errealismoa dagoela, aregoa, naturalismoa ere, baina salbuespenak ere ikus daitezke. Colvert, esaterako.

Nahiz eta Stephen Crane-ren fikzioa sarritan errealismotzat jo izan den, hitza desegokia eta nahasia da ... Errealistek bezala Crane-k ere zenbait pertsonaia eta gai (bizitza txaboletan, gerra, prostituzioa, alkoholismoa) aukeratu zuen eta ikuspuntu ez-ortodoxoetatik tratatzeko askatasuna hartu zuen. Zentzu estu honetan bera errealista zen ... baina Crane-k zerbait ikusten duenean (gauza, gertaera, pertsona bat), berak ez du onartzen gauza finkoa eta definigarria denik (den bezala) factum meneraezin honek eraman baitezake edozein behatzaile arrunt eta egiazkoren ikusmira berberera izatera ... bere fikzioari indar "errealista" falta zaio, irrazionala da, inkontsistentea eta ilogikoa... The Red Badge of Courage ulertzen ahalegintzen bagara gerraren deskribapen naturalista gisa, irakurleak zailtasunak izango ditu azaltzeko, zergatik ez ditugun gauzak ikusten inoiz bizitza errealean benetan (errealiki) diren moduan²⁰¹.

Colvert-en ustez, beraz, bere prosa ez da literala eta dikurtsiboa, metaforikoa baizik. Azken finean, bere estiloa ikusmira berezi baten ondorioa da, eta honetan bai datoz bat gainontzeko kritikari guztiak, "*bere estiloa eta bere ikusmira, finean, bat eta bera dira*"²⁰². Ondorio gisa, Crane-ren estiloa **inpresionista** dela esan zuen, erreala baino, inpresioak azaltzen dituelako.

Psikologismoa

Ildo honetatik jarraikiz, Wilson-en iritziz Crane-ren fikzioa errealista da, baina

²⁰¹ (COLVERT 1965) vii. or.

²⁰² Idem, op. cit. viii. or.

Crane

errealismo piskologikoan kokatuta²⁰³. Pasio-literatura nahiago zuen sentimendu-literaturaren gainetik; xehetasun guztiz errealistak deskriba zitzakeen, baina errealismo fisikoaz gain, emozionala da garrantzitsuagoa. Nobela hau maisulana da literaturan, baina batez ere psikologian.

Egile honek ere uste du, kritikari askorekin batera, Henry Fleming-en heldutasun-prozesu deskribatzen dela nobelan zehar (nahiz eta bere ustez prozesua ez zuen osatu²⁰⁴) baina heldutasuna ez dute eragiten soilik kanpoko zirkunstanzietatik; heldutasuna barnetik ere (barnetik soilik, nik uste) sortzen da.

Henry-k ikasi zuen soldadu zarpailengandik aldi bereko garrantziaren eta garrantzia-ezaren paradoxa. Bizirik egoteak ez du esan nahi, pertsona hori zintzoa, esanguratsua edo garrantzizkoa denik. Kontrara, bakarrik eta deskonektatua bizi da norbera, arduraz gabeko unibertso batean. Garrantzia, esanahia eta zintzotasuna barnetik datoz. Henry bera da bere bizitzari esanahia ematen diona. Baina oinarrizko egia hau, nahikoa al da izpiritua sostengatzeko? Desilusio astunak beheraino eramanda, Henry, edonor, ezin da loretu ilusiorik gabe²⁰⁵.

Zati hau aukeratu dut, hemen eman den heltzearen kontzeptua guk dugun subjektuaren ideiatik hurbil dagoelako. Ideia honetan oinarritzen da egilea esateko, arrazoiz, psikologismoa dela Crane-ren ezaugarririk behinena, errealismoaren gainetik.

Naturalismoa

Naturalismoaren ezaugarrietariko bat da, esan bezala, Naturaren indiferentzia gizakiekiko. Crane-k ere ikuspuntu hori berori konpartitzen zuen. Ez Naturak ez instituzioek ez dute balio intrintsekorik eta giza ahalegin guztiak hutsalak dira haiekiko, baina horrek ez du esan nahi ahaleginik egin behar ez denik. Crane-ren poemetan gizaki nemiñoak agertzen dira, eta garaitzeko aukerarik ez duten arren, ukabilak altxatzen dituzte unibertso menperatzaile eta axolabakoaren aurka.

²⁰³ (WILSON 1995) 13. or.

²⁰⁴ Ez da gizon bihurtzen; oreka galduta dauka, zalantza etengabe dago, ez jakintsua da eta ez da gizontasunera esnatzen. Isolatuta egon ondoren berriro taldera bueltatzen denean, isolatuta segitzen du. Patua da, gizakiak bakarrik egotea, zalantzi eta gizartetik bananduta.

²⁰⁵ (WILSON 1995) 14-15. orr.

Crane

Pilar Marin-ek uste du²⁰⁶ Crane naturalista izan zela baina bere oinatz berezkoa utzi zuela naturalismoan. Gullason-ek, ordea, uste du imajinazioak eta ikusmira subjektiboak berebiziko garrantzia dutela bere lanetan, eta Crane-ren estiloari **subjektibismoa** dei lekiokela, testuaren trataeran subjektibitatearen existentzia ekidinezinako beharrezana delako. Alde horretatik, eta Pilar Marin-en iritziaren aurka, ez du uste naturalista denik, nobelan ez baita kausa-efektu erlazioa agertzen, beste arrazoi batzuen artean.

Batari eta besteari irakurriz, argi ikusten da beraien arteko aldea ez dela oso handia, Marin-ek onartu egiten baitu Crane-ren naturalismoa ez dela ortodoxoa, naturalismoan ageri ohi den objetibismoa ez baita agertzen Crane-ren kasuan. Naturalismoaren bi gako oinarrizkoak, objektibitate hutsa eta deskripzio literala dira. Inpresionismoaren ezaugarria, ordea, errealitatea koloreztatzen (eta batzuetan itxuraldatzen) duen ikusmira subjektiboa da, non esperientzia intentsitate handiko une batzuen kateaketa den²⁰⁷. Stephen Crane-ren idazlanari gehiago hurbiltzen zaio azken definizio hau. Azken finean, Crane-ren irudiak ez dira errealitate baten isladapen literarioak, barneko prozesu baten agerpenak baizik.

Laburbilduz, esan behar dugu, Errealismoa, Psikologismoa, Naturalismoa eta Inpresionismoa nahasi egiten direla praktikan eta, gainera, ez direla bateraezinak. Kritikarien sailkatze beharrak (labela) sartarazten ditu idazleak estiloen eremu estuetan, idazle bakoitzak ñabardura berriak, berezkoak eta sailkaezinak dituela kontuan hartu gabe. Nire ustez, Crane-ren estiloa zein den argitzen ibili ordez, hobe da entzutea berak esan zuena. *“Ahaztu horretaz pentsatzen duzuna eta konta ezazu sentitzen duzuna”*²⁰⁸.

²⁰⁶ Pilar Marin in (CRANE 1992) 44. or. eta (GULLASON 1961).

²⁰⁷ Intentsitate handiko uneak aipatzean Natacha Michel aipatu behar dugu, berak idatzi baitzuen oso garrantzitsua den planteamendua: soilik une pertsuasibo batzuen kateatzea eta uneen artekoa betetzea da nobela, (MICHEL 1995). Hain zuzen ere kritikari batzuek hori bera aurpegiratu izan diote Crane-ri, ez dakiela “benetako nobela” bat idazten, ez dakielako gertakizun batetik bestera doan tartea osatzen (Pilar Marin, op. cit 53. or.). Crane-k aldiz, esan zuen nobela *“eskera zehatz batzuren segida (dela), eta irakurlearen aurretik pasarazi behar dira, eskera bakoitzak bere inpresio berezko eta zehatza utz dezan”* (STALLMAN 1952) 190. or. Bere nobelagintza une labur eta dramatikoetan (zirt ala zartekoetan) ezarrita dago.

²⁰⁸ (STALLMAN 1968).

Crane**Ironia**

Titulua bera da ironia bat, Gibson-en ustez²⁰⁹. Non dago *courage*-a, zauria kasualitate hutsagatik sortu bada? Ironikoa dela diote kritikari ia guztiek, eta horretarako ironiaren definizio ezberdinak ematen dituzte. Ikus dezagun hasteko zein den hiztegiak ematen duen definizioa: “*benetan uste denaren aurkakoa aditzera ematean datzan iseka*”²¹⁰.

Hori da idazle gehienek Crane-ri ikusten diotena, ez ironiak adieraz dezakeen iseka (inork ez du uste irakurleari barre egiten dionik) baina bai kontraesana, kontrastea, aurkakoak agertzea, errealitatea eta irudikaturikoa ez bereiztea, labur esateko, bi maila ezberdin agertzea etengabe nobelan osoan zehar: gertatzen dena eta berak uste duena gertatzen dela. Beste kritikari batzuek beste modu batera formulatu dute: idazleak nahastu egiten dituela Henry-k bizi eta Henry-k sentitzen duena.

Tonu ironiko nabarmenak esanarazten dio Gibson-i, nobela osoak pentsamendu ironikoaz irakurtzera bultzatzen duela irakurlea²¹¹. Berak uste du, gehiegikeriatik eta inbertsiotik sortzen dela ironia. Informazioa exajeratua, batetik, eta oinarri sendorik gabekoa izatea, bestetik. Soldadu bakar batek ere ez du jakintza eta iritziaren artean bereizten, ezta egunerokotasunaren eta irudimenaren artean ere, eta Henry bera ez da bere kideak baino kapazagoa bereizten egiaren eta ilusioaren artean.

Ez dakigu noiz interpretatu behar diren Henry-ren pentsamenduak zentzu ironikoan eta noiz hartu behar diren modu zuzen batean. Ezin dugu ziur egon berak ikusten duenaz, edo eta mundua modu zuzenean irakurtzen duen ere, dio Gibson-ek, eta ironia areagotu egiten da, Henry bere buruaz ari denean. Kasu honetan, beste ironia mota bat ere bereizten du, ironia dramatikoa, soldadu zarpailak uste duenean, Henry benetan zauritua izan dela guduan. Guk badakigu zein den egia, eta irakurleak dakienaren eta pertsonaiek uste dutenaren arteko kontrasteak areagotu egiten du ironiaren sentsazioa.

²⁰⁹ (GIBSON 1988) 42. or.

Crane

Ironia-mota ezberdinak daudela askok onartzen dute. Wilson-ek dio²¹², graduak egon daitezkeela, ironia itxuraren eta errealitatearen arteko tartea delako (nola agertzen diren gauzak eta nolakoak diren benetan) eta zenbat eta tarte handiagoa izan, gero eta handiagoa izango da ironia. Ilusioa versus erreala. Wilson-en ustean, Crane-k aurkako ikuspuntu biak agertzen ditu aldi berean, baina ez du inoren alde jotzen. Inoiz ez du esaten zer pentsatzen duen; egoeraren aspektu ezberdinak agertzen ditu, eta segidan irakurleari uzten dio neurtzen eta erabakitzen zeinen alde egin behar duen²¹³. Horretarako batzuetan zinemaren teknika erabiltzen du, eskenak hurbilduz (teleobjektiboa) edo urrunduz (angelu handia), baina kamara leku bakar batean ezarri gabe.

Ironia da, gerraren ironia beltza Mitchell-en irudiko²¹⁴, 27.000 soldadu hiltzea gudu batean eta ondorioa hutsa izatea, guztiz zentzugabekoa. Nagusi izan arren, Iparraldeko soldaduek galdu egin zuten, eta Hegoaldekoek garaipen pirrikoa lortu zuten. Guduaren amaieran bi egun lehenagoko leku berean zeuden bi gudalosteak, baina milaka gizon hilik tartean. Historia militarren ikuspuntutik ikusita, nekez aukera zezakeen Crane-k Chancellorsville-koa baino gudu hutsalagorik²¹⁵.

Ironia da, Binder-en ustez, Henry Fleming-ek bere burua ikustea gizarte osoa aldatzeko gai, baina ez ikustea gai bere burua aldatzeko²¹⁶. Ironikotzat jotzen du nahasmen psikologiko eta moralagatik soldadua hasieran isolatuta egotea, eta taldearekin bildu ostean isolatuago egotea²¹⁷.

Ironia da, Altenbernd-en ustez, pertsonaiekin adiskidetasun-harremana sortzea eta aldi berean Naturaren menpekotasunean ezin garrantzi gutxi duten azaltzea,

²¹⁰ Bostak bat, *Euskararako Hiztegia*, Adorez 2. Bilbo, 1996.

²¹¹ (GIBSON 1988) 38-41. orr.

²¹² (WILSON 1995) 69-70. orr.

²¹³ Jokaera hau guztiz bat dator lehen aipatu dugun inpresionismoaren jokamoldearekin.

²¹⁴ (MITCHELL 1986) 16. or.

²¹⁵ *The Red Badge of Courage*-n narratzen den gudua 1863ko maiatzaren 1 eta 2an gertatu zen Chancellorsville-n, Virginian, Rappahannock River-en ibaiertzean. Nobelak zehatz-mehatz zaindu ditu xehetasunak eguraldia, guda-taldeen mugimenduak, geografia orokorra eta bertako menditxo, ibai eta padura guztiei dagokienez. (WILSON 1995) 16. or.

²¹⁶ Henry Binder in (CRANE 1983) 159. or. Ikus nobelaren pasarte honetan XII/7-8, 88. or. Kontuan hartu XII. kapitulu hau jatorrizkoa dela, hau da, Appleton-en edizioan ezabatuta dagoela.

Crane

“unibertso huts eta zabal batean”²¹⁸. Bi mundu daude Crane-ren kosmogonian, mikrokosmoa (gera, itsasoa) eta makrokosmoa (mundu zabala). Panorama honetan, gerra-zelaia ekintzen eskenatokia da soilik, baina baita antagonista ere; eskena partehartzaile delako sentazioa ematen baitu. Gizakiak duen arerioaren aurka ez dauka kanpoko laguntzarik. “Zergatik” galderak ere ez du erantzunik.

Crane-ren unibertso honetan denak ez dira hiltzen, alabaina. Naturak gizaki batzuk salbatzen ditu, horrela erakusteko, denak suntsitzeko bezainbesteko indarra eduki arren, sinpleki ez dagoela beraiengan interesaturik. Ironikoena da, gainera, indartsuena dela hiltzen dena (*The Red, The Open Boat*), bere heriotzak aditzera emango balu bezala, saria ez dagoela itxurazko merituekin egokituta.

Westbrook²¹⁹ ere bat dator beste egile batzuekin esatean Crane-k mundu dualista aurkeztzen duela. Azalpena da, beraren ustez, protagonistak egilearena ez den beste sentibilitate bat daukala. Honela bada, lengoia erradikala agertzen denean, Crane-ren ahotsa azaltzen da, eta ahots honek agiraka egiten dio Fleming-i, gertakizunen aurrean jarrera desegokia izan duenean. Imajineria dualista honek sortarazten du ironia: sentimendu subjektiboen interpretazio objektiboa egitean, alegia.

Ironia distortsio egokia da bi munduen artean aukeratu behar dutela oker uste duten gizonentzat: Naturak jaramon egiten dien mundu baten eta gaizkiaren munduaren artean. Gizakiak Crane-ren baloreetara hurbiltzen doazenean eta (Natura indiferentea izan arren) anaitasuna balore erreala dela ikasten dutenean, estiloa bat-batean aldatzen da.

Narratzailea (edo ikuspuntua duen pertsonaia), modu batera edo bestera, gradu batean edo bestean, egilearen pertsona bat da. Crane-ren protagonista ohikoak, kontrastean, ez dute bizi istorioa. Crane-k irakurleentzako zeinu zabalak errefusatu zituenetik, (“predikatzea guztiz txarra da artearentzat”) bere irudikeria zatikatua eta autokontenitua izan da²²⁰.

²¹⁷ Idem, op. cit. 160. or.

²¹⁸ (ALTENBERND eta LEWIS 1966) 73. or. Altenbernd-ek dio Natura hasiera batean indiferentea dela baina gero antagoniko bihurtzen dela.

²¹⁹ (WESTBROOK 1972) 88. or.

²²⁰ Idem, op. cit. 91. or.

Crane

Westbrook-ek atera zuen ondorioa da “Crane arazoa”²²¹ ez dela egiatan existitzen. Crane-ren mundua ez da lainotsua eta fragmentarioa. Arretaz egituratuta dago bere helburua lortzeko; gizakia bere errealaren eta bere egintzen artean harrapatuta dagoela adierazteko; bera denaren eta berak egiten duenaren artean harrapatuta dagoela, alegia; berezko giroaren eta guztiz estrainioa den giroaren artean hartuta²²². Alde horretatik ikusita, Crane guztiz koherentea da, eta bere lengoia, lengoia zatikatua izatetik urrun dago, egon.

Pilar Marin-en iritzian ere²²³, Crane-k darabilen metodo ironikoa kontrastea da: pertsonaiek direna uste dutena aurkeztea (beren kosmogonia, beren morala), eta hori guztia beren mundua eta beren bizitza egiatan denarekin kontrastatzea. Engainu-joko honek maila ezberdinetan ekiten du eta honelaxe lortzen du nobelari sakontasuna ematea. Narrazioan agertzen diren ilusio- eta autoengainu-irudiek zerikusi gutxi dute errealitatearekin. Nobela osoa dago eraikita kontraste-joko honetan. Gizartean indarrean dagoen morala ez da kolokan jartzen, baina ez da betetzen, saihestu egiten da. Henry Fleming-i ez zaio inporta ondo ala gaizki egin duen, baizik eta gainontzekoek iruzurra harrapatuko dioten ala ez. Zer egin duen (ihesa) ez dio axola; axola diona gainontzekoek deskubrituko dutenentz jakitea da.

Marin-ek uste du, Crane-k kupidagabe erabiltzen duela ironia. Agertzen duen mundu horretan²²⁴ moral-ezik absolutuena da: izugarritzko krudelkeria dago eta dena faltsua da. Biktimarengan batzen dira determinismo soziala alde batetik eta pertsonaiaren akats berezkoak bestetik. Edozein kasutan ere, ezin du ingurunearen aurka ezer egin.

²²¹ Inpresioak elkarren segidan agertzeari eta mundu lainotsu bat aurkezteari “Crane arazoa” esan zaio. Esan izan da, gainera, nobela bakoitzak asmo ezberdin bat zuela. Westbrook-ek uste du koherentzia bat dutela, eta koherentzia hori estiloak ematen diela. Idem op, cit. 86. or.

²²² Idem, op. cit. 104. or.

²²³ Pilar Marin, op. cit. 57. or.

²²⁴ Batez ere *Maggie* nobelan ikus daitezke ezaugarriok, baina *The Red Badge of Courage* nobelan ere bai.

Crane**Natura**

Marin-ek esan berri duenez, eta aurretik Altenbernd-ek eta beste askok, Naturak leku garrantzitsua du idazle naturalisten lanetan, eta areago Crane-ren lanetan.

Nolanahi ere, Natura indiferentea dela esaten dutenengandik haruntzago doa Altenbernd, Natura antagonista dela esatean. Eta Altenbernd baino haruntzago joanez, Colvert-ek²²⁵ dio Natura gaiztoa dela, arerioa, etsaia. Aurretik arbitroa izan da, gero adiskidea (basoan babesa eman dionean), beranduago indiferentzia agertu dio eta azkenik arerio ankerra izan da pertsonaiarentzat. Colvert-ek uste du *The Red* osoa dela Naturarekin identifikatzeko ahalegin ikaragarri handia. Henry-ren helburu nagusia garaipena da, bai, baina ez Konfederazioko soldaduak garaitzea, baizik eta Natura, baso-arerioa garaitzea: baso mehatxailearen gainetik lortu behar du garaipena, Natura-ama babeslearen besoetan atsedean hartu ahal izateko.

Naturan dena da munstruosa, eguzkia barne. Irudi metaforikoak, sugeak, herensugeak eta munstroak dira, eta etsai agertzen dira.

Beren fikzioak arazo pertsonal sakona ikutzen duen idazle guztiekin gertatzen den bezalaxe, Crane-k ere istorio bera errepikatzen du behin eta berriz. Heroi handinahitsuak bere lekua eskatzen du unibertsoan, bai The Blue Hotel, bai Crazy Swede bai The Open Boat-en ere²²⁶.

Naturaren aurka borrokan ari dela esaten dutenekin bat eginez, Gibson-ek oso gauza interesgarria esan zuen²²⁷, guk gero nobela aztertuko dugun ikuspuntutik ikusita. Gibson-en ustez, Henry-k gizon adoretu bihurtu nahi baldin badu, Naturatik alde egin behar du. Natura (ama eta etxearekin batera) ezarritakoa da, kontserbatzailea; honi kontrajarrita, kontzientzia, burujabetasuna eta indibidualitatea daude. Bere izaera berezkoa lortu nahi izanez gero, Naturaren aurka matxinatu behar da, halabeharrez, bere buruarekin bat egiteko (subjektu bihurtzeko esango genuke guk).

²²⁵(COLVERT 1965) vii-xi. orr. Eta Henry matxinatu egiten da naturaren aurka.

²²⁶ Idem, op. cit. ix. or.

²²⁷ (GIBSON 1988) 80. or.

Crane

XIX. mendean Emerson, Thoreau, Hawthorne eta Melville-k Natura Jainkoaren adierazpen inmanentea zela uste zuten. Crane-k, ordea, giza ikuspuntutik ekin zion kontzienteki, eta distantzia bat ezarri zuen gizaki eta Naturaren artean. Distantzia hau tonuan ere agertzen da, eta narratzaile eta pertsonaien artean ere (Westbrook-ek zioenari jarraikiz). Aurreko egileekiko aldaketaren arrazoia, dio Gibson-ek, darwinismoan bilatu behar dugu. Darwin-ek bere garaiko mundu zientifikoa (eta geroago kulturala) hankazgora jarri zuen. Bilakaeraren teoria ez zen baliagarria soilik animalien eboluzioa ulertzeko, baizik eta, baita ere, gizakien aurrerapausoak eta mugak azaltzeko. Gibson-ek uste du, Crane-k darwinismoaren aportazioa erabili zuela XII. kapituluan, Henry Fleming-en heldutasunaren mugak justifikatzeko. Bestalde, ez du uste kasualitatea denik, animalien presentzia ugaria²²⁸ eta Naturaren deskribapenak batere errealak ez izatea.

Naturaren deskribapenak, esan bezala, ez dira objektiboak, subjektiboak baizik. Belartza ez da marroitik berdera aldatzen; aldatu dela ematen du (ematen dio). Aldaketak behatzailearen araberakoak dira, Henry Fleming-en sentimenduen araberakoak. Natura ez du ikusten, Natura “irakurtzen” du, bere gorabehera subjektiboen argitan.

Lengoaia

Estiloaren indarra ei da kritikari gehienen iritzian Crane deigarri egiten duen elementuetariko bat. Cazemajou-k dio²²⁹ indar honi esker benetako batailaren hira eta soinuaren sarbidea balitz bezala irakurtzen dela nobela hau.

Mateo-ren ustez²³⁰, bi estilo erabiltzen dira *The Red* nobelan, ezberdinak eta bereiztuak:

- a) pasarte deskribatzaile eta analitikoetan, lengoaia literario oso poetikoa erabiltzen du, zehatza, trebea. Sinbolo eta irudi literarioak modu

²²⁸ Gibson-ek berak honetaz guztiaz diharduen liburua gomendatzen du, (MARCUS 1959).

²²⁹ (CAZEMAJOU 1972) 56. or.

Crane

funtzionalean erabiltzen ditu. Arlo semantiko ezberdinak agertzen dira, eta animalien irudia erabiltzean (ados dago Leopoldo Mateo Gibson-ekin), giza portaeran ere determinismo biologiko bat badagoela adierazi nahi du, ezbairik gabe.

- b) elkarrizketetan, lengoia konbentzionala eta estereotipatua erabiltzen du, soldaduen hizkera errealistagoa harrapatzeko asmotan, soldaduak kultura gabeko gizonak baitira kasu gehienetan.

Henry Fleming-ek bi estiloak erabiltzean, pertsonaia modu sinplistan aztertu ezin dela eta, gainera, dimentsio ironikoa areagotu egin zaiola uste du Mateo-k. Nik uste dut ironia adieraztea baino, bi maila hauek beste zerbait adierazi nahi dutela, protagonistaren barnean dagoen lehia: kanpotikoa adieraztean, hizkera hotza da, eta barnekoa ateratzean, hizkera berotu egiten da. Barne borrokaren sintoma hutsa da hizkeren bikoiztasuna.

Gibson-ek ere lengoaiaren bi tonuak ikusi ditu nobela honetan, baina interpretazioa zeharo ezberdina da²³¹. Bata kristaua, kontserbatzailea eta tradizionala da. Bestea, ordea, darwinista, erradikala eta aurrerazalea. Bien artean Crane-k ez du debaterik sortzen. Ikuspuntu naturalistagora jotzen du, baina ikuspuntu tradizionaletik guztiz askatu gabe. Hau da, ez du esaten Jainkoa ez dela existitzen (guztiz naturalista izango litzatekeen baieztapena), baina Jainkoa hotza da, krudela eta arduragabea dela dio²³².

Tonu biak nahastean, inoiz ez dakigu noiz dagoen autoengainatzen eta noiz ikusten dituen gauzak modu arrazonagarri batean. Krisian dago, eta narratzaileak berak argi esaten du nobelaren lehen kapituluan: *“he felt that in this crisis his laws of life were useless”*²³³. Hala ere, esaldi honetan kritikariak gizartearen baloreen krisia ikusi duela argitu beharko litzateke, eta nik ulertzen dudan moduan, Crane-k subjektuaren krisiaz dihardu.

²³⁰ Leopoldo Mateo in (CRANE 1981) 221. or.

²³¹ (GIBSON 1988) 93. or.

²³² Ez du esaten ere *“Jainkoa hil da”* Nietzsche-k esan zuen bezala, hau esango balu, onartu beharko

Crane

Lengoaiarekin jarraituz, estilo urduria egotzi egin zion Mitchell-ek narrazioari²³⁴; ordenu gramatikala bertan behera utzi zuela, irudiaren eta subjektuaren arteko transizioa ilogikoa zela eta joskera zatikatuak estilo “zakarra” eta urduria sortzera laguntzen zuela. Mitchell-ek ez dio ezer intenzionalitateaz, hau da, transgresio gramatikal hauek nahita eginda dauden, edo esan beharrekoak esateko esakera berri bat sortu behar izan ote zuen²³⁵. Ikusten du intenzionalitatea, hori bai, eta halaxe azaldu du, soldaduei izen propiorik ez ipintzean, kategoria sozialen garrantzi-ezaren adierazbide gisa interpretatzen baitu.

Monotonia ala mugimendua sortarazteko hitzekin jokatzeko duela dio Altenbernd-ek²³⁶. Metodo eskenikoaren bidez, irakurleari ekintzan presente dagoelako ilusioa sortarazten dio, irakurlea gertakizunetan lekukoa delakoa, alegia. Xehetasun bakoitza deskribatzean, eta iruzkin interpretatiboak egitean, irakurlearekin elkarrizketan bailegoen jokatzeko du. Hau da, balizko irakurke bati mintzatzen ei zaio, zuzenki egiten ez badu ere.

Interpretazioak

Askotxo eta denetarikoak izan dira, *The Red Badge of Courage* nobelari egin zaizkion interpretazioak. Horietariko batzuk hemen aurreikusi ditugu, orain arte aipatu ditugun gaietan. Beste batzuk zeharo estrainioak dira, burugabeak ematen dute, espekulazio hutsak²³⁷. Nolanahi ere den, kointzidentzia handia dago gai nagusiak zeintzuk diren seinatzerakoan, baina kointzidentzia egoteak ez du esan nahi zuzen

lukeelako inoiz bai existitu dela.

²³³ I/47, 6. or.

²³⁴ (MITCHELL 1986) 17. or.

²³⁵ Wilson-ek esaten zuen moduan, “*bere estiloa eta bere ikusmira, finean, bat eta bera dira*”. (29. oharra).

²³⁶ (ALTENBERND eta LEWIS 1966) 73. or.

²³⁷ Batzuen iritziz nobela alegoria kristaua da, Jim Conklin-en heriotzean oinarrituta (Stallman-ek onartu zuen interpretazioa). Beste batzuek (Berryman buru) azalpen edipikoaren bidez ulertu dute narrazioa: bertan agertzen den zentzurik gabeko bortizkeria, guraso metodistei erakusten zien erresistentzia berantiarra zen, aitaren heriotza goiztiarra traizioa balitz bezala hartu baitzuen. Jan Van Meter-ek irakurketa freudiarra egin du, eta nobelaren gatazkak, gatazka sexualak direla dio. Ives-ek bere egitura diseinu simetrikoa bailitzan definitzea lortu du. Estrukturalistek, azkenik, hizkera eredu aztertzean, Crane-k kode linguistiko-moral konbentzionala esperientzien kaosaren barruan projektatzen duela ikusi dute.

Crane

kritikari guztiak daudenik. Atal honetan nobelak jaso dituen interpretazioak azalduko ditugu, eta ondoren tesi honen *tesiarekin* dituzten desadostasun nabariak azalduko ditut.

Heldutasuna

Luzeen aztertu den gaia, Henry-ren heldutasunarena izan da. Kritikari gehienek onartutzat eman dute, Henry Fleming-en istorioa gazte batek heldutasunerako ibili behar duen bidearen adierazpen zuzena dela, inimizia-rito bat, gizontasunerako bidaia, helduaren azalpena alegia.

Iritzi honekin bat, Wilson-ek²³⁸ narrazioa osoa beldurraren aurkako borroka etengabea dela uste du, beldurra uxatuko duen heldugai baten hazte-prozesua orriz orri kontatzen dela. Gertaera latzen lekukoa izan da, baina soilik Heriotza Handia ikutzeko gai izan denean lortu du onartzea, bere transzendentzia ekidinezina dela. Heldua izateko bidaia osoa egin du, unibertsoaren ume-ikuskeratik nagusien ulermen helduraino, eta horri esker “*berriz jaiotzea*” lortu du, zentzu kristauan lortu ere (hau da, Jainkoaren bizitzara jaiotzea). Prozesuari esker ikasi du zer den benetako kuraia, “*norberak egin behar duela jakin dakien zuzena den hori, horixe baita gizakiek egin behar dutena*”²³⁹, hau da, Henry-k ikasi egin du, kuraia soilik dela egitea egin behar dena, horretaz pentsatu gabe.

John Fraser, Wilson-en iritziaren aurkakoa da²⁴⁰. Gazteak *age ritual* osoa egin du baina hala ere, dio Fraser-ek, ez du lortu heldua izatea, zeren bere burua guztiahalduna ikustea nerabezaroaren ezaugarria baita. Egia da bi egunek heldutasun handiagoa eman dezaketela, etxean lasai emandako bi urtek baino (denboraren subjektibotasuna); hala ere, esperientzia metatzeak ez du heldutasuna bermatzen.

Gauza bera uste du Binder-ek²⁴¹, Henry-ren berekoikeria bere gaztetasun eta

²³⁸ (WILSON 1995) 13. or.

²³⁹ Idem, op. cit. 42. or. Gehiago definitu zuen Wilson-ek Crane-ren kuraia: “*anaitasun ez-berekoi, entusiastiko eta pentsatu gabekoa. Kuraiaz gizonak gizon dira, gizonak baino ez, zeregin bat dutelarik*”.

²⁴⁰ Wilson-ek berak esaten digu, op. cit. 66. or.

²⁴¹ Binder in (CRANE 1983) 159. or.

Crane

heldutasun ezaren ezaugarri argia baita. Edonola ere, gaztetasunaz idatzitako liburua dela uste du, bestela ez baita ulertzen Henry-taz mintzatzeko zergatik dioen “*gaztea*” behin eta berriz, Henry gazte bakarra balitz bezala. Gainontzeko soldaduak ere gazteak dira (“*fresh fish*”, veteranoen hitzetan), baina Henry GAZTEA da antonomasiatz.

Ez da gizon bihurtzen, orekarik ezta ziurtasunik ere ez duelako. Patuak menperatzen du. Adorea erakutsi duenetan, ere ez da argi esaten zergatik edo zerk bultzatuta erreakzionatu duen. Misterio bat da bere jokaeren iturburua. Gizartea aldatu nahi du, baina ez du bere burua aldatu nahi. Zoro gisa jokatzeko heldutasunez jokatzeko gazteegia baita.

Horsford-ek²⁴² ere ez du uste Fleming-ek heldutasuna lortu duenik, bere jokaeran ilusioa eta justifikazioen ironia baino ez baitago. Fleming ez da pertsona konbentzionalki garatua, izaera zentratu eta egonkorraz. Exajerazio adoleszenteak ditu. Conrad-ek *inpresionismo* zeritzon sentsazio subjektiboen gatazkan bizi da Henry. Subjektibismoa eta inpresionismoa, edo expresionismo subjektiboa, edozein kasutan, kanpoko munduarekiko desira, beldurra eta izuaren proiektzioa. Bere pentsamenduan ezer ez da egonkorra. Zilborrari begira bizi da.

Bi egun hauetan zerbait ikasi du, baina aurreragoko bizitzan, esperientzia honetatik abiatuta zerbait positiboa egingo duen jakitea guztiz zalantzarria da²⁴³.

Colvert-i iruditzen zaio²⁴⁴ gauzak *gertatzen zaizkiela* pertsonaiei, ez dutela beraiek erabakitzen. Henry-k adierazten duen beldurraren gainetiko garaipena, ez dela benetako garaipena, eta patua ateratzen dela garaile, gizakien gainetik. Beraz, kolokan jartzen du Henry-ren heldutasuna. Nobela osoan iraunkorrena den gaia, ez da errealismoa, desilusioa baino. Desilusioa da nobelaren mezua, desilusioa eta beraren ondorio moralak. Pertsonaiak autoestima groteskoaren biktimak dira, bai nobela honetan eta bai beste guztietan ere.

²⁴² (HORSFORD 1986) 110-126. orr.

²⁴³ Idem, op. cit 126. or.

²⁴⁴ (COLVERT 1965) vii. or.

Crane

Antzeko zerbait iruditzen zaio Mateo-ri,²⁴⁵ nobelaren mezua auto-dezepzioa dela dioenean: gazteak uste du gizon bihurtu dela, baina egiatan gertatzen zaiona ez da hori, bere egoera berria oker ulertzen ari dela baizik. Berak bizi izan duen, prozesua ez da izan ezjakintasunetik jakintasunera pasatzea, edo inuzentziatik esperientziara, ezta koldartasunetik kemenera ere; bere ibilbidea, bere ezjakintasunaren kontzientziatik buruarekiko iritzi faltsura pasatzea izan da. Nobelaren azken bi paragrafoak irakurri ondoren, Mateo-k dio bakarrik lelo batek edo bere burua engainatzen ari den pertsona batek ikus dezakeela halako erlazorik Naturarekin, bizi izan duen moduko esperientzia jazo eta gero.

*Honek (Henry-k) pairatu behar izan duen guztia pairatu ondoren ikasgairan bat ikasi izan balu, hain zuzen ere ikasgai hori ikasiko zuen, Natura ederra edo erasotzailea izan daitekeela, baina beti dagoela giza trajediatik kanpo. Narrazioan zehar Henry-k bere burua behin eta berriz engainatu izan du, bere portaera interpretatzeko zantzurik Naturan ikusi uste izan duenean. Eta amaieran autodezepzio-egoera berean segitzen du. Egia da, honek guztiak gizaki are sinesgarriagoa bihurtzen duela, baina, gerraren metaforaz nobelan maisuki islatuta dagoen mundu krudel eta latz baten aurrean, autoengainua ez al da babesteko era bat?*²⁴⁶

Gerra

Cazemajou-k²⁴⁷ atera zuen ondorioa honako hau da, alegia, Crane-k giza bizitza gataska-terminoetan zekusala, eta aurreko idazlanen *glamour*-aren ordeztu, berak gerraren alde prosaikoak agertu nahi izan zuela.

*Gerra heriotza da, gauza txikiaren eskasiaren ugalketa, eta lan gogorra. Crane-k inoiz ez zuen lortu behar bezainbesteko lasaitasun eta inpartzialtasun nahikoa, Bakea definitu ahal izateko. Fabula (erlijiosoa) izan zen Bakea berarekiko*²⁴⁸.

Horregatik idatzi zuen gerraz. Gerra bere ohiko esperientzietatik atera eta funtsezko irudien mailara igo zuen. Berea ez da gerra objektiboa, subjektiboa baino. Eta gainera, anbibalentzia sentitzen du gerrarekiko: bakea nahi du, baina aldi berean

²⁴⁵ Leopoldo Mateo in (CRANE 1981) 219. or.

²⁴⁶ Idem, op. cit. 220. or.

²⁴⁷ (CAZEMAJOU 1972) 55. or.

²⁴⁸ Idem, op. cit. 64. or.

Crane

aspergarria iruditzen zaio.

Gibson-ek²⁴⁹ bere aldetik gauza interesgarria dio: gatazka ez dela *sinpleki* gertatzen, gatazkak (*gertakizunak*, esango nuke nik) sortarazten duela gauzak jazotzea. Henry-k hasieran biktimatza jo du bere burua, eta azkenean biktima bihurtu da, nahiz eta bere biktimatasuna imajinarioa izan, benetako kanpo-indarrek eragindakoa baino. Gero aitzindari bihurtu da, biktima-irudia guztiz baztertu gabe. Heroi nahi du bihurtu, baina (Gibson-en ustez, uste okerra bestalde) Crane-k heroismoa ulertzen zuen moduan, hau da, modu tradizionalan: amandre-ipuinetako heroiek barne-motibazioak eraginda ekiten dute; beren adorea eta beren izaera banaezinak dira, eta gauza bera gertatzen zaie koldarrei ere, koldarrak direla izaeraz. Hau da, amandre-ipui tradizionaletan pertsonak berez (jaiotzez, nortasunez) adoretuak ala koldarrak dira, eta halaxe jokatzeko dute ezinbestean.

Crane-k, ordea, beste heroi-mota bat aurkeztu zuen nobela honetan Gibson-en harridurarako (eta gure pozerako), gizarteak duen heroi-irudiarekin zerikusi gutxi daukana. Gibson-ek dio Crane-ren heroiak (Henry) ez duela heroia izan nahi haatik, heroismo hutsagatik, kideek mesprexa ez dezaten baizik. Erreakzio hutsa izan da heroi bihurtzea. Bere izaera ez da hobe edo txarragoa nobelaren hasieran eta amaieran, bere kuraiak (nobela honetan agertzen den kuraia mota behinik behin) ez baitauka zerikusirik bere izaerarekin, ezta guduan izan duen jokaerarekin ere²⁵⁰.

Gibson-ek uste du, Crane-k benetan sinisten zuela kuraia eta izaera loturik daudela –nobelaren hasieran Henry handinahi-ametsetan aritu denean, heroi-irudi klasikoa azaldu duelako– eta, geroago, Henry-k bere buruari buruzko irudia aldatu duela²⁵¹. Baina Gibson oker dago. Egia da, Crane-k agertu duela heroiaren irudi klasikoa Henry-ren hausnarketetan, baina, nire ustez, horrek ez du esan nahi Crane-k ere halaxe ulertzen zuenik heroismoa. Nobelan zehar argi utzi zuen, nola ulertzen zuen

²⁴⁹ (GIBSON 1988) 19/25-26/45-47/106. orr.

²⁵⁰ Tesi honetan zerbait argi utzi nahi baldin bada, hain zuzen ere, horixe da, kuraia ez dela pertsona batzuekiko konstantziala (eta beraz, beste pertsonentzako ezinezkoa), baizik eta edonork ager dezakeen ezaugarria dela, subjektibazio-prozesu baten ondorioz garatuta. Kuraia ez da erreakzio hutsa, justizia-projektu baten alde ipinitako indarra baizik.

²⁵¹ Nobelan esaten denean “*He saw that he was good*”, esaldi ironikozat jo zuen Gibson-ek, Henry gaztea

Crane

heroi *berri* hau: ez da heroi tradizionala, ezta hurrik eman ere. Beldurra, angustia eta traizioa ezagutu ditu, giza miserian murgildu da, eta azkenean, eta soilik azkenean agertu du aurretik izan ez duen kemena, *kasualitatez* bailitzan. Ez da harritzekoa, nobela hau lehen nobela antimilitaristatzat hartu izana, bera baita *anti-heroia* agertzen duen lehena.

Nobelan gatazka-dosi handia dagoenik ez du ukatzen Gibson-ek. Inork ez du ukatzen. Kontua da, gatazka honi nola ematen zaion amaiera, esan nahi da, ea nobelaren amaieran gatazka konpondu den ala ez. Egile honek baietz uste du.

The Red Badge of Courage etxea utzi duen gazte baten istorio tradizionala da, autonomia psikologikoa eta ekonomikoa lortzera abiatzen da, eta eragozpenak gainditzen dituenean, orduan aurkitzen du bere lekua munduan, eta bizitzan kokatzen da, bizimodu heldu eta arrakastatsuen ertzean²⁵².

Beste egile batzuk ezetz uste dutela ikusi dugu, ez dutela sinisten *happy end*-ik dagoenik. Agian denok James Hafrey-ekin bat etor gaitezke dioskunean²⁵³ nobela honek, gutxienez, giza kondizioak zenbateraino jasan dezakeen erakusten duela, nahiz eta, ikusitakoak ikusita, kritikariek ezin duten erabaki gai nagusia gerra den ala ez, ezta guduaren ostean Henry gizondurik den ala nerabe segitzen duen.

Kritika taulan

Kritika amerikarrak zer dioen ikusi ondoren, lanerako hipotesi bat plazaratu nahi dugu. Oro har eta salbuespenak salbu, ez dut uste zuzenak direnik *The Red Badge of Courage* nobelari egin zaizkion interpretazioak, eta eskematikoki azalduko dugu zein den **kritikak esandakoaren** eta **tesi honen hipotesiaren** artean dagoen aldea.

Kritikak esandakoa	Tesi honen hipotesia
<u>Nobelaren gaiaren interpretazioa:</u> Heldutasunerako bidaia (gauzatuta ala ez)	<u>Nobelaren gaiaren interpretazioa:</u> Subjektibitate-prozesuaren deskribapena
Gizakia patuaren menpe dago. Ez du	Subjektua kontraesanguratsua eta

urrun baitago heroiaren irudi klasikotik.

²⁵² (GIBSON 1988) 26. or.

²⁵³ James Hafrey, in (WILSON 1995) 71. or.

Crane

erabakizunik. Expektatiba mugatuak.	dialektikoa da. Expektatiba zabalak.
Gizarte-arauen presioa sentitzen du (supernia)	Ni idealaren presioa sentitzen du (autoestima)
Heriotzarekiko beldurra sentitzen du	Interpelazioagatiko angustia sentitzen du
Ihesaldirako joera instintiboa du	Erabakiuneetan subjektua zatikatzen da
Berekoikeria adierazten du, gaztetasunaren ondorioa	Subjektibazio-prozesua bizi du, adina zein den kontuan izan gabe
Garrantzitsuena da gazteak eragozpenak gainditzen dituen ala ez ikustea	Garrantzitsuena da ni idealak galderak planteatzea (ihesari ekingo diot?)
Prozesua itxia eta itzulezinezkoa da (heldua ez da berriz nerabe izango)	Prozesua errepikatu egin daiteke muturreko beste egoera batean
Gerra maltzurra da eta gizakiak aldarazi egiten ditu. Mundu krudelaren metafora da.	Gerra gizakia subjektu bihurtu ahal izateko egia-prozesu bat da, muturreko egoera.
Egilearen ironia begi-bistakoa da: a) pozak eta penak Naturarekin identifikatzen dira (absurdua) b) bi tonu agertzen dira (kontrastea) c) pentsatzen eta esaten duenaren artean aldea dago	Henry-ren barne-borroka begi-bistakoa da: a) sentipenak Natura bezalakoak dira (kontrolezinezkoak) b) barnean hizkera bat eta kanpoan beste bat c) barnean bizi duen gatazkak kontraesanak agertarazten dizkio
Gertatutakoa heldua izatean gaindituko du	Gertatutakoa ahaztuz gaindituko du (Lacan)

Atalean aipaturiko Bibliografia

ALTENBERND, Lynn eta LEWIS, Leslie L. (1966). *A Handbook for the Study of Fiction*. The MacMillan Company. New York.

ANONYMOUS (1968). "Built to last" in *Times Literary Supplement*, 927. or., abuztuak 29.

BADIOU, Alain (1982). *Théorie du sujet*. Seuil. Paris.

BEER, Thomas (1923). *Stephen Crane: A Study in American Letters*. Alfred Knoph. New York.

BEER, Thomas (1927). *Stephen Crane. A study in American Letters*. Garden City. New York.

BEER, Thomas (1934). "Mrs. Stephen Crane" in *The American Mercury*, 23, XXXI. liburukia, martxo.

BERRYMAN, John (1950). *Stephen Crane*. William Sloane Associates.

BERRYMAN, John (1977). *Stephen Crane: A Critical Biography*. Farrar, Straus & Giroux. New York.

BOYD, Ernest (1970). *Portraits: Real and Imaginary*. AMS Press.

BROOKE-ROSE, Christine (1986). "Ill Logics of Irony" in *New Essays on The Red Badge of Courage*. Cambridge University Press. Ed. Lee Clark Mitchell.

BRUCCOLI, Matthew J. (1972). "Stephen Crane as a Collector's Item" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

CAZEMAJOU, Jean (1972). "The Red Badge of Courage: The "Religion of Peace" and the War Archetype" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

CLENDENNING, John (1995). "Stephen Crane and His Biographers: Beer, Berryman, Schoberlin and Stallmann" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 1, 28. liburukia, 23-57. orr., udazkena.

CLENDENNING, John, WERTHEIM, Stanley eta SORRENTINO, Paul (1995). "The Crane Log: A Documentary Life of Stephen Crane, 1871-1900" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 3, 27. liburukia,

COLVERT, J.B. (1959). "Structure and Themes in Stephen Crane's Fiction" in *Modern Fiction Studies*, V, 199-208. orr., Udazkena.

COLVERT, James B. (1965). *Great Short Works of Stephen Crane*. Harper & Row. New York.

COLVERT, James B. (1986). "Searching for Stephen Crane: The Schoberlin Collection" in *Curier*, 21, 5-34. orr.,

CONRAD, Joseph (1912). *A Personal Record*.

CONRAD, Joseph (1926). *Notes of Life and Letters*. Doubleday. New York.

CRANE, Helen R. (1934). "My uncle Stephen Crane" in *American Mercury*, 121, XXXI. liburukia, urtarrila.

CRANE, Stephen (1960). *The Red Badge of Courage and Others Writings*. Houghton Mifflin Co. Ed. Richard Chase. Boston.

CRANE, Stephen (1975). *Bowery Tales*. University Press of Virginia. I. liburukia. Ed. Fredson Bowers. Hitzaur. James B. Colvert. Charlottesville.

CRANE, Stephen (1981). *El rojo emblema del valor*. Anaya. Ed. Leopoldo Mateo. Itzul.: Micaela Misiego. Madril.

CRANE, Stephen (1983). *The Red Badge of Courage*. Avon Books. Ed. Henry Binder.

New York.

CRANE, Stephen (1992). *Maggie*. Cátedra. Ed. Pilar Marín. Madril.

DAVIS, Robert Con (1981). *The Fictional Father: Lacanian Readings of the Text*. The University of Massachusetts Press. Amherst, Massachusetts.

DOREN, Mark Van eta MENCKEN, H.L. (1973). *Stephen Crane: The Critical Heritage*. Routledge & Kegan Paul. Londres.

FOLLET, Wilson (1925-27). *The Work of Stephen Crane*. Alfred A. Knoph, 12. liburukia. New York.

FORD, Ford Madox (1953). "Techniques" in *Southern Review*, ekaina.

FREDERICK, Harold (1896). "Stephen Crane" in *New York Times*, urtarrilak 26.

GEIST, S. (1987). "Stephen Crane" in *Diccionario de Autores Bompiani*. Planeta-Agostini. Bartzelona.

GIBSON, Donald B. (1988). *The Red Badge of Courage. Redefining the hero*. Twayne. Boston.

GILKES, Lilian (1960). *Cora Crane: A Biography of Mrs. Stephen Crane*. Indiana University Press. Bloomington.

GILKES, Lillian (1969). "A Recent Book about Stephen Crane" in *Courier*, 31, 1-6. orr.,

GULLASON (1961). "Thematic Patterns in Stephen Crane's Early Novels" in *Nineteenth Century Fiction*, XIV, 59-67. orr., ekaina.

HORSFORD, Howard C. (1986). "He was a man" in *New Essays on The Red Badge of Courage*. Cambridge University Press. Ed. Lee Clark Mitchell.

KAPLAN, Justin (1968). "The Pink Badge of Courage" in *Atlantic*, 222, 121-123. orr.,

Iraila.

KATZ, Joseph (1966). "The *Maggie* Nobody Knows" in *Modern Fiction Studies*,

KATZ, Joseph (1969). "Stephen Crane" in *American Literature*, 40, 565-567. orr.,

KATZ, Joseph (1972). "Resources for the Study of Stephen Crane" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

KAZIN, Alfred (1968). "Stephen Crane, Inc." in *New York Review of Books*, 11, 12-16..
orr., abenduak 5.

KAZIN, Alfred (1970). *On Native Grounds*. Harcourt, Brace, Jovanovich. New York.

LACAN, Jacques (1966). *Écrits*. Seuil. Paris.

LINSKEY, Winifred (1949). "Crane's *The Red Badge of Courage*" in *Explicator*, 8, 18.
orr., Abendua.

MARCUS, Erin (1959). "Animal Imagery in *The Red Badge of Courage*" in *Modern Language Notes*, 74, 108-111. orr.,

MICHEL, Natacha (1995). *El instante persuasivo de la novela. Ensayos metafóricos*.
Librería Agora. Malaga.

MILES, Peter (1995). "Ernest Skinner, Henry James and the Death of Stephen Crane: A
Cora Crane Inscription" in *A Quartely Journal of Short Articles, Notes and Reviews (ANQ)*,
2, 8. liburukia, udaberria.

MITCHELL, Lee Clark (1986). *New Essays on The Red Badge of Courage*. Cambridge
University Press. Ed. Lee C. Mitchell.

RAYMOND, Thomas L. (1923). *Stephen Crane*. Carteret Book Club. Newark, New Jersey.

SCHOBERLIN, Melvin Harold (1949). *Flagon of Dispair: Stephen Crane*. Eskuizkribua

(Syracuse University Press).

SEWALL, R.B. (1945). "Crane's *The Red Badge of Courage*" in 3, 55. orr., Maiatza.

SPILLER, Robert E. (1963). *Literary History of the United States*. MacMillan. New York.

STALLMAN, Robert Wooster *That Crane, That Albatross Around My Neck*.

STALLMAN, Robert Wooster (1952). *Stephen Crane: An Omnibus*. Weinstock.

STALLMAN, Robert Wooster (1968). *Stephen Crane, a Biography*. George Braziller. New York.

STALLMAN, R.W. eta GILKES, Lillian (1960). *Stephen Crane: Letters*. New York University Press.

STALLMAN, R. W. eta HAGEMANN, E. R. (1966). *The New York City Sketches of Stephen Crane and Related Pieces*. New York University Press.

STALLMANN, Robert Wooster (1972). *Stephen Crane: a Critical Bibliography*. Ame, Iowa State University Press.

WERTHEIM, S. eta SORRENTINO, Paul (1988). *The Correspondence of Stephen Crane*. Columbia University Press.

WERTHEIM, Stanley eta SORRENTINO, Paul (1990). "Thomas Beer: The Clay Feet of Stephen Crane Biography" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 3, 22. liburukia, 2-16. orr., udaberria.

WERTHEIM, Stanley eta SORRENTINO, Paul (1994). *The Crane Log: A documentary life of Stephen Crane*. G.K. Hall. New York.

WESTBROOK, Max (1972). "Whilomville: The Coherence of Radical Language" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

WILSON, Don (1995). *Crane's The Red Badge of Courage*. Cliffs Notes. Lincoln, Nebraska.

ZARA, Louis (1961). *Dark Rider: A Novel Based on the Life of Stephen Crane*. World. New York.

ZOLA, Emile (1940). *La Débâcle*. Sopena. M.E.Biagosch. Buenos Aires.

Subjektibitatearen Teorilariak

Atalaren Aurkibidea

SARRERA	147
Angustia Filosofian	147
Subjektuaren kontzeptua	148
PSIKOANALISIAREN ETORRERA.....	150
FREUD-EN BI TOPIKAK	154
Lehen topika	155
Bigarren topika	156
LACAN-EN EKARPENAK	158
Korapilo borromeoa	161
Supernia eta Angustia.....	166
Supernia	167
Angustia	171
BADIOU-REN SUBJEKTUAREN TEORIA.....	174
Gertakizuna, Egia eta Subjektua	178
Gertakizuna	178
Egia	179
Subjektua.....	180
Subjektuari buruzko teorizazioa	183
Subjektu-efektua	185
Angustia	188
Supernia	189
Kuraia.....	190

Teorilariak

Justizia	192
Subjektuaren Teoria irudietan	196
SUBJEKTIBITATEA CONRAD-ENGAN	198
Conrad-Crane harremanak	199
Subjektuaren zatiketa dialektikoa	202
Printzipioak lan conradiarrean	204
Leialtasuna	205
Egia.....	207
Pertsonaia femeninoak	208
Haustura eta kontsistentzia.....	209
Kontsistentzia estrukturala	212
Kontsistentzia subjektiboa.....	215
Conrad-en Biografia	216
Biografia datatan	223
Conrad-en Bibliografia	224

Sarrera

Kritikari amerikarrek Crane-ren nobelari buruz esan zutena ikusi ondoren begibistakoa da emandako azalpenak ez direla nobela honen ekarpena agortzeko nahikoak. Areago, oker ere badaude batzuen kasuan. Asegabe utzi gaituzte, bestalde, azalpen psikoanalitikoak eman dituzten egileek. Gehienen kasuan, psikoanaliaren alde azalezkoena eta nabariena baino ez dute aplikatu. Egia da, Crane-ren biografiaren eta lanaren artean lotura dagoena (zein idazleren kasuan ez dago, ba?) baina ez da zuzena, Edipo Konplexuaren bidez soilik azal daitekeeneko. Beldurra ere izan da kritikari askoren gai errekorrentea. Beldurra dela-eta azaltzen dute Henry Fleming-en jokabidea, baina beldurraz baino, angustiaz mintzatu behar ziren kritikariak. Nobela honetan, nonbait baldin badago egon, subjektuaren drama topa daiteke bere osotasunean, subjektu angustiatu eta ikaratua, zirt ala zart egin beharreko egoera batean bere burua ikusten duena eta, lehen une batean bide erratutik jo ondoren, bere izaera berriztu behar duen gizakia. Ezinbestekoa da, beraz, subjektibitateari eta angustiari buruz ikertu duten filosofoengana jotzea.

Angustia Filosofian

Angustia kontzeptu modernoa da filosofian. Spinoza-k ez zuen afektuen sailkapenean sartu¹ eta existentzialismoa arte, pentsalariak ez zuten aintzat hartu. Zentzu existentzialistan angustia egonezin metafisikoa da, gizaki bakanaren problematikaren bidez azaldutakoa. Sören Kierkegaard izan zen gaur egungo zentzu filosofikoa eman zion lehena²: angustiaren bidez gizakiak aldi berean sentitzen ditu bere jatorriaren hutsunea eta etorkizunean somatzen duen arriskua. Existentiaren anbiguotasuna ikusten du aurrez aurre, izatearen eta ez-izatearen artekoa. Bere egoera

¹ Ikus *"The Red badge of Courage"*-ren azterketaren atalean 10. oharra.

² Kierkegaard-ek 1844an idatzi zuen angustiari buruzko liburua, (KIERKEGAARD 1967).

metafisikoari irrazionala dela deritzo eta bizitzea bera absurdutzat jotzen du.

Hausnarketa hauek hurbil daude Pascal-en barne-tormentuetatik, baina filosofo existentzialistek ondorio ezberdinak atera zituzten oinaze hauetatik. Hauen ustez angustia ez zen zigorgarria ezta baztergarria ere, sinbolikoa eta esanahiez betea baizik, gizakiaren barne-adierazlea. Angustia hutsa izan zitekeen filosofatzeko oinarri nahiko eta bakarra, eta halaxe ulertzen da, zergatik den korrante filosofiko hau horren ezkorra, negatiboa eta nihilista.

Edonola dela, angustia da subjektuaren eta subjektibitatearen ardatz ezinbestekoa. Lacan-ek argi ikusi zuen angustiaren garrantzia:

Azterketarako unean, angustia funtsezko erreferentzia da, inoiz engainatzen ez duelako. Batzuetan falta da, ordea. Esperientzian, angustia bideratu beharra dago, areago, dosifikatu beharra dagoela esango nuke, angustiak murgilduta ez izateko. Honek guztiak, subjektua errealarekin –beste batean azaltzeko asmoa dudan terminoa– batzeko pareko zailtasuna dauka³.

Subjektuaren kontzeptua

Modernitatean zehar, Errenazimenduan hasi eta urte-kopuru zehatz batean hedatu izan zen garaian, subjektuaren gaiak ez zuen aldaketarik nabarmendu, nahiz eta filosofiaren erdiguneko kategoria izan. Tradizio idealista klasikoan subjektua gardentasuna bailitzan agertzen da, bera da erdigunea, substantzia, existentziarako pasabide ezinbestekoa. Berak bakarrik antola dezake existentzia; subjektu honek gauzatuta dagoena baino ez du ezagutzen, edo gauzatu gabe badago ere, jakintzaren bidez eskuragarria dena ezagutzen du soilik. Subjektu hau gogoetatsua da (Descartes, “*Metodoaren diskurtsoa*”), transzendentala da (Kant, “*Arrazoi praktikoaren kritika*”) edota subjektu psikologikoa da, areago, bereizketa egiten duen subjektua da (Hegel, “*Izpirituaren fenomenologia*”)⁴, nahiz eta bereizketa hau diskurtso arruntarekin bat ez

³ (LACAN 1973a) 40-41. orr.

⁴ (DESCARTES 1988), (KANT 1913) eta (HEGEL 1941).

datorren⁵. Subjektuaren kontzeptu klasikoak, beraz, bi funtzio hauek bornatzen dute: funtzio existentzialak eta funtzio mugatzaileak⁶. Kontzeptu honen arabera, subjektua aurretikoa den elementua da, eta abiapuntutzat har daiteke. Badiou-k, ordea, helmugatzat jotzen du: “*egiatan heldu beharra dago. Marx-en eta Freud-en garaia oinarria horretan datza, subjektua oraindio ez dagoela (izan ez dela), aurkitu beharra dagoela baizik*”⁷.

Aurkikuntza hau, Freud-en kasuan, XIX. mendearen amaieran gertatu zen, histerikoen oihu eta keinuak ikusitakoan erabaki zuenean kontua ez zela histerikoak neurosipean egon zeudela, baizik eta neurosiaren subjektuak zirena. *Inkontziente* izena ezarri zion lehen psikismoaren topika bat nagusi zen lekuari berari. Izen honen esanahia ez da ulertzen izendatze hutsaren enpiriagatik, ez gogoetaren gardentasunagatik, ezta beronen efektuen zerrendatze hutsagatik ere⁸. Inkontzientearen aurkikuntzak, gainera, zauria sortu zuen gizateriaren izaera narzisistan, zekarren deserdirapena (erdigunetik desbideratzea) jasanezina suertatzen baitzitzaion Freud-en garaiko gizarteari. “*Nia ez da gure baitaren nagusi*” esate soila eskandalagarria zen⁹, eta are eskandalagarriagoa esatea “*giza jokaera, pentsamendua eta lengoia baldintzatzen eta eragiten dituen ez da kontzientzia*”¹⁰. Baieztapen honek etena sortarazi zuen bai ordurarte ezarritako jakintzetan bai indarrean zegoen psikismoan ere. Kontuan hartu behar da, kontzientzia psikologiaren ardatza dela eta, Freud-ek zioenez, “*psikismo inkontzientearen nozioa bera kontraesanguratsua da*”¹¹. Freud-ek zioena, hitz bitan, hauxe zen: nia ezezaguna

⁵ Hegel “*Lógica*” liburuan mintzatu zen aipatu bereizketaz (“*Bereizketa, bereizi-egintza alegia, eten egindako komunikazioa da*” (HEGEL 1984)) eta Alain Badiou-k jaso zuen (“*L’acte de discerner est continuité interrompue*” (BADIOU 1982), 228. or.)

⁶ Subjektuaren kontzeptzio klasikoa ondo jasota dago Alain Badiou-ren idazlanetan, (BADIOU 1982), 294-296 orrialdeetan. Subjektuaren aldagaiztasunaz tradizio filosofikoan esandakoa jakin nahi izanez gero, ikus (BADIOU 1990).

⁷ (BADIOU 1982) op. cit. 295. or.

⁸ “*Inkontziente*”ren kontzeptua argitzeko beharrezkoa da analisiaren lan lakarra baina argitzailea, inoiz ez amaitua, analisiaren jakintzak ez baitu inoiz psikoanaliaren egia amaitarazten.

⁹ Niaren deserdiratzeak sortu zuen astinketa, Koperniko-k Lurrak unibertsoan zuen garrantzia ukatu zuenekoarekin parekatu da: “*niaren nozio freudiarrak ezuste handia sortaraziko ez balu, honen moduko erakarpenak, areago, subdukzio edo subertsioak harritu egingo gintuzke, baina horren handia da ustekabea, iraultza kopernikarraz mintza gintezkeela*”, (LACAN 1995) 12. or.

¹⁰ (FREUD 1990).

¹¹ Freud eta Lacan-en ekarpenen bidez psikoanaliaren arloan barneratzeko lan gomendagarria dugu Chawki Azouri-rena, (AZOURI 1995). Esaldi hau bertatik jasoa da.

dela¹², ez dela bera gure egintzak zuzentzen dituen, edo eta gure egitea kontzienteki gidatzen duena; nia, izan ere, inkontzienteak aginduta ari da.

Zauria Lacan-ekin areagotu egin zen, bera izan baitzen psikoanalisiaren subjektuaren teoriaren egilea. Filosofiak landuta zuen “*subjektu pentsalari*”-aren nozio klasikoa hankaz gora geratu zen Lacan-ekin, zeren eta honek esan baitzuen kontzientziaren subjektua ez dela *pentsatu* egiten duena, baizik eta berau *pentsatua* dela, beste nonbait. Lacan-en ustez, leku hau Bestearen lekua da, egia inkontzientea errefusatu den lekua. Esan nahi da pentsamenduaren lekua inkontzientea dela, eta leku horretan pentsatzen dugula; hau da, ez-gauden lekuan (inkontzientean) pentsatzen dugu, eta gauden lekuan ez dugu pentsatzerik. Modu honetan, Lacan-ek subjektu zatikatua agertzen digu, filosofia klasikoak agertzen zigunarekiko bateraezina.

Psikoanalisiaren etorrera

Filosofia klasikoaren kontrara, psikoanalisiak beste modu batera azaldu zuen niaren hausturan dagoen subjektu zatitua. Lacan-en hitzekin esateko: “*ez nagoen lekuan pentsatzen dut, eta pentsatzen ez dudan lekuan banago*”¹³. Subjektuaren zatiketa adierazten duen esaldi hau ulertzeko, Lacan-en beste ideia bat bereganatu behar dugu: “*izan ahal izateko, ahantzi egin behar da*”. Ahanzte, errepresioa beraz (hau da, dakiguna ez gogoratzea erreprimitu egin dugulako) bizirauteko ezinbestekoa da. Kontzientziak ezin dezake inkontzientearen gauza ugari bereganatu, eta ahantzi beharra du, aurrera egiteko. Ahanzturaren lekua inkontzientea da, Bestearen lekua hain zuzen.

Pentsatzen den lekuan ez dago subjektu klasikoa, kontzientziaren subjektuaren lekua ez baita inkontzientearen pentsamenduaren leku bera. Hala ere, azken

¹² Gizakiak bere buruaz duen ezjakintasun oinarrikoa Kant-ek ere aipatu zuen: “*zeren bere bihotzaren hondoa (beraren maximen lehen oinarri subjektiboa) bere buruarentzat ere kalkulaezina baita*”, (KANT 1969) 60. or.

¹³ (LACAN 1989).

pentsamendu honek giza portaerak baldintzatzen ditu sarri askotan:

“Ez nago nire pentsamenduaren jostailua naizen leku horretan; naizenekoan pentsatzen dut, pentsatzeko usterik ez dudan lekuan, alegia”¹⁴.

Esan nahi da, ez gaudenekoan pentsatzen dugula, eta leku horretatik atera behar dela subjektua, inkontziente horretatik. Edonola ere, Lacan apal agertzen zen psikoanalisiaren emaitzez esperientziaren arloan, hitz hauetan dakusakegunez:

“Psikoanalisi ez da Weltanschauung bat, ezta unibertsoaren giltza duen filosofia ere. Xede zehatzak gidatzen du, subjektuaren nozioaren eraketa deitua izan dena historian zehar”¹⁵.

Begi bistan dago Lacan-ek aurkeztu zuen psikoanalisi honek zuzenketa osoa inposatu ziola ordurarteko filosofiari, bere teoriaren arabera egia-prozesu errealei soilik eransten zaiolako, aurreko uste klasikoak hautsiz: pentsamendua ez da parekatuko kontzientzia eta ni autonomoarekin, inkontzientearekin baizik. Ez zen (eta ez da) onartzeko erraza esatea mintzo den subjektua ez dela esaldi gramatikalaren enuntziatuaren subjektua bera. Areago, enuntziatzaile den subjektua, mintzo ari dena alegia, kontraesan osoan egon daitekeela mintzatzen ari denaz, esaten diharduenaz. Lacan-ek zioenez, teoria honen froga *lapsus* direlakoak ditugu, etenak, akatsak, ametsak, sintomak... Zantzu hauen bidez inkontzientearen subjektua agertarazten ahalegintzen da egiaaren bidetik. Adibidez, esaten ari dena eta adierazi nahi dena kontrajarriak diren kasu horietan¹⁶.

Psikoanalisiak, beraz, ahantziriko edo erreprimaturiko lengoia (baina oraindik bizi-bizirik dagoena) berreskuratzea permititi dezake. Lacan-ek diosku –Freud-i jarraiki– lengoia hau ez dagoela komunikaziorako eginda, eta honen ordeztu beste proposamen

¹⁴ (LACAN 1966).

¹⁵ (LACAN 1973b).

¹⁶ Eztabaidetan sarri gertatzen da, edozein txotxolokeria dela medio liskar sutsuan murgilduta egotea, baina funtsean adierazi nahi denak ez du inolako zerikusirik eztabaidagaiarekin; bestelako egonezina kanporatzeko aitzakiaz erabiltzen da ditxosozko eztabaida, edozertaz ari bada ere, espita gisa. Honela bada, eztabaida batean, pentsatzen denaren kontrako iritzia su eta gar defendatzea gerta daiteke, norberaren benetako arrazoiak ez kanporatzearen, edo kontzientzia txarra izatearren. Halako kasuetan lerro-artean irakurtzera behartuta gaude. Bi lengoia ager daitezke batera, berben lengoia eta jokaerena, eta biak kontrajarriak izan daitezke.

bat luzatzen digu, formula batean laburbilduta: *“inkontzientea lengoia gisa dago egituraturik”*¹⁷. Inkontzientea, beraren ustez, hitzetan dago, keinuetan, begiradan, egintzetan, adierazpideetan, eta ametsetan ere bai, jakina. Ez dago ezkutaturik ezta lurperaturik ere: *“inkontzienteak ez du hondorik”*¹⁸, nahiz eta begiratu gura izanez gero, itsutzeko arriskua dagoen, Sofocles-en *“Edipo”* idazlanean gertatzen zen bezalaxe. Zeren, inkontzientea ikus ezin badaiteke ere, beronen doinua eta hizkera hel baitakizkiguke. Kanporatzen denean, gainera, dena honda dezake, zanpatuta egon ostean askatuz gero.

Lacan-ek dioenez, filosofia eta psikoanaliaren artean puntu amankomuna dago¹⁹, eta puntu horretan elkarlotzen dira egia eta okerra²⁰:

*“Egia oso-osorik azaldua ez den artean, hau da, sekula sekulorum izan arte, bere jokaera okerraren mozorropean hedatzea izango da”*²¹.

Pentsamendu hau hegeldiarra dugu. Norberaren egiaz mintzatu zitzaigun Hegel. Egitura bera mantenduz baina norberaren arabera forma eta adierazpidea aldatuz azal daiteke egia. Hegel-en filosofian egia anitzak azaltzen zaizkigu, baina Lacan-ek dioena bestelakoa da, alegia, egia horiek oker-itxuraz ager dakizkigukeela. Egia esan, ideia hau arrunt zuzena da psikoanalisian, egia okerraren asintota delako, eta inguruan dituen elementu imajinario zein sinbolikoen bidez hedatzen delako. Elementu hauek, paradoxikoki, oztopo izanik, hedadurarako beharrezko elementuak dira, eta psikoanaliak behar ditu, behar, egiaraino heldu ahal izateko²². Egia ez da psikiatraren dibanean kontatzen, ezkutaturik dago eta. Baina okerraren bidez (lapsusa, akatsa)

¹⁷ op. cit.

¹⁸ op. cit.

¹⁹ Honi buruz, aipatzekoa da Albin Michel-en edizioan argitaratu zen *“Lacan avec les Philosophes”* liburua, 34 filosofoen lan interesgarriak azaltzen dituen (BATZUK 1991).

²⁰ (LACAN 1954).

²¹ (LACAN 1954).

²² Lehen azaldu dugun adibideari helduz, aitzakia gisa erabiltzen den eztabaida oztopo izan daiteke, eztabaidagaia ez baita subjektuak benetan duen arazoa, beronen arazoa beste bat dela baizik. Hala ere, eztabaidarik gabe ezin ezingo genioke benetako arazoari heldu, krisialdi gertatu ezean ez baitzatekeen plazaratuko egonezinaren zantzurik. Beraz, elementu imajinarioak eta sinbolikoak, oztopo izanik, egiarako helbidea ere baditugu.

aurkitu egin daiteke egia. Okerra da, hain zuzen ere, jakintzarako pasabidea²³.

Mintegi berean Lacan-ek bereiztu egin zituen diskurtsoa alde batetik eta hitza bestetik. Filosofia, eta batez ere filosofia hegeldiarra, diskurtsoaren menpe dugu. Hitza, ordea, diskurtsoaren gainetik dago, gainez egiten dio diskurtsoari, psikoanaliaren ustetan. Hitza ez baita izendatze hutsa, ezta kontzientearen adierazpide soila ere, inkontzientearen adierazlea baizik, beronen lengoaia berezkoa. *“Diskurtusan, esaterako, kontraesanaren bidez bereizten dira egia eta okerra. Okerra begi-bistan jartzen da kontraesana agertzen denean”*²⁴. Psikoanalisian, aldiz, ezberdina da, inkontzienteak ez baitu kontraesana ezagutzen:

*“Guk aipatu nahi dugun eta interpretazioaren bidez aurkitu nahi dugun hitz egiazkoa, ez dago diskurtsoaren arauen pean, diskurtso hau okerraren eremuan murgiltzen baita kontraesana topatu arte. Hitz egiazkoak bestelako baliabideak ditu, beste moduak, diskurtso arruntak ez dituenak”*²⁵.

*“Freud-en berritasuna horixe dugu, une subjektiboen agerkundea, une horretan agertzen baita diskurtsoaren subjektua gainditzen duen hitza”*²⁶.

Lengoaia lacandarrak ez du kontraesanik, hau da, ez du kontraesanaren kontzeptua ezagutzen. Hitza disonantzia gisa (*lapsus gisa*) agertzen da bat-batean, sintomaren elementua delako. Inkontzientetik ateratakoa da, gaindian²⁷ aterata. Psikoanalisian hitz (keinu, egintza, adierazpide) baten agerpen gehiegizkoak (edo ezustekoak) eten egiten du diskurtsoaren subjektua.

Psikoanaliaren hitza, beraz, ez da formalismo sinboliko hutsa, edo jakintzaren diskurtsoan murgilduta (jakintzaren lengoaian) dagoen pentsamenduaren adierazle

²³ Zientzia eraikitzeko prozesuan ere, froga eta okerra ezinbesteko elementuak dira aurrera egitekotan, bai eta zalantza etengabea eta sistematikoa (gogora dezagun cartesiarren zalantza metodikoa) ere. Lacan-ek dio erreala topatzeko sufritu beharra dagoela. Amerikarrek, ordea, sufrimendua saihestu egiten zuten, moztu. Baina ez da ahanzi behar zerbait erreprimitzen dugunean subjektibitate-plusak iraun egiten duela, eutsi egiten diola.

²⁴ (LACAN 1954).

²⁵ Idem, op. cit. Badago egon, beste diskurtso mota bat, ezohikoa, aluzinatiboa alegia. Diskurtso honek kontzientziaren diskurtsoarekin moztu egiten du.

²⁶ Idem, op. cit.

²⁷ *Gaindian* digunean esan nahi dugu gune baten gainetik gaindian dagoela. Filosofo frantsesez *en exces*

soila. Hitz lacandarra egiara heltzeko forma sinbolikoa da, jakindurien hutsunea. 1973eko maiatzaren 15eko mintegian Lacan-ek esan zuenez, bere irakasgaiaren mamia enuntziatu horren baldintzak bereiztu ahal izatea zen: “*Bada izakia jakin ezin daitekeena*”, edo beste modu batera esanda, “*frogatu ezin daitekeenaz ere egiazko zerbait esaterik badago*”²⁸, eta esaldi honekin bertan behera utzi zuen filosofia klasikoaren pentsamendua, filosofia honek izena bera ukatzen baitzion frogara eta esan ezin zitekeenari²⁹.

Harantzago doa Lacan³⁰. Beronen ustez, ezin daiteke egiara ailega jakintzaren bidez, dakiguna apurtuz baizik. Legitimazioaren prozesua haustea (negarraren bidez, esaterako) gaindi baten zantzua da. Hau da, errazago helduko gara egia ezagutzera negar horren bidez (berak zabaldu duen bideari esker, esan nahi da), jakin dakigunaren hausnarketaren bidez baino.

Freud-en bi topikak

Psikoanalisi Freud-en eskutik jaio zen, eta bera izan zen subjektibitatearen teoria honen oinarriak ezarri zituen. Freud-ek burutu zuen lan teorikoan bi topika aipatu zituen: lehenean kontzientea, aurrekontzientea eta inkontzientea agertzen ziren; bigarrean aldiz, zera, nia eta supernia.

erabiltzen dute, eta ia berdinean esaten da gaztelaniaz (*en exceso*) eta ingelesez (*in excess*).

²⁸ (LACAN 1973b).

²⁹ Uste berekoa dugu Wittgenstein, berak baitzioen “*esan ezin denaz hobe da mintzo ez egitea*” (WITTGENSTEIN 1985), 203. or. Euskal esakerak zaharrak ildo beretik jotzen du: “*izenak izana du*”, izenda daitekeen guztia izan badela adierazteko. Lacan-en baieztapenak, aldiz, eten epistemologikoa egiten du esatean izengabeak ere baduela izana.

³⁰ Lacan-ek diosku izakia inkontzientean dagoela, eta ez esandakoaren ordenuan. Beraz, ez-jakiteak jakitera heltzeko modua izan daiteke. Dena den, Lacan estrukturalista dugu; bere berritasuna da egitura horretan subjektua kokatu duela. Badiou, aitzitik, ez da estrukturalista. Berak dio “*izakia ez dagoela egonean*” hau da, lekuan, egituran. Beronen ustez egia ez da sinbolizagarria; aniztasun inkontzientea da, errepresentaziorik gabekoa eta sinbolorik gabekoa, baina ezagugarria.

Lacan-ek uste du egia berrosa daitekeela aurretiko jakinduria berreskuratuz. Badiouk, kontrara, egia gerokotik sortzen dela uste du, eta ez iraganetik.

Lehen topika

Lehen topikan funtsezko kontzeptuak hauexek dira errepresioa, zentsura, pultsioa, energia askea eta energia lotua; baita inbertsio eta kondentsazio nozioak ere, prozesu primarioan eta prozesu sekundarioan parte hartzen duten elementuak baitira. Topika honetan oinarritzkoa da konstantzia-printzipioa, konstantziaren bidez aparatu psikikoa saiatzeko baita barneko kilikadura-kopurua ahalik eta baxuen mantentzen. Psikoanalisiak duen funtsezko gatazka-ideiak dinamikotasun-izaera ematen die bi topika hauei. Gatazka hauexek, Freud-en ustez, inkontzientea sortarazten duena da: alde batetik kontzientziaren, eta bestetik kontzientziarekin bateraezinak diren errepresentazio-multzoen arteko gatazka da dinamika sortarazten duena. Biziera psikikoaren haustura, beraz, psikismoaren barneko gatazkaren emaitza da, eta gatazka hau berau dugu gizakiaren ezaugarri behinena eta aparatu psikikoaren sistema ezberdinen artean agertzen da. Gatazka honen kanpoko adierazpena sintoma da.

Sintomaren bidez, ihes doakion baina, aldi berean, nola edo hala agerian azaltzeko gogo duen egiaren formulazioa egiten saiatzeko da subjektua. Egia hau sarri askotan lotsagabea da, eskandalagarria, bai jakintzaren ordenu ezarria eta bai onarturik eta indarrean diren errepresentazioak ere hankazgora ipintzen dituelako, irauli egiten dituelako. Egia hau nahastatzailea da; lehenengo eta behin, eta batez ere, subjektuak duen ezagutzarekiko nahastatzailea delako (eta horrexegatik subjektuak azaltzen du errefusatzeko joera, ahazteko joera), eta ondoren, oinarri-oinarritzkoak diren giza arloak inguratzen dituelako: sexua, amore emateak, traizioak, ideiak, baloreak, etab. Sintoman hiru elementuren arteko konpromezua agertzen da: lehenik desira inkontzientea (*zera*), subjektuak onartua izateko borrokan diharduena; bigarrenik indar errepresatzaile eta zentsuratzailea (*supernia*), eta hirugarrenik pertsonaren eskaera ideala, isiltzeko gogo inposatzen duena (*nia* da, ni hautsia; inkontzientea du Ni Idealaren aldetik, eta kontzientea du beste aldetik).

Gure ikerketarako garrantzitsua da prozesu primarioen garapena aztertzea. Inkontzientean pentsamenduak (ideiak, errepresentazioak) eta afektuak (subjektuaren barne-gatazkaren ondorio gisa sortu eta energia psikiko zehatza duten afektuak)

elkartu egiten dira; afektu edo sentsazio hauek mugikorrek dira, eta mugimenduan egonik ideia batzutatik bestetara doaz. Subjektu inkontzientearen ezaugarria da, hain zuzen, ideia hauek (afektuei loturikoak) ez datozela bat gatazkak sortaraziko sentipenekin (*afekzioekin*), eta batzuen eta besteen arteko banaketa mantentzen dela, sufrimendua luzatuz. Etengabe aldatzen ari diren ideiek eta figurazioek hondatu egiten dute subjektua, arrunt urragarriak eta kontrolenezkoak diren sentimenduen pean. Errepresentazio afektibo hauei Spinozak “*ideia erratuak*” esaten zien, ez baitzetozen bat gatazka martxan jarri zuten gertakizun garrantzitsuekin.

Beste zenbaitzuetan, energia afektiboa ideia zehatz batean laburbiltzen da, hauxe ere jatorrizko energia afektibotik urrun, eta modu honetara sortzen dira pertsona angustiatuek izaten dituzten agerpen obsesiboak³¹. Freud-ek azterturiko esperientzietatik honako ideia hau atera zuen, alegia, errepresentazioaren eta berau estaltzen duen afektuaren artean banaketa dagoela. Osasunbidea, beraz, ahantziriko lotura berreskuratzean datza: berriz elkarlotu behar dira gogoramena, gertakizun traumatikoaren errepresentazioa eta berauekin batera joan den afektua.

Bigarren topika³²

Bigarren topikari Freud-ek zera, nia eta supernia bereizten zituen. Topika honetan nia deserdiraturik dago, lehenengo topikaren elementuekin (aurrekontzientea, kontzientea eta inkontzientea) uler ezin zitezkeen fenomeno psikikoak azaldu ahal izateko. Topika honetan nia hil eta biziko pultsioen objektua izan daiteke, eta beraz,

³¹ Afektu, ideia eta energia gauza beraren aurpegiak dira, eta beraien arteko mugikortasunak arindu egiten du presio psikikoa. Obsesiboak, aldiz, ez du mugikortasunik, eta afektua edo eta ideia bere horretan mantentzen ditu. Paranoikoak ideia finkoa du, Ni Ideala oso indartsua baitauka. Eskizofrenikoaren egitura psikikoa mugikorragoa da, aldagaiak sartzen bait ditu. Fobia, energiaren babes-mekanismoa da. Azkenik sublimazioa dugu: gizartean onarturik dagoen objektuari (egintzari) esker energia bideratzen denean.

³² “*Freud-en bigarren topikaren sorrera, ni zahar eta maitearen itzulera gisa izan zen ulertua; testu batzuek, aztertzaile hobereenen testuek izan ere, halaxe diote, bai eta Anna Freud-en babes-mekanismoek ere, hamar urte beranduago idatzitakoak. Esan beharra dago, aztertzaileen iritziz, nia ez beste gaiaz arduratzea horren esperientzia estrainioa zen, ezen niaz arduratzea debekutzat hartzen baitzuten (...) Begi-bistakoa da. Freud beti arduratu zela niaz, eta funtzio honek beti bereganatu zuela beraren interesa, subjektuaren kanpoko zen neurrian*”, (LACAN 1995) 95-96. orr.

nolabait inkontzientea da, narzizismoan, errudun-sentimenduetan eta malenkoniaren autoirainetan ikusi ahal izan zuenez; niaren idealean sor daitezkeen identifikazio desberdinen ondorioz azalduriko instantzia berrietan ere ikusi zuen ni inkontzientea³³.

Freud-en ustez, niaren funtzioa da zeraren pultsio-eskaerak alde batetik, eta bestetik superniaren eskaera moral eta kritikoak moldatzea, bai eta kanpotiko errealitatetik datozkion eskaerak ere. Ikuspuntu dinamikotik ikusita, errepresioaren eta beste babes-mekanismo batzuen eragilea da nia. Beste modu batera esateko, nia inkontziente eta kontzientearen arteko hesia da.

Zera dugu norberaren nortasunaren indar ezezaguna eta ez menperatua. Aparatu psikikoaren pultsio-muturra da, kaotikoa, berezko antolakuntzarik gabekoa, pultsio kontrajarriak baina beraien artean bateragarriak barnean onartzen dituelarik. Lehen topikan inkontzientea funtzionarazten zuten prozesu primarioek beraiek arautzen dute zera. Zera da subjektuak menperatzen ez duen aldea; leku ezezagun, ilun eta indartsutik datorrena. Pertsona batzuek diotenez: “*Bat-batean ailegatu zitzaidan zera ni baino indartsuagoa zen*”.

Supernia dugu niarekiko epaile gisa diharduen instantzia. Gizarteak ezarritako arauen arabera jokatzeko, subjektuari inposatzen dion kontzientzia morala da. Teoria freudiarrean, supernia gurasoen debekuak barneratzearen ondorioz sortzen da, eta oinarritzko elementu egituratzailea izaten da umearen nortasunaren garapenean. Ildo honi jarraituz, Freud-ek zioen “*superniaren ezarpena gurasoekiko identifikazioaren gauzatzetzat jo daitekeela*”.

Superniaren instantzia sinbolikoa beste irudi sinboliko batekin osatzen da, Niaren Idealarekin, alegia. Niaren Idealaren bidez hautsi egin zen lehenengoz ordurarte indarrean zegoen niaren nagusitasun kontzientea. Lehen esan dugu, supernia gurasoen debeku eta eskaerak barneratzearen ondorioz ezartzen dela, teoria freudiarren arabera,

³³ Une honetan bereiztu beharra dago *Ni Ideala* alde batetik eta *Niaren Ideala* bestetik. Ni ideala arlo imajinariokoa da, norberak bere buruaz duen irudia. Irudi hau mindu egin daiteke eta orduan malenkonia senti dezake, edo autoirainak egin bere buruari. Niaren Ideala, ordea, arlo sinbolikokoa da: besteengan isladatzen du berak izan nahi lukeena, baina harrapaezina zaiona.

bada, Niaren Ideala gurasoak eredutzat jotzearen ondorio gisa ezartzen da. Superniaren funtzioa debekatzea da (“*ez duzu horrelakoa izan behar*”); Niaren Idealarena, ordea, onartze-identifikatzea da (“*horrelakoxea izan behar duzu*”). Niaren Idealaren funtzio honek erraztu zion Freud-i masen egituraketari buruzko zenbait gertakari (liderrarekiko identifikazioa esaterako) ulertzea. Era berean, Niaren Ideala niarengandik eta superniarengandik bereizteak maitasunezko gertakariaren funtsa ulertzen lagundu zion, maitasunaren objektua idealizaturik egoten baita.

Superniaren errepresentazioen debekua eta beraren onarpena lotuta daude modu askaezinez. Instantzia sinboliko honen (eta zentsuraren) funtzioa ikaragarria da: subjektua berarekin identifikatzea eta modu honetan barneratzearen prozesu sinbolikoa gauzatzea. Boterearen jokaera errepresionatzailea, bakarrik ulertzen da (eta osatzen du bere funtzioa) ondorengo jokaera ulerkor eta barneratzailearen argitan³⁴. Horrexegatik, subjektuaren prozesu sinbolikoa bitan banatuta dago, alde batetik barneratze errepresionatzailea du (supernia) eta bestetik barneratze identifikatzailea (Niaren Ideala), bereganatzeko helburua daukana.

Lacan-en ekarpenak

Freud-ek egin zuen baieztapen iraultzaileak (“*nia ez da baitaren jabea*”³⁵) azken muturreraino eraman zuen Lacan-ek. Freud-en ostean egiaztapen hau ahantzia izan zen, baita psikoanalistek ahantzia ere, Estatu Batuetan batez ere. Han bertan sortu zen joera neofreudiarrak (hobe freudiar-aurkakoa esango bagenu) berriz ere ematen zion niari leku nagusia. Teorian, niaren sendotze honek “ni autonomoaren” kontzeptua ekarri zuen, eta berriro ere itzuli ziren psikoanalistak Freud-en aurreko tradizio psikologikora. Praktikan, psikoanalisiak gero eta antz handiagoa hartzen zuen terapia ortopediko

³⁴ Azenarioaren eta zartadaren politika da. Errepresioaren helburua ez da jotzea jotze hutsagatik, jokaerak aldaraztea baizik.

³⁵ Hau da, nia ez da kontzientziaren lekua, edo bestera esateko, nia ez da kontzientziaren jabea.

batekin, ingurunearen ideologiari egokituta berriz ere, subjektuaren tratamendu askatzaileari egokituta baino. Analisia, egokitzapenerako teoria bihurtuta zegoen³⁶. Behar-beharrezkoa zen instituzio analistarekin etetea. Haustura bereziki errotikoa izan zen Frantzian, Lacan eta beronen teoriaren eskutik Freud-enganako itzulera proposatu baitzen, Freud-en printzipioak berreskuratzea alegia. Lacan-en eta IPAren (International Psychology Association) arteko elkar-ulertzea ezinezkoa izan zen. Lacan-ek arrakalatu egin zuen ni autonomoaren teoria eta kolokan jarri zuen analistarekiko identifikazio-beharra, gaixoa sendatzeko metodo gisa. Desegite honen gailur teorikoa, inkontzientearen subjektuaren teoria izan zen.

Esperientzia klinikora ahalik eta gehien hurbiltzearen, eta subjektuaren funtzionamenduaren korapiloa askatzeko asmoz, Lacan-ek imajinario-sinboliko-errealaren trilogia hartu zuen oinarri.

Funtzio imajinarioari dagokionez, kolokan jarri zuen ni autonomoaren nagusitasuna, niaren dimentsio imajinarioa agerian ipini ostean. Dimentsio sinbolikoaz gain (Niaren Ideala), Lacan-ek dimentsio imajinarioa (Ni Idealaren jaiolekua) ispiluaren fasearen bidez gauzatu zuen. Nia –jakintzaren eremua ustez–, ezjakintzasunaren lekua baino ez da, daukan dimentsio imajinarioaren erruz. Ni Idealaren teoria honi esker, giza portaera asko ulergarri agertzen dira, hala nola, maitasunaren erakarpena, agresibitatea, areriotasuna, jeloskor jotzea edo begikotasuna; bai eta klinika psikoanalitikoaren eremuko portaerak diren narzizismoa eta psikosia ere.

Ni Idealaren instantzia imajinarioak berebiziko betekizuna jokatzen du angustiaren prozesuaren garapenean. Ni imajinarioa salbatzeko –edo galdutako identifikazioa berreskuratzeke– subjektuak eraikitzen dituen babesak eta mekanismoak, osagai beharrezkoak dira prozesu honetan, baina beharrezkoak izateaz gain, prozesua

³⁶ Psikoanalista iparramerikarren helburu nagusia gaixoa gizartean birsartzea zen. Indibiduo “normalak” lortu nahi zituzten, eta indibiduo horiek antz handia zuten psikiatrarekin, identifikazio pertsonalak bilatzen baitziren maizegi. Transferentziaren kontzeptua funtsezkoa da. Freud-ek bere lehen idazkietan, transferentzia afektuaren lekualdatze edo errepresentazio batetik besterako iragaite fenomenoarekin lotu zuen. Baina hitzak benetan hartzen du bere ezaugarri psikoanalitikoak, osatze bitartean aztertzailearen eta azertuaren artean erlazio-egitura bat izendatzen duenean. Freud-ek transferentzia-neurosiak eta neurosi narzizistak bereiztu zituen; aurrekoak barneko edo kanpoko

luza dezakete, sufrimendua iraunaraziz. Joseph Conrad-en³⁷ nobeletako pertsonaia asko daude murgilduta beren nortasunen idealismo honetan. Ustez beren izaki nagusia zen hura kolpaturik suertatzen denean –*“The Red Badge of Courage”* nobelaren pertsonaia nagusiari gertatzen zaion bezalaxe–, efektu psikiko berria sortu eta efektu honek baldintzatzen ditu beren gorabeherak. Giza imajinarioaren erdigunean, bete-betean jaso duten kolpeak iraunaraziko du beren sufrimendua, zoratzeko zorira eramateraino, noraezean ibilaraziz bizitzan zehar, hunkigarriki.

Ispiluaren faseari esker umeak identitatearen lehen mailaren kontzientzia eskuratzeko aukera izango baldin badu ere, lengoaiaren munduari esker (sinbolikorako hurbilpenari esker) sendotuko du identitatearen baieztapena. Freud-ek zioen, hurbilpen hau jatorrizko errepresioa dela, inkontzientearekiko esentziala dela; Lacan-ek, ordea, subjektu psikoanalitikoaren gertakizun sortzailea bailitzan garatu zuen lengoaiarako irispide hau, eta zenbait kontzeptu linguistiko erabili zuen: aitaren metafora, metonimia,ifikanteak eta objektua^(a).

Lacan-en definizioaren arabera, inkontzientearen subjektua sortzen da objektua eklipsatu egiten denean subjektua zatikatzean. Honela bada, objektu nagusia (ama) desagertu ondoren, subjektu desiratzailea sortzen da; honez gero ez da Bestearen desira-objektu hutsa izango, eta, beraz, subjektu bilakatuko da. Prezio bikoitza ordaindu beharra dauka subjektu honek: alde batetik bere zatikatzearen ordainez berezko zati bat inkontzientera zuzendu beharko duelako; eta beste aldetik, objektu funtsezkoari uko egiteagatik betiereko galera pairatuko duelako. Ordezko objektuak sortuko dira, eta berauek sinboliza ditzaketen ifikanteak ere bai; baina desira iraunkorki manten dadin, ezinbestekoa izango da, galduriko objektu nagusiarekiko desberdinak izatea. Lacan-ek honelaxe azaldu zuen:

“Sinboloa, lehenik eta behin, gauza baten erailketa dugu, eta

objektuetan, objektu erreal edo imajinarioetan egiten den libidoaren proiektzioak definitzen ditu.

³⁷ Aurrerago ikusiko dugunez, Joseph Conrad subjektibitatearen idazle handia dugu, eta beraren lanaz luze jardungo dugu atal honetan bertan.

*honek heriotzak eratuko du desiraren betiketzea subjektuaren-tzat*³⁸

“*Inkontzientea lengoaia gisa dago egituraturik*” zioen Lacan-ek, eta lengoaia honen irudi linguistikoak metafora eta metonimia dira. Metaforan, *faliko* signifikantearen ordeztan *aitaren izena* signifikantea agertuko da. Metonimian, ordea, subjektuak zatia desiratuko du (ordezko objektua, alegia), osoa desiratu ordeztan (galduriko objektua). Errealak, aitzitik, sinbolizaziotik kanpo dagoena da, eta, beraz, formalizaziorako desegokia dugu. Ildo honi segituz, honakoa esaten zuen Lacan-ek: “*errealak ez idazteari eusten dio etengabe*”³⁹. Eta halaxe da, esaterako, angustiatuarekin gertatzen dena, bere burua mugatuko (eta ulertaraziko) duen zerbaiten bila etengabe ari baita, eta aldi berean signifikantetik (sinbolotik, bera inguratu nahi duen lengoaiaren mundutik) ihes egin nahi du, baina ez du lortzen ihes egiterik. Zirkulu zentrokideetan jirabiraka dihardu, ezezaguna zaion zerbaiten aurka ari dela, ez idazteari ekin eta ekiten diona, eta “*behin eta berriz leku berberera itzultzen da*”. Freud-ek agerian utzi zuen, badela errealitate psikikoa, nahas ezin daitekeena ez barnebehaketa psikologikoaren barneko errealitatearekin, ezta kanpoko errealitatearekin ere; errealitate psikiko honek gune homogeen eta errealak osatzen du, berez. Gune hau inkontzientearen formazio guztien azpian kokatzen da, eta beste elementu batzuk erakartzen ditu: idealaren (edo superniaren) eskaeren ondorioz errefusaturik suertatzen diren elementuak erakartzen ditu bereganak.

Korapilo borromeoa

Subjektuaren hiru instantzien elkarlotzea aztertu zuen Lacan-ek zehaztasunez: errealak, imajinarioa eta sinbolikoa. Elkarlotze honen irudia ez da katea, korda baizik, korapiloa; hiru elementuak estu-estuki lotzen dituenari **korapilo borromeoa** izena eman zion Lacan-ek. Korapiloa hain da halakoa, ezen txirlora baten askatzeak


³⁸ Azouri-ren liburutik jasota, op. cit. 95 orrialdea.

³⁹ Hau da, errealak ez da idazten, ez da agerian jartzen, ez da ikusgarria, eta gainera ezaugarri horiek iraunkorrak dira, hots, etengabe dirau idazteke, inoiz gelditzen ez den egintza da, ez-idatzia izatearena alegia.

multzoaren sakabanaketa baitakar⁴⁰. Hiru instantzien lotura eta besteekiko kontsistentzia erakusteko modu topologikoa da korapiloa.

“Korapiloaz baliatzen baldin banaiz, honegatik da, alegia, hiru hauetatik (erreal, imajinario eta sinbolikotik) jatorrizkoa den zerbaitek kontsistentzia bera daukalako. Horrexetarako sortu dut korapilo borromeoa, nire praktikari arrazoia emateko. Kontsistentzia bera, bere horretan islatzea inoiz ez da egin. Nik bai islatu dut, eta berau agerian ipintzeko korda eskaini dut⁴¹”.

Korapilo honetan Imajinario (edo Ni Ideala), Sinbolikoa (edo Supernia) eta Erreala batzen dira. Erreala indarra da, Freud-en zera, egia-prozesua abiaraz dezakeen egoera, gertakizun batean gizakiak aurkitzen duen errealitate gordina, alde batera edo bestera ekitera bultzatzen duena.



Kontsistentzia imajinarioa

Lacan-en kontzeptualizazioaren arabera, Ni Ideala da norberak bere buruaz duen irudi ideala. Niaren Ideala, aldiz, beste zerbaitengan (norbaitengan) egiten den proiektzioa da, eta Ni Idealaren gabeziak bultzatutakoa da. Niaren Ideala kanpokoaren arlokoa da. Azkenik, Erreala egia da, inkontzientea, jakintzekiko gainezkadura⁴².

⁴⁰ “1972eko otsailaren 9ko mintegian zehar bira berria sortu zen, Lacan korapilo borromeoaz lehenengoz mintzatu zenean. Afarian zehar, eta Valérie Marchaud matematikari gaztearen bidez, Borromeo familiarren harmarriaren berri jaso zuen. Milan-go familia horren harmarria hirusta-forma duten hiru zirkulok osatzen dute, hiruko aliantza baten sinboloa. Eratzun bat kenduz gero, beste biak aske geratzen dira, eta zirkulu bakoitzak men egiten dio familiarren hiru adarren botereari”, (ROUDINESCO 1995) 529. or.

⁴¹ LACAN, 1974-75 urteetako Seminarioak.

⁴² Ikus dezagun zehatzago zer dioen Lacan-ek errealaz “Au-delà du Principe de réalité” (“Errealitatearen printzipiotik haratago”) atalean, argigarria izan daitekeelako: “Egiak, bere balore espezifikoa, estrainio dirau zientziarekiko. Zientzia harro ager daiteke egiarekiko dituen aliantzez;



Kontsistentzia sinbolikoan Estatua da nagusi, eta honen indarpean eratzen dira beste indar guztiak.

Kontsistentzia imajinarioa eta sinbolikoa grafikoki adieraz badaitezke ere, kontsistentzia errela irudikatzerik ez dago, lehengo eta behin kontsistentzia ere ez delako; hau da, ez du egonkortasunik ezta orekarik ere. Errealaren txirlora nagusi denean, sinbolikoa ia-ia desagertu egiten da, arauak, mugak, estatua eta inposaketak ez baitira nabarmenak indibiduoarentzat errealaren arloan murgiltzen denean. Imajinarioa ere ez da agerikoa, albokoa baita nork bere buruarekiko duen irudia bestelako lehenetasunak indarrean daudenean. Errealean nagusi dira berritasuna, gertakizuna, egia, sormena, inkontzientea.... Bi arlo hauek beraz (sinbolikoa eta imajinarioa), ez dute eragin berezirik hasiera batean. Geroago bai, egia horren argipean indibiduoak erabakitzeke tenorean azaltzen denean, angustiak jota, orduan kontsistentzia batera jo egin beharko du, kontsistentzia sinbolikora superniaren atzaparretan jausi izan bada, ala imajinarioaren kontsistentziara bere inguruetxo berria sortarazi badu.

Lacan-ek korapiloa sortu zuen, *de facto* egiten ari zena azaldu ahal izateko. Psikoanalista izanik, gaixoak beste modu batera tratatu nahi zituen. Berak jakin

objetu gisa egiaren fenomeno eta balioa har ditzake; baina inola ere ezin du berezko probetxurako identifikatu (...) non dago ziurtasuna (zertidunbrea), ezagutza mistikoaren froga, non nabarmentasuna (ebidentzia), espekulazio filosofikoaren oinarria, non kontresan-eza, eraikuntza enpiriko-razionalistaren eskaera apalena? Hurbilago gure adimenerako, esan ote dezakegu jakintsuak bere buruari galdetzen dion ortzadarra, esaterako, benetazkoa den ala ez? Axola zaion bakarra da fenomeno hori lengoaiaren batean komunikagarria izatea (ordenu mentalaren baldintza), formaren baten pean erregistragarria izatea (ordenu esperimentalaren baldintza) eta identifikazio sinbolikoen katean sartua izatea, zientziak bertan batzen baitu berezko objektuaren aniztasuna (ordenu razionalaren baldintza). (...) Zalantzarik gabe, egia agerian jartzen deneko bideak kalkulaezinak dira...”, (LACAN 1966) 79-86. orr.

bazekien paranoiko bat (gauza bera neurotikoei dagokienez) guztiz sendatzerik ez dagoela. Osa ezin bazitzakeen ere, ahalik eta hoberen bizi zitezten lortu nahi zuen, eta batez ere, angustia ekidin. Angustia ikustezina bada ere, jasanezinezkoa da epe luzera. Nola edo hala saihestu egin behar da. Batzuetan errealeraz joaz, besteetan sinbolikora. Errealak hil lezake gaixoa (egia gordinegia, ankerregia da-eta) eta sinbolikoa ere ez da irtenbidea, errepresionatzaile hutsa izanik gaixoa zaputz dezakeelako. Zein zen irtenbidea? Nola lortu kontsistentzia bat (denboran iraunkorra) errealetik eta sinbolikotik kanpo? Erantzuna kontsistentzia imajinarioa izan zen. Angustia desagertuko ez bazen ere, arindu egingo zuen behinik behin⁴³.

Beraren ustez, imajinarioaren arlokoa izan beharra zuen kontsistentziak, ez errealararen arlokoa. Subjektuaren eraketan hiru txirlora hauek (errealararena, imajinarioarena eta sinbolikoa) batu baldin badaitezke, imajinarioaren agindupean egoteari esker lor liteke kontsistentzia berria. Imajinarioak (Ni Ideala) ahalbidetuko zuen korapiloa egin ahal izatea. Ez zen izango txirlora bat gehiago soilik, baizik eta hirurak lotu eta koherente (kontsistente) egingo zituena. Kasu honetan, gainera, funtzio imajinarioak erreala bailitza jokatzeko du; hau da, efektu errealak ditu egoeran eta inkontzientearen subjektuaren garapenean. Imajinarioa mantenduz, subjektuaren mugimendua sostenga daiteke. Hau berau ikus dezakegu conradiar pertsonaia zenbaitengan eta, kemena agertu aurretik, Craneren lanaren subjektuarengan ere bai. Baina ikus dezagun nola formulatzen duen Lacan-ek imajinarioaren kontsistentzia delakoa:

“Erreala da (esan nahi du “egia dena da”) hirurekiko amankomuna den zerbaitek egon beharra duela. Hala ere, korapiloa egin ahal izatean datza soilik kontsistentzia; baina, korapilo bat erreala al da?⁴⁴ Hor datza gakoa...

Guk (psikoanalisian esan nahi du) erreala ezin genezake sar kontsistentzian⁴⁵. Kontsistentzia, beraren izenaz deitzearen, imajinarioaren arlokoa da. Historian zehar luze frogatzen dena, eta

⁴³ Ezinbesteko baldintza ahanzteak zen. Lacan-ek dioenez, “*ahanztea ezinbestekoa bizirauteko*”.

⁴⁴ Hemen esan nahi du, “*korapilo batek erreal baltz bezala jokatu ahal ote dezake?*”.

⁴⁵ Erreala ezin sar genezake modu iraunkorrean, krudelegia baita, ankerregia, eta gaixoa hiltzeraino eramanez. Erreala eta egia mingarriak dira.

gu zuhur jokatzera bultzatu behar gaituena honako hau da, dagoeneko frogatua izan den kontsistentzia oro imaginazio hutsa izan dela.

Imajinarioa existitu ahal izatea lortu baldin badezakegu, orduan beste erreal bat izango da. Nik diot, zentzuaren efektua ek-sistitzen⁴⁶ dela, eta hori erreal dela. Ez da apologiaren arlokoa, kontsistentziarena baizik, kontsistentzia imajinarioarena ezbairik gabe, zeren, antza denez, egon baitago funtzio imajinarioaren eremu ohikoa, iraunkorra bera, eta mantendu egiten baita⁴⁷.

Horrexegatik gehitu zuen Lacan-ek:

“Fikzioa egiaren egitura gisa azaltzen da, hain zuzen”⁴⁸.

Kontsistentziaren kontzeptu lacandarra mugatuegia da. Egia esateko, Lacan-ek zituen beharrizanengatik eta psikoanalisiaren beraren beharrizanengatik ere, ezin zen harantzago joan; ezin zuen sinbolikoaren eremupean dagoen korapiloaren kontsistentziatik baino harantzago jo hain zuzen ere. BATaren eremupean ziharduen oraindik orain, eta eremu honetan, egiturazko dimentsioaren baitan dirau koherentziak⁴⁹.

“Honen guztiaren metafora onena dugu korapilo borromeoa, gu BATetik baino ez gatozena”⁵⁰.

Subjektuaren prozeduran, beraz, korapiloaren batasuna mantentzen da bai fikzio bati esker (imajinarioa), bai sinbolikoaren nagusitasunari esker ere (BATaren inposaketa). Erreal dugu aurreko bien menpeko existentzia hutsa, ezarritako ordenua

⁴⁶ Heideggerren kontzeptua dugu hau. Esan nahi du zentzuaren efektua existitzen denaren gainetik, at, gainezka dagoela.

⁴⁷ 1974-75eko Seminarioak. Lacan-ek nahi zuen iraunkorra den zerbait lortzea, nahiz eta imajinarioa izan, erreal balitz bezala jokatzuz. Munduan bi funtzio baino ez daude, sinbolikoa (denok beti gaudeneko lekua) eta erreal (batzuek batzuetan bere burua kokatzen duteneko lekua). Lacan-ek zerbait desberdin sortu nahi izan zuen, imajinarioa eta kontsistentea. Bere sorkuntza korapiloa da. Paranoikoak eta neurotikoak berriz ere mundu errealerantz itzultzen ez behartzeko, imajinario iraunkorra planteatu zien, errealetik deus ere ez duena. Kontuan hartu behar da, gaixo hauen egoera zein den; ni indartsu eta egozentrikoa dute eta guztiz berekoiak izaten dira. Itxuraz angustia ekiditea lortu dute, baina gutxien espero denean itzul dakieke berriz ere angustia. Lacan-ek uste zuen, gaixo hauek angustian mantentzea daitezkeela, baina berau arinduz. Finean, idealista izan zitezela planteatzen zien: ideal batean ezar zezatela beren kontsistentzia, errealetik kanpo eta oztopoak ekidinez.

⁴⁸ Lacan-en aipu hau Badiou-k jaso zuen (BADIOU 1985), 14. or.

⁴⁹ Lacan estrukturalista izan zen halabeharrez, eta ez zen egituraren eremutik aldendu.

⁵⁰ (LACAN 1975).

bermatzeko. Kontsistentzia mota hau sozialismo errearekin konpara dezakegu: instantzien batasuna fiktizio batean gauzatzen zen, utopia batean (komunismoa), eta bertan ikus zitekeen Estatu menperatzailearen egitura, zeinen pean erreala kokatzen baitzen, populazio desubjektibatuaren pasibotasunean murgilduta (izaera errepressionatzailea eta aldi berean izaera biktimista agertzen zituen pasibotasuna). Badiou-k dioenez, Lacan-en ustez “*subjektua, errepikapen kontsistentea da, non erreala baita*”, baina Badiou-ren aburuz egituraren arlotik kanpoko subjektu osoa “*kontsistentzia destruktiboa da, eta erreala gain-ezka dauka*”⁵¹. “*The Red Badge of Courage*” nobelan ere protagonistak azken kapituluan kemena (erreala gaindian) agertu zuen, eta gainezkadura horrek desegin zion bere irudi ideala, bai eta inguruneko mundu sinboliko eta zanpatzailea ere. Zergatik? Subjektu osoak darabilen kontsistentzia justizia-prozesu errealean kokatzen delako, eta prozesu honetan sinbolikoa gain-dituta izaten delako batetik, eta imajinarioa errealaren pean ezarrita egoten delako bestetik, BATa erdibitu eta BIA sortu ostean. BIA mantentzea izango da prozesu errealaren xedea. Komunismoa mugarik gabeko erreala izan zen, egia-prozesua, non subjektu erdibitu⁵² bat (egoera eta Estatua etengabe apurtuz) denboran eraikiz joan zen, imajinario baten laguntzaz baliatuz. Imajinarioa (irakur bedi “klase soziala”, “nazionala” edo beste edozein instantzia) euskarri gisa erabili zuen, horixe baita imajinarioak errealean duen funtzioa, hots, sostengua izatea.

Supernia eta Angustia

Freud-en lehen teoriaren arabera, angustia da pultsio sexualen errepresioaren emaitza, hau da, insatisfakzio baten fruitua, eta gainetik kendu ezinezko tentsio libidinoso gisa agertzen da. Geroago iritiz aldatu zuen Freud-ek, eta alderantziz zela deliberatu zuen, hau da, errepresioa dela, hain zuzen, subjektuaren angustia arintzeko tresna, hots, subjektuaren beraren barneko instantzien arteko gatazka arintzeko

⁵¹ (BADIOU 1982), 255. or. Gaztelaniaz esateko, “ex-cede” edo gainezka egiten duela. Honekin esan nahi da ez dela nahikoa existitzea (bizirautea), baizik eta beharrezkoa dela erdibitzea (esziditzea), apurtzea (eta norberaren buruarekin haustea ere) eta imajinarioa zein sinbolikoa alde batera uztea.

⁵² Hemen ere kontzeptua da “subjektu ex-cindido bat”.

erraminta. Ikuspuntu honetatik ikusita, angustia zantzua da, eta subjektua jakinaren gainean ipintzen du, esanez, egoera eznormal hau alde aurretik bizi izan duela, arriskutsua dela, eta babeserako zenbait mekanismo berezko erabiliko duela niak, egitura neurotikoetik hartutako mekanismoak. Ildoari jarraiki, beldurra eta angustia bereiztu beharko genituzkeela diosku Freud-ek. Beldurra izaten denean, benetako arriskua izaten da aurretik, arrotza den arriskua, kanpotikoa, eta babes-mekanismo gisa azalarazten da beldurra. Aldiz, barneko arrisku (subjektibo) bat somatzean piztarazten da angustia, ageriko arrazoirik gabe, zeraren pultsio-eskaera batek piztua eta superniaren debeku batetiko gatazkan. Gatazka honek sortarazten du angustia, eta berau da errepresioaren eta babes-mekanismoen motorea. Edonola ere, beldurra angustiarik egon gabe sor badaiteke ere (berarekiko independentea baita), angustiak aldiz bai sortaraz dezake beldurra, subjektuaren barnekoa den beldur subjektiboa, barne gatazkak berak sorturikoa baita. Klinika psikoanalitikoan jomuga desberdina agertuko du errepresioak, histeria izan, neurosi obsesiboa izan ala neurosi fobikoa izatearen arabera.

Ikus ditzagun orain supernia eta angustiar buruz Lacan-ek egindako testu garrantzitsuenak, bata zein bestea elkarloturik baitaude, ikusi izan dugunez.

Supernia

“Superniak zerikusia du legearekin, eta aldi berean zentzugabeko legea da, legea bera ez baitu ezagutzen. Horrelaxe eragiten du beti superniak neurotikoarengan. Zergatia izango ote da neurotikoaren morala zentzugabeko morala dela, ezabatzailea, zanpatzaile hutsa, ia beti legearen aurkakoa dela, eta azterketa egiterakoan horrexegatik izan dela beharrezkoa superniaren funtzioa sortzea?

Supernia legea eta beronen ezabaketa da aldi berean. Hitza bera da, legearen nagusitasuna, sustraia baino ez baitaio geratzen. Azaldu ere ezin daitekeen zeredozertaraino murrizten da legea, adibidez Zuk Behar Duzu moduko esaerara, ez bururik ez hankarik ez duen esaerara. Modu honetan, supernia subjektuaren esperientzia primitiboetan dagoen suntsitzaileenarekin, erakargarrienarekin identifikatzen da finean. Supernia identifikatu egiten da, azkenean, irudi basati delakoarekin, hau da, antzinako traumatismoei (edo umeak pairatu izan dituen bestelakoei, edozein direla ere) loturiko

irudiekin”⁵³.

Supernia, legearen⁵⁴ alde zentzugabekoa da, beldurgarria, areago oraindik, legearen beraren bortxaketa, ezezagutza edo arbitrarietatea da. Supernia ez da antzematen soilik neurotikoaren kasuan (psikoanalisian alegia), baizik eta baita politigintzan eta giza ordenuan ere, superniak dituen neurotismo, opresio, izaera suntsitzaile eta ez-legala direla medio.

Supernia, legea eta beronen suntsiketa da. Esan nahi da, legea eta aldi berean ez-legea dela supernia, bortxa hutsa, gehiegizko araua, errepresionatzailea, izutzailea, absolutizatua, hondatzailea, subjektiboa. Hitza bera da supernia, aginte hutsa, haatik, printzipioz obeditu behar dena. Boterea da supernia, eskualdia, legearen zuzendaritza, hots, legea bere erroetan, jatorrian, eta berorren muina botere inposatua da, edozein legeren sorrera den hori. Legea, beraz, aginduzko modura azaltzen da, absurdu gisa: *“Egin Behar Duzu (hauxe edo bestea) nik neuk agintzen dudalako”*⁵⁵. Autoritate-printzipioa da⁵⁶.

Supernia aita autoritarioa da: *“nik agintzen dut”* esaten duena, *“arrazoia izan ala ez, neu naiz aita eta neuk daukat boterea”*⁵⁷.

⁵³ (LACAN 1975) 119. or. Honekin esan nahi da supernia ez dela, berez, logikoa edo arrazionala, zentzuduna edo zuzena. Supernia ankerra izan daiteke, injustua, ezlogikoa eta arbitrarioa: “hauxe egin behar da, nik esaten dudalako”, ez dago beste arrazoirik edo zuzentasunik aginduan. Irudi hau haurtzaroan bizi izandakoarekin lotzen da indibiduoaren gogoramenean.

⁵⁴ Legea hitza zentzu zabalean hartuta ulertzen da, exijentzia moralak eta politikoak barne dituela.

⁵⁵ Gogora datorkigu txiste gisa kontatzen den hori, ondo isladatzen duelako hemen esan nahi dena: armadan dauden aisialdi apurretan, kapitainak lubakia egiteko agintzen die soldaduei, eta berau amaitutakoan zuloa berriz bete eta bost metrotara lubaki berria zulatzeke agintzen die, eta honelaxe etengabe, soldaduak geldirik ez daitezten. Egite honen helburua ez da lubakia egitea, ezta soldaduak jardunean etengabe aritzea, baizik eta agintearen printzipioa bere horretan mantentzea, hau da, gauza bat zein beste eginarazi (nahiz eta absurdua izan) “nik agintzen dudalako” egin behar da.

⁵⁶ Psikoanalisian supernia identifikatzen da haurtzaroan izaten diren irudi izutzaileekin, beldurgarriekin, basatiekin, umeen traumatismoetan horrenbesteko arrastoa uzten dutenekin hain zuzen ere.

⁵⁷ *“Hildako Poeten Kluba”* filmean Neil-en aitak bereganatzen duen papera dugu berau, aita agintekeriazkoa, kupidagabea, neurotizatua, odolgaiztozkoa, setatia, arrazoitu nahi ez duena agertzen zaigu bera. Lege bakarria berea da, eta autoritate bakarria berak ezarritakoa. Filme berean rol bera betetzen du ikastetxeko zuzendariak: funtzio izutzailea, zirikatzailea, arbitrarioa, expediente injustuak eta subjektiboak ezartzen baitzituen, epaitu aurretik zigortuz, eta amore ematera bultzatuz, halabeharrez. Arau zuzenik ez duen ikastetxea da, areago, alde aurretik ezarri gabeko arauak dituen ikastetxea dugu, indarrean dagoen ordenua mantentzeko xedez (KLEINBAUM 1992). Liburu honetan begi-bistan agertzen da subjektu-efektuaren artikulazioa instantzia guztietan). Sofocles-en *“Antigona”* idazlanean,

Superniak sarbidea eskaintzen du, legearen beraren indarraren sustraira jotzeko. Eta zein da legearen indarraren erroa? Indarraren erroa, legeak bere buruarekiko duen gainezkadura da, mekanika eta arauaren eremuko soilik ez den hura, baizik eta subjektiboaren eremuko den gainezkadura, eta, beraz interpretagarria, konplitzeko estua eta betetzeko bortitza. Honez gero ez da lengoaiaren arlokoa (ez idatzizkoa ez ahozkoa), inposaketa hutsaren arlokoa baino; indar hau dugu boterearen muina mantentzen duena, legearen nagusitasunaren funtsa dakarrena. Indar hau, beste modu batera esateko, ez da lege zehatzak daukan indarra, baizik eta legea inposatu ahal izateko indarra. Eta ez soilik legea inposatu, baita legea interpretatu, bortxatu, ezabatu, harrotu, zuzendu ala enoratu ahal duen indarra. Aita autoritarioaren indarra da: berari diogun beldurra ez dator inongo arauetatik, edozein arau inposatzeko duen ahalmenetik baizik.

Legeak suntsiketa jasan lezake (legeak beraren formulismoa suntsitzea onar lezakeela esan nahi da, jatorrizko zentzuan) beraren boterea eta ordenua esentzian (supernia) duelako: gainezkadura eta suntsiketa⁵⁸. Supernia dugu legearen beraren gaindi subjektiboa –legeak berak inposatzen duen errepikapenari buruzko gaindia⁵⁹– eta daukan zentzuaren suntsiketa, logika formalaren suntsiketa.

Lacan-ek diosku superniak irekiera egiten duela –irekiera maltzurra alajaina. Legearen afirmatiboa ez-legea da. Horrexegatik gerta daiteke supernia izatea, aldi berean, legearen indizea (legea bete behar delakoa, jakina) eta beronen suntsiketa

Creonte-k betetzen duen funtzioa da, lege bortitz eta injustuaren bidez defendatzen baitu bere burua, zentzugabeko bortizkeriaz, menpekoen aurkako iritziak ez jasotzearen. Esquilo-ren “*Orestida*”n Iriniak dira superniaren eremukoak, jauregiaren leku sinbolikoan gordetzen baitituzte mendekuaren kateak, disidentearen aurka bortizki jokatzuz, odolzaletsu, erasokor. Espazioa izutzailea da, eta aldi berean erakargarria, “*Heart of Darkness*” lan conradiarrean agertzen den Kurtz bezalako pertsonaiak dituen. Nobela honen zinemarako bertsioan (“*Apocalypsis now*” izenekoan) Marlon Brandon-ek antzezten zuen Kurtz pertsonaia.

⁵⁸ Legeak eskatu egiten du errepikapena (beti eta egoera guztietan betea izatea), baina superniak, batzuetan, ezin du errepikapen hutsa burutu, efektibitatez ez duelako. Errepikapen hutsak ez duelako arerioa gailenduko. Eznahikoa da. Orduan, superniak legea suntsituko du legearen beraren oinarritzko zutabeak (printzipio formalak) mantendu ahal izateko. Horixe da paradoxa: superniak legea ezabatzen du, legea iraunarazi ahal izateko. Legearen literalitatea hausten da, legea bere literalitatean mantentzeko.

⁵⁹ Errepikapenari buruzko gainezkadura izan daiteke, edo baita normaltasun onartuari eta behin eta berriz errepikatuari buruzko gainezkadura ere. Zeren legeak, printzipioz, errepikapena agintzen baitu, etendurarik ez gertatzea, inposatzen du.

(legearen zentzu formala hondatu egin behar da berau bete dadin). Bestera esanda, legea subjektibizatu egin behar da iraun dezan, bortxaz bada ere; areago, ezabatu, txokoratu behar da legea, ordenu orokorra manten dadin.

Supernia gune-eza dagoen unean sortzen da, edozein gune dela ere, errepikagarria izanik errepikatezin suertatzen denean⁶⁰. Une honetan argitzen da superniaren funtzio gelditzailea, eta beraz etengarria, neurotikoaren eta obsesiboaren burugabekerietan horren argi agertzen dena. Politikagintzan, esaterako, paralisi izutzaile gisa agertzen zaigu supernia; estatuak sortarazten duen beldurra gerarazgarria da. Estatuak eten egiten du subjektuaren egitea beldur izutzailearen bidez.

Superniak, neurosian eta arautze irrazionalaren unibertsoan, moral hondatzailea sostengatzen du, agerian utzitako boterea sostengatzen du, eta botere honek kokagune simbolikoa bultzatu eta sinkopean jartzen du.

Angustia, ordea, gaindian dagoen errealaren arlokoa dugu, eta ez eskasian dagoen legearen arlokoa. Hutsik dagoen gunea da, bete ezinezko gunea (gaindia ezin baita bete)⁶¹. Gune huts hori, adibidez, “*Lord Jim*” nobelaren protagonistak, ohorea eta ideal ausarta galdurik, ezin du inolaz bete, angustiaren ibilbidean⁶².

⁶⁰ Nahiz eta jakin badakigun legearen joera errepikatzea dela, batzuetan errepikaezin suertatzen da: ez da errepikatzen, eta bortxatu egiten da. Gunearen gainetik eta lege errepikatzailearen gainetik, disidentzia dagoenetan superniak gunea (boterepean dagoen espazioa, menpekkoa) apurtu beharra du. Une honetan agertzen da estatuaren (boterearen) gandia beraren gunearen gainetik, zeren, guneak zuzendu eta ordenatu egiten dituenak legearen gainetik (eta guneen gainetik) baitago. Gaindi horri esker lortzen du gunean dagoenarentzat legea babesle ez izatea. Ondorioz, legea eten egiten dela esan dezakegu, berinterpretatu egiten dela, moldatu egiten dela (babesteko zein erasotzeko) superniaren nahiaren arabera. Tresna da, baina bera ez da boterea. Boterea legea gehi bere gaindia da (plusa), eta beraz, superniaren gainetiko kontzeptua da.

⁶¹ Gunea hutsik gelditzen da bere funtzioak betetzeko gaitasuna galtzen duenean. Erruduna gertakizuna izaten da. Gertaturiko zerbaiten erruz, estatusa galdu egiten da eta irtenbide bakarra angustia ala kuraia da (ala lehenago bata eta gero bestea). Gunea hutsik geratzen bada, altzairurik gabeko etxean bizi da nia. Subjektuak ez du jasaten hutsik (edukirik gabe) dagoen gunean (egoeran, etxean) bizitzea eta orduan gunetik ateratzen da, subjektuak (euskarri estrukturalik gabe bada ere) kuraia biltzea lortzen baldin badu. Gune hustuan gelditzea, angustiaren eremuan gelditzea da.

⁶² “*Lord Jim*” dugu Joseph Conrad-en nobela garrantzitsuetarikoa bat (CONRAD 1984c). Beste modu batera esateko, angustia ez da sortzen legearen inposaketagatik, gertakizunak eragindako barne-gatazkaren ondorioz baizik. Arauek, honez gero, ez dute balio; norberaren buruarekiko irudia ere mila zatitan hautsi egin da, eta batzuen zein besteen ordeztu, hutsunea sortzen da. Lekua hutsik dago, eta ez dago betetzetik irudia berrosatu arte (arlo imajinarioan, hain justu).

Angustia

“Angustia, azterketa egitean, garrantzizko erreferentzia hitza da, angustia delako, egiatan, erratu egiten ez den hura. Angustia faltan izan daiteke? Esperientzia bideratu beharra dago, eta esatea zilegia bazait, dosifikatu beharra ere badago, bere barnean murgildurik ez izateko. Elkarri darraion zailtasunetik abiatuta lotu beharrekoak dira subjektua eta erreala, baina kontzeptu honetaz hurrengo batean mintzatuko gara⁶³”.

Angustia da errealaren eraginez gauzatutako murgilketa; angustia da, beraz, ausentearen (leku hutsaren, etenduaren) gaisetiko errealaren gaindia, muturreko gaindia. Hau da, angustia da lekuaren gaisetiko gaindia, sinboliko etenduaren (edo ausentatua baina egiatan ez suntsituaren) gaisetiko sobera. Angustia dugu sostengu sinboliko osoaren hondamena (desagerpena), eta beronen bidez azalarazten da (apurtuz, hautsiz) esanezinezko berragerpena, hau da, gertakizuna.

Gerra- (gertakizun-⁶⁴) egoera batean, *“The Red Badge of Courage”* nobelaren pertsonaia, leku sinbolikoa (ohore militarra) galdurik, baita izate ideala (bere buruari buruz zuen irudi kementsua) galdurik ere, martirio angustiatuan murgildu zen guttiz, bere errealaren mugimendu desantolatuen eraginez (desira eta pentsamendu kaotikoz josita), eta amaierako kuraiaren agerpenaren bidez handik aldegitia lortu zuen soilik.

Lacan-ek (estrukturalista bera, azken finean), efektua bideratu beharra dagoela diosku, angustiak suntsitu egiten baitu errepikagarriarekiko egokipena. Angustia, honen argitan, zantzua da, subjektuak leku sinboliko arautua bortxatzen duelako zantzua alegia. Angustia dugu bortxaketaren adierazle, gertakizunaren subjektibazioaren bidez bortxatu egiten baita leku sinbolikoa. Lacan-en definizioaren arabera, angustia ausentearen ausentzia baino ez da (arau sinboliko etenduaren ausentzia)⁶⁵. Ausentzia honen ausentziak, baina, barne-bakardadera darama, eta subjektua hondorik gabeko

⁶³(LACAN 1973b), 40-41. orr.

⁶⁴ Gertakizun bat jazotzen denean, gunean (lekuan, norberaren sinbolikoan) eragin zuzena du. Aurrekoarekin konparatuz zerbait aldatu da. Lekua hutsik egonez, nola mantendu zuloan? Euskarri premia du indibiduoak, errealaren gehiegizkoa egon ez dadin. Euskarririk gabe, gertakizuna amesgaiztoa da.

⁶⁵ Projekturik ez dagoelako, kontsistentzia imajinariorik ez dagoelako dago ausentzia. Arau sinbolikoa desagerturik dago.

itzaletan murgiltzen da. Heldulekurik ez izatean, mundua (eta bere gogoia) kaotiko agertuko zaio, eta barnetik suntsituko duen energia psikikoa azalduko du. Ausentzia guztiz ausente bihurtzen denean, ordea, efektua eten egiten da eta hasiera ematen zaio dessubjektibazio-prozesuari; modu honetan erreala gutxitu egiten da, euskarri sinbolikoaren hondamenaren ordainez.

Angustia ez da erratzen. Erakusten dio subjektuari barne-gatazka zatikatzailea daukala, zentsuratutako desiraren bat, edo alde aurretik negatibotzat jotako egintzaren bat baduela, edo agerian jarri nahi ez duen egiaren bat egon badagoela. Ezinbestekoa izango da suntsiketaren unean supernia heltzea, bortizkerialdian alegia, errearen gaindiak duen pretensioa (agertu nahian ari den egiak sortu du gaindia) ezabatzeko.

Lacan-ek bi aspektu hauek (supernia eta erreala) aztertu zituen, bata obsesioaren izu geraratzailan (supernia barneratzean) eta bestea, egia urratzaileak sortzen duen itomenean (angustia), errealean itota alegia.

Lacan-ek, bere aztergaiaren egituran (*structure*) harrapatu, sinbolikoaren kokagunean aurkitu zuen subjektuarentzako babesa (batez ere bere lehen garaian):

“Azterketa bat ez da zertan eraman behar urrunegi. Aztertutakoak bizitzeko zoriontsua dela pentsatzen duenean, nahikoa da”⁶⁶.

Honela bada, sendabide klinikoa subjektua existentzia sinbolikoan barneratzen denean burutuko da ⁶⁷, ordurarteko itzalak ahantziz.

*“Istoria barneratzeak, begi-bistan dagoenez, hauxe dakar: existentzia sinbolikora eramango ez diren itzalak **ahantztea**. Eta existentzia sinbolikoak arrakasta baldin badu, eta subjektuak guztiz bere egiten badu, ez du atzean inolako zamarik uzten”⁶⁸.*

Lacan-en subjektuaren teoria, aitzitik, planteamendu kliniko mugatuetatik baino harantzago joan zen. Une batean justizia eta kuraia kontzeptuak aipatu (aipatu, ez

⁶⁶ (LACAN), 15. or.

⁶⁷ Hau da, arauak, legeak, konbentzionalismoak, ezarritakoa onartzen denean.

⁶⁸ (LACAN 1975).

besterik) egin zituen, eta zientzia honen eskaera etikoa ere aurreikusi zuen, baina onartu zuen psikoanalisiak ezin zezakeela praktikara eraman, sendabide analitikoak beti estrukturala izan beharra baitzuen.

“Subjektuaren objektuak ager daitezzen eta beronen istorio imajinarioa guztiz osa dadin jirabira nahikoak eman ondoren, subjektuaren desira subjektiboak, tentsionatzaileak, alboratuta eta angustiatzaileak izendatuta eta berreskuratuta egon ondoren⁶⁹, hala ere, dena ez dago amaiturik. Lehenago han izan dena 0an (zeroan), geroago hemen 0'n (zero priman), gero berriz ere 0an (zeroan), berriz ere sinbolo sistema osora eraman behar da. Azterketaren burutzeak berak hala eskatzen du-eta⁷⁰”.

Non geratu behar da joan-etorri hau? Justizia eta kurariari buruzko eztabaida oinarrizkoetaraino eraman beharra dago interbentzio analitikoak, tradizio dialektiko greziarrean bezala?

Hor datza gakoa. Ez da konpontzeko erraza, zeren, egia esan, gizaki garaikidea bereziki ezgai baita gai handiei ekiteko. Gizakiak nahiago du arazoetara hurbiltzea jokaera-arazoak bailiren, moldatze-arazoak, talde-moralekoak edo beste txotxolokeria kontuak balira bezala⁷¹”.

Azterketak berriz itzularazten du subjektua BATera. Beraren bidez gauzatzen da errealaren gehiegikeriaren gutxitzea (indar subjektiboak), eta berak itzularazten du subjektua menperatze eremura, gunearen gainezkadurak angustian egonazten baitzuen subjektua. Beste modu batera esateko, Lacan-ek berbideratzen du subjektiboaren indarra gunera, lekura.

Areago diosku Lacan-ek: *“Hala ere, dena ez dago amaiturik”*. Kontua sakona

⁶⁹ Izendatzeak eta birsartzeak amaiera ematen dio angustia-prozesuari, angustia arindu egiten dute, alegia.

⁷⁰ 0 delakoa hastapeneko lekua da, gunea horniturik dagoenean. Gunea hustu ondoren, 0'n kokatzen da indibidua, eta subjektibazio prozesua jasaten du, gertakizunak eraginda. Subjektibaturik dagoenean berriz ere itzultzen da 0ra (egiturara) baina honez gero 0 hau ez da lehen utzi duen bera. Espazio sinbolikoa bada ere, hobeturik dago, berrizturik, subjektibaturik. Egia da, psikoanalisiak ezin duela mundua aldatu eta gatazka sortarazi duten elementuak ezin dituela desagertarazi. Aldaketarako baldintza bakarrak kuraia eta justizia dira, eta hauen ezean ez dago 0 berririk aurkitzerik. Hala ere, subjektua espazio sinbolikora berriz itzuli bada ere, orain kontzientziatuago dago, nahiz eta lehengo arazo berberak topatu (presio sozialak, inposaketak). Freud-ek arazo hori ikusi zuen garaiko emakume histerikoekin. Edozein kasutan onartu egin behar da, eremu honetan gizarteak nabariro aurreratu duela emakumeen eskubideei dagokienez, borroka feministari esker. Gizartea aldatu ezean, histerikoen sendabidea partziala izango zen.

⁷¹ (LACAN 1975), 223. or.

da, Badiou-k onartzen duenez, jokoan baitago “*subjektuaren teoriaren hedatze dialektikoa*”, eta hedatze honek gailandian dagoen konponenteak materia solidoan dituen efektu estrukturalak ikustea. Beraz, istorioa berritasun subjektibo gisa itzultzen da, eta ez errepikapen huts gisa denboran.

Komenigarria da, horrexegatik, errearen gandiak (egiaren angustian pairatu duen alde ilunetik askea orain) jasan ahal izatea ordenu sinbolikoaren hedapena (gunearen espazioa aldatzean), eta ez dezala soilik onar lehen lekuz kanpo zegoen hura berriz ere gunean jartzea, hauxe bailitzateke birsartze hutsa gunen sinbolikoan⁷².

Praktika analitikoak, ordea, ez du errazten egia deslotzea subjektu angustiatuarengan. Sintoma senda daiteke, bai, baina ez da komenigarria sintoma amaiaraztea gaixoarentzat arriskugarria baita.

“Sintoma sendagarria da”. “Sintoma neurotikoa deitua den hori, sinpleki, bizitzen uzten dion zerbait dugu”⁷³.

Zeren, egia deskubritzeak gaixotzeraino eta hiltzeraino ere eramanez baitezake gaixoa. Zoramenera ere bultza dezake, edo autoinmolaziora, Conrad-en “*Under Western Eyes*” nobelaren pertsonaiari gertatu bezala: agerian utziriko egia (traizioa) zeharo jasanezina zitzaion.

“Jainkoari esker, guk ez ditugu behar bezainbeste normaltzen (aztertutakoak) psikotiko bihurtzeko. Une horretan zuhur jokatu behar dugu”⁷⁴.

Badiou-ren Subjektuaren Teoria

Lacan-en subjektuaren teoria ezosoa da. Nahiz eta bere esperientzia psikoanalitikoak ahal den gehienezko punturaino eramanez, teoriaren

⁷² Hau da, lehen ikusi dugun sekuentzian (0-0'-0), bigarren 0a ez dadila izan lehena bezalakoa.

⁷³ (LACAN), 15. or.

⁷⁴ Idem.

mugak begibistakoak dira. Psikoanalisia dugu iraganaren (ahantzi nahi den iragana) eta orainaldiaren arteko adospena (orainaldi atsekabetua, ahantzirikoa agertu nahian baitago). Beraren ezaugarria angustia da, beraz, eta soluziobidea gune sinbolikora itzultzea da, subjektua eroso egon dadin⁷⁵.

Baina subjektu osoarengan dialektika kokatzen da eten egindako orainaldiaren eta aurreratzen den geroaren artean, eraikitze dagoen egia orokorra ekarraraziz. Aurretiazko erabakia kuraiaren ezaugarrian dago, egon, eta ez angustiarenean, nahiz eta azken hau ibili behar den, gainditu ahal izateko, hain zuzen. Hemen ez da beharrezkoa iraganarekiko adospenik, iragana errepikapen estrukturala baita, eta hori dela eta, orainaldiaz nahasten baita. Adospena orainaldiarekikoa da (iragan jarraitua baita orainaldia), egia ezjakinak protagonista bihurtu behar baitu geroa orainaldian, eta subjektua tresna baino ez da. Geroa, orduan, orainaldiaren jarraipen eraldatua dugu⁷⁶. Birsartzeaz mintzatuko bagina, gune sinboliko berrian gauzatuko litzateke birsarketa, subjektuaren egiteak errotik hedatua eta eraldatua, subjektua sartu ahal dadin gune berriztuan (berak berriztutakoan). Honela bada, angustia-supernia erlazioa hedatu beharra dugu kurai-justizia-prozesu dialektikora, Lacan-ek berak aurreratu zuenez (nahiz eta berak ezin izan zion ekin). Ikuspegi itzelezkoa planteatu zuen, ikerketarako zirikatzailea:

“Subjektua drama subjektiboaren mitoan sarturik dagoen heinean gauzatzen da –giza balorea hedatua (areago unibertsala) duen mitoan alegia–”⁷⁷.

“Drama subjektiboa”k (tradizio greziarrean Eskilok jaso zuen batez ere), balore hedatua du, unibertsala, eta honela, subjektu osoaren azterketarako iturria izan daiteke, Lacan-ek aurreratu zuen bidetik: *“justizia eta kuraiari buruzko elkarriketa oinarritzkoen bidetik”*. Burutu baina, Badiou-k burutu zuen lan hau, *“Théorie du sujet”* liburuan, Hegel, klasiko greziarrak (Sofokles eta Eskilo), Mallarmé, subjektuaren teoria marxista

⁷⁵ Ikus daitekeenez, Lacan-ek ez zuen soluziobiderik eman praktika ezkonbentzionala, iraultzailea edo apurgarria mantendu nahi duen gaixo/subjektuarentzat. Atzera itzultzea da proposaturiko irtenbide bakarra. Badiou-k beste zerbait proposatu nahi izan zuen.

⁷⁶ Laburbilduz, eta Badiou azaltzean ikusiko dugunez, psikoanaliaren teorian iragana orainaldian agertzen zaigula esan daiteke, eta Badiouren teorian, ordea, orainaldia geroan azaltzen dela.

eta Lacan-en ikaspenak lagungarri hartuz. Badiou-ren arabera,

“hedatzen duenak (balore hedatu, unibertsal lacandarra) errotu beharra du gaindi egiten duen horretan (gunea, lekua, sinbolikoa, legea...)”⁷⁸

Beharrezkoa da, beraz, errealaren mugimenduan dagoen subjektuak, ez soilik gune sinbolikoa apur-eten dezan, baizik eta urrunago heda dezan, eraldatze-/berrosatze-prozesuan⁷⁹. Ibilbide osoa burutzeak definitzen du subjektua, Badiou-ren ustez.

Lacan-en korapilo borromeoak alde batera utziz (beraren kontsistentzia imaginarioa delako, eta erreal sinbolikoan murgiltzen delako), suntsiketa-erlaldaketa matrizeei ekin behar zaie, non kontsistentzia prozesu errealean burutuko baita, eta non sinbolikoa etengabe gainditua izango den, subjektuaren ekitearen ondorioz. Etenaren alterazio algebraikoari segitu beharra dio jarraipen topologikoak, jarraipen horretan ekin ekiten baitu errealak.

Badiou-ren subjektuaren teoria Pentsamenduaren proiektu zabalagoan kokatzen da. Beraren nahia da Platon-ekin abiatutako tradizio klasikoaren Filosofia gaur egun ere zabaltzea. Berak uste du, Filosofiak ez dituela sortzen egiak, baizik eta pentsamendu-espazioa eratzen laguntzen duela, eta espazio honetan biltzen direla egia desberdinak elkarren osaketan.

Egia baldintzatzen duten prozeduren izaera osagarria tratatzen du Badiou-k pentsamenduan. Ez du egiarik ezartzen, baina egietarako lekua ezartzen du. Prozedura orokorrak eratzen ditu abegi baten bidez: simultaneotasun dispar bati begira eraikitako babesaren bidez. Filosofiak planteatzen du bere garaia pentsatzea, bera (filosofia) baldintzatzen duten prozedurak amakomuneko-lekuan ipiniz. Beraren eragileek (normahi direla ere), “elkarrekin” pentsatzera jotzen dute, pentsamendu-ariketa

⁷⁷ J. Lacan, “*Séminaire*”, I liburua, 1975, Ed. du Seuil, Paris, 215. or.

⁷⁸ (BADIOU 1982), 176. or.

⁷⁹ (BADIOU 1990), 19-20. orr. Hemen esan nahi dena zera da: psikoanalisiak aurreko gune sinbolikora bueltarazten zuen gaixoa (aurreko arauak eta presioak jasatera behartuz), baina Badiou-k gune sinbolikora berria proposatzen digu, zabalagoa, hedatua, subjektuak egindako subjektibazio prozesuari esker hedatua. Honez gero ez da aurrekoa bezalakoa, subjektibizatuta dago, justuagoa da. Gauzak aldatu dira subjektuak azalduko kuraiari esker justizia agertarazi eta iraunarazi egin duelako.

bakarrean eratzera jotzen dute, bai matemaren egoera historikoa, bai poemarena, bai asmakizun politikoarena eta bai maitasunarena (edo Biaren gertakizunaren estatutua) ere. Zentzu honetan, zalantzarik gabekoa da filosofiaren kako bakarra egia dela, ez egiarik sortzen duelako, baizik eta egia-uneen unitatera heltzeko modua proposatzen duelako, hau da, kokagune kontzeptuala proposatzen duelako, non prozedura orokorrak osagai gisa hausnartzen diren⁸⁰.

Badiou-k erabiltzen dituen eragile bereziak matematikatik hartutakoak izan dira eta filosofiara itzuliz, Gertakizuna, Subjektua, Egia eta Ongia deitzen dira⁸¹. Beraien ibilbide orokorrean loturik daude elkarren artean, izendapen, leialtasun eta bortxa kontzeptuen bidez⁸². Hezurdura kontzeptual honen garapen landua beraren idazlanetan aurki daiteke: *“L’Etre et l’événement”* eta *“Conditions”* alde batetik, eta beraren pentsamenduaren hedatzaile gisa idatzitako beste bi idazlanetan ere, *“L’Ethique”* eta *“Manifeste pour la philosophie”*⁸³.

Kontzeptu berri hauek erabiltzeaz gain, Badiou-k Modernotasunaren garaiko kategoria filosofiko oinarritzkoak mantentzen ditu (Subjektua, Arrazoa eta Egia), baina pentsamendu filosofikoaren historiatik zekarten zama objektuala kenduta. Modu honetan ahalegintzen da objekturik gabeko subjektuaren kategoria eratzten. Lacan-ek esango lukeen bezala, objektuaren eklipsetik jaiotako subjektu zatikatua da subjektu

⁸⁰ Espazio teoriko kontzeptual bakarra sortu nahi du Badiou-k, lau prozedurentzako baliagarria izango dena: Egia, Subjektua, Gertakizuna eta Ongia. Horretarako beharrezkoa da amankomuneko-lekuan ipintzea, zeren maitasunak bai baitauka, esaterako, beraren egia, gertakizuna, subjektua eta ongia, eta gauza bera gertatzen da matema, poema eta politikarekin. Ondoko taulan ikus daiteke argiago.

EGIA	GERTAKIZUNA	SUBJEKTUA	ONGIA
egia maitasunezkoa	gertakizun maitasunezkoa	subjektu maitasunezkoa	ongi maitasunezkoa
egia zientifikoa	gertakizun zientifikoa	subjektu zientifikoa	ongi zientifikoa
egia artistikoa	gertakizun artistikoa	subjektu artistikoa	ongi artistikoa
egia politikoa	gertakizun politikoa	subjektu politikoa	ongi politikoa

⁸¹ Badiouk definitu egin zituen lau kontzeptu hauek, matematikatik hartutako ideiak erabiliz. Honela bada, Egia Generikoa da (inolako bornerik ez daukana), Gertakizuna Erabakiezina da (egoeratik ezin da erabaki, egoeratik gainetikoa baita), Subjektua Bereiztezina da (ez da jakintsua, ez dago lekuaren jakindurian) eta, azkenik, Ongia Izendaezina da (lekuak ez du bere izena ezagutzen).

⁸² Badiouk aipatzen dituen Izendapena, Leialtasuna eta Bortxa kontzeptuek ere funtzio garrantzitsua betetzen dute: Gertakizunetik Subjektura pasatzeko beharrezkoa da Izendapena. Gertakizunetik Egia pasatzeko (subjektua zeharkatuz) beharrezkoa da Leialtasuna. Bortxa beharrezkoa da Egia Ongira pasatzeko.

badioutarra. Arrazoia, honez gero, ez da “arrazoizkoa”; ez baita existitzen ezagutzen denaz egindako hausnarketa, baizik eta gertakizun bat abiapuntu hartuta hedatu egiten den zerbait da. Arrazoia da komunikazioa eten egiten duen bereizpen grinatsua (Hegelen definizioa zabalduz). Finean, egia generikoa da, multzo bereiztezina da, eta bai jakinduria ezarria bai egoera historikoaren entziklopedia ere zulatu egiten ditu bere prozesuan. Agerpen jakintsuak oro gainditu egiten ditu egiak.

Badiou-ren aburuz, beraz, egien Egiak osatzen du Filosofia. Filosofiarako baldintza ezinbestekoa da lau prozedurei buruzko pentsamendua burutzea: prozedura maitasunezkoa, zientifikoa, artitiskoa eta politikoa alegia.

Gertakizuna, Egia eta Subjektua

Gertakizuna

“Egoera, iritzi eta jakintza ezarrietatik bestelakoa den “beste zerbait” etorrarazten duen hura; gehigarri azarezkoa da, aurreikustezina, agertu bezain pronto desagertu egiten dena”⁸⁴

Gertakizunak zerbait jazotzea eskatzen du, eratorria izatea, “dagoenekoan” sartze hutsarekiko meneraezina izatea. Gehigarri horri gertakizuna esaten dio Badiou-k, eta egoerarekiko bereiztu egiten da, azken hau dagoenaren multzoa baino ez baita, jakintza ezarrien eta iritzien multiplizitate edonolanahikoa, estatusaren arauetik adostasunean dagoena. Gertakizuna, esan bezala, gehigarri azarezkoa da, ezustekoa, eta modu berriaz erabakitzen behartzen gaitu, izateko zein jokatzeko. Lacan-ek “birtopaketa” esaten dio honi, hau da, maitasunezko gertakizunari birtopaketa irizten dio.

“Izatea, berez, maitasunean da, birtopatzera datorkiola”⁸⁵.

⁸³ (BADIOU 1988, BADIOU 1990, BADIOU 1992, BADIOU 1993).

⁸⁴ (BADIOU 1993), 60. or. Esaldi honekin esan nahi dena hauxe da, alegia, maitasuna eta gorrotoa gizakiaren berezkoak direla, eta izakia bere izaeraz egiten duela topo, berriz egin ere, maitasunean. Maitasuna, beraz, izakiak bere buruarekin topo egitea da.

⁸⁵ (BADIOU 1992), 285. or.

Gertakizunak, halabeharrez, modu poetikoan izendatu beharra du, ezarritako lengoaiarekiko hausturaren ondorioz.

“Gehigarri bat, azare bat, kalkulaezin bat izendatzeko beharrezkoa da zentzumenaren hutsunera jotzea, ezarritako esanahien gabezira jotzea, hizkuntzaren arriskura jotzea. Beharrezkoa da, beraz, poetizatzea; eta gertakizunaren izen poetikoak gugandik kanpo bultzatuko gaitu, aurreikuspenen zirgilougarrezkoa zeharkatuz”⁸⁶

Leialtasuna, Badiou-ren definizioan,

“Prozesuaren izena da: egoerak bultzaturiko ikerketa bat da, eta gertakizunaren agindupean dago; haustura jarraitua eta inmanentea da”⁸⁷.

Leialtasuna erakaki bat da: gehigarri gertakizunekoaren ikuspuntutik begiratu ondoren, erabaki beharra azaltzen da orain, nor bere egoerara egokitzeke. Gertakizun batekiko leiala izatea, diosku Badiou-k, gertakizunak gehituarazi duen egoeran (eremuan) murgiltzea da, eta gainera, gertakizunaren arabera egoera berria pentsatzea (pentsatzeak beti praktika dakarrela jakinda, praktikoki probatzea). Gertakizuna egoeraren lege arautu guztietatik kanpo dagoenez, honek guztiak behartzen gaitu asmatzen, egoeran jokatzeko eta izateko modu berria asmatzen, alegia.

Egia

“Egoeraren barne-anitza da, leialtasuna apurka-apurka eraikitzen duena; leialtasunak bildu eta sortarazten duen hura da, hain zuzen, egia”⁸⁸.

Egia (egia bat) gertakizun batetik leialtasun-prozesu erreala da. Hots, egia da leialtasunak egoeran sortarazten duena; bestera esateko, egoeran bertan dagoen gertakizunaren zantzua da egia, leialtasuna etengabe ari baita sortzen gertakizuna, tortsio amaigabea. Bera da, ondorioz, haustura inmanentea. Haustura, batetik, bere jatorria –gertakizuna– egoeran ez dagoelako. Inmanentea, bestetik, egia egoeratik

⁸⁶ Idem, 100. or.

⁸⁷ (BADIOU 1993), 60. or.

⁸⁸ Idem, 60. or.

datorrelako eta ez beste inondik. Egia ezin da izan jakintza ezarriek pentsatua, egoeran dauden errepresentazioekiko heterogenea baita. Lacan-en hitzak erabiltzeko, egiak zulatu egiten ditu jakintza ezarriak. Egia, beraz, jakintza berriak eskuratzeko iturri ezagun bakarra da. Ildo berean, Badiou-k diosku, egiak behartu egiten ditu jakintzak. Egiak bortxatu egiten ditu indarrean diren jakintza ezarriak, eta egoeraren *entziklopedia* (jakintza ezarrien pilaketa, Badiou-ren hitzetan) kolokan jartzen du. Egoeraren entziklopedian kokatzen dira iritziak, elkarrizketak eta sozialtasuna. Nolanahi ere, ulertu behar da modu honetan sorturiko jakintza berriek inoiz ez dutela egia agortuko, egia generikoa eta mugarik gabekoa baita. Egiak komunikazioan aldaketa nabariak eragiten baditu ere, berau komunikatzerik ez dago hala ere, jakintzatik kanpokoa delako. Egia bat bakarra ere ezin da azterketa formalera mugatu. *“Egia oro, singularra eta unibertsla izanik aldi berean, prozesu arautua da, baina ez da beraren arauaz araugarria”*. Egia, beraz, prozesu bat denez, *a posteriori* arautu daiteke (sorturiko efektuak arautu daitezke), baina egia bera arautzerik ez dago, aurrezarritako arau bakarrari ere erantzuten ez diolako; beraren bidea eta utziriko zantzuak subjektu batek ibilbidean egindako apustuak direlako, eta gunearen arau eta eruedetatik kanpo dagoelako.

Subjektua

“Leialtasun baten euskarria da subjektua, ondorioz, egia-prozesu baten euskarria. Subjektua ez da prozesuaren aurretik existitzen. Gertakizunaren aurretiko egoeran guztiz inexistentea da. Egia-prozesuak izanarazten du subjektua”⁸⁹.

Subjektuak dira, beraz, egia-prozesuaren lekuan-lekuko euskarriak, egia-“guneak”, gertakizun batek izanaraziak, bakarka eta bereizirik izanaraziak alegia.

Egia-prozesuaren jatorria, esan bezala, gertakizun berezia eta murrizgaitza (sinplikaiezina) da, “areago” den zerbait, egoeretan “legez kanpokoa” den zerbait. Gertakizunetik abiatzen den prozesu leiala egoerarekiko haustura inmanentea da, eta apustuek asmatu egin dute haustura hori erabakizun-egintzetan (hau da, pentsamendua

⁸⁹ Idem, 39. or.

egintza bihurtzen denean). Subjektuek eutsi egiten diote prozesu honi eta egia bat eraikitzen dute. Egia hau, finean, gertakizunarekiko leialak diren elementuen multzoa dugu (inkestak⁹⁰). Egia, beraz, gertakizunak aurreratu egiten du orokortasunean, eta subjektuak ondoren eraikitzen du, gertakizunetik abiatuta. Subjektuak egiten duena hauxe da, egia partzialki (zati batez) egoeran ager dadin behartzea, hau da, berritasunen bidez lekutu dadin. Berritasun hauek jakintza ezarriak deuseztu, eraldatu edo osatu egiten dituzte egoeran, berau zeharo itxuraldaturik geratuko delarik. Egia-prozesuaren bidez, ordurarte ezinezkotzat jotzen zena ahalezko bihurtzea lortuko du subjektuak. Egia-prozesua, begi-bistan denez, ez da imaginario bat (utopia), prozesu erreala baizik. Egia orainaldira erakarriz, etorkizunetik aurreratuz, subjektuak gauzatzeko tenorean jartzen da, nahiz eta beti burutzeke geratuko den. Egia ez da inoiz osorik agertzen egoeran; espazioan eta denboran mugatua da, nahiz eta bokazioz betiereko eta unibertsala den, izan.

Joseph Conrad-en “*A personal Record*” liburuan egileak egindako hitzaurrean baino osoago, laburrago eta zehatzago, gutxitan agertu da isladatuta egia-prozesu baten ibilbidea⁹¹.

⁹⁰ Inkesta ebaluazioa da, balantzea egitea. Prozesu subjektiboan tortsio militantea burutzen denean, eta ekintza gauzatzen denean, gertakizunarekiko leialtasuna ebaluatzen da, eta orduantxe sailkatzen dira elementu leialak eta baztertzeko dira elementu ez-leialak.

⁹¹ Barne-prozesu honetan modu miresgarrian azaldu zigun ingelesarekin izan zuen topatze eta bereganatzea, geroago bere idazlan guztien euskarri linguistikoa izango zena. Nahiz eta prozesu honetan bere lanaren alderdi formalaz ari den (egia poetikoa barnean dakarrena, Conrad subjektibitatearen poeta baita), ezin du egia-prozesutik urrundu, zeren, berak ongi zioenez, “*ingelesaz idatzi ezean, berba bakarra ere ez nuen idatziko*”. Modu honetan, zeinua (idazkera) eduki poetikoarekiko parte beharrezko eta bereiztezin bihurtzen da, nahiz eta egia sortarazten duena edukia izan, eta ez zeinua. Egia-prozesua definitzen dituen elementuak maisuki marraztu zituen, hizkuntzarekiko ezagupen-maitasun esperientzia subjektiboan kokatuz. Horrexegatik, hain zuzen, beraren bizitzaren pasarte haren bidez –hizkuntza bereganatuz eta eskuratuz– subjektu bihurtu zen, subjektu literario.

“Kontua da, izan, ingelesez idazteko nire trebetasuna, jaiotzetik ditudan beste trebetasun guztiak bezain berezkoa dela. Nik dudan sentrazio estrainio eta abailgarria da, ingelesa nire buruari beti-betidanik atxeki izan zaiola. Zeren, nire kasuan, ingelesa ez baita izan aukera baten emaitza, baizik eta bereganatzearen fruitua. Bereganatzea, ingelesaren izpirituak bereganatu baininduen, eta ez kontrara. Izan ere, lehen moteldurak gainditu ostean, ingelesak horren zuhur jabetu ninduen ezen hizkuntzaren esakunek beraiek zuzen eragin baitzuten nire nortasunean, eta nire izaera oraindio malgua moldatu baitzuten.

Barru-barrutiko egintza izan zen, eta horrexegatik hain zuzen, azaltzeko misterioitsua suertatzen zait. Azaldu nahi izatea, lehen begiradako maitasuna azaltzea bezain ezinezkoa dela deritzot. Elkarrezagutze une gartsu ia fisiko hartan, errendizio eta utziera moduko

zerbait izan zen, bai eta norbera hartua izatearen harrotasuna ere; edonola ere, inongo momentuan ez zen izan pasio hilkor guztienugarretan agertu ohi den zalantza izpi txikiena ere. Nire baitan jakin nuen gertaera hura, harrez gero, betiko izango zena.

Aurkikuntza baten emaitza izanik, eta ez herentzia, kategoria-inferioritate horrek baloraratzen dio gehiago aipatu gaitasunaren jabetza duenari, eta bizitza osorako betebeharrak egozten dio, izandako zorte itzelarekiko leiala izateko betebeharrak baitu aurrerantzean. Nolanahi ere den, ematen du hemen azaltzeko ahaleginean jarduten ari naizela –inork bete ezineko lana, esan bezala. Edozein ekintzatan dela ere, beldurrez eta begirunez gizakiaren izpiritu menerazinari esker Ezina gaindi daitekeela onartu behar baldin badugu, azaltzeko unean, ordea, Ezinak ez du azaldua izatea permitituko. Urte luzetako praktika debotua izan ostean, nire bihotzaren zalantza, inperfekzio eta akatsen angustia pilatu ostean, gauza bakarraz ager naiteke harro, sinetsia izateko eskubideaz nago harro zera diodanean, ingelesez idatzi ezean berba bakarra ere idatziko ez nuela”.Kronika Pertsonala”, (CONRAD 1990).

Kasu honetan hizkuntza atzeritza batetik topaketa (ingelesez) da gertakizuna, eta azaltzeko zaila dela diosku: *“barru-barrutiko egintza izan zen, eta horrexegatik hain zuzen, azaltzeko misteriozua suertatzen zait”*. Maitasun-gertakizuna bezain pasionatua izan zen aurkikuntza, harrapatu eta errendarazi egiten duena elkarrezagutze emotiboan: *“Elkarrezagutze une gartsu ia fisiko hartan, errendizio eta utziera moduko zerbait izan zen, bai eta norbera hartua izatearen harrotasuna ere”*.

Topatze honetatik barne-egia jaiotzen da, barnetik konbentzimendu iraunkor gisa, eta betiko bereganatzen da bereiztezina dena, hau da, hizkuntzaren jeinua, misterioa (ezjakin generikoa): *“nire baitan jakin nuen gertaera hura, harrez gero, betiko izango zena”*, giza pasio hilkorretan izaten ohi diren zalantzak sentitu gabe, pasio hilkorren zalantzek ez baitute ez egia ez subjektua egiten.

Egia ez da aukeraren eremukoa, erabakiaren eremukoa baizik. Aukera da hautu batzuren artean bat hartzea, eta hau ez da kasua. Kasu honetan gu geu alde aurretik bereganatu gaituen hura hartzea erabaki da: *“Zeren, nire kasuan, ingelesez ez baita izan aukera baten emaitza, baizik eta bereganatzearen fruitua. Bereganatzea, ingelesaren izpirituak bereganatu baininduen, eta ez kontrara”*.

Subjektuaren esku-hartzearen bidez, gertakizunak leialtasun-prozesuari ekiten dio, subjektua gainditu eta desegituratu duen hari betiko leialara izatera behartuz, kasu honetan hizkuntzaren egia dagozkion esperientzia guztietan (bizi-esperientziak zein literarioak) gauzatuz leialtasuna, kausaren debotua bailitzan: *“aurkikuntza baten emaitza izanik, eta ez herentzia, kategoria-inferioritate horrek baloraratzen dio gehiago aipatu gaitasunaren jabetza duenari, eta bizitza osorako betebeharrak egozten dio, izandako zorte itzelarekiko leiala izateko betebeharrak baitu aurrerantzean”*.

Leialtasun-prozesuak subjektua eraldatzen du, eta honexek duen munduarekiko ikusmira ere bai: *“lehen moteldurak gainditu ostean, ingelesak horren zuhur jabetu ninduen ezen hizkuntzaren esakunek beraiek zuzen eragin baitzuten nire nortasunean, eta nire izaera oraindiko malguta moldatu baitzuten”*.

Egia eraikitzen duen prozesu subjektiboa esanezina da. Azaldua izateko (formalizatua eta jakinduria entziklopedikoak harrapatua izateko) zailtasunak agertzen dituen berezko legearen bidez arautzen da, zeren eta, leialtasunak sortu duen egia-prozesua prozesu erreala baita, izan, eta edozein sinbolizaziotatik at kokatzen baita: *“Nolanahi ere den, ematen du hemen azaltzeko ahaleginean jarduten ari naizela –inork bete ezineko lana, esan bezala”*.

Edozelan ere, subjektuak behartu egiten du egia ager dadin, zati batez bada ere, eta egia zantzuen bidez agertzen da, idazlanen bidez, idazlanak direlako subjektuak egoera entziklopedioan utzitako marrak. Jakintzak gabezia daude beti, ezin dutelako azaldu beraien egiturarako prozesu subjektiboa (liburu itxura duen aurkezpen historikotik gaudian dagoelako prozesua). Jakintza ezagutzeak berak ere ez du bere egia agortzen. Conrad-en lana bera ere (lekuan eta denboran lokala izanik, unibertsal da) agortezina da, amaigabea, hilezkorra interpretazioetan, zeren jakintza bakarrak ere (aditu, ikerlari, azterketa linguistiko bakarrekin) ezin baitu guztiz mugatu, ezta bornatu ere. Mugagabetasun honek ingeles hizkuntza bera betierekotzen du, hizkuntzaren ezean zeinurik egongo ez zelako: *“ingelesez idatzi ezean berba bakarra ere idatziko ez nuela”*.

Prozesu subjektiboa angustia da, beraren aurrean gure ahuleziekin, gure izaera eta norberaren baldintzekin agertzen garelako, eta ahuleziekin unatzen eta sufriarazten digute: *“Urte luzetako praktika debotua izan ostean, nire bihotzaren zalantza, inperfekzio eta akatsen angustia pilatu ostean ...”*.

Subjektuari buruzko teorizazioa

Badiou-ren “*L’être et l’évènement*” liburuan subjektua da “*egia bat sortarazten duen prozedura generiko ororen lekuan lekuko egituraketa*”⁹².

Badiou-ren ustez subjektua ez da substantzia, substantzia izaki egituratu hutsa baita, lekuan lekuko legeen menpekoa. Subjektua, aldiz, lekuan lekuko legeetatik kanpo dago, egia-prozesuaren zatia baita. Legeekiko gaindian dago subjektua eta, beraz, egoerarekiko ezjakina da. Beraren izaki egituratua ezagutua bada ere, gaindi gisa ezezaguna da, eta ondorioz ezin du substantzia izan.

Subjektua ez da aurkezpenaren aldaezina; hau da, subjektua ez da egoeran betidanik presente egon den zerbait. Subjektua, Badioren hitzetan, “*arraroa*” da eta bakana. Egiturakoa denez, ez da iragankorra; aleatorioa da, gertakizun batetik (subjektua enuntziatua izan daitekeen gertakizunetik) sortua baita. Subjektua sortu egiten da, ez da alde zurretik egindakoa.

Subjektua, beste alde batetik, koalifikatua da; ez da egoeretako errealitate estrukturala. Legeak ez du agintzen subjektua egon behar duenik –alderantziz baizik–, subjektua legetik kanpo baitago, lekua zuzentzen duen arautik kanpo, alegia. Subjektua, beraz, ez da koantifikagarria, ez neurgarria, ez gonbaragarria, ezta definigarria ere egoeraren egituratik begiratuta.

Subjektua, dio Badiou-k, ez da esperientziaren zentzu baten antolakuntza. Ez da funtzio transzendentea. Esperientziak (agerpen hutsak) ezin diezaguke ezer esan

Angustiari, angustia pilatua bada ere, kuraiaren bidez, adorea duen gaindiaren bidez ekiten zaio, leialtasunaren prozesuan sostengatuta, eta honela egin daiteke aurrera, Ezina Ahalezko bihurtuz, nahiz eta Ezina azter ezin dezakegun ezagutza erabiliz: “*Edozein ekintzatan dela ere, beldurrez eta begirunez gizakiaren izpiritu meneraezinari esker Ezina gaindi daitekeela onartu behar baldin badugu, azaltzeko unean, ordea, Ezinak ez du azaldua izatea permitituko*”.

Egia eraikitzen ari den subjektu eratuak, egia bereganatu egiten duela sentitzen du, hizkuntza bereganatzen duela, biologikoa edo herentzia genetikoa izan balitz bezala. Zeren, subjektu sortu berria (ez subjektu jaioa) bere egiaren zati burutua eta askaezina baita: “*Kontua da, izan, ingelesez idazteko nire trebetasuna, jaiotzetik ditudan beste trebetasun guztiak bezain berezkoa dela. Nik dudan sentsazio estrainio eta abailgarria da, ingelesa nire buruari beti-betidanik atxeki izan zaiola*”.

⁹² (BADIOU 1988), 429. or.

subjektu baten sorreraz edo mugimenduaz, egoeran mugaturik baitago, eta “izan denaz” edo “denaz” ez baitago esaterik izango dena. Gainera, prozesu subjektiboak ez du askatzen inolako zentzurik, alderantziz baizik: egoeratik ikusita, gertatzen ari denak zentzu-eza dirudi. Subjektua ez da transzendentea, transzendentzia lekutik-gutziz-kanpokoak baita, eta subjektuak, aldiz, lekua hartzen du egoeran, nahiz eta egoeratik gaindian dagoen (horixe dugu, hain zuzen, subjektuaren zatiketa: izaki estrukturala da eta aldi berean gaindian dago izakiarekiko).

Subjektua ez da ondorioa, ezta sorburua ere. Ez da prozesu baten eraikuntza burutua, ezta eginik dagoen abiapuntua ere, ahalmenak hedatzen dituela. Egoeraren gaindian dagoen egituraketa da subjektua. Ez da bilatzen, topo egiten da; eta inoiz ez da guztiz burutzen.

Laburbilduz, Badiou-k ematen digu subjektuaren definizio zabalak:

“Subjektua da egia baten ezjakin generikoaren alde apustua egiten duena, eta apustu hori finitudun jakin batean egiten du, izendapen baten bidez. Izendapenaren erreferentea, baldintza baten aurreko etorkizunean dago. Subjektua halaxe da izan, izenen kariaz, aldi berean prozeduraren erreala (inkestatetako inkestatzailea) eta hipotesia, burutugabeko emaitzak aurkezturikoan berritasuna sortaraziko dueneko hipotesia. Subjektuak etorgai-unibertsoa izendatzen du hutsunea, eta etortzeko hori lortuko da egia ezjakinak egoerari eransten dionetik sortuaz. Aldi beretsuan, subjektua eransketa honen finitu erreala da, lekuan lekuko etapa. Izendapena hutsunea da, baina bere posibilitatea marrazten duen izaki osoaren hutsunea soilik”⁹³.

Ikusi dugu Conrad-ek hizkuntzaren egiarekiko apustua (beraren artelanaren eta poesiaren euskarria) egin zuela, eta, berez, apustu generikoa eta ezjakina izan zela hura, batez ere lorpenei, emaitzei eta beraren bizitzari –zein irakurle multzo zabalaren bizitzari– zekarrenari zegokionez. Egia literario hura garai historiko zehatzean eta leku zehatzean gauzatu zen, idazlan zehatz, aurkeztu, ezagun, finitu eta jakinen bidez, eta halaxe, etorkizunarekiko zabalik zegoen erabaki baten emaitzak izan ziren lan haiek. Etorkizun hori burutzea ala ez, egilearen ekitearen baldintzapekoa zen, Conrad

⁹³ Idem, 438. or.

bereganatu eta liluratu zuen gertakizunarekiko leialtasunaren menpekoa, alegia⁹⁴.

Badiou-ri jarraituz, pentsa dezakegu, beraz, subjektua dela korapilo baten korapilatzailea (egilea, tortsionatzailea, esku-hartzailea), eta korapiloan bildu egiten direla batetik gaindian dagoen zerbait (gertakizuna), eta bestetik prozesuan edo ibilbidean ezjakina den egikera (egiaren prozedura generikoa). Aldez aurretik emandako egoeran marrazten du ibilbide honek egiazkoaren gertatu anitza (prozesu subjektiboari izandako leialtasunaren emaitza). Ertzeko puntu batetik abiatzen da, egonaren eta ez-egonaren arteko mugatik hain zuzen (kuraian eta angustian subjektibatua), gune hutsaren (sinbolizaezina) eta gunearen gagnetikoaren artean balantzaka. Hori guztia da gunean izandako etenaren efektua, egoeran marra utzi duen gertakizunaren kariaz.

Subjektu-efektua

Badiou-ren “*Théorie du sujet*” liburuan argiro azaltzen da, azaldu, subjektu-efektua izenaz egileak dituen kontzeptuak. Subjektu-efektua da, beraz, prozesu batean zehar (ibilbide subjektiboan zehar) subjektuak dituen efektuak. Erabilitako kontzeptuak hauexek dira: angustia, kuraia, justizia eta supernia. Lau kontzeptuok dira, aldi berean, bi denbora subjektiboren zatiketak: subjektibazioa eta subjektibazio-prozesua⁹⁵. Kontzeptu hauek bi ekuazioen bidez laburbildu (eta dialektizatu) daitezke: angustia–supernia eta kuraia–justizia.

Badiou-ren arabera subjektibazioa da “*gaindiak eragindako hegadiaren etena; suntsiketa da*”⁹⁶. Gertakizunak desegituratu egiten du egoera eta lehen harturik zegoen

⁹⁴ Conrad den modukoa da, izendapen aurreztiazkoaren kariaz (“*hura, harrez gero, betiko izango zen*”), prozesu literarioaren errealarari esker (angustia eta kemenaz hizkuntza atzerritarraz idazten duen egilea da) eta bere apustuak, bere leialtasunak berritasunik ekarriko zuen hipotesiari esker⁹⁴. Hutsune batetik abiatuta (etortzeko denaz egindako apustua da hutsunea) egoera berria aurreratu zuen, berak sorturiko unibertso literarioa, eta honen barruan bere burua ere eraldatuta eta erredimituta agertu zen. Conrad-ek (idazlan ezagunen egilea izanik) osatu zuen, honela, erreal finitua, eta finitu honek hedatu zuen Conrad-en beraren gagnetik ere zabalkunde unibertsala. Aurretiazko leialtasun baten aldeko apustua egitean, eternitatean lortu beharrekoa aurreratu zuen, bai eta bere lan artistikoaren hedapena eta eragina ere.

⁹⁵ Desubjektibazioa litzateke, beraz, gertakizunarekiko leialtasuna jaisten eta galtzen ari denean.

⁹⁶ (BADIOU 1982), 293. or.

gunea hustu egiten du. Gune hustu horren inguruan (lege, arau, sinbolo edo moral erreferenterik ezean) hegaldian dabilen “norbaitek” hartzen du husturiko gunea. Subjektibazioa da hegaldi horren etena, gune hutsak bortxatu egiten duen gaindiaren kariaz. Gaindiaren eraginez suertatzen da gunearen suntsiketa-alterazioa, hau da, gunea estaltzen duen espazio sinbolikoaren deseuztapena gauzatzen da, gaindiaren eragina medio.

Prozesu subjektiboa da, Badiou-ren arabera, “*gaindiaren gunetzea gaindiak berak zentratu duen lekuan; berrosaketa da*”⁹⁷. Gunearen gaindi etelea, hauslea, apurtzailea berriz ere lekutzen da gunearen lekuan, baina orain eraldatuta dago gaindiaren ekitearen ondorioz. Sinbolikoa berrizuli egiten da, baina espazioa aldaturik dago, aurreko gaindiaren izaeraren eraginez. Gaindiak, beraz, gunea bortxatu egiten du, geroago berriz ere hartzeko; prozesu subjektiboan zehar aldatuta izan den gunea berriz hartzeko, alegia.

*“Subjektu-efektua da, finean, subjektibazioaren eta prozesu subjektiboaren unitate zatiezina. Une hauetariko bakoitza abstraktua da. Ez da onargarria subjektuaz mintzatzea, suntsiketa-berrosaketa prozesu baten argitan ez bada; prozesu hau ausentearen eta gaindiaren dialektikaren menpekota ere bada, bigarren artikulazio batean”*⁹⁸.

Hau da, sinbolikoaren (ausentea) eta gaindiaren (erreal) dialektikaren menpekota da prozesu subjektiboa.

*“Subjektibazioa angustia eta kuraian zatikatzen da”*⁹⁹.

Esan nahi baita, egon daitekeela gunearen suntsiketa soilik sinbolikoa (angustia), edo gunearen suntsiketa erreal (kuraia). Lehen kasuan, guneak gaindia menperatzen du; bigarrean, gaindiak alde egiten du gunearen erakarpen-eremutik (gaindiaren gainetikoa).

*“Prozesu subjektiboa supernia ala justizian zatikatzen da”*¹⁰⁰.

⁹⁷ Idem, 293. or.

⁹⁸ Idem, 293. or.

⁹⁹ Idem, 293. or.

Lehen kasuan berrosaketa egingo da aurreko ordenu sinbolikoaren eremuan, legearen edo arau zehatzaren gune izutzailearen barnean (estatuaren gaindiaren agindupean) gaindi angustiatua zurrupatuz. Bigarren kasuan, ordea, gunetzea gaindi eraldatzailearen agindupean burutuko da (kuraia), orain subjektu osatuak sinbolikoki zabaldu eta aldatu duen espazioan.

“Lau kontzeptuen topikak (angustia, kuraiak, justizia eta supernia kontzeptuen topikak) izendatzen du subjektu-efektua. Topikak korapiloa egiten du, bi bikoteak erabiliz: angustiak-superniak ψ efektua sortarazten dute; kuraiak-justiziak, aldiz, α efektua. Subjektu bat ez da (jakintzari) emanda dagoen ezer; aurkitua izan behar du”¹⁰¹.

Angustiak superniari egiten dio dei eta kuraiak justiziari. Aipatu lau irudiak ez dira subjektuaren osagaiak, eta ez dira subjektuaren zatiak (ez dago subjektu angustiatuak, edota subjektu kuraiadunik ezta justiziadunik ere). Ez dira, bestalde, esperientzia subjektiboak, ezta sentimenduak ere (gorrotoa, maitasuna, herra, mendekua). Badiou-ren ustez, ibilbidean (ibilbide subjektiboan, jakina) diren subjektu-efektuaren operatzaileak edo prozesuak dira, non sentimenduak adierazten diren.

Subjektu-efektuaren definizioa honako hau izan daiteke *errealak gaindian dagoen kontsistentzia suntsitzailea*. Eta definizio honetan subjektu-efektuaren lau kontzeptuak ditugu:

Angustia: Errealak gainezka egiten du, baina gehiegizko errealak dago espazio sinbolikoak jasan ahal dezan. Gunea bere lekuan mantentzen duen indar subjektiboaren (gaindiaren) arazketa (garbiketa) ez-nahikoa da.

Supernia: Boterearen kontsistentzia estrukturala da. Bestearen (aurkakoaren) suntsiketa da legea, araua eta sinbolikoa mantentzearen. Gunearen beraren gaindia da egituraren, subjektibitate izutzaile eta asimilatzailearen bidez gauzatua.

Kuraia: Errealak gainezka egiten du, baina erreal hori amatatuz doa (amaigabekoaren

¹⁰⁰ Idem, 293. or.

¹⁰¹ Idem, 294. or.

mugaketa). Indar subjektiboaren hustuketa gertatzen da (gainezkaduraren gainetiko gaindia) eta gunetik aldendu egiten da. Beraz, sinbolikoaren eremuko gunetik-kanpoko zerbait suertatzen da.

Justizia: Gunetik-kanpokoaren kontsistentzia da. Legearen, sinboliko zaharraren eta lekuaren suntsiketa dugu, suntsiketaren ostean berria (bestea, ordenu sinboliko berria) bizi dadin, berrosaketaren bidez.

Angustia

“Angustia da ordenuaren izaera mantentzen duen etenaldi- mota hori, ordenu hila bada ere, gainezkaduran dagoen errearen inbasioaren bidez. Errealaren gairiak eten egiten du gune hutsaren inguruko hegaldia, suntsituz, kuraiak nahaste-borrastez jokatzen duenean. Errealak sinbolikoa zatikatu egiten duen unea baino, angustiak sinbolikoa hiltzen duen unea zehazten duela esan daiteke. Une horretatik aurrera, subjektibazioak blokeatu egiten du araua, espazio deuseztu gabe. Espazio geldiarazi honek desordenua ordenuaren heriotza bihurtarazten du, ordenu honen kontzeptupean”¹⁰².

Errealak (edozein gertakizunen ondorioz) sinbolikoa (legea) zatikatzen duen unea baino, sinbolikoa hiltzen dueneko unea zehazten du angustiak. Angustiak lege sinbolikoa eteten du errearen inbasioaren bidez, espazio sinbolikoa sostenga dezakeenarekiko gehiegizkoa baita (justizia mugaezina, exijitutako zuzenbide naturala, idatzi gabeko iragan betidanikoa, ideia erlijioso bat, bizi izandako desira indartsua, atera nahian ari den egia ikaragarria, etab.). Araua blokeatu egiten du, espazio sinbolikoa deuseztu gabe. Beraz, legearen suntsiketa sinbolikoa da, eta ez erreal. Erantzunik ez daukan (zer egin?, nola irten hemendik?) arazo baten gairizko produkzioa da. Gairiaren forma honen kausaz, gunea inplosionatu (barrurantz lehertu) egiten da. Legea sinbolikoki hil eta gero, superniak dei egiten dio errefortzuari. Gairia, orduan, sakrifikatu egiten da eta gunea berrezartzen da aurreko ordenuan (lehengo gune hutsa).

¹⁰² Idem, 307. or.

Supernia

“Zer da superni-motako prozesua? Kontsistentziaren figura da; berak jartzen du gaindia gunean, guneetan zehar sakabanatuz, nonahi. Supernia gaindiaren parte estrukturala da. Beraren kausaz gauzatzen da espazio topologikoaren algebrizazioa¹⁰³ (angustia subjektibatzaileak puzturik dagoela...) lekuak bere burua berrosatuko balu bezala, gunetzearen preskripzio¹⁰⁴ izutzailean. Izatez, supernia izuaren prozesu subjektiboa da”¹⁰⁵.

Superniak izendatzen du legeari berari (suntsikor) eransten zaion ez-legea (injustizia). Legearen gune legalean bertan (boterean, legearen zuzendaritzan) gaindian dagoen indarra da supernia. Legearen logika formalaren (interpretazio bortitza) indar subjektibo izutzaile eta errauslea izateaz konformatzen da supernia. Modu honetan, legea, lekua, espazio sinbolikoa ikutugabe gelditzen dira gaindi legalaren dei izutzailepean. Subjektua itzaliz doa, sinbolikoaren indar birrintzaileak amatatuta.

Angustiak beti egiten dio dei superniari. Etenaren errealagatik subjektua jasanezinezko presiopean izan ondoren, eta zuzendaritza topologikoaren espazioa (hau da, justizian berrosatzeko espazioa) izan ere ez dela ikusi ondoren, askea izateko pasioak batetik, eta angustia ekiditeko irtenbide arina bilatu nahiak bestetik, eramaten dute subjektua algoritmo laburrenean soilik izatera konfidantza (giza egitura aldatua), eta etena, hutsunea edo apurketa ez onartzera. Subjektu angustiatua errealean murgildurik dagoenean, legeari egiten dio dei, aurreko giza egiturari alegia, egiturak azkeneraino mantenduko duelako sinesmenaz. Supernian bilatzen du bere arazoetarako soluziobidea, modu arinean. Angustiaren subjektua, une honetara heldurik, edozer sinesteko prest egoten da, eta superniaren diskurtso integratzailean babesteko ere prest agertzen da.

Giza egituraren gune sinbolikorako itzulera (ustezko) hau argiro azaltzen da

¹⁰³ Espazio topologikoa da parte amankomuna, konpartitua, bata eta bestea berdintzen dituen, eta beraz, elementuak ezberdinak dira bere baitan. Algebrizazioa gertatzen dela esaten dugu, sakabanaketa adierazteko. Baturik zegoen multzoa sakabanatu eta elementu isolatu bihurtzen dira. Laburbilduz, espazio topologikoaren algebrizazioa da leku amankomuneko sakabanaketa, kohesioaren apurketa; taldea zatikaturik, BATa batzuk bihurtzen da. Sakabanaketarako lehen bidea, angustia da.

¹⁰⁴ Preskripzioa aurreratzea da, hau da, idatzi aurrekoa, lehendabizikoa.

¹⁰⁵ Idem, 308. or.

Stephen Crane-ren “*The Red Badge of Courage*”eko zati batean¹⁰⁶.

He lay down in the grass. The blades pressed tenderly against his cheek. The moon had been lighted and was hung in a treetop. The liquid stillness of the night enveloping him made him feel vast pity for himself. There was a caress in the soft winds; and the whole mood of the darkness, he thought, was one of sympathy for himself in his distress.

He wished, without reserve, that he was at home again making the endless rounds from the house to the barn, from the barn to the fields, from the fields to the barn, from the barn to the house. He remembered he had often cursed the brindle cow and her mates, and had sometimes flung milking stools. But, from his present point of view, there was a halo of happiness about each of their heads, and he would have sacrificed all the brass buttons on the continent to have been enabled to return to them. He told himself that he was not formed for a soldier.

And he mused seriously upon the radical differences between himself and those men who were dodging implike around the fires.

Gerra baten errealean murgildurik egoteak sortarazten zion angustia ahanzearren, protagonistak imajinarioan bilatu zuen bere arazoetarako soluziobidea, bai giza egituraren oroimenean (etxea, familia) eta bai galduriko espazio sinbolikorako itzuleraren desiran ere.

Kuraia

“Kuraia angustiaren puntu berean dago. Gaiadian balantzaka dagoen hura da kuraia. Legearen zatiketaren ostean (errealarekiko apostuaren ostean) mantendu egiten da eta desordenua gauzatzen du, zentzuaren ordenua bailitzan. Kuraiaren eremua muturreko bidea da. Beraren korrelato errektiboa angustiaz kargatua izaten den ordenu hila da. Kuraiak lege hilaren etena gauzatzen du gaiadiaren mesedetan, eta modu honetan gunearen preskripzioaren zatiketa burutzen du, bere auzkokidetzaren inbertsio osoaren bidez. Kuraia orok, aurretik inortxok ere pasabide ikusgarriarik aurki ez zezakeen lekutik pasatzera berriro bidaltzen du”¹⁰⁷.

Angustiaren leku berean dagoen kuraia, galderarik gabeko erantzuna da

¹⁰⁶ Tesiaren amaieraldeko dokumentazioan Crane-ren nobela osoa dago bildurik. Nobelaren edizio ezberdinen berri, tesi honetako beste atal batean ematen da, “*The Red Badge of Courage*”ren azterketa jasotzen duen atalean hain zuzen. Guk, hemen, Wordsworth Editions Limited-ek argitaraturikoa erabili dugu (CRANE 1994), II/34-35-36, 10-11. orr. (kap/parrag., orri.).

¹⁰⁷ (BADIOU 1982), 310. or.

(erabakia): “*egingo dut, eta kitto*”. Legearen zatiketarik sostengatzen da beti, apostu batean (errealarekiko apostuan, berria eraikitzen duen justiziaren prozesu errealarekiko apostuan), eta modu honetan desordenua, zentzuaren ordenu gisa burutzen du (eta ez kaos gisa, angustiaren kasuan gertatzen denez). Lege hila eten egiten du, gairiaren mesedetan. Kuraia guztiek egin daitekeenera berbideratzen dute, nahiz eta lehen ezina baino ez izan preskriptoa. Kuraia, gairian dagoen eta ezinezkoaz apostua dagien logika baten puntu posiblea da.

Kuraia ordenu sinbolikoekiko insumisioa da, errealaren babes disolbatzailearen pean. Gairian dagoen errealaren balentzietan inbertsioa egiten duen horretatik, bortxatu egiten da, eten eginez, gunetzearen espazioan. Angustiak heriotzari dei egiten dion artean, kuraiak positiboki gauzatzen ditu gune sinbolikoaren desordenua eta komunikazioaren haustura. Kuraiak espazio sinbolikoarekin apurtu egiten du, eta angustia, ordea, espazioak harrapatu gelditzen da, gairian gelditzen bada ere. Kuraiak lekuarekin apurtzea eta alde egitea eragiten du; angustiak, aitzitik, gehiegizko errealari uzten dio zantza dezan. Angustia gune desiratuaren gune-eza (ez gunetik-kanpoko) baldin bada, orduan kuraia errealaren (hau da, gunea puskatzen denetiko berriaren) bereganatzea da.

Berriz ere dakarkigu orri hauetara Crane-ren testua, berak maisuki azaldu baitzuen bere protagonistak pairatu zuen angustiatik kuraiarako pasabidea, “*The Red Badge of Courage*” liburuaren gailurreko unean¹⁰⁸. Badiou-k, dioenez, nobela hau “*subjektibazio anonimoaren benetako eskuliburua da, angustia eta kuraia aurkariaren unitateak sortzen duelako subjektua, zentzu bikoitzean, heroi zentzuan eta liburuaren subjektu zentzuan ere bai*”¹⁰⁹.

Yet gradually he mustered force to put the sin at a distance. And at last his eyes seemed to open to some new ways. He found that he could look back upon the brass and bombast of his earlier gospels and see them truly. He was gleeful when he discovered that he now despised them.

With the conviction came a store of assurance. He felt a quiet

¹⁰⁸ XXIV. atala da, ikus dokumentazioan. Hauxe da liburuaren azken zatia, amaiera.

¹⁰⁹ (BADIOU 1982), 311. or.

manhood, nonassertive but of sturdy and strong blood. He knew that he would no more quail before his guides wherever they should point. He had been to touch the great death, and found that, after all, it was but the great death. He was a man.

So it came to pass that as he trudged from the place of blood and wrath his soul changed. He came from hot plow shares to prospectes of clover tranquilly, and it was as if hot plowshares were not. Scars faded as flowers.

It rained. The procession of weary soldiers became a bedraggled train, despondent and muttering, marching with churning effort in a trough of liquid brown mud under a low, wretched sky. Yet the youth smiled, for he saw that the world was a world for him, though many discovered it to be made of oaths and walking sticks. He had rid himself of the red sickness of battle. The sultry nightmare was in the past. He had been an animal blistered and sweating in the heat and pain of war. He turned now with a lover's thirst to images of tranquil skies, fresh meadows, cool brooks - an existence of soft and eternal peace.

Over the river a golden ray of sun came through the hosts of leaden rain clouds. (XXIV/30-34, 85 or.)

Ezin da hobeto azaldu imajinarioaren aldentzea (Ni Ideala) eta sinbolikoaren desagerpena (kasu honetan gerrak sortarazten duen zartada eta madarikazio mundua)¹¹⁰. Argikusmen-une handi horretan subjektuak gain egiten du, bai lekuak zanpaturiko bere izate estrukturalaren gainetik, eta baita subjektua harrapaturik zeukan bizitza-heriotza dialektikaren iraunpenaren gainetik ere. Protagonistak egoera berria aurreratzen du, kemena iraunaraziz, angustiatik urrun, jasandako beldurretatik at. Beraren izakera garbitzen du, eta pentsamenduan berak menperatzen duen mundu berria eraikitzen du. Mundu berri honetan emozio ezezagunak agertzen zaizkio eta lasaitasun zein ziurtasunaren itsaso barean murgiltzen da.

Justizia

“Justizia, kausaren presagatiko kontsistentzia, legea erlatibizatzen dator, superniak absolutizatzen duenean. Berrosaketaren efektua, kasu honetan, ondoko lelopean dago: “beti errealezko gehiago, eta legezko gutxiago”. Supernian ezlegea legearen basakeria unibertuala bada ere, justizian, aldiz, legearen beraren korrosioa da. Justizia, eskubidearen gainditzearen printzipio

¹¹⁰ “Nia beti da injustua eta horrexegatik, nia jokoan kanpo ipiniz bakarrik pentsa daiteke justizian, edo, bestela, adimena gobernatzeko aukerarik eman gabe”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 91. or.

*subjektiboa da*¹¹¹.

Justizia da lekuarekiko, legearekiko, lege-arau edo arau moralarekiko subjektuaren atxikimendua eraldatzeko irudi zatikagarria agertzen duen hori¹¹². Superniak lege-zurruntasunaren arkaismo basarantz bideratzen duen artean, eta prozesu subjektiboaren kontsistentzia errepikapen obsesiboa burutzen duen artean (obsesio narratiboa, absolutizatzailea, errepikagarria, hutsunea bete nahian), justiziak, aldiz, prekarietate dialektikoa eskatzen du, beraren astinketarako, asaldurarako eta zatiketarako zabalik dagoelarik. Prekarietatea ez da lege zehatz batekiko; izatez, prekarietatea botere printzipioarena da, hau da, legearen zuzendaritzaren printzipioarena berarena da prekarietatea. Areago, ez-lege izanik legetzat balio dezakeenaren posibilitatea izendatzen du justiziak. Honek eskatzen du justizia-prozesua gidatzen duen subjektuak praktikan barne-legeaz jokatzea, lege propioaz eta ezlegalaz (ez-formalaz): bestera esanda, beharrezkoa da subjektuak ilegal jokatzea.

Honela bada, poesia (eta lan poetiko orokorra, bertso zein prosazkoa izan) ibilbide subjektiboaren gidatzat jo daiteke. Poesian –usuzko prosaz hausturan dagoen gainezkadura gisa– izari komunikagarriaren espazio hedatua ezartzen da, eta espazio honetan birformulatzen da komunikagarria. Poesia, justizia den heinean, subjektiboaren lengoia da eta komunikagarria ohi dena hedatu egiten du, aurreko gunearen espazioarekin apurtuz (prosa ez poetikoan oinarritutako espazioarekin apurtuz).

Justiziak kuraia elikatzen du atzera eraginez. Zeren kuraiak justiziarri egiten baitio dei bere sostengurako. Angustiak lege zurruna erreal gehiegizkoaren efektupean bokleatzen duen bitartean, kuraiak, aldiz, errealaren aldeko apostua egiten du kalkulu aurrerakariaren efektupean (hau da etorkizunarekiko eta berriaren sorkuntzarekiko konfidantzan). Angustiak erreala gaindian baino ikusten ez duen bitartean (bere mugagabetasunean, legearen blokeoaren kausaz gune sinbolikoa hil ondoren), kuraiak aldiz, gaindian dagoen errealaren barnean murgildurik badago ere, angustia saihestu egiten du, eraikitzen eta mugitzen ari den berriaren alde apostua egiteko, ordenu

¹¹¹ (BADIOU 1982), 311. or.

¹¹² “Justizia ez da existitzen; justizia, hain zuzen, sortu behar diren gauzen alorrekoa da, existitzen ez

zaharrerako lekurik ez dagoen proiektu berriaren aldeko egiteko hain zuzen. Angustian, dagoenaren kalkulua (errealitatean dagoen mugiezinezkoari begiratzea ikaragarria da) gaindian egiteko eragozpena suertatzen den bitartean, kuraiak, ordea, legea oratu egiten du, hau da, legearen estekaduraz askatu egiten da (egituraren kalkulu guztien gainteko gainezdura delako, eta errealaren aldeko apostua, edo lorgarria den berriaren aldeko apostua, egiten duelako). Angustiak bestearengana darama (supernia). Kuraiak norberarengana darama, uste izanez, gertakizunak aurrera joan ahala, prozesu subjektiboak legea eta gunea desagertu, eta berrizturik berragertuko diren mundua berreraikiko duela.

Argiago gera bedi, ikus dezagun taula batean zenolako aldea dagoen angustiaren eta kuraiaren artean, alde batetik, eta bestetik, superniaren eta justiziaren artean. Taula honetan nabariro gelditzen da angustia eta supernia desubjektibazioaren eremuakoak direla, eta kuraia eta justizia, ordea, subjektibazioaren eremukoak.

diren gauzak direlako". (CHARTIER) 280. or.

Angustia	Kuraia
Kuraiaren leku berean dago	Angustiaren leku berean dago
Erantzunik ez daukan galdera egiten du	Galderarik gabeko erantzuna da: <i>egingo dut</i>
Lege sinbolikoa eten du errearen inbasioaz	Lege hila eten du gaindiaren mesedetan
Errealak sinbolikoa hiltzen duen unea zehazten du	Intsumisioa da ordenu sinbolikoekiko (desordenua gauzatzen du)
Bestearengana darama (supernia)	Norberarengana darama (mundu berria)
Superniari (eta heriotzari) egiten dio dei	Justiziari egiten dio dei
Eragozpena da kalkuluak gaildian egiteko	Ezina zena posible egiten du
Gehiegizko errealak zanpa dezan uzten du	Lekuarekin apurtu eta alde egiten du
Espazioak harrapaturik gelditzen da	Espazio sinbolikoarekin apurtzen du
Gune desiratuaren gune eza da	Errealaren gunea bereganatzen du
Legea errearen efektupean blokeatzen du	Errealaren aldeko apostua egiten du
Ez du ikusten erreala gaildian	Gaildian dagoen errealean murgiltzen da

Supernia	Justizia
Legeari erantzen zaio ez-legea izendatzen du	Prekarietate dialektikoa eskatzen du
Legearen gune legalean gaildian dagoen indarra da	Zatitzailea da, subjektua lege eta arauetatik askatzeko
Legearen logika formalaren izutzailea izateaz konformatzen da	Ez-legea izanik, legetzat har daitekeena izendatzen du
Berari esker legea ikutugabe gelditzen da	Subjektua barne-legeaz jokarazten du
Legearen arkaismorantz bideratzen du	Ilegal jokatzea beharrekotzat jotzen du

Keating literatura irakaslea, justiziaren enblema dugu, N. H. Klienbaum egilearen “*Hildako Poeten Kluba*” subjektibitateari buruzko lan miresgarrian. Welton ikastetxe tradizionalako espazioan garatuz zihoan prozesu subjektiboan egiazko maisua izan zen Keating. Izendapen orokor baten bidez (“*carpe diem*”), operatzaile poetikoak erabiliz (*Hildako Poeten Klub*-eko poeta hilak), eta ezarritako jakinduriaren etena-haustura konbinatzen zituen metodoak erabiliz (bai eta filosofo baten hausnarketa-argumentua erabiliz ere), espazio subjektiboa sortzen bultzatu zuen, eta barne-ibilbidea eta justizia-prozesua jaioarazten eta irauten lagundu zuen. Justizia-prozesu hartan azalarazi ziren giza bakoitzarenak, baikortasun artistiko, maitasunezko eta politikakoak, eta hori dena kolektibo amankomunean trenkaturik (Kluba), berau baitzen koherentzia topologikoa, prozesuaren kontsistentzia. Arau gutxiago eta justizia gehiago aldarrikatu zuen, egia gehiago eta jankinduria moldakor, lehiakor eta komertzial gutxiago, lekuaren legea zatikatuz, eta ezarritako ordenua irauliz, eta modu honetan ikastetxearen espazio sinbolikoaren birkonponketarako baldintzak sortuz.

Poesiarako (egia-prozesua den aldetik) zein benetan gizatiarra den beste edozein ekitalditarako ere egundoko beharra aurreikusi zuen¹¹³:

“Poesian, beste edozein ekitalditan bezalaxe, bizitzaren oinarrizko gauzak direnei eskaini iezaiezue adore guztia: maitasunari, edertasunari, egiari, justiziarari... Eta poesia ez mugatu soilik lengoaiara (...) Zerbait kolokan dagoen edozein lekutan dela ere, hantxe ekoizten da munduaren errebelazioa. Poesia ezkutaturik egon daiteke gauza eta ekintza sinpleenetan, baina inoiz, inoiz ez da arrunta izango. Dena ematen dut ontzat, poema horrek alaitasun apurra ematen badigu, munduaren gainean dagoen estalkia zertxobait altxatu eta hilezkortasun-zirrara eskaintzen badigu behintzat”.


Subjektuaren Teoria irudietan

Gertakizun baten ondorioz, gertakizun horrek sortarazten duen egiak

¹¹³ (KLEINBAUM 1992), 73. or.

bultzatuta, prozesu angustiosoari ematen zaio hasiera. Angustia bi motatakoa izan daiteke: a) liberatzailea, gorantz bultzatzen duena, eta b) traumatikoa, angustia besterik gabe, supernian murgilduarazten duena. Angustia honetatik ihes egin beharra dago, nola edo hala. Angustialdia behin behinekoa da, beraz, nahiz eta berak ere nolabaiteko kontsistentzia duen (debnoran luza baitaiteke), baina kontsistentzia imaginarioa da.

Indibidua supernian murgildurik dagoenean kontsistentzia sinbolikoa du. Hauxe dugu egoera iraunkorra. Egoera honetatik jauzia egin lezake zuzenean (diagonalaki) kuraiara, baina kuraia hau abstraktua litzateke, nor bere supernian oinarrituta (norberaren sinesmenak, erlijioak, usteak), egiazko gainegitura (estatua) ordezkatu nahian eta norberaren neurriko egitura berria (alderdia, sindikatua, taldea) haren lekuan ipiniz. Diagonal honek ez du bidea laburtzen, desbideratzen baizik.



Kuraia, benetako kuraia bereganatzeko modu bakarra, angustia pairatu ondoren eta honetatik alde eginez lortzen da¹¹⁴, eta ez dakigu zehatz-mehatz zein den horretarako prozedura¹¹⁵. Badakigu, jakin, justizia-zentzuan oinarriturik dagoela, eta zentzu honek bultzatu egiten duela kuraia adieraztera. Honelaxe burutzen da subjektibazioa, indibidua subjektu bihurtzea alegia. Badakigu bestalde, justizian oinarrituriko kuraiak, lehenago edo beranduago, superni berria osatzera jotzen duela: superni berria itxuraldaturik dago, justizia ardatz duen egitura baita. Justizia ilegala izan den kasuetan (lekuz kanpo egon dena) orain legalizatu egiten da eta lekuan sartzen da. Leku honek sortarazten du berezko supernia, gune sinboliko berria, berrosaketaldia burutu ostean.

Subjektibitatea Conrad-engan

Alain Badiou-k idatzi du, Joseph Conrad angustiaren eta superniaren nobelagilea dela. Conrad-ek, hala ere, artearen definizioa ematen duenean, justizia eta egiarekin lotzen du bere funtzioa, angustia edo superniarekin lotuz ordez, “*The Nigger of the ‘Narcissus’*” nobelaren hitzaurrean argi azaldu zuen bezala:

“Artea, unibertso ikusgarrian justizia ahalik eta hobeto egiteko izpiritu norbanako batek egiten duen ahalegin gisa defini liteke, modu honetan argitara ekarriz justiziaren aspektu bakoitzak daukan egia, egia barreiaturikoa baina bakarra”¹¹⁶.

Lan bat artelana izan dadin baldintza hauxe baldin bada, orduan (Badiou-k ondo zioenez) beharrezkoa da artista kuraiaren artista –nobelagilea– izatea, bakarrik kuraiak lor baitezake justizia eta egia oinarri dituen mundua gauzatzea. Izatez, Conrad-ek osatu egin zuen kuraiaren ibilbide osoa, baina faseka. Bere literturgintzan bi aldi ezberdin

¹¹⁴ “...zeren, esan dezagun bide batez, kemena koldartasunaren aurkakoa da, baina baita alperkeria edo pasibitatearen aurkakoa (...) Kasu bietan beharrezkoa da atsedena, gozamina edo ihesa nahiago lituzkeen lehen bultzada animala gañditzea”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 66. or.

¹¹⁵ “Kemena ez da jakintza bat erabakizun bat baizik; ez da iritzi bat, ekintza bat baizik”, (JANKELEVITCH 1986) 2. kap. 90-103. orr.

¹¹⁶ Liburu honen gaztelaniazko edizioa erabili dut, “*El Negro de ‘Narcissus’*” (CONRAD 1985a) 7. or.

bereizten dira berehala: lehen fasea angusia-superniarena da, eta bigarrena, kuraia-justiziarena. Horrexegatik azal zezakeen horren ongi subjektuaren zatiketa dialektikoa, berak ere bizi izan zituelako subjektibitatearen bi faseak. Conrad da, subjektibitatearen ikuspuntutik begiratuta, inoiz izan den idazlerik bikainena, gizakiaren prozesu barnekoak eta unibertsalak agerian utzi baitzituen, pertsonaia-andana azalduz joan zen heinean.

Conrad-Crane harremanak

Stephen Crane-k bere bizitzaren azken hiru urteak Ingalaterra-n eman zituen, eta bertan adiskidetasun handia izan zuen Conrad-ekin. Aurretik esan dugun bezala, gazte amerikarraren eragina nabaria da Joseph-en idazlanetan; areago, “*The Red Badge of Courage*”-en esaldi eta egoerak presente daude Conrad-en lan literario garrantzitsuenetan, “*Lord Jim*” eta “*Under Western Eyes*” nobeletan batez ere. Henry Fleming-ek bizi izandakoak, Lord Jim-ek eta Razumov-ek (*Under Western Eyes* nobelan pertsonaia nagusia) bizi izandakoetatik hurbilekoak dira. Antzekotasunak ez daude soilik edukian edo lanaren xedean; espresabide, kolore, argitasun, tonalitate eta indar adierazle dramatikoan ere antzekotasun ugari antzeman daitezke. Anaia bikiak direla ematen du, beraien bizi-esperientziak antzekoak izan balira bezala eta bien munduarekiko ikusmirak estuki lotu balitu legez. Conrad-ek Crane-ri egin zizkion keinuak etengabeak dira, eta *The Red*-eko azken eskenaren irudiak eta esaldiak, esaterako, sarritan errepikatzen dira Conrad-en nobela ugaritan. *Urrezko gezia* narrazioaren titulua bera ere, *The Red*-en agertzen den azken esalditik hartuta dago ezbairik gabe. Conrad-ek ez zuen inoiz ukatu Crane-ren lanak sortarazi zion mirespena, eta pribatu zein publikoki aitortu zuen.

Gazte xume eta trebatugabe baten irudia, bere aberriaren beharizanen kariagatik gerraren makinaria handiaren zati bihurtuta, horren helburu-seriotasun eta zentzu trajikoaz aurkezturik zegoen, eta horren indar adierazle imajinatiboaz, ezen zartada itzelezkoa eragin

*baitzidan, zeharo ezohikoa eta guztiz miresgarria baitzen*¹¹⁷.

Soldadu honen emozioak erraz uler zitzaketen Joseph-ek eta berak sorturiko pertsonaiek. Gustukoa zuen, gainera, Crane-ren estilo inpresionista, metaforikoa, argia, zehatza. Hitzak erabiltzeko zehaztasun hura, Conrad-en iritziz, lengoiarako erraztasuna baino gehiago zen; inpresionismoaren bidez gauzen ezkutuko egia agerian uzten zuen, gertaera edo pertsonaien azalezko usteak astintzen zituen; hitzarekiko erraztasuna, krisi-egoeran dagoen gizakiaren sentimendu eta emozioak harrapatzeko erabiltzen zuen. Conrad-ek Crane-rengan gehien miresten zuena, gauzen muinera heltzeko trebezia zen, hau da, gizakia izaki subjektiboa den lekuraino heltzeko trebezia.

*Intuizioa txundigarria zeukan eta gure gizateriaren eta Lurraren gauzetarako aplikatu zuen, bizitzaren esentziaren egiazko izpirituraino heltzen zela ematen baitzuen, itxuretatik eta formatatik baino harantzago joanez*¹¹⁸.

Conrad-engan sortu zuen efektua egundokoa izan behar izan zuen, beraren bizitzaren muinean jotzen zuelako. Fleming-en bizierak bere biziera berezkoa zekarkion gogora¹¹⁹, eta nobelak subjektuaren barne-legea berrosatzeko gakoak azaltzen zizkion.

Crane-rekiko adiskidetasuna handia izan arren, lagunaren heriotz goiztiarra ez zen izan literaturarako galera handia, Conrad-en ustez.

*Bere heriotza goiztiarra galera handia izan zen bere lagunentzat, baina agian ez handiegia literaturarentzat. Uste dut goia jo zuela, eduki zuen denbora laburrean idatzi zituen liburu apurretan. Ez dadila gaizki uler esan nahi dudana: galera izugarria izan zen, baina bere arteak eskaini zezakeen gozamenaren galera, ez aurkikuntza berri batena*¹²⁰.

Crane adierazpide artistiko baten hasiera da, bidea, aurkikuntza; Conrad adierazpide horrekiko leialtasuna da. Misio horretarako baldintza guztien jabe zen

¹¹⁷ *Notes of Life and Letters* (CONRAD 1926), 49. or.

¹¹⁸ *Idem*, op. cit. 50. or.

¹¹⁹ Conrad-engan traidore-sentimendua urteetan zehar gauzatu zen, bere aita abertzale poloniarra izanik, berak Polonia utzi, aberririk gabe bizi (itsasoan, aurrera egindako ihesa) eta azkenik hiritar britaniar bihurtu zelako. Traidore-sentimendua izateko objektiboki arrazoirik izan ala ez, kontua da subjektiboki aberriaren zama urte askotan eraman zuela, bere bizitzaren amaierararte ia.

¹²⁰ *Idem*, op. cit. 50. or.

Conrad: okupazio errusiarraren aurkako herriaren borroka heroikoa zuen bere iraganean, itsasoan bereganaturiko 20 urteko esperientzia emankorra, XIX. mendeko errealitateari buruzko ezagutza zabala eremu sozio-politikoan, irakurketa ugari, irudimen handia, gaitasun dramatiko bikaina... Eta denbora. Bizitzeko, pentsatzeko eta idazteko denbora. Arrakastaz beregana zezakeen harturiko lana.

Beraren lana gizakiaren alde subjektiboaren gorabeherak zehaztasunez harrapatzea, azaltzea eta deskribatzea izango zen, eta itsasoaren gorabeheretan kokatuz, gizakiaren ibilbideak narratzea: egintzak ebaluatuz, norabideak ulertuz, arrakastak eta porrotak neurtuz, desbideraketak seinalatuz eta portaerak argituz, eta modu honetan egia agerian jarri, justizia eta injustizia nabari utzi. Crane-k lehen harria ipini zuen eta Conrad-ek eraiki zuen etxea, ondo ezagutzen zituen maisu handien traidizioari segida emanaz. Horretarako, estilo literario bakana erabili zuten, pertsonaien barnealdetik garatua, beren emozio, sentimendu, ideia eta baloreetatik kontatuta. Gizakiaren aurkaketa dialektikoa agerian jarri zuten: kanpo-munduarekiko dituen desira eta betebeharrak batetik, eta hauek sortarazten dioten norberaren buruarekiko enfrentamendua bestetik. Crane eta Conrad-en berritasun eta ezaugarri handiena, enfrentamendu honen garapena eta barne-gatazka azaltzea da.

Crane-ren ekarpena, batez ere, sentimendu eta emozioen azalpen zehatza egoera zehatzarekin lotzea izan zen, kalitate artistiko eta intelektualarekin eginda. Conrad-en zeregina bide honi jarraitzea izan zen, baina esperientzia subjektiboaren interpretazio eta epaiketa zehatzarekin osatuz. Horretarako ez zen nahikoa intuizioa edo jeinutasuna; ezagutza, esperientzia, hausnarketarako gaitasuna eta egoerarekiko kontzientzia osoa (objektiboa eta subjektiboa) behar ziren. Hori guztia egiteko ezinbestekoa zen ikuspuntua zehaztua, jarrera etiko bat eta gizakiaren planteamendu kontzeptuala edukitzea. Alde horretatik ikusita, Conrad gainetik dago, osoagoa delako, arriskatuagoa eta exigenteagoa. Conrad-en lana ikertzeak Crane-rena ulertzeko eta sakontzeko balio digu, eta hau da tesi honetan horrenbesteko garrantzia ematearen arrazoia.

Subjektuaren zatiketa dialektikoa

“*The Nigger of the ‘Narcissus’*” liburuan Conrad-ek bere idazlanetan lortu nahi zuen helburua aitortu zuen:

Arte guztiek, lehenik eta behin, sentimenei zuzendurik egon behar dute, eta hitz idatziaren bidez adierazten den sortze artistikoak ere sentimenei zuzenduta egon behar du, bere helburu sakonena gure emozioen iturburura heltzea baldin bada. Bere indar osoaz, eskulturaren plastizitatea, pinturaren beroa eta arte gorena den musikaren lilurapena edukitzera jo behar izango du (...) modu horretan sugestio magikoaren argia distiratu ahal izango du hitzen azal hutsalean, hitz gajoak, mendetako erabilpen axolagabeagatik gaur egun kaduko, agortu eta desitxuratuta dauden hitzak¹²¹.

Sentimenei zuzendurik egoteak ez du esan nahi sentsiblekeriatan jaustea.

Bihotzen historialaria izatea ez da emozioen historialaria izatea –nahiz eta harantzago barneratu eta moderatuki jokatu– bere xedea barrea eta negarra sortzen diren iturbururaino heltzea baita¹²².

Iturbururaino heldu nahi izanez gero, sakontzeko beharra dauka; emozioetatik harantzago jo behar du eta poza zein tristeziaren zergatia ulertu. Subjektibitatearen egilearen helburua sentitzea da, sentitzearen bidez ulertu ahal izateko.

Lortu nahi dudana xedea, hitz idatziaren laguntza bakarraz, zuei ulertaraztea, sentiaraztea eta, batez ere, ikustaraztea da. Hauxe baino ez, sinpleki. Lortzen baldin badut, hemen aurkituko duzue, zuen merezimenduen arabera, animoa, kontsolamendua, izua, gozamina eta atsegin dezakezuen guztia, eta akaso, eskatzea ahanzi zenuten egiaren zirrikitu hori bera ere bai¹²³.

Ulertzeaz mintzatzen denean, Conrad ez da ari jakintza teorikoaz, gizaki bakoitzaren berezitasunaren ikuspuntutik ulertzeaz baizik. Maitasunarekin zerikusirik handiagoa dauka, giza portaeraren azterketa zientifikoarekin baino¹²⁴. Lacan-ek ere gauza bera esaten zuen psikoanalistei buruz, jakintza teorikoa metatuta eduki arren,

¹²¹ *El Negro de ‘Narcissus’*, op. cit. 9. or.

¹²² *Crónica Personal* (CONRAD 1990), 39. or.

¹²³ *El Negro de ‘Narcissus’*, op. cit. 9. or.

¹²⁴ *El espejo del mar* (CONRAD 1988b), 43-45. orr.

pazienteari indibidualitate osoaz hurbildu behar zaizkiola; egian sakondu eta hitzaren bidez oinazea arintzen saiatu behar ziren, maitasunez eta pretensio akademikorik gabe; nahiz eta jakin bakarkakoaren egia honek jakintza orokorrari gehitu egingo zitzaiola, eta ikerkuntza zehatza unibertsalizatu egingo zuela.

Conrad-i interesatzen zitzaion jakintza ez da zientziaren alorrekoa, honen gaindian dagoena baino. Adierazpide poetiko eta artistikoaren alorreko jakintza da bere interesekoa.

Benetako jakintza jainkoek desiratzen dutena desiratzea da, agian inolako ziurtasun izan gabe beren borondatea izan daitekeenaz. Bizitarako eta arterako ardatza den arazo honetan, gure zoriotasunerako gehien inporta dena, ez da zergatik, nola baizik¹²⁵.

Hau da, nola esan eta nola bizi da artelana bustitzen duen jakintza egiazkoa. Modu horrek sortarazten du poza eta negarra, ironia, haserrea, entusiasmoa eta baita maitasuna ere, Conrad-en irudiko. Modu horrek estilo literario bat osatzen du: elkarrizketa subjektiboarena; eskatu gabe erantzun batzuk ematen ditu. Bai Conrad eta bai Crane-ren lana horixe izan zen hain zuzen, gizakiari buruz jakintza berrien ugaltzea. Argi diote zein den artistaren zeregina.

Denboraren isuri kupidagabeko ausardi-une batean, bizitzaren une iragankorra ezustean hartzea, jasotzea, lanaren hasiera baino ez da. Samurtasunez eta fedez abiarazitako eginbearra, bizitza-zati hori mantentzean datza, ezbairik eta izurik gabe, guztien begibistan eta jarrera zintzoaren argitan. Eginbearra da beraren bibrazioa erakustea, beraren kolore eta forma; eta mugimendu, sinadura eta kolorearen bidez, bere egiaren muina agertaraztea¹²⁶.

Eginbear horretarako, oso ondo ezagutzen zituen irudiak erabili zituen: itsasoa, itsas-bidaia eta itsasuntzia, nahiz eta batzuetan itsasoa ez agertu, eta Londres ilunean, San Petersburg-en edo Ginebra-n garatu narrazioa. Itsasontzia da *gure bizitzaren sinbolo moral*a, beraren definizioaren arabera¹²⁷.

Itsasoa, bestalde, Naturaren indarren sinboloa da, gatazka eta bortizkeria

¹²⁵ *Crónica Personal*, op. cit. 39. or.

¹²⁶ *El Negro de "Narcissus"*, op. cit. 9. or.

politiko edo sozialaren sinboloa. Belauntzia, gizakiari laguntza ematen dion antolakuntza kolektiboa da, oinarri estrukturala; gehienez bakartasunean bizi izaten da bertan, izuak hartuta, errudun sentimenduaz, baina ausardia ere erakus dezake, kemena edo leialtasuna. Portuak, bere aldetik, helburu iragankorrek sinbolizatzen ditu, bidaiaren amaiera, sarritan desubjektibazioa eta ezarpen estrukturala ekartzen dituena. Garraiatutako gaiak, azkenik, ondasun materialak dira, alde batetik bestera eramaten dira eta portura usteldurik edo alperrik galduta hel daitezke, pertsonak bezalaxe.

Paisaia honetan, gizakiaren existentzian gako-uneak diren horiek bilatzen ditu Conrad-ek, une dramatikoak, den-dena jokoan jartzen deneko une berezia. Orain arte izan den guztia kolokan ipintzen denean, erabaki bat hartu beharra dauka; erabaki honek oraina eta iragana bideratuko dizkio eta etorkizuna baldintzatuko. Izan zenak garrantzia galtzen du eta izango dena ikusteko dago, baina baldintzatuta geldituko da. Muturreko egoera honetan edozer gerta daiteke, bizitza berriari hasiera eman ala infernuraino jaitsi, egia lotsagarria estaltzearen. Conrad-ek gutxitan aukeratu zuen bide bakarra, eta bere lan gehienetan bide biak ibiltarazi zizkien bere pertsonaiei. Muturreko egoera hauetan jakintzak eta nortasunak ez dute esateko gauza handirik¹²⁸. Azken hitza sentimenduak dauka, erabakigunean kontroletik kanpo dagoen sentimenduak, alegia.

Printzipioak lan conradiarren

Autobiografia batean Conrad-ek hauxe idatzi zuen:

Irakurtzen nautenek badakite konbentziturik nagoela mundua, mundu lurterra, ideia gutxi batzuren gainean ezarrita dagoela, oso sinpleak direnak bestalde: horren sinpleak, mendiak bezain zaharrak izan behar direla. Nabariro ezarrita dago, besteren artean, Leialtasunaren ideiarene gainean¹²⁹.

Leialtasunaz gain, beste ideia batzuk ere alderik alde zeharkatzen dute egile

¹²⁷ *Notes of Life and Letters*.

¹²⁸ Hau guztia ondo azaldu zuen Aristoteles-ek “*Ethique à Eudeme*” liburuan (ARISTOTELES), esan zuenean “*gertaera positibo batean itxaropen bakar batek ere ez dio kuraiari egiazko euskarririk eskaintzen; “itxaropenaren bidez edo ongarri baten esperoan” ausardi-zantzuak agertu nahi dituena ez da egiazko ausarta*”.

¹²⁹ *Crónica Personal*, op. cit. 40. or.

honen idazlana: egia, justizia, kuraia, ausardia, ideala... eta aurkakoak: faltsukeria, injustizia, koldartasuna, leialtasun eza, etab. Aurrekoak aurkako bihur daitezke, eta alderantziz. Areago, pertsona berarengan aldi berean egon daitezke aurkako biak, eta portaera kontraesanguratsuak eragin.

Guztien artean bi garrantzitsuenak hartuko ditugu, berauek mugatzen eta bultzatzen dituztelako beste guztiak: Leialtasuna eta Egia. Beraiei esker gizakia ausarta, kementsua eta leiala izan daiteke, eta hauen ezean giza miseria agertuko da (Conrad-en lanetan horren argi agertzen den bezala). Birtuteak, oro har, ez daude oso hedatuta eguneroko bizimoduan.

Hau (kemena), justizia bezalaxe, ez da ospetsua. Bigarrena, zentzu estuan, populuarentzako deigarria suertatzen da, betidanik (agian, errudun-sentimendu ilun bategatik) errukitasun-zentzua egotzi izan diolako. Gutariko gehienontzat, gure ilusioekin gustura eta bakarrik mantendu nahi dugunontzat, adoreak nolabaiteko alarma pizten du¹³⁰.

Adoreak akziora behartzen du, eta justiziak (justizia ez da errukitasuna, ezta legeak betetzea ere) konpromezu militantero darama, gehiengoak nahi ez duena, jakina. Conrad-ek uste zuen giza senaren joerak injustiziara bultzatzen duela¹³¹. Nik esango nuke injustiziara baino, boteretsuen interesen pean makurtzera bultzatzen duela; baina, praktikan, gauza bera da, egia esan.

Leialtasuna

Leialtasunaren gaiarekiko bereziki sentikorra izan zen Conrad, hain zuzen ere leialtasun eza leporatu izan ziotelako: aberritik alde egin zuen, eta ez omen zen leiala izan hizkuntza, familia, nazionalitate eta erlijioarekiko¹³². Berak bere defentsa agertu

¹³⁰ *Notes of Life and Letters*, op. cit. 30. or.

¹³¹ Azar (CONRAD 1994a),

¹³² “Leialtasuna laudagarria al da? Zeren arabera neurtzen den. Edo beste modu batera esanda: leialtasuna zein baloreri diogun arabera. Leiala, zeri? (...) Inork ezin dezake esan erresumina birtutea denik, nahiz eta gorrotari edo sumindurari leial mantendu. Irain batekiko oroimen ona izatea, leialtasun negatiboa da. Leialtasunari dagokiola, epitetoa ez al da funtsezkoa? Halaber, bada izan gauza txikiakiko leialtasuna eta zikoizkeria baino ez da; eta baita lelokeriekiko oroimen tematia, peterrekeria eta burugogorkeria hutsa dena (...) guk nahi dugun birtutea, beraz, ez da edozein leialtasun-mota, leialtasun positiboa eta leialtasuna zintzoa baizik”, (JANKELEVITCH 1986) 140-142. orr.

zuen.

Gizakien jokaera epaitzeko unean azalezinezkoari lekua eman behar zaio, are gehiago azalpen bakarra ere betikoa ez den mundu batean. Inori ezin zaio inolaz ere egotzi, arinki, leialtasun-eza. Bizitza hilkor honetan itxurak oso engainagarriak dira, gure zentzu ezperfektuekin epaitu behar dugun guztia bezain engainagarriak. Barne-ahotsa leiala izan daiteke bere babes ezkutuaren amaieraraino. Tradizio berezi batekiko leialtasuna gertakizunetan zehar manten daiteke, nahiz eta gertakizunok berarekin zerikusi handirik ez izan: posible da, halaber,, bestalde, sakada azalezin batek alde zuzen bultzaturiko bideari ekitean zeharo leiala izatea.

Denbora gehiegi hartuko luke giza izaeraren barnean dauden kontraesanen arteko lotura estua azaltzeko, lotura horrek batzuetan traizioaren jantzi etsia janztera behartzen badu ere. Agian onartu beharko litzateke, egiatan, inolako azalpenik ez dagoela¹³³.

Gure sakada inkontzientea misterioa da sarritan. Batek daki Conrad-ek hartutako bidea (itsasoratzea eta ingelesa bereganatzea) ez ote zen izango bere aitaz zuen irudiari leialtasuna mantentzeko modua (aberriarentzako askatasuna lortu eta aitaren itzulpenetako hizkuntzari atxikitzea). Arrazoi ezkutuak ez dira garrantzitsuenak. Kontua da, printzipio batzuei leialtasuna adieraztea; eta alde horretatik, Conrad-en leialtasuna zalantzatik kanpo dago. Bere liburuetan¹³⁴ Polonia maitea presente egon zen sarritan, poloniarra sentitzen baitzen sakonean. Beste batzuek ere Ingalaterra-rekiko adierazi zuen leialtasuna ipini dute agerian. Ingalaterra-k hizkuntza, aberria eta familia eman zizkion, eta berak ordainean, literatura ingelesaren orri ederrenetarikoak idatzi zituen. Bere bizitzako gertakizuna izandako zen ingelesaren aurkikuntzari leiala izan zitzaion.

Edozein kasutan ere, inoiz ezin izan zuen gainetik kendu traizioaren mamua, eta nolabait barneratu egin zuen. Ez da harrigarria, beraz, bere nobela batzuetan batera garatzea leialtasuna eta leialtasun eza; leialtasuna arriskuan jartzen denean, traizioa agertzen da.

Ez dakit. Ematen du bizitza traizio-katea bat baino ez dela; mota guztietakoak daude. Konfidantza traizionari daiteke, eta itzaropena eta

¹³³ *Crónica Personal*, 82. or.

¹³⁴ Batez ere *Prince Roman* narrazio laburrean.

(...) *desira, eta sakratuena...*¹³⁵

Idea bat ere traiziona daiteke, eta egia bat ere bai, hau da, edozein leialtasun-mota. Traizioa, funtsean, norberaren buruari eginiko traizioa da, gainontzekoek norberarengan ipini duten konfidantzari leial ez mantentzeagatik. Eta garesti ordaintzen da. Baina Conrad-ek dioen bezala, “*badago zerbait heriotza baino txarragoa dena, fede eta adorearen galtze osoa, alegia*¹³⁶”.

Egia

Ez dago zalantzarik egile honek egia eman zion garrantziaz, edozein lan artistikoren oinarrian kokatzen baitzuen.

(...) *eta honi gehitu behar diot nire funtsezko konbentzimendua, alegia, arte mailara igo nahi duen, edo bere garaiko gizon-emakumeen kulturaren leku bat hartu nahi duen edozein fikzioaren justifikazio bakarra egia dela*¹³⁷.

Conrad-engan, eta subjektuaren zatiketa dialektikoari dagokiola, bi modutara uler daiteke egia: a) gizakiaren barnealdean dagoen ezagupen ezkutua: imajinarioan babesa bilatzen du eta ahantzi nahi izaten da; edo b) prozesu erreal eta leiala: erabakitasunaren bidez urratsak uzten ditu justiziaren bidean eta subjektuak eraikia da.

Lehen motako egia, ezkututa badago ere, ez dago ahantzita hondorik gabeko putzu sakon batean. Irudi eta sinboloen artean ezkutaturik mantentzen da, eta sintomen bidez deskubri daiteke¹³⁸. Azalera ateratzeko indarra egiten du, baina ez dugu onartu nahi izaten.

*Egia itzal bihurri eta iheskorra da, eta ezinezkoa da bere irudia finkatzea*¹³⁹.

Egia ikaragarri horrek gizaki batzuen bizitza osoa baldintza dezake, eta

¹³⁵ *La Flèche d'Or* (CONRAD 1928), 346. or.

¹³⁶ *The Warrior's Soul*.

¹³⁷ *Under Western Eyes* (CONRAD 1993), 8. or.

¹³⁸ *Los duelistas* (CONRAD 1983b), 56. or.

¹³⁹ *Lord Jim* (CONRAD 1984c), hitzaurreak, XVII orrialdean, Conrad-ek Cunninghame-ri 1899ko otsailean idatzi zion gutunean esandakoa jaso du.

ekintzara bultza ditzake gizakiak, berarengandik ihes egitearren. Egia horrek, osotasunean hartuz gero, hil dezakeelako, Lacan-ek dioenez.

Bere bizitzaren eta lanaren bigarren garaian ordea, Conrad-ek egiaren beste bertsioa ezagutu zuen: kausa bati izandako leialtasunean eraiki den egia, egia askatzailea, bizitzarako zabalbidea; justiziaren prozesuan kuraiaren bidez eraikitzen den egia da¹⁴⁰.

Lehen motako egian desinteres interesatua dago, eta niaren eta imajinarioaren nagusitasuna nabarmentzen da. Bigarren motako egian, etikaren arlokoan, interes desinteresatua¹⁴¹ dago, berekoikeriarik gabekoa, niaren gainetik gainezkaduran, ni imajinarioa prozesu errealearen menpean egonik.

Pertsonaia femeninoak

Egia eta leialtasunaren zatiketa dialektikoa pertsonaia femeninoetan ere nabari daiteke, zeinek narrazioak sentsualitate, pasio, leialtasun, kemen eta sentimenduz betetzen baitituzte. Egia maitasunezkoak –beti presentea eta intentsoa– amaiera ezberdinak ditu, pertsonaia gizonezkoen gorabeheren arabera, eta ez egoeren zoriaren arabera. Alde horretatik ikusita, Conrad bere garaiko semea izan zen eta pertsonaia femeninoei egotzi zien papera guztiz tradizionala da.

“*Lord Jim*”, “*Heart of Darkness*”, “*Under Western Eyes*”, “*The Secret Agent*”, “*Nostramo*” eta “*An Outcast of the Islands*” narrazioetan¹⁴² maitasun femeninoa beti mingostasunean, tristuran, malenkonian, etsipenean, egonarran edo zoramenean amaitzen da. Hala ere, arima femeninoa angustiak janda badago ere, beren maitasunaren erabakitasun eta kuraiak, eta sentimenduen borrokan jarri duten leialtasunak salbatu egiten ditu, zoramenetik edo heriotzetik libratuz. Halaxe gertatzen da *Chance*, *The*

¹⁴⁰ Egia-mota honen bi adibide paradigmatico dira *Prince Roman* eta *The Rover*.

¹⁴¹ “*Orduan, nor bere interesari uko egin behar dio? Ez horixe. Baina justizia pean ezarri behar da, eta ez alderantziz*”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 87. or.

¹⁴² Gaztelaniazko edizioak erabili ditut, (CONRAD 1984c), (CONRAD 1980a), (CONRAD 1993), (CONRAD 1994b), (CONRAD 1986a) eta (CONRAD 1983c).

Rescue, *Victory*, *The Rover* eta *The Arrow of Gold* nobeletan¹⁴³. Agerturiko adorea gatik jasotzen duten saria zoriontasuna da, behin behineko zoriontasuna bada ere. Conrad-ek onartzen du emakumeengan koalitate bereziak daudela, batez ere maitasunaren suzko proban.

Benetako adorea erresistentea eta iraunkorra dute, emakumeek bakarrik eduki dezaketenaren motakoa, kategoriazko emakumeak direnean, hau da, ezerean aurrean kokildu egiten ez diren kategoria horretakoak¹⁴⁴.

Maitasun-jokoa presente dagoen egoeretan, esaterako, adorea ikusgarriagoa da egoera arriskutsuetan baino.

Maitasuneko-gertaerak, agian, gertaera arriskutsuak baino ikusgarriagoak dira. Esaterako, inork ez dio maitasunari aurre egiten gudaroste bateko kideekin batera. Maitasun-gertaerak arraroagoak dira, pertsonalagoak, intimoagoak¹⁴⁵.

Haustura eta kontsistentzia

Ikusi dugunez, Conrad-i gehien interesatzen zitzaiona, gertakizunak gizakiarengan sortarazten duen haustura edo desegituraketa zen. Haustura honek ez du modu berean eragiten pertsonaia guztiengan, hain zuzen ere, ez baitu modu determinatuan eragiten. Ez dago jakiterik zergatik kokiltzen diren gizaki batzuk ekaitz baten aurrean, beste batzuk aurre egiten dioten bitartean; edo; edo, azkenik, zergatik pertsona batzuek ihes egiten duten gertakizuna jazotzen denean, eta beste norbaitek kuraia eta adorea erakusten duen. Ezin da jakin. Giza errealean dauden zergatik espazio batek zora dezakeen norbait, gainontzekoak afektatzen ez dituen artean gune batzuk erabakiezinak dira, eta alde zuzeneko kalkulua burugabea da¹⁴⁶. Gizakien apostuak a

¹⁴³ Gaztelaniazko edo frantsesezko itzulpenak erabili ditut. *The Rescue* liburuaren erreferentzia ez dut sartu, baina *The Rover* en bi edizio sartu dut, batean *El pirata* izenburuaz itzulita eta bestean *El hermano de la costa* tituluaren pean argitaratu zena. (CONRAD 1994a), (CONRAD 1987), (CONRAD 1985b), (CONRAD 1984b) eta (CONRAD 1928).

¹⁴⁴ *El alma del guerrero y otros cuentos de oídas* (CONRAD 1984a), 92. or.

¹⁴⁵ Idem, op. cit. 13. or.

¹⁴⁶ “Birtute guztiak bezala, adorea orainaldian bakarrik existitzen da. Aurretik adorea agertu izanak ez du frogatzen berriz izango denik, ezta oraingo unean eduki daukanik ere”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 69. or.

priori ebaluatzeko ezintasun ontologikoa dago, apostuak bakanak baitira (hau da, indibidualak dira eta, gainera, egiaren eremukoak). *a*

Hala eta guztiz ere, kuraia noiz agertuko den esan ezin badezakegu ere, *posteriori* Conrad-en historiografian bi Conrad ezberdin dagoela esan dezakegu: bata, kontsistentzia estrukturalera daraman haustura algebraikoarena, eta bere irudia Lacan-en korapilo borromeoan dugu; eta bestea, kontsistentzia subjektibora daraman haustura algebraikoarena, inkontzientera daramana, gunetik-kanpora. Lehen kasuko kontsistentzia imajinarioa (edo sinbolikoa) da. Subjektuaren mugimendu guztiak imajinarioak zuzentzen ditu, errearen mugimendua beraren pean jartzen du eta sinbolikoak babesa ematen dio. Bigarren kasuko kontsistentzia erreala da. Errealak zuzentzen du subjektuaren ibilbidea; imajinarioak, etengabe astinduta, erreferentzia gisa soilik balio dio errealean burutuko den eradalketa berrian; sinbolikoa, azkenik, mugimenduaren indarraren eraginez gaindituta dago.

Dialektika estrukturalen, gertakizun-hausturak angustiaren prozesuraino darama, bertan sinbolikoa nagusia izanik. Errealak errepresentazioaren espazioan bilatzen du lekua, noraezean dabilen subjektua sostengatzekotan, berau bi zatitan banatuta baitago, gainezkadura desiratzailan batetik, eta gunearen eragin zanpatzailan bestetik. Egiak, nola edo hala atera nahian, indarra egiten du, baina eragozpen-mekanismoak aurkitzen ditu ni imajinarioan.

Dialektika subjektiboan, ordea, gertakizun-hausturak matxinada-itxura du eta, angustiaren prozesutik abiatzen bada ere, kuraiarako goranzko bidea egiten du, leialtasunak lagunduta (eta subjektuaren kontsistentzia berezkoak ere apoiatuta). Dialektika honetan subjektua ez dago zatituta, haustura legean gauzatzen baita, arau barneratuan, gunean, aurreko arauan edo erreferentziazko gune sinbolikoan.

Lehen liburuetako Conrad bat dago, narrazio dramatiko, koloretsu, pasionatu, eder eta ezagunetako Conrad bat, nor bere deabruak harrapatuta agertzen digun

egilea¹⁴⁷. Beste Conrad bat ere badago (*Chance* izan daiteke inflexio-gunea), politikoagoa, kritikoagoa, balore etikoak agertzen dituen, sentimendu abertzalea, bere garaiko errealitatearen azterketa sakona egiten duena¹⁴⁸. Conrad hau injustizien aurka altxatzen da, heroi anonimoak aurkezten ditu, maitasun-kuraia, apostu abertzalea, botereen aurkako kritika zorrotza. Ezkorra da orainaldiko gerrak direla-eta, baina itxaropena dauka geroaldian.

Subjektuaren bi ibilbide hauek ez dira zoriaren araberakoak Conrad-en lanean. Esana dugu, eta egia da, kuraiarako jauzian erabaki-ezintasuna dagoela; baina hala ere, angustiaren prozesuak izaera estrukturala dauka eta, beraz, garapen-lege batzuen arabera burutzen da. Conrad-ek ederki aztertu du bere pertsonaien “patu trajikoa”, eta kasu batzuetan “salbatu” egin nahi ditu fikziozko gizaki hauek¹⁴⁹, jakin dakigun arren, giza errealitatea ez dela determinista (ezta fikzioa ere) eta inoiz ez dakigula bideak nora eramango gaituen.

Laburbilduz, esan dezakegu subjektu baten garapena zorizko elementuen, inguruabarren eta gorabehera pertsonal batzuren araberakoa izango dela:

- a) Gertakizun motaren arabera, indar dramatiko handiagoa ala txikiagoa, askatzailea ala zanpatzailea izan, subjektua modu batera edo bestera baldintzatuko du.
- b) Nortasun, izaera eta esperientziaren arabera, eta baita trebezia praktikoa, natural edo ikasitakoaren arabera ere, elementu estrukturalak determinatzaileak ez badira ere, gizakiarekin batera doaz bizitza osoan zehar.

¹⁴⁷ Lan hauek dira leku exotikoetan egindakoak: *Almayer's Folly*, *An Outcast of the Islands* eta *Nostramo*; tragedia betierekoak: *Lord Jim*, *Heart of Darkness*, *The Secret Agent* eta *Under Western Eyes*; untzi-nobelak: *Typhoon* (CONRAD 1986b), *Youth* (CONRAD 1979) eta *The Nigger of the 'Narcissus'*; eta idazlan autobiografikoak: *The Mirror of the Sea* (CONRAD 1988b) eta *A Personal Record*.

¹⁴⁸ Mota honetako liburuak dira *Victory*, *The Rover*, *The Arrow of Gold*, *The Shadow Line*, ipuin poloniarrak eta bere lan autobiografiko handiena, *Notes of Life and Letters*.

¹⁴⁹ Lacan-ek kondenatu egin zituen arren, berak esaten baitzuen amore ematen duenak ez duela itzulbiderik, eta zesioak gizakiaren izaki funtsezkoenaren galera dakarrela betirako.

- c) Gizakiaren bakartasun handiagoa ala txikiagoaren arabera; ibilbidean izango dituen (ala izango ez dituen) harreman sozialak, laguntzak eta elkartasunak berebiziko garrantzia izango dute gertakizunaren lehen inpaktuan, eta norabidea aldaraz dezakete.
- d) Subjektuaren desira, amets, itxaropen, ilusio, ideal eta buruestimaren arabera; munduarekiko duen ikusmira eta ingurunearen errealitatea; jokamoldearen oinarritzko printzipioak. Honek guztiak, bere mundu imajinarioak, garrantzi itzelezkoa du, batez ere lehen aldiko Conradengan.

Kontsistentzia estrukturala

Naturaren indarren aurkako borroka eta kontuaren efektua gizaki –demagun– burubero (gutxienez) batengan¹⁵⁰.

Hori da kontsistentzia estrukturala bilatzera eragiten duena, gertakizunak betean jotzea gizaki ahul batengan.

(...) bihotz beroa eta buru ahula: hori da enigmaren gakoa. Eta gauza jakina da, munduko kontraesan handienak eta gatazka zorrotzenak, sentimenduak eta pasioak esperimendatzeko gai den edonoren bularrean sor daitezkeela¹⁵¹.

Pertsonaren bakartasuna, esperientzia-eza edo laguntzarik gabe aritzea, arrisku itzelezkoak dira gizakiarentzat.

Naturaren indarren aurka aritzean, bakardadean, gainontzekoen begiradetatik aparte, gizakia benetan menperatzen duena, giza huskeriaren sentimendu zanpatzaile eta geratzailea da,¹⁵².

Imajinarioa (irudimena) da gizakiak bere ibilera existentzian gehien gidatzen duena. Gai honi buruz, Conrad-ek printzipio-deklarazioa egin zuen

Gizakien irudimenean bakarrik aurkitzen du egia bakoitzak existentzia eragingarri eta ukazina. Irudimena da, ez asmakizuna,

¹⁵⁰ *El socio* (CONRAD 1983a), 13. or.

¹⁵¹ *El anarquista y otros relatos* (CONRAD 1988a), 41. or.

¹⁵² *Nostramo* (CONRAD 1986a), 463. or.

*bizitzaren gidari nagusia, artearen gidaria den bezalaxe*¹⁵³.

Modu honetan, arterako (imajinarioaren eremurako) baliagarriak diren arauak, Conrad-ek edozein giza prozesutara hedatu zituen, eta dakigunez, imajinarioak pasioz ekitera bultzatzen du, indarraz, bortizkeriaz. Zoritxarrez edo zorionez, prozesu erreal batean egia ez dago imajinarioaren babespean. Subjektuaren leialtasun mugimenduak egia babesten du, egintzetan gauzatuz doan neurrian, argitara atereaz doan heinean. Imajinarioak hedapenean laguntzen baldin badu, beti izango da errealak inposatutako laguntza gisa, ideia bat aurreratuz, geroago egiak zehaztu dezan. Imajinarioa baliabide behin-behinekoa izango da soilik, beranduago errealak eragin dezan, eta errealitatea berriztu dezan. Prozesu honek, imajinarioa osatzen duten hipotesien, proiektioen eta desiren aldaketa etengabea eskatzen du, subjektuaren mugimendua sortuz doan beharizanaren arabera.

Conrad-en lehen narrazio exotikoetan mundu ilusorioa gori-gorian dago, gailurrean, *Karain* nobelan ikus daitekeenez.

*Karain-ek begirada tinkoaz segitzen zuen, eta bere irudi zurruna ikustean beraren joan-etorrietan pentsatu nuen, bere mendeku-desira ilunetan, kimeretan beraietan ere, gizakiak bezain urduriak: kimera leial, ezleial; poza ematen duten kimerak, tristezia ematen dutenak; mina ematen dutenak, bakea dakartenak; kimera ikustezinak, bizitza eta heriotza gauza lasaiak bailiren behatzera behartzen gaituztenak, inspiratzaileak, mingarriak edo zitalak*¹⁵⁴.

An Outcast of the Islands eta *Almayer's Folly* nobeletan, idealismoak heriotzera daramatza protagonistak. Bizitzatik harro doazen gizakiak, printzipio zurrunez eta ziur-itxurako norabidez, bakarrik dira

*beraien gurari, pasio eta instintuen esklabuak*¹⁵⁵,

eta Almayer-ek,

imajinazioaren begiekin, mugitzeke, han, ohetxoaren ondoan, begiak neskatoarengan tinkatuta, idolo lokartua bailitzan, etorkizun

¹⁵³ *Crónica Personal*, op. cit. 64. or.

¹⁵⁴ *Karain, un recuerdo* (CONRAD 1980b), 57-58. orr.

¹⁵⁵ *Un vagabundo de las islas* (CONRAD 1983c), 174. or.

*distiratsua ikusi zuen, geroaldi ospetsua, zoriontsua, aberatsa*¹⁵⁶.
Unibertso osoa beren bularrean eraman uste zuten horiek harritu
*egiten ziren ikustean, dena hondatu eta hil daitekeela horren erraz*¹⁵⁷.

Lord Jim-en kasuan ere amets hauek maitasun zehatzetik aldentzen dute, beste maitasun hilkor batera bideratzeko, edozein desira baino indartsuagoa den maitasunera: bere buruari buruzko egia jakitera, bere imajinarioaren egia.

*Eta hala ere, ez al da gizateria, bere bideari itsu ekitean, handinahi eta botere ametsengatik, gehiezigizko krudeltasun eta adoraziozko bideak hartzera bultzatua izaten dena? Eta zer da, azken finean, beti egiaren bila joateko dugun afana?*¹⁵⁸

Bizitzaren egia, beraz, gure itxaropenak elikatzen dituzten ametsetan dago. Conrad-ek diosku gure sentimendu, ideia eta egintzen aktiboa, imajinarioak menperatuta dagoela guztiz. Eta gauza bera da gure alde aktiboa amets bezala egotea (ameslariak) edo jardura praktikoz beteta egotea (ekintzaileak), ez dio axolarik. Kontua da, aktiboa imajinarioak zuzenduta dagoela, oso-osorik.

Horrela ondo ulertzen da imajinario horretan egia bat sartzeak sor dezakeen triskantza, “*miseria infinitua lortuko luke eta nahigabea, batez ere mediokreen baina hala ere idealisten munduan, non hobeto edo txartoago denok daramagun gure bizitza*”

Laburbilduz, Conrad-en lehen garaiko liburuetan, gizakiaren ibilbidea imajinarioak eta idealismoak markatu dutela esan dezakegu, porteraren gidariak eurak direla, eta mugiarazten duen barne-inpultsua subjektuaren alde imajinarioan konzentratuta dagoela, hau da, Freud eta Lacan-en Ni Idealean, edo La Rochefoucauld-ek deskribatu zuen *buruestima ilusorioan*¹⁵⁹.

Imajinarioaren subjektuaren kointzertzia, beraz, lacandarra da. Alde imajinarioak bultzatzen du subjektuaren mugimendua, eta batzuetan korapilo

¹⁵⁶ *La locura de Almayer* (CONRAD 1981), 280. or.

¹⁵⁷ Idem. op. cit. 242. or.

¹⁵⁸ *Lord Jim*, op. cit. 327. or.

¹⁵⁹ (ROCHEFOUCAULD 1984).

borromeoan osatzen du bere kontsistentzia. Errealia imajinarioaren pean dago, egon; sinbolikoak bitartean gunea berrantolatzen du eta behin-behineko babesak ematen dio subjektuari, eta modu honetan, subjektua gunean murgildurik gelditzen da *de facto*. Kontsistentzia honek nolabaiteko oreka eskaintzen dio noraezean dabilen subjektuari, *Chance* nobelan dioenez.

*Gizakiaren egintza guztiak, kriminalenak ere, zoroenak ere, pentsamenduaren, sentimenduen eta borondatearen nolabaiteko oreka eskatzen dute, joko batean mugimendu eragingorra lortzeko jarrera egokia eskuratzea izango balitz bezala*¹⁶⁰.

Kontsistentzia subjektiboa

Conrad-en bigarren garaian, bere garai heldu eta etikoan, dialektika estrukturalak bidea eman zion beste fase bati, ikuspuntua horren subjektibista ez duenari, aurrekoa bezain imajinarioa eta desiratzailea ez denari, ni pertsonalean gutxiago zentratzen denari alegia. Pertsonaien kontsistentzia errearen mugimenduari lotuago egongo da. Imajinarioaren arloa ere kontrolatuago dago fase honetan.

Leialtasuna mantentzeko, desira ez da nahikoa izango¹⁶¹. Justiziaren printzipioak sostengaturiko kuraia behar izango du orain. Oreka ere ez da imajinarioaren kontsistentzia zen bezain behin-behinekoa, sendoagoa baizik, koherenteagoa. Gizakiak agertu behar duen jarrera ondo nabaritzen da *The Shadow Line* nobelan.

*Eta zerbait gehiago dago: gizon batek zorte txarraren aurka borrokatu behar du, okerren aurka, bere kontzientzia eta enparau horien guztien aurka. Bestela, zeren aurka egin beharko luke norberak?*¹⁶²

Kontzientzia imajinarioaren eta ilusio faltsuen aurka borrokatu behar du gizakiak aurrera atera nahi izanez gero. Hauexek dira benetako arerioak, bizitzaren arriskuak edo kanpo-indarrak baino areago. Nahiz eta *okerrera joera iraunkorra*

¹⁶⁰ Azar, op. cit. 255. or.

¹⁶¹ "Leialtasuna izan behar zaio soilik beronen balioarekiko balio eta izate proportzionala duenari", (COMTE-SPONVILLE 1998) 35. or.

¹⁶² *La línea de sombra* (CONRAD 1989), 185. or.

izan, *egiarekiko leialtasunean* ekin behar da ¹⁶³.

Idea idealizatzeko arriskuaz ere ohartarazi zuen Conrad-ek *Notes of Life and Letters* liburuan, hau da, egia orokor bat (askatasunezkoa, justiziazkoa), oraindik ere egia den ala ez jakin gabe, egia itxi eta espazioan mugatu bihurtzen denean, eta gainera gizaki edo leku batean gorpuzten denean, arriskua sortzen da¹⁶⁴. Errealitate sozial egituratuak inoiz ezin du izan birtuosoak, bere barnean klase-interesak eta indibidualitateak nagusi direlako. Idealismo imajinario bihurtzen denean, egia gaiztoa da, komunismoaren ideologizazioarekin gertatu zen bezala. Ideial bat degradatu egin daitekeela azaldu zuen. Izpiritu berria behar da honen aurka egitekotan.

Gizakiaren patua sufritzea da, baina ez ekidinezinez porrot egitea edo alferrik eta etengabe etsitzea; sufrimendua da gizakiak bereizten dituen, baina bere barnean nolabaiteko zoriontasuna darama, burdinean sarturik dagoen harribitxia balitz bezala¹⁶⁵.

Azkenik, eta laburtzeko, kontsistentzia berri bat dagoela esan behar dugu, errearen koherentzia bat eta, ondorioz, ezberdina den patua ere badagoela, batzuetan dramatikoak dena, baina batere trajikoa ez dena. Patu honek gizateria osoa handitzen du, eta hemen aipatu ditugun pertsonaia conradiarrak horren sinboloak dira, duintasunean eta kuraian eraiki den giza izakiaren sinboloak.

Conrad-en Biografia

Joseph Conrad, Józef Teodor Konrad Nalecz Korzeniowski jatorriz, 1857eko abenduaren 3an jaio zen Berdyczew herrian, Polonia Errusiako Inperiopean zegoen garaian (gaur egun Ukraina da), eta 66 urte beranduago Bishopsbourne (Canterbury-n, Ingalaterran) hil zen 1924ko abuztuaren 3an.

Conrad-en aita, Apollo Nalecz Korzeniowski, poeta eta abertzale poloniar sutsua

¹⁶³ *Notes of Life and Letters*, op. cit. 7. or.

¹⁶⁴ Iraultza Frantsesa esaterako, nahiz eta borrokalarien ideia etikoa ekarri eta une historikoan berriztasun politikoa izan, idealizazioaren bidez *jaitzi* egin zenean lelo hutsa bihurtu zen, gertakizunaren jazo ondoren herri xeheak bereganatu zuenean.

¹⁶⁵ *La aventura*, op. cit. 463. or.

izan zen, eta gainera, 1863an Errusiako arauen aurka altxatuko zen matxinada poloniarra zuzendu zuen batzordeko antolatzaileetariko bat. Matxinada burutu aurretik ordea, 1861ean hain zuzen, atxilotua izan zen, eta Errusiako iparraldera (Vologda herrira) erbesteratu zuten. Berarekin batera joan ziren bere emaztea eta lau urteko semea, baina eguraldiaren ondorioz, 1865ean zendu zen emaztea, Joseph-ek zortzi urte baino ez zuela. “*A personal record*”¹⁶⁶ liburuan Conrad-ek gogorarazten duenez, ingelesarekiko lehen kontaktua zortzi urte zituela gertatu zen, beraren aitak Shakespeare eta Victor Hugo-ren lanak itzultzeari ekiten ari zitzaion garaian, bizimodua lortzearen. Aitarekin igarotako urte bakarti haietan, Joseph-ek Sir Walter Scott, James Fenimore Cooper, Charles Dickens eta William Makepeace Thackeray-ren lanak polonieraz eta frantsesez irakurri zituen.

Tuberkulosiak jota, Apollo Korzeniowski Krakovian zendu zen 1869. urtean, eta aitaren heriotzaren ondoren, amaren aldetiko osabak hartu zuen Joseph bere ardurapean. Osaba, Tadeusz Bobrowski izenekoa, abokatua zen eta Joseph gazteari (12 urtekoa) laguntza ekonomikoa eta afektiboa eskaini zizkion. Berak bidali zuen Conrad Krakoviako eskolara, eta handik Suitzara; baina gaztea aspertu egiten zen eskolan eta itsasoratzeko irrikitan agertzen zen. Azkenik, 1874. urtean, Marsella-ra abiatu zen itxasoratzeko asmoz, 16 urteko gaztea zela.

Bobrowskik urteko 2.000 liberako pentsioa eman zion eta gainera Delstang izeneko merkatariarekin jarri zuen kontaktuan. Honen merkataluntzian itsasoratu zen Frantziako merkataritzaz-zerbitzuan. Bere lehen bidaia, Martinika-raino “*Mont-Blanc*” untzian, bidaiari gisa egin zuen, baina hurrengoan txo lana eginez abiatu zen. 1876. urtean Mendebaldeko Indietara egin zuen bidaian zerbitzari modura untziratu zen “*Saint-Antoine*” itsasuntzian. Badirudi bidaia honetan negozio ezlegaletan hartu zuela parte, arma-merkataritzan, hain zuzen. Venezuela-ko itsasertzean zehar nabigatzean izandako esperientzia hauetariko batzuk “*Nostramo*” izeneko nobelan aurki ditzakegu. Untzian izan zuen lehen adiskideak, Donic Cervoni kortsikarrak, nobelaren heroia dekribatzeke ereduia izateaz gain, Conrad-en bizitzan eta lanean ere eragin handia izan

¹⁶⁶ (CONRAD 1912) Gaztelaniaz itzuli da: “*Crónica Personal*”, (CONRAD 1990).

zuen.

Marsella-ra itzuli zenean, zorretan itota zegoen Conrad, eta badirudi buruaz beste egiteko ideia barnean zebilkiola. Frantziako merkatal-untziterian zegoen marinela gisa; baina heldutasun-adina lortzean eta askaturik gelditzean, ikatza zeraman zamauntzi britaniar batean sinatu zuen, eta Konstantinopla-ra abiatu zen 1878ko apirilean, kubertako langile moduan. Bidaiatik itzultzean, untzia Lowestoft-en lehorreratu zen, Ingalaterra-n, 1878eko ekainean. Hauxe izan zen Conrad Ingalaterra zapaldu zuen lehen aldia, 20 urte zuela, eta orduko hartan ingelesezko hitz bakar batzuk baino ez zituen ezagutzen, geroago ingelesaren maisu bilakatu bazen ere.

Urrirarte Ingalaterra-n gelditu zen, baina urrian zurezko *clipper* lilugarri batean itsasoratu zen Londres-Sidney lasterketa egiteko asmoz.

Hamasei urtez aritu zen merkataritza-untziteria britaniarrean. 1880ko ekainean untziko bigarrenaren titulua atera zuen eta 1881eko apirilean 425 tonako "*Palestine*" untzian abiatu zen berriz itsasora. Honexek ekarri zion bere bizitzan gertakizun handia bilakatuko zena, lehen aldiz Ekialde Urrunera abiatzea hain zuzen ere; eta gainera, bidaia korapilatsua izan zuen, geroago literarioki erabiliko zuen material ugari eskaini ziolarik. Ekaitzak jota, "*Palestine*"-k baporruntzia baten aurka jo ondoren eta tripulazio zati handiak lagata, Ekialdeko Indietaraino heldu gabe, ikatzak sua hartu eta tripulazioak salbamenduzko txalupetara jo behar izan zuen. Conrad-ek Ekialdean egin zuen lehen lehorreratzea Sumatra-ko irla batean izan zen, hamahiru ordu t'erdiz txalupa batean egin ostean. "*Palestine*" untzian eta ondoren izandako esperientzia hauek guztiak, aldaketa gutxirekin, 1898an argitaratu zuen "*Youth*" ipuin azpimarragarrian kontatu zituen, ofizial gazte baten lehen agintaldia narratuz.

Londres-era bidaiari-baporeuntzi batean itzuli zen, eta 1883an berriz itsasoratu zen untziko bigarren ofizial gisa, "*Riversdale*" itsasontzian. Untzi hau Madras-en laga ondoren, "*Narcissus*" untzian abiatu zen berriz, oraingo honetan Bombay-ra joateko asmotan. Bidaia honek eman zion, hain zuzen, "*The Nigger of the "Narcissus"*" idazteko materiala, non untzian hil eta ustelduriko marinela beltz eta berekoiaren istorio miresgarria narratzen duen. Garai hartan hasi zen idazten ingelesezko lehen gutunak.

Hurrengo bidaietan zehar lehen ofiziala izateko agiria prestatzen jardun zuen, eta azkenik, 1886. urtean, bi gertakizun gauzatu ziren: hiritar britaniar bihurtu zen, batetik, eta bestetik, hiru hilabete beranduago marinel-maisu agiria eskuratu zuen.

1887ko apirilean lehen ofizial gisa itsasoratu zen *“Highland Forest”* izeneko untzian, Semarang hiria helburu, Java-n. Kapitana John McWhirr izan zen, eta izen berberaz agertarazi zuen *“Typhoon”* nobelan, *“Nan Shan”* untziko kapitain heroiko eta irudimenik gabekoa bera baitzen. Garai hartan, Asia-ko artxipelagoetan zehar merkataritzan ziharduen *“Vidar”* baporeuntziarekin egin zuen topo, eta bertan bospasei bidai burutu zituen lau hilabete t’erditan. Orduko garaian deskubrituriko mundu hura, Conrad-en lehen nobeletan agertzen zaigu, *“Almayer’s Folly”*, *“An Outcast of the Islands”* eta *“Lord Jim”* liburuetan, bai eta beste narrazio labur ugarian ere.

“Vidar” laga ondoren, ustekabean lortu zuen bere lehen agintaldia, *“Otago”* itsasuntzian, Bangkok-erako bidaiari zihoala. Esperientzia honek beste bi nobeletarako materiala sortarazi zion, *“The Shadow Line”* eta *“Falk”* nobelak. *“Otago”* untzia bere ardurapean hartu zuenean, baldintza desagokiak zituen. Ordurarteko kapitaina itsasoan zendu ondoren, berak bereganatu behar izan zuen agintea, eta oraindik 800 milia (1.460 km) falta zitzaien Singapore-ra heldu ahal izateko. Hiru aste behar izan zituen portura heltzeko, batetik haize-ezagatik, eta bestetik, tripulazioko guztiak gaixotu egin zirelako (Conrad eta sukaldaria salbu), kalentura handia zutelarik. Conrad-ek deskubritu zuenez, aurreko kapitainak kinina zama osoa salduta zeukan.

1889ko udan Londres-era itzuli zen, eta Thames ibaiaren ondoan hartu zuen etxebizitza, eta, hurrengo agintaldirako zain zegoen bitartean, *“Almayer’s Folly”* idazten hasi zen. Bere lana eten egin zen, estrainioena eta garrantzitsuena izango zen hurrengo abenturaren erruz. Polonia-n, oraindik ume zela, Afrika-ko maparen erdialdea bere hatzamarraz jo eta esan ei zuen: *“Nagusitzen naizenean hara joango naiz”*. 1889an Kongo-ko Estatu Askeak lau urteko entitate politikoa zuen, eta esplotazio inperialistaren eremuan murgildurik zegoen. Conrad-en txikitako ametsa gorpuztu egin zen Kongo River-en baporeuntzi batean agintaldia bereganatzeko aukera aurkeztu zitzaionean. Horretarako ahal izan zituen bitartekotasun guztiak erabili zituen, Bruselara joatea barne, kargua bermatzeko. Conrad-ek Kongo-n egin eta sentitu izan zuen

guztia ondo, isladaturik agertzen zaigu “*Heart of Darkness*”¹⁶⁷ nobelan; bere nobelarik ederrena, ospetsuena eta misterioitsuena, dudarik gabe. Titulua ez da ari, soilik, Afrika-ko bihotzaz, kontinente beltzaz alegia, deabruaren bihotzaz baizik –non dena ustela, gaiztoa, nihilistikoa den– eta, agian, gizakiaren bihotzaz ere bai. Istorio hau Conrad-en lanaren erdigunea da, eta erraz antzematen da, Kongo-ko esperientzia traumatikoa izan zela berarentzat. Agian gehiegikeriatan ari zen esan zuenean, “*Kongo aurretik ni animalia hutsa nintzen*”, baina egia da, hilzorian zegoenean Kurtz-en oihua hauxe izan zela “*The horror! The horror!*”, eta oihu hura Conrad-ena berarena zela. Kongo-n kolpe psikologikoa, izpirituala eta metafisikoa jasan zuen, eta bere osasun psikikoa ere kalteturik gelditu zen. Bestalde, orduetik aurrera bere bizitza osoan zehar maiz jasan behar izan zituen sukar handiak eta hezueria.

Lau hilabetez egon zen Conrad Kongo-n, eta 1891eko urtarrilean Londres-era itzuli zen berriz. Beste zenbait bidaia burutu zuen lehen ofiziala izanik, baina 1894an, bere babeslea Tadeuzs Bobrowski hil zenean, itsasoratzeari utzi zion. 1894eko udaberrian “*Almayer’s Folly*” nobela Fisher Unwin editoreari bidali zion, eta hurrengo urteko apirilean argitaratu zen liburua. Une hartan Conrad izena aukeratu eta bereganatu zuen idazletzarako, denek ezagutzen zioten izena alegia, aspaldidanik ikasia baitzuen britaniarrei zaila zitzaiela Korzeniowski izena ahozkatzea.

Unwin-go testu-irakurleak, Edward Garnett kritikariak, bigarren nobela idatz zezan bultzatu zuen Conrad, eta honela, lehenari “*An Outcast of the Islands*” nobela jarraitu zitzaion 1896. urtean. Nobela honetan ere berriz errepikatzen ziren Conrad-en ezaugarriak: izaera arlote eta itsua duen pertsonak beraren akatsen ondorioak pairatu behar ditu lurralde tropikalean, etxetik eta kide europearrengandik urruti.

Bi nobela hauek eragin zuten Conrad-en balorea gaizki ulertua izatea, eta une hartan bereganaturiko leloak bizitza osoan zehar lagundu zuen. Malasiako artxipelagoan kokatzeak erakarri zion ipuin exotiko eta itsasoari buruzko narrazioen egiletzat hartua izatea. Edonola ere, “*The Nigger of the “Narcissus”*” (1897), “*Lord Jim*” (1900),

¹⁶⁷ Nobela honetan oinarriturik, Francis Ford Coppola zine zuzendariak “*Apocalipsis Now*” izeneko filmea egin zuen.

“*Youth*” (1902), “*Typhoon*” (1903) eta beste zenbait narraziok ere hala pentsaraztera bultzatzen zuten. Baina “*Narcissus*”-en idatzi zituen hitzek argi utzi zuten, zein izan zen ingurune haiek aukeratzeko arrazoa: “*Arazoa ez da itsaso-arazo bat, baina untzi batean egonik, guztiz isolatuta eta lurralde guztietatik urrun, arazoa areagotu egiten da sinpleki, indar eta kolore bereziarekin nabarmenarazten da*”¹⁶⁸.

Bere beste lanetan ikus daitekeen egia osoa dugu hau. “*Lord Jim*” liburuaren azken partea oihaneko herrixka batean kokatzen da. Arrazoa ez da, jakina, Conrad-i oihaneko arazo moral eta emozionalak bereziki interesatzen zitzaizkionik, baizik eta errudun, ardura eta ziurtasun ezaren sentsazioek –gizateria osoari dagozkionak– ingurune hartan gehiago eragiten dutelako medebaldeko giro “*zibilizatuan*” baino, isolamenduak areagotzen duen logika eta ekidinezintasunez. Hauxe dugu, hain zuzen, Conrad XIX. mendeko beste idaleengandik bereizten duen ezaugarria, beste idazle gehienak gizartearen istorio naturalak kontatuz nobelaren ikusmira zabaltzen (ekiten, Balzac-en hitzak erabiliz) ahalegintzen ziren bitartean, Conrad-ek, aldiz, tragediaren isolamendura eta kontzentrariora jo zuela.

Hogeita hamazortzi urte zuela, 22 urteko Jessie George-rekin ezkondu zen, eta bi seme-alabaren gurasoak izan ziren. Nagusiki, Ingalaterra-ko hegoekialdeko bazterrean bizi izan ziren, eta bere idazle bizitzaren daturik nabarmenena osasun eskasa, pobreziarekiko hurbiltasuna eta izaera latza izan ziren. 1910 arte, “*Lord Jim*” (1900), “*Nostramo*” (1904), “*The Secret Agent*” (1907) eta “*Under Western Eyes*” (1911) bere nobela ospetsuenak idatzi zituen arte, ez zuen ziurtasun ekonomikorik ezagutu. Ehun libratuko pentsio zibila bereganatzen hasi zen, eta aldi berean John Quinn biltzaileak Conrad-en eskuizkribuak erosteari ekin zion –gaur egun oso merketzat jotzen dugun salneurrian, jakina. “*Chance*” bere nobela zatika argitaratu zen “*New York Herald*” egunkarian 1912an, eta 1915ean argitaratutako “*Victory*” nobelak ere arrakasta beretsua jaso zuen. Bizitzaren gainontzeko urteetan idazteari ekin zion etengabe, erreumatismoak jota. 1924ko apirilean errefusatu egin zuen Ramsay MacDonald lehen ministrariak egin nahi izan zion zaldun-titulu eskaintza, eta handik

¹⁶⁸ (CONRAD 1985a), egileak egin zuen hitzaurrean.

apurrera, urte bereko abuztuaren 3an, hil zen.

Biografia datatan

Urtea	Hilabetea	Adina	Gertaera
1857	Abenduak 3	-	Berdiczew-en jaio zen, Polonia-n (gaur egungo Ukraina).
1861		4	Aita Volodga-ra (Errusia) erbesteratu zuten, poloniar abertzalea izategatik.
1865		8	Ama hil zitzaion. Aitak ingelesetik itzultzen zuen.
1869		12	Aita hil zitzaion.
1869		12	Amaren aldeko Tadeusz Bobrowski osabaren babespean geratu zen. Krakovia eta Suitza-n ikasi zuen.
1874		16	Marsellan itsasoratu zen <i>Mont-Blanc</i> -en, bidaiari.
1876		18	Mendebaldeko Indietara <i>Saint-Antoine</i> -n, zerbitzari.
1878		20	Konstantinopla-ra itsasoratu, kubetako langile.
1878	Ekaina	20	Ingalaterra-n lehorreratu lehenengoz, ez zekien ingelesik.
1880		22	Untziko bigarren ofizial titulua atera zuen.
1881		23	Ekialde Urrunera <i>Palestine</i> untzian. Hondoratu egin zen.
1883		25	Londres-etik Madras-a <i>Riversdale</i> untzian, 2. ofizial.
1883		25	Madras-tik Bombay-ra <i>Narcissus</i> untzian. Ingelesez hasi
1886		28	Hiritar britaniar bihurtu zen, marinel-maisu agiria lortu.
1887		29	Java-ra itsasoratu <i>Highland Forest</i> untzian, eta irletatik <i>Vidar</i> untzian merkataritzan aritu zen.
1888		30	Bangkok-era <i>Otago</i> untzian, kapitain ustekabeko.
1889		31	Londres-en etxebizitza hartu zuen.
1890		32	Kongo River ibaian zehar baporeuntzian, lau hilabetez.
1891		33	Londres-era bueltatu eta bidaia txikiak, kapitain.
1894		36	Osaba hil ondoren itsasoratzeari utzi zion.
1896		38	Jessie George-rekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten.
			Osasun-eza eta arazo ekonomiko larriak ezagutu zituen.
1924	Apirila	66	Ingalaterra-ko zaldun-titulua errefusatu zuen.
1924	Abuztuak 3	66	Londres-en hil zen.

Conrad-en Bibliografia

Urtea	Titulua	Edukia	Oharrak
1895	Almayer's Folly - An Story of an Eastern River	nobela	
1896	An Outcast of the Islands	nobela	
1897	The Nigger of the "Narcissus"- A Tale of the Sea	nobela	Hitzaurrea daraman lehen edizioa, 1914
1898	Tales of Unrest	- Karain, a Memory - The Idiots - An Outpost of Progress - The Return - The Lagoon	
1900	Lord Jim - A Tale	nobela	superniaren sinboloa (Badiou)
1901	The Inheritors	nobela	Ford Madox Hueffer (Ford)rekin batera
1902	Youth: A Narrative & Two Other Stories	- Youth - Heart of Darkness - The End of the Tether	(*) Gaztelaniaz itzuli da " <i>La sogá al cuello</i> " eta " <i>Cabo de la cuerda</i> " izenburuez
1903	Typhoon & Other Stories	- Typhoon - Amy Foster - Falk - Tomorrow	
1903	Romance - A Novel	nobela	F. Madox Ford-ekin Gaztelaniaz <i>La aventura</i>
1904	Nostromo - A Tale of the Seaboard	nobela	
1906	The Mirror of the Sea - Memories & Impressions		
1907	The Secret Agent - A Simple Tale	nobela	
1908	A Set of Six	- Gaspar Ruiz - The Informer - The Brute	

		- An Anarchist - The Duel - Il Conde	
1911	Under Western Eyes	nobela	
1912	A Personal Record	saiakera	Aurretik <i>Some Reminiscences</i> izenaz argitaratu zen. Gaztelaniaz, "Crónica Personal" (Trieste)
1912	Twixt Land and Sea	- A Smile of Fortune - The Secret Sharer - Freya of the Seven Isles	
1913	Chance - A Tale in Two Parts	nobela	
1915	Victory- an Island Tale	nobela	
1915	Within the Tides- Tales	- The Planter of Malata - The Partner - The Inn of the Two Witches - Because of the Dollars	
1917	The Shadow Line - A Confession	nobela	
1919	The Arrow of Gold - A Story between Two Notes	nobela	Emakumeen kuraia (A. Badiou). Gizonen kuraia: "The Rover"
1920	The Rescue - A Romance of the Shallows	nobela	
1921	Notes On Life and Letters	saiakera	Egunkarietako saioak, 13 <i>Letters</i> eta beste 13 <i>Life</i> partean
1923	The Rover	nobela	Gaztelaniaz itzuli da "El pirata" (Alianza) eta "El hermano de la Costa" (Destino) izenburuez
1924	The Nature of a Crime	nobela	
1925	Suspense - A Napoleonic Novel		
1925	Tales of Hearsay	- The Warrior's Soul - Prince Roman	

		- The Tale - The Black Mate	
1926	Last Essays		19 saio, heriotzaren garaian liburu gisa bilduta
1923-28	Works of Joseph Conrad	bilduma	Berriz inprimatu zen gehiturik 1946-54an, 21 liburukitan
	The Sisters	(nobela amaigabea)	“ <i>Una avanzadilla del progreso</i> ” izenpean argitaratu zuen Laertes-ek (1979)

Atalean aipaturiko Bibliografia

- ARISTOTELES (1994). *Ethique à Eudeme*. Vrin. Paris.
- AZOURI, Chawki (1995). *El Psicoanálisis*. Acento. Itzul.: Milagros eta Piedad Oregui. Madril.
- BADIOU, Alain (1982). *Théorie du sujet*. Seuil. Paris.
- BADIOU, Alain (1985). *Peut-on-penser la politique?* Seuil. Paris.
- BADIOU, Alain (1988). *L'être et l'évènement*. Seuil. Paris.
- BADIOU, Alain (1990). *Manifiesto por la Filosofía*. Cátedra. Itzul.: Victoriano Alcantud. Madril.
- BADIOU, Alain (1992). *Conditions*. Seuil. Paris.
- BADIOU, Alain (1993). *L'éthique*. Hatier. Paris.
- BATZUK, EGILE (1991). *Lacan avec les Philosophes*. Bibliothèque du Collège International du Philosophie. Ed. Albin Michel. Paris.
- CHARTIER, Emile-Auguste (ezizenez ALAIN) (1970). *Propos II*. Pléiade, 1912eko abenduaren 2ko Propos.
- COMTE-SPONVILLE, André (1998). *Pequeño Tratado de las Grandes Virtudes*. Espasa. Itzul.: Berta Corral eta Mercedes Corral. Madril.
- CONRAD, Joseph (1912). *A Personal Record*.
- CONRAD, Joseph (1926). *Notes of Life and Letters*. Doubleday. New York.
- CONRAD, Joseph (1928). *La flèche d'or*. Gallimard. Paris.
- CONRAD, Joseph (1979). *Juventud*. Moby Dick. Itzul.: Elisabeth Vallverdú. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1980a). *El corazón de las tinieblas*. Lumen. Itzul.: Sergio Pitol. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1980b). *Karain, un recuerdo*. Laertes. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1981). *La locura de Almayer*. Montesinos. Itzul.: Rafael Marquina.

CONRAD, Joseph (1983a). *El socio*. Ediciones Libertarias. Madril.

CONRAD, Joseph (1983b). *Los duelistas*. Akal. Madril.

CONRAD, Joseph (1983c). *Un vagabundo de las islas*. Plaza y Janés. Itzul.: Antonio Guardiola. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1984a). *El alma del guerrero y otros cuentos de oídas*. Alianza. Itzul.: Enrique Murillo. Madril.

CONRAD, Joseph (1984b). *El hermano de la costa*. Destino. Itzul.: J.G.de Luaces. Madril.

CONRAD, Joseph (1984c). *Lord Jim*. Forum. Itzul.: Ramon D.Peres. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1985a). *El Negro del "Narcissus"*. Seix Barral. Itzul.: Ricardo Baeza. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1985b). *El pirata*. Alianza. Itzul.: Eduardo Chamorro. Madril.

CONRAD, Joseph (1986a). *Nostromo*. Laertes. Itzul.: Juan Mateos de Diego.

CONRAD, Joseph (1986b). *Tifón*. Taifa. Itzul.: Diego Hernandez.

CONRAD, Joseph (1987). *Victoria*. Ediciones B. Itzul.: Ramón B.Perés. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1988a). *El anarquista y otros relatos*. Ediciones B, Grupo Z. Itzul.: Pilar Lopez eta A.Hibbert. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1988b). *El espejo del mar*. Orbis. Itzul.: Javier Marías. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1989). *La línea de sombra*. Anaya. Madril.

CONRAD, Joseph (1990). *Crónica Personal*. Trieste. Itzul.: Miguel Martinez-Lage. Madril.

CONRAD, Joseph (1993). *Bajo la mirada de Occidente*. Alianza. Itzul.: Barbara McShane eta Javier Alfaya. Madril.

CONRAD, Joseph (1994a). *Azar*. Alianza. Itzul.: Miguel Martinez-Lage. Madril.

CONRAD, Joseph (1994b). *El agente secreto*. Alianza. Itzul.: Alberto Martinez Adell. Madril.

CRANE, Stephen (1994). *The Red Badge of Courage*. Wordsworth. Hertfordshire. UK.

DESCARTES, René (1988). *Discurso del Método. Meditaciones metafísicas*. Alianza. Itzul.: Risieri Frondizi. Madril.

FREUD, Sigmund (1990). *Psicoanálisis*. Alianza. Madril.

HEGEL, G.W.F. (1941). *Phénoménologie de l'Esprit*. Aubier. I-II. liburukiak. Itzul.: Jean Hyppolite. Paris.

HEGEL, G.W.F. (1984). *Lógica*. Orbis. I-II. liburukiak. Bartzelona.

JANKELEVITCH, V. (1986). *Traité des vertus*. Champs-Flammarion. Paris.

KANT, Inmanuel (1913). *Crítica de la Razón Práctica*. Librería General de Victoriano Suarez. Itzul.: E.Miñana Villagrasa eta Manuel G.Morente. Madril.

KANT, Inmanuel (1969). *La religión dentro de los límites de la mera Razón*. Alianza. Itzul.: Felipe Martinez Marzoa. Madril.

KIERKEGAARD, Sören (1967). *El concepto de la angustia*. Austral, Espasa Calpe. Madril.

KLEINBAUM, N.H. (1992). *El Club de los Poetas Muertos*. Plaza & Janes. Bartzelona.

LACAN, Jacques "Séminaire" in *Sciliced*, 6-7,

LACAN, Jacques (1954). "Séminaire" in *Ekainak* 30.

LACAN, Jacques (1966). *Écrits*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1973a). *Le Séminaire. XI. liburukia*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1973b). "Séminaire" in *Maiatzak* 15.

LACAN, Jacques (1975). *Les Ecrits. Séminaire I*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1989). *Escritos. Siglo XXI. 2. liburukia*. Mexiko.

LACAN, Jacques (1995). *El yo en la Teoría de Freud y en la Técnica Psicoanalítica*. Paidós. 2. liburukia. Ed. Jacques-Alain Miller. Itzul.: Irene Agoff eta Diana Rabinovich. Buenos Aires.

ROCHEFOUCAULD, Duque de la (1984). *Reflexiones o Sentencias y Máximas morales*. Bruguera. Itzul.: Emma Calatayud. Bartzelona.

ROUDINESCO, Elisabeth (1995). *Jacques Lacan, esbozo de una vida, historia de un sistema de pensamiento*. Anagrama. Tomás Segovia. Bartzelona.

WITTGENSTEIN, Ludwig (1985). *Tractatus logico-philosophicus*. Alianza. Itzul.: Enrique Tierno Galván. Madril.

“The Red Badge of Courage”

Azterketa

Atalaren Aurkibidea

SARRERA	235
Edizioak	235
Nobelaren edukia	236
NOBELAREN AZTERKETA	239
1. Gertakizuna	240
2. Desubjektibazioa	245
Supernia	245
Jarduera-eza.....	247
Ziurtasun fiktizioa	249
Ziurtasuna kanpoan bilatu nahia	252
Abiapuntura itzuli nahia	259
Heriotza	261
3. Zesioa	263
Zesioaren lehen zantzuak	263
Superniaren barneratzea zesioan	270
Supernirako itzulia	275
4. Subjektibazioa	279
Subjektibazioaren hastapena	279
Prozesuaren ezaugarriak.....	280
Berbiztearen argilunak	281
Subjektibazioaren sendotzea	286
Denbora eta espazioaren subjektibotasuna.....	290
Nia eta Bestea.....	295
5. Kuraia	298

Kuraiaren ezaugarriak	301
Kuraiaren aurrekaria.....	303
Gizaki kuraiatsua.....	307
DESUBJEKTIBAZIO-/SUBJEKTIBAZIO-PROZESUA	311
Angustiaren Prozesua	312
Angustiaren elementuen ezaugarriak	314
A. Desubjektibazioa	314
B. Zesioa.....	314
C. Subjektibazioa	315
Zenbait kasuren subjektibazio-eskemak	315

Sarrera

Edizioak

Stephen Crane-ren “*The Red Badge of Courage*” nobelak edizio ugari ezagutu du, bai ingelesez bai beste hizkuntza askotan ere. Edukiaren azterketa egin aurretik, komenigarria da zehaztea, zein den guk lanerako erabili dugun edizioa, eta zein den, bidenabar, edizio horren gaztelaniazko itzulpen hurbilena.

1994an Wordsworth Editions Limited-ek argitaratu zuen edizioa da tesi honen eranskinean agertzen den bertsioa. Bai Wordsworth Books-en bertsioa, bai beste gehienak ere¹, 1895ean Appleton-ek argitaratu zuen testuan oinarriturik dago, berau izan baitzen liburua itxuraz lehenengoz argitaratzeko apailatu zen testua. Gogora dezagun, garaian ohi zen bezala, liburu gisa agertu aurretik, Crane-ren nobela serializaturik argitaratu zela hiru egunetan zehar Estatu Batuetako egunkari eta aldizkari garrantzitsuenetan², eta beraietan ager zedin, Crane-k berak murriztu egin behar izan zuela originala, 55.000 hitzetatik 18.000ra jaitsiz.

D. Appleton & Co-k egindakoa Crane-k berak onetsiriko bertsioztat jotzen bada ere, Avon Books argitaletxeak aurreko bertsio batean agertzen ziren zatiak³ atera nahi izan

¹ Crane-ren nobelaren edizioen berri jasotzeko, oso interesgarriak dira Stallman-en bibliografia (STALLMANN 1972) eta Starrett-ena (STARRETT 1931).

² Philadelphia-ko egunkari batean, Nebraska-ko *Lincoln* egunkarian, *State Journalen* eta beste askotan.

³ Crane-k berak kenduriko zatiak dira, alegia. Avon Books-ek aditzera eman duen bezalaxe (CRANE 1983) Appleton-en bertsioan (eta ondorengo guztietan ere, itzulpenetan barne) kapitulu batzuen azken zatiak eta kapitulu oso bat ezabatu zuen Crane-k. Kenduriko zati horiek guztiak birjaso ditu Avon Books-ek, eta dagozkien lekuan sartu ditu berriro. Hauexek dira zatiok eta Avon Books-en edizioan agertzen direneko orrialde-zenbakiak: VII. kapituluaren amaiera (42), X. aren azken zatia (54-55), XII. kapitulu osoa (60-63); lehen bertsioan XXV kapitulu zituen nobelak, baina zuzenketak egon ondoren XXIV kapitulutan gelditu zen), eta XV.aren azken parte, hau da, XIV. kapituluaren azken parte (78), Appleton-en bertsioan. Crane-k berak baztertu izan zituen zatiak errepikapen hutsak dira, behin eta berriz ideia berari ekiten diotelarik. Nolanahi

zituen, eta eskuizkribuaren bertsio orijinala eta osoa argitaratu zuen. Tesi honetan Crane-k kenduriko zatiak ere agertu nahi izan ditut, eta eranskinean bertan azaltzen dira, nobelaren testuaren ondoren. Gaztelaniaz egin diren edizioen arteko egokiena, eta Wordsworth Editions Limited-ek egindakoari gehien hurbiltzen zaiona, Ediciones Generales Anaya-k apailaturikoa da⁴. Appleton-ek atera zuen edizioan oinarriturik dago eta, beraz, eranskinean dauden zatiak ez ditu agertzen.

Nobelaren edukia

Noizbait esan dut, nobela hau lehenengoz irakurri nuenean ez zitzaidala gustatu. Nabarmenedia iruditu zitzaidan, agerikoedia, oso esplizitua nire gusturako. Ezer gutxi uzten zuen norberak osatzeko. Sentimenduak takadan, banan-banan eta segidan azaltzen zituen, zehatz-mehatz, irakurleari irudi osoa emanez. Irakurleak egin beharreko bakarra soinu eta usaina ipintzea zen, kolore guztiak, mugimenduak eta bolumenak zehazki marrazturik agertzen baitziren. Ez zitzaidan gustatu sotila ez zelakoan. Oker negoen. Sotila da oso, baina ez gertaerekiko, barne-prozesuarekiko baizik. Crane-k ez du kanpoaldea deskribatu nahi, barnealdea baino. Ez da egintza-nobela sentigintza-nobela baizik, honela esaterik balego.

Zer da nobela honetan aurkituko duguna? Gertakizun batek izaera osoa kolokan jartzen duenean, hau da, ezohiko egoera bat gertatzen denean, gizakiak dituen gorabeherak aurkituko ditugu, bere erreakzioak, jokaera psikologikoa, erabakitze beharizana. Prozesu hau sentimenduz beterikoa da: oinazea eta mina sortaraz ditzake, eta tartean, atsegina eta gozamina ere bai. Prozesu honetan fase ezberdinak ezagutuko ditu gizakiak, angustiatik

ere, Crane-k ezabaturikoak ere bildurik agertzen dira tesi honen amaieran.

⁴ Ediciones Generales Anaya-k 1981ean argitaratu zuen liburua Madrilen, (CRANE 1981). Itzulpena Micaela Misiego-rena da eta eranskina (interesgarria) Leopoldo Mateo-rena. Bertan agertzen diren ilustrazioak Charles Mozley-renak dira. Liburuaren lehen orrietan hauxe irakur daiteke: *“La presente obra es traducción directa e íntegra del original inglés en su primera edición (corregida sobre el facsímil de un manuscrito publicado en 1972) publicada en Nueva York, D. Appleton and Company, 1895) Las ilustraciones, originales de Charles Mozley, que aparecen en este edición acompañaron el texto de la edición inglesa publicada por J.M. Dent & Sons LTD, Londres, 1971”*.

abiatuta (angustiak gune ezberdinetara eraman dezake: zoramenera, heriotza sinboliko ala errealera) kuraiaraino, baina kuraia lortu ordez, abiapuntura itzul daiteke indibidua eta superniaren atzaparretan jausi; egoeraren presiopean gizakiak amore ematen badu, etsi egingo du (zesio baten bidez) eta heriotza bereganatuko du.

Prozesua ez da sinplea, eta arina izan badaiteke ere (hilabete batean zehar luzatuz zein ordu gutxiren buruan amaituz), fase guztiak elkarren segidan ibili izaten dira, jauzirik gabe. Gertakizuna⁵ jazotakoan, lehen sentsazioa beldurra da, gertakizunak agerian utzi duen aurkikuntza berriarekiko beldurra. Gizakiaren izaera osoa kolokan jartzen da. Egoera berrian ez du bere burua ezagutzen eta, kontrolarik kanpo dagoenez, beldurrak antsietatea sortarazten dio, zirt ala zart egin beharreko egoeran ikusten baitu bere burua⁶. Antsietatea areagotzen zaionean, angustiarik ematen dio bidea. Baina angustia ez da luzaro mantentzen daitekeen sentsazioa⁷. Prozesu bat da, ibilbidea, inkonsistentea, biziezina denbora luzean, eta legearen edo egituraren aldekoa da gainera. Hau da, besterik erabaki ezean, gizarte-egituraren birsartzera bultzatzen du angustiak. Etengabe angustiaturik bizitzerik ez dago, eta lehenago edo beranduago (denbora laburrean) arre ala so egin behar izaten du gizaki angustiatuak. Lehen une batean, norberaren baitan irtenbiderik ez ikustean, gertatzen zaionaz gainontzekoei eta kanpoko elementuei egozten die errua. Errudunak besteak dira. Ez du egoera horretan egon nahi, eta ahalik eta arinen amaitu behar duela uste du, sufrikarioari bukaera ematearren. Besteengan bilatu nahi du berak sentitzen duen angustiaren zantzua, baina berauengan ez ikustean, orduan errudun sentitzen da. Erabaki beharrak tristura ematen dio (aurreko egoera eta gertakizunaren ondorengoa uztartzeko ezinaz ohartzean) eta tristurak errukia sentiarazten dio bere buruaz. Hasierako gunera itzultzeko desira adierazten du, eta berriz hasi ezin badaiteke (zeren, aurkikuntza gertatu

⁵ Gertakizuna eta gertaera bereiztu egiten ditugu tesi honetan. Lehena, berrietasuna sortarazten duen egoera da; bigarrena, ordea, hurbilago dago kazetaritzaren albistetik beste edozeretik baino. Frantseseraz ere ondo bereizturik daude (*évènement* eta *fait divers*) eta gauza bera gaztelaniaz (*acontecimiento* eta *suceso*). Bereizketaren garrantziaz ohartzeko, ikus A. Azkargorta-ren doktore-tesi argitaragabea, (AZKARGORTA 1988).

⁶ “Beldurrak geldiarazten du eta ekintza oro, ihesaren barne, apur bat eten egiten da”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 69. or.

⁷ Angustia ez da sentimendu bat, gune batetik besterako pasabidea baizik.

denetik, ezer ez baita berdin), bere jokaera behin betiko frogatzeko desira du, edo behinik behin ihes egiteko desira. Hastapenera itzuli nahi du, eta inoiz ezer gertatu ez dela pentsatu. Baina hastapenetara itzultzerik ez dago, lehenago inoiz sinestutakoari uko egiten ez badio, hau da, gertakizunak agerian ipini dion aurkikuntza hori sinbolikoki hiltzen ez badu. Hastapenetara itzultzeko, honez gero, amore eman behar du, eta zesioa burutu. Zesioarekin burutzen da desubjektibazio-prozesua. Zesioak heriotza desiatzera bultzarazten du desubjektibaturik dagoen gizakia. Eta modu batera edo bestera gauzatzen da heriotza, sinbolikoki izan zein era errealean.

Laburbilduz honela marraz liteke desubjektibazio-prozesua:

beldurra
antsietatea
angustia
erruduntasuna
tristura
autoerrukitasuna
ihes/froga/irtenbiderako irrika
zesioa
hastapenera itzuli nahia-ezina
heriotza sinbolikoa

Heriotza ez da irtenbide bakarra, jakina. Gizakia birpiztu eta berrosatu egin daiteke kuraiaren bidez, eta martxan jarri subjektibazio-prozesua, zeinen gailurra subjektua sortzea den. Horixe da, hain zuzen, Crane-k nobela honetan erakutsi digun bidea; Conrad-en nobeletan, ordea, eta bereziki “*Lord Jim*” nobelan, heriotza da bidearen amaiera, heriotza sinbolikoa lehenago eta erreala ondoren. Conrad-ek ez zuen osatu subjektibazio-prozesua bere nobelagintzan. Crane-k bai, ordea.

Eskeman laburbildu dugun desubjektibazio-prozesuaren kronika zehatza eta zuzena da “*The Red Badge of Courage*” nobela. Pausoz pauso segi dezakegu prozesu osoa Henry Fleming-en eskutik, kapituluak irakurri ahala.

Nobelaren azterketa

Gertakizuna jazotzen denetik eta subjektu bihurtu arte, gizakiak fase ezberdinak nozitzen ditu. Funtsean bost dira atal honetan bereiztuko ditudan arloak.

1. Gertakizuna
2. Desubjektibazioa
3. Zesioa
4. Subjektibazioa
5. Kuraia

Atal bakoitzaren ezaugarriak Stephen Crane-k deskribatzen ditu, asmatu-rik pertsonaiaren gorabeherak deskribatuz joan ahala. Beraz, Henry Fleming-en eskutik abiatuko gara subjektibazioaren prozesuan zehar.

1. Gertakizuna

Esan bezala, gertakizuna dugu hasierako pizgarria, desubjektibazio-prozesuaren iturburua. Baina, zer da? Gertakizuna da egoera jakin batean desegituratu, gainezka egin eta egoeratik uler ezin daitekeen hura. Politikagintza kolektiboan arituz gero, gertakizunean inplikaturik dauden elementuak (matxinada, iraultza, masa -mugimenduak, etab.) ez dira azalgarriak egituraren ikuspuntutik; jokaera berezia dute eta giza egituraren hartzen duten lekua (gunea) ez da berauek azaltzeko nahikoa. Kanpotik ikusirik, gertakizunak gertaera ezberdinak dira, ezezagunak eta ulertezinak. Giza indar berezi batek mugiarazten du kolektiboa, makinaria bakar bateko parte zatiezina balitz bezala. Gertakizunean egonik, egileek bere sinestuko ez zuketena hura egiten dute, indibidualidadeak ahantzirik. Pentsatu aurretik jardun dihardu egileak⁸, hausnartu gabe, eskura duen lehenari helduz. Automatismoz jokatzeko du, mekanika hutsez, determinismoren bat bailegoen. Crane-k honela azaldu zuen bere nobelan:

Before he was ready to begin –before he had announced to himself that he

⁸ *Egileak*, diogu, eta ez *subjektuak*, gertakizunak ezustean hartu dituen pertsonak oraindik ez baitira subjektu osoak, ez baitute gairitu segidan deskribatuko dugun prozesua. Subjektu baino, *agente* edo *egile* deitu ahal ditugu oraingoz. Itxuraz subjektu osoak dira (ekin ekiten dutelako), baina dagitenaz ezin izan dute inolako hausnarketarik egin oraindik eta, ondorioz, gertakizuna desagertu bezain laster, gertakizunarekiko jokaera ere desagertu egingo da.

was about to fight– he threw the obedient, well-balanced rifle into position and fired a first wild shot. Directly he was working at his weapon like an automatic affair. (V/13, 21. or.).⁹

Automatismo horretan murgildurik, hausnarketarik gabeko erantzunaren pasioak beldurra ahanztaraz dezake, baina jokaera hau ez da kemenaren ondorioa, inertziarena baizik. Inkontzienteki jokutzen du eta, jakina, indibidua ez da oraindik errealitatearen aldaketa burutu dezakeen subjektu iraultzailea. Ezin du errealitatea aldarazi. Gertakizunak bizi du bera; ez alderantziz. Ez-subjektuak, gertakizunean dagoenean, krisialdia pairatzen ari delako sentipena du; uste zuenarekiko haustura somatzen du, beraren izaera desegituratzen ari baita. Aldi berean, baina, beraren zatiren batek gainezka egiten diola sentitzen du, aurreko egoeratik haratago, eta beldurra desagertuz doa, nortasun berria sortzen den neurrian. Gainezkaduraren xarmak erakarri egiten du, indartsu, eta berari esker osotasun baten esku-hartzailea sentitzen da, banaezina, osotasun bizi baten zatia alegia. Ez dio ardura, osotasun hori alderdi politikoa den, asanblada, erakundea, masa-mugimendua, armada, komunitatea, herria edo pertsona multzo bat. Barnetik hausturik dagoen indibidua gertakizunean aurkitzen du bigarren existentzia, bere aurreko egoeratik gainezkaduran, dimentsio berrian, eta taldearekin batera aritzeak ematen dio nortasun berria, nortasun bizi eta kontrolaezina. Desira bakarra du orain, xede bakarra: kolektiboan urtzea; berehalako interesei, beldurrei, bat-bateko ardurei uko eginez, besteekiko komunioan egotea. Geroa ez da mehatxatzaile dagoeneko, eta, izanik ere, berari loturik dago, ezinbestez.

He suddenly lost concern for himself, and forgot to look at a menacing fate. He became not a man but a member. He felt that something of which he was a part –a regiment, an army, a cause, or a country– was in a crisis. He was welded into a common personality which was dominated by a single desire. For some moments he could not flee no more than a little finger can commit a revolution from a hand (V/14, 21. or.).

Gertakizuna, ordea, ez da hilezina. Mobilizazioak, gatazkak edo mugimenduak, indar zentripetua du, baina iraungiz doa. Indarra galdutakoan, desagertzea da

⁹ Erreferentzia hauek, kapituluari, paragrafoari eta nobela jasotzen duen eranskinaren orrialdeari dagozkie.

gertakizunaren legea, horixe baita masa aktiboen patua: gehiengo pasibo, indargabe eta lekutua sortzea. Azkenean, sukarren errautsa baino ez da geratuko.

If he had thought the regiment was about to be annihilated perhaps he could have amputated himself from it. But its noise gave him assurance. The regiment was like a firework that, once ignited, proceeds superior to circumstances until its blazing vitality fades. It wheezed and banged with a mighty power. He pictured the ground before it as strewn with the discomfited (V/15, 21. or.).

Kideak (gainontzeko egileak gertakizunean) inguruan izateak, kemena ematen dio egileari. Taldekide izatea, hau da, anaitasun baten parte izatea, garrantzitsuagoa izan daiteke kausa bera baino, helburua baino, berau bigarren maila batean gelditu daitekeelarik. Borrokan sorturiko elkartasunak, konpartituriko ahaleginak, arriskutik sorturiko kidesunak, berebiziko garrantzia du identifikazio-prozesuan.

There was a consciousness always of the presence of his comrades about him. He felt the subtle battle brotherhood more potent even than the cause for which they were fighting. It was a mysterious fraternity born of the smoke and danger of death (V/16, 21. or.).

Gertakizuna jazotzen denean, xede zehatza dago egon, lortu beharreko zerbait, ailegatu beharreko lekuren bat, arin eta presaka lortu ere. Pentsamendua ez da zentratzen ekintzetan, ezta ondorioetan edo datorkeenean. Larrialdia igaro ostean, aitzitik, gauzak nola gauzatu diren, hori lainoetan geratzen da. Nolatan garatu da dena? Nola heldu gara gaudenera? Zer egiten dugu leku honetan? Zer gertatu da egian? Erantzunak inoiz ez dira argiak izaten¹⁰.

He was at a task. He was like a carpenter who has made many boxes, making still another box, only there was furious haste in his movements. He, in his thought, was careering off in other places, even as the carpenter who as he works whistles and thinks of his friend or his enemy,

¹⁰ Ez du bere burua ezagutzen gertakizunean, azpibaloraturik zuen-eta. Gertakizuna baino lehenago pentsatu izan zuen guztietan, egituraren pentsamendutik pentsatu zuen, eta ez gertakizunaren beraren barnetik. Orain harriturik dago. Harridura, Spinoza-ren hitzetan, “*zerbaiten irudikapena da, non arima asaldaturik geratzen den, irudikapen bakan honek ez baitu besteekiko erlaziorik*” (SPINOZA 1996), 236. or. Harridura kanpotikoa da. Gizakiak mugatua (finitua) eta mugagabea (infinitu) konparatzen dituenean, bien arteko aldeak jakitun da, eta ebaluaketa sortarazten dion ezustea da harridura.

his home or a saloon. And these jolted dreams were never perfect to him afterward, but remained a mass of blurred shapes (V/17, 21-22. or.).

Sakadaren indarragatik alde batetik, eta buruaren kontrol ezagatik bestetik, gertakizunean ari den egileak basa jokutzen du, hirati, eta bidean aurkitzen duen ororen aurka jotzen du. Denari heltzeko antsia dauka, dena suntsitu nahi du, oztopo guztiak ezabatu nahi ditu kolpe bakar batez, helburua lortzeko asmoz. Elkartasunean egonik, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu furfurua kanporatzearen. Sentipen-uholde eta kontrolik gabeko egite horretan zerbait irrazional dago. Ez du borrokatzen halaxe erabaki duelako (oraindik ezin du erabakirik hartu), bere angustiaren estualdiari ez aditzeko baizik.

Following this came a red rage. He developed the acute exasperation of a pestered animal, a well-meaning cow worried by dogs. He had a mad feeling against his rifle, which could only be used against one life at a time. He wished to rush forward and strangle with his fingers. He craved a power that would enable him to make a world-sweeping gesture and brush all back. His impotency appeared to him, and made his rage into that of a driven beast (V/19, 22. or.).

Gertakizunaren beroan, kasu batzuetan ez da etsaia gorrotatzen dena, egoera bera baizik. Objektuak, sinboloak, tartean diren etxe edo lekuak, behaztopatzeko sartzen diren mamuak bailiren sentitzen dira. Holakorik gertatuz gero, beharrezkoa da atsedena hartzea, zentzumenak lasaitzea eta buruan sorturiko itzalak alboratzea.

Buried in the smoke of many rifles his anger was directed not so much against the men who he knew were rushing toward him as against the swirling battle phantoms which were choking him, stuffing their smoke robes down his parched throat. He fought frantically for respite for his senses, for air, as a babe being smothered attacks the deadly blankets (V/20, 22. or.).

Bataila (iraultza, matxinada) amaitutakoan, garaipenaren poza edo erresistentziaren satisfakzioa dator, bizi izandakoaren behaketan sentitzen den gozamen sakona. Berriz ere lurra hartzean eta egitura ikutzean, hau da, behin gainezkadura desagertuz gero, orduan nabaritzen dira minak eta zauriak, borrokaren molestiak. Izerdiak itotzen du, beldurrak eta zalantzak agertzen dira, zama emotiboa kanporatzen da, zafladaz.

At last an exultant yell went along the quivering line. The firing dwindled

from an uproar to a last vindictive popping” (V/27, 23. or.).
Some in the regiment began to whoop frenziedly. Many were silent.
Apparently they were trying to contemplate themselves” (V/28, 23. or.).
After the fever had left his veins, the youth thought that at last he was
going to suffocate. He became aware of the foul atmosphere in which he
had been struggling. He was grimy and dripping like a laborer in a
foundry. He grasped his canteen and took a long swallow of the warmed
water” (V/29, 23. or.).
The men said it blissfully, leering at each other with dirty smile (V/30, 23.
or.).

Henry-k protagonizatu duen unea bera ere itxuraldatu du momentuz, baina une hori ez da beste edozein bezalakoa; gainera, sentimenduei dagokie eta ez du gauza arruntekiko erlaziorik. Subjektibitatea da aldarazita agertzen dena, ez arima (Spinoza-ren terminologia erabiliz¹¹). Spinoza-k, subjektibitatearen aldaketa hori egituratik abiatuta *pentsatu* edo

¹¹ Spinoza-k *Ética* liburuan proposaturiko azepzioak sarri agertuko dira atal honetan, (SPINOZA 1996). Gu spinozazale izan ez arren, onartzekoa da ondorengo ikerlari gehienek, eta baita Lacan-ek berak ere (LACAN 1989) Spinoza hartu izan dutela oinarritzat, iturria aitortu zein aitortu ez. Bera da, Aristoteles-en ostean, etika baten sistematika osatu zuen lehen filosofoa. Descartes-ek ere egin zuen, baina berak egindakoa ez da kontuan hartzeko modukoa. Carlos Castilla del Pino-k Spinoza-ren Etikan oinarrituriko liburu berrian dioenez, (CASTILLA del PINO 1998), Borges-ek "*Spinoza dela geometria delikatuaz Jainkoa landu zuen azitia*" esan omen zuen inoiz.

Spinoza-ren ustez hiru dira afektu oinarrikoak: desira, poza eta tristura. Hiru hauek daude afektu guztien baitan, baina ez dira bakarrak. Orotara 48 afektu bereiztu eta aztertu zituen, eta banakakoaren definizioa eman zuen, ordenan (op. cit. 234-248. or.). Spinoza-ren afektuak ez dira sentimendu garbiak; ideia bati loturik daude. Spinoza-k *pentsatzen* zuen, gainera, intelektokoa eta gorputzekoa loturik zeudela.

I. Desira	II. Poza	III. Tristura	IV. Harridura
V. Mespretxua	VI. Maitasuna	VII. Gorrotoa	VIII. Zerbaitekiko joera
IX. Uxapena	X. Debozioa	XI. Barregura	XII. Itxaropena
XIII. Beldurra	XIV. Ziurtasuna	XV. Etsipena	XVI. Satisfakzioa
XVII. Insatisfakzioa	XVIII. Errukipena	XIX. Onespena	XX. Haserrea
XXI. Gainestimazioa	XXII. Minusbalorazioa	XXIII. Bekaizkeria	XXIV. Bihozberatasuna
XXV. Norberarekiko poza	XXVI. Umiltasuna	XXVII. Damutzea	XXVIII. Harrokeria
XXIX. Abjekzioa	XXX. <i>(falta orijinalean)</i>	XXXI. <i>(falta orijinalean)</i>	XXXII. Frustrazioa
XXXIII. Emulazioa	XXXIV. Eskerrona	XXXV. Onginahia	XXXVI. Hira
XXXVII. Mendekua	XXXVIII. Krudeltasuna	XXXIX. Izua	XL. Ausardia
XLI. Txepeltasuna	XLII. Espantua	XLIII. Gizatasuna	XLIV. Handinahikeria
XLV. Gula	XLVI. Mozkorkeria	XLVII. Zekenkeria	XLVIII. Libidoa

Lehenak poza eta tristurarekin loturikoak dira, eta XXXIItik aurrera desirari dagozkionak dira.

imajina zitekeela uste zuen, baina, nire ustez, ez da posible: gertakizuna jazotzea ezinbesteko baldintza da, gizakiak ordurarteko subjektibitatea apur dezan.

2. Desubjektibazioa

Supernia

Supernia instantzia psikoanalitiko da¹²; berak eratzen eta aholkatzen du zein den bete beharreko arau morala; hau da, legeak (lege juridikoak zein aita-legeak) inposaturiko araua ezartzen du. Bestalde, eta hizkera freudiarrari jarraituz, aitaren legeak zer egin behar den esaten badu ere, amarenak beti kontsekuenteki jokatu behar dela esaten du: zer pentsatu, hura egin.

“I don’t know what else to tell yeh, Henry, excepting that yeh must never do no shirking, child, on my account. If so be a time comes when yeh have to be kilt or do a mean thing, why, Henry, don’t think of anything ‘cept what’s right..” (I,28,4)

Gertakizuna jazotzean, gizakiari senperrenak egiteko ordua heltzen zaio. Gizakiak kontrajarrita ikusiko ditu bere buruaz uste zuena (egitura subjektibo arruntetik ikusita) alde batetik, eta bestetik, egoera bereziak inposatutako eskaerei emango dien erantzuna. Beste modu batera esateko, ustez bera *zena* eta egiatan bera *dena* (edo *izango dena*) aurrez aurre agertuko zaizkio. Orain ikusiko du nolakoa den, eta bere baitan zerbaitek diotso senperrenak egiteko ordua iristerakoan ez dela helduko espero zitekeen mailara, labur

Afektua gogoaren pasioa da, eta ideia nahasia da, zeinen arabera arimak baieztatzen duen gorputzaren edo honen zatiren baten lehenagokoa baino izaki-indar handiagoa edo txikiagoa, eta zeinen arabera, ideia behin sortuz gero ere, arimak gauza batean beste batean baino gehiago pentsatzeko bultzatua den.

Angustia, ordea, ez da Spinoza-k sailkatu zuen afektua, Kierkegaard arte ez baitzen landu filosofian. Psikoanalisian ezinbesteko kontzeptua da, ordea. Ikus (LACAN 1989) eta (LACAN 1992). Angustia ez da sentimendu ez afektu bat. Angustia ibilbidea da, pasabidea. Indibidua subjektibazioan ipintzen du eta egituraren eremura bultzatzen du. Inkonsistentea da (ez dago bertan mantentzerik), alde batetik bestera darama gizakia eta biziezina da. Integrazioan amaitzen da, ala kuraiarako jauziaz, indibiduoak gaudituta eta subjektu bihurtuz gero.

¹² Psikoanalisiaren sortzailea, Sigmund Freud austriarra izan zen, eta berak sorturiko terminologia da tesi honetan erabiltzen duguna: (FREUD 1956), (FREUD 1963), (FREUD 1979), (FREUD 1980), beste liburu

geldituko dela, alegia. Aldez aurretiko lotsa sentiarazten dio ez jakiteak.

He was forced to admit that as far as war was concerned he knew nothing of himself (I/43,,5. or.)

He felt that in this crisis his laws of life were useless. Whatever he had learned of himself was here of no avail. He was an unknown quantity. He saw that he would again be obliged to experiment as he had in early youth. He must accumulate information of himself, and meanwhile he resolved to remain close upon his guard lest those qualities which he knew nothing should everlastingly disgrace him. "Good Lord!" he repeated in dismay (I,47,6-7. or.).

Lotsaren arrazoa barne-gatazka da, alde batetik ikusten baititu abentura eta ohorea (ideal subjektiboa) eta bestetik ez baitu maila berean sentitzen egoera animikoa.

He had, of course, dreamed of battles all his life –of vague and bloody conflicts that had thrilled him with their sweep and fire. In visions he had seen himself in many struggles. He had imagined peoples secure in the shadow of his eagle-eyed prowess. But awake he had regarded battles as crimson blotches on the pages of the past. He had put them as things of the bygone with his thought-images of heavy crowns and high castles. (I/17, 2. or.)

Lotsa sentitzeak agerian uzten du subjektiboki ez dagoela ondo; ez duela bere burua benetan ezagutzen eta, Lacan-en modura esateko¹³, amak jakinarazten dio semeari agerikoa engainagarria dela, *egon* eta *pentsatu* ez dela gauza bera, eta *egoteak pentsatzea* eragozten duela¹⁴.

A little panic-fear grew in his mind. As his imagination went forward to a fight, he saw hideous possibilities. He contemplated the lurking menaces of the future, and failed in a effort to see himself standing stoutly in the midst of them. He recalled his visions of broken-bladed glory, but in the shadow of the impending tumult he suspected them to be impossible

askoren artean.

¹³ (LACAN 1992).

¹⁴ Lacan-en ustez, izan eta egon gauza bera dira, eta orokorrean, horrelaxe pentsatu zuten filosofo gehienek presokratikoengandik hasita (Parmenides buru) Heideggerd-enganaino. Lacan-en ustez *izakia* egituraren eremukoa da eta, beraz, estrukturala (Marx-ek ere esaten zuen izaki sozialak kontzientzia eratzen duela) Simone de Beauvoir-ek, aldiz, *izan* eta *egon*-en arteko ezberdintasunean oinarritu zuen bere teoria feminista (*egote batek ez du izaera bat baldintzatzen*), *Le deuxième sexe* (1949) liburuan ezagutzera eman zuena. Bestalde, ezin dugu ahantzi Aristoteles-en *Ethique a Nicomaque* liburua, non esaten duen “*zu, hilkor zaren hori, hilezkor baizinen jokatu; zu, hilkorra zarenez, hil eta obeditu*”.

pictures. (1/45,5. or).

Norberak bere burua ausart ikusteak, ez du esan nahi behar denean ausartki jokatu duenik. Kemena eduki uste izateak ez du, berez, kementsu izatea bermatzen. Ez gauden lekuan pentsatzen dugu; eta gauden lekuan ez dugu pentsatzen. Pentsatzen dugunean ez gaude inon. Egoteak zaildu egiten du pentsatzea (gertakizun berezietan, jakina), Lacan-ek dioskunez¹⁵.

Jarduera-eza

Ezohikoa eta ekidinezina den gertakizuna jazotzeko dagoenean, pertsonarengan sortzen diren sentimenduek eragina dute desegituraketa subjektiboaren prozesuan. Gizakiak duen joera ez da gorrotoa sentitzea eta beronen ondorengoak (hira¹⁶, furfurua, amorrua, mendekua); beldurra sentitzen du, eta honen antzekoak (izua, terrorea, errukia, antsietatea), zeren borroka latzena ez baita izango gainontzekoen aurkakoa, bere buruaren aurka izango duena baizik¹⁷. Proba gainditu arteino, angustia sentituko du, etsipena¹⁸, egonezina. Behin gertakizuna jazoz gero, angustia ezinbesteko urratsa da, pasatu beharrekoa, prozesuaren amaieran subjektu bilakatu ala ez bilakatu.

Besteengan somaten duen adorea berak ere ote duen ala ez frogatu behar du. Angustia zalantza da, konfiantza-eza eta beldurra; adoretsua izateko, ordea, norberaren buruarekiko konfiantza behar da, eta justutzat jotzen den projektuaren aldeko apostua egin.

Pertsona angustiatua, jardun gabe dagoenean, kontraesanen arteko tentsioan

¹⁵Descartes-en “*je pense, donc je suis*” esaldi ospetsuari buelta eman zion Lacan-ek: “*je pense où je ne suis pas*”.

¹⁶Hira da gorrotatzen dugunari mina egiteko desira, gorroto hutsagatik. Spinoza, op. cit. 245. or.

¹⁷Maitasunezko pasioarekin zerikusi handia dauka. Pasioa desagertuz doanean, gizakiak bere buruari galdetzen dio ea maitemindurik dagoen ala ez, eta hasierako maitasunarekiko fideltasuna mantzentzen saiatzen da. Egoera maitasunaren kuraiaz gainditzen ez badu (esperientzia berriak konpartituz, maitasuna elikatuz), orduan amodioa ahulduz joango da eta, krisiaren krisiaz, hautsi egingo da azkenean (haustura formala izan zein izan ez).

¹⁸Etsipena da iraganeko edo etorkizuneko gauza batetik sorturiko tristezia, gauza horretaz dagoeneko zalantzarik ez dagoenean. Spinoza, op.cit. 239. or. Etsitua buru makur ibiltzen da, ibilkera geldo eta traketsaz eta burua beste nonbait izaten du, agoniak hartuta. Zorotasunerako bidea izan daiteke.

murgildurik egoten da, esperoaren esperoan. Batean tristura eta bestean poza sentitzen ditu, beldurraren edo itxaropenaren arabera¹⁹. Tristura, sentimendua baino areago, pasabidea da, angustia bezala; edo hobeto esateko, jaisbidea da. Spinoza-k diosku tristura dela izatearen ahalmen handiagotik txikiagorako jaisbidea, subjektu-izaera gutxituz baitoa, pixkanaka-pixkanaka. Kementsua jokatu duen ez jakiteak zalantza sortarazten dio, eta zalantzak, balantzaka ibiltzea. Balantzaren bi aldeak (amore eman ala ez eman), logika estrukturalaren eremukoak dira. Subjektuak, ordea, ideia batean edo egia batean irauteko beharrian etikoa du; ezin egon daitezke balantzaka. Egoera zirt ala zart egitekoa da: adorerako jauzia egin dezake, ala gunearen (lekuaren) espazioan birjausi daiteke. Horiexek dira bi aukerak. Hirugarren jokaera bat ere badago: ausart agertu, baina ez adoretu. Animoaren gorabeherak begi bistakoak dira prozesuaren fase honetan.

He wished to return to camp, knowing that this affair was a blue demonstration; or else to go into a battle and discover that he had been a fool in his doubts, and was, in truth, a man of traditional courage. The strain of present circumstances he felt to be intolerable. (III/39, 16. or.)

Spinoza-ren definizioan, ausardia desira da, arriskutsua den zerbait egiteko bultzarazten duen desira, hari ekiteko gainontzekoak beldur direnean²⁰. Ausardia adorea maskara da eta, beraz, izaki estrukturalaren kategoria. Egile inkontziente ezjakinaren sakada hutsa da. Ezin da parekatu adoretuarekin; berau subjektu osoa da, eta jarduten duenean, bereganaturiko printzipio baikorreatatik eta borondate askatzaileetatik jarduten du. Pertsona eraldatzailea da subjektua; ausartak, berriz, ez du ezer aldatzen: erreakzio hutsa da.

A priori ezin dugu jakin nola jokatu dugun. Aldez aurretik jakiteak ez du ziurtatzen erantzun-mota zein izango den, eta bakarrik praktikan egiazta daiteke jokaera.

¹⁹ Aristoteles-ek diosku kuraia “*itxaropenik gabekoa dela*” areago, “*itxaropenaren aurkakoa*” dela. (ARISTOTELES 1994b) 156. or.

²⁰ Spinoza, op. cit. 246. or. Ausartak agerian geratu nahi du gainontzekoen aurrean. Suizidio-mota baten xarma du, heroi tragikoaren heriotzaren xarma. Ausartak zerbait miresgarria egin nahi du, eta artearen bidez bidera dezake bere ausardia. Onargariagoa da ausardia, artistikoki bideratuz gero.

For days he made ceaseless calculations, but they were all wondrously unsatisfactory. He found that he could establish nothing. He finally concluded that the only way to prove himself was to go into the blaze, and then figuratively to watch his legs to discover their merits and faults. He reluctantly admitted that he could not sit still and with a mental slate and pencil derive an answer. To gain it, he must have blaze, blood, and danger, even as a chemist requires this, that, and the other. So he fretted for an opportunity (II/3, 7-8. orr.)

Sentsazio horiek agerian uzten dute balore estrukturaletan konfiantza-falta duela gizakiak eta, beraz, desegituraketa hasia dela. Izaki subjektiboa aldatzen den heinean, angustia ere sortuz joango da berarengan. Izaki angustiatuak zalantzak argitu nahi ditu lehenbaitlehen, argitzeko aukera eskatzen du artega. Itxarroteak ahuldu egiten du²¹, eta kopetilun lagatzen du pertsona. Jokaera praktikan ikusi arte ez du bere burua ezagutuko.

After complicated journeyings with many pauses, there had come months of monotonous life in a camp. He had had the belief that real war was a series of death struggles with small time in between for sleep and meals; but since his regimen had come to the field the army had done little but sit still and try to keep warm. (I/35, 4. or.)

Ziurtasun fiktizioa

Ezohiko egoeretan frogatzen da subjektua. Beste modu batera esateko, pertsonaren subjektibitatea arrunt ezezaguna da pertsonarentzat. Aurretik bizi izandako beste gertakizun batean nola jokatu zuen jakiteak ere, ez dio oraingoan izango duen jokaera bermatuko. Eta dioguna baliagarria da pertsona-mota guztientzat:

- a) subjektu gisa bere burua probatzeko zorian inoiz ikusi ez duenarentzat.
- b) subjektu izaera aurretik zuena baina, eraso subjektiboaren ondorioz, ustezko konfiantza desagertzearen duen subjektu angustiatuarentzat.

Azken honi, aurretik bizi izandakoak ez dio balio izango, eta lege subjektibo berriaz

²¹ Itxaropena sentimendu ahula da. Irtenbidea ez dago norberaren esku, norberarengandik kanpo baizik. Itxaropenaren ordeaz, konfiantza da sentimendu indartsua, proiektu justuan jarritako konfiantza. “*Bakarrik dugu itxaropena gure esku ez dagoen horretan; bakarrik nahi dugu gure menpean dagoena*”, (COMTE-

hornitu beharra izango du bere burua. Izandakoa berriz ere izango delako konfiantza manten dezake, bermarik gabe ordea. Inoiz subjektua izan izanak ziurtasun fiktizioa eman diezaioke; gauza batzuk ezagun egiten zaizkio; jakin badaki zer egin behar lukeen; ez daki, baina, zer egingo duen.

Ziurtzat jotzen diren gauzak ziurrak ez direla esan dezakegu. Hau da, gauzen ohiko norabidea aldatzen denean, pertsona probatan jarri, eta ez dago zantzurik asmatzeko, zein izango den beraren portaera egoera berrian. Ziurtasuna kolokan jartzen da. Horregatik diogu, ziurtasuna egituraren arlokoa dela. Egituraren ezaugarria baita egoera arrunta behin eta berriz errepikatzea²², gertakizuna indarrez sartu arte. Ezohiko egoera hauek dira, izan, gure burua ezagutzeko aukera bakarrak.

Beldurra agertzen da honela, etorkizun kontrolaezin eta asmaezinaren aurrean sentitzen den beldurra. Spinoza-ren ustez, beldurra tristezia aldakorra da, geroko edo aurretiko ideia batetik sortua, ideia horrekiko nolabaiteko mesfidantza dugunean²³. Tristezia aldakorra da, beraz, dantzan dagoelako bi pentsamenduren artean: a) jarrera ezezkorra gaitzetsi egiten du, baina aldi berean oso posibletzat jotzen du halaxe jokatzeari, eta b) positibotzat jotzen duen jarreran mantentzeko dela pentsatzeak poza ematen dio, baina sakonean ez du uste halaxe jokatuko duenik.

In regard to his companions his mind wavered between two opinions, according to his mood. Sometimes he inclined to believing them all heroes. In fact, he usually admitted in secret the superior development of the higher qualities in others. He could conceive of men going very insignificantly about the world bearing a load of courage unseen, and, although he had known many of his comrades through boyhood, he began to fear that his judgment of them had been blind. Then, in other moments, he flouted these theories, and assured himself that his fellows were all privately wondering and quaking. (II/7, 8. or.)

Beldurtiak egin nahi ez duen hori egiten ikusten du bere burua, eta aldiz,

SPONVILLE 1998) 72. or.

²² Ezaguna dugunak ematen digu ziurtasuna, lasaitasuna.

²³ Spinoza, op. cit. 238. or.

nekosoagoa egiten zaio, egin nahi lukeen hura egiten ikustea. Hau da, ez da bere buruaz fidatzen, ez du uste nahi bezala jokatu duenik. Gizakia ez da subjektua oraindik orain, balantzaka baitabil, baina hauxe da bere projektuan sakontzeko unea. Zalantzatan murgildurik, subjektibitate hautsi horrek apostua egin dezan unea da, subjektu bihurtu ahal izateko berme bakarra apostua baita.

A little panic-fear grew in his mind. As his imagination went forward to a fight, he saw hideous possibilities. He contemplated the lurking menaces of the future, and failed in a effort to see himself standing stoutly in the midst of them. He recalled his visions of broken-bladed glory, but in the shadow of the impending tumult he suspected them to be impossible pictures. (1/45, 5. or.)

Spinoza-k diosku izua dela gaizki handia ekiditeko desira, gaizki txikiaren bidez burutua, gaizki handiari beldurra diogunean²⁴. Planteamendu estrukturalista honek adierazten du ezberdintasuna errotikoa dela adorez kokatzen duenarekiko. Honela, bada, gaizki txikitat joko luke Spinoza-k ihes egitea, bere ustezko gaizki handiarekin konparatuz: izu edo horrore imajinaezinak jasatea. Gertakizuna bizi duenarentzat, ordea, alderantzizkoa da egoera: ihes egitea gaizki handiagoa da balizko horroreak jasatea baino.

Ustez gaizki txikia (ihesa) aukeratzen duenak, desgituraketa-faseari ematen dio hasiera, erreakzio horretan nabaritzen baita bere izaki estrukturala aldatzen ari dela eta ohiko dimentsio subjektiboa galtzen ari dela.

Baloreak krisian ditu gizakiak, bere irudia ezezkotzat jotzen du, eta orduan mesprezua sentitzen du bere buruarekiko. Spinoza-ren irudiko, mesprezua da imajinatzea arima hain gutxi hunkitzen duen gauza, ezen arimak, gauza honen aurrean, bere baitan dagoena baino, ez dagoena imajinatzeko joera agertzen baitu²⁵. Mesprezua borroka da, pertsonaren ideala eta benetako ekitearen arteko borroka, bien artean gaindiezinezko amildegia baitago. Borrokaren ondorioa, gizakiak bere burua azpibalaratzea da, eta mesprezua sentitzea. Estimazioa, kontrara, ideala eta subjektibitatea bat egiten dutenean

²⁴ Spinoza, op. cit. 246. or.

²⁵ Spinoza, op. cit. 237. or.

suertatzen da.

He felt that in this crisis his laws of life were useless. Whatever he had learned of himself was here of no avail. He was an unknown quantity. He saw that he would again be obliged to experiment as he had in early youth. He must accumulate information of himself, and meanwhile he resolved to remain close upon his guard lest those qualities which he knew nothing should everlastingly disgrace him. "Good Lord!" he repeated in dismay. (I/47, 5-6. orr.)

Pertsona orok dituen lege estrukturalak balio ez diotenean, pertsona krisian murgiltzen da. Bere burua ezagutzeko eta aurrera ekiteko ahaleginik egiten ez badu, angustian murgilduko da, eta angustiak bi irtenbide baino ez dauka: a) erabakizun eta apostuaren bidez kuraian murgildu eta gizakia salbatu, ala b) zesioaren itxura anitzetan murgildu (zoramena, suizidioa) eta hondamena burutu. Alde baterako zein besterako prozesua ez da lineala. Une batzuetan batean dago gizakia eta hurrengo unean ondokoan. Zesioan jausi nahi ez badu, eta sinbolikoki hil, inguratzen duten porrot sentimenduen aurka ekin beharra du indibiduoak. Ahalegin hauei esker izango ditu, apurka apurka, errekupeazio-uneak.

Ziurtasuna kanpoan bilatu nahia

Zesioa beti da indibiduala eta lazarria. Horrexegatik, bermea besteengan bilatzeak ez du ardura arintzen. Gainontzekoek eskain dezaketen ziurtasunak ez du baliorik, nork bere erabakien ardura duelako beti, eta ez beste inork. Beste guztiek borrokari ekiten badiote, edo bakar batek ekiten badio ere, begi-bistan da aurrera segitzea edo amore ematea arazo pertsonala dela. Beraz, besteen jokaera justifikagarri gisa erabiltzea, norberaren erantzukizuna ekiditeko ahalegin hutsa da. Kolektiboaren porrota bilatzen da justifikatzeko, nolabait, arerioaren nagusitasunaren aurrean beste irtenbiderik egon ez dagoela, eta etsaiaren indarragatik ulertu behar dela norberaren zesioa. Baina (eta "baina" garrantzitsua da hau) norbaitek, bakar batek eutsi egiten badio, agerian ipiniko du gainontzekoek zesio pertsonala egin dutela, eta ez dela erabaki etikoa izan.

The youth would have liked to have discovered another who suspected

himself. A sympathetic comparison of mental notes would have been a joy to him. (II/5, 8. or.)

Erreferente baten bila aritzen da kinka honetan dagoen pertsona, bere egoera subjektiboa (txarra) eta bere ustez adorea eremuan daudenen egoera konparatu ahal izateko. Uste du besteengan dagoela berarengan somatzen ez duen “zerbait”, eta identifikatuz gero, berak ere eduki zezakeela zerbait hori, pentsagarria baita. Uste okerra, jakina. Pertsona angustiatuak ez baitaki adorea ez dela ez komunikagarria ezta pentsagarria ere. Kalkulaezina izanik, adorea ebalua dezakeela uste du, bere burua ere ebaluatu nahi duen bezalaxe baina huts egiten du, adorea kalkulaterik ez dagoelako.

Meanwhile he continually tried to measure himself by his comrades. The tall soldier, for one, gave him some assurance. This man's serene unconcern dealt him a measure of confidence. (II/4, 8. or.)

Kanpoko erreferenterik ez lortzean, izaki subjektiboaren haustura areagotzen da eta pertsona bere baitan biltzen da, gainontzekoek bere adore-falta soma ez dezaten.

The youth, considering himself as separated from the others, was saddened by the blithe and merry speeches that went from rank to rank. The company wags all made their best endeavors. The regiment tramped to the tune of laughter. (II/25, 10. or.)
The youth kept from intercourse with his companions as much as circumstances would allow him. (II/33, 10. or.)

Ezkutuan dabil, inork lotsarazi ez dezan, edota trufarik egin ez diezaion. Spinoza-ren arabera, lotsa tristezia da, kanpotiko kausa batek lagundua²⁶. Nire ustez, tristezia baino, lotsa da besteekiko menpekotasuna gainditzeko barnean indar nahikoa ez dugula jakitea. Lotsa-sentimendua (eta honek dakarren ziurtasun-falta ere) indibiduoaren subjektibitateak kanpoko eraginetatik aske egotea permititzen dionean desagertuko da, aurreko egoeran erabakiorrak izan diren eraginetatik aske alegia, erabaki zuzena hartu duelako, eta gainera, beraren sinismenetan duen konfiantzak ere bere erabakia indartzen duelako.

Norberaren iruzurra gainontzekoek deskubritu ahal izanak, menpekotasuna handia

²⁶ Spinoza, op. cit. 202. or.

sortarazten dio iruzurtiari. Horrexegatik behar du babesa, eta ezkutuan dabil, ibili. Arerio bihurtzen ditu besteak, beraiengan ezin baitu ezarri bere konfiantza.

He was afraid to make an open declaration of his concern, because he dreaded to place some unscrupulous confidant upon the high plane of the unconfessed from which elevation he could be derided. (II/6, 8. or.)

Sentimendu kontrajarriak ditu une oro. Alde batetik, kuraia adierazten dutenak gainbaloratzen ditu, eta harridura sortarazten diote (egoera egituratik begiratuta aztertzen duelako). Neurtezina den gandiaren berezitasuna, parametro neurgarrietan sartu nahian ibiltzen da. Baina beste alde batetik, kontraesanguratsu, berak ez daukan hura mesprezatzeko beharizana sentitzen du, antsietatea leuntzeko. Angustia estali nahian, kanpoko ziurtasuna lortu ezin duenez, orduan ziurtasun-eza ezarriko du bere barnean, eta dena jarriko du kolokan, bere antsietatea leunduko duen edozelako bermea izan ezik.

Bermarik ez du aurkituko, bere txepeltasunagatik. Spinoza berriz ere orri hauetara ekarriz, desira erreprimitzen duenak adierazten du txepeltasuna, arrisku bati, –zeini parekoek branka ematen dioten–, dion izuagatik²⁷. Sare estrukturalean harrapaturik, egonezinari ez dio irtenbiderik ikusten; egoera horretan mugitzeke duten loturetatik askatzeko ezgai sentitzen da eta, orduan, gainekotzat jotzen ditu egoeratik kanpo dauden haiek. Kideengan beldurrik ez ikustean, eta beraien irrika bizia behatzean, desgogora sentitzen da. orduan galdezka hasten zaio bere buruari ea fidela den bere irudiaz zuen ideiariekiko, eta honela pentsatzean, errudun sentitzen da, pentsamendu kontraesanguratsuak somatzen dituelako, hain zuzen. Bere burua kritikatzeko du, beraren irudiarekiko fideltasunik gorde ez duelako.

His emotions made him feel strange in the presence of men who talked excitedly of a prospective battle as of a drama they were about to witness, with nothing but eagerness and curiosity apparent in their faces. It was often that he suspected them to be liars. (II/8, 8. or.)

He did not pass such thoughts without severe condemnation of himself. He dinned reproaches at times. He was convicted by himself of many shameful crimes against the gods of traditions. (II/9, 8. or.)

²⁷ Spinoza, op. cit. 246. or.

Logika estrukturalaren barnean, txepela ausartaren aurkakoa da, azken hau gehiegitasunagatik, eta aurrekoa gabeziagatik. Hau da, txepela *falta*, eta ausarta *pasa*²⁸. Txepelak ez du bereganatzen gainontzekoek hartuko duten arriskua, eta ausartak, ordea, beretzat hartzen du beste inork hartuko ez duena.

Irtenbide bakarra autosufizientzia. Baina nola lortu buruaskia izatea? Besteekiko menpekotasunaz amaitzeko beharrak soilik, behar larriak, sortuko du buruaskitasuna. Aske izan behingoz. Helburuak merezi badu, justizia lortuko bada, menpekotasun anulatzailea kanpora daiteke, eta eragozpenei aurre egin. Oztopoak gaindigarriak dira, eta ez gaindiezinak, txepelak dioen bezala. Lehenago arriskua zena, geroago xedea da. Beraz, garaitzeko eta desagertarazteko modukoa izan daiteke. Txepela egoera horretan denbora luzez mantentzen baldin bada, orduan espantuari zabaltzen dio atea²⁹.

Bi dira irtenbide posibleak: a) helburua presaren pean kokatzea, eta b) presa helburuaren pean kokatzea. Egonezina uxatu nahian, desorekaturiko pertsonak erruduna bilatzen du, eta besteei egozten dio errua. Gaizkian ez dago luze mantentzerik, eta lehenago edo beranduago larrialdia sentituko du, amaitzeko presa, hau da angustiatik ez-angustiara igarotzeko presa. Norberak, baina, ez daki nola egin, eta irtenbidea kanpotik etorriko zaiolako itxaropena du.

In his great anxiety his heart was continually clamoring at what he considered the intolerable slowness of the generals. They seemed content to perch tranquilly on the river bank, and leave him bowed down by the weight of a great problem He wanted it settled forthwith. He could not long bear such load, he said. Sometimes his anger at the commander reached an acute stage, and he grumbled about the camp like a veteran.(II/10, 8. or.)

Presa ez da aholkulari ona, badakigu. Presak desoreka adierazten du eta oreka-faltaz arituz gero, emaitza okerra da. Neurgarriaren eremuan murgiltzen den bitartean, konfiantza

²⁸ “Koldarrak bere beldurrarekiko menpekotasun handiegia dauka; ausarta indiferenteegia da bere bizitzarekiko edo arriskuarekiko egiatan adoretua izan ahal izateko”. (ARISTOTELES 1994b) II 7-1107tik 33-1107a 33-1107b eta III 9-10, 1115a-1116a15, eta (ARISTOTELES 1994a) III, 1 1228a 23-1229b 26.

²⁹ Spinoza gogoratu, espantua beldurra da, gizakia hain txundituta edo zalantzakor mantentzen duen

preso egongo da jakintza ebaluagarriaren menpe eta, ondorioz, askatuko duen erabakia hartu behar delako aipatze hutsak angustia erakarriko dio, eta errefusatu egingo du. Angustia sortarazten duen harekin amaitu nahi du: gaizkiarekin akabatu alegia. Spinoza-k dio gaizkiaren ezagutza, ezagutza desegokia dela³⁰, eta modu honekin erlazionatzen ditu tristezia eta gaizkiaren ezagutza, baina pertsona angustiatuari ez dio irtenbiderik eskaintzen. Desorekan luze manten ezin badaiteke, ulertzekoa da presak egitura injusturantz bultzatzea pertsona tristea, gaizkiaren jatorria izan den egiturarantz bultzatzea, bultzatu ere.

Gatazkarik egon ezean, gizakia egon dago, ongitik eta gaizkitik kanpo, hurbileko interesei soilik adituz, bestelako arduretan sartu gabe. Egiaren alde egiten duen unetik beretik, ordea, ongiaren aldeko apostua egiten du, eta presa du, baina pazientzia ere bai, esperoan egon beharko duelako egia lortu arte. Gizaki angustiatuarena presa inpazientea da; egiaren bidean dagoenarena, presazko pazientzia da.

The youth had been taught that a man became another thing in a battle. He saw his salvation in such a change. Hence this waiting was an ordeal to him. He was in a fever of impatience. He considered that there was denoted a lack of purpose on the part of the generals. (III/39, 16. or.)

Pertsona angustiatuak pairatzen duen prozesuari jarraituz, esan beharra dago batzuetan mesfidati eta ezkor agertzen dela, eta begi-bistakoaren aurka aposturik egiten ez duenez, zalantza etengabea egoten dela. Ezkorra da balore guztiak hutsalak direla uste duena. Pertsona ziurra, aldiz, pentsatzen duen horretan du konfiantza. Konfiantza baikorra da.

The youth took no part in them. As he walked along in careless line he was engaged with his own eternal debate. He could not hinder himself from dwelling upon it. He was despondent and sullen, and threw shifting glances about him. (II/22, 9. or.)

Pertsona baikorrak ez du kanpokora jo behar (angustiatuak egiten duen bezalaxe) hobeto sentitzeko. Bere barnean sakondu eta hantxe aurkitzen du hartu beharreko erabakia,

beldurra, ezen gizakiak ezin baitu bere burua askatu gaizkiaz, op. cit. 247. or.

³⁰ Spinoza, op. cit. 318. or.

beste inork hartu gabe. Erabakia hartu ezean, egokitze-falta sortuko da, norberak duen espektatibaren eta kanpoan aurkitzen duenaren artean angustia konpontzeko. Desilusia baino ez zaio geratuko³¹. Beraren emozioak eta besteenak desberdinak direla ohartzen denean, besteengandik urrunduta sentituko da.

And he mused seriously upon the radical differences between himself and those men who were dodging implike around the fires. (II/36, 11. or.)

Barneko bakardadeak tristura ekarriko dio, Spinoza-k ulertzen duen moduan: tristura da perfekzio handiago batetik txikiago batera igarotzea³², eta poza, guztiz aurkakoa, hots, perfekzio txikiago batetik handiago batera igarotzea³³. Spinoza-k irizpide koantitatiboa erabiltzen du, eta gainera, bataren eta bestearen ezaugarriak errespetatu ordez, tristezia pozaren bidez definitzen du, eta poza tristeziaren bidez. Ez nago ados definizioaz. Perfekzioa irizpide koantitatiboaz neurtzeak, jauzi koantitatiboa ikustea eragozten du, edo bestera esanda, ez du uzten ikusten tristezia eta pozaren arteko aldaketan dagoen haustura (egoerarekiko). Perfekzio hitza erabiltzean, ez ditu erabiltzen poza eta tristeziarekin benetan parekatzen diren nozioak: ongia eta gaizkia. Honela bada, tristeziak objektu ezaguna duen artean (gaizkiarekin lotuta dagoenetan), pozak, ordez, ez du objekturik behar, egiazko intuizio batetik sortua baita.

Kanpokoaren erabilpena egin nahi duenean, Naturaz ere balia daiteke pertsona, zenbait gauza pertsonifikatuz: iluntasunak, gauak, haizeak, eta abarrek ispilu gisa itzul diezaizkieten berak beraiengan utziriko sentimenduak.

At nightfall the column broke into regimental pieces, and the fragments went into the fields to camp. Tents sprang up like strange plants. Camp fires, like red, peculiar blossoms, dotted the night. (II/32, 10. or.)
He lay down in the grass. The blades pressed tenderly against his cheek. The moon had been lighted and was hung in a treetop. The liquid stillness of the night enveloping him made him feel vast pity for himself. There was

³¹ “Labur esanda, baikortasunak adorearekiko antza du (konfiantzagatik) baina denetan ezberdina da (bere hauskortasunagatik)... eta, beste aldetik, mundu guztiak daki adibideak ez duela balio, baikorrek adoretuak ere izan ohi direlako”. Gai honetaz, ikus aipaturiko Aristoteles-en *Ethique à Nicomaque* .

³² Spinoza, op. cit. 235. or.

³³ Spinoza, op. cit. 235. or.

a caress in the soft winds; and the whole mood of the darkness, he thought, was one of sympathy for himself in his distress. (II/34, 10. or.)

Desubjektibazio sakon baten prozesuan dagoenak, bestalde, besteen irizpideen beharra du jakiteko nor den bera; eta beste inor ez badago, orduan pertsonifikatu egingo ditu bizigabeak, aurretik projektaturikoa geroago jasotzeko³⁴.

Absurd ideas took hold upon him. He thought that he did not relish the landscape. It threatened him. (III/27, 15. or.)

Pertsonifikazioaren bidez jasotzen dituen sentimenduek errukitasunean murgilarazten dute. Spinoza-ren ustez, errukitasuna tristezia-mota bat da, gu bezalakoa den beste norbaiti gertaturiko gaizki batek lagundua³⁵. Baina, Spinoza-ren kontrara, ez da beste norbaiti gertaturiko gaizkia, norberari gertatutakoa baizik. Edo, hobeto esanda, norberaren barnean dagoen *beste norbaiti* gertatutakoa da. Gaizkia egiturako subjektuarengan dago. Indibidua hartzen du, eta ez du joaten uzten. Benetako gaitza ez-subjektua izatea da. Horrexegatik, besteekiko errukia sentitzen denean, ez da besteengatik sentitzen, nork bere buruaz baizik. Geure burua da erruki ematen diguna, baina errukia projektatu egiten dugu gainontzekoengan. Errukia, egituran dirauen islapen-sentimendua da.

He lay down in the grass. The blades pressed tenderly against his cheek. The moon had been lighted and was hung in a treetop. The liquid stillness of the night enveloping him made him feel vast pity for himself. There was a caress in the soft winds; and the whole mood of the darkness, he thought, was one of sympathy for himself in his distress. (II/34, 10. or.)

Sentitu beharko litzatekeena ez da errukia, errespetua baizik, nork bere buruaz eta gainontzekoekiko errespetua, elkartasuna, poza, norbera tristeziaren eremutik irteteko (eta ateratzeko besteak).

Tristezia gehien sortarazten duena, daukagunak asetzen ez gaituela sentitzea da, edo gustatzen ez zaigula. Tristezia bikoitza da: daukagunekin ez gaude pozik, eta gainera,

³⁴ Nobela honi amerikarrek egindako kritiketan argi ikusi da beste interpretazio bat ematen diotela pertsonifikazioari. Honen adibidea, (ALTENBERND eta LEWIS 1966).

³⁵ Spinoza, op. cit. 240. or.

horretaz hausnarketa egiteak, errukia sentiarazi eta areagotu egiten du tristezia. Beste modu batera esateko: triste egoteagatik tristetzea bezalakoa da³⁶.

Errukitasunak ez du efektu onik, gaizkiaren iraupenaren ondorioa baita. Izakia egituran iraunarazten du, eta gaizkitik ateratzea oztopatzen dio.

Subjektuaren ikuspegitik ikusita, aldiz, gaizkia estimulagarria izan daiteke, kuraian irautera bultzatuz. Edonola ere, sentipena bikoitza da subjektuarentzat: triste dago ez-subjektuak gaizkian harrapaturik ikustean, eta pozik dago bera egiaren projektu batean dagoelako. Prozesuan ez dagoenarentzat, gertakizunari fidel mantentzea ezinezkoa da, utopia hutsa; baina prozesuan dagoenarentzat, hartutako erabakiari eustea gauza ona da.

Abiapuntura itzuli nahia

Gaizkiak harrapatuta eta bertatik alde egiteko aukerarik ikusi gabe, pertsona angustiatuak hasierako abiapuntura itzuli nahi du, gune estrukturalera itzuli, inoiz atera izanaz damu. Faltan hartzen ditu familia, etxea, lana, eguneroko gauza txikiak. Egituran barneratu nahi du eta espazio lasaiagoak bilatu, angustia ekidin; baina ekidin nahi izateak, hain zuzen, beherago darama desubjektibazio-prozesuan. Ez da konturatzen (ideien munduan izan ezik) ezinezkoa dela abiapuntuko zero-puntura itzultzea.

He wished, without reserve, that he was at home again making the endless rounds from the house to the barn, from the barn to the fields, from the fields to the barn, from the barn to the house. He remembered he had often cursed the brindle cow and her mates, and had sometimes flung milking stools. But, from his present point of view, there was a halo of happiness about each of their heads, and he would have sacrificed all the brass buttons on the continent to have been enabled to return to them. He told himself that he was not formed for a soldier. (II/35, 10-11. or.)

Ziurtasun bila etsi-etsian arituz, Naturako erreferenteetatik giza erreferenteetara igarotzen da. Bera bezain zalantzakor agertzen diren pertsonak bilatu behar ditu,

³⁶ Aristoteles-ek esaten zuen lumarik gabeko hankabiko txoria bezalakoa dela egoera; giza animalia batere pozik ez dagoela bere animaltasunaz, eta satisfakzioren bat daukanean, azalezkoa eta iragankorra dela bere

kanpokoaren bidez agerian uzteko, bere egoera ez dela ahultasun subjektiboaren emaitza, gauza orokorra baizik; muturreko egoera baten ondorioa da berari gertatzen zaiona, eta beste guztiak ere, bera bezain arduratuta daude, antza.

Jakina, konponbidea kanpoan bilatu nahi izana iruzur hutsa da, prozesua ez baita kanpotikoa barnekoa baizik. Bere inpotentzia subjektiboak zesiara bultzatuko du, besteen jokabidearen bidez bere portaera justifikatzea lortzen ez badu. Baina adi, norbaitek jokaera bestelakoa izan daitekeela agerian uzten badio, eta amore eman ordez kuraia ager lezakeela, orduan pertsoana angustiatua erbesteratuta senti daiteke. Hau paradoxa! Kanpoko lege edo arau formalik hautsi gabe, ez luke zergatik kanporaturik sentitu behar. orduan, zergatik? Bada, (potentzian) barne-lege bat dugulako, hau da, kontzientziaren legea, eta kanpoko legeak aritu aurretik, barnekoak sentiarazten gaitu errudun.

He felt alone in space when his injured comrade had disappeared. His failure to discover any mite of resemblance in their viewpoints made him more miserable than before. No one seemed to be wrestling with such a terrific personal problem. He was a mental oltcast. (II/54, 12. or.)

Desoreka emozionalak beldur ikaragarria sentitzera eramaten du gizakia, benetako izua. Izua (kontrara pentsa baliteke ere) ez da egituraren botere zanpatzaileak beldurtzeko duen ahalmena, baizik eta nork bere buruan duen konfiantza-eza. Horrexegatik iruditzen zaigu izugarria egoera: errudun sentitzean, indibidua geldirik geratzen da, datorkion zigorraren beldur; eta, aldi berean, zigorraren esperoan dago, zigor honek arinduko baitio sufrimendua. Lege bati transgresio imajinarioa egiteak eta segidan transgresioaz damutzeak sortarazi dio sufrimendua. Zigorra merezi duela uste du, eta bilatzen du, errua leunduko diolakoan. Subjektiboki indarge dagoenez, ustez guztiahalduna den indarraren zigorra jasotzen duenean, inpotentziaz bizi izango du zigorra, izuak hartuta.

In the darkness he saw visions of a thousand-tongued fear that would babble at his back and cause him to flee, while others were going coolly about their country's business. He admitted that he would not be able to cope with this monster. He felt that every nerve in his body would be an

ear to hear the voices, while other men would remain stolid and deaf. (II/55, 12. or.)

Bizipen angustiatu hauen irauteak ondorio psikosomatikoak eduki ditzake.

And as he sweated with the pain of these thoughts (II/56, 12. or.) (...) exhausted and ill from the monotony of his suffering, he fell asleep. (II/57, 12. or.)

Egoeratik irten beharra dauka. Kanpotiko edozeren aurka jotzen du, heriotzaera eraman nahi dutela somatzen baitu. Eldarnio edo delirio emozionalean murgildurik, uste du ez dela askea izan funtsezko prozesu honetan parte hartzean. Bere partaidetzaz damu du eta errua gainontzekoei, ideia desegokiei edo bereganatutako eginkizunei egozten die. Ezin dio bere buruari bota errua, eta orduan beste edozeri botatzen dio. Bere joera kanpotik etorritako kritika guztiak barneratzea da, bere jokaera agerian uzten dion guztia, zeren sakon-sakonean bere erabakia okerra izan zela konbentzitzeko premia ezinbestekoa baitu: bere zesioa ari da prestatzen, bere heriotza sinbolikoa.

As he perceived this fact it occurred to him that he had never wished to come to the war. He had not enlisted of his free will. He had been dragged by the merciless government. And now they were taking him out to be slaughtered. (III/16, 14. or.)

Prozesuak berak harrapatuta sentitzen da. Kanpotiko eta barnetiko baldintzapen batzuek uzten ez diotelako izango ez balitz, den-dena bertan behera utziko luke, inolako damurik gabe. Bere burua lelo eta ezgai sentitzen du, izaki existentziala askatzeko ezgai. Ezezagunarekin bat egin nahi luke, eta bere giza ahalmenak garatu, jakintza berriei eutsi; baina egiturak hartuta ikusten du bere burua.

Heriotza

Angustiaren aurka egin orde, indar hori guztia bere kontrara bihurtzen badu, heriotza desiratuko du, irtenbide bakar gisa. Gizaki arrunt bihurtzen denean, sinbolikoki hil egiten da (eta heriotza subjektibo hau, heriotza fisikoaren aurrekaria izan daiteke).

Hiltzea da amore ez ematea, baitan biltzea, baina aurrera jo gabe. Hiltzea da irautea,

baina kuraiaraino ailegatu gabe. Hiltzea da zesioa ez burutzea, baina ezer berririk ez sortzea. Hiltzea da amore eman nahi ez izatea baina halere kuraia ez agertzea. Erresistitzea da, iraupenerako gogoia agertzea, baina presioa arindu nahian soilik. Bakean uzteko eskatzen du gizakiak, nekaturik dagoela dio, baina jokaera honekin ez ditu beldurra ezta gorrotoa ere gainditzen. Atsedena behar du³⁷, eta arnasa eman diezaion eskatzen dio etsaiari.

Once he thought he had concluded that it would be better to get killed directly and end his troubles. Regarding death thus out of the corner of his eye, he conceived it to be nothing but rest, and he was filled with a momentary astonishment that he should have made an extraordinary commotion over the mere matter of getting killed. He would die; he would go to some place where he would be understood. It was useless to expect appreciation of his profound and fine senses from such men as the lieutenant. He must look to the grave for comprehension. (III/51, 17. or.)

Literatura klasikoan Antigonak pertsonifikatzen du aipatutako jokaera hori³⁸. Berak ez du proiektu baiezkorik defenditzen. Bere joakera da ezetz, ez duela amore emango, ez dela errendatuko, ez dela desagertuko. Jarrera hori hartzean, jainkoen egia infinituarekin egiten du topo, baina horrek ez du esan nahi egia hori gauzatu ahal izango duenik Creonteren diktadurapean. Beraz, irtenbide bakarra heriotza da. Heriotza, bere kasuan, angustia justifikatzeko koartada da. Bestearen logikaren presoa da, eta orduan, besteari mina egiteko

³⁷ “Nork ez luke nahiago buruaz beste egitea, beldurra gorabehera, eta sufritu behar ez izatea? (...) Baina heriotzaren aurreko adorea ez da adore handiena. Txarragoa da irauten duen sufrimendua, luzatzen den izua...” (COMTE-SPONVILLE 1998) 71-72. orr.

³⁸ Sofocles-en *Antigona*n matxinadak jarri zuen martxan kontraesana. Matxinatua Hiriazen aurka altxatu zen eta erahila izan zen, eta gorpua ehorzteke utzi zuten. Baina errotiko bazterketa honek porrot egin zuen: iraultza hedatu egin zen, nahiz eta ez hedatu matxinada politiko gisa, forma mugagabe gisa baizik. Forma mugagabe hau itzulera da: kontua da, subjektibazio bat gertatu zela eta egoerak itzultzen utzi zuela, batasun ilegala (supernia) araez josiz. Antigona-k eta Creonte-k, antzerkian aurkakok badira ere, prozesu bera burutu zuten angustia eta supermiaren kategorietan. Subjektu sofoklearrari buruzko eztabaidari Hölderlin-ek eman zion hasiera: “*Antigona-n prozesuaren era matxinada batena da non, aberriaren arazoa den neurrian, gauza bakoitzaren menpekota baita, itzulera mugagabeak hartua eta iraulia izan delako, eta era mugagabea izan delako iraulia. Baina aberrirako itzulera hau, errepresentazio-forma eta modu guztietarako itzulera ere bada. Eta aberrirako itzuleran, beste irudi baterantz jotzen du (izugarrirentz izan edo irudi berrirantz izan) eta, beraz, denboraren bortizkeria espirituala medio, abertzalea izatera behartua izan daiteke, orainaldian, foma mugagabe batean, bere aberriaren forma erlijiosoa, politikoa eta morala (προφάνηθι θεός)*” (profanethi theos), (HÖLDERLIN 1983) 150. or.

duen bidea, bere buruari mina ematea da. Superniak inposatu dizkion gaitzak, autoinmolazioaren bidez itzuli nahi dizkio zeharka. Fisikoki buruaz beste egiten du, sinbolikoki aurkaria hiltzeko. Heriotza heroikoa da, tragikoa eta artistikoa, eta horregatik egiten zaio populuari erakargarri.

3. Zesioa

Zesioa eta beronen ondorioak maisuki jaso ditu Crane-k 7. kapitulutik 12.era doan tartean.

Zesioaren lehen zantzuak

Esan bezala, agerpen psiko-somatikoak izaten dira zesioaren lehen zantzuak. Gizakiak inguratuta ikusten du bere burua, dardara du saman, giharrak gogortuta ditu eta dorpe agertzen da mugimenduetan. Angustiaren gorengo unea da. Ziurtasunik eza du, beldurra, konfiantza-eza, eta ez daki nola sortu zaion egoera. Datorkion arriskua kontrolaezina zaio.

Amore ematen duenak, berak ez dituen ahalmenak egozten dizkio etsaiari, zesioa justifikatzeko. Ez du uste etsaia bera bezain gizatiarra izan daitekeenik, edo bereak bezalako ahultasunak dituenik. Gaindiezina da etsaia bere irudiko, herensugeak eta munstroak haurren irudiko gaindiezinak diren bezala. Ezin du ihes egin eta mugiezin gelditzen da, irentsia izatearen zain. Egoera apurtu ezin duenez, etsi egiten du.

Zesioa burutu duenak bere porrota porrot politiko gisa agertu nahi badu ere, zesioa ez da galera politikoa, arazo etikoa baizik. Desertzio pertsonala da eta ez du zerikusirik etsaiaren indarrarekin.

Porrota pairatzearekin batera errudun sentitzen da gizakia, eta orduan justifikazioa aurkitzeko beharrian larria izaten du. Justifikaziorik aurkitzen ez badu, zama osoa bere buruaren aurka botako du, ondorioak larriagotuz. Komenigarria da bereiztea, baina,

errudun sentitzea eta damutzea, ez baitira gauza bera, ondoko koadroan ikus daitekeenez.

	Errudun-sentimendua	Damuketa
<u>DEFINIZIOA</u>	Ideiarekiko (egiarekiko) amore emateak sorturiko sentimendua da	Ezarritako arauaren bortxaketa burutu ondorengo sentimendua da
<u>JATORRIA</u>	Barne-prozesu subjektiboari egindako ihesaren ondorioa da	Kanpo-prozesu arautzaileari (dagoeneko barneraturik) egindako hausturaren ondorioa da
<u>OSASUNBIDEA</u>	Subjektu-egoerara itzultzea	Ezarritako araua berronartzea
<u>GAINDITZEKO</u>	Amore ematearen alderantzizko esfortzua egitea	Ezarritako boterearen (sistemaren) aurrean delitua edo akatsa aitortzea
<u>IZAERA</u>	Gainekadurarako itzulbidea da	Egiturarako itzulbidea da
<u>ARLOA</u>	Etikaren alorrekoa da	Moralaren alorrekoa da
<u>PREMIA</u>	Norberaren justifikazio beharra ezinbestekoa da	Sistemak berak justifikatzen eta goraipatzen du

Zesioak sentimendu, afekzio, sentsazio eta pasio anitzak sortarazten ditu; anitzak, ezberdinak, ilunak eta kontrajarriak kasu askotan. Egoera subjektiboa arintzeko edo asaskatzeko asmotan, gorrotoa eta poza (faltsua) tarteka ditzake, Spinoza-k aipatzen zituen gogoaren gorabeherak adieraziz. Gorabehera hauek dira, hain zuzen, sentsazio mingarria konpentsatzeko, ezabatzeko edo desbideratzeko gizakiak erabiltzen duen metodoa, eta horrek, sentsazio positiboak ere esperimintatzea ahalbidetzen dio.

Doubts and he were struggling. (XI/15, 42. or.)

Etsi egin duenak sentsazio mordoa sentitzen du, intentsitate handiz gainera, porrot pertsonala tenore subjektibokoa baita. Gaindi baten askatzeak (norberaren aurkakoa izan zein besteen aurkakoa), indar handia dakar eta erreakzio psikologiko sakonak sortzen ditu. Eta alderantziz ere bai. Hau da, askatutako gogo berriz ere orekatzeko, barneko ahalegin

ikaragarria behar da, sarri askotan kanpoko laguntza eskatzen duena, norberak ezin baitio ekin bakarrik oreka lortzeari (ikus, esaterako, alkoholikoen kasua, drogazaleena, maitasunarekiko adikzioa dutenena, edo nobela honetan, protagonistaren kasua). Azarearen bidez, Henry Fleming-en kasuan, edo lan planifikatuaren bidez soilik lor daiteke ondorioak murriztea.

Inteligentzia, une honetan, sentimenduek harrapaturik dago, indarge, geldi, aktibitaterik gabe. Pentsamenduaren ordez, irudimenak hartzen du bere lekua, eta honek asmatuko ditu bere burua justifikatzeko erabiliko dituen kanpo-arrazoiak, arrazoi ugari asmatu ere. Indibiduoak egoeraz duen inpresioa ez da zuzena; ez du pentsatzen, asmatu-irudiak ikusten ditu soilik, eta erreala baino sentitzen ditu. Spinoza-k diosku ideia desegokiak direla hauek: burmuina behin eta berriz kopaltzen duten irudiak dira eta arrazionalki pentsatzea eragozten dute.

Zesioa egin duenak erratu egiten du xedea, halabeharrez. Zer esan nahi dugu honekin? Ez duela jotzen bere gaitzen benetako iturburura; ez duela jakin nahi zein den benetako arrazoiak (bere buruarekin aurrez aurre egin beharko lukeelako jakina) eta, beraz, bere erasoan hartzailak tronpatzen ditu eta sarri askotan, antzinako kideen aurka zuzentzen du bere gorrotoa³⁹, jakin dakien arren kide hauek ez direla gatazkaren sortzaileak. Esan bezala, erratu egiten du kolpea, behararen beharizanaz.

Hasiera batean harridura sentitzen du, bere kideek erreakzio zuzena izatea espero ez duelako. Bigarrenez, sumindura sortarazten dio kideen jarrerak, eta pentsatzen du berak hartutako jarrera askoz ere zuzenagoa, azkarragoa eta zurreragoa dela: hobe zen arriskua ekiditea eta indar-bilketa egin ondoren berriz ekitea, kideek egindakoa baino (arriskuari branka ematea alegia). Arduratsuki jokatu duela sinestarazi nahi dio bere buruari. Porrot kolektiboa baino, hobe zen, bere irudiko, zesioa egin eta aurrerago segitzea borrokan. Bere burua azitia bailitzan hartzen du: arriskua aurreikusi du. Argia da. Ez du onartzen gatazkak

³⁹ Gorrotoa tristura da, kanpotiko kausa batek lagundua. Spinoza, op. cit. 237. or. Gorrotatzen duenak, hondoan, bere burua gorrotatzen du, gorrotoaren bidez agerian uzten baitu berak proiektu propiorik ez duela.

izurik sortu dionik (ezin ahal izango luke jasan aitorpenaren sufrikarioa), eta bere jokaera zuhurtziari zor zaiola uste du, eta ez dela, noski, beldurraren ondorioa.

Diskurtso faltsu honek ezin du desbideratu errudun-sentimendua, eta berehala sentitzen ditu lehen zantzu negatiboak⁴⁰: haserredura, sumindura, traizioa, iseka, errukia, porrot-sentsazioa, hiltzaile-sentimendua...

He turned away amazed and angry. He felt that he had been wronged. (VII/3, 28. or.)

It seemed that the blind ignorance and stupidity of those little pieces had betrayed him. He had been overturned and crushed by their lack of sense in holding the position, when intelligent deliberation would have convinced them that it was impossible. (VII/5, 29. or.)

He began to pity himself acutely. He was ill used. He was trodden beneath the feet of an iron injustice. He had proceeded with wisdom and from the most righteous motives under heaven's blue only to be frustrated by hateful circumstances. (VII/7, 29. or.)

He shambled along with bowed head, his brain in a tumult of agony and despair. When he looked loweringly up, quivering at each sound, his eyes had the expression of those of a criminal who thinks his guilt little and his punishment great, and knows that he can find no words. (VII/8, 29. or.)

Eta bere buruaren aurka agertzeaz gain, gainontzekoen aurka ere azaltzen da, ardurak desbideratu nahian. Amore eman duena bereziki krudela izaten da kide ohiekin, beraiek baitira bere mingostasunaren errudunak. Besteek borrokan segitzen dutenez, besteak dira norberaren porrotaren zantzua⁴¹: porrota pertsonala izan dela uzten dute agerian, eta ez dela porrot kolektiboa izan. Horrexegatik dira hira eta gorroto sakona.

By heavens, they had won after all! The imbecile line had remained and become victors. He could hear cheering. (VII/1, 28. or.)

It seemed that the blind ignorance and stupidity of those little pieces had betrayed him. (VII/5, 29. or.)

He felt a great anger against his comrades. He knew it could be proved that they had been fools. (VII/5, 29. or.)

He had proceeded with wisdom and from the most righteous motives under heaven's blue only to be frustrated by hateful circumstances. (VII/7, 29. or.)

⁴⁰ Berak ere ez du sinetsi bere diskurtso faltsua.

⁴¹ Porrota bikoitza da: alde batetik pertsonala da, norberaren buruari traizioa egitea delako; bestetik, proiektuarekiko traizioa ere bada, aurretik sinesten zuenarekiko haustura baitakar.

A dull, animal-like rebellion against his fellows, war in the abstract, and fate grew within him. (VII/8, 29. or.)

He wondered what they would remark when later he appeared in camp. His mind heard howls of derision. Their destiny would not enable them to understand his sharper point of view. (VII/6, 29. or.)

Behin zesioa burutuz gero, gizakiak egiturarantz bideratzen ditu pausoak, subjektuaren desagerpenerantz. Nobelan iluntasunaren bidez sinbolizatzen da subjektibitatearen deuseztapena, Henry basoan barneratzen denean. Lasaitasun-eza adierazten du, barne-oihuak, ziurtasunik eza batetik eta bake-sentimenduak bestetik, nahasian. Iluntasunetik iluntasun handiagora igarotzen da, hau da, ahultasun subjektibotik ahultasun handiagora; tristeziatik tristezia areagotzera; angustiatik supernira, subjektua zeharo desagertu arte.

He could not conciliate the forest. As he made his way, it was always calling out protestation(...) So he went far, seeking dark and intricate places. (VII/10, 29. or.)

Off was the rumble of death. It seemed now that Nature had no ears. (VII/12, 29. or.)

This landscape gave him assurance. A fair field holding life. It was the religion of peace. (VII/13, 29. or.)

Une batean, bat-batean, heriotza sinbolikora daraman bide horretan geratu da eta gerraren soinua entzun du: soinu honek salbatuko du soldadua. Batailaren soinuak entzutean, erakarpena sentitu du; hurbiltzeko eta parte hartzeko beharrezana; berriz ikusi behar du aurrez aurre porrotera eramán duen hura. Erreakzio honi esker has daiteke (liteke) subjektuaren berbiztea, eta kemen eta kuraiaraino eramango duen gorabidea. Gerrak segitu izanak agerian utzi dio ihesari amaiera eman behar diola, ihesa eta heriotza gauza bera dela, eta berak bizi egin behar duela.

Then, upon this stillness, there suddenly broke a tremendous clangor of sounds. A crimson roar came from the distance. (VIII/2, 31. or.)

The youth stopped. He was transfixed by this terrific medley of all noises. (VIII/3, 31. or.)

Then he began to run in the direction of the battle. He saw that it was an ironical thing for him to be running thus toward that which he had been at such pains to avoid. (VIII/4, 31. or.)

As he ran, he became aware that the forest had stopped its music, as if at last becoming capable of hearing the foreign sounds. (VIII/5, 31. or.)

Kide ohiekin bildu behar du berriro, eta ihesak sortarazi dion horri branka eman. Gaindira eramango duen bidea berriz bilatzen hastea (begiradarekin bada ere, itxaropenarekin soilik) abiapuntu nahikoa da etena sor dadin, zeraman norabidean egindako etena.

Bere buruari esaten dio, ihesa eragin zuen hura gauza txikia dela arazo osoaren baitan. Egindako akatsa minusbaloratzen du eta txikikeria baino ez dela izan deliberatzen du, arazo orokorrarekin konparatuz. Balorea gutxitzean, sufrimendua ere murrizten da eta, azken finean, gauza partziala zenez, pentsatzen du borroka lokal horrek ezin ahal izango zukeela baldintzatu borroka orokorraren emaitza: beraz, ihesa ez da hainbestera izan bere justifikazioaren harian.

Reflecting, he saw a sort of humor in the point of view of himself and his fellows during the late encounter. They had taken themselves and the enemy very seriously and had imagined that they were deciding the war. (VIII/7, 31. or.)

Gerran berriz sartzea, ordea, ez da erraza, kontraesanak ditu. Beldurra, ihesa ezagutua izatea eta errua agerian uztea, egundoko zama bihurtzen dira protagonistarentzat. Spinoza-ren “idea desagokien” adibide argia da. Sentimenduek eragotzi egiten diote egoera zein den argi eta garbi ikustea, eta lainotu egiten diote hausnarketa. Horrexegatik ez dute lortzen iheslariek bere buruarengandik ihes egitea. Distantzia, bakardadea edo urruntasuna bilatzen badituzte ere, sufrimendua berekin doa, doazen tokira doazela. Edonon daudela ere, edonorengan ikusiko dute salaketaren begirada. Bataila-zelaian birsartzerakoan, sentimendu hori areagotu egingo da, jakina.

After a time he turned to the youth. "Where yeh hit, ol' boy?" he asked in a brotherly tone. (VIII/43, 34. or.)

The youth felt instant panic at this question, although at first its full import was not borne in upon him. (VIII/44, 34. or.)

Because of the tattered soldier's question he now felt that his shame could be viewed. He was continually casting sidelong glances to see if the men were contemplating the letters of guilt he felt burned into his brow. (IX/2, 34. or.)

Galderak entzutean, berriz ere furfurua eta gorrotoa sentitu du besteekiko. Bere tristura projektatu du besteengan, galderek sakondu egiten baitute bere zauria. Zesioak egundoko sufrimendua sortzen dio, eta behin eta berriz datorkio iheserako gogoak. Kontrajarria da bere egoera: alde batetik parte hartu behar duela uste du, (etorkizunik eduki nahi baldin badu behinik behin) eta bestetik dena bertan behera utziko luke, alde eginez.

The youth had been wiggling since the introduction of this topic. He now gave a cry of exasperation and made a furious motion with his hand. "Oh, don't bother me!" he said. He was enraged against the tattered man, and could have strangled him. His companions seemed ever to play intolerable parts. They were ever upraising the ghost of shame on the stick of their curiosity. He turned toward the tattered man as one at bay. "Now, don't bother me," he repeated with desperate menace. (X/23, 39. or.)

The youth, who had been holding a bitter debate with himself and casting glances of hatred and contempt at the tattered man. (X/25, 39. or.)

Autoerrukia sentitzen du soldaduak. Berriz parte hartzea nahi luke eta zesioa burutu ez dutenekin elkartu. Etsaiak egindako zauriren bat erakutsi nahi luke, onartua izateko. Horregatik, beste bataila batean, beste matxinada batean nahi luke parte hartu, erredimitzeko⁴². Nahi luke gainontzeko denak akabatuak izatea batailan, baina horrela izan ez denez, berak ere nahi lituzke zaurituen zauriak eta hildakoen heriotza; inbidia die hildakoei. Kideekin egon nahi luke, beraiek bezala odola erakutsi, odola baita borrokalari izan direlako zantzua. Azken finean, zesioa gorabehera, ez du guztiz amore eman (*He told himself that, despite his unprecedented suffering, he had never lost his greed for a victory, XI/24, 43. or.*); oraindik ekidin nahi du egituran jaustea; subjektu izateko itxaropena du oraindik ere.

At times he regarded the wounded soldiers in an envious way. He conceived persons with torn bodies to be peculiarly happy. He wished that he, too, had a wound, a red badge of courage. (IX/3, 34. or.)

He now thought that he wished he was dead. He believed that he envied those men whose bodies lay strewn over the grass of the fields and on the fallen leaves of the forest. (X/33, 40. or.)

⁴² "Herói imaginarioak, koldarrak, errealak. Adorea da momentuko unearen asmoa". Kontua da kementsua izatea, ez bihar edo geroxeago, martxan baizik. (JANKELEVITCH 1986b) 107. or.

Superniaren barneratzea zesioan

The Red Badge of Courage-ren XI. kapitulua zeharo liluragarria da. Bertan jasotzen dira multzoka, gizakiaren sentimendu kontraerriak, ideia desegokiak, min fisikoak, justifikazioak eta, oro har, zesioaren prozesuan angustiak eta enparauek sortarazten dituzten ondorioak. Ikus ditzagun banan-banan.

Amore eman duenarentzat lasaigarria da borrokan irauten dutenen sufrimendua ikustea. Norbaiten zesioa ikustea pozgarria da etsituarentzat, eta bozkarioz hartzen ditu borrokalarrien arteko zatiketak eta istiluak. Hauek guztiek justifikatzen dute beraren jarrera, berak egindakoa, finean, besteek egindakoarekin simetrikoa baita. Beraren zesioa, askoren arteko bat gehiago da; berea etsipen bat gehiago da gerra desigoal eta zentzubako batean. Bera ez da inor baino gaiztoagoa, eta pentsamendu honek plazerra ematen dio.

The youth felt comforted in a measure by this sight. They were all retreating. Perhaps, then, he was not so bad after all (...) was in truth a symmetrical act. There was an amount of pleasure to him in watching the wild march of this vindication. (XI/3, 40. or.)

Plazer hori, ordea, asmakizuna da, imajinarioa, angustiaren aringarria. Ez da kuraia indartzen duen afektu positibo horietarikoa, baizik eta egitura indartzen duen sentimendu errektiboa, kiskaltzen duen errudun sentimendu batek sortua. Sentsazio krudela da, morbosoa, lohia, subjektuaren benetako pozetik urrun dagoena. Angustiak sortua da, pasio kontrolaezin eta iluna. Norberaren sufrimendua ikustean etsaiak sentitzen duen poza bezalakoa da, hain zuzen ere gozamen hori etsaiaren zati bat delako etsituaren nortasunean barneratua; eta, beraz, etsaiak bezalaxe erreakzionarazten du. Pertsona angustiatuak boterearen logika bera du, erreakzio simetrikoa. Areago, etsaia bera baino krudelagoa izan daiteke, supernia baino ankerragoa⁴³.

Amore ematen ez dutenen aurka presio izugarria erabiliko du, ez sufri dezaten,

⁴³ Krudelagoa izateaz gain, duintasun eza ageriagoa da etsituaren kasuan, gorroto guztia kide ohien aurka bideratzen duelako, borrokakideen aurka hain zuzen.

errendi daitezen baizik. Ez da nahikoa lagun asko errenditzea. Denak errendatu behar dira. Projektu askatzailea bertan behera gelditu behar da, guztiz, zeharo. Modu honetan bere burua salbatu nahi du subjektiboki, zeren, botereak egituraren (estatu, erakundearen) alde egiten duen artean, pertsona angustiatuak bere onuraren alde baino ez baitu egiten, bere subjektibitatea salbatu nahian. Amore eman duena eta etsaia lege estruktural berberaren zatiak dira.

Une honetara helduta, etsitua etsaiaren aliatu hoberena da, biak elkartzen baitira erresistenteen aurkako ekinean: etsaiak garaipena nahi du, eta etsituak projektuaren porrota; bere salbazioa lortzarren, prest dago projektua suntsitzeko, eta projektuaren aldeko borrokalariak ere bai. Horixe da errendatuaren, iheslariaren, salatariaren logika.

...he could not but know that a defeat for the army this time might mean many favorable things for him. The blows of the enemy would splinter regiments into fragments. Thus, many men of courage, he considered, would be obliged to desert (...) He would appear as one of them. They would be sullen brothers in distress, and he could then easily believe he had not run any farther or faster than they. (XI/24, 42. or.)

Bestalde, porrotaren justifikazioa egiteko, etorkizunean irabaz lezaketela diotso bere buruari, bai berak eta bai armadak ere, guztiek etsiz gero, batek ere ez bailuke konplexurik agertuko, eta berriz ekin ahal izango diote borrokari. or.ain denek etsi egiten badute ere, geroke batean garaipena lor dezaketela sinistu nahi du. Honela manten dezake hasierako sentimendu garaitzailea, batailaren aurretikoa.

He said, as if in excuse for this hope, that previously the army had encountered great defeats and in a few months had shaken off all blood and tradition of them, emerging as bright and valiant as a new one; thrusting out of sight the memory of disaster, and appearing with the valor and confidence of unconquered legions. (XI/25, 42. or.)

Etsituarentzat hondamena da justifikaziorik handiena. Hondamenaren bidez zesioa arintzeaz gain, garaitua goraiaturik geratzen da, argi geratzen baita bera azkarragoa izan dela eta zetorkien porrota aurreikusi duela. Beharrezkoa du hondamena.

In a defeat there would be a roundabout vindication of himself. He thought it would prove, in a manner, that he had fled early because of his

superior powers of perception. A serious prophet upon predicting a flood should be the first man to climb a tree. This would demonstrate that he was indeed a seer. (XI/26, 43. or.)

Justifikazioa ere hondamena bezain ezinbestekoa da berarentzat: sufrimendua arintzen du, etorkizun bat izatea baimentzen dio, autoerrotia ezabatzen du eta lasaitasun animikoa eskaintzen dio. Hitz batean esateko, giza kondizioa itzultzen dio, eta gaizto-kondizioa ekiditen du. Bere subjektibitatea lortzearen, hausnarketa objetiboak edo egoeraren azterketa errealistak alboratzen ditu; ez du hausnarketa arrazonaturik egiten. Pasioak gailentzen dira arrazonamendu zuzen eta egokien gainetik; salbazioaz duen obsesioak lainotu egiten dio interes orokorrari begiratzea, edo eta egia-prozesuari jaramon egitea.

A moral vindication was regarded by the youth as a very important thing. Without salve, he could not, he thought, wear the sore badge of his dishonor through life. With his heart continually assuring him that he was despicable, he could not exist without making it, through his actions, apparent to all men. (XI/27, 43. or.)
If the army had gone gloriously on he would be lost. If the din meant that now his army's flags were tilted forward he was a condemned wretch. He would be compelled to doom himself to isolation. If the men were advancing, their indifferent feet were trampling upon his chances for a successful life. (XI/28, 43. or.)

Une batzutan inbidia⁴⁴ sentitzen du kideen erresistentzia eta kemenarekiko. Borrokalariak heroi baino heroiagoak dira bere irudiko, egundoko indarra dute, eta horietariko bat izatea gustatuko litzaioke.

He could never be like them. He could have wept in his longings. (XI/6, 41. or.)
As he watched his envy grew until he thought that he wished to change lives with one of them. He would have liked to have used a tremendous force, he said, throw off himself and become a better. (XI/9, 41. or.)

Beste pertsona bat izan nahian, batzutan gizakiak fiktizioki imajina dezake subjektua dela, eta irudi laudagarriak eta garaileak asma ditzake. Bakarrik imajinazioan

⁴⁴ **Inbidia** gorroto-mota bat da, zeinen poderioz besteen zoriontasunaz tristatzen eta besteen gaitzaz gozatzen

gerta daiteke zatiketa hori⁴⁵: batetik bera DENA (garaitua, egituran barneratua, animalia gizatiar hutsa⁴⁶) eta bestetik izan NAHI LUKEENA (subjektu osoa, lekutik kanpo, kementsua, hilezkorra). Argi ikusten da amets hori⁴⁷ ez dela erreala, irudi okerra dela, benetako subjektua ez baita ametsarena bezalakoa: ez da heroia, aitzagarria, gorena ezta mirestua ere; egiazko subjektua izaki arrunta da bere bakantasunean⁴⁸, gizaki lasaia, handikeriatik kanpokoa eta, batez ere, laudorioaren legean jausten ez dena.

Swift pictures of himself, apart, yet in himself, came to him –a blue desperate figure leading lurid charges with one knee forward and a broken blade high– a blue, determined figure standing before a crimson and steel assault, getting calmly killed on a high place before the eyes of all. He thought of the magnificent pathos of his dead body. (XI/9, 41. or.)

Sufrimendu honek guztiak ondorio fisikoak dauzka (akidura, mina, nekea, stressa, lorik egin ezina, etab.). Psikismoak, sentimenduek edo ametsak eragina izan dezakete egoera fisikoan, eta oinazea ahanztarazi une larrietan; baina errealitatera itzultzean, hau da, sentazio psikikoak lasaitzen direnean, ondorio fisikoak indartsuago agertzen dira, zeren

den. Spinoza, op. cit. 241. or.

⁴⁵ “Gu ez gara gogobetetzen guregan daukagun eta gure izaera den bizitzarekin; gainontzekoen gogoan bizitza imajinarioa nahi dugu bizi eta itxurakeria egiten ahalegintzen gara. Izaki imajinario hau gordetzen eta edertzen jo eta ke jarduten dugu eta egiazkoak ez dugu ardurarik izaten; eta lasaitasuna, edo eskuzabaltasuna edo leialtasuna baldin badaukagu, aditzera ematen dugu presaka, izaki imajinario hori birtutez honitzeko helburuaz.” (PASCAL 1983) 141. or. XIX artikulua: “*Gizakiaren banitatea, irudimena eta buruestima*”.

⁴⁶ Animaliak ez du kontzientzia moralik. Naturan ez da gertakizuna existitzen, gertakizuna subjektuarena baita, honek bakarrik har baititzake erabakiak egoera batean.

⁴⁷ Ametsa, XI. kapituluko 9. paragrafoan jaso da, 41. orrialdean, eta esaldi honekin ematen dio hasiera: “*Swift pictures of himself, apart, yet in himself, came to him -*”. Bertan bere burua garaile ikusten du, gerrate-liburuetan agertzen diren imajina idealizatuen moduan: belauna tolesturik, ezpata apurtua gorantz eta eraso ausartak eginez. Azkenean mendixka baten gailurrean zerraldo jausten da, guztien begi-bistan, eder, patetismoz bete.

⁴⁸ Nahiz eta justifikazioa bilatu, ezinezkoa da bere zesioa justifikatuko duen irudia aurkitzea, interdependentziaren printzipioa ez baita berak uste bezalakoa. Osotasunak menperatzen ditu parteak, hauxe baita oinarrizko printzipioa. Pertsona angustiatuak hankazgoratu egiten du printzipioa eta bestera pentsatzen du, parte osoaren gaintik dagoela. Uste du bere azterketak baldintzatzen duela egia, eta ez alderantziz.

Kontua da, subjektibitate singularrek, egia batean kokatuta daudenean, prozesuari aurrera egiten laguntzen diotela. Hau da, singularitate hauek kolektibitatean biltzen dira, eta berdintasunaren eremuan murgiltzen dira. Egiaren prozesuan, subjektua berdina da, indiferentea, diferentziak ez zaizkiolako axola berarekin batera proiektu berean (egiaren prozesuan) daudenen artean. Bakana izatean, ahalmen mugagabeak jartzen dira martxan, singularitate horiek guztiek kolektibitate bat osatzen baitute. Berdinak dira singularitatean. Indibidualidadeak, aldiz, desberdintasunaren eremuan murgiltzen dira, egituran, denak dira ezberdinak eta izaki desberdina agertzen dute. Desberdinak izatean, diferentziak nagusi dira estrukturen, eta

elementu psikikoa eta fisikoa elkarloturik baitaude⁴⁹, eta paraleloki joaten baitira. Ondorio fisikoak, gainera, eragin psikiko eta afektiboa ere areagotu dezake.

Furthermore, various ailments had begun to cry out. In their presence he could not persist in flying high with the wings of war; they rendered it almost impossible for him to see himself in a heroic light. He tumbled headlong. (XI/20, 42. or.)

While he had been tossed by many emotions, he had no been aware of ailments. Now they beset him and made clamor. As he was at last compelled to pay attention to them his capacity for self-hate was multiplied. In despair, he declared that he was not like those others. He now conceded it to be impossible that he should ever become a hero. He was a craven loon. Those pictures of glory were piteous things. He groaned from his heart and went staggering off. (XI/22, 42. or.)

Gainontzekoek amore ematen ez badute, mesprezatu egiten du bere burua, koldarra dela esan, eta hiltzeko gogoia agertzen du, nobelan ikus daitekeenez.

Again he thought that he wished he was dead. He believed that he envied a corpse. Thinking of the slain, he achieved a great contempt for some of them, as if they were guilty for thus becoming lifeless. (XI/30, 43. or.)

Une batean, ordea, zuzper daiteke. Lehen ikusi dugu bat-batean utzi diola ihesari eta bataila-zelaira berriro sartzen dela; oraingo pausoa, aldiz, erabaki bat hartzea da: erresistenteek irabaziko dutela erabakitzea. Konbentzimendu honi esker,⁵⁰ bestelako irtenbideak bilatzen hasten zaio arazoari. Errealitateari branka ematen dio lehenengoz eta borrokalarien aldeko apostua egiten du. Apostu honek dakartza, kideen hondamena ez deseiatzea lehenik, eta bigarrenik, beraiekiko hurbilketari ekitea. Arazoa da, nola egin hurbilketa burutzeko, errudun-sentimendua gainditzeko, errendatu gisa ez agertzeko eta, gainera, onartua izateko.

When he perceived again that it was not possible for the army to be defeated, he tried to bethink him of a fine tale which he could take back to his regiment, and with it turn the expected shafts of derision. (XI/32, 43. or.)

ez dago proiektu amankomuna aurrera eramaterik. Idealek elkartzen dute, eta interesek banatzen dute.

⁴⁹ Pentsamendu hau berau ere, Spinoza-ren filosofiaren oinarrian datza.

⁵⁰ Dagoen egoeratik irteteko desira sakonetik sortzen zaion konbentzimendua da.

Ez da erraza aitzakia aurkitzea. Egintza adoretua behar du egin, eta beldur dio onartua ez izateari. Bere errua aurpegian marrazturik daramala uste du, eta ez daki nola ekin kontuari. Kasu hauetan erabakizun-egintza indartsua behar da, edo azarearen laguntza⁵¹. Nobelan bigarrena aukeratu du idazleak.

But, as he mortally feared these shafts, it became impossible for him to invent a tale he felt he could trust. (XI/33, 43. or.)

He seemed to hear some one make a humorous remark in a low tone. At it the others all crowed and cackled. He was a slang phrase. (XI/37, 44. or.)

Soldadu zorabiatu batek ustekabeen buruan eman dion kolpearen ondorioz⁵² zauria hartuko du Henry Fleming-ek: zorizko kolpe horri esker bereganatuko du “adorearen seinale gorria”, hau da, “the red badge of courage”, kemenaren sinboloa, ustekabeko zauriaren odol-isuriari esker. Kasualitate honek erraztuko dio bere jokaera justifikatzea, eta hartu duen erabakiari bidea zabaltzea. Orokorrean, zailagoa izaten da aitzakia aurkitzea. Normalean, proiektuarekin erlazionaturik dauden beste arlo batzuetan borrokatzea izan ohi da aitzakiarako bidea. Edonola ere, jarrera zabala eta positiboa behar du etsitu ohiak *birgaitzeko* eta etorkizun batean berriz ere borroka kolektiboaren partaide izateko.

Supernirako itzulia

Crane-ren nobelan, une horretan Henry Fleming-ek lortu du kuraia biltzea eta subjektua osatzea (une batean hartutako erabakiari esker), baina ez zaigu esaten zer gertatuko zitzaien protagonistari desubjektibazioaren aldaparen beheanzko bidean segituz gero, ohi denez. Orokorrean, errazagoa (maizagoa eta masiboagoa) izaten da gizakiak amore ematea⁵³, presioak direla medio, eta superniaren atzaparretan hondaturik jaustea,

⁵¹ Eskilo-ren *Orestiada* lanean, Orestes-ek nabariro agertzen du zenbatekoa izan daitekeen justiziaren tamaina adoretu jokatzen duen subjektuaren eskutik. Orestes-ek bere aitaren heriotza mendekatzen du, eta orduan Eriniak, jainkosa mendekuzaleak, atzetik doazkio beraren odol guztia isurtzeko asmoz. Heriotza-katea honetatik ateratzeko, jainko justuaren eskurrartzea behar da, eta Atenea da justiziaz jokatzen duen jainkosa. Atenea-k berriz kokatzen du Orestes gizakien lege hilkorren artean, gainezkadura birbanatuz.

⁵² XII. kapituluaren, 9-14 paragrafoak, 45. orrialdean. Gertaera honek ematen dio nobelari titulua.

⁵³ Amore ematearen erreferentzia literario garrantzitsua aurki dezakegu *Hildako Poeten Kluba* izeneko nobelan (zinemaratua izan dena), (KLEINBAUM 1992). Cameron-ek etsi egin du eta, gainera salataria da,

subjektu bihurtzea baino. Gutxi izaten dira, eta gutxitan, subjektibazio-prozesua osatzea lortzen dutenak.

Etsiturik, zesioa barneraturik, errua bereganatuta eta zeharo desmoralizaturik, subjektibazioaren bataila guztiz galdu duela onartzen du gizakiak, eta gune hil batera heltzen da, gizaki bizien hilobira (zontzia bailitzan). Inoren mundua den gunean dago; bizirik egon arren, hilda dago. Desesperantzarik sakonenak menperatzen du, itxaropenik ezak. Desesperantza mugagabeko tristura da, norberaren erantzukizun gisa barneraturik dagoen zesioaren ondorioz sortua. Gunera egindako itzulera da, erdihilda dagoenaren irudia agertuz. Interesik gabeko leku honetan ez du lortzen egonezina arintzerik. Ez du arrenkurarik ordea, ezta gorrotorik ere; indarge dago. Angustia bere buruaren aurka deszamatu du, autoinmolazioan, eta etengabeko zigorra inposatzen dio; betiereko tristezian bizi da, burumakur, geldi-geldirik. Gorrotatzeko indarririk ez duen arima erratua izanik, bere desgrazia bere golkorako gordetzen du geldoki.

Ondorio psikosomatikoak nabariak dira: depresio handiak, molestiak eta sendabide zaila duen blokaje afektiboa da. Subjektu izateko desira ere desagertu egiten zaio, bai eta hori lortzeko aukera oro ere. Norberaren aurkako borrokaren ondorengo hondamena, hondamen erabatekoa da, indar handiaz desiratzen zena galdu egiten baita, eta bilatzeari berari ere uko egiten baitzaio. Izpirituaren ahultasuna bereganaturik, asmo, gogo, gurari, desira txikiena lagatzen da. Aurretik maitatzen zuenarekiko desafekzio osoa sentitzen du gizakiak, eta bere burua ahalge ikustean, gorrotatu egiten du, anker.

Desesperantza norberarekiko gorrotoa da, ahultasun subjektiboa agertzeagatiko gorrotoa, hain zuzen. Gorroto honek aurretik maitatzen zena uxatzen du (defendi ezin badezake, ukatu egiten du), eta, kontsekuenteki, mingostasuna azaltzen da (sentimendu deseustatzailea norberaren buruarekiko). Desesperantza da subjektu izateko desiraren uztasuna, desafekzio tragiko baten kausaz (parkaezinezko zesioa, alegia); desiratzen zuena utzi egin badu, desiratutakoa edukitzeko ez da duin.

Honelaxe jokaten dute pertsona sentiberek, solidarioek, maitale hoberenek⁵⁴. Itxaropenik gabeko tristezian bilatzen dute babesa, eta beren gogoia zigortzen dute, gehien maite zutena edukitzeari uko egin baitiote.

Itxaropen ezarekin batera insatisfakzioa dator. Spinoza-ren irudiko, insatisfakzioa tristezia da, ustearen kontra gertatu den iraganeko gauza batek lagundua⁵⁵. Hau da, insatisfakzioa tristura bat da, gertatzea espero ez genuen zesio bati lotua. Zesioa burutu zuenak ez zuen espero zesorik egitea, oso maite baitzuen desiratzen zuen hura (maitea, matxinadan garaitu, gerra irabazi). Orain, nork bere buruarekiko deskontentua sentitzen du. Spinoza berriz ekarriz⁵⁶, norberarekiko kontentua da, nork bere buruaren ezagutzeaz eta bere ekite-ahalmena ezagutzeaz sentitzen duen poza. Argi dagoenez, Spinoza-ren definizioa estrukturala da, ekite-ahalmena loturik baitago izaki existentzialaz (izaki biologiko-sozialaz) eta gure ustez, ordea, norberarekiko kontentua lotuago dago kuraiarekin, eta prozesu subjektiboan *subjektu* mantentzeko subjektuak duen ahalmenarekin. Gure definizioaren arabera, beraz, norberarekiko deskontentua barne-insatisfakzioa da, prozesu subjektiboan mantentzeko subjektuak izan duen gaitasun-ezagatik.

Poz hau ez da sortzen subjektu mantentuko ote ginen zalantza genuenez, azkenean mantentzea lortu dugulako, baizik eta subjektu mantenduko ginela konfiantza osoa hasiera batetik izan dugunez, azkenean halaxe gertatu delako.

Insatisfakzioa, ondorioz, kontrako egoeran dator; hau da, tinko mantentzea espero genuen arren, azkenean subjektu gisa jokatzeko lortu ez dugunean. Desira honen frustrazioak sortu du insatisfakzioa. Ikusten dugunez, kuraia eta angustia ez dira simetrikoak, eta

⁵⁴ Maitasunean ohikoa izaten da erreakzio hau: amodiozko desengainua izan ondoren, maitaleak bere burua hartzen du errundutzat eta berriro maitatuko ez duela erabakitzen du, ahalde. Ez du berriro maitatu nahi, blokeaturik dago, eta erantzukizuna berea dela uste du, gehiegi maitatzeagatik. Errefusatua izan ondoren, ez da gai sentitzen beste inor maitatzeko, subjektiboki ezgai da. Bestalde, maitasunik gabe ezin du bizi, eta orduan makalaldian murgildurik gelditzen da, bere gogoia apurka-apurka suntsitzen doala. Honezgero axola ez zaion gunean (munduan) hartzen du leku bat, baina blokeaturik dago, eta ezin du maitasuna sentitu. Aterabide bakarra kanpotiko laguntza jasotzea da, tratamendu psikoanalitiko bereziaz.

⁵⁵ Spinoza. op. cit. 240. or.

⁵⁶ Spinoza, op, cit. 241. or.

bestelako sentimendu hauek ere osatzen dute mosaikoa.

Pertsona desesperantzatua oso zintzoa da bere ekintzekiko. Inori ez dio egozten bere errua. Autokritikoa izan ordez (jokaera aztertu eta zuzenketa-gogoa agertu), derrotista da (jokaera gaitzetsi eta errefusatu, eta zuzenketarako aukerarik ez eman), eta honek bi jarrerara ezberdinetara eraman dezake: inmobilismoan koka daiteke gizakia (gune hila), edo supeniaren gune hutsa har dezake eta etsikorren irudia bereganatu. Etsikorrak arimarik gabeko munduan hartzen du bere gunea, maite ez duen eta bere borondatez onartzen ez duen munduan. Behartuta hartzen du gunea, beste irtenbiderik ez duelako; finean, bizi behar delako; etsaia indartsua delako eta gu, gauza jakina da, galtzaileak garelako. Gune hori ez da hila, balorerik gabekoa baizik. Ez da gustuko gunea, baina moldatu beharra du, halaberrez: *“mundu hau ez zait gustatzen, baina badakizu, gauzak honelakoak dira eta bizi behar da”*. Bere diskurtsoa fatalismoa da, bere filosofia derrotismoa da, eta bere jarrera beti kexaka ibiltzea.

Fatalista ez da sartzen ongiaren eta gaizkiaren diskurtsuan, beharizana dagoenean alperrikakoak baitira diskurtsoak. Kanpoko indar batek justifikatzen dio beti bere jokaera, bizibeharrak. Ez du utopietan sinesten, eta zerbaiten (norbaitengan) konfiatu behar bada, edozertan (edonorengan) du konfiantza, bere buruan izan ezik. Ezin zaio eskatu bere baitatik ateratako inolako esfortzurik. Baina bere egoerak badu itxaropenik: erresignazioak erresignazio, ez du gunea onartzen eta sentibera da injustiziekiko⁵⁷; lurrikara, desgrazia, injustizia senti ditzake; benetako gertakizun batek hunkitu egin dezake, eta horietariko batek, hain zuzen, gunetik atera dezake eta kuraiara bultzatu. Ez dago guztiz galduta, sistemarekiko kritikoa baita⁵⁸.

⁵⁷ Platon-ek *Gorgias* liburuan honelaxe dio: *“Pertsona injustua inoiz ezin da zoriontsua izan, zeren zigorra jasotzen badu oso insatisfakzioa izango baita, eta jasotzen ez badu, are gehiago. Injustizia burutzea, berau pairatzea baino itsusiagoa da eta, beraz, kaltegarriagoa. Injustiziak ariman eragiten duenez, kalterik handiena da, eta ondorioz zigorraren bidez berataz askatzea onuragarria izango da; zigorra jaso ezean, ezbeharrak handiengan mantenduko da gizakia”*. 17. or. Alde horretatik Kant-ek ematen digu jokabiderako gakoa, justiziaz eta zintzotasunez aritzeko araua: *“Joka ezazu beti zure gogoaren leloak legeria unibertsaleko arau moduan ere balio dezan”*. (KANT 1913) 1. parte, 1. liburua, 1. kapitulua, 7. parr.

⁵⁸ Zesioa burutu duenean errua bereganatu duenez (supeniari egotzi gabe), orain barne-terapiarik gabe

Bide honetatik abiatuta hel daiteke gizakia kuraiaren eremura, eta honen bidez, subjektibaziora.

4.Subjektibazioa

Subjektibazioaren hastapena

Aurretik ikusi dugunez, gerta daiteke gertakizunetan (matxinada, iraultza, masa-mugimendua, hau da, angustian murgildurik dagoenean), gizakiak subjektibitatezko gorengo uneak edukitzea, eta sasi-subjektua bailitzan boterearen aurka jokatzea, baina oraindik subjektu osoa izan gabe. Erakunde, talde edo kanpoko indar batetik indarra hartuta (oraindik ez da barnetik hartzen), boterearen aurkako erresistentzia ager dezake, *ez etsi* lelopean. Antígona eta Elektra dira adibide klasikoak, Sabino Arana eta Kubati esaterako gaur egungo adibideak dira.

Prozesu hauetan agertzen diren bi indarrak simetrizatu egiten dira, indar bati (supernia) beste indar bat kontrajartzen baitzaio (erresistentzia). Unean uneko kemena lortu arte gainezka egiten du gizakiak, kanpotiko elementuek emandako indarrari esker: muturreko egoera batek, desegituratzen duen gertakizun batek, edo ideia baten defentsa numantinoak luzatzen dio kemen puntuala. EZ eta EZ dio, ez duela etsiko, baina ez du BAI esaten, hau da, ez du proiektu afirmatiborik aurkezten. Mezu bakarra EZ esatea da: ez etsi, ez eman amore, ez porrot egin, ez hil; eta mezu heroiko honek subjektibatu egiten du gizakia (eta taldea), baina engainagarria da tamalez.

Prozesu honen bidez kuraiaraino hel daiteke, baina ez beti, gizakia desubjektibazioan jausi baitaiteke ezetza mantentzen gai ez bada: beheranzko ataria izan daiteke ezezko mezua. Kuraia, beraz, gertakizunaren lehen fasean bertan ager daiteke,

berreskura dezake bere subjektibitatea. Beste batzuen kasua larriagoa izaten da, gunea hartu dutenean ez dutelako superniarekiko (sistemarekiko) kritika mantendu, eta baldintzarik gabeko baietza eman diotelako. Ordenua, boterea, egituran dagoena, izaki estrukturala... onartu duten zesioaren ondorio gisa.

lehen momentuko erresistentziaren eskutik (gehienetan), edo porrot subjektiboa burutu ondoren, subjektibaziorako itzulbidea izan daiteke (gutxiagotan), nobela honetan gertatzen den bezala.

Edonola dela, kuraiaren aurretiko sentimendu⁵⁹ behinena gorrotoa da eta gorrotoaren aldagaiak: hira, amorrua, mendekua, furfurua, etab. Gorroto hori (eta hauxe garrantzitsua da) etsaiaren aurkakoa da, boterearen aurkakoa, bera baita gizakiaren egoeraren erruduna. Borroka egitura mailakoa da, botere bat beste botere baten aurka, indar bat beste indar baten aurka, gorrotoa gorrotoaren aurka. Borroka honen logika akzioa-erreakzioa da, estrukturala beraz, sistemaren logikaren eremukoa. Indar biak eremu berekoak dira, nahiz eta maila desigoala izan.

Prozesuaren ezaugarriak

Gizakia baldintza txarragoetan dagoenez, ahalmen subjektiboaz baliatu behar du, barne-indarraz⁶⁰. Izaten den ezinbesteko disimetria konpentsatzearren, benetako kuraia agertuko du gizakiak, barnekoa, subjektibitatearen indarra duena. or.aingoan bi indar arituko dira borrokan, indar estrukturala alde batetik, eta gunez kanpo dagoen gizaki baten gainezkadura afirmatiboa bestetik. Lehenak egituraren legea du eta bigarrenak barne-legea; ez dute logika bera, eta borroka desiguala izango da (masa-mugimenduaren eta estatuaren arteko borroka den bezain desiguala, esaterako).

Benetako kuraia duenak ez du sentitzen gorrotorik, gorrotoa ahultasun subjektiboaren adierazpena baita, beste norbaiten aurka zuzendua. Nahiz eta beste norbait gorrotatzen den, sakonean norberaren aurkako sentimendua da gorrotoa, norberaren kalitate faltaren isladapena, alegia. Gorengo kalitate hori edukiz gero, ez dago gorrotorik; honela bada, kuraia duenak ez du zerbaiten aurka borrokatzen, zerbaiten alde baizik.

⁵⁹ Oraindik ez gara ari benetako kuraiaz, baizik eta sasi-subjektuak erresistitzeko agertzen duen kuraia moduko indarraz.

⁶⁰ Logika batetik ikusita borroka burubakoa da. Indarrak horren deberdinak izatean, logikaz gain beste helduleku bat behar du borrokatzaileak: indar subjektiboa, kuraia hitz batean.

Idea, proiektu edo egia baten alde egitean, superniarekin egiten dugu topo (gogoz kontra jakina) eta berak plazaratzen du gatazka; kuraia une honetan azaltzen da, superniari aurre egitean, baina subjektuak ez du bilatzen borroka; borroka egiaren aldeko proiektuari ekitean azaltzen da. Supernia, beraz, bidean aurkituriko oztopoa da; ez da helburu gisa harturiko etsaia. Aurkitzen da, ez da bilatzen. Beraz, hobe da zeharka ekiditea, aurrez aurre topatzea baino. Edonola ere, ez da ahanzi behar aurrez aurreko borroka ere subjektu osoaren ezaugarria izan daitekeela, aurkaketa puntuala bada ere, gunetik kanpo egotearen logikatik sortua.

Berbiztearen argilunak

Nobelaren kasuan, gaztea guda-zelaitik atera da eta bere guda-taldea aurkitu du. Kideekin batzea eta beraiekin batera borrokatzea erabaki du. Zauri bat istripuz jasotzeko zortea izan du (adorearen seinale gorria, *the red badge of courage*) eta honek lasaitu du, bi arrazoiengatik batez ere: kide baten sekretua dakielako (batailaren aurretiko duda-mudak adierazten dituen gutunak eman dizkio), eta gainera, bizi izandakoaren esperientziak nolabaiteko lasaitasuna eskaintzen diolako, atsedena hartu eta zerbait jan ondoren. Apurka-apurka zesioaren irudia urrunduz doakio, etorkizuna patxadaz ikusten du eta gizon berria sentitzen da.

The friend had, in a weak hour, spoken with sobs of his own death. He had delivered a melancholy oration previous to his funeral, and had doubtless, in the packet of letters, presented various keepsakes to relatives. But he had not died, and thus he had delivered himself into the hands of the youth. (XV/10, 55. or.)

The latter felt immensely superior to his friend, but he inclined to condescension. He adopted toward him an air of patronizing good humor. (XV/11, 55. or.)

His self-pride was now entirely restored. In the shade of its flourishing growth he stood with braced and self-confident legs, and since nothing could now be discovered he did not shrink from an encounter with the eyes of judges, and allowed no thoughts of his own to keep him from an attitude of manfulness. He had performed his mistakes in the dark, so he was still a man. (XV/12, 55. or.)

Etsaia ez zaio horren izugarria iruditzen, eta berriz ere agertzen zaio bere buruaz

zuen irudia (irudi okerra bada ere). Areago, kide batzuekiko mesprezua adierazten du, batailatik alde egin dutelako.

He remembered how some of the men had run from the battle. As he recalled their terror-struck faces he felt a scorn for them. They had surely been more fleet and more wild than was absolutely necessary. They were weak mortals. As for himself, he had fled with discretion and dignity. (XV/18, 56. or.)

Azpimarragarria da ikustea nola aldatu diren Henry Fleming-en lagunak batailan egon eta gero. Gertakizunak baloreak aldatu ditu, eta errealitatea nolakoa den ikusi ondoren, aurreko nahiak edo handinahiak desagertu egin dira. Gero eta ideia zehatzagoa lortzen ari dira nor bere buruarekiko.

The youth took note of a remarkable change in his comrade since those days of camp life upon the river bank. He seemed no more to be continually regarding the proportions of his personal prowess. He was not furious at small words that pricked his conceits. He was no more a loud young soldier. There was about him now a fine reliance. He showed a quiet belief in his purposes and his abilities. And this inward confidence evidently enabled him to be indifferent to little words of other men aimed at him. (XIV/714, 53. or.)
"Yer changed a good bit. Yeh ain't at all like yeh was, I remember when you an' that Irish feller—" He stopped and laughed again. (XIV/38, 54. or.)

Tentsioa eta urduritasuna uxatzeko, hizketaldi etengabea dihardu, berbatsu, kexuka, errepikatzen, isiltzeke⁶¹. Modu honetan, lasaitzeaz gain, kideekin identifikatzen da, besteekin borrokatu duelako planta egiten du, nekatuta dagoela adierazten du, eta ez dela desertorea. Ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzeko du, batailan borrokatu izan balu bezala, adoretu. Honela, indarberritu egiten da eta hurrengoetarako berotzen du gogoia.

Zauria, ordea, ez dago guztiz itxita. Edozein aipuk dakarkio burura errudun-sentimendua, eta begi-bistan jartzen dio bere errealitatea. Zauriak ez dira ordezkoeekin edo asmakizunekin estaltzen. Zerbait gehiago behar du, bere adorea agerian utziko duen benetako froga bat, alegia.

⁶¹ XVI. kapituluaren amaieran argi ikusten da.

A sarcastic man who was tramping at the youth's side, then spoke lazily. "Mebbe yeh think yeh fit th' hull battle yestirday, Fleming," he remarked. (XVI/18, 58. or.)

The speech pierced the youth. Inwardly he was reduced to an abject pulp by these chance words. His legs quaked privately. He cast a frightened glance at the sarcastic man. (XVI/19, 58. or.)

The youth, nevertheless, fek a threat. His mind shrank from going nearer to the danger, and thereafter he was silent. The significance of the sarcastic man's words took from him all loud moods that would make him appear prominent. He became suddenly a modest person. (XVI/22, 59. or.)

Izandako errua ahantzi nahi du, bere bidean aurerra egin nahi du, berbiztu, bizitza berria hasi, baina ez daki nola, nondik jo, eta etsiturik sentitzen da, inguratuta, ahul, ahatge, gaizto, hankaperatuta. Intentsitate handiko eta kontrolaezinezko sentimenduak ditu etsaiarekiko, gorrotozkoak, erasokorrak. Bere adorea erakutsi nahi du, baina bideak itxita ikusten ditu, eta mendekua nahi du, nola edo hala erakutsi bera badela nor.

This advance of the enemy had seemed to the youth like a ruthless hunting. He began to fume with rage and exasperation. He beat his foot upon the ground, and scowled with hate at the swirling smoke that was approaching like a phantom flood. (XVII/1, 60. or.)

He had a wild hate for the relent less foe (...) to-day he hated the army of the foe with the same great hatred (...) It was notwell to drive men into final corners. (XVII/2, 60. or.)

"If they keep on chasing us, by Gawd, they'd better watch out. Can't stand too much." (XVII/3, 61. or.)

He crouched behind a little tree, with his eyes burning hatefillly and his teeth set in a curlike snarl (XVII/5, 61. or.)

He felt that he and his companions were being taunted and derided from sincere convictions that they were poor and puny. His knowledge of his inability to take vengeance for it made his rage into a dark and stormy specter, that possessed him and made him dream of abominable cruelties (...) and he thought that he would have given his life for a revenge of seeing their faces in pitiful plights. (XVII/6, 61. or.)

Ihesaren ondoren bizi duen lehen ekintzan bere senetik aterata balego legez jokatu du, zoroa bailitzan. Erasoaren gertakizunean murgildu da, gunetik at egin du eta egoeraren kontzientzia galdu du ia-ia. Ahatge sentitzen da, eta akosatuta aldi berean. Animalia basatia

da: hira, beldurra, mendekua, etsipena, furfuria eta amorrua sentitzen ditu⁶². Eraso amaitu ondoren ere, gazteak tiroka segitzen du, itsu.

... he lost sense of everything but his hate, his desire to smash... (XVII/9, 61. or.)

It swung its ulds to and fro in an agony of fear and rage. (XVII/10, 61. or.)

He had not deemed it possible that his army could that day succeed, and from this he felt the ability to fight harder. (XVII/12, 61. or.)

And when he was compelled to retire again, he did it slowly, sullenly, taking steps of wrathful despair. (XVII/14, 62. or.)

Once he, in his intent hate, was almost alone, and was firing, when all those near him had ceased. He was so engrossed in his occupation that he was not aware of a lull. (XVII/15, 62. or.)

Sasi-adore honen jatorria, bataila baten erdigunean sentituriko etsipen eta gorrotoa bada ere, efektu positiboak ditu gizakiaren gogoan, konfiantza ematen baitio eta aurreko errua zuritzen laguntzen baitio. Basati jokatu duela konturatzen da, baina bere jokabidea jarrera zintzotzat hartzen du, *pagano* baten fedez jokatu baitu eta ez sinesle baten fedez (oso ahula dena). Erakutsitako ausardiagatik, bere egintzak mirespena sortu du kideengan, eta gainontzekoen aurrean handi agertzean, bere begietarako are handiagoa agertzen da orain. Aurretik ezinezkoa zena, adoreari esker gauzatu ahal izan du orain. Hurrengoetarako ziurtasuna emango dio, eta eragozpenak gutxietsiko ditu. Bere burua heroizat hartzen du, baina errazegia iruditu zaio: ez da kontziente izan egindakoaz, bere gainetik egon den indar batek ekinarazi du ekin duen moduan.

Spinoza-ren irudiko, ausardia desira da, arriskutsua den zerbait egiteko bultzarazten duen desira, hari ekiteko gainontzekoak beldur direnean⁶³. Edo, baita ere, kanpoko indar batek (besteen iritzia, ikusleak, erakunde bat, alderdia, bataila...) bultzatuta, arriskutsua den zerbait egiteko desira. Pizgarria kanpoko elementu bat izateak, argi diosku urrun gaudena

⁶² Sentimendu hautariko batzuen definizioak azaldu ditugu, Spinoza-ren laguntzaz. Besteen definizioak hauexek dira. Mendekua norbaiti mina egiteko desira da, norbait horrek aurretik ere mina eman digulako, elkarri izandako gorrotoagatik (Spinoza, op. cit. 245. or.) Furfuria gorrotoa edo hira da, gorputzaren bidez adierazita, eta egintza erasokor eta aktibo gisa. Amorrua, ordea, gorrotoa edo hira da, gorputzaren bidez adierazita, baina egintza erasokor eta pasibo gisa, norberaren aurkakoa, alegia.

⁶³ Ikus 18. oharra.

oraindik kuraia-sentimendutik. Elementu batzuk elkartu dira Fleming-en ausardian, hala nola batailaren beroa, ustez desesperatua den egoera, etsaiarekiko mendeku-nahia eta, azkenik, errua zuritu nahian ez etsitzeko hartu duen erabakia. Bigarren aukera nahi du eta ez du alperrik galduko. Bigarren aukera edukitzeko, gainera, guda-taldera itzuli behar izan du, eta zorigaitzekoa, arriskutsua eta angustiatua izan da itzulera.

Esan bezala, gorrotoa, mendekua eta etsipena sentitzeak agerian uzten du kuraia sentitzetik urrun dagoena sasi-subjektua. Adore animala da berea, hiraz betea, erraza, oraingoz angustiaren eremukoa, baina kuraiarainoko igoerara laguntzeko guztiz beharrezkoa dena.

These incidents made the youth ponder. It was revealed to him that he had been a barbarian, a beast. He had fought like a pagan who defends his religion. Regarding it, he saw that it was fine, wild, and, in some ways, easy. He had been a tremendous figure, no doubt. By this struggle he had overcome obstacles which he had admitted to be mountains. They had fallen like paper peaks, and he was now what he called a hero. And he had not been aware of the process. He had slept and, awakening, found himself a knight. (XVII/24, 62. or.)

He lay and basked in the occasional stares of his comrades (XVII/25, 63. or.)

Garaile suertatu den armadaren adierazpenek ondo adierazten dituzte sasi-subjektu hauen ezaugarriak: etsaiarekiko sentitzen duten gorrotoa krudeltasunetik hurbilekoa da. Adore faltsuaren ezaugarria, hain zuzen, arerioarekiko mesprezua baita.

Batailan izan duen bigarren egintza ausart batek, berriz lagundu dio erredentzio-bidean. Kasu honetan ere argi ikusten da batailaren beroak eta zoramenak, inkontzientziak eta zentzu kolektiboak lagungarria direla ausardia agertzeko. Bortizkeria-desira sentitzen du, erasotzeko gogoia, eta nahikoa da gizaki batek inizatiba hartzea, gainontzekoak atzean segika joan daitezen, kutsatuta. Une batez berekoikeria desagertu egin da, puntualki, borrokaren baitan gizakiak bortizki desegituratu direnean.

Bizirauteko sen animala une batez desagertu eta zoramenaren adorea nagusitu da,

eragozpenak eta heriotza bera ere enoratuz. Gerra-giroak eta etsipenak batera sorturiko eldarnio edo delirioa da⁶⁴. Beste kasu batzuetan, eldarnioa sortzen da sakada iraultzailearen, giza anaitasunaren eta populuaren afanaren emaitza gisa. Edonola dela, eldarnio hau kontzientziaren galera partziala da, denboraldi batez gunea lagatzea, eta kanpo-indar hutsa baino ez aritzea dakar.

Subjektibazioaren sendotzea

Gunea/indarra dialektika, hala ere, estrukturala da. Indar hau ez da barnekoa, kanpokoa baizik, eta denbora batez gunea hutsik utz dezake, erraz. Kuraia, ordea, beste gauza bat da. Kuraia, gunearen barnetik sorturiko gainezkadura kontzientea, baiezkkoa eta pentsatua da, egindako apostu baten ondorioz. Ez da zoramena, ez da kontzientziaren ezean burutzen, ez da bortitza eta, gainera, ez dakar bizirauteko senaren galera. Kuraia, soilik, baldintza estrukturalak gainditzea da, barne-gainezkadura antolatu eta hausnartu baten bidez gainditzea. Ez da gunearen lagatze hutsa, berorren eraldaketa baizik, gunetik kanpoko legeak gauzatua.

Beste modu batera esateko, esan dezagun gertakizunak gunearen hustuketa dakarrela, gunetik kanpoko gainezkaduraren kausaz. Ez-subjektuak alde egiten du gune hutsetik, eta sasi-kuraia azaldu ondoren, berriz itzultzen da gune berberera, ezertxo ere aldatu gabe, supernian jausiz. Subjektuak, aldiz, gune hutsa bereganatzen du, berau aldatu eta irauli ondoren. Kasu batean zein bestean, gunea hutsik geratu da, gertakizunak sorturiko gainezkaduraren kariatz.

It made a mad enthusiasm that, it seemed, would be incapable of checking itself before granite and brass. There was the delirium that encounters despair and death, and is heedless and blind to the odds. It is a temporary but sublime absence of selfishness. (XIX/9, 67. or.)

⁶⁴ Eldarnioari buruz, ikus liburu argitaratu berria (CASTILLA del PINO 1998). Psikiatريان, “perzepzio faltsu”, adimen-akats”, “ahozko nahasketa” eta “jokaeraren okerra”ren bidez definitzen da eldarnioa. Freud-en arabera, eldarnioaren ezaugarria hauxe da: “*manuak jabe guztiahaldun bihurtu dira, hau da, sinesgarritasuna bereganatu dute, eta horrexegatik eragiten dute subjektuaren portaeran*”.

Lehen aldian ez bezala, orain gazteak gauzak bereizten ditu eta argi eta garbi ikusten du zein den egoera. Jakin ez dakiena da, zergatik dagoen leku horretan. Ez daki zein den bere egintzen zergatia, ezta zein den defendatzen duen projektua ere. Gertakizunean gauza arrunta izaten da jendeak ez jakitea zergatik dagoen dagoen lekuan, zergatik joan den, zerk bultzatuta. Azarearen eremukoa da gertakizun oro. Gertakizuna izendatzen duten partehartzaileek kontzienteagoak dira egoeraz, baina azarearen kontzientzia da, zuzendua edo antolatua izan gabe. Gertakizuna protagonisten gaintik dago; ez dago inor gertakizunean aritua edo aditua denik. Gerratean, ofizialak lirateke azarearen partehartzaileak.

...everything was pictured and explained to him, save why he himself was there. (XIX/8, 67. or.)
And because it was of this order was the reason, perhaps, why the youth wondered, afterward, what reasons he could have had for being there. (XIX/9, 67. or.)

Azarearen kausaz, guda-taldea geldirik gera daitekeen bezalaxe, ospa ere egin dezake guda-zelaitik. Gainezkaduragatik gunea uzten den bezala, bertara ere itzul daiteke. Soldaduak gizaki-animaliak dira berriz.

Since much of their strength and their breath had vanished, they returned to caution. They were become men again. (XIX/10, 67. or.)

Gertakizunean daudenek, han zergatik dauden ez dakitenez, zoramen kolektibo baten modukoa pairatzen dute, zentzumena ere eragozten diena. Zergatik gertatzen zaie gertatzen zaiena? Zein da arrazoa? Gertatu ondoren soilik azal daiteke gertatutakoa eta ebalua daiteke gertakizuna, subjektu subjektiboaren bidez.

They looked wild-eyed, and as if amazed at this furious disturbance they had stirred. In the storm there was an ironical expression of their importance. The faces of the men, too, showed a lack of a certain feeling of responsibility for being there. It was as if they had been driven. It was the dominant animal failing to remember in the supreme moments the forceful causes of various superficial qualities. The whole affair seemed incomprehensible to many of them. (XIX/19, 68. or.)

Gaztea gero eta kontzienteagoa da bere adorea. Ikurra hartu eta aurrera jo du,

sentimendu abertzaleak lagunduta. Ikurraren sinbolismoak nolabaiteko kemena eskaintzen dio, aurrera bultzatzen duen fetitxea bailitzan. Egiten ari denari zentzua ematen dio; zerbaiterako, norbaitentzako edo ideia baterako baliagarria delako, abertzaletasun hutsagatik bada ere. Hori guztia, ordea, modu nahasian bizi du⁶⁵.

Within him, as he hurled himself forward, was born a love, a despairing fondness for this flag which was near him. It was a creation of beauty and invulnerability. It was a goddess, radiant, that bended its form with an imperious gesture to him. It was a woman, red and white, hating and loving, that called him with the voice of his hopes. Because no harm could come to it he endowed it with power. He kept near, as if it could be a saver of lives, and an imploring cry went from his mind. (XIX/30, 69. or.)

Berriz ere kanpoko indar batek babesa eman diezaion behar du. Kasu honetan ikurra da kanpoko elementua, beraren bidez egintza heroiko berriak egiteko; eta azkenik, benetako kuraia agertzeko gogoak kementzen du.

Gertakizunean dagoenean, taldearen jokaera kaotikoa izaten da. Aurrera egin dezake eta bizia arriskuan jarri edo atzera egin dezake panikoak jota, bizia salbatu nahian. Txotxongiloak bailiren jokatzan dute gizakiek indar handiago baten eskuetan. Gainera, bakar baten iniziatibak gainontzeko lagunak erakar ditzake, aurrera egiteko (furfuriaz) zein atzera egiteko ere (panikoz). Naturaren indarra gizakiena baino handiagoa da beraz, eta gizakiak orbelak dira haizearen indarpean⁶⁶.

Ihes egin, dena utzi eta porrota gertatuz gero, orduan ofizialek dute errua, beraiek agindu baitute aurrera egiteko, zereginik ez zegoela jakinik (etsaiaren nagusitasuna aipatzen da, erreala izan nahiz asmaturikoa). Engainatuak izan dira, traizionatuak, eta gorrotogarriak dira agintariak (sindikatuak, alderdia, aitzindaria, asanblada). Gaizki zuzenduak izan dira,

⁶⁵ Normala da honelako egoeretan justiziaren erreferenteak modu nahasian agertzea: “Nire ustez justuak dira, izan ere, (justizia) ezagutzen ez dutenak, enoratzen dutela aitortzen dutenak, eta hola edo hala egin egiten dutenak, ez itsuan, gehiegi esatea bailitzateke, baina bai arriskatuz (...) eta ziurtasun-ezean”. (COMTE-SPONVILLE 1998) 84-85. orr.

⁶⁶ Ikus nobelaren XX. kapitulua, 72. orrialdean.

gaizki informatuak. Kanpokoa da erruduna, ez kolektiboa⁶⁷. Errua benetan agintariena izan edo ez, beti egozten zaie agintariei porrotaren erantzukizuna.

The greater part of the men, discouraged, their spirits worn by the turmoil, acted as if stonned. They accepted the pelting of the bullets with bowed and weary heads. It was of no purpose to strive against walls. It was of no use to batter themselves against granite. And from this consciousness that they had attempted to conquer an unconquerable thing there seemed to arise a feeling that they had been betrayed. They glowered with bent brows, but dangerously, upon some of the officers, more particularly upon the red-bearded one with the voice of triple brass. (XX/5, 70. or.)

Ikurra eskuan, bizia arriskuan jarriz borrokari eusteko prest dago gaztea, aurreko erruak zuritu nahian. Gainontzekoak bultzatu nahi ditu eta hauek atzera egin dutenean, haserre agertu da.

The youth and his friend had a small scuffle over the flag. "Give it t' me!" "No, let me keep it!" Each felt satisfied with the other's possession of it, but each felt bound to declare, by an offer to carry the emblem, his willingness to further risk himself. (XX/3, 70. or.)

Atzera egin dutenean, gazteak frustrazioa sentitu du, horrela jokatuz gero ez baitu posible ikusten garaile suertatzea eta bere erruak erredimitzea. Ofizialak esandakoa mendekatu nahi du, eta erratuta dagoela frogatuezinak gehiago haserre arazten du. Mendeku-nahia gauzatu ezin daitekeenean, norberaren aurkako amorru bihurtzen da⁶⁸, azken finean, ofizialak esan zuena (mando-gidariak zirela) egiatik hurbil dagoela sentitzen baitu. Agerian utzi nahi dio ez dela egia, eta heroikoa izateko gai dela. Baina ezintasunean, amorrua eta hira agertzen ditu.

Aurreko akatsak garbitu nahi dituenen, besteengandik jasotako irainak edo adoreari

⁶⁷ "Justizia eztabaidatua izaten da. Indarra erraz ezagut daiteke eta eztabaitezina da. Gainera, justiziari ezin izan zaio indarra eman, indarrak justiziaren aurkako esan zuelako eta injustua zela esan zuelako, eta esan zuen, esan, bera zela justua (indarra). Eta honela, justua indartsua izatea ezin izan denez, indartsua justua izatea egin da", (PASCAL 1972) 298. pentsamendua, 145. or.

⁶⁸ Amorrua, finean, frustratu den desira (mendekua, hira) bategatiko inpotentzia animikoa da. Furfuria, ordea, gauzatu daitekeen potentzia animikoa da (mendekua, hira). Erredenzio-bidean dagoela gizakiak borrokatzeko gogorik edo indarrrik ez badauka, bere errudun-sentimendua errukitasun bihurtzen da, hau da, bere

buruzko zalantzak oso modu txarrean jasotzen ditu gazteak. Adore izugarria agertu nahi du, gainontzekoen irainak agerian utzi nahian, eta beraiengan erredura sortarazi nahian.

... but his greater hatred was riveted upon the man, who, not knowing him, had called him a mule driver. (XX/8, 71. or.)

When he knew that he and his comrades had failed to do anything in successful ways that might bring the little pangs of a kind of remorse upon the officer, the youth allowed the rage of the baffled to possess him. This cold officer upon a moment, who dropped epithets unconcernedly down, would be finer as a dead man, he thought. So grievous did he think it that he could never possess the secret right to taunt truly in answer. (XX/9, 70. or.)

He had pictured red letters of curious revenge. "We are mule drivers, are we?" And now he was compelled to throw them away. (XX/10, 71. or.)

Gaztearen jokaera apurka-apurka garatuz doa. Nahiz eta batzuetan argi ez ikusi irabaziko dutenentz, hala ere ez du indarra galtzen eta eusteko jarrera azaltzen du, amore eman barik. Une batean garaipen txikia lortu dute, eta honek adoretu ditu gizonak. Arrakasta txikia izan bada ere, egintza kolektibo batean garaitzeko aukera ikusi dute. Hauxe da, hain zuzen, bere buruaz zuten irudi txarra apurtzeko modu bakarra.

The impetus of enthusiasm was theirs again. They gazed about them with looks of uplifted pride, feeling new trust in the grim, always confident weapons in their hands. And they were men. (XX/31, 73. or.)

Entusiasmo edo gar hau errektiboa da, etsaiarekiko eta bere konfiantza-ezarekiko mendekua baita.

Denbora eta espazioaren subjektibotasuna

Denbora eta espazioa aldatuta geratzen dira gertakizunean. Barne-erlojua eta kronologikoa ez datoz bat. Denbora bezala, distantziak ere subjektiboak dira, eta nobelaren kasuan, distantziak luzeagoak sentitzen dira errealitatean direna baino: intentsitateak

eternitate-sentsazioa ere eman die⁶⁹.

The time, too, now that he reflected, he saw to have been short. He wondered at the number of emotions and events that had been crowded into such little spaces. (XXI/14, 74. or.)

Bere buruarekiko konfiantza hartuz doa Henry, gutxika. Pentsatzea ere eragozten zioten emozioak baretuta, hausnartzeko aukera du orain, eta harro sentitzen da bere portaeraz, bere kemenaren irudiak blai duelako gogoia.

However, to the youth there was a considerable joy in musing upon his performances during the charge. He had had very little time previously in which to appreciate himself, so that there was now much satisfaction in quietly thinking of his actions. He recalled bits of color that in the flurry had stamped themselves unawares upon his engaged senses. (XXI/17, 74. or.)

Spinoza-ren definizioan satisfakzioa poza da, ustearen kontra gertatu den iraganeko gauza batek lagundua⁷⁰. Hau da, gertatzea espero genuen (eta ikaritzen gintuen) gauza jazo orde, beste bat jazotzean, poza sentitzen dugu. Henry-k satisfakzioa du azkenean egintza kementsua burutu duelako, espero zuen (eta aurretik burututako zuen) ihesaren kontrakoa. Oraingo poza estrukturala da, errektiboa, eta ez da kuraiak sorturiko poza bezalakoa (norberarekiko poza, alegia). Kuraiaren barne-poza, izatez, positiboa da, norberarekiko buruaz ados egotearen ondorioa, eta egia batekiko leialtasuna adierazten du. Norberarekiko poza, subjektuak bere izaki funtsezkoarekin bat egiten duenean sortzen da. Satisfakzioa, ordea, ez da kuraiaren eremukoa, angustiaren eremukoa baizik, beraren erreferentea beldurra baita.

Henry Fleming garatzen ari da. Entzundako kritikek ez dute lehen beste aztoratzen. Bere buruaz konfiantza irabaziz doa, orain nagusi baitira bere gogoan adoretu izan deneko irudiak⁷¹. Ofizialek gaztearen jokaeraz egiten dituzten komentarioak (errealak ala

⁶⁹ Historia, funtsean, gertakizunen sekuentzia narratua da, eta hauek oinarri hartuta osatzen dira historiaren periodizazioak. Gertakizunak denboraren erlojuak dira.

⁷⁰ Spinoza. op. cit. 240. or.

⁷¹ Ikus XXI, kapitulua, 76-77. orrialdeetan.

imajinarioak izan), pozgarriak dira gaztearentzat. Onartua izatea eta laudorioak entzuteak besteekiko eskerrona errazten dio. Laudorioaren etika kasu honetan positiboa da⁷², subjektuari konfiantza eta ziurtasuna ematen dizkiolako, antzinako desilusioak, umiliazioak eta porrotak ahanztaraziz.

But despite these youthful scoffings and embarrassments, they knew that their faces were deeply flushing from thrills of pleasure. They exchanged a secret glance of joy and congratulation. (XXI/40, 76. or.)

They speedily forgot many things. The past held no pictures of error and disappointment. They were very happy, and their hearts swelled with grateful affection for the colonel and the youthful lieutenant. (XXI/41, 77. or.)

Une honetan komenigarria izan daiteke bereiztea eskerrona bi motatakoa izan daitekeela⁷³: bata, egin diguten mesede bati erantzun gisa guk adierazten dugun eskerrona (ezagutza), eta bia, subjektuarekiko elkartasuna adierazten denean honek ematen duen eskerra. Bigarren kasu honetan ez da mesede bat egiten, subjektu batekiko identifikazioa gauzatzen baizik (eta berorren bidez, egia batekiko konpromezua burutzen da). Elkartasuna ez da norbaiten koalitateak ezagutzea, egia-prozesuarekiko norbaitek duen leialtasuna ezagutzea baizik.

Gazteak berriz borrokatu behar du batailan, baina orain konfiantza du, berbiztuta dago. Argiago eta azkarrago ikusten du egoera. Lasaiago ere badago, egon, aurreko beldurrak uxatuta.

... the youth felt serene self-confidence (...) He stood, erect and tranquil (...) His vision being unmolested by smoke from the rifles of his companions, he had opportunities to see parts of the hard fight. It was a relief to perceive at last from whence came some of these noises which had been roared into his ears. (XXII/1, 77. or.)

⁷² Laudorioa ez da beti gauza positiboa, erreferentea norberaren barnean kokatu baino, kanpoan kokatzen delako. Laudorioaren erruz gainontzekoen ezagutza bila daiteke, norberak uste duenaren aurka jokaraziz.

⁷³ Eskerrona da beraren maitasunaren desiragatik ongia egin digunari ongia egin nahi izateko maitasunaren desira. Spinoza, op. cit. 245. or. Definizio honen arabera, trukea dago eskerronean, elkarri emandako ordaina eta, beraz, moralaren arlokoa da, interesen etikakoa, zor-sentimenduan oinarritzen baita. Modu honetan gizakia besteen iritzien presoa da. Horri kontrajarrita, elkartasuna dugu, norberaren konbentzimenduagatik eskaintzen dena, trukerik gabe. Kasu honetan eskerrona ez da ezeren ordaina eta gizakia ez da inoren menpekkoa.

Bataila hasita, sentimendu kontrolaezin guztiak berriz ere agertu dira, aurrekoetan bezalaxe. Desegituraketak errepikarazi egiten ditu afektuak. Gogora dezagun afektuei buruz Spinoza-k dioena⁷⁴, "*afektu bati buruz ideia argi eta zehatza egiten dugun unetik beretik pasioa izateari uzten dio... honela bada, zenbat eta menperatuagoa eta ezagunagoa izan afektua, gero eta gutxiago sufrituko du arimak beraren erruz*".

...the men burst out in a barbaric cry of rage and pain. They bent their heads in aims of intent hatred behind the projected hammers of their guns. Their ramrods clanged loud with fury... (XXII/10, 78. or.)
He did not know that he breathed (...) so absorbed was he. (XXII/13, 78. or.)

Oraingoan erabakita du ez duela etsiko, ez duela atzera egingo. Subjektu lacandarraren ezaugarria da, behin amore emanaz gero berriz ere emango ez duela erabakitzea. Irudia gorrotoa da, baina gorrotoa ez dio bere buruari, kideei ezta etsaiei ere, iraina egin dion ofizialari baizik. Pertsona honengan kontzentratzen du gorrotoa, berak dakarkiolako gogora nola edo hala ahantzi eta gainditu nahi duen aurrekoa zesioa. Ofiziala, beraz, subjektibaziorako azken oztopoa da, eta aldi berean, oztopo garrantzitsuena, finean gaztearen errealitatearen isladapen hutsa delako ofiziala. Ofizialaren bidez berriro errepikatzen zaizkio berak bere buruari egiten dizkion salaketak. Ofiziala suntsitu behar du, akabatu, eta horretarako bide zuzenena bere burua ere akatzea da, bere heriotza, modu honetan egingo baitio ofizialari minik handiena, gaztearen heriotzaz.

Funtsean gazteak uste du bera hiltzen bada, etsaia ere akatuko duela; mendeku honen bidez erredentzioa burutuko duela; ez-subjektua akatuz, traizioa ere akabatuko duela. Hauxe dugu etika lacandarraren sinbolo zinikoa: heriotza heroikoaren irudi tragikoa; sufrikarioaren erredentzioa mendekuaren bidez bakarrik osa daitekeela uste izatea; heriotza dela zesioaren sendabide bakarra. Tragedia grekoan tipikoa da irudi hau, eta baita ere subjektuaren etikaren ikusmira lacandarrean ere, zesioa horren izugarria baita heriotzak baino ezin duelako ezabatu bere efektua.

⁷⁴ Spinoza, op, cit. 344-345. orr.

The youth had resolved not to budge whatever should happen. Some arrows of scorn that had buried themselves in his heart had generated strange and unspeakable hatred. It was clear to him that his final and absolute revenge was to be achieved by his dead body lying, torn and glittering upon the field. This was to be a poignant retaliation upon the officer who had said 'mule drivers,' and later 'mud diggers,' for in all the wild graspings of his mind for a unit responsible for his sufferings and commotions he always seized upon the man who had dubbed him wrongly. And it was his idea, vaguely formulated, that his corpse would be for those eyes a great and salt reproach. (XXII/18, 79. or.)

Gaztearen azken bataila dator orain, zeinen ostean kuraia argi indartsua bailitzan agertuko den. Batailarako prestakuntzak azkartasunez burutzen ditu, eta erabakitasunez, sendabide bakarra aurrera egitea dela erabakita duelako. Geldi egotea guztiz arriskutsua iruditen zaio⁷⁵, eta ihes egitea ere ez da duina; eta gainera, askotxo poztuko ziratekeen berak alde eginez gero. Irtenbide bakarra aurrera egitea da, horri ekitea eta azkenean irabaztea⁷⁶.

Nola jakin ez dakitela, eta nekaturik eta agorturik egon arren, partehatzaileek lortu izango dute batailaren beroan indarrak berriz biltzea. Emozioak harturik eta bizirauteko sena irabaz-gogopean makurturik, itsu borrokatzen dute, etsi-etsian, hil ala biziko borroka bailitzan, eta neurri batean hala da, subjektuaren bizia baitago jokoan.

Kanpotik ikusita zoroak direla ematen du, inkontzienteki ari direla jokutzen (litekeena da), aurretik prestatu arren gertakizuna ez baita guztiz programagarria. Gizakia inguratzen dago ekinean, eta ez dago ez galderarik, ez zalantzarik, ezta erantzunik ere jarduten duenean. Ez dago aitzakiarik aurrera ez egiteko nahiz eta, itxuraz, ezinezkoaren bila diharduten egileek. Desira hutsak bultzatuta dihardutela ematen du.

From the many firings starting toward them, it looked as if they would merely succeed in making a great sprinkling of corpses on the grass between their former position and the fence. But they were in a state of frenzy, perhaps because of forgotten vanities, and it made an exhibition of

⁷⁵ Gertakizun batean geldi geratzea oso arriskutsua da etsaiak erraz bota baitezake bere errepresio osoa geldi dagoenaren aurka, inolako erantzunik jaso gabe. Ihesa ere desastrea da, mugimedua osoaren porrota ekar baitezake.

⁷⁶ Ikus XXIII. kapituluaren 2-3-4 paragrafoak, 80. orrialdean.

sublime recklessness. There was no obvious questioning, nor figurings, nor diagrams. There were, apparently, no considered loopholes. It appeared that the swift wings of their desires would have shattered against the iron gates of the impossible. (XXIII/4, 80. or.)

Bere burua ausarta ikusten du gazteak, baina finean, aurrera egindako nolabaiteko ihesa da, bere barnean gizaki koldarra ere badagoela jakin dakielako. Ausardi estrukturala da oraingoa. Alde horretatik ikusita, ideia erlijioso dogmatikoak dituen pertsonarekin konpara daiteke⁷⁷, kanpoko indar batek (sinesmen erlijiosoak) bultzatuta bezala jokatzeko baitu. Fanatikoaren adorea da, baina kasu honetan Ni adoretuarengan sinistu nahi du, bere buruaz eduki nahi ditu sinesmen eta konfiantza, eta Ni koldarra ahanzi nahi du. Ni ausarta eta Ni koldarraren arteko istilua estrukturala da. Ni biak, finean, izaki estruktural berberaren osagaiak dira, puntualak, txandakakoak eta banaezinak.

Nia eta Bestea

Kuraiaren subjektua beste kontu bat da. Subjektu hau Beste bat da, eta Ni estrukturalarekiko gaindian dago, Ni koldarra zein ausarta izan. Subjektua da, orduan, Nia oinarri hartuz Besteak markaturiko bidetik bere patua bideratzen duen Bestea. Modu honetan bere Niarekin batuko da, baina beti ere Besteak diseinaturiko bidetik abiatuta. Kuraia litzateke, beraz, kemenaren ibilbide iraunkorra (ez puntuala), eta subjektuak eraikitzen duen egia-prozesu baten bidez baieztatuko da. Adore iraunkor eta baiezkoko honen adibidea dugu, liburuaren azken kapituluaren gazteak esaten duen esaldia, "*He knew that he would no more quail before his guides wherever they should point*"⁷⁸, hau da, une honetatik aurrera ibilbide berezko, barneko eta askatasunezko batetik abiatuko dela, ezezkorik existitzen ez den bidetik, alegia. Ibilbide berri honetan kuraia etengabekoa izango da, eta izaki existentzialak dituen baldintzetatik gaindian egongo da.

Jakina, kuraia eduki arren, ez dira zehazki edo ausardi puntualak alboratu behar.

⁷⁷ Gogora ditzagun aurreko ataletan aipatu ditugun iritziak. Kritikari askok ikusi dute Crane-engan familiaren giroan jasotako hezkuntza erlijioso intentsoa.

⁷⁸ XXIV/31, 85. or.

Unean uneko koldarkeriak eta adoretasunak gauza daitezke, testuinguru zehatzetan, baina beti ere gaindigarriak izango dira subjektuaren ibilbide orokorrean. Subjektua, muinean, izaki estrukturala izanik, existentziaren mugimenduaren barnean kokaturik dago eta, beraz, ausarta edo koldar senti daiteke une batean edo bestean. Edonola ere, subjektuaren Nia beti egongo da gaindian Bestearen zuzendaritzapean.

Gizaki ororen ezaugarri ezinbestekoak dira koldartasuna eta adorea. Amore ematea ekidin ezinezkoa da zenbaitetan, bizi ahal izateko ezinbestekoa; kuraia posiblea da soilik⁷⁹. Kuraia da gizaki osoaren (hilezkoraren) ezaugarria. Berari esker gaindi daitezke zesioak. Garrantzitsuena –egia batean oinarrituta– prozesuan mantentzea da, eta prozesuari esker jausi puntualak gainditzea⁸⁰. Erreakzio negatiboak alboratzeko kemena Besteak gaindian emango dio.

Lacan-ek dio subkontzientearen subjektua, Ni estrukturala agintzen duen Beste ezezaguna dela. Beste honek angustiaren bidetik darama Nia; pasioen eta herio-pultsioen domeinupean mantentzen du, kontrolik gabe. Desiraren subjektua da. Lacan-en ostean Badiou-k beste teoria bat eratu zuen, egiaren subjektuarena, egiaren ibilbidean murgiltzen denean egiturarako ezezaguna den subjektuarena. Badiou-k agerian utzi zuen subjektu lacandarra estrukturala dela guztiz, eta bere borroka Niaren eta Bestearen artekoa dela, Bestea ere Nia delako, ezkutukoa bada ere. Badiou-ren iritziz, Lacan-en Bestea gaindian egin ezin duen Nia da, eta jarduera kementsua mantentzeko ahalegina egiten duen arren, bere izaki estrukturalak behin eta berriz jartzen du proban.

⁷⁹ “Bestalde, gogoratu beharra dago, adorea ez dela indartsuena, baizik eta patua edo, gauza bera dena, azarea. Adorea bera haren menpe dago, haren esku dago. Baina gizakiak oro badu jasan dezakeena eta jasan ezin dezakeena: bera hautsiko duen hura hil aurretik aurkitzea ala ez, zorte-kontua zein meritu-kontua izan daiteke”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 76. or.

Joseph Conrad-ek ere agerian jarri zuen adorea ezaugarri funtsean azarezkoa, eta erakusteko unearen aukera-eza: “Inori ez zaio inoiz abentura bat aurrean paratu deitze soilagatik. Gu, arima mediokrea dugun hilkor arruntok, erraldoi gaizkileak haizerrota zintzoak bailiren hartu nahi ditugunok, abenturak hartzen ditugu aingeru bisitariak balira bezala. Gure abegitasuna ezustean harrapatzen dute. Espero ez den ostalariekin gertatzen denez, sarri askotan ez-denboran ailegatzen dira”. (CONRAD 1988) 190. or.

⁸⁰ Torturapean komisaldegian lagunak salatzen badira ere, borrokan segitzeko erabakia har daiteke, eta ahultasun-unea aitortu ondoren, aurrera segitu borrokakideekin batera.

Subjektuaren zeregina ez da nortasun bat defenditzea, etenen bidez nortasun eraldatua eraikitzea baizik, gainezkadura medio.

Crane-ren gaztea bi indarrek menperatuta dago, eta ezezagunak (zesioak, Ni adoretsuaren parte banaezina) bere egintzak osoki agintzen dituenek, Niaren indar ilunari kontrajartzeko, adore handiko ekintza ausartak burutu beharrean dago. Bidea da norberak izan nahi duena (adoretsua) izatea, baina ezezagunak ibilbidea menperatzen du, ustekabean agertu eta irudi ideala apurtzen duenean. Gaztearen nahia erdiguneko elementua (zesioa) gainditzea da, hau da, Ez-Niaren irudia, Bestearen irudia, Ni ezezagunaren irudia gainditzea. Adorea puntuala eta errektiboa da, bai, angustiaren sentimendu iraunkorren menpekoa; baina, aldi berean, adore hori ere Beste errealerako sarbidea izan daiteke, subjekturako sarbidea, alegia.

Bereganatu nahi duen Ni imajinatu eta estrukturalaren desirak (adoretsua izatea) egintza adoretsuak burutzera darama gaztea, gero eta ugariagoak, eta apurka-apurka, gizakia subjektu izateko bidean jartzen du, desira egia bihurtuz. Hau da, hemendik aurrera ez da izango bizitza estruktural batean *per-se* dagoen gizon adoretsua, baizik eta bidean zehar adorea (Egia) galtzen ez duen gizona. Beste modu batera esateko, ez da izango pertsona kementsu baten nortasuna duen gizakia, baizik eta kementsu mantentzeko erabakia hartu duen gizakia (amore emateko patuak aurrez-aurre jarriko dizkion egoera ezberdinetan). Honek ez du esan nahi beti kuraiatsu jokatuko duenik; honek esan nahi du, koldar agertzen denean, zesioa gainditzeko gai izango dela, adoreari esker. Adoreak zintzotasuna eta borondatea behar ditu, baina hauek baino askoz ere gehiago, egia-prozesu batean inplikaturik egotea eskatzen du, prozesu hauetatik aparte ezer ez dagoelako. Prozesuetatik kanpo, adorea ez da adore. *Ez etsi* diogunean, egia-prozesuan ez etsitzeko esan nahi dugu, etsi baitaiteke une puntualetan, eta hori gizaki existentzialaren zesioa bakarrik izango da, baina ez, halabeharrez, subjektuaren zesioa. Subjektuaren zesioa

gertatzeko, proiektuari uko egin behar zaio, ez da nahikoa borroka puntualari uko egitea⁸¹.

Hori dela eta, ekidinezinezkoa da zesio lacandarra Desirarekiko, eta hori ez da traizioa; traizioa da Egiarekiko zesioa egitea. Desira borondatearen eremukoa da; Egia, ordea, erabakiaren eremukoa da, eta proiektu baten gainean eraikiz joaten da, egoera bakoitzean hartutako jarreraren arabera.

5. Kuraia

The Red Badge of Courage-ko gaztea, amore emango ez duela erabaki duenez, sakrifizio handiak egiteko prest dago, hiltzeko prest ere bai. Heriotza da geldiaraz dezakeen bakarra, edo garaipena, bestela. Bere bidea ezerk oztopa ezin dezakeelako sentazioa du, eta poza ematen dio.

He himself felt the daring spirit of a savage, religion-mad. He was capable of profound sacrifices, a tremendous death. He had no time for dissections, but he knew that he thought of the bullets only as things that could prevent him from reaching the place of his endeavor. There were subtle flashings of joy within him that thus should be his mind. (XXIII/5, 80. or.)

He strained all his strength. His eyesight was shaken and dazzled by the tension of thought and muscle. He did not see anything excepting the mist of smoke gashed by the little knives of fire, but he knew that in it lay the aged fence... (XXIII/6, 80. or.)

Testu funtsezko honetan adierazten da dilema garrantzitsua: erresistentzia irudiaz agertzen den angustiatik (*ez etsi*), kuraiarako eta egiarako iragapenak sortarazten duen dilema. Irudia Platon-en kobazulo bera da⁸²: iluna da eta angustia eta superniaren adierazpena da. Kobazulotik kanpo argitasun egundokoa dago; egia adierazten du bere osotasunean, infinitua, osorik ez hartzeko guztiz ezinezkoa, eta horregatik itsutzen du. Argitasun hori, prozesu gisa ulertzen den egia da: apurka-apurka egin behar den eraikuntza,

⁸¹ Areago, gerratean, bataila batean jarrera arruntena amore ematea da. Baina zesio puntual eta estruktural hauek ez dakarte, berez, subjektu-kondizioa galtzea, edo proiektuari zein egiari uko egitea.

⁸² Kobazuloa bezala, *Bizitzari beldurrik ez* filmaren hegazkinaren fuselaia ere irudi honen adierazgarria da.

pausoz-pausoko eraldatzea ekarriko duena, gogoan hausnarketa sortarazten duen egia, pentsamendua egintzan; eta bere muga beti da lortzezina, bai gizartean, bai gizakiarengan ere.

Ez-etsi dioten pertsonaiak, angustiaren kobazuloko bizilagunak dira, eta irtenbidea bilatu arren ez dute aurkitzen, gehiegizko argitasunak irteera oztopatzen baitie⁸³. Kuraiaren subjektuek, beraz, argi itsugarri eta zanpatzailea zeharkatu behar dute, eta segitu beharreko bidea seinالاتen duen argitasun zabalera atera behar dira⁸⁴.

Nobelaren kasuan, gazteak kemenaren egia bilatzen du, kemen iraunkor eta infinitua. Gizaki estruktural (gunetuta) eta adoretuaren berezko kemena bilatzen du, subjektuarengan betiko gunetuko den egiaren kemena nahi baitu, baina hori prozesu bat da. Kuraiaren egia bereganatzeko prozesu bat behar du, non subjektuak aske izan nahi duen, inposaketa estrukturaleri eta jakintza eta araei aurre eginez⁸⁵; eta izaki existentzial mugatu, berekoi eta interesatuari branka emanaz. Askatasun hau pausoka lortzen da eta inoiz ez dago oso-osorik indibiduoarengan, zeren indibidua –bakana bada ere– egoera ezarrian baitago izaki estruktural gisa. Askatasuna une-unean gauzatzen da, egoera bakoitzean, uneoro hartzen den erabakiaren arabera.

Nortasun adoretua eraikitzeak ez du esan nahi betiko izaki askea eta ausarta izango denik, eta egoera guztietan adoretu jokatuko duenik; ez da beldurrik, angustiarik, minik, mugarik gabeko gizakia izango, Nietzsche-ren supergizonaren modukoa, ongiaren eta gaizkiaren gaintetik egongo dena.

⁸³ Antigona-k ere argitasun gehiegizkoa aurkitu zuen, jainkoen lege betiereko eta infinitua betetzea ezinezkoa baitzen Creonte-ren estatu laiko, mugatu eta finituan. Sabino Arana-k ere ideia nazionalisten argitasun distiratsua aurkitu zuen (jainkoa eta lege zaharrak, infinituak), baina ezin ziren bete tradizio zahar eta jainkorik gabeko estatu modernoan. Gauza bera gertatzen zaie anarkistei, beraien argi itsugarria (estatu gabeko gizartea) ezin baita bete egungo gizartean, non estatua iragana, oraina eta geroa den, historia duen gizarte oro klase-gizartea eta estatuduna baita.

⁸⁴ Creonte-ren kasuan ere, ez da eskatzen jainkoen Justizia gauzatzea, baizik eta Justiziarri esker berriztu diren legeak aplikatzea. Justizia (Egia) gizakien legeetan gauzatu behar da (lege mugatu, aldakor eta gizatiarrak) eta jatorri dibinoa izan arren, arau bihurtu dira, gizarte-kontsentsuetan oinarrituta.

⁸⁵ “*Kemena ez da jakintza bat, erabaki bat baino; ez da aukera bat, ekintza bat baino*”, (JANKELEVITCH 1986a) 90-103. orr.

Adorea helburu duen gizakia, izaki gizatiarra da. Arazoak ditu, angustiak, kontraesanak, minak eta mugak, zesioak egunerokotasunean, lege-obeditzeak, BAINA bizitzaren garrantzi handiko uneetan eta Justiziak halaxe eskatzen duenean, bere buruaren gainetik egiteko gai izango da eta aske sentituko da, arauekin, beldurrarekin eta kontraesaneekin apurtuz. Jakina, horretarako ezinbestekoa da egia-prozesu batean eskuhartzea. Prozesu horietan soilik egokituko da adorea. Prozesutik kanpo gizakiak ez du inoiz lortuko egokitzea eta mugak gainditzea⁸⁶.

Henry Fleming-ek, kobazuloan murgildurik (angustia), xedea lortu nahi du (kuraia) eta izaki adoretsua (imajinarioa) berreskuratu nahi du, ustez bera zen izakia, baina, ustez ere, galdu egin duena. Bere nahia da betiereko kemenaren Egia infinitua izatea, nortasun adoretsu eta ezinezkoa. Horrexegatik, argitasun itsugarria zeharkatu gabe dagoela oraindik ere, garaipen bat behar du, ez soilik horrek bere kemena adieraziko duelako, baizik eta, horrek gain, gorengo kemenerako pasabidea ere badelako, zesioa apurtuz. Hori da bere indar osoa tentsioan ipintzeko zergatia.

Hala ere, eskasa da egoeraz duen ikusmira, argi itsugarriaren barnean bi elementu baitaude: alde batetik, bereganatu nahi duen lekua eskuratzeko dauzkan pentsamenduak (sakrifizio sakonak eta heriotza-pultsioa bera ere, heroi lacandarraren ezaugarria) eta beste aldetik dauzkan poz-sentimenduak, hau da, heriotzaren truke bada ere, lortu nahi duen garaipenak ematen dion poza, kearen bidez sinbolizatuta. Kuraia, ordea, kearen aurkakoa da, argitasuna da: kuraia ez da gauza puntuala, prozesu bat baizik; kuraia da, bizitzan zehar eraikitzen den jarrera; kuraia abiatzea da, ibiltzea, bizitzaren une bakoitzean norberaren buruari zentzua aurkitzea, eta ez da bereziki ailegatzea.

Garaipenagatik lortuko duen saria kuraian sartzea izango da, baina ez garaipenagatik beragatik, hartu duen erabakiagatik baizik, adore puntualaren laguntzaz.

⁸⁶ Diogunaren adibide argia da lehen aipatutako filmea, *Bizitzari beldurrik ez* (gaztelaniazko bertsioan *Sin miedo a la vida*). Pertsonaia betiko hilezkorra izaten saiatzen da, adorea gertakizunari leial jarraituz eta inoiz beldurrik sentitu gabe. Baina muinean ez dago ideia edo proiektu bat (ez amodiozkoa, ezta politikoa ere) eta, beraz, bere patua hilkorra eta estrukturala izatea izango da.

Arrakasta-gogoa du gazteak, etsian behar du garaitzea; eta batailan murgildurik, bere sentimendu guztiak basatiak dira berriz. Etsaien ikurra hartzeko irrikitan dago, botere eta garaipenaren sinboloa eta bere ibilbidearen gailurraren adierazbidea delako.

They became yells of wrath, directed, personal. The cries of the two parties were now in sound an interchange of scathing insults. (XXIII/10, 80. or.)

He had a gigantic hatred for those who made great difficulties and complications. They caused it to be as a craved treasure of mythology, hung amid tasks and contrivances of danger. (XXIII/12, 80-81. or.)

He was resolved it should not escape if wild blows and darings of blows could seize it. (XXIII/13, 81. or.)

At the place of success there began more wild clamorings of cheers. The men gesticulated and bellowed in an ecstasy. (XXIII/18, 81. or.)

Kuraiaren ezaugarriak

Kuraia kontzeptuak subjektuaren ibilbide osoan efektuetariko bat erakusten du. Bere buruaren gainetik gainezkadura gisa defini liteke, zeini esker subjektua osorik (zatiezin) mantentzen den. Bestera esateko, kuraia egituraren legepean dagoen subjektuaren gainezkadura da, eta gainezkadurari esker gunearen lege estrukturala zatikatzen du, berak osorik irauten duen artean. *Osorik* diogunean esan nahi dugu bat bakarra dela bi dimentsiotan: dimentsio existentzian (giza animalia) eta gunetik kanpoko dimentsioan (izaki existentzialaren gainetik gainezkadura). Gizaki osoak bi dimentsioak batzen ditu, estrukturala eta gunetik kanpoko, baina beti ere gunetik kanpokoaren domeinupean. Osorik dago arrakalik ez duelako, eta bizitza subjektuaren berezko barne-legearen arabera antolatzen duelako. Subjektuak, gainezkaduraren zuzendaritzapean dauka izaki estrukturala. Horrexegatik da bakana, ez delako bizi gainontzeko gizakiak bezala, modu berezian baizik: estrukturalaren legepean egon ordez, berezko lege existentziala dauka eta, gainera, izaki estrukturalaren legea menperatzen du. Bere izaki animal-biologikoa ez dago giza gainezkaduratik bananduta; animalia da, bai, baina gainezkaduraren nagusitasunpean dagoena; subjektu gisa murgiltzen den izaki estrukturala da.

Angustian dagoenean, aldiz, subjektua zatikatuta egoten da. Bere gainezkadura ez da lege estrukturalaren eremu grabitatorioa gainditzeko nahikoa; gainezkadura osagabea da.

Izaki estrukturalak menperatzen eta baldindatzen ditu portaerak: bere buruaz gain egin nahi du, baina ez du lortzen, eta orduan zatikatu egiten da. Dilema tragikoa da, gunetik kanpo egoteko desirak borrokan diharduelako gunearen indar erakargarriarekin. Nahi du (ez du aski nahi) baina ezin du (ezintasuna aski du). Gainezkadura ez da gaindi egiteko nahikoa, eta ez du osatuta bere bizitza. Zatikatuta dago, angustiak hartuta; sentsazioa da ez duela bere burua eroso sentitzen, ez zaiola gustatzen, ez duela bere buruarekin bat egiten.

Izaki estrukturala, ordea, izaki animal-biologiko eta soziala izanik, osorik sentitzen da, estrukturaren eta arau sozialen legepean. Beraz, gizakia osorik dago kuraian (subjektu osabete gisa) eta baita egituran ere (subjektu animal-biologiko gisa), baina ez angustian; angustian gizakia izaki ez-oso da, izaki osabetea lortzeko gai ez delako –gutziz egituraturik egon ez arren–. Angustian dagoenean, gunearen legea ikutugabe dago, sinbolikoki hilda badago ere; kuraian legea zatikatuta dago, aldiz. Angustian egia osoa agertzen da eta itsutu egiten du; kuraian zatikatuta dago egia, eta itsutu gabe argitasuna ematen du. Eskematikoki, honelaxe azalduko genuke.

Angustia	Kuraia
<u>Gizakia</u> izaki ez-oso da	<u>Gizakia</u> osorik dago, subjektu osabetea da
<u>Legea</u> ikutu gabe dago, osorik	<u>Legea</u> zatikatuta dago
<u>Egia</u> osoa da eta itsutu egiten du	<u>Egia</u> zatikatuta dago eta argitasuna damaio gizakiari

Angustiatik kuraiarako pausoa puntu batean gauzatzen da, aldiune batean. Puntu hau zehazgabea da. Baldintzak zehazt egin daitezke, baina baldintzak ez dira nahikoak. Kuraia guztiz barneratuta dago subjektuaren legearen barruan, eta ezin da izan kanpotik arautua. Beraz, misterioa da, azarezkoa, zorizkoa.

Aztertzen ari garen nobelan, subjektuaren baldintzen bidez eta erabakitasunaren bidez adierazten da pauso hau. Pertsonaia, atal ezberdinak izan dituen angustiaren ibilbidetik dator: angustiaren hasieran beldurra sentitu du, batailan sartzeko izua (bere adorea-erakiko zalantza); geroago zesoagatik ere sentitu du angustia, ia itzulezinezko puntu batera eraman baitu (basoan, sentimendu ugari sortarazi diona); angustia izan du berriz ere kemen puntualerako itzulbidean, egin behar izan duen borrokaren ondorioz.

Angustiaren ibilbidetik kuraiaren inguruetaraino gorantz egitea beharrezkoa izan da, orain jauzia burutzeko. Beharrezkoa, baina ez nahikoa, adore puntuala ez baita baldintza bakarra kuraiaren punturaino jauzi egiteko⁸⁷. Jauzia barne-ahalegina da, gunearen legearen aldetik esanezina. Adore puntuala baino zerbait gehiago dago jauziaren sorburuan, berezkoa, barrukoa, egituratik azal ezin daitekeena. Ikus dezagun nola saiatu den Crane hori azaltzen nobela honetan, eta zein diren berak maisuki agertu dituen elementuak.

Kuraiaren aurrekaria

Pentsamenduek eta hausnarketek menperatu behar dituzte emozioak, sentimenduak eta afektuak. Inteligentzia (indar pentsalaria) sentsazio barreiatuetatik banandu behar da eta gain egin, bere izaera bera eta inguruabarrak argiago behatzeko.

Gradually his brain emerged from the clogget clouds, and at last he was able to more closely comprehend himself and circumstance. (XXIV/11, 83. or.)

Later he began to study his deeds, his failures, and his achievements. Thus, fresh from scenes where many of his usual machines of reflection had been idle, from where he had proceeded sheeplike, he struggled to marshal all his acts. (XXIV/13, 83. or.)

Pentsamenduak argitasunez egiten du gogoeta orain. Ikusmira ez dago sentsazioen zurrumbiloan murgilduta, kanpoan baino, behatzaile gisa. Errudun-sentimenduak (eta

⁸⁷ “Ez nago seguru adorea hastapeneko birturtea ote den, edo behintzat hori baino ez den, edo bereziki hori den: jarraitzeko edo mantentzeko, adore bera edo gehiago behar izaten da”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 68-69. orr. Badiou-k une biak bi kontzepturekin bereizten ditu: hastapeneko birtutea subjektibazioa litzateke, eta jarraipeneko, ordea, prozesu subjektiboa.

errukiak) arrazonamenduaren bidez azpiratzen dira. Sentimendu edo afektu bat leundu egin daiteke berari buruzko ideia argia dugunean. Gogora ditzagun berriz Spinoza-ren III. proposamena eta bostgarren zatiaren Korolarioa⁸⁸:

III. Proposamena: *“afektua pasioa da, baina afektu bati buruz ideia argi eta zehatza egiten dugun unetik beretik pasioa izateari uzten dio”*

V. zatiaren Korolarioa: *“...honela bada, zenbat eta menperatuagoa eta ezagunagoa izan afektua, hainbat eta gutxiago sufrituko du arimak beraren erruz”.*

Horrexegatik, Crane-k ere haxe diosku bere nobelan:

At last they marched before him clearly. From this present viewpoint he was enabled to look upon them in spectator fashion and to criticize them with some correctness, for his new condition had already defeated certain sympathies. (XXIV/14, 83. or.)

Subjektuak, orain, angustiaren ibilbidetik atera eta emozioetatik kanpo dagoelako sententzia du, beste nonbait dagoelako sententzia, alegia. Sentitzen du indar simetrikoen arteko aurkakeriaren gunea alde batera utzi duela, eta behin betiko utzi duela egituraren gunean ohikoa den indar estrukturalen arteko borroka (guda-zelaia). orain sentitzen du estatu eta legearen gune egituratutik ospa egin duela, iraultza eta matxinadak burutzen diren gunetik ospa, hain zuzen. Heriotzaren eta sufrimenduen lekutik (odola) joan da azkenez, afektuen lekutik, kontrolaezinezko sentimendu itsuetatik (beltza). Hau da, angustia-supernia ibilbidetik joan da finean, eta baita sasi-subjektuaren angustia estrukturaletik ere.

He understood then that the existence of shot and countershot was in the past. He had dwelt in a land of strange, squalling upheavals and that come forth. He had been where there was red of blood and black of passion, and he was escaped. His first thoughts were given to rejoicings at this fact. (XXIV/12, 83. or.)

Egoera argitasunez behatzean, oroimen onak agertu zaizkio orain, adore puntuala agertu ditueneko uneak. Egintza kementsuen gogoramen hutsak adoretzen du, eta gune

⁸⁸ Spinoza, op, cit. 344-345. orr.

egituratutik (guda-zelaitik) alde egiteko laguntzen dio. Angustiatik alde egitea sentsazio atseginekin lotzen du, poza (aurkikuntzaren bat, bat-bateko gogoramena) edo plazerrarekin (egindakoagatik poza, egite atsegina)⁸⁹. Musikaren agerpenak ere (prozesu artistikoa) indartu egiten du protagonistak sentitzen duen sasi-plazerra. Gogoramen atsegin hauek guztiak (berak eta kideek egindako balentriak) kuraiaren ibilbidean sartzeko nahikoak ez badira ere, baldintza beharrezkoak dira.

Regarding his procession of memory he felt gleeful and unregretting, for in it his public deeds were paraded in great and shining prominence. Those performances which had been witnessed by his fellows marched now in wide purple and gold, having various reflections. They went gayly with music. It was pleasure to watch these things. He spent delightful minutes viewing the gilded images of memory. (XXIV/15, 83. or.)

Kideen iritziek areagotu dute adorearen gozamina, berak dituen iritzia indartzen baitituzte.

He saw that he was good. He recalled with a thrill of joy the respectful comments of his fellows upon his conduct. (XXIV/16, 83. or.)

Bat-batean, oroimenen irudi gozoari irudi negatiboa aurrejarri zaio, ihesaren mamua eta soldadu zarpailarekin izandako enkontrua etorri zaizkio burura.

Nevertheless, the ghost of his flight from the first engagement appeared to him and danced. There were small shoutings in his brain about these matters. For a moment he blushed, and the light of his soul flickered with shame. (XXIV/17, 83. or.)

A specter of reproach came to him. There loomed the dogging memory of the tattered soldier - he who, gored by bul lets and faint for blood, had fretted concerning an imagined wound in another; he who had loaned his last of strength and intellect for the tall soldier, he who, blind with weariness and pain, had been deserted in the field. (XXIV/18, 83. or.)

Zesioaren gogoramenak ilundu dizkio oroimen gozoak, lehen unean argi gorri gisa agertu zaio bere buruan, eta aldiune batez eten egin dio aurreko argitasuna. Ondoren, mamua bailitzan (soldadu zarpaila) espazio osoa hartu du. Irudi hauek bere ahultasunaren

⁸⁹ Komenigarria da,poza prozesu zientifikoaren saria dela gogoratzea (Arkimedes-en “eureka!” ospetsua), eta

mamu ilunak dira, eta argitasun oro itzaltzen dute: errudun-sentimendua dakarte eskutik, agerian geratzeari beldurra, hiltzori sentsazioa (barne-heriotza) eta, azkenean, efektu psikosomatikoak (izerdi hotza, oihu ozena, hira). Berriz ere angustiaren eremuan barneratu da.

For an instant a wretched chill of sweat was upon him at the thought that he might be detected in the thing. As he stood persistently before his vision, he gave vent to a cry of sharp irritation and agony. (XXIV/19, 84. or.)

Hemen ikusten dugu kuraiarako ustezko igoera batetik, berriz ere angustiaren prozesuan murgildu dela. Beraz, jaitziera honek agerian uzten du kuraiara baino, adore puntualak menperatzen duen jarrera subjektibo batera igaroa zela lehenago gaztea, pentsamendu eta ideia positibo kontzentratuei esker lortuta, eta ez egiazko kuriaia batera.

Gizakia oraindik ere zatikatuta dago, eta honelaxe segituko du ekintza koldarren ondorio guztiak ezabatu arte. Horrexegatik oroimenek aurreko angustiaraino itzularazten dute gaztea. Pentsamendu errealista itzali egin zaio berriz, eta deskribitua izan daitekeelako ideia faltsua nagusitu egin zaio (ideia desegokia bestalde, kontrolaezinezko errudun-sentimendu baten emaitza dena). Bera atsekabetzen duen kausa behin betiko alboratzearen bidez burutuko da adorearen arazketa edo garbiketa, arrazoiak eragindako barne-ahaleginaren bidez, eta modu honetan gertatutako guztia behatu ahal izango du, dramatismorik gabe. Baina oraindik ez gara horretara heldu. Kuraiak eta angustiak puntu berean jokatzen dute, elkarren ondoan daude orain, adorea dela medio. Adorea iraunkorra ez bada, angustiarantz sakatzen du. Eta angustian kokatuta, lagunaren galderak bere buruaren aurkako gorrotoa eragin dio, haserre bizia.

His friend turned. "What's the matter, Henry?" he demanded. The youth's reply was an outburst of crimson oaths. (XXIV/20, 84. or.)

Argi ikusten dugu kontrakoak diren oroimenak nahasten direnean, gehien sufriarazten dutenak nagusitzen direla. Honen azalpena da oroimen negatiboek gure izaera

existentzialean eragiten dutela, eta positiboak, aldiz, ez direla horren estrukturalak, izpiritualagoak direla, eta gure gainezkaduran eragiten dutela. Gure buruaren gainetik egiten duguneko prozesuan agertzen dira. Sentimenduei dagokiela, izaki existentziala indartsuagoa da subjektu-izakia baino. Lege subjektibo baten arabera, oroimen negatiboak positiboan gainetik nagusitzen dira eta, gainera, azken hauek desagertarazten dituzte.

As he marched along the little branch-hung roadway among his prattling companions this vision of cruelty brooded over him. It clung near him always and darkened his view of these deeds in purple and gold. Whichever way his thoughts turned they were followed by the somber phantom of the desertion in the fields. He looked stealthily at his companions, feeling sure that they must discern in his face evidences of this pursuit. (XXIV/21, 84. or.)

Irudi negatiboak eta oroimen mingarriak denboran luzatu egiten badira, subjektua desmoralizatu egiten da. Bere ezbeharrak bizitza osoan zehar iraungo duela pentsatzen du, eta horrek sufrimendu handia ematen dio. Egonezina ezin da konpartitua izan, eta joera ihes egin nahi izatekoa da, bakartasuna bilatzekoa, isolatzekoa, lagun eta familiarengandik hanka egitekoa, eta kanpoaldean beste abentura batzuk bilatzekoa. Alferrik baina, kanpoaldean ere eztidurarik ez dagoelako, arazoa barnekoa, kontzientziarena delako. Edonoren aurpegian, edozeinengan ikusi uste izango du bere ihesaren zantzua. Alde egitea alferrikakoa da.

For a time this pursuing recollection of the tattered man took all elation from the youth's veins. He saw his vivid error, and he was afraid that it would stand before him all his life. He took no share in the chatter of his comrades, nor did he look at them or know them, save when he felt sudden suspicion that they were seeing his thoughts and scrutinizing each detail of the scene with the tattered soldier. (XXIV/29, 84. or.)

Gizaki kuraiatsua

Apurka-apurka pekatuak, akatsak eta zesioa urrun kokatzen ditu gazteak bere gogoan. Sentsazioen zergatiak desagertzean, hauek ere desagertzen dira, eta orduan gauzatu egin daiteke behin betiko igoera, gainezkaduraren gaineko gainezkadura. Horretarako guztirako barne indarren bilketa behar du, ahalegin bat egitea, kasu honetan

arrazonamenduaren bidez egindako ahalegina. Egoera lehenengoz arrazoitzen duenean, konturatzen da bere zesioa eta honen ondorioak beldurrak sorturikoak direla, edozein gizakik paira lezakeen koldartasun iragankor eta kontrolezinezkoaren erruz. Orain lasaitasunez begiratzean, geroago egin dituen egintza adoretzuei esker eta gainontzekoek aintzat hartzeari esker mina sendagarria dela ikusten du. Arrazoiak diotso proba gainditu duela, sobera gainditu ere, bere adorea zalantza gabekoa eta iraunkorra dela, eta honekin konparatuz zesio puntuala gauza txikerra izan dela, ustekabekoa, aurreko dena estal ezin dezakeena. Edozeini gerta zekiokkeen. Bat dator sentrazio hau Spinoza-ren II. proposamenarekin, “*Ética*”ren V. kapituluan:

“Gogoaren emozio bat, hau da, afektu bat, kanpoko kausa baten pentsamendutik banatzen badugu, eta beste pentsamendu batzuekin elkartzen badugu, kanpoko kausarekiko maitasuna eta gorrotoa ezabatu egingo dira, bai eta afektu hauetatik sortzen diren gogoaren gorabeherak ere”.

Uler dezagun zer esan nahi duen. Gogoaren emozio bat, afektu bat (esaterako, errudun-sentimendua eta beraren ondorioak: nork bere buruari eta gainontzekoei dien gorrotoa), kanpoko kausa baten pentsamendutik (ihesaren irudiaren pentsamendua, zesioarena, presioarena, inposaketarena) banandu egiten badugu, eta beste pentsamendu batzuekin (ekintza adoretzuen irudiak) elkartzen badugu, kanpoko kausarekiko maitasuna eta gorrotoa ezabatu egingo dira (zesioari izandako gorrotoa eta, beraz, norberarekiko gorrotoa desagertzen da), bai eta afektu hauetatik sortzen diren gogoaren gorabeherak ere (ordurartean subjektu zatikatuaren gogoan fluktuazioan ari ziren poza eta gozamina alde batetik, eta erruduntasuna eta gorrotoa bestetik).

Errudun-sentimenduaren banaketa eta ondorengo ezabaketa hau, argi gera bedi, subjektuaren berezkoa den barne-lege batek zuzendua da eta, beraz, aurreko egoeran egonik, erabakiezina da. Pertsonak gorantz egiten du eta ez dakigu zergatik. Bakarrik dakigu zein den igoera horren baldintza, baina baldintza horretatik ezin dugu ondorioztatu subjektu batek gainezka egingo duen ala ez. Subjektu-izaera zehaztezina da. Une batean adore guztia kontzentratzen du, egundoko indar koalitatiboa biltzen du; horren handia ezen gutxi iraun dezakeen. Kuraia iraungikorra da, ez du irauten denbora luzez. Une puntualekoa

eta gainera ezohikoa da.

Yet gradually he mustered force to put the sin at a distance. And at last his eyes seemed to open to some new ways. (XXIV/30, 84. or.)

Kuraiak berarekin dakar jakintza ezarriaren eta zientzia tradizionalaren apurketa. Kuraiak hautsi egiten ditu norberak bere buruaz zuen ustea eta aurreko gunearen espazioa. Aurreko izaki existentzialetik urrundu garela ikustean, poza sentitzen dugu, orain posiblea baita ikustea nolakoak ginen lehen eta nolakoak ziren gure handinahikeriak, sufritu gabe ikusi ere, kuraiak nolabaiteko apaltasuna baitakar.

He found that he could look back upon the brass and bombast of his earlier gospels and see them truly. He was gleeful when he discovered that he now despised them. (XXIV/30, 84. or.)

Ziurtasuna ere ematen du kuraiak, norberaren buruarekiko eta beraren gaitasunarekiko ziurtasuna⁹⁰. Aurreko gizakia garbitu egiten da, eta odol gaixo eta ahulak odol berri eta osasuntsuari uzten dio lekua. Gizakia berriztuta dago, antzinako jakintzetatik eta emozio lohi eta kontrolaezinetatik orraztuta baitago.

He felt a quiet manhood, nonassertive but of sturdy and strong blood. (XXIV/31, 85. or.)

Kuraiak konfiantzaren diskurtsoa dakar, norberaren buruarengan konfiantza, eta baita subjektuaren etorkizunean jarritako konfiantza ere; konfiantza, hitz batean, leialtasunak bukatzeke duen ibilbidearen adore etengabe eta iraunkorrean.

He knew that he would no more quail before his guides wherever they should point. (XXIV/31, 84. or.)

⁹⁰ Ziurtasuna iraganeko edo geroko ideia batetik sorturiko poza da, zeinari buruz (ideiari buruz) zalantza izpirik ere ez dagoen. Spinoza, op. cit. 239. or. Ziurtasuna ez da bat-batean sortzen, eta gainera eta da betiko izaten. Ziurtasun ez-ziurra da, inkonsistentean oinarritzen baita. Ziurra da soilik egituraren oinarritzen dena, baina aldi berean, ez ziurra da, egia-prozesuan oinarrituta ez dagoelako. Beraz ziurtasun ez-ziurra dago (egia-prozesuan ezarritakoa: justizia, elkartasuna, berdintasuna) eta ez-ziurtasun ziurra (egituraren ezarritakoa), krisia dagoenean eta sinesmenak kolokan jartzen direnean dimentsio estrukturalak ez-ziurtasuna eragiten duelako, itxuraz ziurragoa eman arren.

Kuraiak izaki hilezkorrari zabaltzen dio atea. Hilezkorra diogu, izaki animal-biologikoarengan indarrean dagoen bizitza-heriotza binomio existentzialetik urrunduta dagoelako. Subjektuak egiari atea zabaltzen dionean, aldi berean balore batzuei ere zabaltzen die atea: askatasun, berdintasun, justizia, maitasun, elkartasun, sormen artistiko eta berritasunari hain zuzen ere. Elementu hauek gidatuko dituzte bere bizitza eta heriotza (edo sufrimendua, oinazea, alor materiala, gizarte arloa, familiaren eremua...). Izaki estrukturalaren alde zehatzak dira, eta, subjektuaren ibilbideari dagokiola, bigarren mailan kokatzen dira; egia-projektua oztopatzen badute, sakrifikatzeko prest egongo da subjektua. Kuraiaren ibilbidea ez badauka, izaki estrukturala bere bizitzan zehar beti egongo da heriotzaren (oinaze, ezplazer, ezerosotasunaren) menpe, eta bere egintza guztiak, heriotzaetik urruntzeko kateatuko den gertaera eta bibentzia estrukturalen multzo hutsa baino ez dira izango.

Izaki estrukturalaren bizitzan heriotzaren itzala pisu handiko kontua da eta, berau saihesteko, bizitza material eta sozialarekiko interesa adieraziko du, heriotzaetik eta oinazetik ihes egiteko xedeaz. Beraren bizitza errepikapen estruktural hutsa da. Subjektuarentzat, ordea, Heriotza Handia egintza bat gehiago da, bizitzaren inguruabar bat gehiago, beti ailegatzen dena.

He had been to touch the great death, and found that, after all, it was but the great death. He was a man. (XXIV/31, 84. or.)

Kuraiarako igoeran gizakia aldatu egiten da. Odoletik (sufrimendua), hiratik (kontrolrik gabeko emozioak) eta angustiaren ibilbidetik aldentzen da. Aurkakotasunaren eremutik (bizirauteko bizitzaren batailak) eremu urrun eta lasaira (arimaren atsedean eta zentzuen kontrolera) igarotzen da. Gorrotoa eta tristura desagertu egiten dira eta sentimendu garbiak nagusitzen dira.

So it came to pass that as he trudged from the place of blood and wrath his soul changed. He came from hot plow shares to prospectes of clover tranquilly, and it was as if hot plowshares were not. Scars faded as flowers. (XXIV/32, 84. or.)

Gainontzeko guztiak subjektuak utzi dituen leku berean mantentzen diren artean,

beren miseria, berekoikeria, borroka, usain, zikinkeria, injustizia eta elkartasun ezaz, subjektuak argitasunez behatzen du dena, jakintza berriaz, egoera menperatuz. Orain berak gidatzen du bere bizitza eta munduak ez dio menpekotasunik ezartzen, ez da haren biktima. Subjektuak erabaki egiten du, inork ez du beraren ordeaz erabakirik hartzen.

It rained. The procession of weary soldiers became a bedraggled train, despondent and muttering, marching with churning effort in a trough of liquid brown mud under a low, wretched sky. Yet the youth smiled, for he saw that the world was a world for him, though many discovered it to be made of oaths and walking sticks. (XXIV/33, 84-85. orr.)

Supernira, gizarte-egiturara edo sistemara daraman angustiaren ibilbidetik aske dago orain. Maitemindurik balego bezala (egia-prozesu subjektibo orok bizimodu sasi-maitemindua baitakar), bizimodu berrira abiatzen da, non bakea, sentimendu atseginak, ideal gorenak, arrazoi praktikoa, egiazko ideiak, eta heriotzatik harantzagoko betierekotasun-zentzua nagusi baitira. Subjektua baretasuna da, poza, zorientasuna eta adiskide, kide eta bizitzaz gozatzen dakien gizakia.

Eguzki-izpi bat bizitzaren berunezko zero hezean sartu izan balitz bezala sentitzen da orain gaztea. Kanpoko mundua hausten duen gezia bezala.

He had rid himself of the red sickness of battle. The sultry nightmare was in the past. He had been an animal blistered and sweating in the heat and pain of war. He turned now with a lover's thirst to images of tranquil skies, fresh meadows, cool brooks - an existence of soft and eternal peace. /XXIV/33, 85. orr.)

Over the river a golden ray of sun came through the hosts of leaden rain clouds. (XXIV/34, 85. orr.)

Desubjektibazio-/Subjektibazio-prozesua

Bukatzeko, atal honetan agertu den eduki osoa zenbait eskematan laburbildu nahi nuke. Lehen eskema batean Angustiaren Prozesua ikusiko dugu, non Gertakizuna (1),


Heriotza Sinbolikoa (2), Kuraia (3) eta Justizia (4) kontzeptuekin batera, Angustiaren hiru faseak agertuko diren: Desubjektibazioa (A), Zesioa (B) eta Subjektibazioa (C).

Eskema berean, A, B eta C faseetan agertzen diren sentimenduak eta ezaugarriak azalduko dira. Ondorengo eskema batzuetan, subjektibazioaren elementu hauek bai nobela honetan, eta bai beste kasu batzutan ere, nola agertzen diren azalduko dut. Ekin diezaiogun, bada, eskemak agertzeari.

Angustiaren Prozesua

Kuraia ez dago aurre-determinatuta. Bizitzaren gorabeheretan, normalena, zesiotik beheranzko bidean segitzea izaten da, eta heriotza subjektibora (edo fisikora) ailegatzea. Crane-ren nobelan, aldiz, heriotzara heldu aurretik, pertsonaia salbatzea eta goranzko bideari ekitea erabaki du egileak, subjektibaziorako igoerari ekinez. Zesioa puntu bat da soilik, kuraia bezalaxe. Desubjektibazioa eta subjektibazioa, ordea, prozesuak dira, ibilbideak, eta biak daude murgildurik angustiaren eremuan, zesioarekin batera.

Nobela honetan ez da agertzen justiziarako pausoa, kuraiaren puntuan amaitzen baita narrazioa. Justiziaraino heltzeko, leialtasuna behar du subjektuak, gertakizunarekiko fideltasuna alegia, eta beraren bidez gauzatuko da egitura berria (prozesu sortzailea, lege berriak, sistema justuagoa). Kuraiaren subjektuaren eskutik mundu hobea eratorriko da. Nobelaren kasuan ez da hau guztia azaltzen, baina protagonistak mundu berri eta hobea aurreikusten du, pentsamenduan bada ere.



Eskeman ikus daitekeenez, ez da posible 1etik 3ra zuzenean igarotzea, hau da, gertakizuna jazo bezain pronto ez da kuraia agertuko, angustiaren faseren bat behintzat bizi gabe. Pasabidea zentzu bertikalean edo horizontalean egin daiteke, baina ez da posible saihezbidea egitea eta zeharka igarotzea subjektibitate-prozesuan. Laburbideak eta bidezidorrak ezinezkoak dira. Subjektibazioaren fasetik, eta berak dakarren angustiatik pasatu behar izango du subjektuak egiazko kuraia agertu orduko.

Beste alde batetik, esan behar da kuraia agertzeko subjektuak indar handienaren puntuan egon beharra daukala, C unean hain zuzen, B egoeran egonez gero ez bailuke indar nahikorik izango kuraia azaltzeko. Beraz, 1+ C+ 3 izango da gutxienezko ibilbidea subjektibazio-prozesu batean, eta 1+ A + B + 3 formula burugabea da.

Angustiaren elementuen ezaugarriak

A. Desubjektibazioa

Sentimenduak
Beldurra
Antsietatea
Zalantza
Izua. Terrorea
Pazientzia-eza
Lasaitasun faltsua
Errudun-sentimendua (pentsamenduengatik)
Fluktuazioa: - beldurra/itxaropena - koldartasuna/zoriona
Heriotza desira (hastapena)
Gorrotoa (generalei)

Ezaugarriak
Jarduera-eza
Nekadura-sintomak (atseden beharra)
Imajinarioaren nagusitasuna
Ihes egiteko joera
Zinismoa (babes-mekanismoa)
Amaitu nahi izatea (suizidiorako joera)
Gogoaren gorabehera etengabea
Sufrimendu leuna baina etengabea
Egituraren malenkonia

B. Zesioa

Sentimenduak
Errudun-sentimendu inkontrolatua
<u>Ni ideal indartsua</u> <u>Ni ideal ahula</u> (sentibera)
Gorrotoa kideei Gorrotoa bere buruari
Inbidia Irritazioa
Traizionatua izan dela Mingostasuna
Krudeltasuna Autoerrukia
Bestearen heriotza-nahia Porrota

Ezaugarriak

Ni ideala hautsi da
Justifikazioa bilatzea edonola
Babes-mekanismoak
Imajinazio gehiegizkoa
Sufrimendu handia eta, gainera, min fisikoak
Idea desegokiak
Kausa eta afejtuaeren arteko banaketa
Subjektuaeren disoziazioa
Erantzukizuna desbideratzea

C. Subjektibazioa

Sentimenduak
Itsukeria
Urduritasuna
Amorrua eta mendeku-nahia
Hira eta furfurua
Zoroaldia
Gorrotoa etsaiari
Inpotentzia, miseria, gutxiagotua sentitzea
Iraindua sentitzea.

Ezaugarriak
Ni ideala berbiztu nahia. Apurkako konfiantza
Jarduera bizia. Berritsu agertzea
Ardurak desbideratzea. Arrakasta beharra
Emozioak deszamatatu. Etengabe kexatu
Projekturik gabeko erresistentzia
Ausardia. Heroizitate faltsua. Hiltzeko prestutasuna

Zenbait kasuren subjektibazio-eskemak

Crane-ren nobelan ikusi dugun eskema ez da beti bera izaten bizitzaren egunerokotasunean, edo eta beste nobela edo egoera batzuetan. Labur-labur, eta oso eskematikoki, ikus ditzagun beste eskema batzuk, subjektibitatearen elementuak azaltzean erabili ditugun sinbolo berberekin:

1. Gertakizuna. Angustia

A. Desubjektibazioa


B. Zesioa

C. Subjektibazioa


2. Heriotza sinbolikoa. Supernian murgiltzea.

3. Kuraia

4. Justizia


“The Red Badge of Courage”

Esan bezala, eskema honetan ikusten dugu Henry Fleming-ek desubjektibazio-prozesua bizi izan duela eta, zehar baten ostean (ihesa), une batean beharrezko bidea eten egin duela eta berriz berbiztu dela, subjektibaziorako igoerari ekinez.

Bizitzaren gertakizunetan


Eguneroko bizitzaren gertakizunetan, ordea, ez ohi da gauza bera jazotzen. Sarri askotan ikusten dugu garrantzizko (muturreko) gertakizun baten aurrean indibiduoek lehen unean ausardia adierazten dutela, eragozpenei aurre emanez, baina, adorerik ezean, apurka-apurka dessubjektibazio-prozesuari ekiten diote, azkenean arautegi berrian murgilduko direlarik, etsiturik, “*ez dago zer eginik*” edo “*bizitza halakoa da eta zer egingo diogu, bada!*” esanez. Kasu hauetan, bakar batzuek soilik agertuko dute inposaketei aurre egiteko behar besteko kuraia eta, segituz gero, justizia berria lortuko dute, bai beraientzat bai gainontzeko guztientzat ere.

Conrad-en *Lord Jim*



Lord Jim-en kasua oso interesgarria da. Jim kapitainak bere tripulazioa abandonatu ondoren, egindako traizioak ez zion uzten lasai bizitzen eta urruneko irletara jo zuen. Han bizi zela, itxuraz kuraia agertu eta justizia handiko ekintzak burutu zituen baina, sakonean, aurretiko akatsarengatik zigorra ari zen bilatzen, erredimitu nahian. Azkenean, buruaz beste egitearekin antz handia zuen erabaki bat hartu zuen, baina ezin dugu benetako kuraiatzat jo, simulakroa baita. Erabaki honek heriotzara eraman zuen, antzinako lagun baten eskutik.

Conrad-en *Roman printzeia*



Roman Printzearen kasua bestelakoa da. Presioa sentitu zuen lehen unetik bertatik indargogotu zen eta kuraia handiko erabakiak hartu zituen. Erasoei erantzuteaz gain, beste ordenu berri bat jartzea bilatu zuen, justizia berri bat alegia. Roman printzearen kasua ezohikoa da, bakar batzuen, iraultzetan aurrera egiten dutenena, historia-liburuetara pasatzen direnen kasua, nahiz eta, ez dezagun ahantz, modu honetan jokatu duten subjektu gehienek inoiz ez duten historia-liburuetan orri bakar bat ere hartuko.

Atalean aipaturiko Bibliografia

ALTENBERND, Lynn eta LEWIS, Leslie L. (1966). *A Handbook for the Study of Fiction*. The MacMillan Company. New York.

ARISTOTELES (1994a). *Éthique à Eudeme*. Vrin. Paris.

ARISTOTELES (1994b). *Éthique à Nicòmaque*. Vrin. Paris.

AZKARGORTA, Antton (1988). *Editorialea gertakizunaren aurrean: "El Pais" eta Euskadi*. Doktore-tesi argitaragabea. Bilbo.

CASTILLA del PINO, Carlos (1998). *El delirio, un error necesario*. Nobel. Ovieu.

COMTE-SPONVILLE, André (1998). *Pequeño Tratado de las Grandes Virtudes*. Espasa. Itzul.: Berta Corral eta Mercedes Corral. Madril.

CONRAD, Joseph (1988). *El espejo del mar*. Orbis. Itzul.: Javier Marías. Bartzelona.

CRANE, Stephen (1981). *El rojo emblema del valor*. Anaya. Ed. Leopoldo Mateo. Itzul.: Micaela Misiego. Madril.

CRANE, Stephen (1983). *The Red Badge of Courage*. Avon Books. Ed. Henry Binder. New York.

FREUD, Sigmund (1956). *Desilusion and Dream*. Beacon Press. Boston.

FREUD, Sigmund (1963). *The Problem of Anxiety*. Psychoanalytic Quarterly Press. New York.

FREUD, Sigmund (1979). "Inhibición, síntoma y angustia" in *Obras Completas*. Amorrortu. Buenos Aires.

FREUD, Sigmund (1980). "La escisión del yo en el proceso defensivo" in Amorrortu. Buenos Aires.

- HÖLDERLIN, Friedrich (1983). "Notas sobre Antígona" in *Ensayos*. Hiperión. Madril.
- JANKELEVITCH, V. (1986a). *Les vertus et l'amour*. Champs-Flammarion. Paris.
- JANKELEVITCH, V. (1986b). *Traité des vertus*. Champs-Flammarion. Paris.
- KANT, Inmanuel (1913). *Crítica de la Razón Práctica*. Librería General de Victoriano Suarez. Itzul.: E.Miñana Villagrasa eta Manuel G.Morente. Madril.
- KLEINBAUM, N.H. (1992). *El Club de los Poetas Muertos*. Plaza & Janes. Bartzelona.
- LACAN, Jacques (1989). *Escritos*. Siglo XXI. 2. liburukia. Mexiko.
- LACAN, Jacques (1992). *Seminario (17)*. Paidos. Bartzelona.
- PASCAL (1972). *Pensées*. Librairie Générale Francaise. Paris.
- PASCAL (1983). *Pensamientos*. Orbis.
- SPINOZA (1996). *Ética*. Alianza. Itzul.: Vidal Peña. Madril.
- STALLMANN, Robert Wooster (1972). *Stephen Crane: a Critical Bibliography*. Ame, Iowa State University Press.
- STARRETT, Vincent (1931). "Stephen Crane: Notes Biographical and Bibliographical" in *Colophon*, 2, 7. liburukia, Iraila.

Ondorioak

Atalaren Aurkibidea

CRANE ETA CONRAD-EN ARTEKO ANTZEKOTASUN SUBJEKTIBOA ...	327
Pazientzia eta inpazientzia	329
CRANE-REN SUBJEKTIBITATEAREN JATORRIA	331
Errealik gabebo imajinariorik ez dago	333
<i>THE RED BADGE OF COURAGE</i>-REN INTERPRETAZIOA	334
Kritika amerikarraren mezua	334
Nobelak dioena	335
Nire iritzia	336
AMAITZEKO	339

Crane eta Conrad-en arteko antzekotasun subjektiboa

Tesi honetan atera dudan lehen ondorioa hauxe da, hots, Crane eta Conrad ez zirela izan soilik garaikideak eta lagunak; bestelako kidesun sakonagoa ere izan zutela beren artean, subjektibitatea antzera ikustea eta aztertzea eragin zien kidesun berezia, hain zuzen ere. Subjektibitatea nobelagintzan aztertzeko unean, Crane eta Conrad aztergai bera dira, zehaztasunak zehaztasun. Geroago azalduko dudanez, Crane-k subjektibitatearen lehen fasea ordezkatzeko du, gertakizunaren indarraren kariaz jarrera subjektiboa azaltzen duen estereotipoarena. Bat-batekotasunaren ezaugarriak ditu, gertakizunaren eremuko da. Conrad-ek, ordea, subjektu osoaren ezaugarriak adierazten ditu¹; prozesu subjektibo osotuaren eremuko da.

Biografiaren aldetik ezin zaie parekotasun handirik ikusi, ez bada gaztetatik lekutik lekura ibili zirela eta zortzi urte zutenean biek galdu zutela gurasoetarikoa bat (Crane-k aita eta Conrad-ek ama). Biek izan zuten itsasoarekiko zaletasuna, bai, baina batek itsasoa maite eta mirestu zuen artean, besteak itsasoa *bizi* izan zuen. Zehaztasunak zehaztasun, Crane-k bizitza-esperientzia laburra (28 urte) eta idazle-esperientzia laburragoa (lehen liburutik 7 urte) izan zuen; Conrad-ek, ordea, bizitza-esperientzia luzea (66 urte, horietarik 20 itsasoan) eta idazle-esperientzia luzeagoa (30 urte) izan zituen, eta gainera, 36 urte zuela ekin zion lehenengoz idazteari, zer ikusia eta zer pensatua aldean zeramala ordurako.

Xehetasun biografiko hauek alde batera utzita, eduki literarioaren aldetik maila berean koka ditzakegu. Biak dira idazkera berri baten aitzindariak, idazkera subjektibo, sinboliko eta metaforikoarenak, hain zuzen. Ordurarte egin ohi zen idazkera deskriptibo,

¹ Batez ere, bere azken urteetako nobeletan.

kanpotiko eta metonimikoarekin konparatuta guztiz berritzaileak izan ziren. Barnetiko idazketa honek eskola sortu zuen, areago, nobela modernoaren oinarria izan zen: gaur egungo nobelagintza subjetoa da, subjektuaren barne-dimentsioa bilatzen eta agertzen du, eta baitarako bidaia du bere ezaugarririk behinena. Nobelagintza-mota honek Crane eta Conrad-engan du bere jatorria. Gizakiaren eta Naturaren arteko borroka gogorrean, Naturak baino, gizakiak bereganatu zuen haien interesa; gizakiarengan eta beronen zalantza *existentzialistetan* kokatu zuten interesgunea.

Hau guztia egiteko, lengoaia berria asmatu behar izan zuten, idazteko zaila den lengoaia. Metafora, sinbolo eta alegoriaren bidez (itsasuntzia, itsasoa) baliatu izan ziren munduaren eta gizakiaren arteko erlazioa deskribatzeko, baina ez edozein gizakirena: gertakizun batek harrapatutako gizaki hautsi baten ikuspuntutik deskribatu nahi izan zuten munduarekiko erlazioa. Ez zitzairen egunerokotasunaren gizakia interesatzen, apurtuta dagoen hori baizik. Jakin nahi zuten, *ikus*i nahi zuten nondik joko duen, angustia ala kuraia agertuko duen, ala biak agertuko dituen bata bestearen ostean. Giza drama da beraien nobelagintzaren gaia, eta argi utzi nahi izan zuten, gizaki guztiok, denok, bi dimentsioak ditugula, angustiarena (guztiok noizbait ezagutu izan duguna) eta kuraiarena (bakar batzuek noizbait lortzen dutena).

Horrexegatik dira unibertsalak, beraien pentsamendua ez baita gizon partikularraz aritu, gizaki orokorraz baizik. Lacan eta Badiou-k psikoanalisi, zientzia eta filosofiatik gizakiaz ikasi zutena, literaturara eraman zuten bi idazle hauek. Subjektuaren teoria koordinatu denbora-espazial imajinatiboetan kokatu zuten. Antzekoak dira biak, muturreko egoera batean egonik gizakiak antzera jokatzen baitu beti, Grezia zaharrean izan zein gaur egungo bizimoduan izan. Beraz, gizakiak gertakizun batean nola jokatzen duen lehen orain bezala konta zezaketen, Lacan eta Badiou jaio aurretik ere jakina².

Crane eta Conrad-ek beren liburuak argitaratu zituzten garaian, nekez azter

² Crane eta Conrad-ek bezalaxe, Eskilo-k ere maisuki kontatu zuen gauza bera: gizakiaren jokaera Naturaren aurkako (jainkoen aurkako) borroka latzean.

zitezkeen beraien lanak zientziaren aldetik. Gaur egun, aldiz, psikoanalisiak eta filosofiak tresna egokiak eskaintzen dizkigute lan hauen inguruan hausnarketa egiteko, finean eta batez ere, gizakiaren prozesu psikologikoaz aritzen baitira. Psikoanalisiak nobela hauek *pentsatzen* laguntzen digu, eta ez soilik *sentitzen*, kritikari amerikar ugari neurri batean egin zuten moduan.

Pazientzia eta inpazientzia

Crane-ren eta Conrad-en artean antzekotasunak ikusten ditudan arren, egia da biak ez direla gauza bera, lehen esan dudana bezala. Prozesu subjektiboaren barnean, bi aspektu ezberdin ordezkatzeko dituzte, nor berea. Crane-k inpazientzia ordezkatzeko du, subjektibazioa, gertakizunak eragindako bat-bateko erantzuna. Conrad-en kasuan, ordea, pazientzia antzematen da, prozesu subjektiboaren garapena eta honekiko leialtasuna. Eskema baten bidez adierazteko, honelaxe agertuko nuke:

Crane	Conrad
Inpazientzia	Pazientzia
Gertakizuna	Leialtasuna
Subjektibazioa	Prozesu subjektiboa
Rimbaud <i>sindromea</i>	Mallarmé <i>sindromea</i> ³

Inpazientzia diodanean ez dut adierazi nahi denborarekin dugun erlazio subjektiboa. Adierazi nahi dudana da egiarekin (literarioa, poetikoa) dugun erlazioa. Inpazientzia ez da izaeraren ezaugarri bat edo *histeriaren nahikeria hutsa*⁴ (hau ere izan arren). Crane-ren (eta Rimbaud-en) inpazientzia pentsamenduaren kategoria bat da.

³ Jean-Arthur Rimbaud (1854-1891) 37 urte bizi izan zen, baina bere lan poetiko osoa hiru urtetan idatzi zuen, 16-19 artekoa zen bitartean. Ondoren literaturaz ez zuen ezertxo ere jakin nahi izan. Stéphane Mallarmé

Hobeto azaltzeko esan dezadan egia gertakizunean sortzen dela eta, egiak berak, bere aldetik, leialtasun bat sortzen duela. Nahiz eta egia betierekoa izan, denbora bat ezartzen du eta subjektua da denbora honekiko pazientzia edo inpazientziaren arteko gatazka (konponbiderik ez duen gatazka bestalde) pairatu behar izaten duena.

Egia-prozesu batean murgildurik dauden egile guztiek ez ohi dute pazientzia edo inpazientzia bera. Crane-k (Rimbaud-ek bezalaxe) hasieratik jakin zuen bere ezaugarria inpazientzia zela eta bere zeregin literarioa “*azalezina agertaraztea*”, “*bertigoa finkatzea*” zela; egia-prozesu batean inpazientziak egin dezakeen bakarra ohartaraztea baita, agerian jartzea alegia. Pazientziaren zeregina, ordea, gauzatzea da eta egiarekiko leialtasuna mantentzea⁵.

Crane-ren lana inpazientziak hasi eta inpazientziak amaitu zuen. Inpazientziaren ondorioa etena da (lengoaiari, narrazioari), eta beraren bidez idazleak harrapa eta finka dezake esanezina. Horixe da Crane-ren (eta Rimbaud-en) jeinutasuna, eta horixe ere bere barneko errekontzaren jatorria, bere inpazientziagatik inpaziente baitago, azkenean inpazientziak berak hartzen baititu erabakiak. Rimbaud-en kasuan inpazientziak erabaki zuen “*finean ezer ez dela esanezina*” eta (esanezina baino adierazi nahi ez zuenez) idazteari utzi zion, 19 urtekoa zuela.

Crane (eta Rimbaud) gelditu egin zen (edo etenaren jeinutasuna gerarazi zuen) leku berean, Conrad-en (eta Mallarmé-ren) pazientzia izugarriak lortu egin zuen, etenaren poetika erakargarriaren tentazioari branka ematea. Bere pazientziari esker, Conrad-ek

(1842-1898) 56 urte bizi izan zen eta bizitza osoan zehar ekin zion idazteari, 20 urterekin hasi zenetik.

⁴ Alain Badiou-ren hitzak erabiltzen ditut, (BADIOU 1992) 149. or.

⁵ Pazientzia eta inpazientziari buruz, filosofia, politika, historia eta literatura nahasten dituen liburua aipatu nahi nuke, hemen azaltzen ari diren kontzeptuak zentzu berean erabiltzen dituelako. Liburua, sandinismoaren hastapenen kronika bat da, geroago Nikaragua-ko boterea bereganatuko zuen filosofiaren erakusgarria izan nahi duena. Tomas Borge-k idatzia da, eta *La paciente impaciencia* du titulua, (BORGE 1989). Liburuaren lehen orrian San Pablo-ren aipua dakar: “*Otoi, senideok: zentzarazi zabar dabiltzanak, inpazientatu bihozgabetuak, eusti ahulei, izan pazientzia guztiekin*” (Telasonikarrei lehen gutuna 5, 14). Aiptzekoa da, bestalde, *El País* egunkariak, 1989eko maiatzaren 7an, liburu honi buruz esandakoa: “... *no es un libro político en el sentido convencional, sino una geografía de sensaciones, de instantes prendidos en la memoria...*”.

tentazio mimetikoa, egia nonnahi bailegoen jokatzea eta egiaren zama sentikorra bereganatzea uxatu egin zituen, berak bazekielako egia salbuespen-salbuespena dela. Mallarmé-k bezala, Conrad-ek ere uste zuen egia, benetako egia, singularitate paziente gisa agertzen denean izango dela, prozedura isolatuan eta egoera ohikoan inoiz ezarri gabe. Poema (egia izan daitekeen aldetik) *ekintza mugatutik* sortzen dela uste zuen Mallarmé-k; poemak pentsamendua aldatu egiten du, eta erabakiezin uzten du pentsamendua (gertakizuna metaforizatuz), gunean dagoen subjektua kolokan jartzeraino. Hainbestera da poemaren indarra, ezen gertakizunaren indarrarekin berarekin parekatu ahal baitaiteke⁶. Kontua da, ordea, Crane (eta Rimbaud) jokaera intelektualaren inpazientziaren legea dela, eta ekintza mugatu batekin asetzen ez dela.

Hauexek ditugu, beraz, egia-prozesua ulertzeko bi bideak: egia baten kontzeptu eta bilakaeraren pazientzia, ala eternitateak eskatuta baina denboraren forma sentikorrean, etenagatik desagertarazteko arriskua hartzen duenaren inpazientzia. Hau da, inpazientziaren bidea ala pazientziarena. Crane ala Conrad. Rimbaud ala Mallarmé.

Crane-ren subjektibitatearen jatorria

Henry Binder-ek zioen⁷, Wilson-en eta Fleming-en aldaketaren arrazoia misterio hutsa zela, eta nik ere halaxe uste dut. Misterio bat da, subjektibitatearen aldapan gora ekiteko subjektua bultzatzen duen indarraren jatorria. Misterio bat da, bestalde, subjektibitatearen bide aldapatsua deskribatzera Crane bultzatu zuen ezagutzaren sorburua.

Kritika amerikarrak planteatzen duen galdera da: nola idatz zezakeen gerraz, gerra ezagutu gabe? Eta jeinu bat zela erantzun dute, guztiz intuitiboa. Nire galdera hau da:

⁶ Badiou-ren subjektuaren teorian ikusi dugu, politikan, zientzian eta maitasunean bezainbeste, artean (eta beraz poesian) ere egia-prozesua sor daitekeela.

⁷ Henry Binder in (CRANE 1983) 162. or.

Nola idatzi zuen subjektibitatearen prozesuaz berau ezagutu gabe? Erantzun bi baino ez daude, ala jainua izan zen (eta horretan bat etorri beharra dut kritika amerikarrak esandakoaz), ala ezagutu zuen –gerran ez baina beste gertakizun batean bai– nahiz eta datu hori bere biografian nabariro agertzen ez den.

Agian, Crane-k desubjektibazio-/subjektibazio-prozesua ikasle zeneko garaian ezagutu zuen, *Hildako Poeten Kluba* liburu eta pelikulan azaltzen den antzeko egoeraren bat bizi edo behatu ahal izan zuenean. Ez dugu ahaztu behar, Crane behatzaile ona izan zela eta behatutakoa isilean gordetzen jakin bazekiela, bere haurtzaroaren bi anekdotek baieztatzen digutenez⁸. Hala ere, ez da batere zuzena zenbaitek eman duten azalpena: bizimodu lasaitik hiriko auzo hitsetara pasatzean naturalismoa berarengan sortu zela, eta naturalismoarekin batera begiratzeko modu bat, modu berria. Nik ez dut uste, Crane-ren ikusmira egoera sozio-ekonomikoaren azterketa hotz hutsetik sortu zenik, ezta errealitatea gordinki adierazteko beharrezanetik ere. Zeren, garrantzitsuena ez baita zer *begiratz* den, zer *ikusten* den baizik. Crane-k berak esaten zuenez, denok gatoz begi pare batekin eta ez gara ikusten dugunaren erantzule, baina jakina, ez dugu ulertu behar, kanpoko begiez ari zenik, barneko begiez baizik. Nire ustez, Crane-ren ikusmira justiziaz zuen zentzu estutik sortu zen, eta zentzu indartsu honek zerikusi gutxi du sentimendu erlijiosoarekin. Justua zer zen eta zer ez zen, arrunt erroturik zuen barnean eta –aparatu automatiko bat bailuen– argi gorritxo berehala pizten zitzaion, injustiziaren bat somatzen zuen bakoitzean.

Justizia da, beraz, nik neure buruari ematen diodan azalpena. Hau da, nik uste dut justiziari buruz Crane-k zuen irudiak bultzatu zuela, idatzi zuen modura idaztera. Conrad-ek, bere modura, gauza bera esan zuen, beraren ustez ere idazlearen helburua mundu ikusgarrian justizia apurra egitea baitzen⁹. Edozelan dela, Crane-ren subjektibitatearen

⁸ Oraindik hamalau urte ez zuela garrantzizko bi gertaera bizi izan zituen, eta ez zituen etxean kontatu: bata, itota hiltzetik laguna salbatu zuela izan zen, eta bestea, hilketa baten lekuko izan zela, emakume batek maitale beltza hil zuenean.

⁹ Bere hitzekin esateko, Conrad-k honela esan zuen *The Nigger of the "Narcissus"* liburuan: "Artea, unibertso ikusgarrian justizia ahalik eta ondoen egiteko izpiritu norbanako batek egiten duen ahalegin gisa defini liteke, modu honetan argitara ekarriz justiziaren aspektu bakoitzak daukan egia, egia barreiaturikoa baina bakarra", (CONRAD 1985) 7. or.

jatorriak misterioa izaten segitzen du neurri handi batean. Berak egin zuena artea da, eta arteari askotan ez zaio jatorririk bilatu behar.

Errealik gabebo imajinariorik ez dago

Egia sortzen direneko lekuak, zientzia (matema), artea (poema), politika eta maitasuna dira. Filosofiak *pentsatu* egin dezake egiak, baina ez sortu. Crane-k egia-prozesuaz pentsa zezakeen, baina ez zuen halakorik sortuko/deskribatuko hura ezagutu ezean. Pertsonalki edo behaketaren bidez *ezagutu* behar izan zuen.

Subjektu osoa eraikitzeke, Ni ideala suntsitu beharra dago, hau da, aurreko imajinarioa (bere burua nola ikusten duen) guztiz akatu behar du erreal baten bidez. Hala ere, nahiz eta Ni imajinarioa edo ideala faltsua izan, efektu errealak ditu eta gainera, subjektuak bere buruaz duen irudia hurrengo erreal batek berriz suntsituko duen arte mantentzea lortzen du. Beraz, imajinarioaren garrantzia berebizikoa da, gizakiaren ilusioa zutik manten dezakeelako. Baina imajinarioarekin guztiz identifikatzea arriskutsua da, mutur-egoeretan apurtu beharra izango dugulako, eta moralaren arabera jokatzek ere balio izango ez duelako; erreala agertzen denean, etikak erabaki behar izango du.

Imajinarioak, beraz, funtzio garrantzitsua du, baina ez da soluziobidea egia-prozesuetan¹⁰. Bestalde, ezinezkoa da errealean etengabe mantentzea, egoera jasanezina pairatuko litzatekeelako. Biziraun ahal izateko, imajinarioa behar dugu¹¹.

Honekin guztiarekin esan nahi dudana honako hau da, alegia, Crane-k ezin izan zuela, berez, imajinario bat asmatu, aurretik erreal bat ezagutu ez bazuen. Egia da, Crane-ren pertsonaia subjektu bihurtu zenean, Crane bera ere, bere lan literarioaren bidez,

¹⁰ Hobe da idealistegia ez izatea, ideala apur daiteke-eta.

¹¹ Aurretik egindako akatsa ahaztu behar da. Biziraun ahal izateko, ahanztea ezinbestekoa dela erakutsi zigun Lacan-ek. Beste egile batzuek ere, ahanzturaren garrantzia azpimarratu dute: “*Agian ez dago ahanzturarik gabeko osasunik; baina leialtasunik gabeko birtuterik ere ez dago. Higienea ala morala. Higienea eta morala. Zeren, kontua ez baita ezer ere ez ahanztea, ezta edozeri leiala izatea ere*”, (COMTE-SPONVILLE 1998) 32. or.

subjektu bihurtu zela, baina zaila da pentsatzea, imajinariotik soilik sortu zuela subjektibitatearen prozesuaren deskribapen zehatza. Errealitatearen batetik (errealen batetik) sortu behar izan zuen bere imajinarioa (kasu honetan, nobela).

Edonola dela ere (istorioaren edukia garatzeko erreal pertsonalki ezagutu, edo ingurunean behatu), nobela bera gertakizun bat izan zen literaturaren historian, eta gertakizuna zen aldetik, erreal bilakatu zen garaiko literaturgintzan, berriztatze-prozesu bati hasiera emanez. Crane-ren nobelaren ostean ezin zen enoratu pertsonaiak agertarazteko modu berri bat zegoenik, eta gertaerak kanpotik konta zitezkeela, edo barnetik, ekintzaileen subjektibitateetik abiatu.

***The Red Badge of Courage*-ren interpretazioa**

Kritika amerikarraren mezua

“*The Red Badge of Courage* nobelaz kritikak esandakoa” atalean ikusi dugunez, kritikariek, oro har, nobela errealista, inpresionista, naturalista eta ironikotzat jo dute kasurik hoberenean Crane-ren lana, eta kasurik txarrean, fragmentarioa, lainotsua, bisionarioa, inozoa (ametsak eta errealitatea bereizten ez dakiena), kupidagabea, isekatsua eta amoralia (inmoralia ere) dela esan dute. Horrez gain, estilo zatikatua duela diote, heldutasunerako prozesuaren erakusgarria dela, bizitza gerra etengabea bailitzen aurkezten duela, eta pertsonaiei gauzak gertatu egiten zaizkiela, hots, beraiek erabakizun ahalmenik eduki ez daukatela.

Laburbilduz, Stephen Crane gazte presatu gisa agertu digute, heldugabea, intuitiboa agian, baina osatu bakoa, nerabezaroaren beldur justifikagaitzak gerraren

metaforaren bidez agertzen dituen; ekintza militarrek gazteengan sortarazten duten xarmak erakarria izan da alde batetik, baina, bestetik, gerraren krudeltasuna errefusatu du, irmo. Gaur egungo intsumiso goiztiarra bailitzan agertu digute Crane, antimilitaristen aitzindaria literaturgintzan.

Kritikari gehienek ustez, Crane-ren pertsonaiaren nerabetasuna nobelaren amaieran (azken orrian) amaitzen da. Henry Fleming nagusitu egin da eta bere bizitzaren aro bati amaiera eman dio, nerabezeroari alegia, berriro inoiz itzuliko ez den aroari.

Nobelak dioena

Nobela irakurtzean bestelako gauzak ikusten dira Crane-ren lanean. Esan dezadan, alde aurretik, testu baten interpretazioa egitean, edozein azalpenek ez duela balio. Gaur egun, ontzat ematen da interpretazio ezberdinak egon ahal izatea, eta nork bere irakurketa egin dezakeela esatea, azken hamarkadaketan hauxe izan baita Herreraren Teoriak hedaturiko mezua. Ez dut uste egia osoa denik. *Opera aperta*-ren mitoa engainagarria da. Testuak dioena dio, eta horixe da dioena. Kitto. Horrez gain beste zerbait gehiago ERE esan dezakeela onar liteke, baina testuak ez dio norberak ulertu nahi duena. Hori ez da egia.

Testu bakoitzak bere egilearen mezua darama, egileak esan nahi zuen hura. Erronka hauxe da, testu horrek daraman mezua zein den ondo asmatzea, hau da, ZER den egileak adierazi nahi zuena, baina esanahia bat eta bakarra da, eta ez da anitza, berez. Geroago, bestelako mezuak ere, hots, bigarren mailako adierazpenak aurki dakizkioke testuari, baina honek ez du zer ikusirik *opera aperta*-rekin, guztiz engainagarria den terminoa, bestalde.

Aurrekoa esan ondoren, ikus dezagun, beraz, zer den nobela honek dioena.

Nobelaren hasieratik pertsonaia nagusiak zenbait sentsazio eta sentimendu adierazten ditu, beldurra eta antsietatea bereziki, eta handik pixka batera, angustia ere bai, gainera datorkion egoerari (guduari) aurre egiten jakingo ote duenentz pentsatzeak sortarazten dion angustia, hain zuzen. Crane zertaz ari den ulertzeko, angustia gako-hitza

da. Angustia agertzen den guzti-guztietan, gizakia desubjektibazio-prozesu batean murgildurik dagoela diosku psikoanalisiak. Angustiak, gizakiak zirt ala zart egiteko moduko egoera baten erdigunean dagoela adierazten digu, argi eta garbi. Eta Henry-k sentitzen duena angustia da, nabariro. Baina ez hori bakarrik. Angustiaz gain, Henry-k errudun-sentimendua, tristura eta autoerrukitasuna adierazten ditu; bere burua frogatzeko irrikitan dago eta, azkenean, ahul, koldar jokatzeko du: ihes egin du, eta honela burutu da zesioa. Arazoaren hastapenetara itzuli nahi du, eta nahiago luke hilda egotea, pairatzen ari den sufrikarioa jasatea baino. Ibilbide subjektibo hau, oso-osorik, desubjektibazio-prozesuaren erakusgarri argia da, zalantzarik gabe: superniaren presiopean, jarduera eza agertzen da lehenik, ziurtasun fiktizio bat kanpoan bilatu nahia ondoren, eta amore ematen du azkenik. Argiago ezin.

Pertsonaia zeharo birrindurik dagoenean, bi aukera ditu aurrerantzean: superniaren eremuan murgiltzea eta, ikuspuntu subjektibotik ikusita, bere nortasunari uko egitea, orduetik aurrera superniaren (armadaren, sistemaren, boterearen...) elementu maneiagarria izanik, ala (nobelan gertatzen den bezala) goranzko ibilbidean subjektibazio-bideari ekitea, eta, adorea erakutsiz, kuraiatsu jokatzeko. Bigarren hau da Henry-k harturiko bidea. Eta bigarren hau zen, gainera, Crane-k bere nobela guztietan agertzen ohi zuen prozesua. Conrad-ek ordea, lehen nobeletan supernian murgilarazten ohi zituen bere pertsonaiak, eta soilik azken nobeletan agertu zituen pertsonaia kuraiatsuak muturreko egoeretan.

Nire iritzia

Testuek irakurketa zuzen bakarra baldin badute, eta interpretazio anitzen sinesmena faltsua baldin bada, *The Red Badge of Courage* nobelaren esanahia azaldu nahian aritu direnean, kritikari gehienak erratu izan direla esan behar dut. Nobela hau ez da ironikoa (ez du umorerik, ezta umore garratzik ere), ez da lainotsua (zeharo gardena da), eta ez da amorala ere (moralaren eta etikaren arteko bereizketa egitea ezinbestekoa da)¹². Azterketa

¹² Moralak gizartearen arauekin zerikusia du, gizakiarengandik kanpokoa da-eta; morala, gizakiari kanpotik

burutu ostean, “Kritika taulan” epigrafepean aurreratu nuen hipotesia bete-betean baieztatu dela esan dezaket, han azalduko atal guztietan.

The Red Badge of Courage nobela zertaz doan galdetuko balidate, eta hitz gutxitan azaldu behar izango banu, honako hau esango nuke: nobela honi buruz dudan interpretazioa hauxe da, alegia, pertsonaia nagusiari, Henry Fleming-i, bere buruaz zuen irudia apurtu egin zaiola. Zeharo determinatzailea izan den gerraren kausaz, bere egitura subjektiboa galdu du. Sinbolikoki hil egin da eta –desubjektibazioaren beheranzko bide osoa ibili ondoren– une batean berriz sortu da bizitzara, kuraia bilduz.

Nobelak tortsio bikoitza agertzen du. Alde batetik, estilo literario arruntarekiko lotura apurtzen du eta, bestetik, barrutik idatzita dago, eta ez kanpotik. Agertzen duen kontaketa-mota subjektiboa da, subjektibitatearen agerpen subjektiboa, esaterik balego. Honi esker, elementu materialek (zuhaitzek, lurrak) bizitasuna hartzen dute, eta gizakiak, ordea, *gauzatuta* agertzen dira, gauza bihurtuta, objetibatuta, zoramenean gertatzen den bezalaxe¹³. Henry ere apur bat *zoraturik* dago, hau da, ez da errealista, ez ditu gauzak diren moduan ikusten. Nahia eta errealitatea nahasten ditu (eskizofrenia) eta objektuak ere subjektibatuta ikusten ditu (paranoia).

Kontraste hauetan guztietan (asmaturikoa eta erreala nahastean) ironia zegoela iruditu zaio kritika amerikarrari, baina, diot nik, isilekoa eta ikusgabea bada ere, sentitzen den sentimendu oro ez al da bizitzen? Eta bizitzen bada, ez al da erreala? Beraz, non dago asmakaria? non dago ironia?

Subjektibazio-/desubjektibazio-prozesuaren ikuspuntutik begiratuta, *The Red Badge of Courage* izugarritzko nobela ona eta argigarria da, eta honelaxe frogaturik geratu da

inposatzen zaion arau- edo kode-multzoa da eta, horren arabera, gizakia amoral edo inmoral izan daiteke, gizarteak ezarritakoari indibiduoak egiten dion kasuaren arabera. Etika, ordea, gizakiaren beraren alorrekoa da, norberaren kontzientziarekin zerikusia du, ez da kanpotik inposatutakoa, barnekoa baizik, eta ez dio gizarte-arautegiari segitzen. Adibide bat ezartzearen, abortatzea inmoral izan daiteke (gizartearen arabera), baina etikaren ikuspuntutik onargarria (nork bere kontzientziari jarraituta).

¹³ Zoroek, aluzionazioak dituztenean, bizirik ikusten dituzte gauzak, berezko mugimenduaz. Beren burua, ordea, mugitzeke ikusten ohi dute, mugitu ezinik, borondaterik gabe.

azterketa honetan zehar. Edonola ere, esan behar dut tesi honen hasieran plazaratu dudana nahia ez dela guztiz bete. Oraindik ez dakit zein den erresortea; ez dakit bere subjektibitatea guztiz hautsirik duen gizakiak, une esanezin batean kuraia agertzeko eragitzen duen erresortea, alegia. Ez dakit, izan ere, guztiz indarge dagoen gizakiak, nondik ateratzen duen indarra. Horixe ei da argitu ezin dezakegun gakoa¹⁴. Nola nahi dela, gizaki egiten gaituena zer den esan dezakegu, hau da, zer den gizakiok gainontzeko izakiengandik bereizten gaituena: **erabakimena**, ezbairik gabe¹⁵. Baina nekez esan genezake **zergatik** hartzen dugun erabaki bat ala bestea une jakin batean.

¹⁴ Tesi honen zuzenketan aritu den adiskide on batek ohar hau idatzi du tesiaren zirriborroan, nire galdera aldana irakurri ondoren: “*Agian, ezin jakin daiteke, bestela errazegi bailitzateke, eta duen meritua/balioa galduko bailuke. Soluziorik jakin gabe, interesgarriagoa dateke bizitza*”.

¹⁵ Viktor E. Frankl psikoterapeutak konzentrazio-zelai batean izandako esperientziaz idatzitako liburua zeharo hunkigarria eta interesgarria da, (FRANKL 1998). Bertan esandako zenbait esaldi ekarri nahi nituzke hona: “*Egoerak plazaratzen duen arazorako, erantzun zuzen bakar bat baino ez dago*” (98. or.). “*Gizakiak, une oro, bere bizitzaren monumentua zein izango den erabaki behar du, onerako edo txarrerako*” (144. or.). “*Egia esan, gizakia izaki finitua da eta bere askatasuna mugatuta dago. Kontua ez da baldintzetatik askatzea ala ez; ni honakoaz ari naiz, alegia, baldintzen aurrean jokaera bat bereganatzeko askatasunaz*” (154. or.). “*Giza bizitzaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoa hauxe da, baldintzen gainetik igotzeko eta trantzenditzeko ahalmena. Honela bada, azken finean, gizakiak bere burua gaintzen du; gizakia, izaki autogaintzaila da*” (155. or.) “*Gure kide batzuek txarriak bailiran jokatzen zuten, eta beste batzuek santuak balira bezala; gizakiak ahalmen biak ditu bere barnean, baina bata ala bestea agertzea bere erabakien esku dago, eta ez bere baldintzen esku*” (158. or.).

Amaitzeko

Ez ohikoa eta disziplinen artekoa izateko bokazioa zuen tesi honi amaiera eman beharra dago. Literaturaren eremutik abiatuta, psikoanalisiaren arlora igaro gara eta berriz ere bira egin dugu literaturara. Bidaian zer ikasi franko izan dut. Garaiko seme-alabak izanik, jakin badakigu garrantzitsuagoa dela nabigatzea portura heltzea baino. Baina, nabigatzea garrantzizkoa bada ere, abiapuntua zein den jakitea garrantzizkoagozat jotzen dut; nondik abiatu garen une oro gogoan izatea, alegia. Zeren –tesi honen kasuan– abiapuntua literatura izan baita, eta amaierak ere literaturgintzara baikaramatza, baina, erran dezadan, nik ulertzen dudana literatura-mota batera: gozamen-iturria izateaz gain eta formen estetika zaintzeaz gain, jakintza-bide ere izan daitekeen literaturara. Hori da niri interesatzen zaidan literatura-mota, bizitzen laguntzen duena: irakurtzen (edo idazten) dugunean, geure burua hobeto ezagutzeko balio diguna, niago izateko baliabidea dena, norberaren eta gainontzekoen bizitzak begien aurrean erakusten digun literatura.

Alde horretik ikusita, literatura eta tesia, tesia eta literatura, zein baino zein, bizi-irakaspen ederra izan dira egile honentzat.

Atalaren Bibliografia

BADIOU, Alain (1992). *Conditions*. Seuil. Paris.

BORGE, Tomás (1989). *La paciente impaciencia*. Vanguardia. Managua.

COMTE-SPONVILLE, André (1998). *Pequeño Tratado de las Grandes Virtudes*. Espasa. Itzul.: Berta Corral eta Mercedes Corral. Madril.

CONRAD, Joseph (1985). *El Negro del "Narcissus"*. Seix Barral. Itzul.: Ricardo Baeza. Bartzelona.

CRANE, Stephen (1983). *The Red Badge of Courage*. Avon Books. Ed. Henry Binder. New York.

FRANKL, Viktor E. (1998). *El hombre en busca de sentido*. Círculo de Lectores. Itzul.: Diorki. Bartzelona.

Bibliografia Orokorra

ACKERMAN, Diane (1992). *Una historia natural de los sentidos*. Anagrama. Itzul.: Cesar Aira. Bartzelona.

ACOSTA GOMEZ, Luis A. (1989). *El lector y la obra*. Gredos. Madril.

ADORNO, T.W. eta beste (1986). *Teoría crítica del sujeto*. XXI. Itzul.: Henning Jensen. Madril.

AHNEBRINK, Lars (1961). *The Beginnings of Naturalism in American Fiction, a Study of the Works of Hamlin Garland, Stephen Crane and Frank Norris*. Russell & Russell. New York.

ALTENBERND, Lynn eta LEWIS, Leslie L. (1966). *A Handbook for the Study of Fiction*. The MacMillan Company. New York.

ALTHUSSER (1975). *Para una crítica del fetichismo literario*. Akal. Madril.

ANDERSON, W. (1964). "Homer and Stephen Crane" in *Nineteenth-Century Fiction*, XIX, 77-86. orr., ekaina.

ANONYMOUS (1968). "Built to last" in *Times Literary Supplement*, 927. or., abuztuak 29.

ARISTOTELES (1994a). *Éthique à Eudeme*. Vrin. Paris.

ARISTOTELES (1994b). *Éthique à Nicòmaque*. Vrin. Paris.

AZKARGORTA, Antton (1988). *Editorialea gertakizunaren aurrean: "El Pais" eta Euskadi*. Doktore-tesi argitaragabea. Bilbo.

AZOURI, Chawki (1995). *El Psicoanálisis*. Acento. Itzul.: Milagros eta Piedad Oregui. Madril.

BADIOU, Alain (1979). "Où? Dix thèses sur le sujet" in *Le Perroquet*, martxoak 9.

BADIOU, Alain (1982). *Théorie du sujet*. Seuil. Paris.

BADIOU, Alain (1985). *Peut-on-penser la politique?* Seuil. Paris.

BADIOU, Alain (1988). *L'être et l'évènement.* Seuil. Paris.

BADIOU, Alain (1990). *Manifiesto por la Filosofía.* Cátedra. Itzul.: Victoriano Alcantud. Madril.

BADIOU, Alain (1992a). *Conditions.* Seuil. Paris.

BADIOU, Alain (1992b). "Lettres sur tous les sujets" in *Le Perroquet*, 3, urtarrila.

BADIOU, Alain (1993). *L'éthique.* Hatier. Paris.

BADIOU, Alain (1996). *Etika.* Besatari. Itzul.: Antton Azkargorta. Bilbo.

BARTHES, Roland (1997). *Fragmentos de un discurso amoroso.* Circulo de Lectores. Itzul.: Eduardo Molina. Bartzelona.

BASSAN, M. (1963). "Misery and Society: Some New Perspectives on Stephen Crane's Fiction" in *Studia Neophilologica*, XXXV, 104-120. orr.

BASSAN, Maurice (1967). *Stephen Crane: A Collection of Critical Essays.* Prentice-Hall. Englewood Cliffs.

BASSAN, Maurice (1996). "The "True West" of Sam Shepard and Stephen Crane" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 2, 28. liburukia,

BATZUK, EGILE (1989). *Ética.* Progreso. Itzul.: Marisol Ciutat. Mosku.

BATZUK, EGILE (1991). *Lacan avec les Philosophes.* Bibliothèque du Collège International du Philosophie. Ed. Albin Michel. Paris.

BEEBE, Maurice eta GULLASON, Thomas A. (1959). "Criticism of Stephen Crane: A Selected Checklist with an Index to Studies of Separate Works" in *Modern Fiction Studies*, V, 289-291. orr., udazkena.

BEER, Thomas (1923). *Stephen Crane: A Study in American Letters*. Alfred Knoph. New York.

BEER, Thomas (1927). *Stephen Crane. A study in American Letters*. Garden City. New York.

BEER, Thomas (1934). "Mrs. Stephen Crane" in *The American Mercury*, 23, XXXI. liburukia, martxoa.

BEER, Thomas (1990). "The Clay Feet of Stephen Crane Biography" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 3, 22. liburukia, udaberria.

BENDER, B. (1976). "Hanging Stephen Crane in the Impressionistic Museum" in *The Journal of Aesthetics and Art Criticism*, XXXV, 47-55. orr., abuztua.

BERGON, Frank (1975). *Stephen Crane's Artistry*. Columbia University Press. New York.

BERRYMAN, John (1950). *Stephen Crane*. William Sloane Associates.

BERRYMAN, John (1977). *Stephen Crane: A Critical Biography*. Farrar, Straus & Giroux. New York.

BLOOM, Harold eta beste (1987). *Stephen Crane's The Red Badge of Courage*. Chelsea House. New York.

BODEI, Remo (1995). *Geometría de las pasiones*. Fondo de Cultura Económica. Itzul.: Isidro Rosas. Mexiko.

BOMPIANI (1987). *Diccionario de autores literarios*. Planeta Agostini, I. liburukia. Bartzelona.

BORGE, Tomás (1989). *La paciente impaciencia*. Vanguardia. Managua.

BORGES, Jorge Luis (1973). *An introduction to American Literature*. Schcken Books. New York.

BOYD, Ernest (1970). *Portraits: Real and Imaginary*. AMS Press.

BRENNAN, J.X. (1969). "Stephen Crane and the Limits of Irony" in *Criticism*, XI, 183-200. orr., udaberria.

BRIDGMAN, R. (1966). *The Colloquial Style in America*. Oxford University Press. New York.

BRITTON, Bruce K. (1990). *Narrative Thought and Narrative Language*. Lawrence Erlbaum, Hillsdale. New Jersey.

BROOKE-ROSE, Christine (1986). "Ill Logics of Irony" in *New Essays on The Red Badge of Courage*. Cambridge University Press. Ed. Lee Clark Mitchell.

BRUCCOLI, Matthew J. (1972). "Stephen Crane as a Collector's Item" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

CADY, Edwin Harrison (1980). *Stephen Crane*. Twayne Publishers. New York.

CASTILLA del PINO, Carlos (1998). *El delirio, un error necesario*. Nobel. Ovieu.

CAZEMAJOU, Jean (1969). *Stephen Crane*. University of Minnesota Press.

CAZEMAJOU, Jean (1972). "The Red Badge of Courage: The "Religion of Peace" and the War Archetype" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

CHARTIER, Emile-Auguste (ezizenez ALAIN) (1970). *Propos II*. Pléiade, 1912eko abenduaren 2ko Propos.

CHOWDER, Ken (1995). "A Test of Character: The Life of Stephen Crane" in *Smithsonian*, 10, 25. liburukia, urtarrila.

CLENDENNING, John (1995). "Stephen Crane and His Biographers: Beer, Berryman, Schoberlin and Stallmann" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 1, 28.

liburukia, 23-57. orr., udazkena.

CLENDENNING, John, WERTHEIM, Stanley eta SORRENTINO, Paul (1995). "The Crane Log: A Documentary Life of Stephen Crane, 1871-1900" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 3, 27. liburukia,

COLVERT, J.B. (1955). "The Origins of Stephen Crane's Literary Creed" in *The University of Texas Studies in English*, XXXIV, 179-188. orr.

COLVERT, J.B. (1959). "Structure and Themes in Stephen Crane's Fiction" in *Modern Fiction Studies*, V, 199-208. orr., udazkena.

COLVERT, James B. (1965). *Great Short Works of Stephen Crane*. Harper & Row. New York.

COLVERT, James B. (1972). "Stephen Crane: Style as Invention" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

COLVERT, James B. (1984). *Stephen Crane*. Harcourt Brace Jovanovich. San Diego.

COLVERT, James B. (1986). "Searching for Stephen Crane: The Schoberlin Collection" in *Curier*, 21, 5-34. orr.

COLVERT, James B. (1995). "Stephen Crane and Postmodern Theory" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 1, 28. liburukia, udazkena.

COMTE-SPONVILLE, André (1998). *Pequeño Tratado de las Grandes Virtudes*. Espasa. Itzul.: Berta Corral eta Mercedes Corral. Madril.

CONRAD, Joseph (1912). *A Personal Record*.

CONRAD, Jessie (1926a). *Joseph Conrad as I Knew Him*.

CONRAD, Joseph (1926b). *Last Essays*. Doubleday. New York.

CONRAD, Joseph (1926c). *Notes of Life and Letters*. Doubleday. New York.

CONRAD, Joseph (1928). *La flèche d'or*. Gallimard. Paris.

CONRAD, Joseph (1979). *Juventud*. Moby Dick. Itzul.: Elisabeth Vallverdú. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1980a). *El corazón de las tinieblas*. Lumen. Itzul.: Sergio Pitol. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1980b). *Karain, un recuerdo*. Laertes. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1981). *La locura de Almayer*. Montesinos. Itzul.: Rafael Marquina.

CONRAD, Joseph (1983a). *El socio*. Ediciones Libertarias. Madril.

CONRAD, Joseph (1983b). *Los duelistas*. Akal. Madril.

CONRAD, Joseph (1983c). *Un vagabundo de las islas*. Plaza y Janés. Itzul.: Antonio Guardiola. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1984a). *El alma del guerrero y otros cuentos de oídas*. Alianza. Itzul.: Enrique Murillo. Madril.

CONRAD, Joseph (1984b). *El hermano de la costa*. Destino. Itzul.: J.G.de Luaces. Madril.

CONRAD, Joseph (1984c). *Lord Jim*. Forum. Itzul.: Ramon D.Peres. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1985a). *El Negro del "Narcissus"*. Seix Barral. Itzul.: Ricardo Baeza. Bartzelona.

CONRAD, Joseph (1985b). *El pirata*. Alianza. Itzul.: Eduardo Chamorro. Madril.

CONRAD, Joseph (1986a). *Nostramo*. Laertes. Itzul.: Juan Mateos de Diego.

CONRAD, Joseph (1986b). *Tifón*. Taifa. Itzul.: Diego Hernandez.

- CONRAD, Joseph (1987). *Victoria*. Ediciones B. Itzul.: Ramón B. Perés. Bartzelona.
- CONRAD, Joseph (1988a). *El anarquista y otros relatos*. Ediciones B, Grupo Z. Itzul.: Pilar Lopez eta A. Hibbert. Bartzelona.
- CONRAD, Joseph (1988b). *El espejo del mar*. Orbis. Itzul.: Javier Marías. Bartzelona.
- CONRAD, Joseph (1989). *La línea de sombra*. Anaya. Madril.
- CONRAD, Joseph (1990). *Crónica Personal*. Trieste. Itzul.: Miguel Martínez-Lage. Madril.
- CONRAD, Joseph (1993). *Bajo la mirada de Occidente*. Alianza. Itzul.: Barbara McShane eta Javier Alfaya. Madril.
- CONRAD, Joseph (1994a). *Azar*. Alianza. Itzul.: Miguel Martínez-Lage. Madril.
- CONRAD, Joseph (1994b). *El agente secreto*. Alianza. Itzul.: Alberto Martínez Adell. Madril.
- CRANE, Helen R. (1934). "My uncle Stephen Crane" in *American Mercury*, 121, XXXI. liburukia, urtarrila.
- CRANE, Stephen (1896). *The Little Regiment and Other Episodes of the American Civil War*. Appleton. New York.
- CRANE, Stephen (1898). *The Open Boat and other stories*. Heinemann, W. Londres.
- CRANE, Stephen (1925-27). *The Work of Stephen Crane*. Alfred A. Knoph. 6. liburukia. New York.
- CRANE, Stephen (1960). *The Red Badge of Courage and Others Writings*. Houghton Mifflin Co. Ed. Richard Chase. Boston.
- CRANE, Stephen (1963a). *The Complete Short Stories and Sketches of Stephen Crane*.

Doubleday. Ed. Thomas A. Gullason. Garden City, New York.

CRANE, Stephen (1963b). *The Work of Stephen Crane*. Russell & Russell. Ed. Wilson Follet. New York.

CRANE, Stephen (1966). *Maggie a Girl of the Streets*. Gainesville: Scholar's Facsimiles & Reprints.

CRANE, Stephen (1967a). *The Complete Novels of Stephen Crane*. Doubleday. Ed. Thomas A. Gullason. Garden City, New York.

CRANE, Stephen (1967b). *The Red Badge of Courage. A facsimile reproduction of the New York Press appearance of December 9, 1894*. Scholars's Facsimiles & Reprints. Ed. Joseph Katz. Grinesville, Florida.

CRANE, Stephen (1969). *The Notebooks of Stephen Crane*. The Bibliographical Society of the University of Virginia. Ed. Donald J. Greiner eta Ellen B. Greiner. Charlottesville.

CRANE, Stephen (1969-75). *The Work of Stephen Crane*. The University Press of Virginia. 10. liburukia. Ed. Fredson Bowers. Charlottesville.

CRANE, Stephen (1972). *The Complets Poems*. Ithaca. Cornell University Press. Ed. Joseph Katz.

CRANE, Stephen (1975a). *Bowery Tales*. University Press of Virginia. I. liburukia. Ed. Fredson Bowers. Hitzaur. James B. Colvert. Charlottesville.

CRANE, Stephen (1975b). "The Red Badge of Courage" in *The Works of Stephen Crane*. 2. liburukia. Ed. Fredson Bowers. Charlottesville.

CRANE, Stephen (1976). *The Red Badge of Courage: an Authoritative Text, Backgrounds and Sources, Criticism*. Norton. Ed. Sculley Bradley eta Donald Pizer. New York.

CRANE, Stephen (1979). *Maggie: A Girl of the Streets*. Norton. Ed. Thomas A. Gullason.

New York.

CRANE, Stephen (1981). *El rojo emblema del valor*. Anaya. Ed. Leopoldo Mateo. Itzul.: Micaela Misiego. Madril.

CRANE, Stephen (1983). *The Red Badge of Courage*. Avon Books. Ed. Henry Binder. New York.

CRANE, Stephen (1985). *La roja insignia del valor*. Gaviota. Ed. Francisco Martinez Garcia. Itzul.: Maria Luisa Gimenez Gracia. Madril.

CRANE, Stephen (1987a). *La roja insignia del valor*. Taifa Literaria. Itzul.: Jesus Zulaika Goikoetxea. Bartzelona.

CRANE, Stephen (1987b). *The Red Badge of Courage*. Doubleday. Ed. Thomas A. Gullason. Garden City, New York.

CRANE, Stephen (1991). *The Red Badge of Courage and other stories*. Penguin. New York.

CRANE, Stephen (1992). *Maggie*. Cátedra. Ed. Pilar Marín. Madril.

CRANE, Stephen (1994). *The Red Badge of Courage*. Wordsworth. Hertfordshire. UK.

CRANE, Stephen (1995). "The Blue Hotel" in *The Norton Anthology of American Literature*. Norton. Ed. Nina Baym. New York.

CROSLAND, Andrew T. (1975). *A Concordance to the Complete Poetry of Stephen Crane*. Gale Research Co. Ed. F.H. Howard-Hill. Detroit.

DAVENPORT, Guy (1992). "Christopher Benfey, The Double Life of Stephen Crane" in *The New Criterion*, 2, 11. liburukia, urria.

DAVIS, Linda H. (1995). "The Red Room: Stephen Crane and Me" in *The American Scholar*, 2. 54. liburukia, udaberria.

DAVIS, Robert Con (1981). *The Fictional Father: Lacanian Readings of the Text*. The University of Massachusetts Press. Amherst, Massachusetts.

DELBRANCO, Nicholas (1982). *Group Portrait: Joseph Conrad, Stephen Crane, Ford Madox Ford, Henry James and H.G. Wells*. William Morrow and Company. New York.

DELEUZE, Gilles (1984). *Spinoza, filosofía práctica*. Tusquets. Bartzelona.

DESCARTES, René (1988). *Discurso del Método. Meditaciones metafísicas*. Alianza. Itzul.: Risieri Frondizi. Madril.

DOOLEY, Patrick Kiaran (1993). *The Pluralistic Philosophy of Stephen Crane*. University of Illinois Press. Hitzaur. J. McDermott.

DOOLEY, Patrick Kiaran (1996). "The Humanism of Stephen Crane" in *The Humanist*, 1, 56. liburukia, urtarrilak 1.

DOR, Joël (1986). *Introducción a la Lectura de Lacan*. Gedisa. Itzul.: Margarita Mizraji. Buenos Aires.

DOREN, Mark Van eta MENCKEN, H.L. (1973). *Stephen Crane: The Critical Heritage*. Routledge & Kegan Paul. Londres.

ECO, Humberto (1986). *La estrategia de la ilusión*. Lumen. Bartzelona.

EDEL, Leon (1992). "Life Plans" in *The New Republic*, 26, 207. liburukia, abenduak 21.

ELLIS, Carolyn (1992). *Investigating Subjectivity: Research on Lived Experience*. Sage Focus. Newbury Park. California.

FAGES, Jean-Baptiste (1973). *Para comprender a Lacan*. Amorrortu. Itzul.: Matilde Horne. Buenos Aires.

FINE, D. (1973). "Abraham Cahan, Stephen Crane and the Romantic Tenement Tales of Nineties" in *American Studies. University of Kansas*, XIV, 95-107. orr., udaberria.

FOKKEMA, D.W. eta IBSCH, Elrud (1981). *Teorias de la Literatura del siglo XX*. Cátedra. Itzul.: Gustavo Dominguez. Madril.

FOLLET, Wilson (1925-27). *The Work of Stephen Crane*. Alfred A. Knoph, 12. liburukia. New York.

FORD, Ford Madox (1953). "Techniques" in *Southern Review*, ekaina.

FOUCAULT, Michel (1994). *Hermeneutica del sujeto*. Piqueta. Madril.

FRANKL, Viktor E. (1998). *El hombre en busca de sentido*. Círculo de Lectores. Itzul.: Diorki. Bartzelona.

FREDERICK, Harold (1896). "Stephen Crane" in *New York Times*, urtarrilak 26.

FREUD, Sigmund (1956). *Desilusion and Dream*. Beacon Press. Boston.

FREUD, Sigmund (1963). *The Problem of Anxiety*. Psychoanalytic Quarterly Press. New York.

FREUD, Sigmund (1979). "Inhibición, síntoma y angustia" in *Obras Completas*. Amorrortu. Buenos Aires.

FREUD, Sigmund (1980). "La escisión del yo en el proceso defensivo" in Amorrortu. Buenos Aires.

FREUD, Sigmund (1990). *Psicoanálisis*. Alianza. Madril.

FREUD, Sigmund (1995). *Paranoia y neurosis obsesiva*. Alianza. Itzul.: Luis Lopez-Ballesteros y de Torres. Madril.

FRIED, Michael (1987). *Realism, Writing, Disfiguration: on Thomas Eakins and Stephen Crane*. University of Chicago Press. New York.

FROHOCK, W.M. (1972). "American Realism and the Elgiac Sensibility: Stephen Crane

and Frank Norris" in *History and Fiction: American prose in the 19th. Century*.
Vandenboeck & Ruprecht. Ed. Alfred Weber eta Hartmut Grandel. Gottingen, Germany.

FRYCKSTEDT, O.W. (1962). "Stephen Crane in the Terderloin" in *Studia Neophilologica*,
XXXIV, 135-163. orr.

GALE, Robert L. (1966). *Barron's simplified approach to The Red Badge of Courage:
Stephen Crane*. Woodbury. New York.

GEISMAR, M. (1953). *Rebels and Ancestors: The American Novel, 1890-1915*. Houghton
Mifflin. Boston.

GEIST, S. (1987). "Stephen Crane" in *Diccionario de Autores Bompiani*. Planeta-Agostini.
Bartzelona.

GENDIN, Sidney (1995). "Was Stephen Crane (or anybody else) a Naturalist?" in *The
Cambridge Quartely*, 2. 24. liburukia.

GIBSON, Donald B. (1968). *The Fiction of Stephen Crane*. Carbondale, Southern Illinois
University Press. Hitzaur. Harry T. Moore.

GIBSON, Donald B. (1988). *The Red Badge of Courage. Redefining the hero*. Twayne.
Boston.

GILKES, Lilian (1960). *Cora Crane: A Biography of Mrs. Stephen Crane*. Indiana
University Press. Bloomington.

GILKES, Lillian (1969). "A Recent Book about Stephen Crane" in *Courier*, 31, 1-6. orr.

GOLEMAN, Daniel (1997). *Inteligencia emocional*. Circulo de Lectores. Itzul.: David
Gonzalez Raga eta Fernando Mora. Bartzelona.

GOMEZ PIN, Victor (1995). *La dignidad*. Paidos. Bartzelona.

GREEN, Melissa (1995). "Fleming's "Escape" in The Red Badge of Courage: A Jungian

analysis" in *American Literary Realism (ALR) 1870-1910*, 1, 28. liburukia, udazkena.

GROSS, Theodore L. eta WERTHEIM, S. (1971). *Hawthorne, Melville, Stephen Crane: a Critical Bibliography*. Free Press. New York.

GULDAGER, Carl (1994). "Stephen Crane. The Wanderer" in *Modern Age*, 1, 37. liburukia, udazkena.

GULLASON (1961). "Thematic Patterns in Stephen Crane's Early Novels" in *Nineteenth Century Fiction*, XIV, 59-67. orr., ekaina.

HARRIMAN, Karl (1900). "A Romantic Idealist: Mr. Stephen Crane" in *American Mercury*, 4, apirila.

HARRIMAN, Karl (1934). "Last Days of Stephen Crane" in *New Hope*, 2, urria.

HAWTHORN, Jeremy (1983). *Multiple Personality and the Disintegration of Literary Character*. Edward Arnold. Londres.

HAYES, Kevin J. (1990). "How Stephen Crane Shaped Henry Fleming" in *Studies in the Novel*, 3, 22. liburukia, udazkena.

HEGEL, G.W.F. (1941). *Phénoménologie de l'Esprit*. Aubier. I-II. liburukiak. Itzul.: Jean Hyppolite. Paris.

HEGEL, G.W.F. (1984). *Lógica*. Orbis. I-II. liburukiak. Bartzelona.

HOFFMAN, D.G. (1957). *The Poetry of Stephen Crane*. Columbia University Press. New York.

HÖLDERLIN, Friedrich (1983). "Notas sobre Antígona" in *Ensayos*. Hiperión. Madril.

HOLTON, M. (1972). *Cylinder of Vision: The Faction and Journalistic Writings of Stephen Crane*. Louisiana State University Press.

HORSFORD, Howard C. (1986). "He was a man" in *New Essays on The Red Badge of Courage*. Cambridge University Press. Ed. Lee Clark Mitchell.

HOWELLS, William Dean (1902). "On Crane and Norris" in *North American Review*, CLXXV, 770-771. orr., abendua.

JANKELEVITCH, V. (1986a). *Les vertus et l'amour*. Champs-Flammarion. Paris.

JANKELEVITCH, V. (1986b). *Traité des vertus*. Champs-Flammarion. Paris.

JAUSS, Hans Robert (1976). *La literatura como provocación*. Península. Itzul.: Juan Godo Costa. Bartzelona.

KANT, Inmanuel (1913). *Crítica de la Razón Práctica*. Librería General de Victoriano Suarez. Itzul.: E.Miñana Villagrasa eta Manuel G.Morente. Madril.

KANT, Inmanuel (1969). *La religión dentro de los límites de la mera Razón*. Alianza. Itzul.: Felipe Martinez Marzoa. Madril.

KAPLAN, Justin (1968). "The Pink Badge of Courage" in *Atlantic*, 222, 121-123. orr., iraila.

KATZ, Joseph (1966). "The Maggie Nobody Knows" in *Modern Fiction Studies*,

KATZ, Joseph (1969). "Stephen Crane" in *American Literature*, 40, 565-567. orr.

KATZ, Joseph (1972). "Resources for the Study of Stephen Crane" in *Stephen Crane in Transition. Centenary Essays*. Northern Illinois University Press. Ed. Joseph Katz.

KAZIN, Alfred (1968). "Stephen Crane, Inc." in *New York Review of Books*, 11, 12-16. orr., abenduak 5.

KAZIN, Alfred (1970). *On Native Grounds*. Harcourt, Brace, Jovanovich. New York.

KERBRAT-ORECCHIONI, Catherine (1980). *L'enonciation de la subjectivité dans le*

langage. Libraire Arman Colin. Paris.

KERNAN, Alvin (1990). *The Death of Literature: "The Red Badge of Courage"*. Yale University Press.

KIERKEGAARD, Sören (1953). *Diario de un seductor (arte de amar)*. Austral. Itzul.: Valetin de Pedro. Buenos Aires.

KIERKEGAARD, Sören (1967). *El concepto de la angustia*. Austral, Espasa Calpe. Madril.

KLEINBAUM, N.H. (1992). *El Club de los Poetas Muertos*. Plaza & Janes. Bartzelona.

KNAPP, Bettina Liebowitz (1987). *Stephen Crane*. Ungar. New York.

KOYRE, Alexandre *Introducción a la lectura de Platón*. Alianza. Madril.

KREMER-MARIETTI, Angèle (1987). *L'Éthique*. Presses Universitaires de France (PUF). Paris.

KRISTEVA, Julia eta beste (1985). *El trabajo de la metáfora*. Gedisa. Bartzelona.

KWIAT, J. J. (1952). "Stephen Crane and Painting" in *American Quarterly*, IV, 331-338. orr., negua.

KWIAT, J. J. (1953). "The Newspaper Experience: Crane, Norris and Dreiser" in *Nineteenth-Century Fiction*, VII, 99-117. orr., iraila.

KWIAT, J. J. (1976). "Stephen Crane and Frank Norris: The Magazine and the Revolt in American Literature in the 1890's" in *Western Humanities Review*, XXX, 309-322. orr., udazkena.

LACAN, Jacques "Séminaire" in *Sciliced*, 6-7,

LACAN, Jacques (1954). "Séminaire" in ekainak 30.

LACAN, Jacques (1964). "Séminaire" in otsailak 19.

LACAN, Jacques (1966). *Écrits*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1973a). *Le Séminaire. XI. liburukia*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1973b). "Séminaire" in maiatzak 15.

LACAN, Jacques (1975). *Les Écrits. Séminaire I*. Seuil. Paris.

LACAN, Jacques (1979). *La familia*. Argonauta. Itzul.: Victor Fishman. Bartzelona.

LACAN, Jacques (1988). *La Formation du concept de sujet (1932-1949)*. Presses Universitaires de France. Ed. Bertrand Ogilvie. Paris.

LACAN, Jacques (1989). *Escritos*. Siglo XXI. 2. liburukia. Mexiko.

LACAN, Jacques (1992). *Seminario (17)*. Paidós. Bartzelona.

LACAN, Jacques (1995). *El yo en la Teoría de Freud y en la Técnica Psicoanalítica*. Paidós. 2. liburukia. Ed. Jacques-Alain Miller. Itzul.: Irene Agoff eta Diana Rabinovich. Buenos Aires.

LAFRANCE, M. (1971). *A Reading of Stephen Crane*. Oxford University Press. New York.

LAPLANCHE, J. eta PONTALIS, J.-B. (1973). *Vocabulaire de la psychoanalyse*. Presses Universitaires de France (PUF). Paris.

LEEB, David (1966). *Pennant Key-indexed Study Guide to Stephen Crane's The Red Badge of Courage*. Educational Research Associates. Philadelphia.

LEFEBVRE, Henri (1983). *La presencia y la ausencia. Contribucción a la teoría de las representaciones*. Fondo de Cultura Económica (FCE). Mexiko.

LINBERG-SEYERSTED (1987). *Ford Madox Ford and his Relationship to Stephen Crane*

and Henry James. Atlantic Highlands. Humanities Press International. New York.

LINSKEY, Winifred (1949). "Crane's *The Red Badge of Courage*" in *Explicator*, 8, 18. orr., abendua.

